

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lezo



Aurkibidea

Udalerria: Lezo

Sarrera



Gipuzkoako ipar-ekialdeko Oarsoaldeko udalerria da. Pasaia, Erreterria, Oiartzun, Irun eta Hondarribia ditu mugakide. Baserriko bizimodua ia desagertzeaz dago. XX. mende hasieratik lantegi ugari izan ditu Lezok baina hazkunde industrial nabarmenena Frankismo garaian izan zen, horrek inmigrazioa bultzatu zuen eta herrigunearen inguruan auzo eta kale berriak eraiki ziren. Egun hainbat lantegi desagertuta daude baina Lezok industri eremu zabala izaten jarraitzen du. Lezoko hizkera maiz gipuzkeraren eta iparraldeko goi-nafarreraren arteko trantsizio-aldaeratzat sailkatu ohi da.

Argazkia: David Pérez.

- **Biztanleak:** 6.054
- **Euskaldunak:** %53,85

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **100**
- Zintak: **120**
- Pasarteak: **2.374**
- Transkribatutakoak: **73**
- Audioak: **352**
- Bideoak: **2.004**

Proiektuak

- Badiako ikastola txikiak
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Lezoko hizkeraren grabaketak
- Ordiziako ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Rafael Agirre Legorburu (1926)



Kale Nagusiko Arrieskalleta izeneko etxean jaio zen Rafael. Gurasoak Lezokoak zituen. Ama Herrikoetxe baserrikoa eta aita kalekoa. Txikitan, haurtxoa zela gaitz larriren bat pasa eta bizkar hezurretik elbarri gelditu zen Rafael. 1937 urtean, hamar urte zituela, ama eta anaia hil zitzaizkion tifusarekin. Orduan Erreterriako fraideetan zebilen eskolan eta eskola utzi behar izan zuen. Ama hil eta Hondargain etxera joan ziren bizitzera eta han oilotokia jarri zuen Rafaellek eskola utzita. Aita epileptikoa zen eta Arrasateko Santa Agedan bizitu zen urte askoan. Ama bizi zela denda txiki bat zuten Kale Nagusian eta atzealdean arotz lanetarako tresnak izaten zituen aita, arotza baitzen, Rafael mutikoa zela han aritzen zen bere lanak egiten. Hamalau urterekin Erreterriako Urbietaren ebanisterian hasi zen lanean. Handik Trintxerpeko Andonegiren itsasontzi enpresara pasa zen arotz gisa, itsasontzietan mota guztietako egur konponketak egiten zituen eta etxetan ere aritzen zen. Franco hil zen urtean, 51 urte zituenean enpresa itxi eta langile guztiak bidali zituzten. Orduan Erreterriako Elizalden hasi zen lanean etxetan sarrerako-atoko sarraillak jartzen lana utzi zuen arte. Lezoar batekin ezkondata dago eta bi seme-alaba dituzte.

Xebastiana Agirre Telletxea (1927)



Lezoko Kale Nagusiko Hondargain etxean jaio zen. Aita etxe horretakoa zuen; ama, berriz, nafarra zen, jostuna. Lehendabiziko urteetan aiton-amonekin bizi izan ziren. Ama gazterik hil zen eta aita ataundar batekin berriro ezkondu zen; orduan aitona-amonak utzi eta beste etxe batera joan ziren bizitzera, han beste seme bat izan zuten. Baratzeara zuten etxe ondoan, baita animalia batzuk ere. Txerrikumeak hazten zituzten gero Erreterria-Oreretako harakin bati saltzeko. Aita lanbidez mekanikoa zen, itsasontzien motorrak konpontzen zituen. Zazpi urtera arte Agustina Lizarazu andereñoarekin ikasi zuen Xebastianak euskaraz; gero ordea, zazpi urtetik aurrera, herriko eskola publikoan ikasi zuen gaztelaniaz. Eskola utzi zuenean, Erreterria-Oreretako legamia-fabrikan hasi zen lanean. Josten ere ikasi zuen, eta galtzak egiten zituen etxean kanporako. Elias Salaberria, Lezoko pintore famatuaren bizilaguna zen Xebastiana eta askotan egoten zen pintorearen estudioan. Eliasek pintatutako euskal senar-emazteen koadrorako Xebastiana izan zen emakumea pintatzeko modeloa beste mutil gazte baten ondoan. Pintorearen aurrean jarri eta modelo egoteko arratsalde batzuk libratzeko baimena eskatu behar izan zuen fabrikan. 1945. urtean ezkondu zen Xebastiana Erreterrian bizi zen nafar batekin. Bi seme-alaba dituzte. Oso kantuzalea da.

Joxe Luix Agirretxe Mitxelena (1969)



Euskal Filologian lizentziatua. Lezoko Oroitzene AEK Euskaltegiaren sortzaileetakoa. Euskara elkartearen mugimenduaren baitan herrietako hedabideen sorreran eta kudeaketan jardun zen. 1999ko ekainaz geroztik Oarsoaldea Garapen Agentziaren Euskara Sailaren arduraduna. "[Lezoko euskararen azterketa](#)" lanaren egilea, Imanol Esnaolarekin batera. Lezoko ikastolako eta Pasaia-Lezoko Lizeoko ikaslea izan zen eta ikastolei buruzko elkarriketa egin genion, Mikel Susperregirekin batera.



Nieves Albisu Irastorza (1948)

Mari Kruz Aranburu Matxain (1947)



Zaldibian jaioa, baserri batean. 17 urterekin Lezora joan zen zerbitzera. Migel Garbizu lezoarrarekin ezkondu zen bertan. Hiru seme-alaba izan zituzten. Lezoko ikastolaren bultzatzaileetako bat izan zen, senarrarekin batera, eta horri buruz elkarriketatu genuen.

Bernarda Arrastua Lekuona (1922-2014)



Bernardina Arriaundi baserrian jaio zen, Lezoko Gaintxurizketagoikoa bailaran. Ama Oiartzungoa zuen; eta aita, berriz, Arriaundi bertakoa. Zortzi urte zituenean, ama hil zitzaion eta aita berriro ezkondu zen hiru seme-alaba zituen emakume batekin. Jaio zenetik, Arriaundin bizi da Bernardina, eta haurra zela hasi zen baserriko lanetan: egunero-egunero, Pasai Antxora esnea saltzera joatea zuen eginbehar. Horretarako, marmitak astoxestotan sartu eta Gaintxurizketako Errekalde bailarako tren-geltokiraino eramaten zituen, gero han trena hartu eta Pasai Antxora joateko. Ezkondu eta gero ere, esne-salmentan jarraitu zuen urte askoan, harik eta debekatu zuten arte. Bailarako batekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen: hiruretako bat trikitilaria zen, baina gazterik hil zen. Beste bi seme-alabak baserrian bizi dira berarekin. Oso kantuzalea da Bernardina, eta oso gogoko du duela urte asko baserriko ganbaran maleta zahar baten barruan aurkitu zuen bertso-liburuxkatik bertso zaharrak kantatzea. Beraien aurrekoak eta beraiek ere maizterrak izan ziren urte askoan; baina, gero, baserriaren jabetza izatea lortu zuten.

Mari Karmen Arrastua Sarasola (1944)



Lezon jaioa, goiko elizako inguruan. [Maria Luisa Navarro](#) eta [Lurdes Esnaola](#)arekin batera egin zitzaion elkarriketa, Lezoko kontuak jasotzeko. (argazkian eskuinekoa)

Mari Lurdes Arrizabalaga Pikabea (1950)



Lezon jaioa, Kale Nagusian, Arpire-enea etxean (beraiek "Andremaestraenea" deitzen zioten. Zortzi senide ziren etxean. Umetako jolasak, etxeko bizimodua eta herriko ospakizunak ditu hizketagai.

Gregorio Arruti Legorburu (1927)



Lezoko Herriondo bailarako Bordatxo baserrian jaio zen Gregorio. Aita Bordatxo bertakoa zuen eta ama Lopene baserrikoa. Zortzi urte zituenerako hasia zen aitarekin itzain-lanetan, idi parearen aurretik jarrita aretzen edo goldatzen aritzen zirenean. Lezoko eskolara joaten hasi zen, baina gero Erreterriako fraideetara bidali zuten eta Miguel Zozaya irakaslearekin ere aritu zen klase partikularrak hartzen. Bordatxo sagardotegia izan zen, betitik ezagutu zuen bertan sagardotegia Gregoriok: arreba eta lehengusuarekin batera sagardo pitxarrak ateratzen edo kobratzen aritzen zen. 36ko gerra etorri zenean, sagardotegia itxi behar izan zuten. Gerra garaian Jaizkibelen zebiltzan langile-batailoietakoei baserriko goiko solairuan egiten zuten lo egunero eta baserriaren bazter batean sukalde moduko bat zuten soldaduek jatekoa prestatzen. Gerra ondoren berriz ireki zuten sagardotegia baina aurretik ezagututako giroa aldatu egin zela kontatzen du Gregoriok. Geroago, Lezoko kalean dagoen Txerrimuño etxean saltzen zuen baserrian egindako sagardoa. Gaztea zela, Pasai Donibanen arrain-deskargan lan egindakoa da baina hura uztean bere gogoko lanean aritu izan da, baserrian. Esnea eta haragitako behiak salduz ateratu dute irabazpidea. Lehenengo bere ama joaten zen esnea saltzera eta gero arreba aritu zen. Urte asko daramatza arrebak Erreterriako plazan barazkiak saltzen baina gero eta zailagoa zaie salmentari eta baserriko lanbideari eustea.

Bitoriana Artola Agirre (1918-2022)



Lezoko Kale Nagusiko Ataundarrenekua deitzen zuten etxean jaio zen, ama, Frantziska Agirre, ataundik etorria baitzen; aita, berriz, Joakin Artola, Erretereriakoa zen. Zortzi seme-alaba izan zituzten eta Bitoriana zen gazteena. Bitorianak bost urte zituenerako anaia zaharrena etxera ezkondu zen eta bost urteko tartearekin jaio zen iloba. Haurra zela hil zitzairen aita eta ama berrogeita hiru urterekin alargun geratu zen. Familia aurrera ateratzeko, txerriak hazten zituzten etxearen atzealdeko zelaian zuten txabolan eta gero Erretereriako plazako harakin bati saltzen zizkieten. Osabak sagardotegia zuen etxepean eta hango giroa oso gustukoa zuen nahiz eta emakumeak ez ziren sagardotegietan ibiltzen. Hamalau urterekin hasi zen lanean Erretereriako betun fabrika. Gero Alkoholerara aldatu zen eta han ezagutu zuen bere senarra izango zena. Elkarrekin hasi eta hiru urtera ezkondu ziren eta lau seme-alaba izan zituzten. Txikitatik izan ditu ikusmen eta entzumen arazoak; hala ere, haurtzaroko jolasak eta hainbat kanta ilusio bereziarekin gogoratzen ditu, baita osabaren sagardotegian izaten zen giroa ere. Asko gustatu izan zaio irakurtzea nahiz eta ikusmenak ez dion askorik lagundu.

Inazio Artola Agirre (1913-2001)

Joxepatxo Artola Zuloaga (1932-2018)



Lezoko Kale Nagusian jaio zen Pantxika Txikienea etxean, herrian Ataundarrenekoa bezala ezagutzen zen etxean. Ama Lezoko Gabiria baserrikoa zen; aita, berriz, Erreterian jaioa zen, baina berehala Lezora bizitzera joandakoa familia osoarekin. Aitak Lezoko "Real Asturiana de Minas" egiten zuen lana eta fabrika horretako langileek lantegiaren lurretan baratzea egiteko aukera zuten. Zortzi senide ziren eta Joxepatxo bosgarrena izan zen. Zazpi urterekin hasi eta hamalau urte bete arte joan zen eskolara, gogoan ditu Dolores Lopez maistrak jartzen zizkien zigorrak. Erretereriako Esmalterian egin zuen lan hamabi urtez. Logroñokoa du senarra nahiz urte asko eraman Lezon bizitzen. Pantxika Txikienean bizi ziren senarra eta biak elkarriketa egin zitzaionean.

Lorenzo Balda Agirre (1936)



Azkaraten jaioa, Nafarroan, gerra zela medio: gurasoak Lezon bizi ziren, baina aita borrokan zegoen eta ama bere jaiotetxera joan zen erditzera. Ama neskame joana zen Donostiara. Zortzi senidetan zaharrena zen Lorenzo, eta mutil bakarra. Gaintzan egon zen hiru urtez, mutikoa zela. Lezon bizi izan zen, 1968an Trintxerpera ezkondu zen arte, Erreterriako Ana Maria Etxarterekin. Harakin lanetan ibilia, 13 urtetatik erretiratu arte.

Amalia Cordero Corral (1925)



Lezoko Zubitxo kaleko etxe batean jaio zen Amalia. Aita Donostiakoa zuen eta ama Hondarribikoa, gaztetan Erreterria-Oreteran neskame ibilia. Aitak Erreterria-Oreterako kaputxinoetan egiten zuen lan, baina Amaliak ez zuen ezagutu. Ama gazterik alargun gelditu zen hiru umerekin. Zubitxo kaletik Gurutze Santuaren plazara joan ziren bizitzera. Han apopiloa izaten zuten etxean. Amak antxoak eta sardinak saltzen zituen etxez etxe. Amaliak Lezoko eskola publikoan ikasi zuen, Dolores Lopez izan zuen maistra. Hamasei urterekin hasi zen lanean Donibaneko Pisben, eta han ezagutu zuen bere senarra izango zena, Juan Mari Sein, Pasai Donibanekoa. Lantegi ugaritan egin zuen lan Amaliak, Pisben, Pakersen, eskabetxerian (arraina kontserban jartzen) eta, azkenik, Erreterria-Oreterako Esmalterian, han igaro zituen urte gehien. Senarra lehendabizi Pisben aritu zen lanean eta ezkondu ondoren Lezoko "Industrias Navarrasen". Sei seme-alaba izan zituzten. Lehendabiziko hirurak jaio ondoren, Esmalterian lan egiteari utzi zion Amaliak. Senarra 36ko gerran gudari izandakoa zen, 20 urte zituenean harrapatu zuten eta langile batailoietan ibili zen gatibu. Horri buruz ez zion inoiz hitz egin Amaliari.

Boni Egibar Albisu (1940)



Herriguneko pilotalekuaren alboan dagoen Maine izeneko etxean jaio zen Boni. Hamar urte bete arte han bizi izan zen gurasoekin eta beste hiru anai-arrebekin. Gerora Bordatxo-Txoko izeneko baserrira aldatu ziren. Mutikotan kaian zegoen zerrategiko enborren gainean jarrita uretan jolasten ziren, goiko elizari bueltaka egiten zituzten lasterketak, habitan edo angiletan ere ibiltzen ziren. Hamasei urtera arte ikasi zuen herriko eskola publikoan lehendabizi eta Erreterrian Aierbeneko ahizpek zuten eskolan gero. Hamasei urterekin Esmalterian hasi zen lanean. Auzolanean Lezoko baserritarren artean sortu zuten pentsu-kooperatiban parte hartu zuen.

Ixiar Egibar Albisu (1951)



Bordatxo-Txoko baserrian jaio zen Ixiar, 1951ko apirilaren 24an. Etxe-Txiki izenarekin ere ezaguna da Lezon Bordatxo-Txoko baserria. Ama lezoarra zuten eta oiartzuarra aita. 6 senide izan ziren. Ixiarren anaia Boniri ere elkarriketa egin genion, zazpi urte atzera. Euren baserri inguruak denboran zehar jasandako aldaketei buruz hitz egiten du Ixiarrek nagusiki, bai eta auzokoen bizi-ohituren mudantzari buruz ere.

Lurdes Esnaola Legasa (1961)



Lezon jaioa, Kale Nagusian. Ama lezoar nafarra du: Legasan jaioa baina hiru urtetatik Lezon bizi izan zena. Aita, berriz, Erreenteriakoa. Aita Lezoko ikastolako sortzaileetako bat izan zen eta Lurdesi ere ikastolari buruz egin genion elkarriketa. Umetan Manoli Larrearekin eta Maria Karmen Goñirekin ibili zen ikastolan eta gero Erreenteriako ikastolan jarraitu zituen ikasketak.

Lurdes Esnaola Sein (1950)

Oiartzunen jaioa. 47 urte daramatza Lezon bizitzen. [Mari Karmen Arrastua](#)rekin eta [Maria Luisa Navarro](#)rekin batera egin zitzaion elkarriketa, Lezoko kontuak jasotzeko.

Joxe Kruz Esnaola Urkiri (1930)



Erreenterian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Itziarkoa. Gerra hasi zenean, herritik alde egin behar izan zuten. Hamar urterekin Itziarrera joan zen eta 20 urtera arte hantxe egon zen. Lezora ezkondu zen, 28 urterekin (emaztea jaiotzez Legasakoa, nafarra, baina hiru urtetatik Lezon bizi zena). Luzuriagan egin zuen lana. Lezoko ikastolaren sortzaileetako bat izan zen, Mikel Salaberriarekin batera, eta biak elkarrekin elkarriketatu genituen.

Martxeli Etxeberria Urcelaieta (1928)

1928an jaio zen Lezon. Ama Lezokoa eta aita adunarra zituen; 3 anai-arrebatan bigarrena zen bera. Eskolan Lezoko eskola publikoan ibili zen. Eskola amaitu zuenean Lezon ume-zaintzaile eta ondoren Donostian Antton Balberde kantari ezagunaren etxean neskame lanetan aritu zen. Gaztetatik lagun artean eta ondoren mendizale elkarteetan ibili da. Ataungo senarrarekin ezkondu eta Ataun eta Ordizian bizi izan da.

Ander Etxebeste Lizarazu (1957)



Aita Pasai Donibanekoa zuen eta ama bertakoa, Lezokoa. Seme bakarra. Manuela Larrea irakaslearen eskolan ikasi zuen umetan, euskaraz. Irakasle ikasketak egin ondoren, Lezo-Pasaia Lizeoan egin zuen lana. Lezoko ikastolari buruzko elkarrizketa egin genion, Joakin Goiarekin batera.

Joxe Mari Etxegoien Esnaola (1951)



Lezoko Etxeberri baserrian jaio zen Joxe Mari, 1951ko martxoaren 14an. Sei senide izan ziren, eta Argentinan jaiotakoa zuten ama; aita, aldiz, Lezoarra. Esne-partitzen urte askoan jarduna, korrikalari izandakoa da Joxe Mari, eta kirol horretan marka aipagarriak eginak ditu. Lezoko Etxeberri jatetxea zabaldu zuen beste hiru soziorekin batera. Joxe Mariren jaiotetxearen lurretan altxa zuten Etxeberri jatetxea bera ere. Elkarrizketa egin genion garaian, jatetxea martxan zen oraindik, ordurako Joxe Mari erretiroa hartuta bazegoen ere.

Margari Garbizu Aranburu (1927)



Lezon jaioa, Txirristan. 13 senidetan zaharrena. Daniel Garbizu zuen aita, poeta eta bertsolaria. 12 urte zituenean, Herrerara joan ziren bizitzera, eta bizimodua goitik behera aldatu zitzaion. 13 urterekin sagardotegi batean egon zen lanean, eta 14rekin Contadores lantegian hasi zen lanean. 27rekin utzi zuen, ezkontzeko. Lezoko kontuez hitz egin du batez ere, umetako sasoiaz.

Joxe Garmendia Gaztelumendi (1933)



Lezoko Irurtzun baserrian jaio zen, baina industrialdea egiteko bota zuten baserria. Aita Irurtzungoa bertakoa zuen eta ama Lezoko Alarguntza baserrikoa. Joxe zazpi bat urte zituenerako garia edo artoa ereiteko goldean aritzen zen idi parearen aurretik jarrita. Aita deskarga lanetan aritzen zen Pasai Antxoko portuan. Joxek zazpi urte zituela hil zitzairen aita. Inguruko baserrietan bezala sagasti ugari zituzten eta sagarra saltzen zuten sagardotegietara. Baserri ondoko eskolara joan zen, Unera, 11 urtera arte. Maistra euskalduna zen eta euskaraz ikasi zuen. Arrebarekin batera hamar urte zituela esnea saltzera joaten zen kalera. Soldadutzatik bueltatu zenean bost urtez igeltsero aritu zen eta gero hamabi urtez Erreenteriako Laneran. Hogeita bederatzi urte zituela ezkondu zen Olamarta baserriko Margarita Lopetegirekin eta bertan jarri ziren bizitzen. Bi alaba dituzte eta baserritik bizi dira. Haragitarako behiak hazten dituzte, esnea eta oilaskoak ere saltzen dituzte. Joxek idi parearekin egiten du lan, goldatzen edo aretzen aritzen denean. Beti izan du idi pareia baserrian.

Maritxu Garmendia Gaztelumendi (1937-2019)



Lezoko Irurtzun baserrian jaio zen Maritxu. Aita Irurtzun bertakoa zuen; eta ama, berriz, Alarguntza baserrikoa. Bederatzi anai-arrebatan zortzigarrena zen bera. Maritxuk hiru urte zituenean hil zitzaion aita. Uneko eskolan ikasi zuen Bittori maistrarekin. Uneko eskola itxi egin zuten, eta Erreenteriako Rosan eskolan ibili zen bizpahiru urtez. Hamaika urterekin hasi zen baserriko esnea saltzen Lezon, etxez etxe. Goizero egiten zuen lan hori. Erreenteriako Biteri kalean ezagutu zuen bere senarra izango zena, Bidaniko Agustin Otaegi. Pasaiako portuan egiten zuen lan; eta, gerora, Donostiako kontadorearen aritu zen. Ezkondu zenean, amak baserrian geratzea nahi zuen eta hantxe jarri ziren bizitzen, Irurtzunen. Senarra lan egin ezinean geratu zen, ezindua; eta, familia aurrera ateratzeko, baserrian taberna jartzea bururatu zitzaion Maritxuri. Anaia igeltseroaren laguntzarekin, taberna egin zuten baserrian, eta hantxe egiten zuen lan Maritxuk egunero-egunero, jaiegunik gabe, otorduak prestatzen. Geroago, baserriaren ondoan pabilioiak eraiki behar zituztela-eta, baserria bota egin zuten. Eraikitzen ari ziren industrialdean Irurtzun-Berri izeneko jatetxea ireki zuten; eta, bizi ere, jatetxearen gainean bizi izan da.

Martxiel Garmendia Legorburu (1926-2015)



Patxilaborda baserrian jaio zen Martxiel. Aita bertakoa zuen eta ama berriz inguruan dagoen baserri batekoa, Juan Martindegikoa. Sei anai-arreba izan ziren baina bi arrebak oso txikitan hil ziren beste lau anaietan Martxiel da zaharrena. Uneko eskolan, Gaintxurizketa bailarako neska-mutikoak ibiltzen ziren eskolan ikasi zuen mutikotan zortzi urterekin hasi eta hamaika urtera arte. Gogoan du Martxielek zortzi urterekin hasi zenean euskaraz irakasten ziela maistrak. Gero 36ko gerra etorri zenean bukatu zela euskaraz ikastea eta handik aurrera gazteleraz irakasten zietela. Hamalau urterekin mendiko lanetan aritu zen Jaizkibelen pinu-zuloak egiten. Gero hamazazpi urterekin Erretereria-Oreretako legami-fabrika hasi zen lanean eta han aritu zen berrogei urtez erretiratu zen arte. Ezkonduta dago eta emaztea Hondarribikoa da, Guadalupen ezagutu zuten elkar, hango festetan, Martxiel hemezortzi hilabetez han aritu baitzen soldadu. Nahiz eta baserritik kanpo lan egin, beti hazi izan dituzte txekorrak haragitarako eta orain ere badituzte. Egun, semea, erraina eta bilobekin bizi dira baserrian.

Maddi Garmendia Lopetegi (1929-2019)



Lezoko Zubitxo kalean jaio zen Maddi. Aita Pasai Donibanekoa zuen eta ama Lezoko Burruntane baserrikoa. Aita guarda-lanetan aritzen zen Pasaiko portuan. Hiru ahizpa izan ziren etxean, Maddi erdikoa zen. Oso gaztetxo zirela, familia osoa kaletik amaren jaiotetxera, Burruntanera, joan zen bizitzera. Hamalau urtera arte ikasi zuen Lezoko eskola publikoan eta hamasei urterekin Erretereria-Oreretako Lino fabrika hasi zen lanean. Igandetan Erretereria-Oreretako Biteri kalean gora eta behera zebiltzala egiten zuten mutiletan. Han hasi zen bere senar izango zenarekin. 1952an ezkondu ziren eta Elias Salaberria kalean, Saizabal etxean, jarri ziren bizitzen. Senarra jela fabrika eta gero urte askoan Pekinen aritu zen lanean, eta tarteka Lopeneko harrobian orduak sartzen zituen. Ezkondu eta gero, 24 urterekin, lana utzi zuen Maddik. Lau seme-alaba izan zituzten.

Elena Garmendia Pikabea (1922-2006)

Maddi Garmendia Salaberria (1924)




Maddi Lezoko Donibane kalean jaio zen. Aita Donibane Kalekoa zuen eta ama Lopene baserrikoa. Zazpi senidetan laugarrena zen bera. Errenteriako Esmalterian egiten zuen lan aitak, baina bi txerri eta baratzea ere bazituzten etxean. Bospasei urterekin hasi zen eskolan eta gogoan du euskaraz hitz egiteagatik zigorrak jartzen zizkien maistra gaizto bat. Kristau dotrina, berriz, Agustina Lizarazurekin ikasi zuen euskaraz. Hamalau urterekin eskola utzi eta haurrak zaintzen hasi zen. Laster etorri zitzaion Errenteriako Alkoleran lanean hasteko aukera. Bertan pakete-egilea izan zen. Bere etxe ondokoa zuen senarra, bizilaguna. Ezkonduta gizonaren etxean jarri ziren bizitzen. Bi seme-alaba izan zituzten.

Miren Garmendia Urzelaieta (1936)



1936. urteko martxoaren 27an jaio zen Miren, Lezon, eta 4 senideko familia batean hirugarrena izan zen bera. Baserritarrak ziren aita eta ama, lezoarrak biak: Irurtzun baserriko aita, eta Alarguntzakoa ama. Lezoko kaleko hainbat jakingarri kontatzen ditu Mirenek, eta baita berak fabrikari lanean jardundako 15 urteetan zehar bizitutako hainbat konturen berri ere. Horrez gainera, hezkuntza, erlijioa, hizkuntza, Lezoko Gurutze Santua eta beste hainbat gai ditu mintzagai.

Juakina Gaztelumendi Urdanpilleta (1940)



Alarguntza baserrian jaioa, Gaintxurizketa gainean. Ama Oiartzungoa zuen, aita bertakoa. Hura gazte hil zen, eta ama bakarrik geratu zen bost senideen kargu. Auzoko eskolan ibili zen Juakina, 14 urtera arte. Hasieran, Pasai Antxora joaten ziren tratua saltzera; eta, gero, Errenteriara. Josten ere ikasi zuen. Irungo Usategieta baserrira ezkondu zen, [Joxe Manuel Tolosa](#) rekin. Zortzi seme-alaba izan zituzten.

Miren Gezala Sagarzazu (1912-2003)

Arantxa Goia Artola (1940)



Lezoko Alaietxe etxean jaioa, Kale Nagusian. Ama Lezokoa zuen eta aita, berriz, Zeraingoa. 11 senidetan laugarrena izan zen, baina lehenego hirurak oso umetan hil zirenez, bera izan da zaharrena. Eskola publikoan ibili zen, 10 urte bete arte: orduan umezain hasi zen; arratsaldean soilik joaten zen eskolara, laboreak egitera. 14 urterekin Erreterian hasi zen lanean, "Fabrika Haundia" deitzen zioten ehun lantegian. Pekin torloju lantegian ere ibili zen aldi batean. 23 urterekin ezkondu zen, auzoko mutil batekin (umetatik ezagutzen zuten elkar): [Manuel Olasagasti](#)rekin. Senarrak arrandegia zuen, eta hantxe ibili zen lanean Arantxa ere. Arrandegia itxi zutenean, Hondarribian segitu zuten lanean biek, arraina saldu eta erosten. Zazpi seme-alaba izan zituzten. [Margari Goia](#) ahizpa ere elkarriketatuta dago.

Joakin Goia Artola (1956)



Ama Lezokoa zuen eta aita Zeraingoa, artzaina. 11 senidetan txikiena. Umetan Manuela Larrearen eskolan ibili zen. Lezoko ikastolaren historia jasotzeko elkarriketatuta genuen, Ander Etxebesterekin batera.

Margari Goia Artola (1946)



Lezoko Alaietxe etxean jaioa, Kale Nagusian. Ama Lezokoa zuen eta aita, berriz, Zeraingoa. 8 senidetan laugarrena izan zen (11 izan ziren guztira, baina lehenego hirurak oso umetan hil ziren). Eskola publikoan ibili zen, eta josten ere ikasi zuen, Erreteriako jostun batekin. 14 urterekin Erreteriako manta lantegian hasi zen lanean. Dendari moduan ere jardun zuen aldi batean, Erreterian bertan. 1973. urtean Lizarrako mutil batekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten. Senarra Lizarrakoa bazen ere, Lezora joan zen bizitzera eta laborategi batean hasi zen lanean. Mendira joatea izan du zaletasun gaztetatik. Bere ahizpa zaharrena, [Arantxa Goia](#), ere elkarriketatuta genuen.

Fernantxo Intxaurrendieta Aizpurua (1947)



Kale Nagusian jaioa, Atzeko Aten. Ama Altzakoa zuen (haren aita Altzako medikua zen) eta aita, berriz, Lezokoa. Arotza zen lanbidez, aitona bezalaxe. Amona (aitaren ama) Agustina Lizarazu andereñoa izan zen (Lezoko kale batek haren izena dauka). Sei senidetan bigarrena izan zen Fernantxo. Herri eskolan ikasi zuen, eta ondoren Donostian ere aritu zen ikasten aldi batez, fraideekin. Ogibide bat ikastea erabaki zuen: harakin ibili zen Erreterian eta Donostian, eta harategia ireki zuen Lezon. Gero, harategia saldu eta Uztarri taberna-jatetxea ireki zuen. Hura saldu eta Sahatsa taberna ipini zuen martxan. Azken urteetan Urkabe jaki enpresan dihardu lanean. Fernantxo hainbat saltsaren perexila da, eta baratza eta artaldea ere izan ditu. Kaletarra izan arren, Lezoko baserritar elkarteak sortu zuenetako bat da, Ixkulin elkarteko kide eta herriko hainbat festa eta ekintzaren antolatzailea: erraldoiak, idi demak eta abere erakusketa, besteak beste. Lezoko erraldoietako bat berak eramaten du.

Luis Mari Intxaurrendieta Aizpurua (1946)



Kale Nagusiko Maisuenean jaio zen. 6 senidetan zaharrena, Lezokoa zuen aita, Altzakoa berriz ama. Bitan zatituta zegoen etxabe hura: aitaren aroztégia zegoen atzeko aldean, Kale Nagusira Agustina Lizarazuk (Luis Mariaren amonak) eskolak emateko erabiltzen zuen "Auxilio Social" zeritzona" kokatzen zen. Logroñoan egin zituen osaba Jesuitaren eskutik mekanika ikasketak. Donibanen zegoen aitaginarrebaren tailerrari ezkonebarekin batera eutsi ahal izan zion. Gustuko zuen ofizioa. Giro euskaldunean hazi eta bizi izan da.

Mari Karmen Irazu Treku (1949)



Lezon jaioa, Darieta ("Daita") baserrian. Aita Lezokoa zuen eta ama, berriz, Larraulgoa. 17-18 urte zituela Erreteriarra joan zen bizitzera gurasoekin. Ezkondu zenean, Lezora itzuli zen.

Jabier Isasa Mitxelena (1929)



Gaintxurizketa Errekalde bailaran dagoen Saizar baserrian jaio zen, eta bertan bizi izan da beti. Aita bertakoa zuen eta ama Oiartzungoa. Gurasoak baserriko lanetatik bizi ziren, behiak hazi, lurra landu eta esnea saltzetik. Pasai Antxora joaten zen arreba esnea saltzera egunero, baserritik 50 metrora zegoen geltokian trena hartuta. Txikitatik hasi zen baserriko lanetan eta, eskolara Urrunera joaten zen auzoko beste neska-mutilak bezala, amonak prestatzen zien bazkaria eramaten zuten eskolara anai-arrebek bertan bazkaltzeko. Hala ere, askotan, baserriko lanek hala eskatzen zutenean, baserrian geratu behar izaten zuen eskolara joan gabe. Errekalden, oraingo aldean, orduan zer haur mordoa zegoen gogoratzen du Javierrek. Auzoan, tabernatxo bat ere bazuten eta urtero festak egiten zituzten bertan. Gaztetan, lagunak bertan elkartzen ziren karta-jokoan aritzeko. Ezkondu zenean, baserrian geratu ziren bizitzen emaztea eta biak Javierren familiarekin. Baratzea landu eta Irungo plazan barazkiak saltzetik bizitu ziren urtetan; emaztea egoten zen goizero salmentan. Beste lan batzuetan ere aritu izan da: Jaizkibelen pinuak landatzen, harrobiko lanean, edota arraina deskargatzen Donibaneko kaian. Emaztearekin batera bizi da, alabaren eta biloben ondoan.

Jose Krutx Izulain Olaizola (1943)



Jose Krutx Marrukene kale-baserrian jaio zen. Ama Lezokoa zuen eta aita, berriz, Zizurkilen jaio baina Lezora joandakoa lan bila. Zazpi senide ziren, bera zaharrena. Familia kale-baserriaz arduratzen zen, bertan bizi baitzen anai-arreba, guraso eta osabekin. Gazte-gaztetan hasi zen Lezoko zerrategian lanean, eta geroago txapa-fabrikan. Lezoko abesbatzako kidea izan zen. 1968. urtean ezkondu zen, eta semea eta alaba izan zituen bikoteak.

Arantxa Larrea Garmendia (1937)



Lezoko Gurutze Santuaren plazan dago bera jaio zen etxea. Gurasoak Lezokoak zituen: ama, Sagasti baserrikoa; eta aita, Ipintzakoa. Zortzi senide izan ziren; baina bikiak, jaio eta hiru hilabetera, hil egin ziren. Haurra zela, igande arratsaldetan Ipintzara joaten ziren eta orduan izaten zuen jolasteko aukera; bestela, zaharrena zenez, anai-arreba txikiagoak zaindu behar izaten zituen. Hamaika urterekin utzi zuen eskola, eta eskabetxerian hasi zen lanean antxoak garbitzen. Gerora, Pakers fabrika aritu zen Erreterian; eta, horren ostean, Trintxerpeko arrandegi batean. Ategorrietan mojekin soinekoak josten ikasi zuen, baita hainbat josteta-lan egiten ere; brodatuak, besteak beste. Hamalau urterekin, Erreterriako janari-denda batean hasi zen lanean, eta urte asko egin zituen bertan. JOCeke (Juventudes Obreras Cristianas) partaidea izan zen: elizaren barruan sortutako erakundea zen, eta orduko jazoerak aztertzen zituzten. Oso esperientzia aberatsa izan zela gogoratzen du. Senarrarekin bizi da. Urte askoan izan da katekista; eta, oraindik ere, katekista izandakoak elkarrekin biltzeko ohitura mantentzen dute.

Mertxe Larrea Garmendia (1948)



1948ko otsailaren 14an jaio zen Mertxe, Lezoko Santo Kristo plazako etxe batean. 6 senide izan ziren. Ama lezoarra zuten, Sagasti baserrikoa, eta lezoarra ere aita, Ipintza baserrian jaioa. Gaur egun Mertxe ezkondata dago; Alegiakoa du senarra, eta seme bat daukate. Antzeztea du Mertxek zaletasun nagusi, eta Orratx! Antzerki Konpainiako kide da 1998tik, konpainia sortu zen urtetik beretik, alegia. Luze hitz egin genuen berarekin antzerkiaz eta zaborraren kudeaketaren arazoaz.

Patxi Larrea Garmendia (1939)

Xabin Larrea Garmendia (1945)



1945eko otsailaren 28an jaio zen Xabin, Lezoko Santo Kristo plazako etxe batean. 6 senide izan ziren. Ama eta aita lezoarrak zituzten; Sagasti baserrikoa lehena, eta Ipintzako bigarrena. Oso gogoan du Xabinek bere ama zena, eta asko hitz egin digu gurasoez. Xabin "Orratx!" Antzerki Konpainiako kide da, eta antzerki kontuez hitz egin digu, eta baita Xabinek berak telebistan zein zineman egindako lanen gainean ere.

Rita Larrea Lopetegi (1930)



Lezoko Barunga baserrian jaio zen. Gurasoak Lezokoak zituen, ama Barungakoa eta aita Urrullo baserrikoa, eta Barungara ezkondu ziren. Aitak Pasaiaiko portuan egiten zuen lan; gero Lezoko "Industrias Navarras"en aritu zen. Pildaingo eskolara joan zen Rita, eta Jesusa eta Teresa izan zituen maistra. Hamaika urterekin Erreenteriako mojen eskolara joan zen eta bi urtez ibili zen han. Gero, josten ikasten ibili zen Erreenteriako jostun batekin. Beti aritzen zen baserrian lanean, amari laguntzen. Hogeita bi urterekin ezagutu zuen bere senarra izango zena, Joxe Zabaleta, Lezoko Une baserrikoa. Handik bi urtera ezkondu ziren eta Barungan, Ritaren jaiotetxean, jarri ziren bizitzen bere gurasoekin. Senarrak Erreenteriako Papeleran egiten zuen lan; gero Lezoko Orbegozon aritu zen. Bi seme izan zituzten eta biak baserrian bertan jaio ziren. Handik urte batzuetara Larrezabal izeneko etxea egin zuten baserria salduta. Gazterik alargundu zen, berrogeita zortzi urte zituenean hil baitzitzaion senarra Ritari. Duela urte batzuetatik Lezoko Jaizkibel Etorbidean bizi izan da.

Margarita Legorburu Loiarde (1923)



Lezoko Donibanealde bailarako Kabitetxiki baserrian jaio zen Margarita. Aita Lezoko Herriko-Etxe baserrikoa zuen eta ama, berriz, Goizuetakoa, gazterik Lezora neskame joandakoa. Gazterik, hamabi urte zituela, hil zitzaion aita. Lezoko eskola publikora joan zen; eskola gaztelaniaz zen eta Margarita ez zen batere gustura joaten, askotan bidean negarrez joaten zela kontatzen du. Gero eskola partikularretara eraman zuten; Miren Gezala lezoarra zen irakaslea eta han gustura ibili zen. Gerraurrean, zortzi bat urte zituela, Lezoko beste neska batzuekin batera Batzokiko poxpolinen taldean parte hartu zuen, bertan dantzak ikasten zituzten. Bederatzi anai-arreba ziren eta haurra zela hasita baserriko lanetan aritu zen. Hamabi urterekin utzi zuen eskola. Hemezortzi urte bete arte baserriko lanetan laguntzen aritu zen, esnea eta barazkiak saltzera eramaten baitzituzten Pasai Donibanera. Hemezortzi urterekin hasi zen Donibaneko Pisben lanean. Oiartzungo Txikierditik bueltan ezagutu zuen bere senar izango zena, Jose Krutz Aiestaran oiartzuarra. Hogeita bederatzi urte zituen Jose Krutzeekin ezkondu zenean eta Harrobialde etxean jarri ziren bizitzen. Senarrak Erreenteriako Papeleran egiten zuen lan. Margarita Pisben aritu zen lanean lehenengo haurra izan arte. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Martzelino Legorburu Manterola Argiñene
(1933-2014)



Martzelino bertsolaria da, "Argiñene" goitizenekoa, Gaintxurizketagoikoa bailarako Argiñene baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Aita Argiñenekoa zen, ama berriz alboko baserri batekoa. Zortzi urtetarako behiak jezten erakutsi zion aitonak, segan ere aritzen zen haurra zela. Gutxi ibili zen eskolan, arratsaldean joaten ziren mutilak eskolara, goizez neskak. Zenbaitetan baserrian lana bazegoen, amak lanean gelditzeko esaten zion. Gazteleraz izaten zen eskola baina dotrina euskaraz ikasi zuen. Eskola bukatuta baserriko lanetan aritu zen, hori zuen bere lana. Senideak artazuriketan ganbaran biltzen zirenean berriketan eta kantuan aritzen ziren, bertso zaharrak kantatzen askotan. Beharbada hortik datorkio Martzelinori bertsotan egiteko afizioa, behin baino gehiagotan aritu da jendaurrean kantari eta bertso-paperetan ere sorta ugari ditu eginak. Gaztetako igandetako bilerak eta dantzaldiak bukatuta, neska-laguntzatik bueltatuta, koadrila berriz elkartu eta Irungo Landetxa auzoko Larrea tabernan aritzen ziren bertsotan. Ezkondu eta gero Niessen fabrika hasi zen lanean, Erretereria-Oreretan. Baserriko lanarekin tartekatuta zuen fabrikakoa jubilatuta arte. Bi alaba izan zituen. Denbora librean, baserriko tresnak egiten zituen miniaturan baita meta txikiak ere. Oiartzungo Karrikako bertso-eskolan ibilitakoa da.



Pili Legorburu Mitxelena (1945)

Lezon jaioa. Aita Lezokoa zuen eta ama, berriz, oiartzundarra. Hiru senidetan zaharrena.

Pilar Lekuona Etxabeguren (1906-1999)

Elixabete Lekuona Sagarzazu (1935)

Jose Inaxio Lizarazu Irazu (1930-2010)



Lezoko Donibanealde bailarako Urruleku baserrian jaio zen Inaxio. Gurasoak Lezokoak ziren; bederatzi anai-arrebatan gazteena zen. Lezoko eskola publikoan hasi zen eskolan eta gero Erreterian Miguel Zozaya irakaslearen eskola partikularrean ibili zen. Mutikoa zela, 8-9 urterekin hanketako paralisi moduko bat izan zuen eta hilabeteak pasa zituen etzanda hanketako mugimenduak oso murriztuta zituela; betiko geratu zitzaion hanketako mugimenduen zailtasuna. Hamalau urterekin kaian zegoen Atxan zerrategian hasi zen lanean bizikletarekin ordainagiriak kobratzen. Pixkanaka administrazio-lanetara pasa zen eta urte asko egin zituen kontu-hartzaile lanetan. Gaztetxo zela soinu txikia erosi zioten gurasoek eta bere kabuz hasi zen jotzen. Gero Lezoko Berasarte maisuarekin solfeoa ikasi eta soinu handia jotzen ikasi zuen. 1954. urtean bere anaia Agustinek Jaizkibel Hiribidean egin zuen etxean jarri ziren bizitzen Urrulloko-Berrin. 1958an ezkondu zen Remigia Intxausperekin eta Urrulloko Berriz jarri ziren bizitzen. Hiru seme-alaba dituzte. Inaxiok argazkiak ateratzeko zaletasuna izan du eta ehunka argazki ditu etxean gordeta.

Dolores Lopetegui Aiestaran (1916-2018)



Lezoko Herriondo bailarako Miura baserrian jaio zen Dolores. Aita eta ama Lezokoak ziren: aita Olamarta baserrikoa eta ama Miura bertakoa. Aitak deitzen zioean Pasaiaiko portuan egiten zuen lan barku alemanak deskargatzen. Ama hogei urterekin ezkondu zen Miurara horrela garaiko legeen arabera bere anaia bat soldaduskatik libratzen baitzen. Hamaika seme-alaba izan zituzten, baina zortzi bizi izan dira urte askoan. Dolores hirugarrena zen, txiki-txikitan hasi zen baserriko lanetan eta hamar urte zituenerako Erreteriko plazara joaten zen oinez baserriko barazkiak eta frutak saltzera. Oso gutxi ibili zen eskolan, urtebete eskas, Erreteriko Rosaren eskolan. Han ikasi zuen irakurtzen eta idazten. Hamahiru urterekin Erreteriko Lino fabrika hasi zen lanean bainikak egiten, bost eta erdietarako irekitzen zuten Erreteriko plaza eta lanera sartu aurretik plazako salmenta egiten zuen. 36ko gerran, erreketek Oiartzun aldetik Lezora hurbildu zirenean Miura baserriaren ondoan ama eta hiru seme hil zituzten. Hain zuzen ere 1936ko uztailaren 27an izan zen gertaera hura oso gertutik bizitu zuen Doloresek, auzokoak zituztenen hilketa baserriaren ondoan gertatu zelako eta hil zuten anai haietako bat bere ahizparen mutil-laguna zelako. Hogeita bederatzi urterekin ezkondu zen Lopene baserriko Alfonso Salaberriarekin, Miura baserriaren ondoan etxetxo bat egin eta bertan bizitu ziren. Orain Lezoko Kale Nagusian bizi da alabarekin.

Nikolas Lopetegi Aiestaran (1924-2017)

Lezoko Herriondo bailarako Miura baserrian jaio zen Nikolas. Ama Miurakoa zuen; eta aita, berriz, Olamarta baserrikoa. Ez egunero, baina tarteka, abisatzen ziotenean, Pasai Antxoko portuan egiten zuen lan aitak. Lanpernak ere hartzen zituen Jaizkibel atzeko arroketan. Bildutako lanpernak Donostiara eramaten zituen amak, bertako hoteletan eta jatetxeetan saltzera. Zazpi bat urte zituenerako, aitari laguntzen zion baserriko lanetan, behiak zaintzen... Astelehenetan, Irungo feriara joaten zen aitarekin eta amarekin, baserrian hazitako txerrikumeak saltzera. Tarteka, Oiartzungo astelehenetako feriara ere joaten ziren. Lezoko Gurutze Santuaren plazan zegoen eskolan ibili zen Nikolas: Irene Gezala izan zuen irakasle, eta euskaraz ikasten zuten. Hogei urterekin, soldadu eraman zuten; beste hainbat euskaldunekin batera, Burgosen, Jakan, Leridan eta Valle de Aranen egin zituen egonaldiak; Pirinio ingurukoak oso baldintza gogorretan egin zituzten, elur eta izotz artean. Ia hiru urtez egon zen soldadu. Soldadutzatik bueltan, Pasai Antxoko portuan aritu zen lanean eta gero 38 urtez Errenteriako Papeleran, bertan jubilatu zen arte. Lopene baserriko Anselma Salaberriarekin ezkondu zen, Miuran jarri ziren bizitzen, eta baserriko lana paper-lantegikoarekin batera eraman izan du. Bere amaren kantuzaletasuna eta ahots ederra ditu gogoan. Amona ere kantaria zuen, herrian abeslaria behar zutenean bere amonari deitzen ziotela gogoan du. Seme-alabekin bizi da Miuran.



Manuel Lopetegi Legorburu (1932)



Lezoko Burruntene baserrian jaio zen Manuel. Berak hamar urte bete zituen arte, han bizitu ziren. Handik Herriko-Etxe baserrira aldatu ziren; eta, orain, beste bi anai-arrebarekin bizi da bertan. Aita Burruntenekoa zen; eta ama, berriz, Herriko-Etxekoa. Aitak Pasai Antxoko portuan egiten zuen lan, baina ez beti, lana zegoenean baizik; bestela, baserrian aritzen zen. Ama esnea saltzera joaten zen goizero Antxora. Hamalau urtera arte, Errenteriako fraideetan ibili zen eskolan; eta, gero, baserrian aitarekin eta anaiekin batera. Baina Manuel urte askoan arotza izan zen Pasai-Donibaneko Clemente-Goldarazena aroztegian. Baxurako arrantzontziak egiten zituzten egurrez, hainbat herritako armadoreentzat; besteak beste, Donibane, San Pedro, Hondarribia eta Orikoentzat. Itsasontziak oso-osorik egurrez eraikitzen zituzten hasierako urteetan; gerora, material berriak erabiltzen hasi ziren; eta, Manuelek berrogei bat urte zituela, utzi egin zioten egurrezko itsasontziak egiteari. Aroztegian itsasontziekin lanean jarraitu zuten, konponketak egiten edota itsasontzi barruko frigorifikoak egiten, horiek egurrez egiten baitziren. Aroztegian aritu zen Manuel jubilatu arte, aldi berean baserriko lanari eutsiz: goizean, behiak jetzi ondoren joaten zen lanera, eta lanetik bueltan beti zituen baserrian eginbeharrak.

Maria Dolores Manso Berasarte (1944)



Maria Dolores edo Nekane Lezon jaio zen, Pantxikaenea etxean, 1944an. Amak Olibet gailera-lantegian lan egiten zuen eta aitak ikatzarekin lan egiten zuten lantegi batean eta meatzeetan. Lau seme-alaba izan zituzten, bi neska eta bi mutil.

Elena Mencia Epelde (1954)



Donostian jaioa, baina Pasai Antxotik gertu. Gurasoak Antxoko ikastolaren sortzaileetako batzuk izan ziren. Ahizpa gazteena ikastolara joan zen. EUTGn euskaldundu zen eta irakasle ikasketak egin zituen. 1976an Lezoko ikastolan hasi zen lanean, ikastola Lizeoko parte zelarik. Gero, Lizeora joan zen. Jone Zabalararekin batera elkarriketatu genuen, Lezon, ikastolen historia jasotzeko.

Maite Munarriz Cordero (1928)



Lezoko Donibane kalean jaio zen. Ama Lezokoa zuen; eta aita, Castejongoa, haurra zela, familiarekin Lezora etorria. Castejongoak izanagatik, anai-arreba guztiek ikasi zuten euskaraz. Maitek bi urte zituela hil zitzairen aita, eta ama hiru seme-alabekin geratu zen alargun. Familia aurrera ateratzeko, lan asko egin behar izan zuen amak: Atxaneko txapa-fabrika aritu zen lanean, eta herriko plazan zegoen Gure Borda tabernara ere joaten zen tarteka, sukaldean laguntzera. Oso berezia eta arduratsua omen zen garbitasun-lanetan eta etxe batzuetatik deitzen zioten hartan laguntzera joan zedin. Maite gaztea zela, bere lagun batek eta biak beren anaiekin dantza egin zutela eta, zinta morea jarri omen zieten, bekatu egin omen zutelako; baina Maitek eta bere lagunak "Hijas de Maria" deitzen zuten neska gazteen kongregaziotik ateratzea erabaki zuten, zentzugabekeria zela iritzita. Eskabetxerian egin zuen lan lehendabizi Maitek; gero, Atxaneko txapa-fabrika, 12 urtez. 1956an ezkondu zen; eta, ezkondu ondoren, koinatuaren paper- eta pintura-dendan aritu zen lanean urte luzez, erretiroa hartu arte.

Maria Luisa Navarro Lujanbio (1939)

Goizuetan jaioa. Errenterian bizi izan zen lehenbizi eta gerora Lezon. 55 urte daramatza Lezon bizitzen. [Lurdes Esnaola](#) eta [Mari Karmen Arrastua](#) rekin batera egin zitzaion elkarrizketa Lezoko kontuak jasotzeko.

Axun Oiartzabal Sagarzazu (1946)



Kale Nagusian jaioa, bi ahizpatan zaharrena zen. Ama Pasai Donibaneko baserri batekoa zuten (baserriko lanetan segitu zuen, hura baitzen gustatzen zitzaiona) eta aita, berriz, Oiartzungoa. Lezoko pirita lantegian ibili zen lanean. 13 urte bete arte herriko eskolan ibili zen Axun, eta ondoren Errenterian hasi zen lanean, inprentan. Ezkontzeko utzi zuen lana. 24 urterekin ezkondu zen, Lezoko Santo Kristo kaleko mutil batekin, eta lau seme-alaba izan zituzten. Historia gustatzen zaio, eta gaztetatik du egunkariak irakurtzeko ohitura. Lezoko ikastolaren sorreran parte hartu zuen, beste guraso askok bezalaxe.

Juan Luis Olaizola Huizi (1943)

Barbara Olaizola Mitxelena (1941)



Lezon jaioa, "Marrukene" (Morrokoenea) kale-baserrian. Gurasoak biak oiartzundarrak ziren, baina aita umetan Oiartzunera etorria. Sei senide izan ziren, baina bost atera ziren aurrera.

Esteban Olaizola Mitxelena *Moneko* (1944)



1944an jaio zen Esteban, Lezoko "Marrukene" (Marrokoenea) baserrian. Oiartzuarra zuten ama, Bidegurutzeta baserrikoa, eta aita ere Oiartzunen jaioa, nahiz eta oso umetan Lezora bizitzera joan, Audelera. Sei senide izan ziren, baina bost atera ziren aurrera. 14 urterekin fundizioan hasi zen lanean, Lezon bertan. Futbolean jokaturakoa da, baita Errealean ere, gazte mailan. [Xeli Tarragona](#) rekin ezkondu zen Igantziko San Juan Xarren. Mendizalea. Gerraosteko hainbat jakingarri eta pasadizo kontatzen ditu.

Ines Olaizola Mitxelena (1949)



Lezon jaioa, "Marrukene" (Morrokoenea) baserrian. Oiartzuarra zuten ama, Bidegurutzeta baserrikoa, eta aita ere Oiartzunen jaioa, nahiz eta oso umetan Lezora bizitzera joan, Audelera. Sei senide izan ziren, baina bost atera ziren aurrera; bera da senideetan gazteena. Onkologikoan (Donostia) lan egin zuen berrogei urtez. Mendirako zaletasuna izan du.

Itziar Olaizola Zabaleta (1945)



Lezon jaioa eta Errenterian eta Oiartzunen bizi izandakoa. Guraso biak Lezokoak zituen. Aita, Pasai Antxoko portuan eta Lezoko fabrika batean ibili zen lanean; ama, etxeko eta baserriko lanetan. Sei senidetan hirugarrena izan zen. Hiru seme-alaben ama, irakurtzea du zaletasun.

Manuel Olasagasti Arriaga (1940-2013)



Kale Nagusiko Harrieskaileta izeneko etxean jaio zen Manuel, Lezon. Aita Harrieskailetan bertan jaioakoa zen, eta ama, berriz, alboko etxean jaioakoa. Lehendabizi Lezoko eskola publikoan hasi zen ikasten; gero, Erretereriako Pioneko etxean, Santa Klara kalean aritu zen Ixiar Etxeberria maistrarekin. Manuelen aita txistularia zen eta elizako koroan ere kantatzen zuen. Manuelek ere txistua jotzen ikasi zuen eta Lezoko txistularia izan zen urte askoan. Lehendabiziko notak aita erakutsi zizkion eta bederatzi urterekin solfeo ikasten hasi zen herriko apaizarekin. Hamabi urterekin Lezoko txistulari taldea osatu zuten, Xabier Pikabea eta Xabier Intxaurrendietarekin batera. Hortik aurrera herritik kanpora ere jo izan zuten. Manuel arrain-saltzailea izan da, hori izan du bizibide. Osabarekin batera hasi zen eta arrandegia ireki zuten Lezon. Manuel motoarekin ibiltzen zen baserrietan arraina saltzen. Beranduago emazteak ([Arantxa Goia](#)) eta biek jarraitu zuten arrandegian. Baina 1975ean arrandegia itxi eta arraina saltzen jarraitu zuten, barkuei zuzenean erosi eta gero banaketa eginez. Zazpi seme-alaba izan zituzten eta haiek ere pixkanaka aitaren enpresan lanean jarraitu dute.

Maittere Pagola Iriarte (1928)

Mañoli Pikabea Zuloaga (1925)



Lezoko Kale Nagusian jaio zen. Gurasoak Lezokoak ziren; aita pintura-fabrikean egiten zuen lan eta musikaria zen, Lezoko bandan jotzen zuen. Oso kantuzaleak ziren etxean eta hamalau anai-arrebek asko kantatzen zuten; Mañolik, memoriak huts egiten badio ere, kanturako ahots ona gordetzen du oraindik. Lezoko jostuna izan da Mañoli. Hamalau urterekin utzi zuen eskola eta neskame joan zen Donostiara. Gero, Donibaneko Pisben aritu zen arrainarekin lanean, baita Erretereriako Fabrika Haundia deitzen zutenean eta Olibeteko gailera-fabrikean ere. Bitartean, josten ikastera joaten zen Agustina Aierdi Cobos jostunarengana, eta pixkanaka kanporako lanak egiten hasi zen etxean: soinekoak, galtzak, andregai-soinekoak... Berrogei urte zituela ezkondu zen lezoar batekin eta bi alaba ditu. Urte askoan egin zuen arropa kanporako eta elkarrizketa garaian ere, oraindik ez zion josteari erabat utzi.

Xexili Pikabea Zuloaga (1920)



Lezoko Kale Nagusian jaio zen, Gurutze Santuaren Plazaren ondoan. Hamalau anai-arreba ziren, bi aldiz izan zituen bizkiak amak, lehendabizikoak jaio eta berehala hil ziren. Ama eta aita Lezokoak ziren: ama Gabiri baserrikoa zen eta aita kalekoa. Klarinete-jotzailea zen aita, herriko bandan jotzen zuen. Lezoko "Real Compañía Astuariana" fabrian egiten zuen lan eta baserritarrek pentsuak erosi eta banatzeko zuten kooperatiban kontuak eramaten zituen. Xexili txikitan etxe aurrean bizi zen Roxarenera eramaten zuten. Roxarenean josten zieten arropa. Han ikasi zuen Xexilik puntuzko jertseak, bufandak eta kaikuak egiten. Hamalau urterekin eskola utzi eta Donostiako Narrika kalean hasi zen neskame. 1936ko gerra hasi zenean amak etxean gelditzeko esan zion. Gero, Errenteriako Lino fabrian hasi zen lanean eta ezkondu eta gero ere jarraitu zuen 32 urte bete arte.

Agustina Pontesta Garmendia (1950)



Lezon jaioa, ama bertakoa zuen eta aita jaiotzez oriotarra baina San Pedro bizi izandakoa. Familia abertzalekoa, Agustina ere euskaltzalea da gatzetxotatik. Gaztelaniaz egin zituen oinarrizko ikasketak, Errenteriako moja ikastetxe batean. Euskaraz alfabetatu eta irakasle lanetarako prestatu ondoren, 1969an Lezoko ikastolan hasi zen lanean. 1975ean Pasaia-Lezo Lizeora pasatu zen, badiako ikastola txikiak batu zirenean. 1982tik 1995era Gipuzkoako ikastolen Irakasle Elkartearen ibili zen, materialgintzan. EHE taldearen sortzaileetako bat, Oskarbi musika taldekoa izandakoa, idazlea, itzultzailea, filologoa... hainbat sari jaso ditu euskalgintzan egindako lanarengatik. Bake epaile ere izan da. Ezkondua, seme baten ama.

Mari Kruz Pontesta Garmendia (1952)



Lezon jaioa, Kale Nagusian. Zazpi senidetan hirugarrena. Ama Lezokoa zuen eta aita Orion jaioa, baina umetatik Pasai San Pedron bizi izandakoa.

Jose Ramon Rezola Isasa *Baxerri* (1975)



Lezoko Itturri baserrian jaioa. Ama bertakoa zuen eta aita Urnietako baserri batekoa. Bost senidetan hirugarrena. Baserritik bizi ziren. Baserria bota egin zuten, industriagune bat egiteko, eta orduan Irunera joan ziren bizitzera. Irungo TESA lantegian ibili zen lanean. Astigarragara ezkondu zen, eta bertan Rezola sagardotegia ipini zuen.

Rikardo Salaberria Galarraga Tximi (1940)



Lezoko Kale Nagusian jaio zen. Ama oiartzuarra eta aita Erreterria-Oreretakoa zituen eta hamar senidetan zaharrena da bera. Ama oso gazterik erreumak jota gaixotu eta izeba bat joan zitzaien etxera bizitzera hainbeste umerekin laguntzeko. Fraideetan ikasi zuen eta bulegoko lanetan hasteko esan zioten, baina berari ez zitzaion lan hori batere gustatzen eta, gerora, anaiarekin batera argiketari enpresa bat ireki zuen. Erreterriako Maria Pilar Etxaberekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Ester Salaberria Kortaberria (1939)



Mandazaia Enea izeneko etxean jaio zen. Zortzi anai-arreba ziren, Ester zazpigarrena. Aita lezotarra zuen baina Erreterriako paper-fabrian egiten zuen lan, bulegoetan. Ama, berriz, Erreterriakoa zen, etxekoandrea, baina jostun ibilia. Esterrek ere Erreterrian egin zuen lan, Niessen tailerretan saltzaile moduan, eta etxekoandre gisa geroago. [Irene Salaberria](#) ahizpa ere elkarriketatuta dago.

Irene Salaberria Kortaberria (1940)



Lezoko Mandazaia Enea etxean jaio zen. Zortzi anai-arreba ziren, Irene gazteena. Ama Erreterriakoa zuen, etxekoandrea eta jostun lanetan ere ibilia. Aita, berriz, lezoarra zen, baina Erreterriako paper-fabrikako bulegoetan egiten zuen lan. Irenek ere paper-fabrikako ekonomatoan egin zuen lan. Bertan lanean ari zela ezagutu zuen bere senarra, zeina Bilbon jaio bazen ere, Erreterriara joan zen bizitzera familiarekin batera. Bere ahizpa [Ester Salaberria](#) ere elkarriketatuta dago.

Mikel Salaberria Kortaberria (1932)

Lezoko Kale Nagusiko 27an, Mandazañania etxean, jaio zen. Aita etxe horretakoa zen, ama berriz Erretereria-Oreterakoa. Ez zuten animaliarik etxean, noizbait behiren bat izan bazuten ere. Aitak Erretereria-Oreterako paper-lantegian egiten zuen lan, administraria zen. Eskolan, Lezoko eskola publikoan hasi zen baina laster aldatu zen Erretereriako Aierbe ahizpek zuten eskolara. Hamabi urterekin aitaren aldeko osaba-izeba batzuek zuten baserrira, Martixkoneara, joan zen bizitzera. Osaba-izeba horiek ez zuten seme-alabarik eta Mikel baserriko lanetan laguntzera gero eta maizago joaten zela eta, bertan bizitzen gelditu zen. Osaba-izebei baserriko lanetan laguntzeaz gain, kanpoan ere egiten zuen lan, Oiartzungo enpresa batean bulegari bezala. Baserrira baino pixka bat goraxeago egon ziren 36ko gerrako langile-batailoietan aritu ziren trabajadoreak, Martixkoneatik goraxeago zuten akanpalekua eta Mikelek oroitzen du nola zeuden antolatuta. Elias Salaberria Lezoko pintore ospetsua, bere osaba zen, aitaren anaia. Txikitatik ezagutu zituen liburuak etxean, liburu haietatik irakurzaletu zen eta geroztik ez dio irakurtzeari utzi, egunero egiten du bere saioa. Emaztea eta bi semeekin bizi da Martixkonean, osaba-izebarekin bizitutako baserrian. Beti izaten ditu liburu bat edo beste sukaldean eta gogotsu aldarrikatzen du liburuak ez direla apaletan edukitzeko irakurri eta eskuartearen erabiltzeko baizik. Garai batean Lezon zegoen baserri giroa desagertu dela dio. Bide horretatik kezkaz bizi du euskararen etorkizuna, belar txarra bezalakoa izatea nahiko luke, galtzen ez dena.



Eugenio Salaberria Lazkano Arretxene (1948)

Lezon jaioa, Arretxene baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Lasturkoa (Deba). Hamaika senidetan azken-aurrekoa. Baserriko bizimoduari buruzko kontuak aipatzen ditu gehien bat.



Joxepa Salaberria Lazkano (1935)



Lezoko Arretxene baserrian jaio zen. Aita lezoarra zuen eta ama Debako Lasturkoa; hamaika senidetan laugarrena da bera. Animalia ugari zuten baserrian eta lan asko izaten zen. Baratzean barazki ugari izaten zuten eta fruitu asko ematen zuten zuhaitzak zituzten. Hortaz, ahizpa eta bera askotan joaten ziren Errenteriako merkatura etxean behar ez zutena saltzera. Horrez gain, sagardo asko egiten zen Arretxenen eta saldu egiten zuten. Ezkondu arte torloju-lantegian errebisatzaile lanetan aritu zen Joxepa, baina ezkondu ondoren lana uztera behartzen zuten garai hartan eta pena handiz utzi zuen bere lanpostua.

Erramun Salaberria Lopetegi (1927-2019)



Lezoko Lopene baserrian jaio zen. Aita Lopene bertakoa zuen eta ama berriz goragoko Borda baserrikoa. Umetan hasi zen baserriko lanetan eta baita harrobian ere. Baserriko lurretan harrobia zutenez, harria ateratzen zuten anaiak, aitak eta hirurek, eta geroago Lezon etxeak egiten zebiltzan kontratistei saltzen zizkieten. Erabilera asko izan zituen harrobian saltzen zuten harriak. Karobia ere bazuten, baserriko terrenoetarako egiten zuten karea. Aita bertsotan aritzen zen, tarteka barrikoteak antolatzen zituen lagun kuadrillarekin baserrian eta Erramun ere han izaten zen hango bertso eta kanta giroan. Aitona ere bertsolaria zen. Erramun, Lezoko Atxaneko txapa-fabrikan aritu zen lanean lehendabizi, Pasai Donibaneko Meipin arrain deskargan ere bai eta Errenteriako Papeleran bi urtez. Baina urte gehienak berak gustuko duen langintzan pasa ditu, baserrian. Erramunek berrogei bat urte zituela Lopene baserria bota egin zuten fundizioa jartzeko Orbegozok lurrak erosi zizkienean. Gero, Algeposak erosi zuen, eta portuko almazena jarri zuen bertan. Erramunen familiak etxe bat egin zuen beheraxeago, eta han bizi da ilobarekin.

Felix Salaberria Lopetegi (1949)



Miura baserrian jaio zen Felix, 1949ko maiatzaren 12an. Herriondo bailaran dago Miura baserria, eta bertakoa zuten ama. Aita, aldiz, Lezoko Lopene baserrikoa zuten. Zazpi senide izan ziren etxean. Clemente Goldaracena ontziolan hasi zen lanean Felix, 14 urte zituela, baina handik urte betera Errasti aroztegira aldatu zen, Lezora, eta bertan jardun zuen erretiroa hartu arte.

Guadalupe Salaberria Lopetegi (1918)



Lezoko Lopene baserrian jaio zen Guadalupe. Gurasoak Lezokoak zituen, ama Borda baserrikoa eta aita Lopene bertakoa. Sei anai-arrebatan hirugarrena zen. Aitak Pasai Antxoko portuan egiten zuen lan, ikatzarekin. Oso gutxi joan zen eskolara, txikitatik hasita amarekin joaten baitzen Antxora baserriko esnea eta fruta saltzera. Baserriko lurretan harrobia zuten eta Guadalupe han ere aritzen zen lanean, leherketak egiten, harria ateratzen eta garraiatzen. Erreterriako Agustiñarekin ikasi zuen patroiak egiten, oihaletan moztu eta josten. Hamasei urterekin Pasai Donibaneko bakailao fabrika hasi zen lanean, eta ezkondu eta gero ere bertan jarraitu zuen lanean fabrika itxi zen arte. 36ko gerran anaiek soldadu joan behar izan zutenean, berak eta ahizpak aritu behar izan zuten baserriko lan gehienak egiten. 1941ean ezkondu zen Joxe Inziarte lezoarrarekin eta Pasai Antxoko irin-fabrika, senarrak lan egiten zuen tokian, jarri ziren bizitzen. Bi urtez bizitu ziren han, Lezon Inziarte-Enea izeneko etxea eraiki zuten arte. Geroztik han bizi izan da Guadalupe. Bi seme-alaba izan zituzten.

Joxe Mari Salaberria Lopetegi (1950)



Lezoko Miura baserrian jaioa. Ama bertakoa zuen eta aita Lopenekoa. Zazpi senide ziren. Joxe Mari 22 hilabete zituenean aita hil zitzaizen (istripuz, Erreterriko paper lantegian; haren ordeza ama hasi zen gero han lanean). Osaba-izebak baserrira joan ziren bizitzera; haiek zazpi seme-alaba izan zituzten, eta 14 neska-mutikoak anai-arreben moduan hazi ziren. Osaba ere paper lantegian zebilen lanean. Baserrian aitona-amonak ere bizi ziren. Amona Erreterriko azokara joaten zen tratuarekin, egunero, astoa lagun hartuta; bilobaren bat ere eramaten zuen laguntzeko, aldiko bat. Eskolara joan aurretik astoarekin esnea Lezoko "letxeroari" eramatea izaten zen umeen beste eginbeharretako bat, aldi batean Joxe Mari ere egin zuena. Herri eskolan ibili zen, eta 14 urterekin Donostian hasi zen harakin ogibidea ikasten, Bretxan. Gero, Lezon ireki zuen harategia. Urte askoren ondoren, Erosle supermerkatua jarri zuen, sozio batzuekin, eta handik hartu zuen erretiroa. [Juani Urkizurekin](#) ezkondu zen, eta seme bat izan zuten.

Kanddi Salaberria Salaberria (1928)

Maria Luisa Sarasola Arriaga (1941)



Lezon jaioa. Gurasoak ere lezoarrak zituen. Eskabetxerian, garbiketan eta sukaldari lanetan aritua, umetan arraina saltzen zuen amarekin batera. Umeekin batera ikasi zuen ongi euskaraz eta ikastolan laguntzen aritu zen urte askoan.

Jose Krutz Sarasola Tolosa (1928)



Lezoko Zubitxo kalean jaio zen Jose Krutz, Bixentatxona deitzen zioten etxean. Aita eta ama Lezokoak ziren, Irurtzun baserrikoa bata eta Granada baserrikoa bestea, hurrenez hurren. Ama ia ez zuen ezagutu, Jose Krutzek hiru urte zituela hil baitzen erditzerakoan. Ama hil zenean, Etxeberri baserrira joan ziren bizitzera aitaren aldeko aitona-amonekin. Alargundu eta handik urte batzuetara, aita berriz ezkondu zen Manuela Sistiagarekin, eta baserritik kalera bueltatu ziren. Aitak portuan egiten zuen lana barkuak deskargatzen, enkargatua zen. Jose Krutzek Gaintxurizketako Uneko eskolan ikasi zuen lehendabizi eta gero Errenteriako Aierbe ahizpekin klase partikularrak jaso zituen. Hamalau urterekin, Errenteriako Urbieta Ebanisterian hasi zen lanean. Gero Trintxerpeko Erkizia aroztegian aritu zen hamasei urtez altzariak egiten. Baina urte gehien itsasontziak egin eta konpontzen igaro zituen. "Industrias Guria" izeneko kooperatiba osatu zuten batzuen artean, eta baxurako nahiz alturako arrantzontziak egiten zituzten. Tartean atun-ontzi asko egin zituzten Bermeorako. Ontzigintzan aritu zen, 62 urterekin erretiroa hartu zuen arte. Lezoko Ina Lopetegirekin ezkondu zen, eta bost seme-alaba izan zituzten.

Luixita Sarasola Zumeta (1931)



Lezoko parrokia ondoko etxe batean jaio zen Luixita: lau solairu zituen eta haizete handiko egunetan mugitu egiten zela esaten zen herrian. Haizetea zenean, Luixitak ohea aldendu egiten zuen pixka bat paretaren ondotik. Bestela, paretak ohearen kontra jotzen zuenean etxearen mugimendua zela eta soinua ateratzen zuen eta Luixitak ezin izaten zuen lo egin. Aita eta ama Lezokoak ziren, aita Donibane kalekoa eta ama Olaizola baserrikoa. Zazpi anai-arrebatan laugarrena zen bera. Zortzi bat urte zitueneko amari laguntzen hasia zen etxeko lanetan, sukaldea jasotzen, garbitzen, ura iturritik ekartzen... Lezoko eskola publikoan ikasi zuen hamalau urtera arte. Gero, lanean hasi zen Packers gozoki-fabrikan. Aitak Erreterriako Papeleran egiten zuen lan eta bere bitartez, hamasei urte zituela, Laneran hasi zen lanean, Erreterrian. Ezkondu zenean, utzi egin zuen lana ezkontzen ziren emakumeek debekatua baitzuten lanean jarraitzea. Hamabost urterekin ezagutu zuen senarra izango zena Erreterriako Ondartxo auzoko jaietan. 1956an ezkondu zen Juan Karrera oiartzuarrarekin eta Kale Nagusiko Mandazañania etxean jarri ziren bizitzen errentan. Lau seme-alaba izan zituzten.

Joxe Joakin Sarasua Urkizu (1938)



Herriondo auzoko Peliar baserrian jaioa. Hiru urte zituela, kalera joan ziren bizitzera, Juanaenea etxera. Zazpi senidetan bosgarrena. Aita gazterik hil zitzaion eta ez zuen asko ezagutu. Kanean bizi arren, baserrirako joera zuten, aitona eta amona zituzten bertan eta. Lezoko eskola nazionalen ibili zen 13 urtera arte. 14 urterekin lanean hasi zen, lehenbizi, sei hilabetez, Pasaian arraintzako kutxak josten eta gero Acha lantegian, okumezko taulak egiten. Erretiroa hartu ostean, egurra lantzen hasi zen.

Mikel Susperregi Olaizola (1966)



Ama Lezokoa, aita Erreterriakoa, familia euskaltzalekoa, Mikel Lezoko ikastolan ibili zen. Ikastolei buruzko elkarrizketa egin genion Joxe Luix Agirretxerekin batera.

Jose Manuel Susperregi Zabala Xuxpe (1932-2018)



1932an jaio zen Orereta-Errenteriako Amabirjin kalean, sei senidetan bigarrena. Zazpi urte zituela, aita hil zitzaion istripuz, eta ama bost hurrekin geratu zen. Amak ezin zituen bakarrik denak mantendu, Jose Manuel osaba-izeben Susperregi jatetxera bidali zuen. Gerra ondorenean estraperloan nola ibiltzen zen kontatzen du, oraindik haurra zela ogi bila nola joaten zen mendian barrena. Hamalau urte zituela, Lezora joan zen bizitzera eta geroztik han bizi izan da. Bere bizitzan lan asko egin ditu, baina nagusiki pintore lanetan aritu izan da.

Xeli Tarragona Artola (1955)



Lezon jaio zen Xeli (Celia), Kale Nagusian, Ataundarreneko etxean (amaren ama Ataundik etorria zen eta horrela deitzen zioten etxeari). Lau senidetan bigarrena eta neska bakarra. Gau-eskoletan irakasle aritu zen.

Joxe Miel Treku Azkue (1920-2000)

Juani Urkizu Arbelaiz (1948)



Donibane kalean jaioa, bost senidetan gazteena izan zen. Ama Errenteriako Borda baserrikoa zuen eta aita, berriz, Lezoko Borda baserrikoa. Kalera ezkondu ziren gurasoak. Ama neskame joan zen herriko etxe batera eta aita arotza zen: Pasaiaiko ontziolan egiten zuen lana. Ezkondu ondoren ere lanean jarraitu zuen amak, interina bezala. Juaniren bi anai zaharrenak apaiz egin ziren. Hirugarrenak aitaren ogibidearekin jarraitu zuen. Ahizpa 11 urterekin hasi zen lanean, eta Juanik (5 urte gazteagoa) ikasten jarraitzeko aukera izan zuen. Guraso Elkarateak eskola sortu zuen, eta, irakasle euskaldunen beharra zegoenez, Batxilergoa egitera animatu zuten. Ondoren Magisteritza ikasi zuen Donostian. Guraso Elkartea eskolan hasi zen lanean, 3 urteko 40 umerekin. Denborarekin, eskola horrek herri eskolarekin egin zuen bat, eta bertan Haur Hezkuntzako irakasle moduan segitu zuen Juanik. Herri eskolako zuzendari ere izan zen zazpi urtean, erretiroa hartu zuen arte. Lezoko [Joxe Mari Salaberria](#) rekin ezkondu zen, eta seme bat izan zuten.

Joxeba Urkizu Sarasua (1936-2016)

Mari Kruz Urkizu Sarasua (1932)



Gurasoak lezoarrak zituen eta bera ere bertan jaio eta bizi izan da. Sei senidetan bigarrena da eta Gurutze Santuaren plazan, jaio zen leku berean, bizi zen elkarriketa garaian ere, familiako etxean. Gerra garaian, berak lau urte zituela, aita Frantziara joan behar izan zuen eta han lau urte pasatu zituen. Aita kanpoan zela amak lanean hasi behar izan zuen seme-alabak aurrera ateratzeko; oso une gogorrak izan zirela dio. Lan askotan aritu da Mari Cruz: fabrikan, katekista, eskolatan laguntzen, emaztegaientzat soinekoak josten... Ezkondu eta alaba bat izan zuen.

Patri Urkizu Sarasua (1946-2024)



Lezoko San Juan kalean jaioa, guraso biak Lezokoak zituen; ama Olatzar baserrikoa eta aita kaletarra, arotza ogibidez. Bost senidetan gazteena (beste anai-arrebak gerra aurrean jaio ziren, eta Patri gerraostean, aita erbestetik itzuli zenean). Arantxa Berasarte maistrarekin ibili zen eskolan, 5 urtetik 11 urterarte eta gero Donostiako Mariaren Bihotza ikastetxean ibili zen, harik eta fraidegai bidali zuten arte, karmeldarrekin (Zornotzara eta erribera aldera). 1964an Ingenieritza ikasten hasi zen Madrilén, eta bertan euskara irakasten ere bai. Euskal Filologia ikasi nahi zuela eta, Salamancara joan zen Filologia Erromanikoa ikastera, Koldo Mitxelena bertan zegoelako irakasle. Euskara batuaren sorrera prozesua gertutik bizi izan zuen. Peñaflorida institutuan egon zen irakasle, eta ondoren UNEDen euskal gaiekin lotutako materiala sortzen. Lezoko alkate izan zen trantsizioan. Idazlea da (narrazioa, poesia, saiakera...) eta Idazleen Elkarteko zuzendari ere izan zen. Eusko Ikaskuntzan ere aritu zen. Ikerlaria da, eta hainbat gairi buruzko ikerlanak egin ditu: antzerkia, literatura, bertsolaritza... euskal antzerkiari buruzko informazioa jasotzeko egin genion elkarriketa eta gero literaturari buruzko beste bat. Aurretik ere elkarriketatua zegoen, Lezoko hizkera jasotzeko; urte asko eman ditu herritik kanpo eta euskara batuan hitz egiten saiatzen da.

Jone Zabala Larrañaga (1952)



Bergaran jaioa. Irakasle ikasketak egiten ari zela, Lezoko ikastolan andereño bat behar zutela esan zioten eta hara joan zen, 1974an. Urtebete egin ondoren, Bergarara itzuli zen ikasketak bukatzera. 1976an berriro joan zen, Pasaia-Lezo lizeora. Elena Mendiarekin batera elkarriketatatu genuen, ikastolen historia jasotzeko.

Bernarda Zabala Urdangarin (1923)

Lezoko Gaintxurizketako gainean dagoen izen bereko baserrian jaio zen. Ama Lazkaokoa zuen, aita berriz Gaintxurizketa gaineko Goikoetxe baserrikoa; ezkondu aurretik aita Gaintxurizketa baserrian bizi zen familiarekin eta ezkontzean bertan gelditu ziren bizitzen emaztea eta biak; bederatzi seme-alaba izan zituzten. Bernarda baserriko lanetan hasi zen txikitan amari lagunduz eta beti ibili da etxeko lanetan, baita baserrikoetan ere, belarretan animaliak zaintzen... Baserria errepide ondoan zegoenez, errepidean denboran zehar izan diren aldaketak ezagutu ditu. Bere ahizpa Mariarekin eta anaia batekin bizitu zen urte askoan baserrian, 2006an baserria bota behar zutela eta handik atera behar izan zuten arte. Errepidea zabaldu eta biribilgune berri bat egin behar zituztelako bota zieten Gaintxurizketa baserria. Orain Erreenteriako Pontika auzoan bizi da ahizpa eta anaiarekin, baserria nola bota zuten tristuraz oroitzen dutelarik.



Maria Zabala Urdangarin (1930)

Gaintxurizketa gainean zegoen izen bereko baserrian jaio zen. Ama Lazkaokoa zuen eta aita Gaintxurizketa gaineko Goikoetxe baserrikoa; aita ezkondu aurretik Gaintxurizketa baserrian bizi zen familiarekin eta ezkontuta bertan jarri ziren bizitzen emaztea eta biak. Bederatzi seme-alaba izan zituzten. Baserritik bizi ziren arren, Maria gazterik hasi zen baserritik kanpora lanean. Lehendabizi neskame, gero Erreenteriako pintura fabrika eta azkenik Pasaiaiko Biantxin egin zituen urte asko lantegia itxi zen arte, berak 55 urte zituen orduan. Baserria Gaintxurizketako errepidearen ondo-ondoan zegoenez, errepidean izan diren aldaketak gertutik ezagutu ditu. Urte askoan bere ahizpa zaharragoarekin, Bernardarekin, eta anaiarekin bizitu zen baserrian. 2006an baserria utzi behar izan zuten, errepidea zabaltzearekin batera biribilgune berri bat egin behar zutela eta bota egin baitzieten baserria. Orain Erreenteriako Pontika auzoan bizi da Maria, ahizpa eta anaiarekin. Elkarrekin bizitu dira beti eta orain ere hala bizi dira, baserria utzi beharra eta bota izana tristuraz oroitzen dutelarik.



Juan Joxe Zabaleta Saizar (1923)

Juan Joxe Lezoko Sagasti baserrian jaio zen 1923ko maiatzaren 6an. Lehenengo, herriko eskolan ibili zen maisu batekin. Gero, Mirenen euskal eskolan aritu zen ikasten. 13 urte zituela, aita galdu zuen; handik bost urtera, berriz, ama hil zen. Ordutik, arreba eta biak bizi izan ziren baserrian. Larachera (Afrika) bidali zuten soldadu. Soldadutzatik bueltatu eta baserria saldu zuten. 29 urterekin, Croma lantegian hasi zen lanean. Gero, Meipin aritu zen. Pekin lantegitik hartu zuen erretiroa.

Anastasio Zapirain Danbolenea (1897-1971)

Joxe Zumeta Jaunarena (1937)



Bilbon jaioa, gerra garaian. Urtebeterekin Lezora joan ziren bizitzera, Zubitxo kaleko Juanenea etxera. Ama nafarra zen, Erasungoa, Erreenteriara neskame joana. Aita Lezokoa zen, eta Erreenteriako paper-lantegian egiten zuen lana. Joxek ere hantxe egin zuen lana 16 urtetik 23ra, makina batek eskua harrapatu zion arte. Hori bai, aurretik ere lanean zebilen: 12 urterekin zapatari ofizioa ikasi zuen, eta 14rekin bakailaoa deskargatzera joaten zen Pasai Donibanera; arrain-kaxak josten ibili zen, baita ardo-upelak konpontzen ere. Lezora ezkondu zen; eta, handik hogeitaz urtera, Hondarribiara joan ziren bizitzera. Bertako Kasino Zaharreko lehendakaria zen elkarriketa egin zitzaionean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Herria, azpiegitura

1.1. Lezoko lehengo dendak

- **Hizlaria(k):** Agirre Telletxea, Xebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-002/008
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena:** Lezoko lehengo dendak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Ta geo dendanak, esango dizut /esangoizut/, zuten "Jakuanea" denda bat. Bestia "Sofi y Ana". Ta geo plazan zien ba... zea, esto..."Manuel Enea", zea

zen, taberna. Geo "Gure Borda"'de bai. Plazan. Gurutze Santuko plazan, hoiek. Ta geo, Donibane kalia zen "Narxixa"; "Narxixa Enea" denda. Ta geo beste bat zen... Zubitxon! Zubitxon'de bai. Lopeteginak. Lopeteginak zuten, bai, bazien denda... bai... geo... esangi dizut /esangoizut/. Ez. Taberna zean: "Jauregialde". Donibane kalia. Beste... Taberna. Taberna zan, bai.

1.2. Kale nagusiko giro alaia

- **Hizlaria(k):** Agirre Telletxea, Xebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-002/015
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:14:32. **Bukatu:** 00:16:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean. Ume asko bizi zen kale nagusian, eta oso giro alaia egoten zen. Orduko denborapasak eta jolasak gogoan ditu. Sokasaltoko kanta abesten du.

Transkripzioa

- Ta ze ibiltzen ziñaten, neska ta mutillak denak batea jolasten?
- Bai. Neskak gehienian neskakin ibiltzen giñen, biño baita mutillak'e. Ta zen kali hau alaya! Eske haur asko zen hemen. Haur asko zen.
- Ta ibiltzen ziñaten'e bai beste kale o beste auzotakuakin batea jolasian?
- Ez. Gurutze Santuko aurrian ibiltzen giñen. Hor soka-saltuan. Bazen Gure Bordako semia, Joxe Juan izena zuna ta harrek lokarriya haundi bat jartzen zuen, soka, eta han denak. Ta harrek esaten zunian "zu sokai ematen", zu eon bihar dezu /bihartzu/. Oso zea zen. Aintzen ziun-ta, biño, han ibiltzen giñen denak jolasten! Bai.
- Ta ze abesten zenuten, soka-saltuan?
- Ba... "Haria, [mataza, mataxa], loria..." ta salto, ta salto, ta salto... Bai. Hoi goatzen naz. Hoi goatzen naz.
- Ta bazenituzten hola soka-saltoko kanta gehio? Izango zian, ez?
- Ez naz goatzen hoi. Erdaldunak bai, orduan erderaz ta aitzen zien, biño... Hoi, zean, soka-saltokua hoi genun. Denak jarriko giñen, illaran, denak, eta txandan-txandan, ta salto. Ta itten bagenun galdu, hala! Sokai ematea. Bai. Jolastu asko. Asko. Eta geo itsasua jeisten zenian, hemen bihian, e, marea jeisten zenian, e, hartu harriyak eta itxiak iten aitzen giñen. Itxia balitzake bezela. Harriyakin, jarri harriyak, eta hau sukaldia, hau gela, eta hola aitzen giñen.
- Bai, txabolak bezela...
- Bai. Eta geo hartzen genittun belarrak. Eta belarrak, berriz, zien saltzeko. Bat dendariya. Ta harrek saltzen zittun ta gu joaten giñen harrena erostea. Ta holako jolasketa politak genittun.
- Politak, bai.
- Bai, bai, gu hola ibiliyak gea.

1.3. Ura errekatik ekartzen baldeekin

- **Hizlaria(k):** Garmendia Gaztelumendi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-026/008
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:09:51. **Bukatu:** 00:10:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Errekara joaten ziren ur bila bizkarrean bi balde hartuta, egunean birritan edo hirutan. Arropa garbitzeak ere errekan egiten ziren.

Transkripzioa

-Ura ezautu dezu base...

-Ura? Erreka, ura bila. Baldia bat hartu, eur batekin bizkarrian zintzilik bi balde hartu errekatik eta halantxe. Ur bila. Ta arropa garbitzea're, erreka, ta han arriya jarriya, ta hola, aitzen zien, emakumiak'e.

-Eta ura nola garraiatzen zenuten? Nola ekartzen zenuten? Nun ekartzen zenuten baserrira ura.

-Baldian!

-Ah...

-Baldetan. Bizkarrian hartu, ta esku zintzilik espaldatik zintzilik bi balde ekarri, ta etxian harraskan onduan jarri, ta poto batekin handik gastatu.

-Bai, bai, bai...

-Bat ontziyak garbitzen ta...

-Ta eunero ur billa.

- Eunero ta eunero bitan ta hirutan igual! Billa... Bi ta hirutan'e bai, baina baje asko in behar izaten zen, gastatu asko itten zen ta!

-Ta zein joaten zan ur billa?

-Ui!... Tokatzen zena!

-Bai.

-Beste anaiak igual, ta ni're bai, ta arreba're bai, ta...

-Baiño pentsatzen dut arropa garbitzea-ta ama-ta arreba-ta jungo ziala, ez?

-Arreba ta ama-ta, bai...

1.4. "Acha"ren zerrategiekin, akabo padurak

- **Hizlaria(k):** Artola Zuloaga, Joxepatxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-028/011
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:25:46. **Bukatu:** 00:27:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- **Laburpena:** Joxepatxo neska koskorra zela, Achak zerrategiak jarri zituen portuan. Horren erruz, padurak lehortu egin ziren; eta, orduan, akabo bainuak, izkirak, eta umetako aisialdiko leku hori. Dena aldatu zen.

Transkripzioa

Gero, ya ni neska koskorra nintzala, sartu zen Acha. Eta bueno, hor, zergatik hor zien pabelloi batzuek eta noizpaitte, zerbaitte baraderon bat-edo, itteko asmuakin-edo, izandua-edo... Eta gerra zela medio, geldittua. Eta gero gu, ni neska koskorra nitzala, etorri zen Acha, horrea, eta jarri zittuen aserraderuak, aserradero inportante batzuek. Orduan hura ein zen herri guztiyan jaun ta jabe. Eta Gineatik ekartzen zittuzten tronkuak, eta hor, putzuan sartzen zittuzten. Marisma den-denak lehortuarazi zittuzten nola edo hala, berak jakingo dute nola, eta serratu-aldian tabloiak hor, marisma hoietan denetan plegatuta ondo jarriyak, kastillo batzuk bezela jartzen zittuzten. Orduan, ya, guri akabo jostaketak, eta akabo kiskillak eta denak. Ya ez genuen han ibiltzeik izandu.

-Klaro, hura zikindu ingo zan...

-Eta gañea, ez, ez!, gañea itxi in zuten dena. Inguru guziya itxi in zuten, ta utzi zittuzten hor lau arbol, zea, ta gañeko denak beak, beren gustoa, dena itxi in zuten ta bidia-ta utzi zittuzten, e, biñon, biñon, ya... akabo.

-Hondatu in zen...

-Dena aldatu zen. Dena aldatu zen. Dena, gañea.

-Bueno...

-Eta, gañekuan, gu hemen, atzeko aldian-ta ibiltzen giñan jostatzen. Bai, leku asko genuen jostatzeko.

1.5. Harraska erreka zuloan

- **Hizlaria(k):** Garmendia Gaztelumendi, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-036/007
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:16:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Beti ezagutu izan zuen Maritxuk argindarra jaiotetxean. Harraska erreka zulo batean omen zuten, eta gehienetan Maritxu joaten zen arropa garbitzera. Lehortzeko zelaian zabaltzen zuten gero, egun erdiz edo.

Transkripzioa

- Eta argiya, bazenuten argiya baserriyan?

- Bai. Argiya beti... argiya ezagutu det nik.

- Beti ezagutu dezu.

- Bai.

- Baiño garbiketak-eta iteko?

- Hor beheko erreka-zulo batin giñun erropa garbitzeko tokiya, labadora, labadora.

- Labaderua.

- Bai.

- Eta juten ziñan zu arropa garbitzea?

- Bai. Gehiena neri tokatzen zitzaiten.

- Zuk garbitzen zenun? Ta, nola, nola izaten zan arropa garbitze hori?

Arropa hartu eta...

- Arropa, lehenbiziko, beratu etxian, zinka haundi batin. Lejia pixka bat eta jaboia botata, ur epelakin. Ta gero han guri-guri izaten zen ta morroskatu

harrian. Hiru harri zian. Morroskatu dena.

- Arropak denak banaka-bakana.

- Bai, bai. Garbittu, gero jaboia eman berriz, [uretik pasa] ta jaboia eman, ta berdian, zelaian, zelaian jarri mantxak-eta kentzeko ta. Txuri-txuri itten zen zelaian.

- Orduan, han labaderuan frotatu edo...

- Eskuz garbittu. Bai.

- ... marruskatu iten zan.

- Holako harri batzuk zian ta frotatu iten zen han.

- Eta gero jaboia kendu iten zenion arropari? Aklaratu ere bai han bertan iten zan?

- Bai, bertan. Ta gero, berdian, jaboiez bete ta berdian zabaldu. Txuri-txuri itten zen gero, berdian.

- Eta ze iten zenuten, berdian zabaldu egunez edo gauez?

- Igual, egunez igual. Ta egualdi ona baldin bazen, gabian'e bai. Gabeko serenuk'e txuritu itten zun.

- Ta ze edukitzen zenuten han, ordu batzutan?

- Bai.

- Horrela... denbora luze xamar bat euki behar izaten zan?

- Bai. Egun erdi bat edo bai.

- Eta, gero berriz?

- Berriz'e erreka eman ta astindu, garbittu. Ta lehortzera gero. Bi egun pasatzen genittun. Orain labadoran ordu erdi baten iña dao, biño...

- Arropa garbitzen hasi, ta arropa zabaltzeako egun bat pasatzen zan?

- Bai. Gehiago igual askotan. Horrela, berdian-ta eukitzen [...].

- Ta arropa txuriya ta kolorezkua berdian garbitzen zen?

- Bai, igual.

- Igual? Jaboi berdiña erabiltzen zenuten eta...

- Bai, [...] eman denei ta.

- Jaboi bat bakarra egongo zan orduan, ez?

- Chimbo ta Lagarto ta bazien.

- Hoitakuak?

- Bai.

- Baserrian bertan jaboia iten al zan?

- Bai, itten zen, bai. Nunbait'e itten zien. Hona saltzera etortzen zien, guek ez.

- Zuek ez zenuten... zuek erosi iten zenuten.

- Erosi, bai.

- Baiño Chimbo eta Lagarto hoitakua, ez? Trozokua.

- Bai. Beste zera trozo bat zan, guri xamarra. Lezoko andre bat etortzen zen saltzera.

- Ta arropa garbi-garbiya gelditzen zan ordun?

- Bai.

- Gero arropa jaso, lehortzen zanian jaso...

- Lehortzen zanin, jaso.

- ... eta plantxatu edo jaso edo...?

- Jaso. Horrela, janzteko espezialak ez zianian ez zian plantxatzen.

- Baiño tarteka plantxatu're bai.

- Bai.

- Zer plantxatzen zenun?

- Laneko arropak eta denak.

- E?

- Laneko arropak-eta plantxatu.

- Plantxatu.

- Kanpora joan behar zien erropak.

- Ta ze plantxakin?

- Orduan zen... denboa batin zien... su gaiñin, plantxa beltz batzuk su gaiñin berotzen zian. Oan bezela ez zen entxufin sartuta.
- Eta ze su zenuten zuek baserrian?
- Ekonomia.
- Ekonomia zan? Txapa?
- Bai.
- Han berotzen zan plantxa?
- Plantxa? Bai.
- Eta harekin plantxatzen zan.
- Plantxatu.

1.6. Soldadutzako anekdotak

- **Hizlaria(k)**: Olasagasti Arriaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-038/047
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 01:51:01. **Bukatu**: 01:52:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Motorra izan zuen soldadutzan eta libre uzten ziotenean etxera etortzen zen motorrez. Behin istripua izan eta danbolina puskatu zitzaien. Soldadutzan oso giro ona izan zuten.

Transkripzioa

- Eta han motua ´re eukitzen nun, han inguruko herri ttiki bat zen Muruarte de Reta. Ba han bi nere edadeko, bi bixki zien, bi neskak zien ta haikin motoa garbittu ta dena eta beaiek itxian eukizen ziaten. Geo, lanbatetan eo etortzen nitzan etxea, libre uzten ziatenian. Ta goatzen naiz, batian "este" launa Azpeitiko hoi Galdos, Luis Mari Galdos, hoi gitarrakin ta nik tanboliña bizkarrian ta harrek gitarra ta motuan heldu giñan biyek. Ta Pamplonan kamioi batek heldu zigun ta lurrea eori giñan. Ez [...] ezer pasa, baiño tanboliña hautsi zen. Hautsi in zan tanboliña ta kapitanaian esan niyan: "Mi Capitán, que me tendra que dejar marchar a casa otra vez por que no tengo otro tanbolín, se me ha roto". "Teniente, apunta bien todo lo que te hace falta que no vas a ir más a casa". Ta goatzen naiz tanboliñan billa nola etorri nitzan berriz. Neon nik nik egiya esan egunak oso onak pasa dittut, danboliñakin ta, karo, ambiente bat lagunartia, geo Donostia [...] lagunartia, Luis Mari Galdos ta hoik ta.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Agustina Lizarazuri buruzko oroitzapen onak

- **Hizlaria(k)**: Agirre Telletxea, Xebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-002/009
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:06:47. **Bukatu**: 00:07:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Agustina Lizarazu izan zuen maistra. Oso maistra ona zen, asko maite zituen umeak. Haren oroitzapen onak ditu.

Transkripzioa

-Ze mouzko maistra zan Agustina Lizarazu?
 -Ona. Zoragarriya. Oi! Ze amon ona zen!...
 -Ona zen...
 -Amona, bai. Maitte zigun! Nola, nola!
 -Ez zen haserretzen... [...]
 -Ez, ez, ez, ez, ez zen haserretzen. Ni nintzen trebe xamarra.
 -Zu?
 -Bai. Trebe xamarra nitzen, bai... Ta geo leyua... Itturriya ikusi dezute, honea heldu [zeatela...]
 -Bai, bai.
 -Pues horrea ematen zuen leyuak. Eta nik hartzen nittun netzako lagunak. Eta eamate gendun arratsaldian txokolatia ta ogiya. Eta "nocilla" bezela abian txehe-txehe in ta han leyuan. Ta "biño ze ai zea, Sebastiana?" esaten zitten Agustinak. "Ze ai zea?"-ta... "bai... goxo-goxo jaten!" ta han, eta bee ondoa ekartzen zitten!
 -Orduan zu bere gustokua ziñan, ez?
 -Bai, bai, bai... Oso oroigarriak die.

2.2. Aitarekin eta eskolan ikasitakoak

- **Hizlaria(k):** Agirre Telletxea, Xebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-002/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:07:53. **Bukatu:** 00:09:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Irakurtzen eta idazten, aitarekin ikasi zuen. Eskolan zer ikasten zuten azaltzen du: alfabetoa, dotrina... Ikasteko, abestu egiten zuten. Dena euskaraz ikasten zuten.

Transkripzioa

- Ta irakurtzen ta idazten ikasi zenun beakin o?...
 - Aitakin.
 - Aitakin ikasi zenun...
 - Bai, bai, beakin abezedayua, dena ikasi genun.
 - A, abezedayua...
 - Bai, abezedayua. Bai, dena. Hantxen eukitzen zuen bee tablero bat, eta hantxen, zean, esto, makil luze batekin, hantxen joaten giñen, ta denak hola, ta beak...
 - Letrak...
 - Beak bai. Letrak bai. "A", "b", "c", "d", ... hoik denak, lehenbiziko... zea hoiyek. Biño, dotriña dena... dotriña ez, oraziyuak itten genittun, ikasi, beakin.
 - Eta etxeko lanak ta hola ematen zizkizuten?
 - Ez, ttikiyak giñen orduan!

- A, ttikiak ziñaten
- Lau urte, lau urte, Lau o bost urte... Zazpi urte arte ibili nitzen beakin.
- Bai, bai, bai, bai... Ta kuadernua ta hola erabiltzen zenuten?
- Ez, ez, ez, ez...
- Ez zenuten erabiltzen...
- Ez, abestu bezela itten genun, dena...
- Kantak...
- Bai. Beakin.
- Goatzen dittuzu, beakin ikasitako kantak?
- Ez. Ez naz oroitzen. Kantak ez... Abestu, abestu, zeak itten genittun, abezedayuanak eta hoyek abesten genittun.
- Ya...
- Ta gero, zeak, oraziyuak: 'Aita guria'-ta, 'Salbia'-ta... Hoiek denak zien dotriña ttikikuak, esaten geniyon bezela. Bai...
- Eta euskeraz erakusten zun dena?
- Dena, dena, dena...
- Dena euskeraz iten [zun].
- Bai, bai, bai... Dena euskeraz, bai.

2.3. Txerria prozesioaren atzetik

- **Hizlaria(k)**: Agirre Telletxea, Xebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-002/018
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:21:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Lehen baratzeak eta sagardiak zeuden Lezon. Behin, Aste Santuko prozesioa zela, txerri batek etxetik alde egin, eta prozesioaren atzetik joan ziren.

Transkripzioa

- Hemen, hola, lapurretak, sagarrondak-eta, horrelakuak bazeuden? Hola, arbolak eta hola, baserriak-ta, hemen inguruan...

- Bai, bai, bai. Dena. Atze alde hoi dena baratzak. Ez zen kamiyoik. Nee aitonan ta amonan baratza'de hor zen. Itxe horren puska. Eta geo kamiyoa in zuten biño dena baratzak ta sagardiak. Oso polita zen. Oso polita.

- Osea, etxe bakoitzak bazun bere baratza.

- Bai, bai, bai. Eta esaten dizut /esateizut/, hau, ze, hemengo ondoko etxekua'de, gertatu zen behin batian, zea, zeak zakazkin, horko bizilagunak: txerriak. [...] Ta Aste Santua zan. Ta prozesiyua hemen iten zan, beti. Zea, Aste Santuko prozesiyua. Eta zer da, ta atia erekiya utzi, ta jende dena prozesiyun zijuena, txerrieken atzetikan. Bai, hala gertatu zan. Ze farrak... U! Hoik farrak in genittun!

- Bai. Holako...

- Oseake txerriak kalea atera zian...

- Kalea atera zien, ta prozesioan atzetikan! Holako... Holako gauzak! Bai. Oso polita zan hau. Oso polita. Ta oso kale alaia.

2.4. Tifusak ama eta anaia eraman

- **Hizlaria(k):** Agirre Legorburu, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-007/002
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:04:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 5 anai-arreba izan ziren, baina bat hil egin zen. 10 urte zituela, 1937an tifusarekin hil ziren ama eta anaia. Bera zen senide zaharrena. Hilerrira inork ikusi gabe eraman zituzten. Aitak epilepsia zuenez, lanetik bidali zuten; denda txiki bat jarri zuen orduan kale nagusian eta hari esker atera zen aurrera familia.

Transkripzioa

-Oseake bost izan ziñaten baiño aurretik bat hilla zen.

-Bat, bat hilla zela esaten zuten, ez dakit.

-Esaten zuten...

-Zeatik nik hamar urte nittula, guen ama ta anai bat hil zien /hiltzien/, hor, hemen do anaia, hil zien hillabete batian tifusekin. Konprenitzen? Eta nik orduan, pues, istoria asko ez dakit. Zeatik aittak miña zun ta nahiko lana zakan. Ni nintzan zaharrena hamar urtekin, zaharrena ni nitzan, arreba bi urtekua, ama hil zenian, eta, osea, nik ez dakit istoria asko zeatik attak ez zeukan brometako zeaik, orduan nahiko lan bazan hazitzen, gerran.

-Bai...

-Konprenitzen?

-Bai. Ta ama ta anaia esan dezu tifusakin hil ziala...

-Bai.

-Noiz hil zian? Ze urtetan?

-Treinta y siete. En mil novecientos treinta y siete.

-Ta hor ze eondu zen ba, zean bat, holako, jende askok harrapatu zun gaitz hori?

-Guen itxian iya denak.

-A bai, e?

-Arreba hasi zen. Arreba Maria Pilar hasi zen zea, tifusekin. Gero ama, gero anaia... Anaia zea zen, ni elbarriya naizelako [...] hola ttikiya, e! Bestela... Mutil haundiya zan gure anaya. Goñi. Bonifazio. Eta hillabete batian hil zien. Ta kanposantua eman zittuzten inorrek ikusi gabe. Gaitzakin, [zeatuta]. Ta gure atta, pues, nahiko lana zakan bere atake epileptikuakin. Zeatik attak itten zun, Trintxerpen itten zun lana, arotzian. Ta atake epileptikok hasi zienen ematen, biali in zuten, biali edo zea, ta orduan denda ttiki bat jarri zuten, kalle nagusiyan, denda ttiki bat jarri zuten ta harrekin, nolazpaitte zeatu giñen pixka bat, biñon gaixki.

2.5. Txarro beretik edaten zuten denek sagardoa

- **Hizlaria(k):** Zabala Urdangarin, Bernarda; Zabala Urdangarin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne

- **Erref:** LEZ-011/016
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:30:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena:** Barrikan ekartzen zen dolaretik etxera sagardoa. Lan txarra omen zen barrikatik etxeko barriketara hustea, altuak zirelako. Botilan gutxi sartzen zuten, urarekin nahasten zutelako. Txarro bakarretik edaten zuten jatorduetan denetk, ez basotik. Jan ere erditik egiten zen.

Transkripzioa

- Ta gero nola ekartzen zuten sagardua berriz'e baserrira?
- Berriz'e, pues...
- Barrikan.
- Barrikan. Karri, gurdiakin jon, behia ta gurdiakin ta, barrika hartu ta geo itxea ekarri.
- Barrika han bete...
- A! Hoixen. Ta itxea ekarri, hustu berriz'e ta baldin bazen gehio, berriz'e billa joan ta... Hola ibiltzen giñen.
- Saardua zeatzen'e guetzako ez zen /etzen/ lan eerra. [Hola] altxatu behar izaten zenun ta gu ezin alletu askotan ta han ibiltzen giñun: baldia gurditikan hartu balde... igual, zea, pitarra, o sagardua ta geo barrikara hola bota. Barrena.
- Barrika haundiyak zien orduan! Barrika haundiyak genitun, altuak, eta hara bota ber ta...
- Itxian...
- Bankuakin o jarri, bankua o zerbaitte hola jarri eta haren gañetik.
- [...] hustutzen geniyon.
- Baldiakin geo bai, bota...
- Bai, bai. Eta urte guzirako sagardua...
- Bai.
- Bai. Hala itten genun.
- Ta enbotellatu?
- Itten gendun tarteka miño ez beti. Ez. Gutxi iten genun guk enbotellatzeko're. Enbotellatze ezkeotan'e sagardua purua in behar zen / bertzen/. O saardo ona, botilan jartze ezkeotan. Ta gu general...
- Ur pixkatekin.
- Urakin itte genun.
- Ur pixkatekin. Ez zen /etzen/ edari... bueno... Nahi den hainbeste sagar ez zen izaten orduan. Ta ura pixka bat /pixkat/ bota ta... [han nahiko] itten genun ta urte guzirako in.
- Eta ohitura zenuten otordu guzitan sagardua eratekua...
- Bai.
- Bai, sagardua, bai. Ardoik ez zen ordun! Ardua rrosteko ez zen /etzen/ diruik!
- Saardua.
- Ta sagardua, bai. Ta ez gaur bezela, zea, baso banatan ta hola're ez, e! Txarruakin jarri, ta denak...
- Handikan.
- ...bakoitzak noiz ean behar zun, ordun denak txarro hartatik. Ta fuentiak ere ez, zea, uain bezela platera banakin. Jarri fuente batin ta han, kutxarik eta. Denak.
- Handikan.

- Gue gazte denbo... bueno, gaz... Ttikiyak giñen biño bueno, geo pixkat gu zeatu giñenen [...] Kanbiatu genun pixkat guk ere, biño...

- Lanea pixkat hasi...

- Bai. Ikasi genun pixkat, eta zea, biño lehenotik ez.

- Bai, ttikiyak giñan...

- Ta esaten dizut /esateizut/ pitarra ekarri o sagardua karri ta, ai! Utzi hola lurrin, mahaian gañin ez zen tokiyik izaten ta, utzi hola lurrin ta "haizan, ekartzan pitarra" ta hor. Txarrotik. Ez zen /etzen/ basoik eta ez zen /etzen/ zeeik.

2.6. "Ez da larrosarik arantzarik gabe..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Lizarazu Irazu, Jose Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-013/022
- **Iraupena**: 0:00:36. **Hasi**: 00:51:23. **Bukatu**: 00:51:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Ez da larrosarik arantzarik gabe..." kanta abesten du.

Transkripzioa

"Ez da larrosarika arantzarik gabe,
ez da larrosarika arantzarik gabe,
ez amoriyoik ene maitia penarika gabe,
ez amoriyoik ene maitia penarika gabe.
Biyotz bat daukat eta ai mila banitu,
Biyotz bat daukat eta ai mila banitu,
mila zuretzat ene maitia emango dizkizut"

2.7. 'Egunsentia' abestia

- **Hizlaria(k)**: Lizarazu Irazu, Jose Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-013/024
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:52:12. **Bukatu**: 00:52:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Egunsentia" kanta bat abesten du.

Transkripzioa

"Eguzkien argia
leihopetik sartzean
poz eta alaitasunez
esnatutzen gera
txorien abestiakin
alaitutako eguna
gizonen gorrotoakin

galduko dan eguna.

Ibilliko gera
alkarri kalte egiñaz,
batzuen izerdiekin
bestiak diru egiña".

2.8. Arropa eta oinetakoak eskasak

- **Hizlaria(k)**: Lopetegi Aiestaran, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-022/013
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:28:29. **Bukatu**: 00:30:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Elurretarako ez zuten arropa berezirik. Alpargatekin.
Galtzerdirik ere ez. Ohitu egiten ziren hotzera. Oinetakoak eskuan zituztela, askotan, ez hausteko. Papeleran lanean zegoela gertatu zitzaiona. "Gorriya" deitzen zioten nagusiari.

Transkripzioa

- Zer jantzen zenuten elurretara joateko, halako elurra?
- Zer jantzi? Bai, deus ez, deus ez, hola jantzita, bai. Alpargatak.
- Ta gonakin o mantalakin o?
- Ez soinekuak, ta abriguak ta izaten genittun holako holakoak, izaten genittun bai. Ta, alpargatak, alpargatak.
- Eta zeak, azpitik galtzerdiak o zerbaitte?
- Ez zen orduan [...] gaixua.
- A ze hotzak ez?
- Ez ohittu, ohittu itten da, ohittu itten da bai, ohittu itten da. Guk, beti Errenteriara fabrikara joateko're papeleran jazten giñon oiñetakuak, papeleran. Ta, lehen esan detana, denda hontan jende ona beti izandu da ta,[fabrikako] nausiyak'e jazten giñttun kanpuan zeatu, eskuan ematen genittun, guk beti oiñetakuak eskuan. Hor jantzi beharrez eskuan.
- Baserritik hankutsik?
- Hankutsik o batzutan abarkak biñon hautsi iten zian, ez baitzun... materiala're lehen dena zon... oso diferentia zan dena ta...
- Zapatak eskuan.
- Beti zapata edo alpargata beti eskuan, ta han jazten genittun beti kanpuan. Ta egun batian nausiyak esan zigun nausiyak bazien...onak bazien, " Gorriya" deitzen giñon, san zian sartzeko, sartzeko barrena, papelera berta, bai, sartzeko barrena ta langilek zeuden tokira e, han juan ta, han uzteko, eamaten giñuna sarreran uzteko. Jende ona, jende ona.
- Ta "Gorriya" deitzen zenioten?
- Bai, zea, frailliak len izandu zana zea hortan, bazen oso, oso famili... oso billa elegantia zon hor,
- Bai, bai.
- Ezautu dezute ?
- Bai, bai.
- A! ezautu dezute /ezautuzute/... Errenteikua zea? A beira ze ondo. Dotoria zen hua. Ta bai, "Gorriya", ez dakit zeba nola zun izena, ez dakit, "Gorriya"

deitzen giñon. Ta señora're ze elegantia zon han andria're elegante-elegantia ta alaba're alaba bakarra zun ta eunero juten zian eliza. Ta alabak'e, alabak'e, alaba bakarra zun. Bai, badakit nik zeñekin ibli zen eskolan ikasten hua, bai. Jende ona, jende ona beti tokatu dugu.

2.9. Soldadutzako kapitainak euskaldunak zituen begiko

- **Hizlaria(k):** Lopetegi Aiestaran, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-025/050
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:31:32. **Bukatu:** 01:33:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Francoren garaian, euskaraz egiten zuten, erdaraz ez baitzekiten; baita soldadutzan ere. Soldadutzako kapitain bat beti euskaldunekin joaten zen, nahiz eta euskaraz hitzik jakin ez. Soldadutzan, euskaldunak euskaldunekin elkartzen ziren.

Transkripzioa

- Soldadu ziñetala euskeraz aritzen ziñaten zuen artian?
- Bai, bai, bai gu asko giñen euskaldunak. Euskaldunak aritzen giñan, ez zen iñun deus esaten, ez zuten iñon... [...]
- Baño bazekiten euskaldunak ziñatela?
- A bai bazekiten, geo kapitaiña genun denbo askuan, Burgosko bat, solterua zen, mutil balentia zen, Burguskua. Harrek bazun kapritxua're, gu [...] ta iñoa jun ber ez zun, beti euskaldunakin! Beti euskaldunakin jotzen zan! Beti! Mendira, ta, geo beste zea zun, igela bat, igela zer dan badakizu? Zea erreketan ta [...] zapua bezala...
- A bai, igela bai.
- Halakuk gustatzen zitzaion, [...] re asko, ta gabian linternak hartu ta, beti euskaldunakin! Kastillano bat ez zun eamaten, beiñere! Beti euskaldunakin! Ze kapritxosua e?
- Ta zuek ze ibiltzen ziñaten, euskaldunak...zuen...elkarrekin?
- Bai. Gehinian bai, euskaldunak juntatzen giñan. Kastellanuk, Madrideo jendiakin asko. Beti hala zen, "mira un [...] vasco, mira unos vascos". Gu beti euskaldunak juntatze giñan.

2.10. Aitaren heriotza

- **Hizlaria(k):** Sarasola Zumeta, Luixita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-030/004
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:04:54. **Bukatu:** 00:07:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena:** Aitak paper-fabrian egiten zuen lan, 61 urte zituela hil zen arte. Aita hil zen eguneko oroitzapenak ondo gogoan ditu.

Transkripzioa

- Aittak nun itten zun lana?
- Nire aittak papeleran
- Papeleran itte zun.
- Papeleran.
- Urte asko in zittun han?
- Bai, berrogei ta ia orduan ez zen erretirua hartzen oain bezela ta hirurogeita batekin hil zen eta lanian aizela hil zen.
- Istripua?
- Ez, lanian zela ez zen hil baiño jaia zen eta juan zen lanera zeatikan papeleran hamabostian behin jaietan lanea juaten zien eta, meza entzutzeko ordu erdi bat ematen ziyoten ta seietan sartu biharrian itten zien sei terditan sartu. Eta juan zien mezeta ta nik orduan alaba zaharrena bakarra gehio banittun baiño kalia izan nitzan behintzat, eta in nintzen aman etxea ta etorri ta juan nitzan amana gora umiak in eta esan niyon "aitta oain zer duzu?" ta "ez dakit ez niyon ondo neska, hanka're pixkat handittuta dakat eta" eta esan niyon "mezeta juango ziñen ba ta" "bai ze iñ beher ziñen meza eta " "eztaikit baiño hanka handittuta dakazu aitta" "bai bazakiñat bai" ta aitta bazkaldu ta in zen ohera jua ohittura zun beti siesta ittekua.
- Bai
- Eta geo ya negua zen, martxuan hil zen ta arratsaldiam behintzat oso egualdi txarra zeon ta, ni ai nintzan ne bi neska haurrak in attana, aman etxea jua ta, hau in zen [...] jua, hiru nittuen ordurako, mutillakin, nere semiakin, hiru umiekin ez gelditzeatikan etxian. Ta aittak arratsaldiam siestan eondu zen. Neska zaharrenak guria "aittona utzi dazu toki pixka bat ohean sartuko naiz zurekin aittak utzi ziyon eta illunabarrian ni re etxia jua nitzan ta hamabostian behin hogieta bi, hogeta bi eunetik behin aittak ib behar zun seietako lanea jua biharrian, goizeko relebua zunian, bostetako jua bihar zun makiñak martxan jarri, lo itteko. Eta aittak zurrin handiya ateratze zun ta ama konturatu zen ta zurrunga... ta amak "Estanis zer duzu?" (mmmmm) amak berriz e "Zer duzu Estanis?" ta amak lo hartu nahi ez ya labak edo lau terdiyak ta azkeneako ya zeatu zenian ikusi zun ez zula etzutzen o ez ziyola kasoik itten eta etxian zeola anai gaztia esan ziyon "Estino jua ai bizitan eta esaiok, aitta ez zio ondo" Gue etxera jua zen; etorri nitzan ta jua nitzan; ordurako alleatu nintzeneako ya aitta ya hilda zeon.
- Oseake zerbait eman zion o?
- Bai eman ziyon, zea bat eman ziyon tronbosi bat emam ziyon ta aitta halaxe hil zen.
- Baño ordurako ya urte asko iñak zittun papeleran lanian
- Bai, bai,bai zeatikan denboa hailletan ez dakit ze esaten zun hamahiru urtekin o...
- Hasi zela?
- Gezurretan. Ez beittu, ez papelik ta eskatzen; hamahiru urtekin hamalau zittula esan ta osaba Antonio ta hoik denak alkarrekin sartuak zien.

2.11. Kongregazioko ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Sarasola Zumeta, Luixita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-030/016
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:31:58. **Bukatu**: 00:33:26

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Neskak kongregazioan sartzen ziren jaunartzea egindakoan. Kongregazioan zorrotzak ziren. Abenduaren 8an eta San Luis egunean, neskak eta mutilak elkartu egiten zituzten meza bakarrean.

Transkripzioa

- Bueno neskak kongregaziyo batian zeundeten, ez?
- Bai. Kongregaziya.
- Kongregaziyo hortan zenbat urtekin sartzen ziñaten o nola zan hori?
- Komuniyua itten zenunian, komuniyua itten zenunian. Hamaika urtekin komuniyua. Zeatikanen ez baldin bazenakin dotriñikan ez zenun hamaika urtekin itten. Hurrungo urteako uzten zizun ta ya ordun zien ya hamabi. [...] gogorra zen.
- Bai. Eta hor komuniyua in ta geo're dotriña igandero?
- Bai. Igandero, bai, bai, bai, bai.
- Hor segitzen zun.
- Hori eittea nahi zenun artenun o katekesista sartzen ziñan o zerbait in.
- Baiño hor ya kongregaziyoan, pues hasiko zian esaten pues mutillan kontuak eta hau ta beste ta pekatuak ta?
- Bai, bai, bai. Orduan ya.
- Oso zorrotza, ez?
- Oso zorrotza zen, oso gaiña. Eta Ama Birjiñan kontzesiyukoan abenduan zortziyan itten zen neska-mutillak orduan bi, zeatikan beste gaiñekoi eitten zian aparte mutillak ordu batian ta neskak, "Hijas de María", beste ordu betian. Entenditzen? Eo jai batian bat eta beste jaiyian bestiak. Biño Ama Birjiñan kontzesiyoko orduen itten giñen neska-mutillak biyek meza batekin eta bestia, San Luis egunian, orduan'e biyek meza batekin, zea itten zen. Orduan ez zen izaten jai batian bat ta bestian bestia, ez, ez, orduan meza batekin biyek ta beste [gaiñeakoan] jaiero aparte.

2.12. Kongregazioko zigorrak

- **Hizlaria(k):** Sarasola Zumeta, Luixita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-030/017
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:33:26. **Bukatu:** 00:34:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Dantza lotua egiteagatik, kongregazioan zigorrak jartzen zituzten: zinta morea eramane beharra, mezan azkenengo ilaran esertzea...

Transkripzioa

- Eta deskuidon ikusi mutillakin dantzane zerbaitte, bazen neskazahar bat ibiltzen zena dena zea itten, pues harrek bikariyoana joan ta esango zun, zeatiken nik ez dakit besteaiñoiko bikariyua ez zen "adivino" a izengo, pues abisua bazenun, dantzane aittu ziñala ta zinta moriakin.

- Jarri ber zan.
 - Jarri ber zan.
 - Zinta more bat.
 - Bai. Ama Birjiñana eaman beti urdiña eaman biharrean moria. Eta geo izandu zen beste bolada bat, azkeneko zu besteaiñokuan jartzen ziñan bankutan jartzen ziñan, ta beste bolada bat izandu zen, zinta ez eta azkeneko illerako neskak ya mutillakin dantzan ibiltzen zialakoz.
 - Haiek zian...
 - Bai, apartatuk.
 - Mantxatuak ziaztenak eo, ez?
 - Hoixe, hoixe. Zinta morian partez, pues hua, azkeneko filakuak, biño harrapatzen zizuten "bueno, bueno, bueno".

2.13. Albaiteroaren alabaren kristalezko galtzen inbidiatan

- **Hizlaria(k):** Garmendia Lopetegi, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-035/032
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:52:34. **Bukatu:** 00:53:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Adabakinak (petatxoak) ipintzen zitzaizkien hautsitako arropen. Konpondu eta konpondu jarduten zuten beti. Albaiteroaren alabak kristalezko galtzak jantzi zituenean, a zer nolako inbidiak pasatu zituzten!

Transkripzioa

- Ta orduan, gaiñera, oso ondo aprobetxatzen zian arropak-eta?
 - "Hombre" petatxuak eta maindiriak'e zenbat petatxokin. Azpiko gonak amai-ta petatxokin ematen genizkion guk. Bai, bai.
 - Oseake eozein momentutan josten ibiltzen ziñaten arropa konpontzen.
 - Klaro. Konpontzen. Ta galtzerdiak beinga konpondu ta konpondu.
 - Zulua.
 - Bai. Patatakin. Zea ez genun patata jarri ta horrekin. Ta hola.
 - Patatakin e?
 - Bai. Galtza erdian, zea patata sartu ta harrekin, [...].
 - Bai. Ta mediak eta hola ibiltzen zenituzten?
 - Geo bai. Ta mediak bai. Kristalezkuak hasi zienian, prozesiyuan ta betenaiyuan alabak eta: "Ai, zea kristalezko galtzerdiak dizkiyen" atzian jarrita "bai hala die". Inbiri bat! Hola ibiltzen giñen.
 - Dotoria iten zun.
 - "Hombre". Kristalezko galtzerdiak. Geo kanpotik ekartzen zittuzten barkotan-ta're ta haik ezin sortuik, ez genun izaten guk, ez genun ta.
 - Eta nola jantzen ziñaten zuek gaztetan hola, astegunetan-ta nola jantzen ziñaten?
 - Astegunetan pues zea batakin beti.
 - Beti batakin.
 - Beti.

2.14. Ahizpa zaharragoaren soinekoa berari pasatu

- **Hizlaria(k):** Garmendia Lopetegi, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-035/034
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:55:25. **Bukatu:** 00:56:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Jaietan dotore janzten ziren. Gogoan du nola ahizpa zaharragoari jantzi berria egin eta berari harena pasatu zioten.

Transkripzioa

- Eta jaitan igandetan iten zan arropa aldatu beti, ez?
- Bai, jaitan dotore. Beti bazen zerbait´e. Ni goatzen naz komuniyua in nun, nere ahizpan komuniyoko zeakin soiñekuakin eta nei berriya eosi beharrian ahizpai trajia eosi ziyon amak, bueno, tela ta bizilaunak josi ziyon trajia nere komuniyoako. Hoi goatzen naz. Ta nik'e berriya nahi nun: "Ama, nei berriya, berriya". Ta arreglatu ziyen ahizpana ta harrekin eta gaiñea, lehen igual laupabost itten ziyen soiñeko batekin, denak utzi bata besteai. Nik ahizpanakin in nun. Ta harri berriya in ziyon nere amak berriya in ziyon harri trajia. Berdexka bat, goatzen naz gaiñia koloria ta.
- Bai, e! Klaro, orduan arropa berriya gauza haundiya zan.
- Eta astian ibiltzen giñan batakin ta hola biño jaiyeako apaintzen giñan. Bai, itten giñan, itten giñan.

2.15. Lehengo arropak eta haiek zaintzeko ahaleginak

- **Hizlaria(k):** Zumeta Jaunarena, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** LEZ-060/033
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:44:37. **Bukatu:** 00:47:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Umetan, jostunak egiten zizkien arropak. 13-14 urterekin, galtza luzeak janzten zituzten mutikoek, eta galako janzkera iruditzen zitzaien hori; ilusio izugarria egiten zien. Txapelik ez zuten erabiltzen umetan; gurasoek bai, ordea. Lehen, zer-nolako oinetakoak erabiltzen zituzten azaltzen du. Zapatariek lan handia izaten zuten, oinetako pare bakarra izanik, jendeak ondo zaintzen baitzituen.

Transkripzioa

- Zuen erropak eta ze izaten zian jostunak eindakuak?
- Bai gure amak ez zakian josten baiño, bai bizilaguna jostuna zena ta galtza motzak, galtza motzak ibiltzen giñan orduan ta, orduan behin hamabi-hamahiru-hamalau urtien galtza luzie jazten zen "como vestirse de gala". Galtza luzia jatzia mutil kozkorrantzako, oan bezela ez,ez,ez galtza motzak. Ta galtza luziek jatzia ya usten zun ya gizona eiñ ziñela, ilusiyo izugarri handiya galtza luziek jatzia garai haietan. Beti galtza motzakin ta, batikan ere ez zien eskolan (...) Juten ziñen bezela jun, han ez zen

zearikan, denak galtza motzak.

- Ta txapelik erabiltzeko ohiturarik?
- Txapelik ez,ez,ez; txapelik ez.
- Umetan ez?
- Umetan ez, gurasuek bai baiño nik txapelik ez nun behin ebiltzen.
- Ta gero, behin hamabi urtetik aurrera
- Ezta ere, nik txapela oain ebiltzen det neguan, gure aittak beti txapel haundiyakin, gure aitta haundiya zen. Orduan gizonekin txapelakin baiño hola gazteiyak ez. Hola hemezortzi- hogeita bost-hogetasei urte txapelik ez behin ere.
- Ez zen ohitturarik.
- Hori ez zen ohitturie ezta lantokiyan. Lantokiyan ez zen zera bixera, orduen ez zen bixerik gaiña ta, lantokiyan gu aittare txapela baiña lantokiyan txapellik gabe ibiltze zun gure aittek papeleran, ez zun txapellik ibiltzen. Kalien ibiltzen huan bakarra.
- Ta umetan oiñetakuak, hanketakuak zer?
- Abarkak.
- Abarkak?
- Ta gomazko zapatak
- Lehen esan dezu gomazko zapatak.
- Ta behin hola hemezortzi urte sandaliak. Hola sandalia haundi batzuek,sandaliak o zapatak'e pareta zea hiru-lau urteko zulo erdiya jarri, takoia jarri ta astien behin bakarra jantzi beste gañekuan abarkak o zapatillak o apargatak o...
- Ta negurako zapatak?
- Neguko zapatak, gomazko zapata haundi batzuek, kubiartak azpian jarrita buenoo, buenoo, buenoo...
- Lehen zapateruak eukiko zuen lana?
- Bai, erru lana.
- Zaharra bota ta berriya?
- Ez,ez,ez oain berzela hiru lau pare ez, ez,ez, pare bat eta harekin ahal zen guziya tiratzen zen, dena arreglua, dena arreglua. Zenbat sola erdi ta zenbat takoi, oain zapatero batek esango nau ta harek... oaingo suelak dia pegatuak ta orduan eskuz funtzionatzen, ez zeon kolik eta ezerre dena dena eskuz, larrua.

3. Ekonomia eta industria

3.1. Legamia-fabrikako lana

- **Hizlaria(k):** Agirre Telletxea, Xebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-002/011
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:09:18. **Bukatu:** 00:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena:** 7 urterekin, goiko eskolara joan ziren. Mutilek eta neskek aparte ikasten zuten. 14 urterekin, eskola bukatu eta fabrika hasi zen lanean, legamia egiten. Hango lan-prozesua azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta gero, goiko eskolara esan dezu pasa ziñatela...

- Goiko eskola, bai, ya bai. Ta han in genun, ba, lehemizikua, neskak neskakin. Mutillak mutillakin zien, goiko eskolan. Eta lehemizikuan, pues, ya irakurtzen-ta hasi giñen, ta geo bigarrenian, ya han esku-lanan'de bai, itten genun, ta han ya leziyua-eta ematen ziguten. Ta geo hirugarrenian, hamalau urte arte, gehio.

- Ya. Oseake ibili ziñan hamalau urte arte.

- Hamalau urte arte, bai.

- Ta gero, eskola bukatu eta gero? Ikasten segitu zenun beste zerbatte o?...

- Ez. Orduan, orduan ez zen holakoik. Gaur bezela.

- Ta ze iten zenuten ba eskola bukatuta?

- Fabrikan.

- A, fabrikan.

- Hamalau urtekin hasi nitzan.

- Hamalau urtekin...

- Hamalau urtekin.

- Ta nun hasi ziñen?

- Leamia itten zuten fabrikan. Hor nola zaldiyak?

- A, bai, bai... Errenderin.

- Hor zen. Lezo ta Errenteiya da. Biena da.

- Bai, muga dago.

- Muga, bai. Lezo'de partia badu ta Errenteriak'e bai. Eta hor. Leami fabrikan.

- Ta ze iten zuten? Esan dezu?

- Leamiya.

- Legamiya...

- Leamiya. "Levadura"?

- A bai...

- "Levadura", bai. Zen, esto... "Alcoholera". "Alcoholera"-ko enpresa zan. Ta hor...

- Ta ze lan iten zenun han?

- Ba, iten zuten, zea, leami hoi... Zien, esto... trozuak. Eta geo makinan, botzen zuten, ta ateratzen zen, ta gero moztu ta kilo erdiko zea, paketiak. Eta guk itten genittun, zeatu, "empaquetadoras".

- A...

- Bildu. Eta...

- Ta "empaquetadoras" emakumiak ziñaten hor...

- Emakumiak, emakumiak giñen, bai. Eta geo kajetan sartu, kajetan, haiek, enpaketatu ta... hartan. Bai.

- Oseake eskola bukatu ta ya lanian hasten ziñeten.

- Lanian.

3.2. Haurdun eta lanean

- **Hizlaria(k)**: Cordero Corral, Amalia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-034/026
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:56:46. **Bukatu**: 00:59:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Haurdun zegoela, lanean jarraitzen zuen. Orduko lan-baldintzak kontatzen ditu. Haur guztiak txikiena izan ezik etxean izan

ditu. Haurdunaldietan pasatakoak kontatzen ditu. Ospitalean zer baldintzatan erditzen ziren aipatzen du.

Transkripzioa

- Oseake zu haurdunaldiyak lanian
- Lanian
- Lanian junez egin dituzu
- Uste det azkenekuan zeozer... hillabete o hillabeterdi ez nao seguru jaiotzen zenian.
- Jaio ta gero?
- Geo, baiño lehenotik ez, baiño gaxki, nik pasa nun zaharrenakin... Karo, ez nun jaten, ez platanua, oso gaxki.
- Eta ya haurra zetorrenian momentu hortan ze iten zenuten? Lanetik atera ta korrika etxea jun o nola?
- Ez, nik surtia izan dut etxian serbitu dut beti bai eta...
- Etxean euki dituzu haurrak?
- E?
- Etxian euki zenitun?
- Bai, ttikina ez dut izandu etxian oso gaixki pasa nun ttikiyakin, oso gaizki, oin berrogei urte dittu. Beiño ez nitzan persona, dena bota, beatzi hillabetiak eh, beatzi hillabetiak, oso gaixki eta, azkeneko, karo febrerokua da eta enero azkenetan zea nun, nola esaten da estomagokua?
- Bihozterria?
- Bihozterria bai, erre nayian eh, beatzi hillabetiak jaten nuna jan eta bota ein bihar. Oso gaxki bederatzi hillabetiak, eta esan ziaten Donostian bazela bat "en la calle Prim" hoi goatzen naz, medikua ez naiz goatzen, eta izan zian " la cria está bien o el crio está bien y a ella hay que mirarle, ella está mal" hoi eneruan azkenian, ta febrero lehen biziya jaio zen; deskantzo earra eman ziten. Oso gaxki pasa nun, hiru buelta lepuan ezin jaio, enun sentittu eze. Orduan modua zen kareta bat jarri ta galdu itte zendun zentzua.
- A bai e?
- Ez zenun deus'e sentitzen, ta jende guztia hara juaten zen ta nik esaten nun...
- Ta nun hori?
- Hospitalian, Donostiyan ta hiru milla peseta pagatzen zen orduan. Eta gure gizonak esate zun: "denak etxian ta zuk kapritxosa hara juateko" baiño eztakit zergatik hara juateko gogua nakan, barrenak esan zitten zuaz hara. Ez zan jaioko etxian eh, ez zan jaioko. Hala esan ziten enfermerak hurrengo goizian etorri zanien esan zitten: " ai que trabajo nos ha dado usted, nos hemos puesto hasta encima". "Yo no sentí nada". Ez nuen deus ere sentitu. Eta geo neska edarra, lau kilo, denak haundiyak izandu dittut, denak haundiyak. Bat kaxkarra, ez nun jaten ta. Oso gutxi jaten nun eta bera hala atea zan, kaxkarra atea zen. Emakume ederra do oain. Eta ttikiyakin asko pasa nun.

3.3. Bi errelebotan lanean fabrikan

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Lopetegi, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-035/025
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:41:20. **Bukatu**: 00:42:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Senide baten bitartez hasi zen Lino fabrikan lanean. Zortzi urte egin zituen. Zortzi ordu egunean. Bi errelebotan egiten zuen. Larunbatetan ere egun guztia lan. Berak nahiago goizeko erreleboa.

Transkripzioa

- Ta nola hasi ziñan zu Linon lanian, zenen bidez-o?
- Ba nere aman lehengusu batek han itten zun lana ta harren bidez.
- Zenbat urtez aitu ziñan han lanian?
- Pues hamaseitik hoita lau urte arte.
- Zortzi urte.
- Bai.
- Eta ordu asko sartzen zenittuzten ordun fabrikan?
- Ez. Zortzi ordu bakarrak. Beste fabriketan sartzen zittuzten orduak, baiño han ez zen, han ez zen. Alkoholeran ta goatzen naz igandetan ta denian joaten zien.
- Bai. Eta larunbata ez zan izaten jai eguna ezta?
- Ez, ez, ez, ez. Launbatetan gabeko hamarretan atea ta astelehenian seitako berriz. Hola.
- Ordun sartzen ziñaten goizeko seitan?
- Seitan ordu biyak arte. Ta beste errelebuan ordu bitatik hamarreta ta launbatian ordu bitatikan hamarreta in ta geo astelehenian kanbiatzen giñen seitatik ordu bita.
- Ta zui zein errelebo gustatzen zitzaizun zuri?
- Nei goizekoa.

3.4. "Pellas" eta "mantxurrianoak"

- **Hizlaria(k):** Garmendia Urzelaieta, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** LEZ-076/033
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:48:53. **Bukatu:** 00:51:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
Euskara » Euskararen egoera
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Euskaraz aritzen ziren egunerokoan, eta erdaldun elebakarrekin izaten zuten tirabirarik.

Transkripzioa

- Ederki. Eta hizkuntza ohitturak... nola zenittuzten? Euskeraz iten zenuten zuen artian?
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Horrela eskolan eta horietan ez, bainon gaiñekuan kalia guen artian dena euskaraz, orain biñon gehiago eukeran.
- Fabrikan'e bai?
- Baita ere. Bueno... erdaldunak zienak, gero... neri graziya itten zian. Por que gertatu izandu zitzaigun guk kanpoko jendiai guri esaten ziguten "pellas", euskaldunai. Ta guk beai "mantxurrianos". Eta esan'e bai, nola ez zuten ulertzen, "hablar en cristiano". Eta ui, ikastak /ikas ezak/ nahi baldin

baduk! Biño hori bai, "hablar en cristiano" ta horrelako gauzak esaten zizkiguten. Erdaldun... erdaldun jendiak. Ta beak "pellak" ta esan ba gu'e hemen gaittuk hi "mantxurrianuak" ala! Hemenguak ez zeazte zuek! Ta hor zipi zapia izaten zen e, hor bai izaten zen zipi zapia. Eta frabriketan'e muturra aguro sartzen zutenak'e bai e! Gu giñan beldurra atzerago gelditzen... ta hola, hola atera gera. Esaten den bezela, "así nos ha lucido" edo nola esaten da? Bai, jende erdalduna muturra gehiago sartzen zun guk biño, gu atzerago. Orain, lan itteko, guri emango zigutenik ez zen. Makiña bider esaten zun enkargatuak, harek nahi izaten zun Lezoko jendia lana itteko. Ta nik behin galdetu nion, "ta zergatikan nahi dezu Lezoko jendia? Hemen Erreterian'e bada" ta harek erantzuna "más vale...-nola esaten zun?- más vale malo conocido que bueno para conocer" edo zerbaitte hola esaten zun. Miño /baino/ harrek, Lezoko jendia. Ta neri batian nagusiyak esan izandu zian, beti neri Miren ez ziaten, beti Garmendia. "Garmendia, algún día ya traerás algún hijo aquí", "digo estando usted desde luego no". Oso zakarra zen, beti lana, lana, lana, harrek ez zun besterik, lana, lana, lana. Hori, zuriyak e, nazi zaharrak ez, zuriyak. Ta holaxe gure denbua.

4. Familia eta harremanak

4.1. Kaian harrapatutakoa, etxera

- **Hizlaria(k):** Agirre Telletxea, Xebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-002/016
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:16:41. **Bukatu:** 00:19:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- **Laburpena:** Kaian, baziren txalupak, eta Xebastianak arraunean ikasi zuen. Arrainak harrapatzen ibiltzen ziren beraiek. Txirlak eta arrainak biltzeko teknikak azaltzen ditu. Harrapatutakoa etxera eraman eta jan egiten zuten.

Transkripzioa

- Ta hemen izango zian ba txalupak eta, o itsasontziak o kaia...
- Bai. Bai, bai, bai... Kaia, bai, bai. Txalupak bazien. Bai. Ta motorak'e bai, osea, txalupak, arraunian ikasi nuen nik.
- A bai?
- Bai. Ta juten giñan ta arraiak hor bertan harrapatzen genittun.
- Arraiak?
- Arraiak. Holaxeko pantxuak eta txitxarruak. Marisma zen hoi dena... Dena itsasua. Eta...
- Hori izango zan marea iyotzian, ez?
- Marea iyotzian, bai, bai. Geo, marea jeisten zenian, zenittun almejak, txirlak, "leituiak" esaten genion bezela... zien. Bai.
- Ta nola hartzen zenituzten almejak eta txirlak eta...
- Altxurrakin juan, altxur txiki batekin, ta atxurtu, ta ateratzen zien.
- Ateratzen zien...
- Bai.
- Eta arraňak eta arrantzatzeko?
- Amuakin. Amuakin. Eamaten genun lokarri bat, jarri amua muturrian, ta batelatik bota, ta taka! Asko izaten zen arraia, hemen.

- Baño amua hutsik ez zan eongo?
 - E? Ez, ez! Arrai puskak o jartzen geniyon.
 - Arrai puxkak.
 - Bai. Eta geo, zen beste zea bat, astillero bat, "Baraderos" deitzen zitzaion orduan. Puntalen. Hau zen, ayeka hau, kaia.
 - Kaia.
 - Ta hua, berriz, puntala deitzen zioten.
 - Hor eskuin aldea.
 - Eskuin aldea, bai. Nola do... Zea...
 - Liburutegiya?
 - Liburutegiya ta, horren azpi aldian zen. Eta han, esto... itsasua jeisten zenian, zen, zea bat bezela... esto... Zurriolan nola da, uain ez naz goatzen momentu hontan... Espigoia bezela! Eta juten giñan hara, hartu ontzi batzuek, eta "xipoi" bat, "xipo" bat, zea, hola makilla bezelako... xipotx bat! Eta zirikatu zulotan, ta karramaruak ateratzen zien. Bai... Eta karramaru haiek egosita zien zoragarriyak jateko. On-onak.
 - Oseake harrapatutakua jan iten zenuten...
 - Jan... bai, bai, bai, bai, bai! Ordun ura garbiya zen ta... Bai.
 - Ta zenbat urtekin ibiltzen ziñaten hor hola karramarrotan ta...
 - Pues... Hamar o hamaika, hamabikin...
 - Lagun artian?
 - Lagunartian jeisten giñen ta, ibiltzen giñen...
 - Ta etxean gustoa hartzen zituzten?
 - Bai! Guen zera zen, eskolatik atera ta orduan ez zen beste zeeik, hola ibiltzia, jostaketan, eta holako gauzak [...].

4.2. 1957ko legearekin, ezkontutako emakumeek lanik ezin egin

- **Hizlaria(k)**: Agirre Telletxea, Xebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-002/020
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:22:48. **Bukatu**: 00:23:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
 Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Ezkondu arte, legamia-fabrikan aritu zen lanean. 1957an, legea jarri zuten, emakumeek ezkondu ostean lanik egin ezin zutela esaten zuena.

Transkripzioa

- Josten ikasten aittu ziñan Errenteiyan...
 - Bai, bai, bai, Errenteiyan.
 - Ta fabrika lanian'e bai: legami-fabrikan.
 - Bai, bai, bai.
 - Ta hor zenbat denbora eon ziñan fabrikan?
 - Ezkondu arte.
 - Ezkondu arte.
 - Orduan etorri zen legia, emakumiak etxea. Berrogeita hamazazpiyan.
 - Berrogeita hamazazpiyan.
 - Milla ta beatzirehun ta berrogeita hamazazpiyan. Ta hamabost urte in nittun, eta orduan legia etorri zen, esaten dizuten bezela, emakumiak etxea. Geo berriro, hasi zien, legia etorri zen, ya emakumiak lanea. Biño

lehenotikan denak emakume denak lanea juaten zien, ezkondata'de.
Lezotikan asko. Asko.

4.3. Mutilengana gerturatzeko moduak

- **Hizlaria(k)**: Larrea Garmendia, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-004/022
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:35:59. **Bukatu**: 00:39:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Gaztetan kalean paseatzen ibiltzen ziren. Mutilengana gerturatzeko aitzakiak. Bera zen lotsa gutxien zuena. Bere lagun bat moja joan zen Lasartera, eta auto-stop eginda joaten ziren bisitan. Lezoko mutil bat jeloskor jartzeko egin zutena.

Transkripzioa

-Hemen Errenteriara ta etortzen ziñaten ya hemezortzi urte bazenituzten, eta esan dezu Biteri kalia gora ta behera.

- Bai, ibiltzen giñan gora ta behera, ta geo Alamedan, ba, "aio" ta "aio" ta "aio" ta.

- Ta aio zenei?

- A ba gure lagunai, mutillak eta beste ezagun gehio're bai, gu kuadrilla bat giñan. Hor ere bado xelebrekeya bat. Ni nitzan oso nee beste laun bat'e monja juan zen "de clausura" Lasartea, eta bixitan jun nahi izaten genun, biñon diruik ez genun, ta ni hortan nintzan "la mas carota" ta nik itten nun autoestop, eta ordun kontentu denak atzean jartzen zien ta "Arantxa, zu jun" ta autoestop egin eta kotxian sartzen giñan ta ez genun biajeikan ordaintzen. Eta hor kalle Biterin ibiltzen giñanian pasiatzen gora ta behera, ba igual pasten giñan ta neri igual gustatzen zait zuetako bat,

-Bai, mutil bat.

-Mutil bat, bai, bai, mutil bat. Orduan ez genakigun neskak gustatzen zienik re!

-Horregatik beitzen zenituzten... garai hartan.

-Ez genakigun, mutillak bai.

-Eta gustatzen zitzaixkigun mutillen batzuek edo eta harekin nola geatu. Ta orduan igual egitten genun ba pakete bat gaztaiña edo txurruak edo erosi, ta guk nahi genittun haiei ba konbidatu, beakin geatzeko. Eta hola ba norbaittei gustatzen baldin bazitzaigun o bat...

- Aitzaki bat behar hitz iteko.

- Hoi da, hoi da, ta beakin geatzeko. Eta behin nere lagun batek nahi zuen Lezoko batekin, hura gustatzen zitzaion, biñon ez zion kasoik egitten! Eta bagenittun bi laun Antxokuak, erdaldunak zien baiñon oso majuak zien! Ta beti guekin eon nahi izaten zuten biñon guk beaiekin ez, ta esan ziten "Arantxa, ven!"- hoi erdalduna zan- "este... ¿por qué no nos quedamos con eso, para que me vea" el otro?" Ez dut /eztut/ esango izena por ke... "para que nos vea". "¡Ah muy bien!" biyek, ta nik segittuan, ba haiekin haiek desiyutan seosten, gure atzetik zebiltzan...

-Haiekin ez zenuten aitzakirik behar, haiekin zuzenian.

-Bai biñon guk ez genun /eskenun/ nahi. Biñon, ba kasu hontan, ba bestiak ikusteko hoiekin geundela ta gaiñea eaman genittun pixka bat itxea heldu

bagiña bezela edo, pixka bat hola, ta bestiak ikusi zigun, ta ikusi zigunian aureaxio ya despeditu genittun ta ya esta, ta mutil horrekin hasi zen, beak nahi zuenakin.

- Eta mutilla jun zitzaizuen?

- Ez, ordun ikusi egin zigun, ikusi in zigun, ta gu geunden bueno entusiasmadak beste bi hoiekin, hixketan ta atzentzio haundiyakin ta hola, bestiak ikusi zigunian ba orduan, hurrunguako ya saiatsu zen beai're gustatzen zitzaion, eta nere launana arrimatzea.

4.4. Elizari bueltaka jolasean

- **Hizlaria(k)**: Egibar Albisu, Boni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-006/002
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:05:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Eskolatik irteerakoan elizari bueltaka ibiltzen ziren lasterka, erreleboak eginez. Zaharragoak pilotan edo futbolean. Kanikekin "kulebrillan" ere jokatzen zuten.

Transkripzioa

- Guen inguruan ba... eskolaa juaten giñan -hori gogoratzen naiz—, beno, eskola bertan giñun, eta eskolaa. Eta gero, ba, handikan ateratzen baldin baziñan, pues elizai bueltaka. Orduan kostunbre handia zen releboak itia, hola, bost-o jarri, hiru lagun alde bakoitzetara. Ta gogoratzen naiz nola elizai bueltaka, alkar ezin harrapatuik eta. Hoi... hoixe gogoratzen naiz. Gero futbolean edo pelotan. Eta beste... gu baiño zaharragoak, ba, jokuan. Frontoiak bazun holako petrila ttiki bat eta han jokuak eitten zien.

- Zu're bai, aittua zea?

- Ez, ez, ez.

- Zein aitzen zian jokuan?

- Ba... dozena bat urte edo haundiyauak. Bai, hori gogoratzen naiz.

- Eta zertaa jolasten zian?

- Jeneralian pelotan. Gero haundiyak baldin bazian, futbolian o hola, ta haik ez ziguten uzten gu eta gu beira. Bai. Gero "kulebrillak" eta holako gauzak.

- "Kulebrillak"?

- Bai, lehenonontak [...] hemendik bota pelota... o... kanikak eta [...] "rak!" eta. O iten zuten jotzen bazeniyon, fuera! Ta hola aitzen giñen. Hori gogoratzen naiz.

4.5. Ia ito egin zen eta harrezkero ez da uretara hurbildu

- **Hizlaria(k)**: Egibar Albisu, Boni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-006/004
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:05:28. **Bukatu**: 00:07:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, erreka eta uretako jolasak

- **Laburpena:** Igandetan igerian ibiltzen ziren "tronkotan", itsas-adarrean zegoen , eta haren ondoan zegoen zerrategi batean. Baina berak ez zuen igerian ikasi. Behin uretara bota zuten eta hartu zuen sustoarekin ez zuen berriz uretara hurbildu nahi izan. Dena dela, gehienek ikasten omen zuten.

Transkripzioa

- Ta geo udan, berriz, gogoratzen naz nola jendia juaten giñan tronkotaa ta igeri. Igeri igeri. [...] ba tronko gaiñen edo. Hor oan puertua do... hartua do... hor zeon [...] fabrika bat. Oan kotxiak nola egoten dia? Beste aldan, beste aldan. Almazenak daozen tokiyan. Ta hor [...] zan zerreri bat ta zerreriyan kontran zeozten tronko pila bat. Tapatuta zeozten, e! Sartzen zin ta poste batzuk zeozten hola goitik sartuak ta barrenan tronkuak, zerratzeko. Eta joaten zen jendia ta raa... ta ibiltzen giñan, e! Deskuidatzen bazenun, tronkuak buelta ematen zun, ba, putzutaa!

- Eta ze iten zenuten, tronkua hartu?

- Ez. Tronko gaiñian juan eta marea jaitsitzen zenian... marea gora hasten zenian, iten zun tronkua gora iyo, baiñon ya bertatik igeri ibili [...] edo batzutan bai, segun ekartzen [...], baiño hor igeri ikasteko-ta toki onak zian.

- Oseake, tronkuak gelditzen zian uran gaiñian.

- Uran gaiñian. Ta hor... hor de askotan. Hori gogortazen naz, bai.

- Gogoratzen zea igeri noiz ikasi zenun?

- Ez nun ikasi! Ez. Euntalako sustua eman nun ta geo [ataa in ziten] ta ez nun gehio ikasi. Ez nitzan arrimatzen ´e! Ez nun ikasi.

- Eta ze gertatu zitzaizun ba?

- Bota iten zietela.

- Bota in zizuten?

- Bai, bota ta bota. Eta geo ataatzen zieten, baiño jo! orduako trago earrak iñak eta ni geroztik arrimatu ´re ez!

- Zenek botatzen zizun?

- Lagunak, lagunak.

- Jolasian?

- Bai. Beno, batzuk igeri, ta [...] baiño jolasten ai giñala. Ta geroztik ez nintzan arrimatu ´re. Tronkotaa ezta pentsatu ´re! Ez, ez.

- Orduan denak ikasten zuten igeri o ez?

- Gehienak bai. Bai, gue denboran bai. Tronkotan. Hor eta oan... beno, indus... Ibardueron fabrika ez zeon orduan. Hor ya lohia ta hola zeon. Hor erreka hortan denian ibiltzen zen jendia. Bai. Hori gogoratzen naiz. Ta, gainera, aisa joaten zen. Hortikan sartu ta gero ateatzen giñan Jaizkibelgo bidia... Jaizkibelgo... han... iyotzeko Jaizkibelgo bidia? Handik ateera bat zun horrek. Bide ixkiñatik joaten ziñan, [...] ixkiñatik joaten ziñan ta handikan atera ta jendia etxera. Hori askotan. Holaxe ibiltzen giñan.

4.6. "Ataundarrenekoak"

- **Hizlaria(k):** Artola Agirre, Bitoriana

- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne

- **Erref:** LEZ-009/002

- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:00:53. **Bukatu:** 00:01:55

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Bera jaio zen etxeari "Pantxika-Txikinea" izena jarri diote orain, baina lehen "ataundarrenekoak" bezala ezagutzen zituzten. Ama ataundarra zuen, eta aita Errenteriakoa.

Transkripzioa

-Uain jarri diyote, uain jarri diyote "Pantxika Txikinea". Biñon guen, gure familiya Lezon ezautzen zen "ataundarranekuak" esanta. Gure ama Ataungua zen, eta Lezon ezagutzen giñuzten "ataundarrenekuak" esanta. Ta uain izena jarri diyote, herri, osea, itxiai, "Pantxika Txikinea". Ez dakit zergatik.

-Aita nungua zan?

-Aita Errenteikua.

-Eta ama?

-Ama Ataungua.

-Eta, zein...

-Eta nere aman aldetik, aitona ta amona, denak Ataunguak. Eta aitan aldetik, berriz, Errenterikuak.

4.7. Aitari goldaketan laguntzera zazpi urterekin

- **Hizlaria(k):** Garmendia Gaztelumendi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-026/003
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:03:27. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Sei-zazpi urterekin Jaizkibel ("Aizkibel" dio) atzera joaten zen aitarekin goldan egitera itzulari gisa. Aita zortzi urte zituela hil zitzaion. Umetatik egin du lan baserrian.

Transkripzioa

-Zenbat urte zenitun...

-Sei bat urteko, zazpi iteako, atta difuntuakin Jaizkibelea joaten giñan behian aurea-ta. [...] goldia lurra jiratzeko, ganauakin. Ta atta zazpi urteko hil zen, ta orduko eskola partez behian aurea ibiltzea juaten giñan. Hor, Jaizkibel atzian, baserri batea.

-Itzai, ordun...

-Bai. Behian aurrian ibilli. Goldian lurra jiratzan ta hola ibiltzen giñan.

-Oseake ya sei zazpi urtekin ya...

-Bai! Zazpi urtetako ya juaten nitzan ta... ya zazpik zortzira hil zitzaiten /hil zaiten/ aitta geo... Ta geo etxian, berriz, behi aurrian-ta, artua jorratzen-ta, han aitzen giñan, talua jateko!

-Klaro! Zeatik orduan baratzen o larrian ze lantzen zan? Ze botatzen zan? Artua...

-Artua ta, gariya're itten zen orduan!

-A bai, e!

-Bai. Ogiya itteko gariya're bai ta... Geo ganaduantzako erremolatxa ta, arbiya ta... hola itten zen.

4.8. Senarrarekin oso gustura bizi izan zen

- **Hizlaria(k):** Garmendia Salaberria, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-027/026
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:40:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Lanlekuan zein herrian elkarrekin ibiltzen ziren eta horrela bihurtu ziren bikote bera eta senarra. Maddik ez zuen harremanetan hasi nahi, neskazahar geratzeko prest zegoen, baina azkenean ezkondu ziren eta oso gustura bizi izan zen berarekin.

Transkripzioa

- Nun ezautu zenun zure gizona?
- Nik lanian. Alkarrekin aitzen giñen. Alkarrekin aitzen giñen.
- Alkarren onduan?
- Ez oso onduan, ez biño han aitzen giñan ta etxean alkarren ondoan bizi giñan ta beti.
- Alkarrekin beti ez?
- Bai.
- Eta ordun nola izaten zan ba elkar ezautu ta hola ta atea nahi dezunakin eo?
- Klaro, klaro. Harek bai, esan hola eta askotan ni lanetik etortzeko arratsian hamarretan etortzeko sotoan zai egoten zen. Sotoan zai egoten zen eta ni "mekauen sos, hau hemen zeok-ta" eta beti-ta. Esaten ziyen: "Maddi, gu biyok atera bihar dugu, Maddi, atera bihar dugu, biyok hasi bihar dugu". "Ez, nik ez dut nahi, neskazahar geratu nahi dut, ez dut nahi". Ta nik ez nun gogoikanen, ta esan ta esan ta esan, tanoizbait'e haizia hartu nun.
- Hasi ziñen?
- Bai.
- Ta gustoa?
- Bai, bai. Geo beakin oso gustoa bizi, oso gizon ona atea zitzaitten, oso ona, eozein kejaik gabia.
- Nun ezautu zenun zure gizona?
- Nik lanian. Alkarrekin aitzen giñen. Alkarrekin aitzen giñen.
- Alkarren onduan?
- Ez oso onduan, ez biño han aitzen giñan ta etxean alkarren ondoan bizi giñan ta beti.
- Alkarrekin beti ez?
- Bai.
- Eta ordun nola izaten zan ba elkar ezautu ta hola ta atea nahi dezunakin eo?
- Klaro, klaro. Harek bai, esan hola eta askotan ni lanetik etortzeko arratsian hamarretan etortzeko sotoan zai egoten zen. Sotoan zai egoten zen eta ni "mekauen sos, hau hemen zeok-ta" eta beti-ta. Esaten ziyen: "Maddi, gu biyok atera bihar dugu, Maddi, atera bihar dugu, biyok hasi bihar dugu". "Ez, nik ez dut nahi, neskazahar geratu nahi dut, ez dut nahi". Ta nik ez nun gogoikanen, ta esan ta esan ta esan, tanoizbait'e haizia hartu nun.
- Hasi ziñen?

- Bai.
- Ta gustoa?
- Bai, bai. Geo beakin oso gustoa bizi, oso gizon ona atea zitzaitten, oso ona, eozein kejaik gabia.

4.9. Emakumeak nagusi etxean

- **Hizlaria(k):** Artola Zuloaga, Joxepatxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-028/002
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:04:48. **Bukatu:** 00:06:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** 7 ahizpa eta anaia bat izan dira etxean. Emakumeen etxea izan da beraiena. Etxeko zereginak egiteko, ondo moldatzen ziren.

Transkripzioa

-Zazpi neska, eta zortzigarrena, mutilla.
 -Oseake zazpi neska izandu zate...
 -Famili hau emakumian familiya zen. Hemen bizi ginan gu bost ahizpa, ama, izeba, atzo ikusi zendun izeba, eta amona. Eta zeuden osaba Inaxio, lehen esan dizuten, armaiyu hoi in zuen mutilla, nere atta, zaharragua zen, eta nere anaiya.
 -Hiru gizon...
 -Bueno, nere anaiya, hortxe, umia...
 -Umia... Gaztiena zan...
 -Gaztiena zen ta; denetan gaztiena zen.
 -Emakume asko...
 -Hemen emakume asko! Eta hemen itxeko gorabeherak-eta, guk, lasai itten genittun.
 -Hitzein, alegiya, zuen artian, edo nola? Etxeko gorabe... , A! Lanak! Etxeko lanak!
 - Itxeko lanak!, Lanak, itxeko lanak emakumianak bakarrak ez, itxian kanpo edozer gauz ein behar zena ere, guk itten genun. Beste emakume askok itten ez zittuzten lanak itten genittun guk.
 -Ya...
 -Itxetik kanpo... Nunbaittea juan behar bazen zerbaitteta, edo paper bat, agiri bat atera behar bazen nunbaitte edo...
 -Asko ziñaten, ta...
 -Bai, ba! Eta gaiñea, bueno, guri iruitzen zitzaigun, e, ba... bueno...

4.10. Nortasun handiko amona, oso emakume berezia

- **Hizlaria(k):** Artola Zuloaga, Joxepatxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-028/003
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:06:37. **Bukatu:** 00:09:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

- **Laburpena:** Amona oso feminista zuen; beretzat, ez zegoen alderik emakumeen eta gizonen artean. Senideak filosofia horretan hazi izan dira. Amona oso berezia zen, nortasun handikoa. Emakume independenteak izan dira beraiek etxean.

Transkripzioa

-Gure amona ez zen... gure amona oso feminista zen. Orduan hark ez zuen feminismoik eta gaiñekoik zeaten, biño hura izatez feminista zen. Hari ez zitzaion, gañea, gaztetik gelditu omen zen alargun, eta familiya aurea ateratzeko ta berak in beharko zittuen hainbat gauz, ez? Orduan, hark ez zuen ikusten diferentziyik gai hortan emakumian eta gizasemian artian.

-Ya, ya, ya, ya...

-Ta harrek, berak in zezakiena, zergatik ez? Eta gu hola hazi giñan. Ta guk ez dugu sekulan kupirik izandu nonbaitte azaltzeko, edo mesede bat eskatzeko, edo edozer gauzetako.

-Oseake zuk goatzen dezu amona ausarta zala.

-Amona zen oso bereziya. Ez zen ausarta bakarra. Amona zen oso bereziya. Eta gure amonak, garai hartan ere, gu, uain bezela, pobriak giñan, ez giñan aberatsak, ta gutxiotako ere, e! Baiño gure amonak herriko jauntxuak ziela uste zutenai ere raya bat iña zion: "Zu, nere bizimoduan, hortik aurea ez".

-Ta, goguan dezu gertaera konkretuak edo...

-Gertaera konkretuak, ba, kantidadia. Gu beti izandu gea, bueno, hala haziya giñan, oso independientiak izandu gea, hala hazi baigiñan, guri iñork ez zigun esaten nahi ta nahi ez hau in behar duzute. Zergatikan, e... guk, gañea, oso kritikua zan amona, ta hortan hazi giñan, ta guk eozeiñi esaten bageniyon "zergatik?" Zuk hala nahi duzulako edo gauzak hola dielako?"

4.11. Umetan, erruz jostatzen ziren

- **Hizlaria(k):** Artola Zuloaga, Joxepatxo

- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne

- **Erref:** LEZ-028/007

- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:18:58. **Bukatu:** 00:21:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena:** Umeak ziren artean, jostatu besterik ez ziren egiten, erruz jostatzen ziren. Orduko jolasak aipatzen eta azaltzen ditu.

Transkripzioa

-Ta, ze izaten zenituzten, bakoitzak zuen lanak, iteko?

-Bueno...

-Bakoitzak bere lanak izaten zitun?

-Bueno, bitu, gu umiak giñan artian, jostatu besteik ez genuen itten. Zergatik ama, amuna, Izeba Bitoriana, gero ahizpa zaharraguak ere, bueno, ta gu, edo ni behintzat, ni eta nere ondorengo bi ahizpak, behintzat, jostatu erruz iñak gea.

-Asko jolastu dezu...

-Asko! Oso asko. Oso asko.

-Zertara jolasten ziñaten ba?

-Bueno, guk, lehenbizi, sotuan genuen “a perpetuidad”, “salanburua”.

-Zer?

-“Salanburua”. Ez dakizu “salanburua” zer den? Kolunpio.

-A... Ba ez nun sekula entzun...

-Ba biga batei, zeatik, zintzilik, beti, beti, han egoten zena. Osabak iña hura ere, jostatzeko. Egualdi txarretan, ba han. Egualdi onetan, honea, kanpoa atera, eta baratz inguru hontan, ba itten genuen denda, eta itten genittuen itxia, ta eskola, ta denak. Eta gero, hemen atzeko sala haundi hontan, atzeko sala hau, uain terraza dena, hau guztiya atzeko sala zen, gehiena behintzat, eta hor, gero itxe hau amonan itxia zen. Eta nere lehengusuak-eta, asko, beti hemen sartuak ibiltzen zien.

-Etorriko zien...

-Bai, asko, beti hemen. Eta orduan, egualdi txarra zenian-ta, hola, zer, eguarritako oporretan, ta [abar], hor ibiltzen giñan eskolaketan-ta, bat maistra ta bestiak eskolan, ta bestiak... Ta bai. Gero kalian, berriz, ba bai, txingoketan ta, sokasaltuan ta, “kaiokakin” ta, kromuakin ta, hoietan. Gure [...] edo jostaketak hoiek zien.

-Bai, bai, bai...

-Ta itxian katillo polit bat hausteko zai, gero jostatzen ibiltzeko, katillo bat izateko, katillo polit bat izateko. Ez zen jostailluik gure garaian. Oso gutxi.

-Baiña jolastu iten ziñaten...

-Jolastu? Jesus! Oso asko! Asko! Asko! Asko!

4.12. Umetan, paduran bainuan, arrantzan eta jaten

- **Hizlaria(k)**: Artola Zuloaga, Joxepatxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-028/009
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:23:19. **Bukatu**: 00:24:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Lehen, kaian, arrantzan eta igerian aritzen ziren. Lehen, itsasoa barrenago sartzen zen, eta padurak zeuden. Hor, izkirak eta karramarroak egoten ziren, eta haiek harrapatzen aritzen ziren beraiek; gero, baina, ez zieten uzten etxera eramaten, zikinkeriak zirelakoan. Horregatik, kaian sua egin, egosi eta jan egiten zituzten.

Transkripzioa

-Kai inguru hoi ta, klaro, itsasua sartzen zen, marea goian, jeitsi're bai, eta hor, arrantzan edo gauzak hartzen-ta ibiltzen ziñatela...

-Bueno, hor... ta igeri, eta dena... Oain, oain portua ta bere zea hoiek, dien hoiek denak, itsasua barrenago sartzen zen, eta gero gaiña, gero zien marismak, entenditzen? Eta hor izkirak asko izaten zien, eta karramarruak'e bai, eta oiñetakuak erantzi ta putzuan sartu ta hor ibiltzen giñan, ba harriyak altxa ta karramarruak'o ateratzen bazen hura harrapatzen ta, hola ibiltzen giñan. Gero etxietan ez ziguten uzten.

-Zer?

-Eramaten etxea. Hoiek, zikinkeri hoiek!
 -A, bai, e?
 -Eta bueno, goxuak zien jateko eta bazien [gustatzen...] ta askotan, ba kaian bertan eitten genuen sua ta egosten genittuen. Ura bazen, kaian, itturri bat bazen, eta bertako itturritik ura hartu ta egosten ta aitzen... bueno, pikardiyan, bakizu, bueno...
 -Baño egosi ta gero jan?
 -Jan! Hoixe!
 -A bai?
 -Bertan harrapatuak, oso onak. Bai, ez dakit nundik ekarriyak biño hobiak izaten zien, e!

4.13. Amonak itotzeari zion beldurra

- **Hizlaria(k):** Artola Zuloaga, Joxepatxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-028/010
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:25:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- **Laburpena:** Ez zuen ikasi igerian egiten. Amona oso beldurtia zen, eta beraiei ez zien uzten uretan ibiltzen, ito egingo ziren beldurragatik.

Transkripzioa

-Ta zuk igeri ikasi zenun?
 -Ez.
 -Baiño baiñatu bai. Uretan sartu?
 -Bai, uretan sartuta ibilli bai, biñon gure amona oso [bildurgatiya] zen. Eta konturatzen zenian hemen ingurutik falta giñala ta, ba hor izango [...] putzuan, han juaten zen. Ta benga.
 -Atearazi...
 -Aterarazten. Ta ez genuen ikasi igerin. Eta orduan, neskak, gutxik ikasiko zuten igeri. Hainbeste gauz zien pekatu... Ta mutillak, berriz, ba denak hor aitzen zien igerin.
 -Baño amona ez zen jutun pekatua zelako...
 -Ez, ez, ez! Gu ittoko giñan bildurrakin [gehiyo]. Amonantzatzat, amonantzako pekatuak beste gauz batzuek zien.
 -Ya, ya...
 -Eta, ez, ittoko giñan bildurrakin. U! Euntalako bildurra izaten zuen.

4.14. Norbere kabuz moldatzen ikasi zuten familian

- **Hizlaria(k):** Artola Zuloaga, Joxepatxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-028/016
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:33:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Aitak Kaputxinoetan egiten zuen lan, "Real Compañía Asturiana de Minas"en. Ama oso langilea zen: tenporada zenean, Pisbera joaten zen lanera; beti bilatzen zuen lana, han eta hemen. Beraien familiaren eredia ikusita, norbere kabuz moldatzen ohitu ziren.

Transkripzioa

-Attak nun iten zun lana?

-Kaputxinotan. En la Compañía Asturiana de Minas.

-Han egiten zuen...

-Bai.

-Eta amak etxian esan dezunez, ez?

-Bueno, amak edozein lekutan, ama oso langillia zen. Oso langillia zen, ta ama "Pisbe" a juaten zen lanea, tenporada zenian, eta nola amona ere itxian zen, ta zien Egaña eta Bar Villanueva, eta nere ama juaten zen, atta baratzara juaten bazen, bera ere bai; atta mendira egurreta juaten bazen, bera ere bai. Eta beti billatzen zuen lana. Itxian ere, itxian ere, jakina, itxe zaharra zen, haundiya zen, txukuna euki bihar zen ta itxia txuritu bihar bazen, amak igual txuritzen zuen. Horregatik esaten dizut, gu ohituak giñan gauza asko geok itten.

-Bai, bai, bai...

-Itxea pintatu bihar da, ba pintatu ein bihar da, ala! Denak. Entenditzen?

-Bai, bai, bai...

-Sukaldia txuritu bihar da, ba sukaldia, denak zatarra jarri buruan ta ala!

4.15. Haizeak mugitzen zuen etxea

- **Hizlaria(k):** Sarasola Zumeta, Luixita

- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne

- **Erref:** LEZ-030/002

- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:04:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

- **Laburpena:** Gurasoek ezkondu baino urtebete lehenago erosi zuten etxea. Etxe hura haizeak mugitu egiten omen zuen eta erori egingo zen beldur ziren denak. Haize handia zenean, ohea paretaren albotik urruntzen zuten, etxearen mugimendua ez nabaritzeko.

Transkripzioa

- Ordun zure aitta ta ama ezkondu zianian jarri zian bizitzen zu jaio ziñan etxian?

- Hoixen. Ezkondu biño urtebete lehenotikan'e hartu zutela amak esaten zun itxia. Ama kalea baserritikan etorri enkargura-edo eta ni jaiotako itxi hoi itten ai zien eta jendea dena beida zeatikan haizia zenian ibilli nonbaitten itten zun ta: "Uuu, etxe hoi beitu beitu nola ibiltzen den, eroriko da" esaten zuten orduan: "Ez, ez hola ibiltzen dun itxia haiziak ez da eroriko ez". Oaindik bizi da. Pentsa zazu nik zenbat urte dittuten, ya larogeita.

- Ta ibilli ze muittu iten zalako?

- Muittu, bai, muittu. Ta muittu itten zen e! "hombre"! Goatzen naz ni, bi ohiko kuarto batian lo itten genun eta paretan kontra jartzen baldin bazenun ohia hola jotzen, ta haizia ateratzian, ohia ibiltzen zan "klon-klon-klon-klon". Eta beti, in behar zenun pixka bat honuntzexego jarri eta orduan ya nola ez zun ikuitzen pareta, ez zenun.

- Soiñua sumatzen.

- Soiñua ez. Ez zenun hainbeste sumatzen. Jolin, haizia zen denboran jaikitzeke zaletua. Beldurraikin, bai, asko. Ta oaindik osorik do. Ta orduan ba beti esaten zun, hua kalea etorri ta orduan ai ziela itxingoa itten. Ta itxia ezkondu baiño urtebete lehenotikan aittu zien errenta patzen, itxia horta ezkondu zien.

4.16. Gobara eta plantxa

- **Hizlaria(k)**: Sarasola Zumeta, Luixita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-030/008
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:13:27. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Arropa lehortu ostean, kalean ibiltzeko arropa plantxatzen zuten. Plantxa suan berotzen zuten. Gobara ez zuten egunero egiten. Lehen maindireak zuriak izan ohi ziren.

Transkripzioa

- Eta behin arropa lehortuta, ohittura bazen plantxatzeko?

- Ez oain beste ez. Bidian ibilli behar zenuna bai, baiño lantegiko arropa ez, ez. Biño bidian ibiltzen zenuna bai, beti. Ta itsaso munduan ez zen entxufeikan, bueno entxufia bai biñon esaten dezuna elektrikoik´e gutxi zen. Orduan, oaindikan'e. Ta hantxe, suan berotu, bi eo hiru bagenittun, berotu, plantxatu, jarri hoztutzian bestia geo.

- Baiño ez zan izaten kolada hoi. Nola deitzen zenioten arropa garbitze horri?

- Guara.

- Guara. Guara ez zen eunero iten?

- Ez, ez, maindiriak eta hoik pues astian behin oain itten dittugun bezela, astian behin. Goara ta geo lanbata, lanbatian jaia, ez zen jai izaten, lana itten zen eta orduban, etortzen zirenen lanetikan'e har´e arropa garbitzea. Etxian ez baldin bazen urik, "Amona!" "Bai, etorri!". Ta amonarena jeitsi eta kitto.

- Ta geo maindiriak eta in ber zianian?

- Haik ez, itxian. Bai, goizian jeikita o askotan gauerdian´e igual jeiki ama ta zeatuta arropa garbittu. Urakin gaizki ibiltzen giñan.

- Bai. Eske, klaro maindiriak eta lan asko izango zuten?

- Eta ohi asko, lau ohi ibiltzen genittun-ta. Ta zortzi maindire. Ta geo udak diela-ta.

- Eta orduan, dana etxeko arropa hoi eta azpiko arropa ta beti txuriya izaten zan, ez?

- Txuri, txuri, beti. Orduan, ez zen maindirek kolorezkoik ta felpaizkoik eta deus ez, dena beste terralik´e ez. Dena algodoia. Fabrika haundiko maindiria.

- Eta bordatuak-ta horrela izaten zian-o?
- Bai, ez oain hainbeste bueno oain ez, oain ez dute nahi gaiñea bordatuikan in. Biño letra hutsakin'e asko. Euneroko zeak asko, letra hutsa bakarrakin asko.

4.17. Ezkondu aurretik eta ondoren bizitakoak

- **Hizlaria(k):** Sarasola Zumeta, Luixita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-030/023
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:45:26. **Bukatu:** 00:47:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** 15-16 urte zituela ezagutu zuen senarra. Garai hartan gaizki ikusia zegoen hain gazte hastea mutil-lagunarekin ateratzen. 25 urte bete zituen egunean ezkondu zen. Elias Salaberria pintorearen etxean jarri ziren bizitzen errentan. Ezkontzean gazteek etxebizitza zer baldintzatan hartzen zuten aipatzen du.

Transkripzioa

- Zenbat urte zenituzten ordun, ezaugutu ziñetenean esan dezu hamabost urte hola?
- Bai. Hamabost-hamasei urte.
- Eta hor ya hasi ziñeten elkarrekin gelditzen?
- Bai.
- Eta ez zeon gaizki ikusiya eo?
- Ba, bueno hoixen gaizki ikusiya. Bikariyo jaunak amona Luixai, neriai, eunero joaten zen gaixua mezeta, goizian ez dakit seitan-o izango zen ta mezeta eta bikariyuak esan izan diyo: "Luixa, Luixa, zure illoba hola ta hola". Hari're baten batek esan ziyon. Niri ez zien ikusi bikariyuak horrekin banabillen eo ez nabillen, biñon.
- Klaro. Eta esan iten ziyon, e?
- Esan in ziyon gaztia nintzala ta zerbait'e esateko. "Ezin ba nik, ze esango diot ba? Ze in behar diot ba nik?". "Errieta pixka bat emaiyozu [...], errieta pixkat emaiyozu".
- Oseake hola mutillakin ibiltzia.
- Bai, klaro.
- Eta edade hortan eta ezkondu gabe ta ba gaizki?
- Bai. Orduan bai.
- Eta zuek ze gelditzen ziñaten biyek eo laun gehiokin?
- Ez, ez. Biyek. Geo joaten bagiñen eta iñorrekin hitz eitten bagiñun, baiño ez, ez, biyek. "A lo grande" e.
- Eta geo ezkondu ya, zenbat urtekin?
- Ezkondu hogeita bost in nittun eunian ezkondu nitzan ni. Goatzeko noiz ezkondu nitzan. "Para que no se me olvidaría".
- Ya. Hogeita bost urtekin.
- Bai.
- Ta orduako ya etxia-ta bazenituzten o ez?
- Ai gaixua! Etxia "calle" nagusiyan ezkondu giñan eta pintore baten etxia errentan, Elias Salaberria, harren etxia errentatu ziguten oain dela berrogeita hamalau urte, "cinquenta y cuatro" ingo dittu. "Quinientas

cincuenta pagaba de renta". Orduan etxebizitzakin ez zen iñor ezkontzen, haurra.

- Bai! Zure gurasuak.

- A bai. Errentan.

- Bueno, bueno. Ez det esaten erosi, errentan , errentan. Klaro.

- Orduan, errentan "o derecho a cocina". Orduan, asko ta asko bi emakume eo hiru sukaldian, "con derecho a cocina una habitación y a pagar una renta". Asko gaiña, eo gurasoan etxea edo hola

- Bai, gurason etxia bai.

- Bai.

4.18. Motelenak bazkaririk ez

- **Hizlaria(k):** Legorburu Loiarte, Margarita

- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne

- **Erref:** LEZ-032/019

- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:28:04. **Bukatu:** 00:30:17

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- **Laburpena:** Beheko sua zuten etxean. Eltzekoa normalean babarruna jaten zuten, etxean egiten zuten eta. Denek ontzi batetik jaten zuten, mahaiaren erdian jarrita. Ahizpak, ordea, motela izanik, gutxi jaten zuela eta, plater bana jarri zien azkenean amak. Ogia kaletik ekartzen zuten: goizean, amak; eta, arratsaldean, Margaritak berak. "Seiko ogia", sei koskorreko ogia, ekartzen zuen.

Transkripzioa

- Su bajua, iriki hoitakua.

- Bai, bi aitton-amonakin.

-Hola zan, ekonomika zan?

- Ez, ez, ez, ez, lurrian. Geo zittun hola hemen ta hemen hola aitton-amonak ta erdian hemen sua in. Geo txapa bat zun ta atzi hartan sagarra jarrita erre iten zian, hautsetan.

- Sagar erriak? Eta bestela heltzekua ingo zenuten? Normalian heltzekua ze jaten zenuten?

- Babarruna, babarruna etxian ereiten genun ta, badakizu.Babarruna ta... Etxian baba zenian baba sartu ta, babarrunak ta, ahal dena, dena fuente batetik.

- Danak batetik?

- Bai. Denak batetik.

- Eta nola banatzen zenuten jana, mahaian erdian jartzen zen hua?

- Hua mahaian erdi-erdian jarri ta buelta guztian denak jarri bueltan ta kutxarakin, batek bakizu pizkorra zenak aguro jaten zun ta bestiak berriz mantxo. Ahizpak, oso mantxua zen, oandik bizi da, gaixua, izango dittu noventa y ez dakit zenbat urte ta bizi da, eta hua lehen gutxi jaten zula, ta hua gosiak geatzen zela ta amak denak platera bana jarriko zigula ta denai geo platera bana jarri zigun.

- Osea ke geo hasi ziñaten bakoitza bere platerakin?

- Bai, bakoitzak norberiak.

- Ta ogia ze iten zenuten etxian?

- Ez, ez ez, kaletik ekartzen giñun. Goizian amak ekartzen zun eta

arratsaldian gehienian ni juaten nintzen, gazteena nintzen ta neri bialtzen ziaten. Seiko ogiya goatzen al zea? Hola borobila, borobil-borobilla ta sei koxkorrekin ixkiñetan, halakua ekartzen gendun arratsaldetan, mami asko izaten zun e, baiña halakua.

- Ona zan hua.

- Bai, ona zen hua. Halakua beti ekartzen giñun dendan hartua.

4.19. Lopene baserrira lapurretara

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Lopetegi, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-035/012
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:21:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Lopene baserrira lapurretara joaten ziren: melokotoiak, sagarrak, aranak... Baina jende ona zen Lopenekoa.

Transkripzioa

- Eta hor zuk Lopene baserriya ezautuko zenun?

- Bai.

- Onduan zeon, ez?

- Onduan.

- Inguruan.

- Aman lehengusua-eta zian.

- Ta Lopene baserriyak izan omen zun harrobiya?

- Bai, haundiya joaten giñan. Fruta zakaten inguru hortan. Lapurreta joaten giñan.

- Ta ze lapurtzen zenuten?

- Melokotoiak, sagarrak, sagarrak sagar txuriyak eta oso onak zien, arana're asko eta.

- Gereziyak?

- Gereziyak'e bai bazien ta beti joan itten giñen.

- Ta fruta ona?

- Bai.

- Fruta ona?

- Jende ona zen e Lopenekoak, onak zien oso onak. Bazien beste batzuk txarrak.

- Danetatik eongo zan inguruan ezta?

- Bai, bai.

- Ta ordun lapurtzen ez zizuten ikusten nola lapurtzen zenuten o ze gertatzen zan?

- Hoi ikusten zigutenian segika, gu korrika.

- Korrika zuek ospa.

- Baiño ez zian juten gurasoena ta.

4.20. Beti baintzen, ihar-ihar zeuden

- **Hizlaria(k)**: Olasagasti Arriaga, Manuel

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-038/004
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:07:16. **Bukatu**: 00:08:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Lezoko hondartzan bainatu egiten ziren lehen; gurasoek ez zieten uzten joaten, egun guztia uretan pasata, ihar-ihar baitzeuden.

Transkripzioa

- Ta baiñatu ta iten al ziñaten?

- Bai. Bai, bai. Guk, karo, aittak eta amak ez ziguten uzten, "por que" eun guztiya putzuan pasatzen gendun hor mutil koxkorretan, eun guztiya putzuan eta ihar-ihar-iharrak eta pareta, baiño txuriyo aurpegia're ihar-iharra txupa-txupa beti putzuan sartuta beti urian. Eta goatzen naz, amak eta igeriya eamateko galtzak-eta gorde itten ziguten. Baiño billatzen genittun beti galtza zaharrak, zuluak, galtza zaharrak, baiño galtzak zien, galtzai moztu zeak muturrak. Ta eukitzen genittun, hor egur tartian-eta gordiak. Eta, karo, orduan amak uzten zun itxian trajebaiñua nola itxian zion ez zeudela putzuan. Baiñon, han [...] beti-beti putzuan sartuta, beti putzuan.

4.21. Neskak ezkutuan bainatzen ziren

- **Hizlaria(k)**: Olasagasti Arriaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-038/006
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:09:34. **Bukatu**: 00:10:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Bainatzera mutilak joaten ziren normalean. Neskak beste leku batean, ezkutuago, bainatzen ziren. Hala ere, gaizki ikusia zegoen neskak igerian ibiltzea.

Transkripzioa

- Ta zuek mutil koxkorak o elkartzen ziñaten hor baiñatzeko ta jolasteko ta, ze izaten ziñaten danak mutillak o neskak izaten zian tarten?

- Neskak ez, neskak orduan, bueno neskak batzuk joaten ziren, orduan, zea kamisoiakin joaten zien, ez zen traje baiñuik-ta ez zen. Bragakin ta baiñon joaten zien beti erroteta, San Juana inguru harta o biñon.

- Pixka bat ezkutuan bezela?

- Guretatik zerbait urruti. Orduan, neska bat igeri itten ikustea zea gaiñea, pekatua izango zan, guretzako pekatua ordun neskak ikustea. Ta gaiñea, atrebitzen zien neskak igeri ittea joateko'de oso gutxi zien, oso, herriyan destakatu bat eo beste izaten zien, baiño ez zien ez, gaiñea ez zen normala izaten, nola hara joanda.

- Gaizki ikusiya ere igual, ez? Gaizki ikusia're bai.

- Bai, pekatua, denbora hoitako pekatua, orduan pekatua.

4.22. Lau urtaro ezagututakoa; 1955eko elurtea.

- **Hizlaria(k)**: Egibar Albisu, Ixiar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: LEZ-072/019
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:22:41. **Bukatu**: 00:25:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Natura » Meteorologia
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera
izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Ixiarrek dio bera gaztea zela aski ongi bereiz zitezkeela lau urtaroak, eguraldiari erreparatuta. Gaur egungo eguraldiarekin aldea sumatzen du. Gogoan du 1955. urteko elurtea. Urte hortako neguan su hartu zien tximiniak.

Transkripzioa

- Bai. Negu gogorraguak esan duzu. Zuk sumatu duzu...?
- Bai, nik izagutu dut... udaberriya udaberriya, uda eta udazkena ta negua. Hori izaugutu dittut nik hemen, bai.
- Ta gaurko egunian?
- Ez. Ez dao [...]. Orduan, jesus, goatzen na /naiz/ ni txikitan, ni naz gaztiena, bestiak zaharraguak, eta zera, elurra itteko zain egoten giñan, zepuak jarri ta garai hartan txoriyak eta xaxuak eta harrapatzen ta aritzen giñan orduan ta, bai. Eskuak eta hotz hotz hotzak eta... baiño bueno, ez da [...]. Goatzen naz, txikiya nintzan baiño... elurte haundi hura izandu zena hemen... berrogeita hamabostian izango zen orduan. Gogoratzen naz zea, sua hartu zigun zeak, tximiniyak eta nola arittu ziran urak eta botatzen eta behetikan gora joateko ura jelatu itten zen ta... hoik, goguan dakazkit. Ttikiya nintzan baiña goguan dakazkit ze jela zian. Ta geroztikan izandu dia e, horko hainbeste ez baiño bai.
- Eta zer pasa zen ba tximinian?
- Ez... sua hartu zuen frontalak. Eta igo ziren gazte batzuek eta aizkorarekin moztu zuten biga, ura bota ta behera ta, zera gehiago [...] ez zegon... ez zun sua hartu beste ezerk ta.
- Ta zein igo zan ba?
- Bizilagunak. Beste baserrikuak. Etorri ziren ta haiek segittuan... moztu zuten aizkorakin, pusketa.
- Sustua.
- Bai.
- Bai, eta, hor bizilagunak esan duzu eta, seguraski, deitu beharrik gabe edo, esateko modu bat da. Baiño gaurko egunian hori're kanbiatu da ez? Harreman hori, ezta?
- Bai, bai. Eske... egunero baldin bazabiltza beraiekin hizketan ta onduan bazaude ya hartu-eman gehio dezu, baino ez bazera egoten, ya bueno, bai, izan baduzu saten duzu, baiñon atzeratu iten zea. Bueno zerbaitte baldin bada... oso zera, segittuan biltzen da orain ere, ez dao problemik horretan hemen e. Ez, ez. Zerbaitte laguntza behar badezu ez dao problemikan. Harreman hori bado orain're.

5. Politika

5.1. Olibet gaileta-fabrikako gaileta bila

- **Hizlaria(k):** Agirre Telletxea, Xebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-002/021
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Bidasoa
Behereko lantegiak
- **Laburpena:** Lehen, inguruan zer fabrika zeuden aipatzen du. Olibet gaileta-fabrikan, puskatutako gailetak kanpoan uzten zituzten, jendeak har zitzan. Poltsiko handidun arropak janzten zituzten, ahal bezain gaileta gehien eramateko.

Transkripzioa

- Eta noa joten zian lanea, Errenteira asko?
- Bai. Errenteira ta Lezon. Zien hemen, zea zen, osea, enpresa asko zien. Lantegi asko zien. Zen, ya Errenteira guazela, Lezoko partian, zen galletera Pakers. Geo, Alkoholera. Estazioko parean do hoi. Estaziyoa baakizu.
- Bai...
- Zalduyak esan dizuten hortan.
- Bai.
- Geo, Olivet. Galletas Olivet. Torre hoyek nola die?
- Bai.
- Hoi. Eta emakumiak, hor, Lezokuak asko aitzen zian. Horrea joten giñen galletan billa. Eta galletak, puskatuak, geatzen zienak, iten zittuzten bolsa urdin batzuek, Olivet jartzen zutenak. Eta emakume bat Lezokua, zen, kali hontakua, enkargada zena, izena zuna Estefania. Eta esaten zigun beti - gu neska kozkorrak eta galletan billa ta- : "Bueno, ekarri zea, soñekuak biño poltsiko haundiyakin, e!" Ta puskatuak izaten zittuzten eta ez zittuzten saltzen... Haiek poltsikotan sartzen [...]. Ta paxientxiak'e bai, holako zeak zien, galletak. Bai. Ematen ziguten. Oliveten. Olivete oso zea zen...
- Bai, inportantia.
- Inportantia zan. Bai.
- Baño, edozeiñek ez zula aukera, hola, galletak eta...
- Bai, bai, bai. Hala. Ta geo Errenteiyan, Errenteiyan industria asko, zea... Askok zen. Fabrika asko zan.

5.2. Gerra hasierako oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Garmendia Legorburu, Martxiel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-015/004
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:08:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Gerra hasi zen egunean, Errenteriara jaitsita zegoen mezara izebarekin. Gogoan du moto bat zegoela kalean eroria eta odol

markak lurrean. Etxera etorri eta tiroak entzuten ziren Gaintxurizketa aldean.

Transkripzioa

- Ta nola goatzen dezu zuk gerra etorri zan momentua, ze... nola goatzen dezu?
- Hura... tristia, ni goatzen naz. Tristia zen hori. Gerra hasi zenian nik... gerra hasi zen eguna izango zen, lagun batekin justu zela haziya, jai bezperan haziya izandu zen, ta ni han ta ikustera joan nintzen izebakin, nere izeba difunta, aman ahizpa hemen Martinekua, soltera zen hura. Ya neska zahartuko zan. Ta harekin jun nintzen Erreterira, goizian mezeta, Erreterira. Askotan juten nintzan izebakin, gañea ni mutil kozkorra zaharrena nintzen etxian ta izebak ematen ziten /zidan/ Erreterira. Hara jun ta gerra hasi zula esan ziguten ta, gerra? ta bai ta, segizute /segi zaitezte/ etxea etxea segitun, gerra hasi aurretik etxea segizute. Gu itxea ailegatu baiño lehenagotikan hemen Gaintxurizketan ta tiruak ta pipiti papata pipiti papata. Ni goatzen naiz hura Erreterian, kalle Biterin, botika farmazia zen Olaziregi edo... farmaziya?
- Bai.
- Haren onduan...
- Bai
- Moto haundi bat zeon erorita lurrian ta zeakin... odolakin ta zikinduta! Ni goatzen naiz hura nola ikusi nun. Han. Ta joe, nik ama... ezinik, izebari, izeba hemen zer pasa da? Hemen bitu bitu e odola! Ta ixo ixo ixo, guazen, guazen, guazen. Harek ixo, ixo, ixo esaten ziten, guazen, guazen ta jakiña, gerra zela, gerra hasi zela ta. Ta gu torri giñan, ba hemen hiru [...] hil zituztela ta seme-alabak o semeak eta...
- Hiru seme ta ama.
- Hortik pasa giñen gu, lehenagotikan etxera. Beitti hortik barrena, hortik beitti-goitti, hemen zeatik barrena, Miyura barrena, Mikura baserria hor dozte /daude/...
- Bai.
- Hortik barrena, bide hori pasata etorri giñen gu etxera.
- Etorri ziñaten.
- Bai. Lehenagotik zen.
- Baiño hori ya...
- Gu pasa giñenean, egundokua izango zen hil zituztenean.
- Ya.
- Gu etorri ta gero, ni ez naiz ongi goatzen...
- Bai, bai.
- Biño gauza horiek.
- Bai.
- Eta...
- Ta gero etxera etorri, ta joe hor tiruak eta zerak eta gaintxurizketjoe, la ostra.
- Beldurrak, ezta?
- Zer zen ez genekien gerra baiña ikasi genuen zer zen gerra.

5.3. Errekete batek mutila hil zuen, tiroak ihes eginda

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Salaberria, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-027/033

- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:48:37. **Bukatu:** 00:49:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Erreketek bat fusila garbitzen ari zela, tiroak ihes egin zion eta mutiko bat hil zuen, Maddiren senidea. Batzokia eta Centro Republicanoa zeuden Lezon. Karlistek ez zuten lokalik.

Transkripzioa

- Oseake geo hurrengo egunak izango zian nahiko tristiak?
- Ikara denak, denak. Ikarakin.
- Beldur haundikoak, ez?
- Ikarakin. Ikarakin. Geo, beste reketek batek'e hemen, ixkiñ hontan bertan, kalia, fusilla garbitzen ai zala eo ez dakit zer, eta hil zuten nere gizonan anaiya. Ez dakit zenbat urteko mutil koskorra zen. Nere gizonan anaiya hil zen.
- Tirua bota zun eskopetak-eo?
- Bai, bai.
- Fusilla garbitzen ai zala ta kargatuakin ai emen zen ta eskapatu ta...
- Ta zenbat urte zitun?
- Ez dakit beatzi zittun eo zortzi zitun harek orduan. Zortzi eo beatzi eo holakon bat.
- Zu geo hasi ziñan zure gizonakin?
- Bai.
- Hua pasa ta urte batzuta?
- Bai, bai. Geroa.
- Hor esan dezu "Centro Republicano" zeola?
- Bai. Batzokiya hemen, etxe haundi hau [...] batzokiya ta "Centro Republicano" hor. Orduan, bi opiniyo hoiek bakarrak zien hemen. Bueno, bazien bestiak'e, karlistak eta're bai, reketien haiekakuak. Haiek ez zuten lokalikan. Baiño hemen batzokiyan nazionalistak eta "Centro Republicano" zien.
- Ta hor herriko jendea ibiliko zan?
- Bai, herriko jendia, hoixe.

5.4. Antzerkia ikustera batzokira

- **Hizlaria(k):** Garmendia Salaberria, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-027/035
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:50:22. **Bukatu:** 00:51:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Batzokira joaten ziren antzerkia ikustera. Oiartzuarrak-eta etortzen ziren antzeztera. Dena euskaraz izaten zen.

Transkripzioa

- Ta batzokiyan jendea bildu ingo zan?
- Beti, beti. Geo teatrok eitten zittuzten eta ume denak horrea joaten giñan, hiru sosekin sarrera teatrorra.
- Eta teatrua hemen herriko jendiak iten zun?
- Herrikuak, haiek biño etortzen zien Oiartzundik eta etortzen zien kuadrillak, kuadrillak. Bai, preparatuak.
- A antzekiya itea?
- Antzerkiya ittea etortzen zien.
- Eta ze izaten zan euskeraz?
- Bai, jakiña.
- Dana euskeraz?
- Dana euskeraz. Batzokiyan, hoixe dana euskaraz; "Nazionalistas PNVista".
- Eta antzerkiya zertaz zan? Goatzen dituzu antzerkiyan gaiak?
- Ez,ez.
- Historiyak eo zer kontatzen zuten han antzerkitan eo?
- Ez naiz goatzen egiya esan. Joaten giñala bai ta ez dakit.
- Ondo pasatzen zenuten?
- Hoixe.

5.5. Igandetean erosten zuten egunkaria: 'El Día'

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Salaberria, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-027/041
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 01:01:32. **Bukatu**: 01:02:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Ez du irratirik ezagutu etxean. Tabernetan egoten zen irratia. Igandetean egunkaria erosten zuten; El Día. Gero, bandoa ere jotzen zuten.

Transkripzioa

- Eta radiyua izaten zenuten? Etxean ezagutu dezu?
- Ez.
- Radiyua?
- Ez. Guk ez genun orduan radiyoik.
- Herriyan izango zan nunbaite?
- Bai, tabernetan.
- Tabernetan.
- Tabernetan bai.
- Eta notiziyak-eta nola ailleatzen zien?
- Deus ez, guk jaiyian guk periodikua eosten genun eta notiziyak haundinak jaiyeko periodikuan. Hiru sosekin, "quince céntimos". Haiekin izaten zen 'El Día' ta 'La Constancia're bazen, 'El Día' re bazen ta bestia ez dakit zer zen. Guk "El Día" ibiltzen genun. Ta notiziyak [hala]. Ta gaiñiakoan banduakin eo zerbaitekin kalian jotzen zutenakin o, ta hola bizi.

5.6. Bonbardaketak familiako laguna hil

- **Hizlaria(k):** Garmendia Lopetegi, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-035/020
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:34:50. **Bukatu:** 00:35:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Bonbardaketa batean familiako lagun bat hil zuten, Patxi Arriaga kale-garbitzailea, haren ilobarekin batera.

Transkripzioa

- Gero, oker ez banao izan zian bonbardaketak'e bai.
- Baita're. Lezoko aman ta laun haundiya zen.
- Barrenderua zan, ezta?
- Patxi Arriaga ta bere illoba hil zittuzten. Ta goatzen naz aitten entierroa ta Patxi hoi gue bazterrera ta asko joaten zan.
- Ordun oso ezauna zenuten?
- Oso, oso. Geo, bere semiak'e seitzen zun, baiño bere semia're ya zaharra ta hilla da harren semia hil zutenan hilla da. Baiño nola hil zen, bere illobakin hil zuten hua. Barrenderua zan. Hoi goatzen naz ta nun hil zuten'e bai. Ta geo goiko elizako zean bonbaz zulua ta gauza hoiyek.

6. Lanbideak

6.1. Umetako gaixotasunak eta artelanak

- **Hizlaria(k):** Agirre Legorburu, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-007/004
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:04:27. **Bukatu:** 00:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Arotzak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena:** Haurra zela, sehaskan egon zen ospitalean. 11 urte zituenerako aitari dendan laguntzen aritzen zen. Arotza zuen aita eta berak ere arotzeriarako zaletasuna zuen. 16-17 urte zituela egin zuen kaxa erakusten du.

Transkripzioa

-Ni beti zea izandu naz, osea, nik bizkar hezurra oso hondatua dakat ba!
Osea, haurra nitzala sehaskan egondu nitzan enyesatua. Osea, ez dakit ze gaitzakin. Ta attak, ama hilla nola baitzean, pues, eta atta miñez, ba ya attak ez [zuan broma...]. Gero ezta neri okurrittu galdatzia ere. Nik bastan... nahiko lan nun denda hamaika urtekin mostradoria lejiakin garbitzen. Gaixki igual ingo nun biño, hamaika urtekin. Nahiko lana. Ta geo afiziyo gogorra nun zea, arotzea. Atta arotza nola baitzen, arotzea nun. Osea, hau, porejenplo, pues, orduan, gaztia nitzala in nuen, hemen zea [dakaixki], este, orduko rasionamenduko paperak-eta... Hoik gerrako... -A, bai, gordeta dittuzu hor... Erakutsiko diguzu kaja, mesedez?

-Bai.
 -Iyo gora, iyo gora. Hor, gora, gora, gora, nik hartzeko. Ta kaja hori, noizkoa da?
 -Pues honek, igual, ez dakit ba, hirurogei, hirurogeita gehio urte edo.
 -Zuk in zenun hori?
 -Bai. Gabinetia hor dakat egiña, zea, tallatua.
 -Ta zenbat urte zenitun zuk hoi in zenunian?
 -Hau in nunian, pues igual hamasei edo hamazazpi edo...
 -Ta orduan arotzak holako lanak iten zituzten?
 -Nik behintzat bai! Nik behintzat bai! Gabinetia tallatua dakat hor, nik iña!
 -Gero ikusiko degu. Bai.

6.2. Ama gazte alargundu zen

- **Hizlaria(k)**: Cordero Corral, Amalia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-034/007
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:12:47. **Bukatu**: 00:15:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Ama antxoa eta sardina saltzen ibiltzen zen; jendeak zintzo ordaintzen zuen erositakoa. Aitak Erretereriako kaputxinoetan egiten zuen lan: oso gizon garbia eta zuzena omen zen, eta horri lotutako anekdota kontatzen du. Ama gazte alargundu zen, eta familia aurrera atera behar izan zuen. Irungo familia batek lagundu egin zien, arropa ematen zien. Amaliaren ahizpa oso jostun ona zen eta arropa konpontzen zuen.

Transkripzioa

- Eta antxua eta sardiña saltzen zittuenian amak etxetatik josten zian erostea.
 - Erostea.
 - Erostea ta pagatu iten zioten.
 - Bai, bai,bai,bai ondo eta zintzo.
 -Ta zintzo?
 - Bai, hombre, baten bati igual izango zun; ez nion behin'e aittu zorretan utzi nau hau, ez, ez nion behin ere aitzen o igual izango zen konformista bea itte zunin, ez ttakit. Beak ez zun esaten ta nik uste det ondo pagatuko ziotela pentsatzen dut.
 - Ta aitak nun iten zun lana?
 - Kaputxinotan.
 - Erreterin?
 - Erreterin.
 - Ta ze lan zun?
 - Ez dizut esango, dakittena da histori bat oso garbiya eta oso xuxena omen zen ne aitta.
 - A bai?
 - Bai oso, eta lantegiko lagun batek albarka zikin-zikiñak bere gosarian onduan beti uzten omen zizkan ta gure aittak ezin omen zun onduan... hoi gure amak kontatzen zun. Egun batian hartu omen zittun albarkak eta bueltaka-bueltaka hartu eta airian bota eta in omen ziyon. Eta "nere

albarkak, nere albarkak" "hurrenguan ettzakek utzi nei postrian onduan". Akabo, geroztik omen ez zion gehio in. Aparta.

- Aparta.
- Aparta bai, oso garbiya eta oso txukuna omen zen.
- Klaro jakiña, ama alargun gelditu zan gazterik.
- Oso, klaro hor ez dakit zenbat urte egongo zien elkarrekin, bueno diferentziyan, baiñon gazte izango zen. Karo, ni ere jaiotzeko neon.
- Alargun eta hiru umekin.
- Hiru umekin.
- Eta aurrera atera bihar familiya.

-Eta zerbaitti heldu behar eta orduan ez zen izango itxek garbitzen, izan izango zen zeatikan geo izen zien Irunen, Irungo aberatsenak hemen zien. Hoi guatzen naz ni, zeatikan askotan juan nintzan ni hara amakin. Eta zu ez zea goatuko gailletak, fabrikara gailletetara Erreterian Olibet? Ez. Bota in zuten geo. Hortik gailletak hartu eta juaten giñan bisita ittea gu ama neskame eondu zen lekuan, ta aberatsak hala izango zien, arropa ematen ziguten ta nere ahizpa izandu da "muy mañosa" josten ta oso, eta harek itten zun arreglatu soñekuak betzako, netzako... Pielak ematen ziguten. Nik ez dut behin'e eman, ez zait gustatzen.

6.3. Aitona bonba batek hil zuen gerran

- **Hizlaria(k)**: Olasagasti Arriaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-038/010
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:13:48. **Bukatu**: 00:14:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Udal langileak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Manuelen aitona zen herriko lurperatzailea, gauzaina (serenoa) eta kale-garbitzailea. Kaleak garbitzeko, gurdia eta zaldia erabiltzen zituen. Gerra garaian, lanean zebilela, bonba batek hil zuen.

Transkripzioa

- Aittonak, aittona zuen hoi, aittonak nere aman aldetik, aittona zen herriko enterradorea, barrenderua, sereno´e itten zun eta gizajuak bordak arreglatu'de bai ta, karo, beak zituen hor bihian, aberia eukitzen zuen, orduan karruakin biltzen zuten zakarra karrua ta zaldiyakin. Ta zaldiya eukitzen zuen itxian. Ta zakarra biltzen zuen. Hala hil'e hala in zuten, zakarra biltzen ai zala, "en mil novecientos treinta seis".
- Gerra denboran. Hura zen zure... bonbakin ez?
- Bonbakin bai.
- Hura zer zan, zure?
- Aittona. Aittona eta bere illoba, bik hil zien.
- Bai, bai, bonba erorita.
- Aittona ta illoba.

6.4. Arrainen salerosketako egutegia

- **Hizlaria(k):** Olasagasti Arriaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-038/026
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:50:21. **Bukatu:** 00:51:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena:** Arrainen salerosketan zebiltzanean, zer egutegi izaten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Eta eun guztiya ta geo lanian pasatzen zenuten? Eun guztiko lana izaten zenuten?
- "Este" sasoiak izaten dia, "por ejemplo", berdela oain hasten da eta berdela bukatuko da "este" apirillen, apirillen labian eo bostian eo seian eta igual zortzi eunen lehenbiziko antxuak hasten dia. Ta antxuak geo juniyuan azkena arte. Eta ordun, hasten da atuna. Ta geo atunakin segitzen genun berriz'e "noviembre"ra arte. "Noviembre" eta "noviembre" tikan berriz "febrero" arte, leatz pizarrak, leatza izaten zen eunero. Atxaldeko zazpitan eo leatzan pixka bat, baiñon ya lanak gehina joana izaten zen. Hoi "ya" da "un recreo". Izaten genittun, "noviembre, diciembre, enero".
- Hiru bat hillabete.
- Hiru hillabete oso trankillak.

7. Aisia

7.1. Herriko jaietako ohiturak

- **Hizlaria(k):** Salaberria Lopetegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-021/017
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:36:56. **Bukatu:** 00:38:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Herriko jaiak zirenean, lanik ez zuten egiten, mezara joaten ziren, bazkari berezia izaten zuten, plazan feria ona egoten zen...

Transkripzioa

- Eta, hemen, jaiak eta ere ingo zien klaro herriko jaiak eta, Santa Krutzak...
- Onbre, bai hoi bai, orduan herriko jaitan ta hoi bai jaiak orduan ta lanak'e ahal bada... ganauan maskak eta holakuak bezperan ekarri orduan, herriko festaik bagenun ba jai.
- Jai. Ta ze iten zenuten, herrira jetxi, kalea jetxi?
- Herrira jetxi. Geo [...] meza zeon, oan Santa Krutzetan izaten da /izatea/ baiño orduan meza izaten zen hamarretan. Ta ordun bakizu, gaur baiño txintxoxio jon'e iten zien ta -gu behintzat gaztiak bai, biali iten ziguten- ta hamarretako mezara, ta geo handik atea, fiestara, ordubat edo ordubata terdik arte edo, fiesta [...]. Gaur biño dotoriaguk eta, ordun fiestak eta. Geo

bazkaldu, etxea etorritako [...] bazkaia, orduan banketia ibiltzen genun. Orduan, bueno, orduan oillaskua ta arroza ta hoik jan ezkeo orduan banketia zen! Gaur harekin ibiltzen gea, egunero jaten dittugu hoik biñon [...] orduan ta ilusiyua hoixe zen, ilusiyua hoixe.

- Bai. Eta meztatik atea ta han plazan, Lezoko plazan o ze izaten zan, musika edo...?

- Musika're ez... generalian...

- Nola izaten zan?

- Oango...oan'e itten da ohittura hoi ta generalian bakizu karga-jasotzaillia ta aixkolai ta...Soiñua [...] ez zan soñua izaten hola. Ikuskizuna behintzat. Goiko...Beheko plazan'e hasi oiñ estankoko hortan ta bueltan han beheko kamiyuako kantoi hartaiño dena erremintaz ta baserriko erremintaz ta dena betia eoten zen hoi, dena! Beste bista bat eoten zen ordun! Beste... bai, gaur ez da eze izaten, gaur dantza ta besteik ez da. Baiña orduan ikuskizun ona izaten zen.

- Feriya o hola iten zan.

- Feriya bai, ona gaiñea. Hola izaten zien.

- Ta ze iten zenuten han behar zenituzten erramientak eta erosi?

- Bai nahi zenuna, nahi zenuna erosi'e han egoten zien, nahi zenuna erosi orduan jendiak bai... biñon bazien ekartzen zittuztenak.

7.2. Irungo Euskal Jirara urtero idiekin

- **Hizlaria(k):** Garmendia Gaztelumendi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-026/018
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:25:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Ez du traktorerik sekula erosi. Idi parearekin egiten ditu baserriko lanak. Urtero Irungo Euskal Jiran (abuztuan egiten den euskal jaia) parte hartzen du idiekin. Apaindutako gurdia eramaten du kalez kale. Idiak erosteko ez dago zailtasun handirik, probarako-eta asko hazten baita oraindik.

Transkripzioa

-Oseake, oain idiya, idi pariakin'e ibiltzen zeate lanian.

-Bai, bai. Hoikin aitze gea.

-Zeatik orduan, lurra lantzeko, bai goldeketan aitzeko, aria pasatzeko, beti idiyakin ez?

-Traktoria ez dut behin'e erosi. Behin'e ez dut erosi, ez, traktoreik. Lehenon iriyakin ta geo, ilusio pixkat Iruna juteko're izaten genun, idiyakin-ta! Ta horrekin, ba, idiyak ez dittut /ettut/ behin'e kendu.

-Ta Irunen zer zeon ba?

-Euskal Jira joaten gea. Agustuan. Euskal Jira-ta, badittut hogeita hamar urte jotzen nazela, hara. Gehiegi, bai.

-Eta? Iriyak prestatu iten dituzu? Euskal Jirarako?

-Bai. Garbituta-ta, txukunduta, ondo prepatu behar izaten dia /izateia/

-Hoi da...

-Ondo. Bestela, kaka ta usaia ematen [...] jendiak parra itten du /itteu/!

-Eta han ze ite...

-Han ordu pare batin eo... Ordu pare batin itten dugu. Herriyak beak bialtzen digu kamioya, eaman ta ekarri itten digu ta sos batzuk ematen dizkigu, ta klaro, itten dugu toki batian karruak hartu, haik karruak, soziedadiak prepatzen ttuzte karruak, urtero diferentia jarriyez

-Karrozak, ez?

-Karrozak, bai, hoi da.

-Ta hura hartu ta ordu pare batian birian jun, polliki-polliki itten dia /itteia/, jendiai eakutsiz.

-Ta zemuz juten dia iriyak bidian

-Ondo joten dia /joteia/.

-Bai, e?

-Bai. Oso Ondo. Guriak behintzat. Batzuk badia, hola zipoka pixkat tiraka aitzen dienak, baiño ez, ez... Guriak ondo dia.

-Biño, desberdiña izango da idiya lehenbiziko aldiyan juten danian o ya urte batzuk damazkinian juten, ez?

-Bai... Bai... Bost bat urte' o hola aguntatzen dute /aguantatzeue/. Lau o bost urtetik kanbiatze'ittut beti, jeneralin, bati zerbait fallua harrapatzen diote, ateatzen zayote, eta, orduan, eamaten ttugu. Baiño ez, beti lehenguk ondo juten zien ta nei beti ondo, ondo die gue iriyak.

-Ta idi paria berritu ber dezunian, nundik ekartzen dittuzu idiyak?

-Iriyak, ba nundik ekarriko dittut... Hok... Bat...

-Erosi egingo dittuzu, baserrin batetik o...

-Bai. Bai. Bat ondatu in zitzaiten ta launa itteko ekarri non, zeatik, Lopenetik'eo... Sestaotik ekarri nun bat oain. Ta lehenguk [...] ekarri nittun... Donostiatik ekarri izandu dittut! Ta tratantiai, ta hola, ekarri izandu dut.

-Baiño oain ez da errexa izango idiya billatzen...

-Bai, billatzen da uain'e, e!

-Bai?

-Uain'e apostuako ta holako-ta iri asko do, e! Asko do. Uain baserriya gutxi, lana iteko.

7.3. Lezoko plazan dantzan

- **Hizlaria(k)**: Cordero Corral, Amalia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-034/009
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:18:48. **Bukatu**: 00:20:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Lezoko plazan dantzan aritzen ziren Pasai Donibanetik etorritako txistularien doinuarekin. Gogoan du behin izebari antxoa eramane behar izan zioneko anekdota.

Transkripzioa

- Plazara jun ziñaten geo bizitzera esan dezu ta zu neska gaztia izango ziñan, ez?

- Ombre neska koxkorra.

-Neska koxkorra ziñan.

-Hombre, ta ezagun batzuk etortzen zien txistua jotzea Lezoa ta gutzako fiesta zen. Dantza dotriñatik atea, bespera geo ez zizaigun gustatzen baiño

obligaziyua genun eta handik atera eta plazan dantzan eta oain hortatik esango dizut nere izeban bat bizi zen San Juan aiekan, Agustina Potestadun hoi, San Juan aieka esaten diogu.

- Bai, San Juan bidia

- Bai, ta hor aurrexio bizi zen nere izeba bat eta amak esan zitten zuaz izebara ta emaiozu antxua be ta hor ahaztu zait izeba... ta nik "Carmen!" " Aquella también picotera", gure amai kontatu diyo ta igandian plazan ta orduan, ta oain Laborala baakizu nun don? Hoixe taberna, beti taberna izautu dut nik ta atetzen zuten zaharrak banko bat ta hortxe exeita egote zien plazan ta neska koxkorak beida ta hizketan ta hola. Ta ni dantzatn ta amak deittu ziten eta esan zitten etorri pixka bat " nola deittu zeniyon lehengo egunian?" ez zian izenik ta deus esan; pli-pla bi masailleko ta itxea negarrez. Osea, hola zen bizimodua.

7.4. Kulturgintza eta kirola

- **Hizlaria(k):** Etxegoien Esnaola, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** LEZ-068/022
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:19:38. **Bukatu:** 00:20:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
 - Aisia » Kirola » Herri-kirolak
 - Aisia » Kultura
- **Laburpena:** Herri-kiroletan Lezon aritutako garaia gogoan du Joxe Marik. Kiroletako jarduna kulturgintzara oso lotua ezagutu zuen, Tiñelu Elkartearen jiran, beti ere.

Transkripzioa

- Bai, bai, bai. Hor, bitu orain esan duzunian, badek gero beste epe bat hor beste epe bat... ttikiagoa denik, herri kirolak egitten ibili giñan. Ta Lezon montatu gendun ba taldetxo polit bat, bakarrikan huraxe bera bukatu zala hostalaritak ematian. Orduan ya ezin nuen. Baiñan taldetxoa, ta herri kirola ta... montatu genun ta hori zen totalmente kultural. Ez zen... ez zen irabazirikan, ez zegon... dena itten zen Tiñelu elkarteak... inguruan montatu gendun, montatu zan, eta oso talde polita, eta hori bai izan zala kulturaren bultzada haundi bat, korrika baiñan gehiago. Modalitate gehiago itten genittun, herri kirolak ziren, eta kulturarako lan gehio in gendun herri kirolakin.

8. Baserria

8.1. Itzai, aitari soroan laguntzen

- **Hizlaria(k):** Arruti Legorburu, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-024/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

- **Laburpena:** Ganaduen aurrean gidari egitea da itzainaren lana ("itulan" edo "itaurrean" egitea esaten zaio beste leku batzuetan). Bordatxon beti egoten zen idi-parea. Lehenengo goldatu eta gero areaz gozatzen zen lurra.

Transkripzioa

-Zein izaten zan itzaian lana? Zuk esan dezu itzai ibiltzen ziñala txikitan. Ze izaten zan; itzaian lana zein zan?

-Ba, itzaian lana, generalmente, ba, aita izaten zan atzetikan, edo aria, edo goldia-edo zeakin, eta semia edo alaba edo kasu hontan ni, ba ganau aurrian, makilla hartu ta ganaua giatzen, aurretikan. Atzetik eju iten zienian "buelta!" o "geatu!" o zea, ba, aitan esanera. Lan hortan ibiltzen giñan.

-Eta ze ganado?

-E?

-Ze ganau ibiltzen zan? Ze ganadua zan, behiak, idiyak?

-Idiyak.

-Idiyak.

-Idiya, guk idiya. Berandu arte idi paria beti izandu zan Bordatxon. Gero [eramandakua], baiño beti idi paria.

-Eta, gero jartzen zenuten aria edo goldia.

-Bai.

-Aria zertako izaten zan?

-Ba, lehenbixi itten zan lurra goldatu. Lurrai buelta eman. Eta gero aria izaten zan, ba, lur hura gozatzeko, txikitzeko, eta egin behar zan generua ereittekko preparatzeko. [...] lurra gozatuta jarri, eta gero, ba, ondotikan, edo lastua, edo babarruna, edo erremolatxa edo arbiya, edo in behar zana ereittekko; preparatuta jarri.

8.2. Ganadu asko baina txerririk ez

- **Hizlaria(k):** Arruti Legorburu, Gregorio

- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne

- **Erref:** LEZ-024/004

- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:07:28

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- **Laburpena:** Hamar bat behi, idi-parea, astoa... izaten zuten baserrian. Txerririk ez. Orduan baserritik bazegoen bizibidea.

Transkripzioa

-Ganadu asko zenuten zuek, orduan?

-Hemen, nik ezautu dutenez, gehiena, bueno, garai hartan, ni mutil kozkorra nitzala, orduan gutxixio zan, ordun [...] dozenan bat, [edo holakokin]; hamar bat behi, zortzi-hamar bat behi, ta beste bi-hiru txekor, eta idi paria. Idi paria, beti. Aston bat, aston bat ere bai. Eta gu lantegi hortan aitzen giñan, [...] jatenak eitten ta lantegi guziyian. Orduan eitten zan, behinpin, baserrian lana ondo, gustora ere, etorkizun pixkat edo... Gaineko gauzak, ekarri behar zana merkexo zalako edo... eta abar.

-Bai.
-Ta hola.
-Eta, ganaduez gain, txerriyak-eta, bazenittuzten?
-Ez. Txerriyak ez. Txerriya, bakarren bat iñoizian behin igual izango zan hola, gero familiako edo, mahairako, biño ez, ez. Txerriyak-eta hemen ez, ez...

8.3. Ganadua jetzi eta apaindu goizero

- **Hizlaria(k)**: Arruti Legorburu, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-024/007
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:09:26. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Goizeko bostetan jaiki ohi zen gaztetatik. Abarkak jantzi eta ukuilura. Azpi-lanak eta apainketak egin, eta behiak jezten zituzten. Txarrantxa eta zepilua pasatzen zieten ganaduei apaintzeko. Egunean hiru aldiz jezten zituzten behiak.

Transkripzioa

-Eta, goiz jeikitzen zifan, ya zortzi urtetan itzai lanetan-ta aitzeko, ze ordutan jeikitzen zifan, ta nola izaten zan eguna?
-Nik, jeneralmente, jeneralmente, eguneko... jeikitzia, bostak.
-Bostak?
-Bostak aldian. Goizo ez, ez. Beandugo ezta pentsatu ere. Ganadu-aldiya zen, ta haik garbittuta jarri ein behar zian, ta gero esne pixkarra-edo kendu ta... Ama zena ere Errenteira bialdu behar zan ta, lanak zeuden ta [...] bostak.
-Bostak.
-Fijo! Bai, bai.
-Ta, jeiki ta lehendabiziko lana zein izaten zan?
-Lehenbiziko lana, oiñetakuak jantzi.
-Bai. Ze oiñetako?
-Abarkak.
-Abarkak.
-Abarkak, bai-bai, abarka; beti abarkak. Eta gero, lehenbiziko lana, ikuillua: haik garbittuta jarri, behar bezala zeatu, ta gero, jetzi.
-Ta garbittu ze itten zenuten, azpiyak atera?
-Bai. Azpiyak atera ta txarrantxa, ganauai txarrantxa pasa; zepillua ta txarrantxa pasa.
-Zer zan txarrantxa?
-Rasketa bat, illiak eta beste zikin pizarrak kentzeko, raka-raka, ta atzetik zepillua. Esku batin txarrantxa hoi, eta bestian, ba, zepillua, jeneralmente. Ta ya haik... Hori goizero. Garbitasuna. Azpiyak kendu, egunian hirutan. Guk beti egunian hirutan. Goizian, eguardin eta illunabarrin. Zepillua pasa, goizian, behin.

8.4. Ur bila erreka lehortetan

- **Hizlaria(k):** Arruti Legorburu, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-024/008
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Bi aldiz ematen zitzaien egunean ura ganaduei ur korrenta ipini arte. Lehorte handia zenean gurdiaekin joan behar izaten zuten ura ekartzera; Lopeneko erreka gehienetan.

Transkripzioa

Gero, berandu arte, berandu arte, askotan izaten zan ur bildua hemen, eta ura goizian eta eguardiyan ematen zitzaion. Gero korrienteko ura jarri gendunian, ba jarri ziyoten bertan, bere lekuan; hoi berandugo.

Ta hura falta zenian, ba, edo lehorte pixka-pixkat itten bazan, hor guk, hor gendun behia hortan, “frailia”-edo esaten geniyona, ura [...] motor txikiya, uran presiyuakin bera [...] zana. Bañon, irriyoko ura gutxi izaten zan, eta legorte pixkat baldin bazan, ba, hori, hori legortu itten zan eta ur billa, hartu karlia ta gurdia ta idi paria, eta ahal zan tokira, ur billa, haiantzako. -Ta nora juaten ziñaten hori...

-Gu, jeneralmente-jeneralmente, hor Lopeneko erreka hortan asko zan hor ura, behia hortan, eta horrea.

-Horrea.

-Bestela, uain galdua da, biño Urruillako (Urruleku) baserri hortan zan itturri- manantial txiki bat, oso ona, ta horrea ere bai, tak. [Normalian gutxiyo horrea. Lopeneko erreka horta.]

8.5. Ogia eta taloa egiten

- **Hizlaria(k):** Garmendia Gaztelumendi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-026/005
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:05:34. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Orea ondo gozatu behar da ogi ona egiteko. Amak bera bidaltzen zuen taloak egitera, onenak egiten zituela-eta. Sukaldeko mahai gainean egiten zen ogi-orea. Ekonomikan erretzen zuten ogia eta txapa gainean taloa. Orain ez dute talorik eta ogirik egiten.

Transkripzioa

- Ta gariya geo, ze iten zenuten gari iriñakin?

- Gari iriñakin-ta, ogiya!

- A...

- Leamiya pixkat bota, ta ogiya, ogiya ona itten zen.

- Bai, bai, bai, bai...

- Ogiya ona...

- Ogiya, zenek iten zun ogiya etxian?

- Itxian, ba amak-eta, guk'e ikasi genun-ta, eozeiñek itten genun geo, ogiya. Masa ondo in...

- Nola iten zan masa hua?

- Masa? Ura bota, iriña jarri eta ura bota ta eskukin goxatu. [...] Talua itteko're in behar du masak ondo gozatu. Ondo gozatu ta, ordun itten zen harrotu, ondo gozatua baldin bazen. Masa ondo gozatu. Ta ogiyak igual-igual. Ta talua itten zun hola, tripa atzen zitzayon, taluai, ogiyai, ondo gazatutzen bazan, erretzen ai zan ga(r)ayian.

- Haizatu...

- Bai. Amak makina bat aldiz esana artua hartzen ai geala, artu jorratzen-ta aitzen giñen atxurrakin-ta: [...] "Hi!, juañ hai itxea ta in hitzik taluak ilunabarrian o hola, onenak hik itten dittuk eta /itte'ittuk/!" Engañatu, han aitzeko. Tamainan'e aittua, taluk itten ta! Geo hua jan ta...

- Eta ogiya iteko masa ze iten zenuten egurrezko mahai baten gañian o...

- Bai, bai, bai. Hala itten zen. Sukaldeko...

- Zer zan, aproposa hortako?

- Ez. Bestela sukaldeko mahaia pixka bat garbittu ta haren gañian paper bat o jarri, ta haren gañian.

- Haren gañian...

- Itten genun zea atea, bee itxurakin jarri, eskuakin-eta reonduak eta atera ta...

- Bai...

- Ta gero?

- Gero labian sartu ta han erre. Bee tamain bat hartu behar zitzaion, gehiegi kiskali ta zea in gabe, [bee tamain bat] bijilatu.

- Eta ze labe zenuten orduan?

- Suak, uain bezalako suak bazien ordun'e!

- Ekonomika?

- Bai, ordun bazien. Sua baju hoik'e bazien, beste egurrezkua biño bagenun guk ekonomika haitakua, ta haitan ondo itten zen, labian. Egurrakin sua inta, itten zen orduan.

- Eta han iten zenuten ogiya, labe hartan?

- Han itten genun, bai, bai. Labian itten genun, ogiya. Ta talua, berriz, txapa gañian. Txapa bat aproposa bazen! Ta haren gañian jarri talua ta holako gaia, azpiyan itten zaionian, tak! Buelta eman ta berriz'de beste alleka.

- Ta nola deitzen zitzaion txapa hari? Talua iteko txapari.

- Txapa hari... Uain ez naiz akordatzen nola deitzen zitzaion hari... ta aluminio txapa bat izaten zen, redondo bat izaten zen, bee kierrakin, sartaian gisa, txapa bat.

- Bai.

- Baina izena, ez dakit nola izaten zun harek. Ez naiz akordatzen.

- Ez zea akordatzen... Urte asko pasa dia!

- Urte asko pasa diat a...

- Ta ya... Erabiltzen dezute orain, txapa hori?

- Uain ez. Uain ez dugu taloik-eta itten.

- Ez dezute iten...

- Ez. Uain ogiyik ez. Uain sobra do.

- Uain sobra. Ta orduan falta.

- Orduan falta! Ogiya falta, ordun!

8.6. Etxerako sagardoa

- **Hizlaria(k):** Garmendia Gaztelumendi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-026/011
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:13:15. **Bukatu:** 00:14:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena:** Etxerako sagardoa egiten zuten. Auzoan zegoen dolarea. Orain ere egiten dute, Erreterriako dolare batean, etxeko sagarrarekin. Garai batean sagarra saldu ere egiten zieten sagardogileei.

Transkripzioa

-Zuek bazenuten, sagastiya?
-Bai, bagenun guk'e, bai. Etxeko pitarrak eta sagarduk-eta itten genittun.
-A bai, e!
-Bai, bai.
-Tolaria zenuten, orduan.
-Guk ez. Auzuan. Auzuan zen tolaría eta hara eramaten genun. Ta han txikitu ta [...] sagardua. Ura botata, ez uan bezela, purua!
-A ez, e!
-Ordun ura botata, bai.
-Bueno, oain puro purua're ez da ez?
-Uan puru-purua itten dugu.
-A bai?
-Bai.
-A, zuek itten zute?
-Itten dugu, bai. Tolariak ez ttugu, biño hola eman... Errenteira ematen dugu /emateugu/.
-A...
-Zamarbidekuak eman ta itten digu, sagardua.
-Non iten dezute?
-Zamarbiden. Txabola o... Zamarbideko eliza, lehen eliza, uain'e han izango da. Haren atzian, oain. Tolare polittak badittu ta harek. Hara eaman ta han itten dugu sagardua.
-A... beitu, ta sagarra zuena, etxekua.
-[Sagarrak onak'e bai]. Aurten'e bagenun itxeako aiña itteko baiño iaz asko genun. Ta aurten'e itxeako aiña bagenun, ta hiru bukoi bete dittugu / beteittuu/.
-Baño orduan ze iten zenuten etxeako sagardua ta sagarra saldu're bai?
-Bai. Bai.
-Sagarra saldu iten zen.
-Saldu're itten zan ordun. Etxeako sagardua, pitarra in ta saldu! Xoxak behar tzien ordun'e ta pixkat saldu're ittea [...]
-Ta ziñek erosten zun sagarra orduan?
-Sagarzaliak, hola sagardua itten [zen] tokiyak bazien, hola, gaur bezela.
-Sagardotegitan ta hola?
-Bai, bai, bazien, ta haik eamaten [zizuten/zittuzten]. Bildu ta prepaatu ta deitu ta beak etortzen zien billa ta... Sagardoaliak.

8.7. Sagardoa egiteko sagar motak

- **Hizlaria(k):** Garmendia Gaztelumendi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-026/012
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:14:38. **Bukatu:** 00:15:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena:** Zenbait sagar mota: erramu sagarra, martzial sagarra, patxulua, mosolua, aldako sagarra, kafandoka, olio sagarra... Jateko ere onak ziren klase hauetariko batzuk. Orain izen diferenteak omen dituzte eta lehengo batzuk galdu egin omen dira. Sagardo ona egiteko sagar geza erabiltzen da gehienbat, baina gaziarekin nahastuta. Txalaka sagarra gazia da. Geza hutsarekin zozoagoa eta goxoagoa irteten da.

Transkripzioa

-Ze sagar klase zeuden orduan?

-Orduan, erramu sagarra-ta, martziel sagarra-ta, holako zeak, izenak zituztenak. Patzulua-ta, mozolua-ta, hoik, holakuk bazian, aldako sagarra-ta, erramu sagarra-ta, bazien. Ta, bai... kafandoka-ta, antza're onak zien hoik. Oliyo sagarra-ta, holako izenak. Sagar klase ona zien [hoik] jateko're! Gordiñik hola jateko ta erreta're bai-ta...

-Klase asko.

-Oain, klasiak diferentia dia oain. Oain izen diferentia ditzuzte askok, sagarrak. Orduko sagar klaseik ez da oain asko. Ez da azaltzen, oain asko, ordun zien hoik. [...] oliyo sagarra-ta... kafandoka izango da uain'e... Oliyo-sagarra-ta, aldako sagarra-ta holakoik oain gutxi ikusten da.

8.8. Sagarra biltzen

- **Hizlaria(k):** Garmendia Gaztelumendi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-026/014
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:18:38. **Bukatu:** 00:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena:** laz 15.000 kilo sagar hartu zituzten, aurten 3.000 bakarrik. Euripean eta presaka bildu behar izan zuten. "Kizkia eta koparekin" biltzen dute sagarra.

Transkripzioa

-Ta uzta ona ematen du?

-E?

-Uzta ona ematen al du?

-Bai. Lehengo urten ona genun! Aurten gutxixio genun, aurten.

-Gutxixio izandu da, ezta?

-Lehengo urtian hamabost mila kilo bildu genittun, e!

-Ostras...

-Bai.

-Asko.

-Aurten hiru bat o hola.

-Hoik'e biltzen lana!

-Bo! Lehengo urten asko genun. Ta egualdiyak txarrak itten zittun! Beti ebiya, ta ebiya, ta... Sagardozaliai eman nahi izaten geniyon ta azkeneako aste bat bakarra jarri zigun. Nahiko bota ta bildu ta emateko. Aste bat bakarra! Asko baitzen, ta ezin enpleatu, lehengo urtian, ta guk'e hartzia nahi genun, ta hantxe, ebiya ai dula sagarrak goittik bota ta biltzen ta aste bat pasa genun.

-Busti-bustiya sagarra.

-Busti-bustiya, bustiya sagarra? bai gu're!

-Baita're!

-Arropa zaharra jantzi, zira zaharrak-eta...

-Zekin biltzen dezute sagarra?

-Kizkiya ta kopakin.

-Ta geo zakua bete.

-Geo, geo zakura bota, bai. Kopa betetzin, geo zakura bota.

-Ta geo ya zakuak eamaten dituzue /eamateittuzue/...

-Bai. Remolkian.

-Tolarian...

-Tolarea.

-Zea, tolare, hara, sagardozalia [mediyo]. Bai. Hiru bat, o milla kilo aldiyan ematen nittun. Remolkia ta kotxia, biyakin.

8.9. Txikitatik esne saltzen herrian

- **Hizlaria(k):** Garmendia Gaztelumendi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** LEZ-026/016
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:20:34. **Bukatu:** 00:21:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Bere denbora guztian ibili da esne saltzen, hamar urterekin hasita. Txikitan arrebarekin joaten zen astoarekin banaketa egitera. Orduko bezeroak hilak dira ia denak.

Transkripzioa

-Zu beti ibilli zea esne saltzen? Urte asko daamazu?

-Bai. Nee denbo guziyan!

-Bai, e!

-Bai. Han'e ibiltzen nintzen.

-Hoi esan behar nizun...

-Han, jaiotako itxian'e, ibiltzen giñan. Arreba ta biyok joaten giñan, kalea, astuakin, ta geo arreba joten zen lanea. Arreba lanea ta nik astua itxea ekarri, azkeneko pizarrak bukatu ta etxea ekarri ta hola-ta, txikitatik hasiya naiz, bai! Uain'e joan itten naiz-ta!

-Eta orduko klientiak mantendu dituzu?

-Ez. Ordukuak ya gehinak galdu izango dia. Gehinak galdu dia, ordukuak.

-Berriyak iten jun zea. Ez?

-Berriyak itten jun naiz, bai, ta xaharrak ya...

-Nola esaten zaio? Parrokiya o...

-Parrokiya, bai. Parrokiya ordukuak, gehinak, xaharrak hil zien ta

-Zenbat urtekin hasi ziñen zu kalea esnia saltzen?

-Ni kalea hasiko nitzan ya hamar urtekin eo. Arrebakin juten nitzan, e!
 -Bai. Arrebakin lehenbizi.
 -Bai. Arrebakin. Gehienin arrebakin. Ta geo joten zen hua lanea.
 -Bai.
 -Zortzitako lanea joaten zen hor txapa o... Pabrika bertan bazeon ta berta joaten zen, ta geo, gañekuan...
 -Atxanekua.
 -Bai, hoi da, ta geo gañeko azken pizarrak nik bukatu ta astua itxea ekarri ta hola aitzen giñan.

8.10. Jaizkibelera su-egur bila

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Salaberria, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: LEZ-027/003
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:05:01. **Bukatu**: 00:06:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Jaizkibelera joaten ziren su-egurretara. Pinu-adarrak eta pinu-buruak zakutan sartu eta etxera. Ez zegoen ikatza erosteko dirurik.

Transkripzioa

- Ta bestela, beste lana zen egurketa?
 - Bestea egurreta, mendia.
 - Egurreta. Noa joaten ziñaten?
 - Jaizkibelea. Jaizkibelea, honea bertaa.
 - Eta ze lan izaten zen hori?
 - Eurre? Ba eurrea pues piñuan ihartuan zeoztenak eta botiak eoten zien, haietatikan adaxkak hartu eo piñu koskorak eo zienak ta haikin zakua bete ta etxea.
 - Zakotan?
 - Zakotan, etxea.
 - Eta egur hua zertako zen?
 - Etxea zeako. Egur hua? Su itteko, ikatza eosteko diruik ez zeon ta. Zazpi seme-alabakin aber ze izango zun jornal orduan ze izango zun gure aittek eta nik su-egurreta jun ber.
 - Oseake su itteko?
 - Su itteko. Seittuen erretzen zen dena biño.
 - Zeatik orduan izango zan?
 - Ekonomikak, lehengo hoiek, ekonomikak.
 - Ta han iten zen dena?
 - Bai, lehen hua genun.
 - Ekonomikan iten zen janaria in, ez? Otorduak prestatzeko ta ibiltzen zenuten ez?
 - Bai, dena iteko, bai dena.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolan gogor, etxean ere berdin (LEZ-001/003)

Eskolan euskaraz aritzea debekatua zuten guztiz. Zigorrak, sarri jasaten zituzten euskaraz aritzeagatik. Etxean aldiz, kontrako egoera bizi zuen. Euskaraz bakarrik hitz egitea onartzen zien amak.

2. Umetako jolasak (LEZ-001/005)

Umetako jolasak aipatzen ditu. Tortoloxei "kariokak" esaten zieten. Nola jolasten den kontatzen du.

3. Hamabost urterekin neskame (LEZ-001/006)

Eskolak amaituta, umezain jardun zuen Lezon. Aurrerago Donostian neskame ibili zen. Irabazitakoak amari ematen zizkion.

4. Neskamearen zereginak (LEZ-001/007)

Donostian, Antton Valverderen etxean, egon zen neskame. Bertan bizi zen. Egiten zituen lanei buruzko azalpenak ematen ditu. Hamabostean behin jai egun bat izaten zuen.

5. Inudeak Kontxara paseoan (LEZ-001/010)

Garai hartako Donostia oso desberdina zen. Kontxako pasealekuan inudeak egoten ziren beraien jantzi dotoreekin.

6. Lezoko hondartza (LEZ-001/011)

Lezon, ere egoten ziren estropadak. Ez du arraun taldearen izena gogoratzen. Nahiz eta gaur egun desagertu den, Lezon bazegoen hondartza txiki bat.

7. Lehenengo eta bigarren jaunartzea (LEZ-001/012)

Lezon egin zituen bi jaunartzeak. Zazpi urterekin lehenengoa eta hamar edo hamaika urterekin bigarrena. Zuriz jantzita egin zuen jaunartzea. Dotrina buruz ikasi behar izaten zuten.

8. Kongregazioko kide bai, baina behartuta (LEZ-001/013)

Behartuta joaten ziren elizara. Kongregazioko kide izatea ere derrigorrezkoa zen. Mariaren alaba izateagatik egin ezin zituzten gauzak aipatzen ditu. Neskame joan zenean utzi zuen kongregazioa.

9. Zinta morea mutilekin dantzan egiteagatik (LEZ-001/014)

Igandero Errenteriara joaten ziren dantzan egitea. Kongregazioak zigortu egiten zituen mutilekin dantza lotua egiteagatik. Helduagoak egin zirenean, Pasaiako erromeriara ere joaten ziren.

10. Gona eta alkandora. Emakumezkoentzat prakarik ez (LEZ-001/016)

Jaietan sandaliak janzten zituzten. Galtzak janztega gaizki ikusia zegoen. Gona eta alkandorak erabiltzen zituzten normalean. Jostunak josten zizkien behar zituzten arropak.

11. Etxeko baratze eta ukuiluko jakiak (LEZ-001/017)

Kaleko etxea izan arren, ukuilua eta baratzea zituzten. Etxerako barazkiak eta esnea lotzen zituzten bertatik. Eguneroko otorduak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Pasaia portua gertu izateak, arraina ere sarri-sarri jan ahal izatea ahalbidetzen zien. Kaleko arrain-saltzaileei erosten zieten.

12. Txerria eta oilaskoak etxerako (LEZ-001/018)

Txerria eta oiloak hazten zituzten etxerako. Harakinak hiltzen zuen txerria eta auzokoen laguntza izaten zuten odolkiak eta abar egiteko. Auzokoei eta medikuari ematen zizkieten odolkiak. Lan handia egin behar izan zuten arren, goserik ez zutela pasa aitortzen du.

13. Erreketeak Jaizkibel mendian behera (LEZ-001/019)

8 urte zituen gerra hasi zenean. Ondo goratzen du gerra hasiera. Nahiz eta txikizio handirik ez zen izan, jende askok alde egin zuen Lezotik.

14. Lezo inguruko lantegiak (LEZ-001/024)

Fabrika asko zegoen Lezo inguruan, Erreterian gehienak. Bi galleta fabrika ezagutu ditu. Oihal eta manta fabrikak ere bazeuden. Kanpoko jendea gerraostean hasi zen etortzen.

15. Emakumeen lan-baldintzak (LEZ-002/022)

Emakumeek fabrika lan egiten zutenean, ordu asko sartzen zituzten lanean. Ez zuten jaiegunik izaten, eskari handia baitzegoen. Orduko jornalak eta lan-baldintzak aipatzen ditu. 1957an, ezkonutako emakumeek lanik egin ezin zuten legea atera zenean, emakume horiek lana utzi behar izan zuten.

16. Lezoko jaietako bisitak eta lanak (LEZ-002/024)

Lezoko jaiak non eta noiz ospatzen zituzten aipatzen du. Orduan, Hondarribiko gazteak etortzen ziren oinez, musikarekin. Gogor egin behar izaten zuen lan Xebastianak.

17. Gaztetako dantzak (LEZ-002/027)

Kontzeju azpian, gaztetan, dantza asko egiten zuten igandero-igandero. Dantza-taldean ibilitakoa da Xebastiana.

18. Herrian beti euskaraz (LEZ-002/030)

Beti euskaraz egin izan dute herrian. Familia erdaldunek ere euskaraz ikasi zuten. Goiko eskolan, erdara ikasi behar izan zuten.

19. Lezo txikia zeneko garaia (LEZ-002/031)

Gerra garaian, ez zen jende asko joan kanpora. Lezo txikia zen garai hartan. Lehen, gehienak familiakoak ziren herrian. Kanposantu zaharra eta berria aipatzen ditu. Orain, asko handitu da Lezo.

20. Gabonak Lezon (LEZ-002/032)

Santa Krutz jaiak ziren nagusi herrian. Baina, Gabonetan ere ospakizunak izaten ziren. Lezoko kaleen antolaketa lehen nolakoa zen eta zer aldaketa izan diren aipatzen du.

21. Lehengo orrazkera batzuk (LEZ-002/039)

Lehengo orrazkerei buruz hitz egiten du: trentzak, "a lo garçon", permanentea...

22. Elizako kantak abesteko ohitura zuten etxean (LEZ-002/043)

Aitari asko gustatzen zitzaion kantatzea. Elizako abestiak kantatzen zituzten gehienbat. Lo hartu aurretik, errezoak egiten zituzten.

23. Lezon industriak ekarritako aldaketak (LEZ-002/045)

Xebastianak beti hitz egin izan du euskaraz Lezon. Euskara oso garrantzitsua da beretzat. Duela 60 bat urte hasi zen jendea kanpotik etortzen. Pixkanaka, herria handitzen joan da. Herrian izandako aldaketak aipatzen ditu.

24. Umetako sorgin-kontuak eta jolasak (LEZ-002/049)

Umetan, sorgin-kontuak kontatzen zizkieten. Jaizkibelen betizuak izaten ziren; haiek ikustean, korrika jaisten ziren. Gaintxurizketan, sorgina bizi omen zen.

25. Baserria izan arren, aitaren bizibidea kanpoan (LEZ-003/002)

Umetatik ezagutu izan ditu animaliak baserrian, baina bere familia ez da baserritik bizi izan: aita kanpoan egiten zuen lan, topoaren bideak konpontzen eta garbitzen.

26. Baserriko esnea esnezaleari saltzen (LEZ-003/003)

Baserriko abereetatik esnea lortzen zuten, eta esnezaleari saltzen zioten. Egunean 40 litro inguru ateratzen zituzten. Esnezalea inguruko baserri guztietatik ibiltzen zen esne bila, eta astean behin ordaintzen zien.

27. 30 urterekin, fabrikan lanean hasi (LEZ-003/004)

Ama baserriko lanetan aritzen zen. Martzelinok 30 urte zituela, bere bigarren alaba jaio zenean, Martzelino Niessen fabrikan hasi zen lanean eta handik hartu zuen erretiroa. Lana nola topatu zuen azaltzen du.

28. Baserriko lanetan 8 urte zituenetik (LEZ-003/005)

Umetan baserriko lanetan lagundu behar izaten zuten. 8 urte zituenerako behiak jezten zituen, segan aritzen zen... Aitonak erakutsi zion segan. Baratzean arrebak ibiltzen ziren. Lehen baserriko lanak behiekin egiten zituzten.

29. Eskolara ezin joan baserrian lana zegoenean (LEZ-003/006)

Eskolara joateko ordu erdiko bidea egin behar izaten zuten oinez. Mutilek eta neskek ordutegi desberdinak izaten zituzten. Baserrian lanak egin beharra zegoenean, ez ziren eskolara joaten.

30. Baserriko lanetarako indartsu (LEZ-003/007)

Goldean nola aritzen ziren azaltzen du. Jaizkibela joaten ziren iratze bila, eta berak gustura egiten zuen lan hura. Behia edozein lanetarako erabiltzen zuten.

31. Metak nola egiten zituzten (LEZ-003/008)

Metak egiten zituzten: urte osoan 20 bat. Metak egiteko, 2-5 pertsona inguru behar izaten ziren. Metak egitean, Martzelinoren lana zer izaten zen azaltzen du. Meta ez harrotzeko hainbat baliabide zituzten.

32. Sagardoa etxerako eta saltzeko egiten zuten (LEZ-003/010)

Sagasti asko zituzten. Karga-sagarrik izaten ziren sagarrak saltzeko neurria. Sagardoa etxerako eta saltzeko egiten zuten. Pitarra edaten zuten egunero urte osoan eta otordu guztietan. Sagardo hutsa botilatan sartzen zuten.

33. Auzokoei laguntzeko ohitura bai (LEZ-003/011)

Baserrira auzokoak gutxi etortzen ziren, etxean nahiko lagun bazirelako baserriko lanak egiteko. Beraiek auzoetara, ordea, joaten ziren laguntzera. Auzoan sega-makina erosi zuen lehenengoa izan zen Martzelino.

34. Eskolako maistra, egitura eta ordutegia (LEZ-003/012)

Eskolara auzokoak elkarrekin joaten ziren oinez. Mutilek arratsaldean izaten zuten eskola eta neskek goizetik. Donostiako maistra zuten eta trenez etortzen zen eskolara. Herri-eskolan ikasten zuten eta haren egitura nolakoa zen azaltzen du.

35. Eskolan dotrina bakarrik euskaraz (LEZ-003/013)

Eskolan gaztelaniaz ikasten zuten gehiena, euskaraz dotrina bakarrik. Dotrinako etxeko lanak etxean ikasten zituzten buruz, eta gero maistrak galdetu egiten zien. Dotrinako liburuxka euskaraz zegoen.

36. Bi komunio eta mezara joateko ohitura (LEZ-003/014)

12 urtera arte ibili zen eskolan. Komunio txikia eta handia egiten zituzten. Erretereriako parrokiara joaten ziren beraiek, errazagoa baitzen hara joatea Lezoko elizara baino. Mezara joatea nahitaezkoa zen, kontzientziak hala eskatzen baitzien, bestela konfesatu egin behar izaten zuten.

37. Konfesatzean apaizari buruketa jarri ziona (LEZ-003/015)

Konfesatzera joatean, apaizak galdera ugari egiten zituen. Auzoko gizon batek konfesatzera joandakoan izandako anekdota barregarria kontatzen du.

38. Dena bekatu eta apaiza haserretu beti bekatu berak izateagatik (LEZ-003/016)

Helduago ziren heinean, dena bekatu zela konturatzen ziren. Konfesatzean, dena konfesatzen zuen Martzelinok. Behin apaizak esan zion beti bekatu berak egiten zituela eta ez zela inoiz damutzen. Ordutik ez zen konfesatu 8 urtean.

39. Baserriko animaliak zergatik aukeratu (LEZ-003/018)

Baserrian ez dute inoiz idirik izan, beti behiak. Izan ere, behiek esnea eman, umea egin eta baserrian lan egiten zuten. Lehen ezin izaten zen txekorra hil jateko; hilez gero, kontrabandoan egiten zuten. Txekorra hildakoan, gazitu egiten zuten kontserbatzeko.

40. Goseari aurre egiteko, artoa (LEZ-003/019)

Gosea pasa zuten etxean gerra bukatutakoan. Artoa landatzen zuten, ehotzera eramane, eta harekin irina egiten zuten. Errotara oinez joaten ziren, asto gainean bi zaku arto jarrita. Irin hura taloa egiteko erabiltzen zuten. Ogia errazionamenduan jasotzen zuten.

41. Baserriko jenero gutxiago entregatu behar izateko trikimailuak (LEZ-003/020)

Gerra aurretik ogia ez zen falta: okina etortzen zen inguruko baserri batera eta han uzten zituen ogiak. Gerra ostean, taloa jaten zuten. Baserritarrek beren lursailak deklaratu egin behar izaten zituzten, eta handik kalkuluak ateratzen ziren zenbat entregatu behar zen jakiteko. Guardia zibilak etxera etortzen ziren begiratzera ea jenero gehiago ba ote zegoen, baina gordeta egoten zen baserrian deklaratu gabeko jeneroa, haiek ez harrapatzeko.

42. Artoaren kupoarekin guardia zibilak gainean (LEZ-003/021)

Gerraostean kupoa egoten zen artoa errotan ehotzeko; kupoaren kontua ez betetzeko, trikimailuak erabiltzen zituzten. Behin Martzelinoren arrebak estutasuna pasa zuen, guardia zibilek ia harrapatu egin baitzuten arto gehiagorekin.

43. Errotak itxitakoan, kontrabandora (LEZ-003/022)

Baserritarren kupoa bukatzen zenean, errotak itxi egiten ziren. Horregatik, jendea kontrabandoan ibiltzen zen. Endarlazako errotara joaten ziren tarteka eta guardia zibilek harrapatuz gero, kendu egiten zizkieten zakuak.

44. Gerra ostean elikatzeko baliabideak (LEZ-003/023)

Baserrian urte guztirako patata eta artoa izaten zuten. Errotak ixten zituztenean, ganbarako makina batekin eskuz ehotzen zuten artoa; handik lortutako irinarekin, ordea, arroz-esnea egiten zuten. Gosea pasatzen zuten hala ere. Askaltzeko, taloa jaten zuten txokolate puska batekin. Etxean ez zuten egiten gaztarik, mamiarik...

45. Baserriko eguneroko lanak eta bizimodua (LEZ-003/024)

12 urte zituela, eskola utzi zuen eta baserriko lanetan aritu zen. Baserriko bizimodua nolakoa izaten zen azaltzen du. Gosaltzeko esne-zopak jaten zituzten. Baratzeko lanetarako bostortza erabiltzen zuten. Artoa lerroka ereiten zuten eta lurra harrotu egin behar izaten zen.

46. Sasoian sasoiko lanak (LEZ-003/025)

Urte-sasoia ren arabera, lan desberdinak egiten ziren baserrian. Artoa zuritzen aritzen zirenean, abestu egiten zuten. Etxean kantu-zaleak izan dira senideak. Bertso zaharrak abestea gustatzen zitzairen.

47. Igandetako erromerietako giroa (LEZ-003/026)

Igandetan bilerara/erromeriara joaten zirenean, bertsotan aritzen ziren. Musika eta dantza izaten zen haietan. Hainbat lekutan izaten zen erromeria; Martzelino normalean bentatara joaten zen. Neska-laguntzak izaten ziren bilerak bukatzean.

48. Neska-laguntzaren ondoren, mutilak tabernan bertsotan (LEZ-003/027)

Neska-laguntzan izan ostean, mutilak tabernan (Bar Larrean) elkartzen ziren eta bertsotan aritzen ziren. Zer gizon elkartzen ziren aipatzen du.

49. Bileretako ohiturak eta andregaiarekin egiten ziren planak (LEZ-003/028)

Mutilak eta neskak kuadrilla bereizietan joaten ziren erromeriara. Hasieran neskak bakarrik hasten ziren dantzan; geroago, mutilek neskei dantzatzeko eskatzen zieten. Andregaia egindakoan, biak bakarrik hasten ziren ateratzen. Bikoteak zinera asko joaten ziren. Udan bilerak ez ziren egiten, festak izaten baitziren orduan.

50. Herriko jaiak lehen eta orain (LEZ-003/030)

Lehenengo jaiak ez dira asko aldatu ordutik. Lehen herritarrek hartzen zuten parte jaietako ekitaldietan; orain, berriz, kategoriako jendea ekartzen da ekitaldi horietarako. Bertsotan aritua izan da Martzelino hainbat plazatan.

51. Bertsolaritzaren munduan pixkanaka nola sartu zen (LEZ-003/032)

Lehenengo aldiz Amuteko jaietan abestu zuen plaza batean. Ezkonduetakoan, ez zuen bertsotan aritzeko astirik izaten. Zinegotzi izan zen Lezon 4 urtez, eta garai hartan bertsolariekin tratua izan zuen. Bertso-afarietara joaten hasi zen, eta saio haietan asko trebatu zen bertsotan.

52. Berak ezagututako bertsolariak (LEZ-003/034)

Bertsolari asko ezagutu izan ditu eta haien izenak aipatzen ditu.

53. Esana betetzeagatik, neskamearen mutil-laguna haserretu (LEZ-003/036)

Behin gertatutako anekdota kontatzen du: bertso-saio batera joan baino lehenago, bazkaltzera joan ziren jatetxe batera; txapela irabaziz gero, bertan afalduko zutela agindu zioten tabernako neskameari. Itzuli zirenean, han eman zieten jaten, nahiz eta berandu izan. Gaueko ordu biak arte geratu ziren azkenean bertsotan.

54. 'Lexoti'ren bertso bat (LEZ-003/038)

Jose Luis Lekuona Lexotiren bertso bat abesten du.

55. 'Lexoti' Mitxelena zirikatzen (LEZ-003/040)

Mitxelena zirikatzeke, Lexotik bota zuen bertsoa abesten du.

56. Gaur egungo bertsolaritzari buruzko iritzia (LEZ-003/041)

Gaur egun bertsolari gazte asko dago. Baina "aurrefabrikatutakoak" direla uste du. Lehen beste indar bateko ahotsa zuten bertsolariek, bertsoak denek entzun behar baitzituzten bozgorailurik erabili gabe.

57. Urrezko ezteietan emazteari dedikatutako bertsoak (LEZ-003/043)

Urrezko ezteiak ospatu zituztenean, Martzelinok emaztearentzat prestatutako bertsoak abesten ditu.

58. Jolaserako denbora askorik ez (LEZ-004/002)

Umetako oroitzapenak dakartza gogora. Aitaren jaiotetxera joaten ziren igandero. Klean ere aritzen ziren jolasean, hala ere, denbora asko ez zuen izaten jolaserako. Zaharrenetarikoa izanagatik, anai-arrebak zaindu behar izaten zituen.

59. Marru-marruketan, kulebrillan eta txingoka (LEZ-004/003)

Jolas desberdinei buruzko azalpenak ematen ditu: marru-marruketan, "kulebrillan" eta txingoka.

60. Hamaika urterekin lanera (LEZ-004/005)

Hamaika urterekin, Pasai Donibane sarreran zegoen eskabetxerian antxoak garbitzen egin zuen lan. Nahiz eta gogoko izan, lanean hasteko eskola utzi behar izan zuen. Eskabetxerian lanik ez zegoenean, Errenteriako Pakers fabrika gozokiak biltzen egiten zuen lan. Trintxerpeko arrandegi batean ere jardun zuen hilabete batzuetan. Tranbiaz joaten zen bertara. Eskabetxerian irabazten zuenaren bikoitza ordaintzen zioten bertan.

61. Ezer gabe baina gustora (LEZ-004/006)

Eskabetxerian lanik ez zegoenean, Ategorrietara joaten zen tranbiaz. Josteketan lanak egiten ikasi zuen bertan. Lagunari tranbiarako dirua galdu zitzaioneko anekdota kontatzen du. Nahiz eta ezer gutxi eduki, haurtzaro eta gazte denbora zoriontsuak igaro zituen.

62. Talgoa pasatzen ikustearren komeriak (LEZ-004/007)

Talgo trena pasatzen ikus zitekeen Ategorrietako mojen eskolatik. Leiho txiki batetik hura ikustearren, komuneko bainerara igotzen ziren. Behin gertatutakoa kontatzen du.

63. Klean nahi genuen bezala, baina etxean euskaraz (LEZ-004/010)

Nahiz eta inork ez zien euskaraz egitea galarazi, lagun artean erdaraz jarduteko ohitura zuten. Etxean euskaraz egitea behartzen zituen aita. Horri eskerrak familian ez dute euskara galdu.

64. Lezo, zelaiz eta baratzez betea (LEZ-004/012)

Zelai eta baratze asko zeuden Lezon. Umetan, sagarrak eta barazkiak lapurtzera ez zela joaten kontatzen du.

65. Lagunekin zinemara (LEZ-004/013)

Hemezortzi urterekin hasi zen lagunekin inguruko herrietara joaten, bezperetatik irtenda. Zinemara ere joaten ziren, neguan.

66. Maria Etxeberria janari-dendan lanean (LEZ-004/014)

Hamalau urterekin Errenteriako elikagai denda batean hasi zen lanean. Oso gustuko zuen lan hura eta, batez ere, bezeroekin zuen harremana atsegin zuen.

67. Langileek "puntuak kobratzen" zituzten seme-alabak izateagatik (LEZ-004/017)

Janari-dendan lanean jardun zuen garaian, igande arratsaldea baino ez zuen jai. Mendira joan ahal izateko egun osoa eskatu zion nagusiari. Han inguruan, langileak "Puntuak kobratzera" joaten zirela kontatzen du. Seme-alabak zituzten langileei aparteko ordainsari bat ematen zieten.

68. Mendira joateko dirua aurreztu behar (LEZ-004/019)

Hamar pezeta ematen zizkioten paga gisa. Lagunak mendira joaten ziren igandero baina, autobusa ordaintzeko adina diru izaten ez zuenez, dirua aurreztu behar izaten zuen hilabeteen behin mendira joan ahal izateko.

69. J.O.C.eko kide (LEZ-004/020)

Lezoko J.O.C.-eko (Juventud Obrera Catølica) kide zen. Ekintza desberdinak antolatzen zituzten, besteak beste, mendira irteerak. Bidegabekeriak konpontzea zen taldearen beste eginkizunetako bat. Astero biltzen ziren elizako lokaletan. Ezkondu ondoren ere jarraitu zuen taldeko kide izaten baina H.O.A.C. izeneko taldean (Hermandades Obreras de Acciøn Catølica).

70. Soldaduekin dantzari (LEZ-004/023)

Dantza egitera joaten zirenean, soldaduekin ere egiten zuten dantza (inork ez zuen nahi izaten). Kongregazioko zinta urdina kendu eta morea jartzen zieten, mutilekin dantza eginez gero.

71. Nola hasi zen senargaiarekin ateratzen (LEZ-004/024)

Neska laguntza. Hamarretarako etxean egon behar zuen. Nolatan hasi zen senargaiarekin. Zinemara joan ziren, Irunera. Hantxe zebilen lanean ordurako.

72. Ezkondu aurretik, bidaia nobioekin (LEZ-004/026)

Nobiotan bi urte egin ondoren ezkondu zen. Nobioekin astebeterako joan ziren kanpora, baina burutik pasa ere ez arrimatzetik.

73. Amaren etxera ezkondu zen (LEZ-004/027)

Ezkontzarako prestaketak. 28 urte zituen. Etixerik ez zuten artean, eta amaren etxera ezkondu ziren. Manoli Pikabea jostunak egin zion soinekoa, eta lagun batek orraztu zuen.

74. Arreoa eta maindire bordatuak (LEZ-004/028)

Arreoa. Kanporako bordatzen zuen berak, eta ez zuen berarentzat lanik hartu. Lagun batek bordatu zizkion maindireak. Toallak eta mantelak. Ezkondu arte, etxean entregatzen zuen lanean irabazitako dirua.

75. Ezkontzako soinekoa (LEZ-004/029)

Ezkontzako soinekoa. Eskularrurik ez zuen eraman. Zapata zuri itxien ordez, sandaliak eraman zituen berak.

76. Ezkontzako bazkaria eta eztei bidaia (LEZ-004/030)

Ezkontza bazkaria anaia zaharrenarekin batera egin zuen, Panier jatetxean. Andregaiarentzat kotxea alokatzen zuten. Anai gazteena soldadu zegoen Gasteizen. Ezkontza bidaian hantxegeeratu ziren lehenengo; gero Madrilera eta handik Cadizera joan ziren.

77. Bainatzen eta almejak biltzen (LEZ-004/032)

Enborrak ekartzen zituzten Lezora, ontziz, zerrategira. Arriskutsua zen han bainatzea. ibarrola dagoen tokian bainatzen ziren; hondartza modukoa zegoen. "Gona gorontza"-rekin bainatzen ziren, bainujantzirik ez zuten eta. Almejatara ere joaten ziren horra. Ez zuen igerian ikasi; mutilek bazekiten.

78. Gerra ondoren, taloak (LEZ-004/033)

Txokolate ontza erdi, meriendatzeko. Taloa egiten zuen amak, baina ez zitzaion gustatzen: ogia lortzen zuten berarentzat. Errotak itxita zeuden, eta gauez joaten zen anaia, ezkutuan. Ama Frantziara joaten zen ogia erostera. Errazionamendua. Familian baserria zuten, eta babarrunik ez zitzaien falta.

79. Txekorra, baratzean (LEZ-004/034)

Etxean katua zuten, saguentzat. Parrokia atzean baratzea zuten, eta txekorra ere izaten zuten. Hazi, saldu eta anaiaren seminarioa ordaintzen zuten horrekin. Oilaskoak. Quina San Clemente edanarazten zioten, arraultzekin.

80. Lezoko dantza taldea (LEZ-004/035)

Lezoko dantza taldea. Inaxiok erakusten zuen. Patxi anaia ibili zen dantza irakasle gero, eta hainbat txapelketa irabazia zen. Gezala txistularia (arreba bat zesta puntako jokalaria zuen).

81. Pilotan jokatzeko, lanean sartu aurretik (LEZ-004/036)

Pilotan ibiltzea gustatzen zitzaion. Lezoko frontoira joaten zen, Erreteriarra lanera joan aurretik, jokatzera. Irunen hasi zenean, ezin. Zazpitako mezetara joaten zen orduan, eta josi ere egiten zuen, denda ireki aurretik.

82. Pilota eta bizikleta (LEZ-004/038)

Sekula ez diote ezer esan pilotan jokatzeko. Mari-mutilena zen. Isilka esaten ziren halakoak. Bizikleta alokatzen zuten, bi pezeta ordainduta. Lagun bati galtzerdiak hautsi zitzaizkion behin. Nesken eta mutilen bizikletak.

83. Kartzelan zazpi hilabetez (LEZ-004/040)

1974an kartzelan egon zen, zazpi hilabetez. Urkola medikua joan zen, eta pilulak eman zizkion; handik aurrera hobeto. Etxean ETako jendea hartzen

zuten, lotarako; jatekoa ere ematen zien. Miaketa batean pistola bat aurkitu zuen Poliziak, poltsa batean.

84. Kartzelako egonaldia (LEZ-004/041)

Ez zioten jo, kartzelara eraman zutenean. 14 urterekin gaixotasun bat izan zuen. Berak ez zekien etxean hartzen zituenen izenak. Ijitoak ere hartzen zituen etxean. Klaustrofobia zuen kalabozoan. Senarrari lau urteko zigorra jarri zioten, baina amnistiarekin lehenago atera zen.

85. Etakideak etxean (LEZ-004/042)

"Txikia" ETakideari buruzkoak: indarkeriaren aurkakoa ei zen; hil egin zuten, Erreterian. Pertur aipatzen du. Garai hartan ETak ez zuen hiltzen; atrakoak egiten zituen. Behin, atrako baten ondoren beraien etxera joan ziren denak.

86. Kartzelan izandako borroka (LEZ-004/044)

Senarra oso gaizki egon zen Ocañan. Kartzelan borroka egin zuen emakume batekin, FACeko batekin. Mezetara joaten zen, eta mojekin ondo konpontzen zen; haiek ezin zuten hori ikusi.

87. Kartzelako anekdota (LEZ-004/046)

Kartzelan zegoela, bere urtebetetzean Martuteneko gizonezko presoei bera ikusten utzi zieten. 33 ziren. Zorionak kantatu zioten.

88. Kartzelako egonaldiko une gogorrenak (LEZ-004/048)

Seme-alabak izanez gero, ikustera joaten uzten zieten. Bestela ez. Ilobak joan zitzaizkion bisitan behin kartzelara, eta despedida oso gogorra egin zitzaion. Kalabozotik kartzelara eraman zutenean ere oso gaizki pasatu zuen. Lehen hilabetea izan zen okerreana.

89. Libre utzi zutenean, Madrilen (LEZ-004/049)

Libre utzi zutenean, Madrilen, ezin zuen sinestu. Dirua bazuen, baina iluntzen hasia zen, eta ez zuen atera nahi. Koinataren anaiaren etxera joan zen. Lezon diruz lagundu zioten lagunek.

90. Aitaren nortasuna (LEZ-005/002)

Aitak Lezoko bandan jotzen zuen klarinetea; noizean behin entseguak izaten zituzten. Aita gizon azkarra zen.

91. Aitak kontabilitatea eramaten zuen (LEZ-005/004)

Lezoko baserritarrek Errioxatik ekartzen zuten pentsua eta aitak eramaten zuen gai horren kontabilitatea.

92. Portuan abesten (LEZ-005/010)

Portuan leituak biltzen zituzten bitartean abestu egiten zuten. Orduko kanta bat abesten du.

93. Orduko abesti bat (LEZ-005/012)

Xexilik eta bere alabak kanta bat abesten dute.

94. Gerra hasiera (LEZ-005/017)

Gerra hasi zenean, Donostiatik etxera itzuli zen. Erreketeak azaldu zirenean Lezon, denak ikaratu ziren. Tiro-hotsak entzuten zituzten gerran eta babesteko beraien baratzeko txabolan sartzen ziren.

95. Txori-habia bila Lintzirin errekan (LEZ-006/006)

Habia bila ere ibiltzen ziren Lintziringo errekan. Zozo eta birigarroen habiak bilatzen zituzten batik bat. Tiragoma eta karabinarekin ere ibiltzen ziren txoriak harrapatzen. Bildutako arrautzekin tortilla egiten zuten.

96. Aingirak sardexkaz harrapatzen (LEZ-006/007)

Arrantzan gutxi egiten zuten, baina aingiratan bai tenedoreaz. Fabriketako presak garbitzen zirenean aingira handiak bistaratzen ziren.

97. Apaizak zaplaztekoa belauniko ez jartzeagatik (LEZ-006/009)

Hiru urte zituela herriko bikarioak egundoko zaplaztekoa eman zion elizakoak pasatzerakoan belauniko ez jartzeagatik. Ez du sekula ahaztuko. Oso gaiztoa omen zen apaiz hura.

98. 'Mendigoizaliak aurrera', don Josek erakutsitako kanta (LEZ-006/012)

Don Jose maisu euskaldunak erakutsitako abestia kantatzen du: "Mendigoizaliak aurrera...". Harekin euskaraz egiten zuten. Cara al Sol ere ikasi behar izan zuten. Lezoko baserri aldeko eskolan (Une), euskaraz gehiago egiten omen zen.

99. Minioa egiten zen aita zebilen lantegian (LEZ-006/017)

Arditurriko meatzetatik ekartzen zuten lehengaia minioa egiteko. Zinka, beruna eta zilarra nola bereizten ziren. Beruna urtu eta minioa egiten zuten.

100. Angula harrapatzen Lezon eta Erreterian (LEZ-006/019)

Angula asko harrapatzen zen orduan Lezon. Sagardotegian jaten ikusten zuen. Oso merke zeuden. Erreterian ere angula asko harrapatzen zen.

101. Olentzero pipa erretzen Erreterian (LEZ-006/026)

Gabonetan jokoan eta kantuan egiteko ohitura zegoen. Etxez etxe bitan bakarrik ibilita dago eskean. Santa Ageda bezperaz ere oroitzen da. Erreterian Olentzero pipa erretzen erabiltzen zutela ere bai.

102. Algarrobak harrapatu eta jan (LEZ-006/027)

Algarrobak zakutan ekarri eta nola banatzen zituzten gogoratzen du. Zakutik harrapatu eta jan ohi zituzten; gozoak omen zeuden.

103. Urak oraindik dagokiona hartuko omen du (LEZ-006/030)

Bonik pentsatzen du egunen baten ura igoko dela eta orain etxeak egindako lekuak hartuko dituela. Erreka guztiak Iztieta-Lezo aldean egiten dute bat

104. Pentsu-kooperatiba Gaintxurizketan (LEZ-006/034)

Pentsu-kooperatiba bat sortu zuten Gaintxurizketan. Hogeia bat bazkide ziren, bi errota zituzten eta garagarra, artoa eta baba ehotzen zuten.

105. San Isidro egunez bazkideen bazkaria (LEZ-006/036)

Urtean behin, San Isidro egunez, bazkaria egiten zuten kooperatibakoek. Hogeia bat bazkide ziren.

106. Belar-metak egiten (LEZ-006/039)

Orain askoz errazago egiten dira belar-lanak. Azken hogeia urtean ez dituzte metak egiten, bolak baizik. Arrebak egiten zituen metak. Egiteko teknika kontatzen du. Plastiko bat jartzen zioten gainean arratoiak sartu ez zitezen. Orain bolak egiten dituzte eta askoz ere hobeto konpontzen dira.

107. Falangisten hitzaldiak entzutera lantegitik (LEZ-006/040)

Frente de Juventudesera (Falangearen gazte-erakundea) bidaltzen zituzten Erreterian fabrika ari zirelarik ere, soldadutza egin arte. Lokala batzoki ohia zen. Falangistek hitzaldiak ematen zizkieten, eta Cara al Sol kantarazten. Fabrika behartuta zegoen langile gazteak hara bidaltzera.

108. Larunbat arratsaldea jai, aurrerapauso handia (LEZ-006/042)

Gogoan du larunbat arratsaldea jai egiten hasi ziren eguna. Zortzietatik ordu bietara, orde, ordu kopuru berdina. Zaharrak ez omen zuten nahi eta eztabaida handiak izan ziren.

109. Sindikaturik ez baina langileen ordezkariak bai (LEZ-006/043)

Sindikaturik ez baina orduan ere baziren langileen delegatuak. Huelgarik ez duia ezagutu. Apaiz batek hitzaldiak eman zizkieten eta gero eskupekoa izan zuten. Gaixotutakoan bazegoen baja hartzea.

110. Gorbata eta txapela, jantzi arruntak (LEZ-006/045)

Txapela asko janzten omen zuten, batez ere baserritarrek. Hamasei urte ezker gorbata erabiltzen zen jaiegunetan. Abarkak janzten zituzten, baina baserriko bidearen hasieran zapatak hartzen zituzten kalera joateko. Bideak oso lohitsuak ziren.

111. Oinez joaten da Lezotik Donostiara (LEZ-006/046)

Bere ustez orduko umeak oraingoak baino hobeto bizi ziren. Zazpi urterekin Guadaluperraino joaten ziren oinez arazorik gabe; oraingoak, oster, berehala nekatzen dira. Bitorrek oinez egiten du sarri Donostiatik buelta. Ibilbidea zein den kontatzen du.

112. Tenporetan fede handia (LEZ-006/048)

Tenporak noiz diren, eta nola igartzen zaion eguraldiari. Hiru hilabete behin izaten dira. Pazkoetakoak aldatzen omen dira dataz. Gaueko hamabietan haizeak zer joera duen du inportantzia. Berak badu fede horretan. Beren aurrekoek kasu handia egiten zieten tenporei.

113. Etiket arrotz-lanak ikasten (LEZ-007/006)

1940an hasi zen Erreterian lanean ebanisterian. Beti izan du arrotzeriarako zaletasuna. Etxean ere aritzen zen, aita arrotza izanda, tresnak bai baitzituzten. Aitaren dendan hasi zen arrotz-lana ikasten, eta bertan zituzten erreminten izenak aipatzen ditu.

114. Aitaren dendan egurra lantzen (LEZ-007/007)

Aitaren dendan lanerako egurra erosi egiten zuten; hainbat egur mota erabiltzen zituzten. Egurrekin zer lan egiten zuten azaltzen du. Egurra eta ikatza saldu egiten zituzten. Ikatza portuan erosten zuten.

115. Txaluparekin arraina harrapatzen gero saltzeko (LEZ-007/008)

Txalupa bat izan zuen Rafaelek eta izkirak harrapatzea joaten zen. Arrantza egitea erraza zen garai hartan, arrain ugari baitzegoen gerraostean. Arraina saldu egiten zuen. Lupia asko harrapatzen zuen eta arraunean ibiltzen zen txalupan.

116. Trintxerpen lanean zebileneko baldintzak eta bizimodua (LEZ-007/010)

14 urterekin lanean hasi zen Erreterian, pozik. Urtebete pasatakoan, Trintxerpera eraman zuten lanera. Han bizimodua bestelakoa zen. Tailerrean zegoela zituen lan-baldintzak aipatzen ditu. Bazkaria zakotearekin eramaten zuten. Lanera joateko, trenbidetik joaten ziren, nahiz eta arriskutsua izan. Siesta lantokian egiten zuen.

117. Trintxerpeko arrotzeriako lanak (LEZ-007/011)

Trintxerpeko arrotzerian zer lan mota egiten zituzten azaltzen du. Andonegi zuen izena enpresak eta barkuak konpontzen zituzten.

118. Trintxerpeko etxeak egiten aritutakoa (LEZ-007/012)

Barkuetan zer gauza konpontzen zituzten azaltzen du. Trintxerpeko etxeak egiten ere aritu ziren.

119. Donostiako hainbat etxe egiten (LEZ-007/014)

Donostiako hainbat etxe egitera eramaten zuten.

120. Barkuak konpontzeko egur motak eta hozkailu-sistemak (LEZ-007/015)

Barkuak konpontzeko hainbat egur mota erabiltzen zituzten, askotan pinua eta makala. Izan ere, arinak eta malguak ziren. Hozkailuak egiteko, ordea, akaziak erabiltzen zituzten. Lehen itsasontzietan zer hozkailu-sistema erabiltzen zituzten azaltzen du.

121. Bakailaotarako itsasontzien hozkailu-sistema eraberritzearen arduraduna (LEZ-007/016)

Bakailaotara joaten hasi zirenean ere, itsasontziak konpontzen ibili zen Rafael. Hozkailu-sistema eraberritu behar izan zen garai hartan. Lan hura nola egiten zen azaltzen du. Oso ondo lortu zuen dena egitea, eskolara gutxi joandakoa izan arren.

122. Itsasontziko lanetarako tresnak eta trukearen bidez ordaintzea (LEZ-007/020)

Itsasontziko lanak egiteko hainbat tresna erabiltzen zituzten. Tresna horiek erosi egiten zituzten. Lehen trukea asko egiten zen: dirua eman beharrean, beste era batera ordaindu.

123. Ternuatik kontrabandoan ekarritako jeneroa (LEZ-007/022)

Arrantzaleak Ternuara joaten hasi zirenean, gauza berri asko hasi ziren handik ekartzen: tabakoa, whiskya, puruak... Kontrabandoan ekartzen zituzten, eta Rafaellek itsasontzitik jenero hura ateratzen laguntzen zuen; arriskutsua izaten zen, karabineroak ibiltzen baitziren inguruan. Inoiz ez zuten harrapatu.

124. Etxekoen dendari esker, fraideetara ikastera joan ahal (LEZ-007/024)

Lezoko eskolan ibili ostean, Errenteriako fraideetan ikasi zuen 11 urtera arte, ama hil zen arte. Garai hartan fraideen eskolara joateko ordaindu egin behar zen; dirua zuen jendearen seme-alabak joaten ziren hara. Bere gurasoek denda zuten Rafael haurra zenetik, eta hari esker ordaindu ahal izan zuten Rafaelen eskola.

125. Eskola utzitakoan, bizibidea handik eta hemendik atera behar (LEZ-007/026)

Eskola utzitakoan, lanean hasi zen: ikatza saltzen, egurra txikitzen... Gerra hasia zen ordurako. Behin arrebari oilo batzuk tokatu zitzaizkion, eta haiekin bizibidea ateratzen hasi ziren etxean. 1940 arte oiloak, zerriak eta ardiak izan zituen.

126. Aitaren lanak familia aurrera ateratzeko pobrezia-giroan (LEZ-007/029)

Lehen pobrezia zegoen. Aitak emakume batzuk hartu zituen etxea zaintzeko, baina haiei ordaintzeko dirua ere bukatu zen. Aitak nola-hala atera zuen aurrera familia. Kartillak egoten ziren lehen zorrak apuntatzeko eta pattarra edateko ohitura handia zegoen.

127. Gerrako kaboia eta langileen batailoia (LEZ-007/038)

Gerran, kabo batek lagundu egiten zien, janaria ematen baitzien. Aita zauritu egin zuten gerran. Langileen batailoia hainbat obra egin zituzten Lezo inguruan.

128. Pelaioen desfilea herrian (LEZ-007/041)

Gerra garaian, asko aldatu zen herriko giroa: pelaioen desfileak ere izaten ziren kaletik.

129. Gerraosteko giro txarra herrian (LEZ-007/043)

"Auxilio social" zegoen gerra garaian: falangistek jaten ematen zuten. Errazionamenduko olioak kendu egin zioten bere familiari, eta epailearengana joanda ere, ez zuten lortu hura berreskuratzea. Giro txarra zegoen orduan. Beldurra pasatzen zuten. Desfileetan Espainiako bandera ateratzen zuten. Herriko jendeak ere parte hartzen zuen desfile haietan.

130. Batzokiko kultur giroa gerra aurretik (LEZ-007/044)

Batzokia eta Centro Republicano baziren herrian gerra garairako. Gerra aurretik, batzokian kultur giroa zegoen: antzerkia, dantza...

131. Ikurrina ezkutatu egin behar (LEZ-007/045)

Aitak etxean ikurrina zuen, eta Rafaelek kendu egin zion badaezpada ere. Milizianoek etxeak errexisatzen zituzten Francoren garaiaren hasieran.

132. Garai bateko agiriak gordeta (LEZ-007/047)

Hainbat agiri zahar erakusten ditu: tabakoaren errazionamendu-liburuxka, errazionamenduko jatekoa hartzeko agiria, orduko nortasun agiria erakusten du, elbarritasuna frogatzeko agiria, aurrezki-kutxako libreta...

133. Lezoko giroa gerra garaian (LEZ-007/048)

Gerra garaian, bonbardaketak izan ziren Lezon. Gizon bat eta haren iloba hil zituzten herrian. Bonbardaketak izaten zirenean, bazen sotoan dardarka egoten zenik.

134. Ezkontza: janaria, eztei-bidaia eta elkarrekin bizitzen jartzea (LEZ-007/055)

Gurutze Santuan ezkondu ziren, eta egun hartan oilaskoa eta txipiroia jan zuten bazkaritan. Bilbora joan ziren eztei-bidaian. Bueltakoan, Lezon jarri ziren bizitzen. Etxea goitik behera berritu behar izan zuten.

135. Ezkontza atzeratu soldadutzara ez joateagatik (LEZ-007/060)

Ezkontutakoan soldadutzara joan behar izaten zuten mutilek; horregatik, berak atzeratu egin zuen ezkontza. Azkenean lortu zuen soldadutzatik libratzea bizkarreko arazoarengatik.

136. Umetatik esnea saltzen (LEZ-008/003)

Pasai Antxora esnea saltzera joaten zen goizero. Donostiatik etortzen ziren maistrekin egiten zuen trenean topo. Umetan hasita, hogei urte inguru pasa ditu Bernardinak esnea partitzen.

137. Urtean txerri bat etxerako (LEZ-008/007)

Urtean zerri bat hiltzen zuten. Osaba arduratzen zen txerria hiltzeaz. Haren alabek laguntzen zuten gero odolkiak egin eta haragia gatzetan jartzen.

138. Argindarrik ez zegoenean (LEZ-008/009)

60 duro kosta zitzaien baserrian argindarra jartzea. Ordura arte, etxea argiztatzeko, kandelak eta kinkea erabiltzen zituzten. 40. hamarkadan sukaldean "ekonomika" jarri zuten.

139. Argindarra eta "ekonomika", adelanto handia! (LEZ-008/011)

Beheko sua erabiltzen zuten janaria prestatu eta ura berotzeko. Etxea nola berotu ez zegoen garai hartan. Argindarra eta sukaldeko "ekonomika" lana errazteko balio izan zuten. Aurrerapen handiak iruditzen zaizkio. Arriaundi baserriak iturria 200 metrora zuen. Abantaila handia zen hura. Marmitak erabiltzen zituzten etxerako ura garraiatzeko.

140. Lixiba iturrian egiten zuten (LEZ-008/012)

Etiket hurbil zuten iturriak bazuen arropak garbitzeko harria. Bertan egiten zuten lixiba. Sukaldeko trapu batekin arropa nola garbitzen zuten irudikatzen du. Astelehenetan garbitu ohi zuen arropa guztia.

141. Arropak petatxuekin konpondu (LEZ-008/013)

Arropa gutxiago erosten zen garai hartan. Bota eta berria erostea baino, petatxuak jarrita konpontzea zen normalena. Gizonezkoen eta emakumezkoen janzkeraz hitz egiten du.

142. Harri kozkorra bota zion azienda kendu zionari (LEZ-008/017)

Azienda edukitzeko eta esnea saltzen jarraitzeko debekua jaso zueneko kontatzen du. Amorrazioz betea, harri kozkor bat bota zion gizon haren autoari.

143. "Frantsesaren idea beti aldrebes" (LEZ-008/025)

Xenpelarren bertso ezagunaren zati bat kantatzen du.

144. "Guadalupeko salbea" (LEZ-008/029)

Guadalupeko salbea kantatzen du elkarrizketatzailearen laguntzarekin.

145. "Ezkonduta eta ezkongai" (LEZ-008/032)

Xenpelarren "Ezkonduta eta ezkongai" bertsoak kantatzen ditu.

146. "Mutilzarraren bentaja egi eta garbiak" (LEZ-008/035)

Xenpelarren "Mutilzarraren bentaja egi eta garbiak" bertsoak kantatzen ditu.

147. Txerriak hazten zituzten; lantegietan egindako lanak (LEZ-009/004)

Ama 43 urterekin alargundu zen. Zortzi senide ziren. Txerriak hazten zituzten. Bera izan zen azkena lanean hasten. Oso umetatik osasun arazoak izan zituen, begiekin eta. Anaia zaharrena etxera ezkondu zen. Pasai Donibanen lanean, bakailaoa lehortzen. Gero betun lantegian, Erreterian. Gerra ondoren, alkoholeran, ezkondu arte.

148. Amari laguntzen txerriekin (LEZ-009/007)

Amari txerriekin laguntzen zion. Zelaia zuten etxe atzean, eta han txerriak. 14 urterekin Erreterian hiltzera joaten ziren jan bila. Egosi egiten zituzten barrukiak. Txapa fabrika. Irina botatzen zioten.

149. Labaderoa, etxean bertan (LEZ-009/008)

Arropa garbitzen. Etxean bertan zuten labaderoa, ukuiluan. Ura zuten etxean. Alkoholera lanean hasi zenean ezin zuen hainbeste lagundu etxean. Erreleboak.

150. Senarra izango zuena nola ezagutu zuen (LEZ-009/009)

Txerriak saltzeko hazten zituzten. Erreteriatik joaten zitzaizkien. Denak lanean hasi zirenean utzi egin zuten; ama gaixo. Alkoholera ezagutu zuen senarra izango zena. Zinera gonbidatu zuen, Erreteriarra. Hiru urtean ibili ziren.

151. Gaizki ikusia kanpotarrekin ezkontzea (LEZ-009/011)

Mutilarekin irteten hasi zenean, lankideak harrituta. Bera oso elizkoia zen, eta zaharragoa. Adarra jotzen zieten, baina beraiek ezkondu egin ziren. Gaizki ikusia zegoen kanpotarrekin ezkontzea. Andre batek esan ziona.

152. Eskola erdaraz eta dotrina euskaraz (LEZ-009/015)

Lezoko eskolara joaten zen. Maistra ona zutela dio, baina bera ez zen asko joan. Osasun arazoengatik eta ilobak zaintzen zituelako. Askok gustatzen zitzaion irakurtzea. Marrazketan txarra. Dolores Lopez zen maistra. Ez zekien euskaraz, baina ez zien errieta egiten euskaraz egiteagatik. Dotrina euskaraz. Mutilek maisua zuten. Liburuak.

153. Kaleko jolasak; "kaioketan" (LEZ-009/017)

Kalean egiten zituzten jolasak. Neska-mutilak elkarrekin. Marru-marruka. Gorde-gordeketan. Ezkutalekuak. Kromoketan. "Kaioketan" (tortolosak). Txingoka, alpargatak hautsi. "Tres navios". Kanikak. Oraingo umeek ez dakite jolasten.

154. Lezon bi denda zeuden (LEZ-009/019)

Dendan saltzen zituzten kromoak, Erreterian. Lezon bi denda zeuden; taberna batean ere saltzen zituzten jatekoak. "Urbanania" denda zegoen kale nagusian, eta San Juan kalean "Nartxisania". Harakina ere bazen. Dendan zer saltzen zuten. Olio laurdena erosten. Galtzerdiak. Telak, perkala. Donostiara tela hobia erostera.

155. Tranbian Erreteriatik Donostiara (LEZ-009/021)

Erreteriarra oinez joaten ziren, eta handik tranbian Donostiara: hiru ordu laurden. Gustura joaten zen Donostiara. Belarria gaiztotu zitzaionean ere joan zen, umetan. Tranbia hotza zen.

156. Erosketak; diru gutxi; baratzea (LEZ-009/023)

Dendara enkarguak egitera. Diru gutxi zegoen. Horregatik hasi ziren denak lanean. Gerra aurretik, krisia. Baratzeari esker, aurrera. Erreterian, Real Compañía Asturiana langileek lurra erabiltzeko aukera. Babarruna, artoa. Zorrak libretan apuntatuta, dendan.

157. Baratzean baino gehiago etxeko lanetan; koltxoiak harrotzen (LEZ-009/025)

Anaiak prestatzen zuen lurra, eta koinatak ere bai. Bera ez zen baratzean aritu, ez zekien. Aza landareak plazatik ekarri, eta berak zuloan jartzen laguntzen zuen. Etxeko lanetan ibili zen gehiago. Artilezko koltxoiak egiten. Bi urtetik behin askatu, harrotu eta josi egiten zuten.

158. Koltxoiak harrotzen II (LEZ-009/027)

Koltxoiak gogortu egiten ziren, eta bi urtetik behin harrotu behar zen artilea. Asko irauten zuten koltxoiek. Jaizkibelgo izebak ardiak zituen, eta urtean behin ilea mozten zieten; haien ilearekin egiten zuten koltxoia.

159. Maistraren oparia; etxerako josten (LEZ-009/029)

Eskolara 14 urte arte joan zen. Maistrak zapiak oparitu zizkion, eta begiak zaintzeko esan zion. Josten ez zuen askorik ikasi, baina semeei galtzak josten zien gero; soinekorik ez. Puntua. Kaikuak, Guadalupe egunerako.

160. Batzokia eta Zentro errepublikanoa (LEZ-009/030)

Oriotarra taberna dagoen tokian zegoen batzokia. Antzerkia egiten zuten. Lezon etxe berria egin zuten, eta han errepublikanoen zentroa jarri zuten. Poxpolinen kantuak kantatzen ditu. Berak ez zuen dantza egiten.

161. Ezpata dantzariak; San Juan; San Pedro (LEZ-009/033)

Mutilek ere egiten zuten dantza batzokian. Ezpata dantzariak. Donostian Aberri Eguna: Jaizkibelen ito zen mutiletako bat, eta zinta beltzarekin. San Juan bezperako erakusketa eta haurren esku dantza. Txokolatea eta gereziak. Jantzera. San Pedro eguna.

162. Lezoko jaiak: saltzaileak eta diru batzea (LEZ-009/035)

Lezoko jaiak. Pazkoatan eta santakruzetan. Postuak: txurroak, panpinak, Gurutze Santua... saltzen. Don Eusebiok dirua batzen jartzen zituen, dotrinako umeentzat. Asto lasterketak.

163. Txistulariak Lezoko plazan, igandero (LEZ-009/037)

Lezoko jaietako musika: Errenteriako banda. Txistulariak San Juandik. Igandero, txistua plazan, gerra aurretik. Santo Kristok bisitari asko.

164. "Alpargatak urratuta" kantua (LEZ-009/039)

"Alpargak urratuta" kantua abesten du, Axeriko dantza.

165. `Andre Madalen´ kanta (LEZ-009/041)

`Andre Madalen´ kanta abesten du.

166. `Behin batian Loiolan´ kanta (LEZ-009/043)

Kantatzea asko gustatzen zaio. `Behin batian Loiolan´ kanta abesten du.

167. Hiru bonbilla etxe guztian (LEZ-009/045)

Arropak garbitzen kantari aritzen ziren aspertu arte. Argia garestia zen. Kandelarik ez. Hiru bonbilla etxean; logeletan ez.

168. Neguan etxea berotu ezinik (LEZ-009/047)

Su baxua baserrian bakarrik ezagutu du. Ekonomia zuten; ikatza nondik ekartzen zuten. Lurra zuloz betea. Hotz handiarekin, sua palangana batean.

169. Gerra hasi zenean, Jaizkibelera (LEZ-009/049)

Gerra hasi zenean, mendira joan ziren, Jaizkibelera. Arroka Haundira. San Juanera joan ziren. Milizianoak kamioian. Jendea ihesi.

170. Gerran hil zituzten karlistak (LEZ-009/053)

Gerra Lezon. Bizilagunei gertatu zitzaiena: bi karlista eraman zituzten, eta aguazila, eta denak hil. Abertzale asko kartzelan, Juanito Berasarte tartean.

171. Gerrako presoak Jaizkibelen lanean (LEZ-009/055)

Gerrako presoak Jaizkibelen lanean. Beraiek arropa garbitzen zieten batzuei. Barrakoiak. Bizkaitar asko.

172. Gose garaia; errazionamendua (LEZ-009/056)

Izugarritzko gosea. Alkoholeran zebilen lanean. Errazionamendua. Arto aleak eta azak jan behar. Oliorik ez. Kontrabandoa. Taloak. Laranja azalak.

173. Gose garaia; hilerokoa ere joan (LEZ-009/057)

Lantegiko emakume batzuei hilerokoa ere joan egin zitzaien, jan faltarengatik. Gosea.

174. Gose garaia; kontrabandoa (LEZ-009/058)

Kontrabandoa. Nafarroatik ogia. Tren geltokian Guardia Zibila zain. Zakua bidean botatzen zuten, iritsi aurretik. Ogirik ez du botatzen berak.

175. Oiartzunen hil zituztenak (LEZ-009/060)

Gerra garaian jende asko hil zuten Oiartzunen. Anaiak kontatzen zuenez, ez zituzten behar bezala lurperatzen.

176. Lezon bota zituzten bonbak (LEZ-009/062)

Gerra Lezon. Ezkutalekuak. Bonba bat batzokiaren ondoan erori zen. Bi pertsona eta mandoa hil ziren. "Gorriek" elizara bota zuten bonba. Bikarioa.

177. Ama-seme batzuen hilketa, Lezon (LEZ-009/065)

Lezon ama eta hiru seme nola hil zituzten, beste baserri batera ihesi zihoazela. Gernikako arbolaren ezkutua.

178. Etxea miatu zieten I (LEZ-009/066)

Zilarra entregatzeko agindua etorri zen. Polizia etxea miatzera joan zitzaien. Eskopeta. Amaren sosak eraman zituzten. Berak gordeta zuen dirua ez zuten topatu.

179. Etxea miatu zieten II (LEZ-009/067)

Polizia etxean zen bitartean osabari abisua ematera joan zen. 12 duro zilar kendu zizkieten. Liburuak ere kendu zizkieten. Egunkarian agertu zen gero. Haurraren arropetan, eltzetxoa gordeta.

180. Etxea miatu zieten III (LEZ-009/069)

Sei erreal zituen gordeta, eta berokia ordaindu zuen gero. Ama Birjina egunean estreinatu zuen. Iloba, berriz, negarrez, bera erreal gabe geratu zelako.

181. "Bertsolariya" astekaria; donostiarrei jarritako bertsoak (LEZ-009/071)

"Bertsolariya" astekaria zen. Ez daki non ateratzen zuten, baina Gipuzkoa osoan banatzen zuten. Bertso idatziak. Donostiarrei jarritako bertsoak errezitatzen ditu.

182. 'Txirristaka' eta 'Lazkao Txiki' ren kontuak (LEZ-009/073)

Jaietan, Eusebio Mugertza Txirristaka bertsolariak erdaraz egiten zituen bertsoak. Elkarri burlaka, eta emakumeen kontura ere bai. Lazkao Txikiren txistea, erdaraz.

183. Sagardotegiko giroa I: lanpernak eta gaztainak (LEZ-009/075)

Urterako sagardoa. Osabak ederki kantatzen zuen. Kanta bat errezitatzen du. Osabaren sagardotegian txandaka egoten ziren. Bakoitzak bere jana. San Juandarrak. Lanpernak eta gaztainak.

184. Sagardotegiko giroa II: apustuak (LEZ-009/076)

Txotxik ez zen egiten. Edalontzia argi kontran begiratzen zuten. Gauzainak (serenoak) atea jotzen zuen. Apustuak, estropada denboran. Maria ahizpak altxatu zuen enborra.

185. Sagardotegiko giroa III: pitarra (LEZ-009/079)

Gerra aurretik Lezon oso elizakoiak ziren, eta gerra ondoren ere bai. Sagardotegira ere bai. Nola hasi zen aldatzen giroa. Errenterian "Makuto" k urte guztian zuen sagardoa. Pitarra, otordutarako.

186. Zegamatik ekarritako sagarra (LEZ-009/081)

El Día egunkarian irakurri zuten Zegaman merke zegoela sagarra. Kamioia alokatu, eta hara joan ziren. Dolareak. Txotx, probatzeko. Hiru egunean saldu zen kupela.

187. Lezo orain garbiagoa baina itsusiagoa (LEZ-009/083)

Lezo ez da lehen zena. Garbiagoa da orain. Txerriak eta ahateak ibiltzen ziren kalean. Alkateak galarazi egin zuen hori. Ukuiluetako usaina. Lezo politagoa zen.

188. Kaiko bainuak, almejak biltzen (LEZ-009/084)

Bere lagunak itsasoan bainatzen ziren, soineko zaharrekin. Itsasgoran. Kaira ezin zuen jaitsi, begietako gaixotasuna zela eta. Inbidiaz. Almejak biltzen. Gose garaian, zomorroak jan, eta sarna atera.

189. Soldadutzan, egunean bi nobela irakurtzen (LEZ-010/004)

Soldadutzan, egunean bi liburu irakurtzen zituen.

190. Pinuekin, arrainekin eta harriekin lanean (LEZ-010/007)

17 urte zituela, pinu-zulatzan ibili zen; gerora, arrainak deskargatzen, arrandegian. Harrobian 7 hilabete eman zituen; bagonetak kargatzen aritu zen. Jaizkibelen pinuak landatzeko lanetan, zuloak egin eta zuhaitzak aldatzen zituzten. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.

191. Lehengo jolasak, tiragomak eta bizikletak (LEZ-010/009)

Umetako jolasak aipatzen ditu. Tiragomak beraiek egiten zituzten. Nola-halako bizikleta zeukaten.

192. Arraina deskargatzen ibiltzen zirenekoa (LEZ-010/010)

Nola-halako bizikletak zeuzkaten, baina ibiltzen ziren. Arraina deskargatzera joaten zirenean, lagun ugari joaten ziren. Lan horretako lan-baldintzei buruz hitz egiten du.

193. Sagardoa etxean egiten zuten (LEZ-010/014)

Sagar asko zeukaten beraiek etxean, saltzeko adina. Sagardoa etxean egiten zuten, eta urte osorako izaten zuten.

194. Osaba eta aita kontu-kontari (LEZ-010/015)

Osaba sarritan etortzen zen etxera, eta aitarekin egoten zen kontu-kontari. Amonak pattarra nola egiten zuen azaltzen du.

195. Lehengo topoak, bete-beteta (LEZ-010/018)

Lehen, topoa (trena) bete-bete eginda joaten zen; kanpotik zintzilik joaten ziren. Topoek balkoiak izaten zituzten.

196. Arrainak deskargatzen zituzteneko garaiak (LEZ-010/020)

Arrainak deskargatzen aritzen zirenean, zer jornal izaten zuten azaltzen du. Garai hartan, diru gutxi zegoen.

197. Lehen, diru eta arropa gutxiagorekin, ondo bizi ziren (LEZ-010/021)

Lehen, diru gutxi ikusten zen, baina gutxi gastatzen zen. Pinu-zulatzan hasi zeneko kontuak aipatzen ditu. Irabazitako dirua etxean entregatzen zuen. Askoz diru gutxiago gastatzen zuten arropatan. Gaur egun, alferrik gastatzen da dirua askotan. Lehengo oinetakoak nolakoak izaten ziren deskribatzen du. Txapela erabiltzeko ohitura bazegoen lehen; txapela eta txaketa.

198. Ugaldeko festetako giroa, lehen (LEZ-010/024)

Ugaldeko festak abuztuan izaten ziren: soinua, bertsolariak, korrika-apustuak... Orduko bertsolariak aipatzen ditu: Santi Zabala, Jose Ramon Legorburu, Antonio Lizaso...

199. Gerrako oroitzapenak (LEZ-010/029)

Gerra garaia gogoan du: militar gorriak tiroka, etxera pistola baten bila etorri zirenekoa... Mugimendu handia egon zen. Beldurra pasa zuten, baina ez zuten etxetik alde egin. Irunen fronte gogorra egon zen.

200. 1.000 pezetako isuna (LEZ-010/031)

Ezagun bati 1.000 pezetako isuna jarri zieten. Ordaintzeko, nola moldatu ziren azaltzen du.

201. Une-ko eskola (LEZ-011/004)

Gaintxurizketa aldeko eta Lezoko baserrietako umeak joaten ziren Uneko eskolara (Gaintxurizketa eta Lezo artean zegoen). Maistra erdalduna zen baina ez zuten hala ere erdararik ikasi. "Qué kaskagorra eres" eta horrelakoak esaten omen zizkion Bernardari.

202. Lezoraino dotrinara (LEZ-011/005)

Lezoraino joan behar izaten zuten dotrinara (4 km). Egunero etxean ikasi egin behar, hurrengo egunean apaizak hartu egiten baitzien. Don Eusebio eta don Luis anaiak ziren Lezoko apaizak. Puzkerra botatzeagatik ezagun bati eman zion zaplaztekoa aipatzen du mariak.

203. Baserriko lanetan ume-umetatik (LEZ-011/007)

Baserrian umetatik egin dute lan. Mariak, nesketan zaharrena zenez, umeak zaindu, jatorduak, garbiketak, ura ekarri... denetik egin behar izaten zuen. Eta kanpoko lanak ere bai. Lanik handiena belarra omen zen.

204. Donostiara esnea saltzera (LEZ-011/009)

Donostiara joaten ziren esnea saltzera trenez. Parte Zaharrean zituzten bezeroak.

205. Maria Rezola eta Bianchi fabriketan lanean (LEZ-011/011)

Maria neskame ibilia da. Gero hogeita bat urterekin Rezola pintura fabrikari hasi zen Erreterian. Bost urte eginda gero itxi egin zuten. Gero Bianchi-n ibili zen urte askoan fabrikak kiebra jo arte. Transformadoreak, jostailuak eta beste gauza asko egiten zuten.

206. Beste etxe baten egiten zuten sagardoa (LEZ-011/014)

Ez zuten dolarerik etxean. Beste baserri batzuetan egiten zuten sagardoa. Sagasti handiak zituzten. Kizkiaz batu, zakutan sartu eta gurdian garraiatzen zuten dolarera.

207. Uraldeko erromeria (LEZ-011/019)

Errekalden (Uralden) egiten zen garai batean erromeria, baina gero Elortegira pasatu zuten. Maria oso dantzaria izan da baina Bernarda ez.

208. Erretereriako Alameda, festa-leku kutuna (LEZ-011/020)

Erretereriako Alameda izan da beren festa-leku kutuna. Baziren beste erromeria-leku batzuk ere, Irunen, Oiartzunen eta a abar, baina eurak jaiero

Alamedara. Musika bandak jotzen zuen eta jendetza biltzen zen. Mariak asko gozatzen zuen dantzan. Izan omen zen garai bat soldadua besterik ikusten ez zena Erreterriako Alamedan.

209. Zorua garbitzen eta lixiba jotzen (LEZ-011/024)

Arropa garbiketak eskuz denak. Gurasoak siestan zeuden bitartean sukaldeko zorua fregatzen jarduten zuten astean bitan. Ur garraioa eta arropa garbiketak nola egiten zituzten kontatzen dute.

210. Argindarra eta ekonomika beren denbora guztian (LEZ-011/026)

Argia beti izan dute, baina haize pixka bat ateratzen zenean joan egiten zen sarri eta kandlekin ibili behar egunetan. Ekonomika ezagutu dute beti. Hari esker izaten zuten ur beroa (6 bat litro).

211. Jendea baserrira ate-joka (LEZ-011/028)

Baserrira errepide ondoan zegoen, eta ate-joka izaten zituzten sarri istripua edo aberia izandako autodunak. Ur bila, informazio eske eta abar agertzen ziren edozein ordutan.

212. Etxeko sukaldea "trabajadore" eta soldaduz beteta (LEZ-011/031)

"Trabajadoreak" (presoak) ari ziren lanean hurbil, eta sukaldea beteta izaten zuten soldaduz eta haiek bisitatzera etorritako senidez. Ez zuten beldurrik pasatzen.

213. Goserik ez eta bala-zauririk ere ez (LEZ-011/033)

Ez zuten goserik pasa. Artoa nahikoa zuten, babarruna ere hartzen zuten, eta oiloak ere bazituzten. Zortea izan zuten, balak hurbil ibili arren ez zutelako etxeko inor jo.

214. Lotan zeuden bitartean pasatzen ziren Erregeak (LEZ-011/036)

Gabon-kantariak etortzen ziren eta soson bat ematen zitzaaien. Errege Egunean ez zitzaaien erregerik etortzen etxera. Gauetz lotan zeuden bitartean pasatzen zirela esaten zien aita.

215. Jaiotetxea bota diete, gauza tristea eta negargarria (LEZ-011/038)

Gaintxurizketa gaineko errotonda egiteko bota zuten beren baserrira. Gauza tristea eta negargarria bertan jaio eta ohitutako pertsonarentzat

216. Gaintxurizketak orain ez du Gaintxurizketa ematen (LEZ-011/040)

Bizi izandako lekua ikusten dutenean, ez diote tankerarik ematen baserrira non zegoen. Tristea. Inguruan botatako beste baserri eta tabernei buruzko komentarioak. Gaintxurizketak orain ez du Gaintxurizketa ematen.

217. Gustura bizi ziren baserrian (LEZ-011/043)

Ez ziren beren gogoz etorri Erreteriarra bizitzera. Gustura bizi ziren han. Jendea etengabe etortzen ate-joka zerbaiten eske. Telefonoa ukuiluan jarri behar izan zuten azkenean.

218. Belar-metak nola egin (LEZ-012/001)

Martzelinok azaltzen digu belar-metak nola egiten ziren, meta-ziria ongi egonkortzetik hasi eta belarra estaltzeko tolo edo olona puska jarri arte.

219. Belar-metak zein urte sasoitan (LEZ-012/002)

Maiatza erdialdean hasi eta uztaila bitarte egiten omen ziren lehen belar-mozketak, eta abuztu amaieran edo iraila hasieran bigarrenak. Bitarte horretan altxatzen omen zituzten belar-metak, baserriatik ahalik eta gertuen eta, aldi berean, ahalik eta toki babestuenen.

220. Belar-metak zertarako? (LEZ-012/003)

Neguan ganaduari zer jan eman ahal izateko egiten ziren belar-metak.

221. Udan belar lehorren beharrik ez (LEZ-012/004)

Neguan ez da belar berderik izaten, ganaduak ez du zer janik izaten, eta uda azkenean bildu eta lehortzen utzitako belarretik eman behar izaten zaio.

222. Erremolatxa eta arbia (LEZ-012/005)

Erremolatxa eta arbia egiten zen baita ere baserrietako baratzetan, neguan belar lehorrekin nahasi eta behie emateko.

223. Otea ganaduentzat (LEZ-012/006)

Martzelinok ezagutu du behie ote txikitua ematen zitzaien garaia. Otea txikitzeko erabiltzen zuten gailua bera ere etxe atarian omen dute egun.

224. Belarra etxeratzen (LEZ-012/008)

Belarra segarekin moztu ondoren, arrasteluarekin nola zabaltzen zuten kontatzen du Martzelinok, ongi lehor zedin. Ostera, belarrari buelta eman, guztiz lehortzen utzi, eta gurdian kargatu eta etxera ekartzen zuten azkenik.

225. Gurdiaren hainbat atal (LEZ-012/009)

Gurdiak ezpatak, hagak, taketak, sokak eta garroteak ba omen zituen, soroan belarra kargatu, gurdiari ongi lotu eta etxerainoko bidean ahalik eta belar gutxien galtzeko.

226. Baserriko lanik nekezena (LEZ-012/010)

Arrastelua eta sardea ziren belarretan erabiltzen ziren lan-tresnak. Sardearekin belarra hartu egiten zen, eta arrasteluarekin, aldiz, bildu. Segara ere, noski, belarra ebakitzeko zen. Martzelinoren esanetan, belarra ebaki beharra da baserriko lanik nekezena.

227. Garle garraio (LEZ-012/012)

Martzelinok kontatzen du sagardoa egiteko dolarera eramaten zutela sagarra, Zokuetara, hain zuzen ere. Behin sagardoa eginda, garlea gurdia igo eta

harekin joaten omen ziren dolarera, etxeratu beharreko sagardo edo pitarraren bila. Etxera iritsi eta hiru mila litroko kupelera pasako zuten pitarra (urarekin nahasitako sagardoa) eta seiehun litroko barrikara sagardoa. Garlea, beraz, likidoa batetik bestera gurdian garraiatzeko erabiltzen zen barrika luzea zen.

228. Kupela garbitzen (LEZ-012/013)

Kupelak, barrikak eta garlea urtero garbitu behar izaten omen ziren. Garlea garbitzeko, esate baterako, nahikoa omen zen ura sartu eta batera eta bestera eraginda. Urte osoan zehar sagardoa eduki duen kupela garbitzeko, barrenera sartu beharra zegoen, ordea, baina baita kontu handiz ibili behar ere.

229. Bostortza (LEZ-012/015)

Artasorotan lurra arrotzeko erabili ohi zuten bostortza, astoa aurretik tiraka jarrita, normalean. Lurra "goldetu", "aretu" eta "bostortu" esan izan diote Martzelinok-eta, hurrenez hurren, lurra goldearekin, arearekin edo bostortzarekin maneiatzeari.

230. Idi-apustuak (LEZ-012/017)

Ordu erdikoa izaten da idi-proba batean idi pare bakoitzak egin behar izaten duen lana. Martzelinok ederki asko azaltzen du zertan datzan dema klase hori.

231. Zaldi-proba (LEZ-012/018)

Idi-probak egin ohi diren gisa bertsuan egiten dira zaldi-probak ere. Bi proba horien artean alde nabarmena dago, ordea: zaldirik ez da eztenarekin zulatzen ahal, idiak baino meheago baitu azala. Bostehun kiloren bueltako harria ibili behar izaten du zaldiak.

232. Gaur egungo apustuak (LEZ-012/019)

Bizkaia aldean jokatzeko omen da gaur egun apustu gehien Martzelinok dioenez, idi-proba eta zaldi-probei dagokienez, behintzat.

233. Idiak demarako prestatzen (LEZ-012/020)

Demari begira, idiak egarriak eta goseak eramaten direla dio Martzelinok. Entrenatu ere egin behar izaten omen dira, harriari tiraka, astean hiru edo lau aldiz.

234. Idiaren partez traktorea (LEZ-012/021)

Martzelinok dio, idia lanerako aberea izanagatik ere, egun, aposturako baliatu ohi dela gehien. Baserriko lanak egiteko traktorea erabiltzen omen da. Egun, baserri bakarrak omen ditu idiak lanerako, Lezon.

235. Baserri mundua miniaturan (LEZ-012/023)

Baserriko tresnak eta halakoak miniaturan egiteko zaletasuna du Martzelinok.

236. Belar-meta miniaturak egiten (LEZ-012/024)

Belar-meta miniaturak nola egiten dituen kontatzen du Martzelinok.

237. San Tomasetako feria (LEZ-012/026)

San Tomas eguneko Lezoko feriara urte askotan jaitsi omen dira Martzelino eta emaztea, etxeko produktuak eta miniaturak saltzera.

238. Egungo Lezoko San Tomasetako feriaren hastapenak (LEZ-012/027)

Egungo Lezoko San Tomasetako feria AEKko jendeak abiatu omen zuen, Martzelino zinegotzi zen garaian, gutxi asko. Gogoan du garai hura, eta feriaren hastapenak nola izan ziren kontatzen du.

239. San Tomasetako feriako untxiak (LEZ-012/028)

Martzelino izan omen zen Lezoko San Tomasetako feriara animaliak eramaten lehenengoa.

240. Garai bateko "eskela" ahoz ahoko abisua izaten zen (LEZ-012/030)

Auzoan inor hiltzen bazen abisu ematea izaten omen zen lehendabiziko zeregina. Gorputzaren beila egitera jende asko hurbiltzen omen zen hildakoaren etxera, eta izaten omen zen zer jana eta zer edana, gauen zehar. Martzelinok dio, pattarra tarteko, umoreak gain har ziezaiokeela minari.

241. Hilkutxa bizkarrean (LEZ-012/031)

Hileta elizkizunetara hartuta eramaten omen zen. Martzelinori frankotan tokatu zaio ibiltzea; bai eta Hondarribiko parrokiaraino oinez joatea ere.

242. Elizatik kanposantura (LEZ-012/032)

Elizatik kanposantura joateko, berriz ere bizkarreratu behar izaten zuten hilkutxa gorpua elizaraino eramandako "jasotzaile" berek. Martzelinok dioenez, ez zen beti lan samurra izaten, baina lan gogorretara ohituta omen zeuden orduan.

243. Alabak etxean bertan jaioak (LEZ-012/033)

Martzelinoren emazteak etxean izan zituen bi alabak, eta bi aldietan Lezoko medikua etorri zitzaion, erditzen laguntzera. Martzelinok dio garai hartan haur gehienak etxean jaiotzen zirela.

244. Bataio ospakizuna (LEZ-012/034)

Jaio eta aste horretan berean bataiatu ohi ziren haurrak; ahalik eta lasterren. Normalean apaizak bataiatzen zuen haurra, elizan. Baina jaioberria minez edo eri bazen, etxean bertan edozeinek bataia omen zezakeen. Dena den, haurrak elizan bataiatzea izaten zen ohikoena, eta baita gertuko familiako kideen arteko ospakizuna egitea ere, ama eta aita pontekoak barne, bistan da.

245. Atso-lorra (LEZ-012/035)

Martzelinok dion gisa, erditutako emakumeak pixka bat bizkortzerako jaso ohi zuen emakume lagunen bisitari esaten zitzaion atso-lorra. Ohitura omen zen atso-lorretan jaioberriarentzat edo haren amarentzat opariren bat eramatea.

246. Bideak auzolanean konpontzen (LEZ-012/038)

Baserri eremuetako bideak auzolanean konpondu ohi zituzten, herriko Udalak ez baitzuen halakoetarako diru-laguntzarik ematen.

247. Lezo eta Hondarribia (LEZ-012/039)

Zenbait kontutarako sobera izaten ziren herri mugak. Martzelinok dionez, auzolanean aritzeko Hondarribiko baserritar zenbait gehitu ohi zitzaizkien, eta berdin izaten omen zen heriotzen baten abisu eman behar zenetan ere: herrikideak ez izanagatik ere, gertu bizi ziren guztiak deitu ohi ziren.

248. Belarra ebakitzen elkarlanean (LEZ-012/040)

Martzelinoren esanetan, baserriko lan gutxi izaten ziren auzoekin elkarlanean egiten zirenak, auzoari zegozkionak alde batera utzita, bistan da. Hala ere, belarra ebakitzeko garaian ohikoa omen zen laguntza eskatu eta ematea.

249. Enkarguz jarritako bertsoak (LEZ-012/043)

Lezoko herriko aldizkaritik eta beste hainbat ekitaldi medio bertsoak jartzeko eskatu izan diote Martzelinori; bai eta berak zintzo asko jarri ere, eskatutako guztiak. Barrenak hala eskatuta ere borondatez jarriak ere baditu batzuk, esaterako, euren familiaren desgraziei jarritakoak.

250. Lezoko Literatur Lehiaketan lehen saria (LEZ-012/045)

Familiako desgraziei buruzko bertso sorta idatzia zuen Martzelinok Lezoko Literatur Lehiaketa antolatzerako. Herritar batek animatuta aurkeztu omen zituen bi sorta, eta aipatu familiako ezbeharrei jarritakoengatik eman zioten lehendabiziko saria.

251. Martzelinoren lehen bertsoa (LEZ-012/047)

Martzelinok anaiarekin erdibana kantatu omen zuen gogoan duen lehen bertsoa, oparitutako bi untxi gai hartuta. Kontatzen duenez, anaiak apailatutako bertso bati bukaera gehitzea izan zen bere zeregin guztia.

252. Bertsolariak entzutea zen festarik handiena guretzat (LEZ-012/048)

Martzelino gaztea zela, Basarri eta Uztapide ziren Lezo alde horretan gehien kantatzen zuten bertsolariak.

253. Bertsopaperak salgai (LEZ-012/049)

Martzelinok dio hainbat ibiltzen zela enkarguz bertsoak paperean jarri eta haiek saltzen. Berak beti erosten zituen, gero etxera joan eta buruan hartzeko guztiak. Arrebek ere zaletasun bera omen zuten.

254. Bat bateko bertsoa entzun eta buruan hartzea zaila da (LEZ-012/051)

Bat bateko bertsoa entzun eta buruan hartzen zergatik den zaila azaltzen du Martzelinok. Bertso idatziak ikasten, errazagoa da, ordea. Egun oso bat geratu gabe jarduteko adina bertso omen daki buruz Martzelinok.

255. 'Txirrita' eta 'Basarri'ren bertsoak (LEZ-012/052)

Bertso sortarik gustukoenengatik galdetu eta 'Txirrita'ren "Nagusia eta maizterra" aipatzen du lehenik. 'Basarri'k arrantzaleei jarritako bost bertsoetako sorta kategorikotzat dauka. Azkenik, 'Basarri'ren "Aiton baten esanak" sortako sei bertsoetatik bost kantatzen ditu. Guztiak, sortako bigarrena ezik.

256. Atxa zerrategian lanean (LEZ-013/002)

14 urterekin hasi zen lanean kaian zegoen Atxa zerrategian; lantegiaren administrazioaz arduratzen zen. Hilean 15 duro irabazten zituen. Bizikletarekin hara eta hona ibiltzen zen ordainagiriak kobratzen.

257. Zerrategiko lana eta egurra (LEZ-013/003)

Atxa zerrategian kanpoko egurra ekartzen zuten itsasontziz, eta egurra manipulaturakoan saldu egiten zuten. Guztira ia 200 langilek egiten zuten lan han.

258. Egur estimatuenak (LEZ-013/004)

Lehen egur estimatuenak zein ziren aipatzen du.

259. Kaian igerian eta saltoka (LEZ-013/005)

Lehen, kaian lohia zegoen eta arrain asko zegoen. Lehen kaian ikasten zuten igerian: tranpolin batzuk egon ohi ziren han, udan Kontxako hondartzara eramaten zituztenak, eta umeak han aritzen ziren jolasten. Leku batzuk arriskutsuak ziren; eta ume batzuk, istripua izanda, hil egin ziren.

260. Administrazioa eramateko tresnak (LEZ-013/006)

Atxa zerrategian administrazio-lanak eramaten zituen Jose Inaxiok. Garai hartan erabiltzen zituen tresnak aipatzen ditu: kalkulagailuak, idazmakinak... Ordenagailua sartu zenean, erretiroa hartu zuen.

261. Kontabilitatea eta laneko ardurak (LEZ-013/007)

Kontabilitatea nola eramaten zuten azaltzen du. Kontuak ondo ateratzen ziren. Zer ardura izan zituen azaltzen du.

262. Hanketako paralisia (LEZ-013/010)

8-9 urte zituela, hanketan paralisi moduko bat izan zuten arrebak eta berak. Halako kasu gehiago ere egon ziren inguruan. Arrebak eta berak gaitza zutela nola konturatu ziren aipatzen du. Hankarekin ariketak egiten zituen.

263. Gerrako oroitzapenak (LEZ-013/014)

Jose Inaxiok sei urte zituen gerra hasi zenean. Lezon bonba bota, eta kale-garbitzailea hil zutenekoa gogoan du: tiroak, ezkutatu beharra, anaia soldadu, denak sakabanatuta, hildakoak... Gerrak aldaketa handia ekarri zuen, baina nazionalak sartu zirenean, bere onera itzuli zen egoera.

264. "Langileen Batailoia" Lezon (LEZ-013/016)

Lezon egon zen "Langileen Batailoia", Jaizkibelgo bidea egiten. Soldaduek festak egiten zituzten batzuetan. Lezoko emakume bat batailoiko langileetako batekin ezkondu zen.

265. "Isil-isilik aurkitutzen da..." kanta (LEZ-013/020)

"Isil-isilik aurkitutzen da..." kanta abesten du.

266. Txistua jotzeagatik sortutako iskanbila (LEZ-013/031)

Behin Irunen topoa martxan jarri zen berak txistua jo zuelako. Iskanbila sortu zen zen orduan.

267. Nahiz eta kalean bizi, bazuten baratzea (LEZ-014/002)

Nahiz eta kalean bizi, txekorrak hazten zituzten sotoan. Etxetik ez oso urrun, baratzea ere bazuten. Etxerako izaten ziren bertatik ateratako produktuak.

268. Agustina Aierdik erakutsi zion josten (LEZ-014/005)

Mañoli ez zen Roxarenera (josten zekien bizilaguna) bere ahizpa bezainbeste joaten. 16 urte ingururekin Agustina Aierdik erakutsi zion josten. Kanporako josten aritu izan zen urte askoan. Ahizpak erosi zion Erreterian bere lehen josteko makina.

269. Arropak josteko prozesua (LEZ-014/007)

Behin neurriak hartuta, oihala markatzen zuen "marka-harriekin". Moztu, albaindu eta bezeroari deitzen zion proba zezan. Makinaz josten zen ondoren. Lana amaituta, zintzo ordaintzen zuten bezeroek.

270. Emaztegaientzako soinekoak (LEZ-014/008)

Emaztegaientzako soineko asko josi izan ditu. Bezeroak esaten zion nolakoa nahi zuen. Oihalak ere bezeroek ekartzen zizkioten.

271. "Poxpolinak" kanta (LEZ-014/010)

Hamar urte ingururekin poxpolina izan zen. Batzokira joan ohi ziren dantzan egiten ikastera. Poxpolinen kanta abesten du.

272. Lezoko eskola (LEZ-014/011)

Lezoko eskolan ikasi zuen. Irakasleen izenak dakartza gogora. Nahiz eta erdaraz ikasi, apaizarekin ikasten zuten dotrina euskaraz izaten zen.

273. Pysbe, Lino eta Olibeten lan egindakoa (LEZ-014/012)

Eskolak hamalau urterekin amaitu eta neskame joan zen Donostiara. Handik etorri eta, ezkondu aurretik, hainbat lekutan egin zuen lan: Donibaneko Pysbe-
n , Erreterriako Linon eta baita Olibet gailetan-fabrikan ere.

274. "Lezoko herria" ereserkia (LEZ-014/025)

Tomas Garbizuk idatzitako "Lezoko herria" ereserkia abesten du.

275. "Han urrun etxe poxpola" kanta (LEZ-014/027)

Kantaren zati bat abesten du Mañolik.

276. "Aita San Pedrokoa" kanta (LEZ-014/030)

San Pedroko arraunlariak animatzeko kanta.

277. 14 urterekin Jaizkibelera basomutil (LEZ-015/002)

14 urterekin Jaizkibelera joan zen basomutil; hiru urtez jardun zuen. Goizero Guadalupera igotzen zen oinez eta handik taldetan banatzen ziren mendian. Beroa, hotza, euria... denetik pasatu behar izaten zuten.

278. Auzo-eskolan euskaraz egin zituen ikasketak (LEZ-015/003)

Une-ko eskolara (Gaintzurizketa bidean) joan zen 11 urtera arte. Lau erregelak ondo ikasi zituen. Euskaraz erakusten zien maistrak. Gero gerra etorri zen eta handik aurrera erdaraz eskola.

279. Gerrako frontea etxean (LEZ-015/005)

Gerra hasi eta hilabetera, etxe ondora heldu zitzairen gerra. Erreketeak zituzten etxean eta errepublikanoak aurreko mendian, Jaizkibelen. Zortzi egunez iraun zuen egoera horrek. Arnasa hartu zuten alde egin zutenean. Granadek lehertzean askatutako berunezko kanikak biltzen jarduten zuten mutil koskorrek.

280. Izeba Juli balak izterrean jo (LEZ-015/007)

Izeba Juli balkoira irten zen eskegitako arropa jasotzera, eta bala batek jo zuen izterrean.

281. Gerrako frontea aurreraka, abiada handiz (LEZ-015/011)

Gerra hasieran, borroka handiak izan ziren Irun inguruan, San Martzial aldean. Geroago, Lezo aldean geratu zen frontea zortzi egunez. Ondoren, Bizkai aldera urrundu zen gerra.

282. Komunioa urtebete aurreratu etxean lanean geratzeko (LEZ-015/013)

Gerraostean gutxi ibili zen eskolan. Aitak komunioa aurreratzeko eskatu zion baserrian lan egin ahal izateko, eta apaizak onartu egin zuen dotrina ondo ikasteko baldintzarekin. Ikasi ere bai, "sobresaliente" atera baitzuen. Apaiz egiteko proposamena egin zion abadeak baina etxean ez zuten nahi izan.

283. "Vuelta a Francia" Errekalden (LEZ-015/018)

Errekalde auzoan, festa handiak antolatzen ziren. "Vuelta a Francia" eta dena egiten zen. Txirrindularitza-itzulia egiten zuten mutilek, mediku, erizain eta guzti. "Joxe Letxero" zen antolatzaile nagusia.

284. Bizikleta erosi 200 pezeta ordainduta (LEZ-015/020)

17 urteko Errenteriako Alcoholera fabrian hasi zen. Bizikleta erosi zuen 200 pezeta ordainduta. Lezon hiru edo lau kotxe izango ziren garai hartan.

285. Guadalupen soldadu zegoela ezagutu emaztea (LEZ-015/024)

Soldadutzan, Donostiako Gobernu Militararrera destinatu zuten baina Guadalupera joateko aukera izan eta berehala apuntatu zen. Komandante baten asistente egon zen. Han ezagutu zuen emaztea izango zena, Guadalupeko festetan.

286. Ezkontza-elizkizuneko loreak agindu emakume batek (LEZ-015/025)

Guadalupeko apaizari mandatuak egiten zizkion Martxielek, eta haren zerbitzariak agindu zion Martxieli, lizentziatzen zenean, Guadalupen ezkontzen bazen, berak ipiniko zituela loreak. Azkenik, Martxiel ez zen Guadalupen ezkondu.

287. Osaba Martxiel kartzelara Franco zetorren bakoitzean (LEZ-015/027)

Osaba Martxiel kartzelara eraman ohi zuten Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean. Horregatik, Tarragonara joan zen bizitzera. Errepublikanoa zen. Gizon ona eta dotorea ei zen.

288. Bordatxoko sagardotegian gehiegitxo edan (LEZ-015/030)

Bordatxoko sagardotegian, jende asko biltzen zen meriendatzeko eta tokan jokatzeko, besteak beste. Gehiegi edan zuen behin. Jaikitzen, bizikleta gainean jartzen eta etxera iristen izandako komeriak kontatzen ditu.

289. Sorgina zelakoan, zakur beltza (LEZ-015/035)

Sorginen ipuinak kontatu ohi zituzten bere gurasoek. Halako baserriko andrea sorgina zela, eta horrelakoak. Gero, argindarra sortu zenean galdu zirela sorginak. Behin, etxera bidean zerbaitekin egin zuen topo: sorgina zela pentsatu zuen lehendabizi, baina zakur beltz bat zen.

290. Baserriak etorkizunik ez (LEZ-015/038)

Lehen zelaiak ziren lekuetan orain lantegiak, etxeak eta bideak daude. Baserriari ez dio etorkizunik ikusten. Lan asko eta ezer ere ez. Lehenago gutxienez defenditzen ziren.

291. Eskolatik irten eta baserriko lanak egitera (LEZ-016/003)

Hamar urte betetzerako Herrikoetxe baserrira etorri ziren bizitzera, amaren jaiotetxera. Eskolara joan eta gero baserrian lagundu behar izaten zuen. Artajorran ari, behiei jaten eman...

292. Artoa eta babarruna (LEZ-016/004)

Manuel haurra zela, artoa eta babarruna ezinbestekoak ziren. Artoa etxerako izaten zen. Hura irindu, eta taloak egiteko erabiltzen zuten. Babarruna ere etxerako izaten zen, baina zerbait sobratuz gero, saldu egiten zuten. Artoa Oiartzungo Txalaka errota ehotzen zuten.

293. Eskolara Erreteriarra (LEZ-016/005)

Erreterian eskolatu zen Manuel. Partikular batean lehenik, eta fraideekin gero. Baserritik Erreteriarra oinez heltzeko ordu erdi pasatxo behar izaten zuen. Hamalau urte bete arte ibili zen eskolan.

294. Ikasketen garrantzia (LEZ-016/006)

Gurasoek garrantzia ematen zieten ikasketei. Eskolara garaiz joan, handik zuzenean etorri, etxeko lanak egin eta ondoren gurasoei lagundu; horixe zen Manuelen eginbeharren ordena.

295. Eskola utzi eta baserrian lanean (LEZ-016/007)

Hamalau urterekin eskola utzi eta baserrian hasi zen lanean. Belarra ebaki ezik, baserriko gainontzeko lan guztiak egiten zituela esan daiteke, aita eta anaiekin batera.

296. Jaiki eta ukuilura (LEZ-016/008)

Goizeko seiak inguru jaikitzen ziren goizero. Behin behiei jaten eman eta ukuiluko lanak egindakoan, eguneko lehendabiziko otordua egiten zuten: kafesnea ogi edo taloarekin. Goizeko hamarrak aldera, gosalduta egiten zuten. Gehienez, haragia edo arraina.

297. Eguerdiko lanak (LEZ-016/009)

Eguerdi aldera eteten zituzten etxe kanpoko lanak eta ukuilura itzuli ohi ziren behiei berriz ere jaten ematera. Astean bitan ateratzen zituzten behien azpiak, baina goizeko lehen lana izaten zen hori, hala egitea tokatzen zenetan, behintzat. Ordu bata aldera bazkaltzera bildu ohi ziren.

298. Eguerditako otorduak (LEZ-016/010)

Eltzekoa izaten zen gehien-gehienetan Herrikoetxeko eguerdiko otorduetan, eta ondoren, arraina haragia baino sarriagotan. Bazkalostean kuluxka egiten zuten beti, ordu laurden edo ordu erdikoa.

299. Artoa eta babarruna (LEZ-016/011)

Goizeko martxaren arabera izan ohi zuten arratsaldeko lana. Esaterako, goizez soroan gorotza zabaltzen bazuten, arratsaldean lurra jiratzera joango ziren. Artoa eta babarruna erein zein jorratzeari buruzko azalpenak ematen ditu Manuelek.

300. Alperra eta area (LEZ-016/012)

Alper-harriari "martimollua" ere esaten omen zioten. Bi are klase erabili ohi zituzten lurra maneatzeko. Are txikia goldea pasa berritan lur gaina goxatzeko erabiltzen omen zen. Are handia, aldiz, lurra arrotzeko erabiltzen zen.

301. Artazuriketan (LEZ-016/013)

Kanpoan lanean aritzeko hotz zen egunak aproposak izaten ziren artazuriketarako. Ganbaran egin ohi zuten lan hori, aurrez bildutako artoa bertan edukitzen baitzen.

302. Kantu gutxi baina kontu asko (LEZ-016/014)

Aitak ez omen zuen kanturako edo bertsotarako joerarik, baina mintzatzea gustuko zuen, eta hitz lauz ematen zien seme-alabei hainbat konturen berri.

303. Erregeen erregaloak (LEZ-016/017)

Ospatzen zituzten Gabon-gaua, Eguberri-eguna eta Urtezahar-gaua, baina erregalo kontutarako, errege eguna baliatzen zuten.

304. Kantari egun eta gau (LEZ-016/018)

Abenduaren 24ean, Gabon egunean, jende asko ibiltzen zen etxez etxe eta baserriz baseri kantari. Goizez gaztetxoek azaltzen omen ziren, eta gauez, etxean familiarekin afaldu ostean, helduak. 'Dios te salbe' kantatzeko ohitura izaten zen, eta dirua ematen zitzaien.

305. Bordatxoko sagardotegia (LEZ-016/019)

Manuel lagunekin ateratzen hasi zenean, Bordatxoko sagardotegira joateko ohitura hartu zuten. Igande arratsaldetan joaten omen ziren, eta jende asko biltzen omen zen bertan. Sagardoa edaten zen aldiro ordaintzen zen, eta ohitura omen zen gertuan zegoen lagun taldea gonbidatzeko. Bertan eskaintzen ziren jakien artean bakailaoa omen zen nagusi, baina izaten omen zen besterik ere.

306. Sagardoak egindako bertsolariak (LEZ-016/020)

Berezko bertsolari gutxi sumatu izan du Manuelek Bordatxoko sagardotegian; sagardoak egindako bertsolariak, aldiz, gehiago. Sagardotegian ez omen zen bizilagunei traba egiteko edo "serenoa" azaltzeko arriskurik.

307. Pasai Donibane herri kantaria (LEZ-016/021)

Lezo inguruko herririk kantariena Pasai Donibane zen, Manuelen esanetan. Oso ongi kantatzen omen zuten, orokorrean. Eta tabernaren batean hasiz gero, jendeak arreta jartzen omen zien.

308. Santa Krutzak eta Pazkoak (LEZ-016/022)

Santa Krutzak eta Pazkoak izaten dira Lezoko jai handiak. Gogoan du baserriko tresnak saltzen zituen gizon bat, eta baita orduko bertso saioak ere. Garaiko bertsolarien artetik 'Uztapide' bereizten du Manuelek.

309. 'Basarri', 'Uztapide' eta 'Xalbador' (LEZ-016/023)

Garaiko bertsolarien artetik 'Uztapide' bereizten du Manuelek. 'Xalbador'ri buruz galdetu eta haren hitza ulertzen kosta egiten zitzaiola esaten du. Hala ere, ziur dago bertsolari ona izango zela hura ere, Euskal Herriko Txapelketan txapela jantzi zuenerako.

310. 'Mattin Treku' bertsolaria (LEZ-016/024)

'Mattin Treku' Ahetzeko bertsolariarengatik galdetu eta bertsotan xelebre hutsa zela dio. Haren pasadizo bat kontatzen du Manuelek, garaiko kontrabandoarekin lotura duena.

311. Lezotik Donostiara hanka hutsik (LEZ-016/025)

Manuelek ez du gogoan hanka hutsik ibili izana. Espartinekin ibiltzen ziren gehienez. Hala ere, amak kontatuta daki, haren aurrekoak Lezoko Alarguntza baserritik Donostiaraino hanka hutsik joanak izan zirela, xistera borobil handi bat buru gainean hartuta.

312. Bide txarrak Lezon (LEZ-016/026)

Manuelek dio Lezon oso bide txarrak izan direla orain ez asko arte.

313. Oinetakoak (LEZ-016/027)

Umetan, euria ari bazuen, abarkak jantziko zituzten; ateri bazen, apretak; eta jai egunetan, zapatak.

314. Hogei urterekin arotz lanetan hasi (LEZ-016/028)

Hogei urterekin arotz lanetan hasi zen Manuel, Pasai Donibanen. Goizean goiz behiak jetzi, lanera joan, ilunabarrean etxeratu eta baserriko lanei berriro ekin. Hori izan zen Manuelen egunerokoa, urte askoz.

315. Clemente Goldaracena ontziola (LEZ-016/029)

Ontzigintzarako arotz lanak egin izan ditu beti Manuelek, Clemente Goldaracena ontziolan. Zortzi urte inguru eman omen zituzten barku berriak egiten, eta ondoren, gehiago aritu omen ziren konponketak egiten.

316. Itsasontziaren egitura (LEZ-016/031)

Ontziolako nagusiak pinu-egurrarekin eta Eskalan egindako maketa bati begira egiten ziren barkuaren armazoi edo egiturak.

317. Itsasontziaren egurra egosi (LEZ-016/032)

Itsasontziaren egituraren zenbait zati egiteko, egurrari kurba edo forma jakin bat eman behar izaten zitzaion. Horretarako, egurra uretan egosi egin behar izaten zen.

318. Itsasontziaren egurra josi (LEZ-016/033)

Itsasontziaren egituraren zati kurbatuenak egiteko, egositako egurra zegokion toki eta forman josi behar izaten zen. Lan hori lauki formako iltzeekin egiten ikusi izan du beti Manuelek.

319. Itsasontziaren antolaketa (LEZ-016/034)

Behin barkuaren egitura eginda, "entablazioa" egitea tokatu ohi zen, eta gero, barne antolaketa guztia.

320. Itsasontzietako komunak (LEZ-016/035)

Manuelek komun eta guzti ezagutu ditu arrantza-ontzi guztiak, baina jakin badaki, hainbat arrantzalek esanda, lehen ez zela halakorik izaten.

321. Arrantza-ontzien kolorea (LEZ-016/037)

Lehenik olioztatu egiten zen pintatu beharreko azalera. Flotazio marritik behera kolore gorritzat ilun batez pintatzen ziren barku guztiak, eta handik gora, armadorearen aginduen arabera kolorea erabiltzen zen. Hondarribirako, esaterako, sarritan pintatu izan zituzten berdez edo urdinez. Oriorako, aldiz, gorritzat pintatzen ziren asko. Zuriak eta beltzak ere ikusi izan ditu Manuelek, baina oso gutxitan.

322. Itsasontzien uretaratzea (LEZ-016/039)

Egurrez egindako ontzia baldin bazen, motorra jarri baino lehen uretaratzen zen. Urik sartzen zitzaion frogatzen zen orduan, baina normalean ez omen zen arazorik izaten.

323. Eskuko daratuluak eta zulatzeako makina (LEZ-016/040)

Zerra, marrusketa ("zepilloa"), zerrotea eta eskuko daratulua ziren gehien erabiltzen ziren lan-tresnak. Hala ere, Manuel lanean hasi zenerako, eskuko daratuluak ("tatuluak") zulatzeako makinak ordezkatu zituen.

324. Bakailaoa arrantzatzeraz txapazko ontzian (LEZ-016/041)

Manuel ontzian lanean aritu zen garaian, txapazko ontziak joaten ziren bakailaotara. Egurrezkoak antxoatara eta atunetara ateratzen ziren, besteak beste.

325. Lanik zailena (LEZ-016/043)

Ontzigitzan lan pisutsuak izaten ziren lanik zailenak.

326. Konponketak (LEZ-016/044)

Ontzi berri gehiago egiteko demandarik ez zen garaia iritsi zenean beste lan batzuetan hasi behar izan zuten ontzian. Esate baterako, konponketak eta txapazko ontzien osagaiak egiten hasi ziren.

327. Arraina ongarritarako (LEZ-016/049)

Manuelek dio garai batean asko arrantzatzen zela, eta flota handia zegoela Pasaian eta inguruetan, eta saldu ezin zen arrain guztia baserritarrek barreiatzen zutela zelaian, ongarri moduan. Berrogeita hamar urteren bueltan, egoera erabat aldatu zen.

328. Baserriko esnea eta kolesterola (LEZ-016/050)

Lehen esne asko saltzen zuten kalera Manuelek-eta. Garai batetik hona, ordea, jendeak baserriko esnari uko egin ziola dio Manuelek. Eta bera harritu egiten da orain, baserriko esnea saltzen duten makinak bogan daudelako, herriko plazetan.

329. Lezon kaleko etxeek abereak eta baratzeak zituzten (LEZ-017/002)

Etxean behi bat izaten zuten, nahiz eta kaleko etxean bizi. Garai hartan arrunta zen kaleko etxeek abereak eta baratzea izatea.

330. Lezoren hirigintza-egitura lehen (LEZ-017/004)

Lezoko kale nagusiaren ingurua nola aldatu den deskribatzen du. Kaia ingurua lehen oso desberdina zen.

331. Mutilak eta neskak aparte bainatzen (LEZ-017/005)

Ohitura handia zuten ur-bazterrean ibiltzeko. Urak ekartzen zuen txerri-belarra bildu eta jateko eramaten zuten etxera. Ur-bazter hartan ikasi zuten igeri egiten; adinaren arabera leku batean edo bestean egoten ziren. Orduko bainujantziak nolakoak ziren deskribatzen du. Neskak ez ziren bainatzen mutilekin batera; bai, ordea, Errotetako hondartza txikian.

332. Lezoko itsasbazterrean arrantzan (LEZ-017/006)

Itsasbazterrean arrantza egiten zuten txalupa zutenek. Zer aparailu erabiltzen zituzten haiek aipatzen du.

333. Fabrikak ura kutsatzen hasi zirenekoa (LEZ-017/007)

8 urte zituenerako, Lezo inguruko fabrikak ura kutsatzen hasi ziren. Horrek ondorio gogorrak ekarri zituen bai pertsona, bai animalia, bai eta lurrarentzat ere.

334. Lezoko eskolan, maisu gaiztoak (LEZ-017/009)

Lezoko eskolan 6-7 urte zituela hasi zen. Eskolan tratatu txarra ematen zieten. Izenarengatik adarra jo zion maisuak.

335. Erreteriarra ikastera osaba baten bidez (LEZ-017/010)

8 urte zituela Erreteriarra hasi zen ikasten Aierbe anai-arreben eskolan. 12 urterekin utzi zion eskolara joateari. Erreteriarra bizi zen osaba batek eraman zuen Erreteriarra ikastera. Eskola hura non zegoen azaltzen du.

336. "Lorito", Lezoko maisu gaiztoa (LEZ-017/011)

Erreteriarra Lezon baino hobeto egon zen. Lezoko maisuari "Lorito" deitzen zioten eta gaiztoa zen, kablearekin jotzen zien umeei. Dena gaztelaniaz ematen zuten eskola hartan.

337. Eskolako ikasgaiak eta komeriak (LEZ-017/012)

Erreteriarra zegoela, analisi gramatikala egiteko eskatzen zieten, baina berak gramatikari ez zion ez hanka ez buru ikusten. "Geometria" eta "historia de España" gustatzen zitzairen gehien. Entziklopedia erabiltzen zuten ikasteko. Azterketarik ez zuten izaten. Buruz ikasi behar izaten zuten dena.

338. Jolastu bai, baina etxetik gertu (LEZ-017/014)

Gurasoek ez ziren erraz uzten kalean bueltara ibiltzen. Zer jolasetan aritzen ziren azaltzen du.

339. Eskulanak egiteko zaletasuna (LEZ-017/016)

Bere gisara ibiltzea gustatzen zitzaion. Behiak larrean zeuden bitartean, labanarekin eta egur puska bigunekin eskulanak egiten zituen: txalupa txikiak, belaontziak... Akuarelarekin margotzen zituen eskulanak. Belaontziak egitea konplikatuagoa zen, baina liburu zaharrak begiratuta jakiten zuen nola egin. Donostiara aquariumera joaten zen ontziak ikustera 18 urte zituela.

340. Donostiara joatea Madrilera joatearen pareko (LEZ-017/017)

Donostiara tranbian joaten zen, baina beti bateren batekin, 16 urte ingururekin oraindik ez zioten Donostiara bakarrik joaten uzten eta. 18-20 urtera arte gauza handia zen Donostiara joatea.

341. Aita-semeen lanak (LEZ-017/019)

Aitak paper-fabrikan egiten zuen lan administrazio-lanetan. Anaiek non ikasi eta non egin zuten lan azaltzen du. 25 urte zituela, soldadutzatik itzulitakoan, burdina-tailer batean hasi zen bera lanean; azkenean bulegoko lanetan aritu zen.

342. Irakurtzeko zaletasun handia (LEZ-017/020)

Gurasoek ikasketei garrantzia ematen zioten. Lana egiteaz gain, irakurtzea asko gustatzen zitzaion Mikeli. Buruan bonbilla jartzen zuen irakurtzeko. Itsasgizon ospetsuen bidaiei buruzko liburuak oso gogoko zituen. Etxean izaten zituzten liburuak, osabak behar izaten baitzituen koadroak margotzeko dokumentatzeko.

343. Elias Salaberria osaba pintorearen izaera eta ohiturak (LEZ-017/021)

Osaba Elias Salaberria pintorea zuen eta ezagutu zuen: Madrilen bizi zen hura eta udan etortzen zen Lezora. Osabak paisaiak non pintatzen zituen aipatzen du. Osabaren izaera.

344. Osabak gerran sufritu eta gerora zigorra koadrotan ordaindu (LEZ-017/023)

Osabak gerra garaian sufritu egin zuen: Alemanian izana, ihesi ibilitakoa... Agintari ezagunak ezagutzen zituen eta haiei esker libratu zen kartzelatik; baina koadro jakin batzuk pintatzera behartu zuten horren trukean.

345. Elias Salaberriaren ihesa gerra garaian (LEZ-017/024)

Gerra garaian, osaba Madrildik Bartzelonara, Valentziara, Italiara eta Alemaniara joan zen ihesi. Alemanian zegoela, II. Mundu Gerra hasi zen. Gregorio Marañonek abisatu zion Espainian egoera hobeto zegoela eta bazeukala itzultzea. Ihesean zebilela, dirua non ezkutatzen zuen azaltzen du.

346. Osaba Donostiatik Madrilera eraman zuten pintatzeko gaitasuna ikusi baitzioten (LEZ-017/025)

Osabak oso ondo egiten zuen euskaraz. Madrilera eraman zuten 14 urte inguru zituela eta han hazi zen pertsonaia ezagunen inguruan. Lehenago Donostian ibili zen ikasten eta nabarmendu egin zen bere pintatzeko gaitasunarengatik.

347. Aitona ere eskulanetan fina (LEZ-017/028)

Aitona doi-doi ezagutu zuen eta eskulanetan fina zen. Baserrian egiten zuen lan, baina konponketa-lanetan ere aritzen zen.

348. Sagardoa egiten aspertuta (LEZ-017/029)

Lehen sagardotegi ugari zeuden inguruan eta sagardo asko egiten zen. Sagarrak biltzen eta garbitzen lan handia egoten zen, aspertzearainokoa. Sagarrak biltzeko tresnak aipatzen ditu. Etxerako egiten zuten sagardoa lehenengo, eta sobratzen zena saltzeko izaten zen.

349. Otordu guztietan pitarra edateko ohitura (LEZ-017/030)

Otordu guztietan edaten zuten pitarra (sagardoa urarekin nahastuta). Pitarra sagardo hutsa baino hobea izaten zen, nahi adina edan baitzezaketen batere mozkortu gabe.

350. Lezoko kaleko sagardotegiak pixkanaka galtzen (LEZ-017/031)

Kalean sagardotegiak bazeuden, baina berak ohitura gutxi zuen haietara joateko. Gerora, Lezoko kaleko sagardotegiak galtzen joan ziren. Orduko sagardotegiak aipatzen ditu.

351. Sagardotegietako giroa eta gerraosteko gosea (LEZ-017/032)

Sagardotegietako giroaz hitz egiten du: batak bestea gonbidatzen zuen tragoa hartzera, berriketan egoten ziren, kanpotik eraman behar zen janaria zerbait jan nahi izanez gero... Gerraostean gose handia pasa zuten.

352. Sagardotegian lanpernak jaten (LEZ-017/033)

Garai batean lanpernak asko jaten ziren sagardotegiko giroan. Lanpernak nork ekartzen zituen aipatzen du.

353. Egurra jabego pribatuetatik ekartzen (LEZ-017/034)

Bizibidea handik eta hemendik bilatu behar izaten zuen jendeak. Egurra hartzea galarazita zegoen zenbait lekutan, jabego pribatua baitziren. Leku haiek zaintzeko bi guarda egoten ziren.

354. Prozesioa ikusi baino nahiago, sagardoa edaten jarraitu (LEZ-017/036)

Sagardotegiak itxi egin behar izaten ziren prozesioa pasatzen zenean; barruan zeudenak kalera irteten ziren, baina kalean jarraitzen zuten edaten.

355. Langile batailoiak: barrakoiak (LEZ-018/002)

Langile batailoiei buruzko azalpenak. Barrakoiak. Urik ez zutenez, erre kara joaten ziren garbitzera. Sarna zabaldu zen herrian. 800dik gora langile izan ziren Lezon.

356. Langile batailoiak: bideak egiten (LEZ-018/003)

Langile bataloiko langileak lanean ikusten zituzten bideak egiten. Dena eskuz. Galarazi egiten zieten hara arrimatzea. Egin zituzten lanak. Aurretik beste batailoi batzuetan egonak ziren batzuek. Barrakoiak nolakoak ziren. Urte asko egin zituzten han. Hildakoak ere izan ziren. Gosea pasatu zuten.

357. Langile batailoiak: militarrek herrian (LEZ-018/004)

Langile batailoietako presoekin ez zuten harreman handirik. Ezin zuten asko mugitu, kontrolatuta zeuden. Herrian militarrek ibiltzen ziren; etxeetan egiten zuten lo. Gure Bordan egoten ziren. Arropa eta jatekoa herrian zituzten, eta soldaduek mandoekin igotzen zituzten.

358. Langile batailoiak: gosea (LEZ-018/006)

Denborarekin pixka bat hobetu den langile batailoietako presoen egoera. Don Mateo Alberdi apaizaren anaia zen kapitainetako bat, Lezokoa: Fermin Alberdi. Hark zertxobait lagundu ote zuen. Lapurreta txikiak, gosearen gosez.

359. Gerra garaiko oroitzapenak (LEZ-018/007)

Gerra nola hasi zen ez da gogoratzen, baina bai erreketek nola etorri ziren. Haien soinua du gogoan. Bonbak erori ziren Lezon, gerraren hasieran eta geroago ere bai. Don Eugenio apaizari buruzko iritzia.

360. Lezoko janari dendak (LEZ-018/009)

Lezoko janari dendak eta harategiak aipatzen ditu. Erreteriarra ere joaten ziren noizean behin, azokara. Dendan zorra uztea ohikoa zen.

361. Urteko ospakizunak Lezon (LEZ-018/011)

Santa Kruz Txiki eguna jai egiten zuten baserritarrek. Pazkoetan azoka egiten zen baserriko tresnekin. San Joan eguna. Santa Krutzak. Hondarribiko kuadrilla batzuek Lezorako joera zuten.

362. Santo Kristoa eta Santi Krutzak (LEZ-018/012)

Santa Krutzetan kanpotarrak ere joaten ziren Lezora. Santo Kristoren debozioa zegoen baserri giroan. Hitz motelak, ohean pixa egiten zuten umeak... eramaten zituzten. Pilota partidak ere izaten ziren festetan.

363. Futbola ikustera eta zinemara (LEZ-018/013)

Ez da da dantzazalea izan. Futbol partidak ikustera joaten zen Lartzabalera; ez ordaintzeagatik egiten zutena. Erreteriarra ere joaten zen igandetan, Alamedara; zinemara ere bai.

364. Arropa gutxi eta jostunak egina (LEZ-018/016)

Anaiei txiki geratutako arropa berarentzat zen. Jostunak egiten zizkien. Egindako arropa gutxi erosten zen. Petatxoak. Lezoko jostunak. Erreterian gehiago ziren.

365. Politika kontuetan, isiltasuna (LEZ-018/017)

Lezoko Batzokia justu-justu ezagutu zuen. Itxi egin zuten gerra garaian. 14-15 urte arte ez zuten etxeko eztabaidetan parte hartzen. Isiltasuna zen nagusi gai batzuekin, beldurra. 18 urtetik gora hasi zen kontzientzia hartzen.

366. Osaben kontuak (LEZ-018/018)

Osaba Frantzian ibili zen; Pasaiaiko aduanako langilea zen, eta gero Santanderrera bidali zuten, zigortuta. Santanderko sutea. Beste osaba bat lanetik bota zuten, grebaren bat egin zuelako.

367. Ikastolaren beharra nondik sortu zen (LEZ-018/020)

Etxean bazeuden liburuak, eta irakurtzen zituen. Euskararen aldeko grina hala sortu zitzaion. 1965 aldean hasi ziren. Umetan emakume batek erreztatzen erakusten zien, euskaraz (Agustina Lizarazuk lehenengo eta Manolita Larreak gero). Don Ignacio Esnal. Ez zuten titulurik eta uzteko esan zieten. Zerbait egin beharra ikusi zuten. Sare bat sortu zen inguruko herriekin.

368. Ikastolaren sorrera (LEZ-018/022)

Umeak euskaraz alfabetatu nahian hasi zirenean hasi ziren arazoak. Astero biltzen ziren. Lokal berria prestatu zuten. Herriko eskoletakoak kontra jarri zitzaizkien. Andereñoak.

369. Baserri giroa eta Lezoko euskara (LEZ-018/026)

Lezon aldaketa asko izan dira. Bere iritzia ematen du. Baserri giroa desagertu egin da. Sagardotegiak. Euskara ondo mantendu da baserrietan. Lezon euskaraz egiten zuten umeek. Guardia zibil baten alabek euskaraz ikasi zuten. Orain ez da gauza bera gertatzen.

370. Oraingo bertsokera, mami gutxikoa (LEZ-018/029)

Bertsozalea da. Oraingo bertsokera desberdina iruditzen zaio, eta mami gutxikoa.

371. Euskarari buruzko gogoeta (LEZ-018/034)

Euskarari buruzko gogoeta. Baserri giroak eta familiak gorde du euskara ikastolak eta Euskaltzaindiak baino hobeto. Euskara belar gaiztoarekin parekatzen du, "lapaitzarekin".

372. Ama lan eta lan (LEZ-020/002)

Amak Atxaren txapa fabrian egiten zuen lan, eta asteburutan Gure Borda taberna zenetik deitzen zuten, lanerako ere. Gazterik alargundu zen, hiru seme-alabarekin, eta zer erremedio.

373. Pobre baina garbi (LEZ-020/003)

Ama eta ahizpa garbiketarekin oso bereziak zirela du gogoan Maitek, eta etxea beti txukun eta garbi edukitzen omen zuen.

374. Arropa eskuz garbitzen (LEZ-020/004)

"Trozoko" xaboiarekin garbitzen zuten arropa, eta lixibarik gabe moldatzen ziren. Gero, eguraldi onarekin, zelaian zabaltzen omen zuten arropa, gehiago zuritu zedin. Arroparen garbiketa, etxean zein harraskan egiten zuten.

375. Argindarra eta ura (LEZ-020/005)

Argindarra eta ura; biak ezagutu ditu Maitek etxean, jaio zenetik, Kanean bizi baitziren, eta ez baserrian.

376. Ahizpa Madrilera zerbitzari (LEZ-020/006)

Ahizpa Madrileko etxe batera joan zen zerbitzatzera. Maitek nahiago izan zuen fabrian lanean hasi, inor zerbitzatzen aritu baino.

377. "Maestra" Dolores (LEZ-020/008)

Maitek ez du gogoan zenbat urterekin hasi zen eskolan, baina bai Dolores zuela bere irakasleak izena, eta aski jatorra zela. Matematikako oinarritzko eragiketak erabiltzen, irakurtzen eta idazten ikasi zuen eskolan.

378. Txikitako jolasak (LEZ-020/010)

Haurrak zirela txingoka, saltoka eta halako jokoetan jostatzen ziren, baina etxe ondoan beti. Igeri egitera eta almeja edo txirla bila ere joaten ziren.

379. Eskola amaitu eta lanera (LEZ-020/011)

Eskola amaitu eta berehala hasi zen lanean Maite. Pasai Donibaneko "eskabetxeria" batean hasi zen lehenik. Gero, txapa fabrika batean aritu zen, eta ondoren, Erreenteriako denda batean jardun zuen.

380. Herriko bikarioa (LEZ-020/012)

Dotrina ikastera joaten zirela oso gogoan du Maitek, eta herriko bikarioarekin ere gogoratzen da. Oso zorrotza omen zen. Maite ez omen zuen sekula jo, baina bai anaia, ordea.

381. Etxeko eskola (LEZ-020/014)

Amak erakutsi zien etxeko zenbait lan nola egin behar ziren.

382. Ekonomia jarriko nuke berriz (LEZ-020/015)

Ilobak bitrozeramika jartzeko esaten dion arren, Maitek ez du oraindik sukaldarik aldatu. Beregatik balitz, ekonomia jarriko luke berriz.

383. Dagoenean bon-bon; ez dagoenean egon (LEZ-020/016)

Gazte garaian Lezotik Erreenteriara zein Pasaiara joaten hasi ziren Maite eta haren lagunak. Hala ere, Maiteren ibilerak amaren poltsikoak mugatzen zituen. Amak ez zuen beti dirurik izaten seme-alabei emateko.

384. Senargaiarekin lanean (LEZ-020/017)

Senarra Palentzian jaioa zen eta bi urterekin Lezora bizitzera etorria. Txapa fabrian aritzen ziren biak lanean, eta garaitsu hartan hasi omen ziren elkarrekin ibiltzen, aurrez elkar ezagutzen bazuten ere. Senarrak eta haren senideek ederki egiten zuten euskaraz, nahiz eta gurasoak kanpotik etorriak izan.

385. Mariaren Alabak kongregaziotik ospa (LEZ-020/018)

Bikote kontuan Maitek uste du lehen askatasun gutxi zegoela, baina egungoa gehiegi iruditzen zaio. Ez bat eta ez bestea ez ditu ongi ikusten. Maitek kontatzen du, behin, herriko jaietan, bera eta lagun bat bakoitza bere anaiarekin ibili zirela dantzari, eta horregatik zigortu nahi izan zituztela kongregazioan. Beraiek ez zuten zigorra onartu, eta kongregaziotik atera ziren.

386. Dendariekin harremana (LEZ-020/020)

Diru gutxi izanagatik, egunero jan beharra zegoen, eta sarritan, Maiteren amak dendatik etxeratutako generoa ordaindu gabe uzten zuen. Hala ere, hilabete bukaeran, soldata kobratzearekin batera, zor guztiak ordaintzen omen zituen. Harreman estua omen zuten dendariekin.

387. Ilusioz bizi (LEZ-020/021)

Maitek dio, lehen pobre bizi arren, ilusio gehiago nabari zela jendearengan. Gaur egun gauza materialez ederki hornituta omen gaude, baina hala ere konforme ez.

388. Nahi eta ezin (LEZ-020/023)

Pospolinak gogoan ditu Maitek, eta gustatzen zitzaizkion, baina beraien amak ez omen zuen sekula izan seme-alabei halako jantzirik egiteko adina diru.

389. Dendan lanean, papera eta pintura saltzen (LEZ-020/024)

Maitek drogeria batean egiten zuen lan, baina itxuraz, denda hartan pintura eta papera saltzen ziren ere, eta hortaz arduratzen zen bera.

390. Gerra garaian Donostian babes (LEZ-020/026)

Gerra garaian haurra zen Maite eta ez du gauza askorik gogoan. Amaren ahizpari esker Donostiako familia dirudun baten etxean gordeta egon omen ziren. Gerraosteko goseteari buruz galdetu eta errazionamenduko liburuxka oraindik etxean duela dio.

391. Lehen baino denda gutxiago Lezon (LEZ-020/028)

Maitek garai bateko zenbait denda eta zerbitzuren hutsunea sumatzen du gaur egungo Lezon. Esaterako, zapataririk ez omen da, ez eta arropa denda edo burdindegirik ere.

392. Lehengo Lezo gogoan (LEZ-020/029)

Alde handia ikusten du Maitek garai bateko eta gaur egungo Lezoren artean.

393. Txerria hiltzen zutenekoa (LEZ-021/003)

Urtero txerria hiltzen zuten etxean, San Martin egun inguruan. Txerriak nola kontserbatzen zituzten azaltzen du.

394. Sagardoa egiteko prozesua (LEZ-021/004)

Lurrak lantzen zituzten. Sagastiak bazituzten eta sagardoa egiten zuten, baita kalerako ere. Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du.

395. Karea egiteko prozesua (LEZ-021/005)

Karea lehen nola egiten zuten azaltzen du. Karea egiteko edozein egur erabiltzen zen eta harria beraien harrobitik ekartzen zuten.

396. Harrobitik harria ateratzeko prozesua (LEZ-021/006)

Harrobia zeukaten eta harria tiroz ateratzen zuten bertatik. Harria ateratzeko prozesua azaltzen du.

397. Harrobiko harria saltzen (LEZ-021/007)

Harrobitik ateratzen zuten harria gurdian eramaten zuten kalera, saltzeko. Harri hura zertarako erabiltzen zen azaltzen du. Beraien harrobia noiz sortu zen aipatzen du. Beraiek egunero egiten zuten lan harrobian eta eguraldi txarra egiten zuenean joaten ziren eskolara.

398. Sagardo asko egiten zuten (LEZ-021/011)

Sagardo asko egiten zuten lehen eta nori saltzen zioten aipatzen du.

399. Aitak antolatutako barrikoteak (LEZ-021/012)

Lezoko sagarra oso ona zen sagardoa egiteko. Etxerako egiten zuten sagardoarekin barrikoteak antolatzen zituen aitak. Barrikote haietako giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

400. Gaubeilako giroa (LEZ-021/016)

Lehen norbait hiltzen zenean izaten ziren ohiturak aipatzen ditu: gaubeilan txiste-kontari aritzen ziren, kafea eta pastelak jaten zituzten...

401. Tolosako feria (LEZ-021/018)

Lehen astelehenetan baserritarrek feriara joaten ziren Tolosara. Feria hura ona izaten zen, ganadu ona ekartzen zuten handik, egun-pasa egiten zuten... Erramun bera joan ohi zen Tolosako feriara.

402. Baserria kendu eta fabrika jarri (LEZ-021/021)

Lopene baserria bota egin zieten fundizio-fabrika jartzeko. Lurrak saltzera derrigortu zituztenekoa azaltzen du. Denborarekin fabrika handitzen joan zen.

403. Lezoko gazteriaren bilerak eta erromeriak (LEZ-021/024)

Gaztetan bileratara joaten ziren: Txiki Erdira, Oialumera... Lezon bertan ez zegoen erromeriak egiteko ohiturarik, beti kanpora joan ohi ziren.

404. Lezon Nafarrak sartu zirenekoa (LEZ-021/027)

Lezon gerra garaian izandako gertaerak aipatzen ditu: Nafarrak Lezon sartu zirenekoa, tiroak, leihoetan koltxoak jarri zituzten...

405. Gerrako bidegabekeria ulergaitzak (LEZ-021/029)

Gerran ama bat eta haren hiru seme fusilatu zituzten, ikurrina zeramalakoa.

406. Gurasoak gazte ezkondu ziren (LEZ-022/002)

Lezoko Miura baserrian jaioa, amaren jaiotetxean. Aita ere lezoarra eta baserritarra. Oso gazte ezkondu ziren, anaia soldadutzatik libratzeko, aita alarguna zen eta. Maizterrak ziren, eta ezkontzeko eraztuna eta belarritakoak eman zizkion amari etxeko andreak.

407. Familiako zoritxarrak; 1918ko gripea (LEZ-022/004)

Hasiera pobrea egin zuten gurasoek. Amona Joakina, zorte txarrekoa: aitona hil zenekoa. Tranbia zaharra. Familiako beste zoritxar batzuk: osaba bat Melillako gerran eta beste bat 1918ko gripearekin hila. Zazpi hil ziren Lezon.

408. Umetatik lanean I: behizain (LEZ-022/006)

Oso txikitatik, baserriko lanetan. Apreta zaharrekin edo oinutsik behizain. Miseria. Eraztunak gustatzen zitzaizkion, eta amak Erreterian erosi zion. Galdu egin zuen eraztuna, eta berriz aurkitu.

409. Umetatik lanean II: behizain, fabrikan, plazan (LEZ-022/008)

Eraztuna nola galdu zuen, eta topatu. Sei urte inguru zituen. Xistera berezia erosi zioten berarentzat, Erreenteriara plazara joateko. 13 urterekin liho fabrikan hasi zen; tratuarekin jarraitu zuen, hala ere. Goizeko bost eta erdietan. Bide txarrak. Etxean bazkaldu eta buelta lanera.

410. Umetatik lanean III: plaza (LEZ-022/009)

Bera Erreenteriara joaten zen plazara. Amona Donostiara, lehenago. Kaputxinotan elkartzen ziren Donostiara joaten ziren emakumeak; arrosarioa errezatzen joaten ziren bidean, oin hutsik.

411. Anaiak soldadu I: paketeak bidaltzen (LEZ-022/010)

Gerra garaian, hiru anaiak soldadu joan ziren; baita anaiatzat zituzten beste bi ere. Etxean lan gehiago, orduan. Anaietako bat ospitalean egon zen Bartzelonan, moja euskaldunarekin. Paketeak bidaltzen zizkieten (dirua eta jana) trenez.

412. Anaiak soldadu II: haietako bat libratzeko legea (LEZ-022/011)

Anaietako bat libratzeko aukera izan zuten. Joxe anaia ekarri zuten etxera, ondoezik zegoelako Valladoliden. Aita ere joan zen hara, albaitariak gomendatuta. Anaiari txapa-fabrikara bila joan zitzaion Guardia Zibila, desertoretzat salatuta. Aitak ez zuen jakin nahi zein zen salatzailea.

413. Anaiak soldadu III: promesa Santo Kristori (LEZ-022/012)

Beste anaia bat ere soldadu eramán zuten. Egurra txikitzen ibiltzen zen, eta Atotxako ospitalean egon zen, eskuan min hartuta. Bisitan joan zen Dolores, eta soldadu zaurituak ikusita, ikaratu egin zen. Santo Kristori eskatu zion anaiak ondo bueltatzeko; egunero seietako mezara joaten zen. Bide txarrak.

414. Gerra denboran, baserrian hogeit lagun (LEZ-022/014)

Lau-bost behi zituzten. Txerrikumeak hazten zituzten, saltzeko. Urtean bi txerri hiltzen zituzten. Gerra denboran 20-22 ziren etxean. Zeintzuk bizi ziren baserrian. 41eko gosetea; ez zuten goserik pasatu. Artoa eta babarruna. Estraperloa, mendiz mendi.

415. Babarruna entregatu beharra (LEZ-022/015)

Babarruna entregatu beharra. Tranpak: belar metan eta sasietan gordeta. Guardia Zibilen kontrolak. Behin, lurpean sartu zuten babarrun barrika. Gainean erein zuten, eta ustel usaina. Barrika lehertu egin zen.

416. Behizain eta bertsotan (LEZ-022/016)

Behizain zebilela bertsoak ikasten zituen, irakurrita. Eskolan ez zen asko ibili. Bertsopaperak gustatzen zitzaizkion. Erraz ikasten zituen. Batzuk gogoratzen ditu. Txirrita eta Xenpelar bertsolariak. "Bretoianak" bertso-sorta errezitatzen hasi da.

417. Mari Iñaxi eta Bartoloren elkarriketa azaltzen duten koplak I (LEZ-022/019)

Mari Iñaxi eta Bartoloren arteko elkarriketa kontatzen duten koplak kantatzen ditu.

418. Mari Iñaxi eta Bartoloren elkarriketa azaltzen duten koplak II (LEZ-022/021)

Mari Iñaxi eta Bartoloren arteko elkarriketa kontatzen duten koplak. Jarraipena.

419. Eskolara, dotrina ikastera; batuketak egiten fabrian (LEZ-022/023)

Eskolara urtebetean joan zen, dotrina ikasteko. 11 urterekin Jaunartze Handia egiteko. Don Luis apaizak ez zion utzi 11 urte bete gabe Jaunartzea egiten, eta Erreterian egin zuen Don Benitoren. Batuketak egiten fabrian ikasi zuen, bordadoran. Xolek erakutsi zion. Eskolan, Erreterian.

420. Hagineko minez umetan (LEZ-022/026)

Lo egin ezinik egoten zen, hagineko minez. Hortz denak usteldu zitzaizkion, eta hamazazpi urterako berriak jarri zituen. Beroa jartzen zuen, baina ez ziren medikura joaten. Aireplanoak pasatzean, garrasika, gozoki eta txokolate eske.

421. Umetako jolasak: korrika eta saltoka (LEZ-022/027)

Umetako jolasak. Korrika, botoa harrika bota, arbolak ukitzen, gorde-gordeka. Sokasalto, kromoak. Kanikak. Panpinarik ez; kartoizkoak. Trapuz egiten zuten. Balorik ere ez. Gomazko pilotak. Bezperak.

422. Beti goiz jaiki beharra; argindarrik gabeko garaia (LEZ-022/028)

Umetatik lanean. Oso goiz jaikitzen ziren. Lauretan jaiki da urte askoan. Aita lo gutxikoa zen; zigarroa eretzen leihoan. Argindarrik ez zuten hasieran; Vasco Navarra jarri zutenekoa. Kandela eta kriseilua, olioarekin.

423. Aza-babarruna eguerdian (LEZ-022/029)

Su baxua gerra denbora arte izan zuten. Gero, ekonomika. Laratzean zintzilik. Egurra ere zen nahikoa. Eguerdian aza-babarruna normalean. Antxoa asko zegoen; saltzaileak baserriz baserri. Bisigua ere zelaira botatzen ezagutu du, ezin saldu eta. Gisatua, patata askorekin. Edateko, pitarra. Denak batetik jaten.

424. Egun berezietan oilaskoa eta arroz-esnea (LEZ-022/030)

Egun berezietan oilaskoa eta arroz-esnea. Ama sukaldari ona zen. Oilo zopa asko jaten zen, fideoarekin. Fruta otordutik kanpo jaten zuten. Sagar mota asko. Udarea. Muxika. Hurrak. Onena plazarako.

425. Arropa garbitzen, eskuz (LEZ-022/031)

Etxeko lanak: arropa eskuz garbitzen zuten. Etxean bazuten ura, baina askotan errekarra joaten ziren, arropa buruan hartuta. Mikurara joaten ziren. Lixibarik ez zuten egiten. Oholean, xaboiarekin. Beratzen. "Berdetara", eguzkitan.

426. Belauniko, lurra hondartzen (LEZ-022/032)

Etxeko garbitasuna: hondartu egiten zuten lurra, belauniko. Aulkiak ere garbitzen zituzten. Arropa konpontzen: adabakiak. Orain modan jarri dira! Ahizpa behi lanekin egoten zen gehiago.

427. Fabrikako oporretan, etxe zuritzen (LEZ-022/033)

Etxea zuritu egiten zuten. Fabriketan ez duten oporraldirik. "Sabado inglés", larunbat arratsaldea jai. Zazpi egun libre, eta lanerako baliatzen zuten: etxea karez zuritu eta koltxoak jo behar; makilarekin jo. Miura etxe ederra zen. Koloreak egiten zituzten.

428. Nagusiarekin zuten harremana (LEZ-022/034)

Maizterrak ziren. Baserria gerra ondoren erosi zuten. Ategorrietakoa zen nagusia, donostiarra. Harekin zuten harremana. Urtean ordaintzen zen errenta, abenduan. San Francisco egunean, berriz: esnea, oilo bat... Bakailaoa ematen zieten opari.

429. Umetatik lanean IV: plaza (LEZ-022/035)

Hamar urterekin hasi zen plazara joaten, eta urte askoan ibili zen. Orbegozon zegoela geratu zen, fruta ihartu egin zelako. Aza, patata, porruak, tipula, lekak, babarruna. Fruta eta arrautzak.

430. Diru gutxi etxean; aita, itsasontzian deskargatzen (LEZ-022/036)

Jana bazuten, baina dirua falta. Aitak portuan egiten zuen lana, alemaniarren itsasontziak deskargatzen. Itsaso txarra zegoenean, ontziak ezin sartu, eta Bilbora. Superportuari buruzko iritzia. Itsasontzien txistua entzuten zuten.

431. Lehen, eguraldi okerragoa: tximistak (LEZ-022/037)

Lehen, eguraldi okerragoa egiten ei zuen. Trumoi-tximistak; behia airean bota zuen behin. Haizeak eta tximistak botatako arbolak.

432. Ama-seme batzuk nola hil zituzten, gerra garaian (LEZ-023/002)

Gerrako gertaerak, etxe ondoan izandako hilketak. Nazionalak Erreteriarra sartu zirenean, ama ihesi joan zen hiru semerekin. Erreketeek topatu, eta hil egin zituzten. Zaharrenak ikurrina zuen gerrikoan. Lurperatzaileak esan ziena.

433. Ahal zuten tokian ezkutatu ziren denak (LEZ-023/003)

Hilketen egunean, beraiek ere ezkutatu egin ziren. Mutiko batek aurkitu zituen, iluntzean. Aita Jaizkibelera joan zen. Izebaren baserrira joan ziren denboraldi baterako, ikaratuta.

434. Etxera noiz bueltatu ziren (LEZ-023/005)

Irailaren 13an sartu ziren Lezora nazionalak, Jaizkibeldik. Orduan bueltatu ziren etxera. "Cara al sol". Uztailaren 27an gertatu ziren hilketak.

435. Hildakoen erretratuak (LEZ-023/006)

Ama-semeen hileta. Hilkutxa gabe lurperatu zituzten. Hildakoen argazkiak erakusten ditu. Maria ama eta semeak: Enrike, Sebastian eta Domingo. Ahizparen mutil-laguna zen Domingo.

436. Tiro hotsak (LEZ-023/009)

"Pakun", tiro hotsak entzuten zituzten. Jaizkibeldik sartu ziren. Kintak deitzen hasi ziren gero. Langile batailoiei buruzko kontuak. Beraien baserriko ganbaran kanpoko jendea hartu zuten.

437. Bonbak bota zituzten Lezon (LEZ-023/010)

Bonbak bota zituzten Lezon, eta kale garbitzailea hil zen: Felix. Milizianoak egon ziren hasieran, ehizako eskopetekin. Gorriek elizak erre behar zituztela, bestee emakumeak zintzilik jartzen zituztela... beldurra zuten.

438. Kintak deitzen hasi ziren; fusilatuak (LEZ-023/011)

Etxera itzuli zirenean, kintak deitzen hasi ziren. 15 kinta harrapatu zituzten. Desertoreak.

439. Gerran fusilatuak (LEZ-023/012)

Auzoko gizon baten kontuak (Juan Bautista): fusilatu egin zuten. Oiartzungo kanposantuan lurperatuak; nola hiltzen zituzten kontatzen du. Metraila hotsa. Erreterriako Don Gerbasio eta Don Martin apaizak ere hil zituzten, Hernanin.

440. Errugabe asko hil zuten (LEZ-023/014)

Bizkarrondo baserrikoa ere fusilatu egin zuten. Oiartzunera joan zen batean, San Marko non zen azaldu zion bati.

441. Gerra eta gero, makiak (LEZ-023/015)

Gerra amaitzen ari zela eta, anaiak etxera bidali zituzten. Baina gero makiak zirela eta, berriz mobilizatu zituzten. Sei urte pasatu zuten haiek.

442. Etxeko mutilak soldadu (LEZ-023/017)

Anaiek ere egundokoak kontatzen zituzten, gerran ibilitakoak ziren eta. Anaiordea kamillero ibili zen. Mutilak hil ote ziren, beti kezkatuta. Frontetik idazten zieten. Gerra tristea dela dio.

443. Gerraosteko gosea (LEZ-023/018)

Gerra ondorenean ez zuten goserik pasatu, babarruna, esnea eta taloa bazituztelako baserrian. Gerrak arrastoa utzi zuen.

444. Gaubeila, ondo pasatzeko aitzakia (LEZ-023/020)

Etxean hiltzen ziren denak. Gaubeila egiten zuten. Otoitz egiten zuten, baina barre ere bai. Kafea ematen zieten. Goizez izaten zen hileta elizkizuna. Bizkarrean eramaten zuten hilkutxa, oinez.

445. Beti lutoz jantzita (LEZ-023/021)

Lutoa eraman beharra. Bi urte, sei hilabete, hiru hilabete... hildakoaren senidetasunaren arabera. Mantila jartzen zuten elizarako.

446. Arropa gutxi, zorrak ugari (LEZ-023/023)

Ez zuten arropa askorik. Beste batzuen ere gustura hartuko lukete. Manuel Jimenezen denda. Larunbatetan kobratzen zuten jornala. Pixkanaka ordaintzen zituzten soinekoak. Dendan apuntatuta uzten zuten askok, gero ordaintzeko. Zorrei buruz amonak zioena.

447. "Atsolorra" egiten zuten (LEZ-023/024)

Atsolorra. Berak ez du egin, baina ahizpak bai, zazpi hurrekin; gazte alargundu zen (senarrak papeleran egiten zuen lana, eta laguntza eman zioten handik). Atso kuadrilla elkartzen zen atsolorrean. Merienda zen. Aitona bat ere eramaten zuten, harekin barre egiteko.

448. Don Joserekin jaiotzen ziren umeak (LEZ-023/025)

Umeak etxean jaiotzen ziren. Don Jose praktikantea joaten zen. Berak klinikan izan ditu gehienak. Emakumeren bat izaten zen laguntzen, auzokoak. Ahizpak ere bazekien zilborrak egiten.

449. Nobio garaiak (LEZ-023/029)

Gaztetan Erreteriarra joaten ziren. Txikierrdin behin bakarrik egon dela uste du. Aita zorrotza zuen. Senargaia nola ezagutu zuen; auzokoa zen. Gure Borda jatetxera joaten zen zerbitzera, egun berezietan, Lezora. Bueltan etxera laguntzen hasi zen mutila, gauetan.

450. Ezkontza eta ezkonbidaia (LEZ-023/031)

Ezkondu aurretik, amek ez zuten aholkurik ematen. Sexua tabua zen. San Marko egunean ezkondu ziren. Amasan bazkaldu zuten, trenez joanda. Madrilera eta Bartzelonara egin zuten ezkontza bidaia; urrutia zen ordurako.

451. Etxebizitza eskasia eta inmigrazioa (LEZ-023/032)

Etxea nola egin zuten azaltzen du. Orain bizitza bakarra da, baina lehen hiru ziren. Etxebizitza eskasia zen orduan, eta kanpoko jende asko. Orbegozo lantegian zebiltzan lanean. Protestante bat ere bizi izan zen han.

452. "Txiki-txikitandik" abestia (LEZ-023/034)

Bordatxo sagardotegian kantatzen zuten "Txiki-txikitandik" abestia kantatzen du. Beste bi kanta aipatzen ditu.

453. Esaera zaharrak (LEZ-023/037)

Ipuinik ez du gogoratzen. Abesti bat erreztatzen du. Esaera zaharrak.

454. Donostiara joan, eta han erdaraz (LEZ-023/039)

Euskaraz beti, erdaraz ez zekiten eta. Aitak eta amak ez zekiten idazten. Lantegian ere denak euskaldunak ziren. Medikuek euskaldunak ere baziren. Donostiara joan, eta erdaraz galdetu zion bati; hark euskaraz bazekien.

455. Elkarri laguntzeko ohitura, baserrietan (LEZ-023/041)

Lehen, elkarri laguntzen zioten eta ondo konpontzen ziren denak. Laian egiten zuten.

456. Neskek baserrira ezkondu nahi ez (LEZ-023/042)

Garai batean baserrietan maiorazgoa izatea gauza handia zen, baina gero asko mutilzahar geratu dira. Neskek ez zuten baserrira ezkondu nahi.

457. Ez zaio gaurko nesken janzkera gustatzen (LEZ-023/044)

Lehen eskotea tapatzen ibiltzen ziren. "Petxera" jartzen zuten, titirik ez erakusteko. Orain, berriz, dena bistan eramaten dute askok. Ez zaio polita iruditzen. Gaur egungo moda.

458. Auto gutxi zegoen Lezon (LEZ-023/046)

Lezo askoz txikiagoa zen lehen. Autorik ez zen. Jaunartzea egin zuen garaian, bi-hiru kotxe ibiltzen ziren herrian.

459. Xakariasen kontuak (LEZ-023/047)

Xakarias izeneko baten kontuak. "Arrunt xelebria zen". Txispa zuen. Sagardotegia zuten Txerrimuñon.

460. Gosaria eta merienda beti kanpoan (LEZ-024/010)

Ama astoarekin joaten zen Lezora eta Errenteriara esnea saltzera. Gizonak, berriz, soro edo zelaiko lanetara joaten ziren, eta bederatzi t'erdia aldera gosaria eramaten zitzairen lanean ari ziren lekura. Merienda ere berdin egiten zen. Goizean goiz "gosari txikia" egiten zen, kafe apurren bat eta huskeriaren bati. Zakua ipintzen zen burutik euria zenean.

461. Bazkal ondoren siesta (LEZ-024/011)

Eguerdiko hamabietan etortzen ziren etxera. Ukuiluko lanak egin eta ordu bata baino lehenago bazkaria. Ondoren, siesta beti. Hamar minutu ingurukoa izaten zen.

462. Arratsaldeko lanak (LEZ-024/012)

Arratsaldeko lana goizekoaren jarraipena izaten zen. Ilunabarrean ganajatenak egiten ziren, eta zazpiak aldera ukuilura, ganadu-gobernuak egitera.

463. Orain dela berrogei urte txekorra garestiago saltzen orain baino (LEZ-024/013)

Esnearekin batera, arrautzak, letxugak edo zegoena eramaten zen saltzera. Diru gutxi hartzen zen baina pentsatzen du gaur egun baino irabazi gehiago ematen zuela orduan baserriak. Esnea eta haragia orduko prezioetan baitaude, eta produkzio gastuak, berriz, mila aldiz garestiago. Orain dela berrogei urte txekorra garestiago saltzen zuen orain baino.

464. Zakarretara Jaizkibel atzera (LEZ-024/016)

Ganaduei azpiak egiteko "zakarra" ekartzera joaten ziren urruti, Jaizkibel atzeraino. Iratzea baino gehiago ote-zakarra eta belarra omen da zakarra, leku horretan iratze gutxi egiten delako.

465. Lehen etxetik irten eta jendea ikusten zen inguruan lanean (LEZ-024/019)

Etiket irten orduko ingurura begiratu eta soroetan lanean zebilen jendea ikusten zen. Orain ez duzu inor ikusten. Tristura ematen du. Ez dago baserritik bizitzerik.

466. Bordatxoko sagardotegian giro zoragarria (LEZ-024/020)

Bordatxon betidanik egon da sagardotegia eta dolarea. Zortzi kupel handi egoten ziren. Aste Santu inguruan irekitzen ziren. Jendea beteta egoten zen Bordatxo, gerra garaira arte behintzat. Gerra ostean asko jaitsi zen sagardotegi-jira. Oso giro ona egoten zen aurretik. Tokan jokatzeko zen eta trabesak ere egiten ziren. Denak ezagunak eta denak lagunak. Gerra ostean ere ahalegindu ziren lehengo martxari eusten baina ezinezkoa izan zen.

467. Dantzariak sagardotegian (LEZ-024/022)

Lezotik etorri eta makil-dantza eta ezpata-dantza eta horrelakoak dantzatzen zituzten sagardotegian

468. Sagardotegia jendea beteta (LEZ-024/024)

Jai goizean gizonak egoten ziren sagardotegian, arratsaldean familiak etortzen ziren meriendatzera. Dena beteta egoten zen. Bakailao tortillak eta horrelakoak ematen zituzten baina jeneralean norberak eramaten zuen jatekoa.

469. Sagardotegiak ez zuen diru asko ematen (LEZ-024/026)

Ez zuen diru asko ematen sagardotegiak, sagardoa merke saltzen zutelako. Pezetaren azpitik saltzen zuten litroa. Sagardoak lan asko du.

470. Hernani eta Astigarragatik sagarra erostera Lezora (LEZ-024/029)

Irailaren erdi aldera hasten zen sagar-biltze prozesua. Hernani-Astigarraga aldeko sagardogileak etortzen ziren Lezora sagar-erosketa tratua egitera.

471. Dolareko lanak (LEZ-024/030)

Zakutan bete eta ganbarara eramaten zen sagarra. Han 10-15 egun edukitzen zen gozatzen. Gero jo egiten zen. Makina elektrikoa ezagutu du berak bere denboran. Gero dolarean zabaltzen zen. Zapaldu, patsa utzi, hurrengo egunean buelta eman eta berriz zapaldu. Sagardoa "tinilla"n pilatzen da eta handik bonbarekin kupelera pasatzen.

472. Kanilla beti, txotxa inoiz ere ez (LEZ-024/032)

Sagardoari, kupelean ipinita gero, irakiten utzi behar zaio pare bat hilabetez. Bere garaia heldutakoan botilaratu egiten da edo txotxean jarri Euren beti kanillan zerbitu dute, sekula ere ez txotxean. Euren kontrolatzen zuten kanilla, konfiantza handiko taldeei bakarrik uzten zitzairen beren kasa hartzen.

473. Sagar gezak eta gaziak nahastu behar sagardo ona egiteko (LEZ-024/033)

Sagar mota asko nahastu behar da sagardo ona egiteko. Erreinetara ere behar du txinparta ateratzeko. Gazi gutxi (%20 inguru) eta geza asko. Hainbat sagar izen ematen du.

474. Sagardo asko egiten zen Lezoko baserrietan (LEZ-024/036)

Lezoko edozein familiak egiten zuen orduan mila edo mila eta bostehun litro sagardo. Familiak asko kontsumitzen zuen eta bisitan edo pasadizoan etorritakoei ere beti eskaintzen zitzairen. Ardo gutxi edaten zen.

475. Gerra ostean sagardotegiak itzali (LEZ-024/037)

Gerrak zeharo aldatu zuen sagardotegia. Prezioak igo ziren, jatekorik ez zegoen, eta sagardoak janaria behar du lagun.

476. Baserri bateko hiru kide hil soldadu frankistek (LEZ-024/039)

Baserri bateko hiru kide garbitu zituzten soldadu frankistek, batek gerrikoan lauburua zeramalakako edo. Baserritik ia irten gabeko jendea zen.

477. "Trabajadoreak" sagardotegian lotan (LEZ-024/042)

Langileen Batailoietakako 175 preso ("trabajadoreak") egon ziren lotan luzaroan sagardotegian. Goizero, formatu eta Jaizkibelgo errepidea egitera joaten ziren.

478. Sagar-arbolak su-egurretakako "trabajadoreak" (LEZ-024/045)

Langileen Batailoiak sagastira joan eta arbolak botatzen zituzten su-egurretarako. Gutxienez hogeita hamar arbola hondatu zituzten. Baratzetik edo sorotik ere harrapatzen zituzten gauzak. Isil-isilik egon behar.

479. Ganadu-feriak bukatu ziren (LEZ-024/048)

Gaur egun ez dago lehen bezalakako ganadu-feriarik. Lehen astelehenetan Irunen, ostegunetan Hernanin, larunbatetan Erreterian... FERIA-lekuak ere galdu dira. Hernanira landarea erostera joaten da.

480. Lezoko Santa Kruzetako feria (LEZ-024/050)

Animazio pixka bat ipintzeko, baserri bakoitzetik buru bat eramaten hasi ziren Lezoko Santa Kruzetan. Berak ere eramane izan zuen baina aspaldi laga zion.

481. Etorkizun txarra baserriak (LEZ-024/052)

Baserriaren egoera oso txarra omen da. Haragia eta esnea merke, pentsua garesti. Barazkiarekin zerbait, baina ez gehiegi. Ez bada gehiago "begiratzeko", urte gutxi barru ez omen da geratuko alerik.

482. Ertzainekin erdaraz egin behar (LEZ-024/054)

Euskara biziaren erdia izan da beretzat. Euskara dagoen tokian konfiantza eta segurtasuna izaten du. Ertzainekin izandako enkontruetan kexu da. Beti erdaraz egin diote. Furgonetan gerriko gabe joateagatik isuna jarri zioten. Ezin izan zuen komunikazio normalik izan ertzainek ez zekitelako euskaraz.

483. Aita portuan lanean edo arroketan lanperna bila (LEZ-025/004)

Aitak portuan lanik ez zuenean, arroketara joaten zen lanpernak biltzera. Amak, orduan, lanperna haiek Donostian saltzen zituen, egun berean.

484. Industrien kutsaduraren erruz, fruta erabat galdu zen (LEZ-025/005)

Lehen fruta kategoriakoa zen, oso ona. Pixkanaka, ordea, industriaren kutsadurak fruta-arbolak erre eta ihartu zituen. Ordutik, ez da berreskuratu fruta. Industriek botatzen zuten zikinkeria gogoan du. Baserritarrak elkartu, eta kexatu egin ziren; baina Donostiako udaletxearen promesak, laguntzak emango zizkietela esanez, hitz hutsetan geratu ziren.

485. Lehengo sagardoa, naturalagoa (LEZ-025/006)

Lehen, sagarrondo asko zen Lezon. Sagar mota ugariren izenak. Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du. Lehengo sagardoa hobea zen, naturalagoa. Sagardo ona egiteko, zer sagar nahasten zituzten aipatzen du.

486. Etxean sagardoa soberan (LEZ-025/007)

Sagardoa etxerako egiten zuten beraiek. Bi upel izaten zituzten, 700 litrokoak; eta barrika txikiak, 300 litrokoak. Etxerako soberan eta gehiegi izaten zuten. Sagardo hura eguerditik gauera belztu egiten zen, naturala baitzen.

487. Pitarra edateko ohitura (LEZ-025/008)

Lehen, otordu guztietan edaten zuten sagardoa. Baserriko lanetan aritzeko, pitarra edaten zuten, sagardo hutsa gogorregia baitzen. Lehen, diru gutxi zegoen. Aita nola-hala moldatzen zen dirua lortzeko.

488. Bordatxo sagardotegiaren merezitako ospe ona (LEZ-025/009)

Bordatxo sagardotegiari buruz hitz egiten du. Jende asko ibiltzen zen han, leporaino beteta egoten zen. "El que sube a Bordatxo baja borracho". Bordatxok ospe handia zeukan, ondo merezitakoa. Sagardotegiko giroaz eta janariaz hitz egiten du.

489. Gerra aurreko umore ederra (LEZ-025/010)

Sagardotegian, kantuan aritzen ziren, umore ederra egoten zen orduan. Gero, gerra etorri zen, eta akabo orduko umorea. Kantu horiei buruz hitz egiten du.

490. 'Txirrita' "Gure Borda"ra etorri zeneko anekdota (LEZ-025/013)

Behin, Lezora etorri omen zen Txirrita, "Gure Borda"ra, pilota-partiduaren ostean bertsoak bota zitzan. Orduko anekdota kontatzen du.

491. Ama eta hiru semeak gerran fusilatu zituzteneko izugarrikeria (LEZ-025/015)

Gerra etorri zenean, Nikolasek 8 urte zituen. Erreketeek tiro egin zuten beraien baserriaren aurka. Nola edo hala, beraiek lortu zuten babestea; baina lagun batzuk (ama eta hiru seme) fusilatu egin zituzten. Gerora jakin zuten karabineroaren familiartekoak zirelakoan hil zituztela.

492. Gerrako izugarrikerien aurrean, beldurra (LEZ-025/016)

Gerra garaian, jende asko ikaratu zen; eta alde egin zuten herrietik. Beraiek ozta-ozta salbatu ziren.

493. Ikurrina, gerrikoa eta tiroa (LEZ-025/017)

Ama bat eta bere hiru seme fusilatu zituzten gerra garaian Lezon. Semeek gerrikoan ikurrina zeukaten; eta, leku horretan bertan, tiroaren zuloa zeukaten. Nikolasek gorde egin zituen gerriko horiek.

494. Borroka Lezora iritsi zeneko ondorioak (LEZ-025/018)

Erreketeak Lezon sartu zirenean, beraiek errekan ezkutatu ziren. Erreketeak etxearen aurka tiroka hasi ziren; barrikak zulatu, eta sagardoz hustu zen. Handik egun batzuetara, Guadalupetik etorri ziren errekketeak, pinudian ezkutatuta zeuden gorriei tiro egiteko asmoz. 14 hegazkin etorri ziren egun hartan, bonbak botatzen. Ordurako, orde, gorriak herrira jaitsita zeuden. Soldaduak, alde batekoak nahiz bestekoak, beraien baserrira etorri ziren; eta, bitarte hartan, beraiek alde eginda egon behar izan zuten.

495. Hain gutxi behar zen fusilatzeko... (LEZ-025/019)

Gerra garaian, ez zegoen bromarik; edozein txorakeriagatik fusilatzen zuten jendea. Fusilatutako gizon batzuen istorioa kontatzen du.

496. Soldaduak etxean, eta beraiek aitaren baserrian (LEZ-025/020)

Gerra garaian, 3-4 hilabete pasa zituzten aitaren baserrian. Bitarte horretan, soldaduak egon ziren etxean; eta, haiek joandakoan, orduan itzuli zen familia etxera. Dena txikituta zegoen; eta ahal zuten bezala konpondu zuten. Etxera bueltatu zirenean, beldurra zeukaten.

497. Ustezko lagunaren mehatxua (LEZ-025/021)

Arratsalde batean, aita baserriko lanetan zebilela, ustezko lagun bat sarjentu batekin etorri zen. Txekorrik handiena hurrengo egunean hiltegiara eramateko agindu zioten; nahigabe handia hartu zuen aitak, hori baitzen baserriko errenta ordaintzeko esperantza.

498. Langileen Batailoiko langileek pasatako miseriak (LEZ-025/024)

Langileen Batailoia egon zen Jaizkibelen; gorriak ikusi zituzten gizon haiek. Etxez etxe ibiltzen ziren jateko eske. Langile horien lan-baldintza gogorreki buruz hitz egiten du; oso gaizki tratatzen zituzten.

499. Langileen Batailoikoak etxean, babes bila (LEZ-025/025)

Langileen Batailoiko langileak beraien etxera etorri ohi ziren babes bila, aterpe bila. Etxean zaindu egiten zituzten, baina beldurra pasatzen zuten, errepresaliak egongo zirelakoan.

500. Kapitainaren eta bikarioaren arteko liskarra (LEZ-025/027)

Langileen Batailoiko kapitain bat oso gaiztoa omen zen, legioan ibilitakoa. Meza nagusian, apaizak atea itxi egiten zuen. Behin, kapitaina iritsi zenerako, atea itxita zegoen. Bikarioarekin izandako liskarra kontatzen du.

501. Baserriko lanaz gain, kanpoan ere lanean aritutakoa (LEZ-025/029)

Baserrian beti egin izan du lan, baina kanpoan ere lan egindakoa da: hasieran, Antxon portuan; geroago, 24 urte inguru zituela, paper-fabrikan.

502. Guadalupen ezkontzeagatik, bikoitza ordaindu behar (LEZ-025/032)

Guadalupen ezkondu ziren; baina, hala ere, Lezoko bikarioak kobratu egin zion.

503. Kanpotik etorritako jendea, beste mundu batekoa (LEZ-025/040)

Lezon lau familia erdaldun zeuden lehen: Errioxakoak, Galiziakoak, Valladolidekoak... ziren. Beste mundu bateko jendea zirela uste zuten herritarrek garai hartan. Harrituta egoten ziren haiei begira.

504. Soldadutzan, euskaldunei jarritako tranpa (LEZ-025/045)

Nikolas soldadu eraman zuten Burgosa. Han, banderaren zina egin zuten. Orduan, Donostiako Loiolarako boluntarioak eskatu zituzten, eta euskaldun mordoa aurkeztu zen han. Baztanera bidali zuten Nikolas, eta handik Jakara. Gerra garaian, Nazionalek Teruelen mendi bat galdu omen zuten; eta Francok, orduan, zigortu egin zuen batailoi hori, leku txarrenetara desterratuta. Leku horietan egon ziren euskaldunak, Donostiara ekarriko zituztela engainatuta. 34 hilabetez egon zen Nikolas soldadutzan, 8 eguneko baimenarekin.

505. Melokotoia hartzeagatik, biziarekin ordaindu behar (LEZ-025/046)

Soldadutzan, Lleidan, lagun bati gertatutakoa kontatzen du. Melokotoi bat hartzeagatik, fusila lurrean utzi zuen; melokotoien jabeak salatu, eta kuartelera eraman zuten; fusilik ez zeramanez, Burgosera bidali zuten; eta han fusilatu egin zuten.

506. Soldadutzan, sukaldeko arduradun izan zen (LEZ-025/051)

Behin, alferezak Nikolas deitu zuen; eta Nikolas urduri zegoen. Azkenean, sukaldean jarri zuen lanean. Orduan prestatzen zituen janariak aipatzen ditu.

507. Ezkioko Ama Birjinaren aurrean egindako iragarpen harrigarriak (LEZ-025/055)

Ezkioko Ama Birjinari buruz hitz egiten du. 4-5 urte zituela, gerra aurrean, Ezkion Ama Birjina azaltzen omen zen. Emakume batzuk egoten ziren han, eta haien iragarpenak gogoan ditu.

508. Idiekin baserriko lan guztiak (LEZ-026/020)

Proba-idiek ez dute lanik egiten baserrian. Berak baserriko lan guztiak idiekin egiten ditu. Aldapa handiak daude eta arriskutsua da traktorea sartzea. Hori bai, badu makinatxo bat lurrari azken ukitua emateko. Arto eta baba asko hartzen dute.

509. Hemengo artoa onena (LEZ-026/022)

Artoa eta babarruna batera ereiten dituzte. Hemengo artoa erabiltzen dute. Kanpokoa motel etortzen da eta horregatik babarruna beranduago erein behar izaten da. Hemengo artoa omen da onena bai talotarako eta bai edozertarako.

510. Santa Kruzeko ferian saritua (LEZ-026/025)

Hamar abere-buru eraman zituen Santa Kruzeko feriara, Lezora. Han biltzen dira inguruko ganaduzaleak. Saria ere jaso zuen behi suitzarrekin.

511. Belar-metak egiten (LEZ-026/026)

Idiekin egiten dute baserriko lan gehiena baina segadora badute belarra ebakitzeko. Malkar handietan ezin izaten da makinarik sartu. Belar-metak nola egiten diren

512. Egunero kalera esnea saltzera (LEZ-026/028)

Egunero jaisten da Joxe esnea saltzera. Hamarretakoa eta tertuliatxoa ere egiten du beste bi lagunekin. Lehenago behi gehiago zituen.

513. Baserriko esnea da gauzarik onena (LEZ-026/029)

Esnea osasunarentzat txarra dela esaten dutenak gezurra omen diote. Medikuek batek esan zion hori predikatzeko eskatu dietela, nahiz eta jakin ez dela egia. Kolesterolarentzat txarra dela? Dena ipuina omen da. Baserriko esnea da gauzarik onena.

514. Esne-makinak (LEZ-026/030)

Esne-makinak jarri dituzte Erreterian eta Oiartzunen. Arrakasta izan dute baina Joxek dio jendea laster aspertuko dela. Berak ez du halakorik ipintzeko asmorik. Gero eta esne ekoizle gutxiago dago eskualdean.

515. Baserriak etorkizun txarra (LEZ-026/031)

Baserriak ez du etorkizunik. Esnea oso gutxi ordaintzen dute. Grasa txarra omen da, baina grasa gutxi badu deskontua egiten diete zentralekoek. Jendea azkar aspertzen da baserriko esnea erosten, egosten lana duelako.

516. Lezoko sagarrak fama handia (LEZ-026/034)

Garai batean dena sagastia zen Lezo kaletik Gaintxurizketaraino. Fama handia zuen Lezoko sagarrak. Sagardotegiak ere baziren.

517. Baserriari buruzko aurreikuspenak (LEZ-026/037)

Baserriak hustu egingo omen dira, irabazpiderik ez baitago. Oso etorkizun beltza iragartzen dio baserriari. Sasiak hartuko omen ditu bazterrak.

518. Etxalde handitako abereen haragia, txarra (LEZ-026/038)

Ganaduak haragi ona ateratzeko denetik jan behar du, eta etxalde handitakoak lastoz eta pentsuz elikatzen dira bakarrik. Gero droga sartzen diete azkar hazteko eta pisua hartzeko. Oso haragi eskasa ekoizten dute.

519. Txerri-belarra, txerriak elikatze alga (LEZ-027/002)

Bi txerri edukitzen zituzten. Eskolatik irtendakoan senide batzuk basora joaten ziren egurra biltzera eta beste batzuk txerri-belar bila portu aldera. Marea beheran bildu beharreko algak ziren. Pentsuarekin nahastuta ematen zieten txerriei. Orain galduta dago txerri-belarra. Kopan (banastan) garraiatzen zen. Asteaz birritan edo egiten zuten lan hori.

520. Etxeko sukaldean egiten zituzten arropa garbiketa guztiak (LEZ-027/004)

Ekonomiak ur-depositu bat izaten zuen ondoan eta horrela sortzen zen ur beroa. Arropak garbitzeko hura erabiltzen zuten. Sukaldean bertan jartzen ziren arropak lehortzen. Ez ziren inoiz labaderora joaten.

521. Hamar Aginduak eta Kredoa buruz (LEZ-027/006)

Eskolan baino lehenago hasi zen dotrian. Komunio Txikia egin ahal izateko otoitzak ikasita izaten zituzten. Gero, gainontzeko dotrina Komunio Handirako, Euskaraz, Agustina Lizarazurekin. 11 urterekin egiten zen. Kantuan bezala ikasten zuten. Hamar Aginduak eta Kredoa buruz esaten ditu.

522. "A Rusia castigada, a aprender el castellano" (LEZ-027/008)

Maistra guztiak erdaldunak ziren. Batzuk onak, baina bat oso gaiztoa, Valladolidekoa. Amorrazioa ematen zion euskaraz aditzeak eta behin esan zion Errusiara bidaliko zuela gaztelera ikastera, eta gainez zigortu egin zuen.

523. Kaniketan, txingoketan edo kromotan (LEZ-027/010)

Kaniketan, txingoketan edo kromotan jolasten zuten. Toki egokiak hartzera joaten ziren korrika eskolatik irtendakoan. Kanikak jolasean galduz gero, aguantatu egin behar.

524. Uztaiarekin eta gorde-gordeka jolasean (LEZ-027/011)

"Perrillarekin" (uztaia) jolastea gustatzen zitzaion, mari-mutil samarra zen eta. Sokasaltoan, gorde-gordeka, "tren navios"ka ("tres navíos") ere ibiltzen ziren.

525. Hamabost urterekin legami-fabrikara (LEZ-027/014)

14 urte arte ibili zen eskolan. 15 urterekin Alkoholera fabrikara hasi zen, Erreterian. Legami-fabrika zen. Bi errelebotan egiten zuen lan. Inoiz goizeko laueta ere joaten ziren, lan asko zegoenean. Serenoak lagundu zien behin.

526. Jolasean lanera bidean (LEZ-027/016)

Jolasean eginez joaten ziren lantegira, gustura asko. Pozik, sos batzuk etxera eramaten zituztelako. Dena amari entregatzen zioten. Igandetan ere egiten zuten lan hasieran. Bostetan mezara eta seieta lanera.

527. Biteri kalea, bikote berrien sorlekua (LEZ-027/017)

16-17 urterekin Errenteriara joaten ziren dantzara, Alamedara. Biteri kalean paseatzen zuten. Han elkartzen ziren neskak eta mutilak eta han egiten ziren adiskideak eta bikote berriak. Zinerako gonbidapenarekin hasten ziren gauzak.

528. Lanpernak saltzen etxeko atarian (LEZ-027/019)

Hainbat sagardotegi zen Lezon. Sanjuandar asko etortzen zen. Aitak lanpernak biltzen zituen eta etxeko atarian saltzen zituzten. Sardinak ere erretzen ziren sagardotegietan. Emakumeak ez ziren joaten. Sanjuandarrak oso kantariak ziren.

529. Banda moreaz aldarera mutilekin dantzan egiteagatik (LEZ-027/021)

Urtean bitan egiten ziren jaiak: Pazkoa Pentekostes, eta Santa Kruzak irailean. Bandak jotzen zuen eta dantzan egiten zuten baltsean, baina neskek neskekin. Mutilarekin dantzan egindakoak Mariaren Alaben egunean aldarera igotzen zituzten banda more batez, lotsagarri uzteko.

530. Hilabeteko ezkontza-bidaia (LEZ-027/027)

Lezon ezkondu eta Donostian egin zuten ezkontza bazkaria. Bilbora eta Iruñe;era joan ziren hilabete iraun zuen ezkontza-bidaian. Hoteletan egon ziren

531. Soineko beltzaz ezkondu (LEZ-027/029)

Soineko beltz oso polit batez ezkondu zen, jostun on batek egindakoa. Egun handia izan zen ezkontza eguna.

532. Erreketeek ama eta hiru seme hil zituzten, eta hegazkinek Lezo bonbardatu (LEZ-027/032)

Lezoko baserri batean, ama eta hiru seme hil zituzten erreketeek, eta beldurra nagusitu zen herrian. Gerraontzien kanoikadak entzuten zituzten. Hegazkinek hamalau bonba txiki bota zituzten herrian. Bonbardaketa nola gertatu zen kontatzen du zehatz-mehatz. Hainbat hildako eragin zituen.

533. "Tiki-mikiak" errepublikazaleen eta nazionalisten artean (LEZ-027/036)

Errepublikazaleen eta nazionalisten artean "tikimikiak" izaten ziren: Kanpotarrak zein hemengoak zeuden errepublikanoen artean. Umeak antzerki-lekura sartzen ziren batzokian. Goian bilera lekua zegoen baina nagusientzat.

534. Maddi pospolina (LEZ-027/038)

Bazen neskak dantza-taldea batzokian: pospolinak. Maddi pospolina izan zen. Zinta-dantzaren musika kantatzen du. Ariztiberry baserrira joan ohi ziren egun pasa taldearekin, dantzan egin, jan eta ondo pasatzera.

535. Pospolinen jantziak eta dantzak (LEZ-027/039)

Pospolin-jantzia nolakoa zen deskribatzen du. Gezala familiakoak ziren erakusleak. Oso pozik ibiltzen ziren. Zinta-dantza eta hilanderena (gorulariak) ikasi zituen Maddik.

536. "Hondartzara" bainatzera (LEZ-027/046)

Marea igotzen zenean aurreko hondartzara joaten ziren bainatzera. Zikina omen zen oso. Ez zuten bainujantzirik eta arropa zaharrekin bainatzen ziren. Maindirearen azpian aldatu. Mutilak eta neskak ez ziren batera ibiltzen.

537. Hika beti anai-arreben artean (LEZ-027/047)

Beti hika egin izan dute anai-arreben artean, nahiz eta amak inoiz errieta eman. Maddiri hika egitea gustatzen zaio.

538. Errotetara edo Gaztaiñera bainatzera eta Guadalupera goiz-buelta (LEZ-027/049)

Hika hitz egiten zuten. Erroteta eta Gaztaiñera zuten izena eurak joaten ziren hondartzak. Guadalupera igande goizetan behin baino sarriago, 18 kilometroko joan-etorria. Meza entzun eta bazkaltzera etxera.

539. Amona alkateari aurre egiteko gai (LEZ-028/004)

Amonak nortasun handia zuen, oso emakume berezia zen. Berari buruzko istorioa kontatzen du: beraien etxeak ez zuen jaberik, eta alkateak kobratzen zuen errenta. Behin, ordea, alkateak muturra sartu nahi izan zuen etxean, eta amonak ez zuen hori onartu. Orduan, etxearen benetako jabearen aztarna bilatzen hasi zen. Tiraka eta tiraka, azkenean lortu zuen bere helburua.

540. Etxean bizitzeko, txukun jarri zuten dena (LEZ-028/006)

Etxea oso zaharra zen, 400 urte inguru zituen, eta lan asko ematen zuen. Bertan bizi nahi zutenez, txukundu egin zuten, eta behar zituzten azpiegiturak sortu. Etxeko askari buruz hitz egiten du; hura ez zen nahikoa familiarterko guztien arropa garbitzeko, eta osabak beste aska bat eraiki zuen.

541. Amonak garrantzi handia ematen zion eskolar (LEZ-028/017)

14 urte zituen arte izan zuen eskolara joateko aukera. Garai hartan, ume asko ziren eskolara joan ezin izaten zutenak. Beraiek, ordea, beste ezeren gainera, eskolara joan behar izaten zuten, hala agintzen baitzuen amonak.

542. Bi maistra, ikasteko bi modu (LEZ-028/020)

Izandako maistrei buruz hitz egiten du. Maistra haietako bati, eskuinekoa izan arren, eskolan ez zitzaion nabaritzen. Beste maistra bat oso zaharra zen, eta haren bizitzari buruz hitz egiten du. Ezin izan zuten askorik ikasi harekin.

543. Oiartzun ibaiaren gaineko zubiari buruzko bertsoak (LEZ-028/026)

Etxean asko abesten zuten. Aitak bertso asko zekizkien. Erreterian, bertsolari ugari egon izan da. Oiartzun ibaiaren gainetik pasatzen den zubia egin zuteneko bertsoak abesten ditu.

544. Etxean, abesteko ohitura handia (LEZ-028/028)

Etxean kanta eta bertso asko abesten zituzten. Amonak arropa konpontzen zuen bitartean, abestu egiten zuen.

545. Osabak gauza interesgarriak gordetzeko ohitura zuen (LEZ-028/029)

Lehen, bertsopaperak egoten ziren, eta etxean edukitzen zituzten. Osabari gauza interesgarriak jasotzea gustatzen zitzaion; eta etxekoek errespetu handia zioten osabaren armairuari. Hura hil zenean, paper baliotsuak zituela konturatu ziren.

546. Jan ala ez, hori da galdera (LEZ-028/030)

Gerra osteko gosea ezagutu zuen Joxepatxok. Amonaren esanak gogoan ditu; ez zen segurua izaten hurrengo egunean jatekorik izango ote zuten.

547. Sukaldaritza modernoa? Garai batean, betiko janaria bizitzeko modu bakarra (LEZ-028/031)

Aitak "Compañía Real Asturiana de Minas"en egiten zuen lan; eta, horregatik, hainbat abantaila izaten zituzten. Etxean, gosea pasa zuten, baina ez hainbeste. Garai hartan, zer jaten zuten aipatzen du: arrain asko zegoen, baina hura prestatzeko oliorik ez. Gaur egungo sukaldaritza modernoa dagoeneko egiten zuten Joxepatxoren aurrekoek, lehengai falta baitzen garai hartan.

548. Etxean, umorea ez zen falta (LEZ-028/032)

Izebaren anekdota kontatzen du. Etxean barre asko egiten zuten.

549. Elias Salaberria margolaria (LEZ-029/001)

Lezoko Elias Salaberria margolariari buruz hitz egiten du. Senitartekoak ziren, eta asko joaten zen haren etxera. Etxe hartan zein bizi ziren.

550. Salaberria margolariaren koadroak (LEZ-029/002)

Elias Salaberria margolariaren koadroak. Elkanoren lehorreratzea zuen margotuta. Harri jasotzailearen margolana. Berari ere erretratua egin zion: estudiara joan zen lau arratsalde, 20 urterekin, posatzera; lantegiko jabeari baimena eskatu zion. Lorategia zuten eta bi zakur. Ezkontzeko esan zion Salaberriak, ez neskazahar geratzeko. Eta ezkondu zen, bai.

551. Salaberriak bera ere margotu zuen (LEZ-029/004)

Salaberria margolariaren kontuak. Estudioa handia zen. Jendea joaten zen udan, Madrildik, eta bisitan joaten zitzaizkion. Bera agertzen den koadroan mutil bat ere badago, Oiartzungoa. Margolana erakusten du.

552. Izeba Mariaren denda; Lezoko dendak (LEZ-029/006)

Izeba Mariak janari denda zuen (Lezoko Erreketxe baserrikoa). Osabak tailerra zuen, altzariak egiten zituen. Martzisanea zen beste janari denda bat. Urbanak ere denda zuen: Urbanania.

553. Pospolina izan zen (LEZ-029/008)

Kursaalera joaten ziren, pospolinetara. Zazpi urte zituen. Dantza egiten zuten: sagar dantza, zinta dantza... ez da kantuekin oroitzen. Batzokira joaten ziren entseatzera.

554. Haurtzaroko Lezon, jolasean eta arrantzan (LEZ-029/009)

Lehengo Lezoren oroitzapen polita du. Kalea bizi-bizi egoten zen, denak jolasean. Kaian bainatzen ziren. Maria Luisa Salaberriak batela zuen; pantxoak eta txitxarroak harrapatzen zituzten.

555. Arraiketariak; arraina nola prestatu (LEZ-029/010)

9 urterako bazekien arraina nola garbitu. Donibanetik etorritako arraiketariei erosten zieten. Arrain motak aipatzen ditu. Oliotan egiten zituzten.

556. Lezoko sagardotegiak (LEZ-029/011)

Lezoko sagardotegiak. 16 edo 17 izan ziren, bere aita gaztea zenean. Ataundarreanean zegoen bat. Handiena Alaietxan zegoen, Adrian Salaberriarena.

557. Agustina Lizarazurekin eta goiko eskolan (LEZ-029/012)

Agustina Lizarazu maistrarekin ikasi zuen dotrina, abesten, idazten... euskaraz. Zazpi urterekin goiko eskolara joan zen. Han erdaraz.

558. Sagardotegiko giroa eta sagardoa (LEZ-029/013)

Sagardotegira pitxarrarekin joaten zen, zizarraren bila eta sagardo bila. Baina gizonezkoak joaten ziren bestela. Lezoko sagardotegiak aipatzen ditu. Salaberriarena zen handiena. Lanpernak jateko ohitura. Aiton-amonek urte guztirako sagardoa eramaten zuten etxera.

559. Beraneanteek bi pezeta eman zizkieten (LEZ-029/015)

Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren. Udan Donostiara joaten ziren beraneanteak; dilijentzian joaten ziren Lezora. Santo Kristoa non zen galdetu zieten, eta azalpenen truke zilarrezko bi pezeta eman zizkieten. Goxokiak erosi zituzten diru harekin. Kaniketan jolasten tranpa egin zion behin batek, baina ez zen normalena.

560. Karramarrotan eta izkiretan; angulak (LEZ-029/017)

Lezoko kai ingurua nolakoa zen. Karramarrotan ibiltzen ziren. Salabardoak beraiek egiten zituzten (nola azaltzen du), eta izkiretan. Anguletara joaten zen jendea Oiartzungo errekarra, gauez.

561. Santakrutzak (LEZ-029/019)

Santakrutzak nolakoak izaten ziren. Xexenak izaten ziren, sokamuturra. Baserriko tresnak saltzen zituzten goiko plazan.

562. Kandelak eta bertso-paperak (LEZ-029/022)

Gurutze Santurako kandelak sltzen zituen Kandelariak, Donibane kalean. Bertso-paperak saltzen zituen gizon batek. Aitak erosi egiten zituen, eta kantatu egiten zituzten, baina ez ditu gogoan.

563. Kale Nagusiko giro alaia II (LEZ-029/024)

Igandero txistulariak joaten ziren Lezora, Donibanetik. Polentziren etxea aipatzen du; hantxe egiten zuten dantza, berak txistua jo bitartean.

564. Lezon egin dituzten aldaketak (LEZ-029/026)

Aldaketei buruz hitz egiten du. Pena ematen dio. Erreterria ere asko aldatu da. Belaontziak noraino iristen ziren. Uholdeak.

565. Gerrako zaurituak ikustera (LEZ-029/029)

Gerrako oroitzapenak: zaurituak ikustera joaten ziren. Gurutze Santuan zegoen enfermeria. Gerrak aldaketa ekarri zuen, baina beraiek beti euskaraz aritu dira kalean.

566. Arropa garbitzeko pausoak (LEZ-030/007)

Arropa eskuz garbitzen zuten. Arropa garbitzeko, Txinbo eta Lagarto erabiltzen zuten. Arropa garbitzeko, lehortzeko eta plantxatzeko nola moldatzen ziren aipatzen du.

567. Sukaldeko ekonomia eta labea (LEZ-030/011)

Lehen sukaldean ekonomia eta zerrauts-labea zeuzkaten. Nola funtzionatzen zuten eta nola garbitzen zituzten azaltzen du.

568. Kongregaziotik etxera kontu eske (LEZ-030/019)

Mutilekin dantza lotua egiteagatik, kongregazioan zigortu egiten zituzten. Behin ahizpak dantza lotua egin zuen eta kontuak eskatzera etorri zitzaizkion etxera.

569. Gerran babes bila hara eta hona (LEZ-030/028)

Gerra garaia gogoan du: hegazkinak etortzen ziren, elizan babesten ziren, kanpaiak jotzen zituzten hegazkinak zetoze la abisatzeko, Donostiara joan ziren Lezotik ihesi, Auxilio Socialera joan ziren, Lezora ezkutuan itzuli ziren...

570. Kaletik baserrira, eta baserritik kalera (LEZ-031/002)

3 urte zituela, ama hil zitzaion. Orduan, Gaintxurizketara eraman zuten, baserrira. Han, eskolan ibili zen 8 urtera bitartean. 8 urte zituela, aita berriro ezkondu zen, eta kalera etorri ziren bizitzera. Aitaren 2. emaztea Lezokoa zen; eta oso ondo moldatu ziren elkarrekin, oso emakume ona zen.

571. Euskaraz hitz egiteak arazoak ekar zitzakeen garaia (LEZ-031/006)

Uneko eskolan ikasi zuen 8 urte izan arte. Erdaraz ikasten zuten, euskara galarazita zegoen eta. Soldadutzan, euskaraz egiteagatik gertatutakoa kontatzen du.

572. 14 urte bete baino lehen, altzari-fabrikan lanean (LEZ-031/011)

14 urte betetzeko hilabete falta zuela, Errenteriako Urbieta altzari-fabrikan hasi zen lanean. Lan egitea asko gustatzen zitzaion.

573. Gaztetatik arotz fina (LEZ-031/012)

Urbieta ebanisterian 4 urte eman eta gero, Trintxerpeko Erkizia aroztegira joan zen lanera, lan-baldintza hobeak eskaintzen baitzizkioten han. 16 urtez egon zen han. 18 urte zituenerako, Erkiziaren alaben arreoak egin zituen; soldadutzara joan behar izan zuenez, baina, anaiak jarraitu zuen berak bukatu gabe utzitako lana. Garai hartan, eskuz egin behar izaten zen lan asko.

574. Kooperatiba sortu, eta arrakasta izan (LEZ-031/014)

20 urtean arotz-lanetan ibili ostean, kooperatiba sortu zuten Trintxerpen: "industrias Guria". Han, barkuak egin eta konpontzen zituzten. Negozioa ondo zihoanez, Irunen beste fabrika bat ireki zuten. Kooperatiban, 30 urte egin zituen, eta handik hartu zuen erretiroa.

575. Aroztegiko garai bateko tresnak eta materialak (LEZ-031/016)

Aroztegian, hasiera batean, dena eskuz egiten zuten. Orduko tresna eta materialei buruz hitz egiten du. Gaur egun, lana asko erraztu da.

576. Egurra lehen nola mozten zuten (LEZ-031/017)

Lehen, egurra nola mozten zuten azaltzen du.

577. Arotz-lanetako hastapenak (LEZ-031/018)

Urbieta altzari-fabrikan lanean hasi zenean, zer lan mota egin behar izaten zituen azaltzen du. Pixkanaka, lan zailagoak ematen hasi zitzaizkion; eta, 4 urteren buruan, denetik egiten zuen. Orduko lan-banaketa eta prozesuaz hitz egiten du.

578. Altzariak eta egurra garraiatzeko, gurdia (LEZ-031/020)

Erkizia aroztegian aritu zenean lanean, etxeetara joaten ziren neurriak hartzera. Lanerako egurra lortzeko, gurdia erabiltzen zuten; gurdia aldapan gora igotzeko, komeriak izaten zituzten, baina moldatzen ziren. Altzariak egin, eta bezeroen etxeetara eramateko, gurdia erabiltzen zuten. Beraiek tiratzen zuten gurdia.

579. Altzarien prezioen arteko aldeak (LEZ-031/021)

Altzarien prezioetan, aldeak zeuden. Pako Arrieta, "El Muki", tailugileari buruz hitz egiten du. Oso tailugile ona zen, Espainiako bigarren onena; haren lanak garestiak ziren. Lehen, altzari guztiak eskuz egiten ziren; ez zegoen altzari-dendarik.

580. Itsasontziak egiteko materialak (LEZ-031/023)

Guria kooperatiban, ontziak egiten zituzten; eta, Irungo fabrikan, hondeamakinak. Itsasontziak egiteko, zer material erabiltzen zuten azaltzen du.

581. Barku txikiak nahiz handiak egiten zituzten (LEZ-031/024)

Barku handiak egiten zituzten gehienbat: hasierakoak txiki xamarrek ziren, baxurakoak; gerora, alturakoak egiten hasi ziren, arrastekoak, atunetara joatekoak.

582. Itsasontziaren zatiak egin eta muntatzeko prozesua (LEZ-031/025)

Itsasontzi bat egiteko prozesuan, txapa eta egurra erabiltzen zituzten. Txapazko kroskoak (kaskoak) Zumaian egiten zituzten. Zumaiaitik Pasaia, itsasontziz ekartzen zituzten pieza haiek; eta, orduan, beraiek dena muntatzen zuten. Ontzietako zubiak egiteko, altzari asko egin behar izaten zituzten: aparatu bakoitzarentzat, altzari bat.

583. Barkuak egin bitartean, ikuskariak (LEZ-031/028)

Beraiek egiten zituzten atunketariak Bermeorako izaten ziren. Baxurako ontziak, ordea, Orio, Getaria, Hondarribi, Mutriku... alderako. Barkuak egin bitartean, ikuskariak (inspektoreak) etortzen ziren begiratzera, nola egiten zuten lan ikustera.

584. Itsasontzia egiteko azken pausoak (LEZ-031/031)

Itsasontzia egindakoan, margotu egiten zuten, eta egonkortasun-probak egiten itsasoan. Probaren emaitzen arabera, lasta gehiago edo gutxiago sartu behar izaten zuten. Geroago, itsasoko probak egin behar zituzten.

585. Itsasontzi berriaren uretaratzea (LEZ-031/032)

Itsasontzi berri bat egiten bukatzen zutenean, uretaratzea egiten zuten; orduan, xanpain-botila hausten zuten.

586. 4 urtetik behin, atunketariak goitik behera begiratu behar (LEZ-031/033)

Barku berri bat uretaratu ostean, konponketak egin behar izaten zituzten gerora. Atunketariak 4 urtetik behin begiratu behar izaten ziren, goitik behera: "cuatrinal" deitzen zitzaion horri, eta garestia izan ohi zen. Barkuek makineria asko eta aurreratua izaten dute gaur egun; lehen, ordea, ez.

587. Arrantzaren garai onak (LEZ-031/034)

Itsasontziak egiten ez ezik, konpontzen ere lan asko egin izan du. Trintxerpen lanean zebilen garaian, portuan 200 barku baino gehiago ibiltzen ziren. Garai hartan, arrain asko harrapatzen zen: egunean, 25 barku ere deskargatu ohi ziren, eta arrain-irina sortzen zen.

588. Aitonaren anekdotak eta azken hitzak (LEZ-031/044)

Aitona bertsozalea zen. Aitonaren garai bateko anekdotak kontatzen ditu. Aitona hil zenean, Jose Krutz haren ondoan zegoen, eta aitonak esaten zizkionak gogoan ditu; ez zuen ulertu zer esan nahi izan zion.

589. Bertso zahar batzuk (LEZ-031/045)

Gaztetan abesten zuten bertso zaharrak kantatzen ditu.

590. 'Lexoti' eta 'Lazkao Txiki'ren ateraldiak (LEZ-031/049)

Lexoti eta Lazkao Txiki bertsolariei buruzko anekdotak kontatzen ditu.

591. Buru gainean fruta hartuta saltzera (LEZ-032/003)

San Juanera joaten ziren esnea, fruta eta barazkiak saltzera astoarekin; eta astoak eraman ezin zuena, "burukia" jarrita, buruan eramaten zuten. Kanean saltzen zuten, apurka-apurka, Donibaneko plazaraino iritsi arte. Jendeak, produktu freskoak estimatzen zituen. Beti ez zuten, ordea, dena saltzen.

592. Ilunetan eta bakarrik errotaraino (LEZ-032/007)

Gauetz ibili izan zen bakar-bakarrik; orain ez litzateke ausartuko. Emakume askorik ez zen ibiltzen horrela, baina ez zuen beldurrik. Orduan ez zen autoentzako biderik ere.

593. Irakasle erdaldunik nahi ez (LEZ-032/009)

Eskolan hasi zenean, maistra erdalduna zen eta ez zuen joan nahi izaten. Negarrez joaten zen, Dolores izena zuen maistrak: ona omen zen, baina Margaritak erdaraz ez nahi. Gero, Miren Gesalarekin hasi zen, euskalduna zen bera. Klase partikularrak hartzen zituen harekin, hilean 5 pezetaren truke. Hura ere oso ona omen zen. Eskulanak ikasi zituen Mirenekin eta baita, idazten, irakurtzen eta kontuak ateratzen ere. Erdaraz ikasi zuen. Larunbatetan berriz, arrosarioa eta dotrina euskaraz ikasi zituen komunioa egiteko.

594. Pospolin bezala dantzan (LEZ-032/010)

Zortzi edo bederatzi urterekin, pospolin hasi zen. Irlandarak, sagar-dantza... egiten zituzten. Batzokian teatroa egiten zenean ere, egiten zuten dantza.

595. Dantzarako abestia (LEZ-032/011)

"Han urrin", txikitan dantzan egiteko abesten zuten abestia, pospolinena.

596. Gonarekin burua estalita, dantzan (LEZ-032/012)

Dantza nola egiten zuten azaltzen du. Bi gona zituzten, eta gainekoa burura botata bueltaka ibiltzen ziren, kantu hori kantatuz. Dantzak Miren Gesalak irakasten zizkien, baita bere ahizpa Elixabetek ere.

597. Sagar-dantzaren abestia (LEZ-032/013)

Sagar-dantzaren abestia, oraindik ere gogoan du doinua behintzat.

598. Behiak zainduz karramarrotan edo galtzerdiak egiten (LEZ-032/016)

Eskola utzita, baserriko lanei ekin zien. "Grama-belarra" jaten zuten behiek, esnearentzat ona izaten zen, behiek esne gehiago ematen zuten. Behiak eraman, eta ur-ertzean aurkitutako potoekin karramarroak eta muskuiluak harrapatzen ibiltzen zen. Galtzerdiak ere eramaten zituen, behiak zaindu bitartean egiteko.

599. Mutilari besotik heltzea ere bekatu. (LEZ-032/024)

Ahizpa eta biak beren mutilekin zinera joan zirenekoa gogoratzen du; lotsa galanta pasa omen zuen. Istripua izan eta ez zitzaion gehiago mutila etorri.

Ezkundu aurretik, ordea, izan zuen beste mutil bat ere. Txikierrira dantzara joanda ezagutu zuen senarra izango zuena.

600. Anaiarekin dantza egiteagatik, zinta morea (LEZ-032/025)

Mutilarekin dantza egitea bekatu zen; eta zigorra, zinta morea eramatea. Anaiarekin dantza eginda ere, zinta morea jarri zieten berari eta lagunari. Gustuko mutila tokatuz gero, dantza berdin-berdin egiten zuen Margaritak.

601. Amak beste bi haur hazi zituen (LEZ-032/026)

Amak bere ondoren jaiotako bi haurrak galdu zituen. Eta beste bi haur hazi zituen, bularra emanez: mutiko bat eta neskato bat. Neskarekin gogoratzen da, Maite zuen izena, eta koskortu zenean eraman zuten berriro gurasoek.

602. Emakumeak baserriko lan guztiak egin behar (LEZ-032/029)

Gerra garaian, emakumeek lan asko egin zuten. Bi anaiak soldadu joan ziren, eta koinatua etortzen zen laguntzera, lanetik aterata. Inguruan egon ziren soldadu euskaldunak ere etortzen ziren laguntzera, tarteka. Gosea ere pasa zuten, soldaduek zaldientzako zuten jana saltzen zieten, eta hauek huraxe jan. Barrakoietan, baldintza eskasetan egoten ziren.

603. Soldaduen gabardina, ahizpari opari (LEZ-032/031)

Etxean, "gorriek" ekarritako bonbak, gabardinak, armak... izaten zituzten. Hara etortzen zen teniente batek ihes egiteko esaten zien, aziendak eta guzti hartuta.

604. Soldaduei esnea ematen (LEZ-032/032)

Soldadu mordoa jaitsi zen menditik behera; ondoko baserrikoek esnea eman zieten. Gogoan du soldadu batek "Gora Euskadi askatuta!" oihukatu zuela.

605. Arropa nola garbitzen zuten (LEZ-033/003)

Arropa garbitzera erredera joaten ziren. Anaiak harakinak ziren eta haien laneko arropa Ritak garbitzen zuen. Arropa nola garbitzen eta lehortzen zuten azaltzen du.

606. Baserriko lanetarako janzkera (LEZ-033/007)

Baserrian abarkak erabiltzen zituzten. Astegunetako janzkerari buruz hitz egiten du: mantala ezinbestekoa zen, gona eramaten zuten, belarretan zebiltzala zapia jartzen zuten buruan... Mantalak etxean josten zituzten.

607. Jaietako arropa erostera Donostiara joaten ziren (LEZ-033/008)

Jaiegunetarako arropa berezia izaten zuten. Arropa hura egiteko tela Donostian erosten zuten, Alde Zaharreko Muñagorri dendan. Donostiara erosketak egitera joaten ziren bakoitzean, pastel bat erosten zien amak. Amak garrantzia ematen zion txukun jantzita joateari.

608. "Nik zuk emandako pitarra edango nuke" (LEZ-033/012)

Senarra Biteri kalean ezagutu zuen. "Nik zuk emandako pitarra edango nuke" esaten zuten mutilek neskei etxera laguntzeko eskaintzeko. Neskak eta mutilak nola erlazionatzen ziren aipatzen du. Gari hartan ezin zuten dantza lotua egin mutilekin, kongregazioak bestela zigorra jartzen baitzien. Batzuek ez zuten zigorra onartzen eta kongregaziotik ateratzea erabakitzen zuten.

609. Gerrako oroitzapenak eta sufrimenduak (LEZ-033/017)

Gerra hasi zenean, 6 urte zituen Ritak. Orduko oroitzapen batzuk gogoan ditu. Jende askok etxetik ihes egin zuen gerra hasi zenean. Anaia bat gerran hil zen.

610. Gerrako ezbeharrak eta beldurrak (LEZ-033/018)

Gerra hasieran, jende asko ezkutatu zen Jaizkibelen. Geroago, borrokak izan ziren Miura inguruan. Ama bat eta haren hiru semeak hil zituzten gerran. Bala-soinuak entzuten zituztenean, ezkutatu egiten ziren. Bonbak ere bota zituzten Lezon eta jendea hil zen orduan.

611. Gerrako giroa eta bidegabekeriak (LEZ-033/019)

Jaizkibelen "Langileen Batailoia" egon zen bidea egiten. Soldaduak barrakoietan egoten ziren. Elizan mezan Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Behin bi soldaduk atzetik jarraitu zioten Ritari ilunabarrean eta beldurra pasa zuen.

612. Anaien esperientzia gerran (LEZ-033/022)

Anaia bat 7 urte egon zen soldadu. 18 urte zituela eraman zuten gerrara, eta oso gogorra izan zen agurra amarentzat. Etxera itzuli zenean, oso gaixo zegoen; Mola ospitalean egon zen ingresatuta. Beste anaia 6 urte egon zen gerran, baina sukaldaria zenez, ez zen hain gogorra izan esperientzia.

613. Gerra osteko elikadura (LEZ-033/024)

Gerra ostean gosete eta miseria handia egon zen. Auzoan bazeukaten artoa txikitzeko makina bat; handik lortutako "irina" esnetan egosi eta jan egiten zuten: "Pantxito" deitzen zioten plater horri. Babarruna eta odolkia asko jan zuten garai hartan; ogia, ordea, ez zegoen eta taloa jaten zuten.

614. "Mataburros" eta "la Pescadora" (LEZ-034/005)

Etxearen jabea "Mataburros" deitzen zioten, behin tranbiarekin asto bat hil zuelako. Bere familiari "la Pescadora" deitzen zioten, ama antxoak eta sardinak saltzen ibiltzen baitzen. Amak Donostiako portutik ekartzen zuen arraina Lezora eta kalez kale saltzen zuen. Arraina buru gainean eramaten zuen amak.

615. Osabarekin dantzatzeagatik zigorra jaso zuenekoa (LEZ-034/010)

Lezoko plazan dantza soltea egiten zuten. Amaliaren osaba bat Bilbon bizi zen, oso gizon dotorea zen; haren lana arratoien aurkako pozoia jartzea izatean zen. Behin osabak dantzatzera eraman zuen, eta horregatik zinta morea eraman behar izan zuen zigor gisa.

616. Gerrako oroitzapenak (LEZ-034/028)

Gerra hasi zenean, 11 urte zituen Amaliak. Orduko oroitzapenak aipatzen ditu. Baletatik babesteko, koltxoiak jartzen zituzten leihoetan. Jende askok herritik ihes egin zuen, baina beraiek Lezon geratu ziren. Bizilagunekin izandako harremana kontatzen du.

617. "Langileen Batailoia" Jaizkibelen (LEZ-034/032)

Langileen Batailoikoak Jaizkibelgo bidea egiten izan ziren Lezon. Inguruko etxe guztiak begiratu zituzten soldaduek. Orduan apaizarekin bizitakoak kontatzen ditu.

618. Lehengusinarekin maitemindu zen erreketea (LEZ-034/033)

Eibarren erreketek bat maitemindu egin zen Amaliaren lehengusinarekin; gerran, baina, hil egin zen. Hala ere, mutil haren familiarekin oso harreman ona izan zuten aurrerantzean.

619. Langileen Batailoikoen sufrimendua (LEZ-034/035)

Langileen Batailoia Jaizkibelen egon zen; soldaduek udaletxe azpira ekartzen zituzten langile haiek eta jo egiten zituzten.

620. Señorita Jesusarekin eskolan (LEZ-035/003)

Herriko eskolara joaten zen. Señorita Jesusa zen maistra. Zorrotza, erdalduna. Errieta ematen zieten euskaraz aritzeagatik, baina zigorrik ez du gogoan. Izan zen beste eskola bat Lezon baina berak ez zuen ezagutu.

621. Zinta moreaz dantzan egiteagatik (LEZ-035/005)

Lezoko bikarioa oso zorrotza zen. Ez zien uzten ezta barre egiten ere. Are gutxiago dantzan. Nahiz eta debekatuta izan, Oialumera joan ziren dantzara pare bat aldiz. Bikarioa enteratu eta zinta moreaz ibili bihar izan zuten Mariaren Alaben kongregazioan.

622. Barre egitea debekatuta (LEZ-035/006)

Igande arratsaldeko plana: 15:00etatik 16:00etara dotrina. 16:00etan bezperak, gero 'Acción Católica' edo ez dakit zer, beste ordubete. Dantza egiteagatik errieta eta zigorra. Igande arratsaldetan lagunak "kaminoan gora" Gaintxurizketa aldera joaten ziren, eta barre handiak egiten zituztelako kargu hartzen zien apaizak, "barrenen demonioak" izango zituztela eta.

623. Erretereriako Biteri kalean aurrera eta atzera (LEZ-035/007)

Erretereriara joaten hasi ziren gero. Gaztainak erosten zituzten Viteri kalean, baina ez zuten tarterik izaten zinera joateko. Han elkartzen ziren mutilekin eta hitz egiten zuten. Gogoan du behin diru guztia gastatu zutela, ez zutela zentimorik ere komunera joateko eta lehengusu bati eskatu ziotela.

624. Ehundegian lanean (LEZ-035/010)

Arreoa bere lantegian egin zuen. Ehundegian egiten zuen lan, "telare" batean. Arropa zuria (okre kolorekoa ere bai) egiten zuen.

625. Lopeneko harrobia (LEZ-035/014)

Senarrak, fabrikan egiteaz gain, Lopeneko harrobian egiten zuen lan. Zabor-biltzaileak fruta ekartzen zieten handik. Harri asko ateratzen zen harrobi horretatik eta kamioi mugimendua handia egoten zen.

626. Bordatxo sagardotegia (LEZ-035/015)

Bordatxo sagardotegian jende asko ibiltzen zen. Etxetik jana eramaten zuen jendeak eta han sagardoa hartu. Lagunak ere joaten ziren giroa ikustera. Gizonak joaten ziren batez ere sagardotegietara.

627. Gerra hasieran, amaren gonari helduta ihesi (LEZ-035/017)

Gogoan du gerra hasieran nola joan zen Donibanera senide batzuen etxera amaren gonari helduta. Amak ez zuen nahi izan aurrera ihesi joaterik, nahiz eta aita ahalegindu. Irun aldean gerra zantzuak ikusten zituzten, sutan ageri ziren baserriak eta. Donibanen jendea dendak sakeatzen ikusi zuen.

628. Ikurrina zinturoian zeramatelako hil (LEZ-035/018)

Aita Jaizkibel aldean ibili zen armada errepublikanoari laguntzen. Hiru lagun hil omen zituzten frankistek, gerrikoan ikurrina eramateagatik. Bere familia baserritik Donibanera jaitsi zen fronteak iraun zuen garaian, eta bitartean beste familia batek okupatu zuen beren baserria.

629. Zartaginari keinua olioarekin eta aurrera (LEZ-035/021)

Errazionamenduko txandara joaten ziren. Oso ogi txarra ematen zuten. Gose handia pasatu zuten. Hilabeteak irauten zuen olio botilak. Zartaginari olioaz "keinua egin" eta aurrera.

630. Gizonezkoak bizikletaz eta emakumeak oinez lanera (LEZ-035/026)

Goizean lehendabizi baserritik Lezoko elizara joaten ziren otoitz egitera, eta gero zuzenean lanera oinez Errenteriara. Gizonezko asko bizikletan joaten zen.

631. Sagardoa hankekin zanpatzen dolarean (LEZ-035/029)

Umetan dolarean ibiltzen ziren jolasean, sagardoa zanpatzen eta. Patsa, gelditzen zen azala, abereei ematen zitzaien jateko. Gero, gurdian eramaten zen kupeletan ("garlia") etxera sagardoa. Pitarra urte guztian edaten zuten, oso gustura gainera. Kupeletik txarrora atera eta handik edaten zuten, baso beharrik gabe.

632. Arropa garbitzen (LEZ-035/031)

Ez zen garbigailurik. Labaderoan egiten zuten garbiketara. Buruan eramaten eta ekartzen zuten arropa. Marruskatu, xaboia eman eta zelaian zabaltzen zuten. Anila erabiltzen zen arropa zuriari urdin ukitua emateko. Lagarto eta Chimbo xaboiak erabiltzen ziren. Baserritar batek egiten zuen lejia erabiltzen zuten.

633. Guadalupeetarako bata berria (LEZ-035/033)

Astegunetan bata janzten zuten. Urtero Guadalupeko festetarako bata berria. Tela erosi eta egin egiten zen. Guadalupera abarketa zaharrekin joan eta poltsan eramandako berriak janzten zituzten.

634. "Trabajadoreak" baserrian (LEZ-035/037)

Gogoan du Jaizkibelgo bidea egiten ari ziren "trabajadoreak" (Langileen Batailoiak) baserrian egon zirela, eta musika jotzen eta kantari jarduten zutela. Haiei entzuteko irrikatan egoten ziren. Txekorra harrapatu zutela ere entzuna du.

635. Astoari saskia, saskiari marmita (LEZ-036/002)

Behiak eta txekorrak izaten zituzten baserrian. Txerriak ere. Pare bat hiltzen zituzten urtero, etxerako. Oiloak ere bazituzten. Esnea kalera saltzen jarduten zuten egunero. Ahizpa zaharragoa joaten omen zen esnea saltzera, eta hau ezkontzearekin batera hasi zen Maritxu, hamaika urte zituela.

636. Esneketari lana (LEZ-036/003)

Bezero bakoitzaren etxeko ateraino eraman behar izaten zuen marmita Maritxuk, eta lan nekeza suertatzen zen batzuetan. Esneaz gain, barazkiak eta arrautzak ere gustura hartzen zituen jendeak.

637. Etxean laguntzen (LEZ-036/004)

Etxeko lan guztietan lagundu beharra egokitu zitzaion Maritxuri; amari etxe barruan, eta anaiei ere, kanpoan, belar kontuetan-eta. Garia egiten zuten ere, eta lanak jolas antza hartzen omen zuen txoriak uxatzea tokatzen zenean. Txorimaloa edo "onbretxaperoa" ere egiten zuten.

638. Garia erein eta biltzeko garaiak (LEZ-036/005)

Otsaila aldera ereiten zen garia. Maiatza aldera ateratzen zuen burua. Eta uztaila edo abuztuan biltzea tokatzen zen. Garia aletzeko jo egin behar omen zen, eta aleak garbitzeko, makina omen zen auzoan, etxe batetik bestera ibiltzen zutena. Maritxuren amak ogia egiten zuen etxean, naturala, gari-irinarekin egina.

639. Iturrira ur bila (LEZ-036/006)

Gerora jarri bazuten ere, Maritxu haurra zela ez zuten urik etxean, eta iturrira joan behar izaten zuten bila. 'Urketa joatea' esaten zioten horri.

640. Arropa berria erosi orde, adabatu (LEZ-036/008)

Oso sarritan hausten eta zulatzen zen arropa lehen. Adabaki asko jositakoa da Maritxu.

641. Uneko eskolan bi irakasle (LEZ-036/009)

Uneko eskolan hasi omen zen Maritxu, baina gero Erreteriarra aldatu zen, Rosarenera. Uneko eskolan bi irakasle omen ziren. Goizekoa neskena eta arratsaldekoa mutilena. Mutilena gaiztoa omen zen. Jo egiten omen zituan mutilak.

642. Uneko eskolatik Rosarenera (LEZ-036/010)

Maritxu Rosaren eskolan hasi zenerako barneratuak zituen garaiko 'oinarrizko ezagutzak': lau matematika ariketa oinarrizkoak, eta irakurtzen eta idazten jakitea. Hamabi edo hamalau urte inguru bete arte jarraitu zuen han ikasten. Rosarenera joaten ibili ziren bi-hiru urtetan bazkaria eraman behar izan zieten arrebek Pasaiaiko portuan lanean ziren anaiei

643. Baserrian lanean, uda eta negu (LEZ-036/011)

Eskola urteak amaitu eta baserriko lanetara mugatu zen Maritxu. Uda zein negu, galtzerdiak eta abarkak jantzi eta lanera: belarra ontzera nahiz erremolatxa ateratzera. Gero taberna ireki zuten baserrian.

644. Jai arratsaldetan Errenteriara (LEZ-036/013)

Jai arratsaldetan Errenteriako Biteri kalean ibiltzen omen ziren pasieran, beste hainbat bezala. Izan ere, hura zen mutiletan egiteko toki bakarra edo bakarrenetakoa. Bertan hasiko zen Maritxu gerora senar izango zuenarekin ibiltzen.

645. Ereñozura motorrean (LEZ-036/014)

Senargaiarekin ibiltzen hasi eta Ereñozura joan zirela gogoan du Maritxuk, San Antonetan, motorra hartuta.

646. Lezon ezkondu eta bidaia luzea egin (LEZ-036/015)

Elkarrekin hasi eta bi urte eta erdira edo ezkondu ziren Maritxu eta senargaia, Lezon. Bazkaria Oiartzungo Gurutze auzoan egin zuten eta bidaian Madrilera, Bartzelonara eta Palma de Mallorcara.

647. Baserrian taberna (LEZ-036/017)

Gaintxurizketan industria aldea eraikitzearekin batera, taberna jartzeko aukera ikusi zuten Irurtzun baserrikoek, bai eta etxean bertan zabaldu ere. Jatekoa ematen zuten, edatekoaz gain, eta Maritxu aritzen zen sukaldean.

648. Eguneko menua (LEZ-036/018)

Taberna jarri eta pixkana-pixkana geroz eta jende gehiago hasi zen eguneroko otordu nagusia bertan egiten. Bezero gehienak inguruko lantegietako beharginak izaten ziren. Maritxuk kontatzen du zein jaki eman ohi zituzten aukeran.

649. Goizean goizetik lanean (LEZ-036/020)

Goizean goiz hasi ohi zen Maritxu sukaldeko lanetan, taberna aurrera atera behar izan zuten garaian. Amak laguntza handia ematen zion gainontzeko etxeko lanetan, bai eta seme-alaben zaintzan ere.

650. Senarrak ikuzgailua opari (LEZ-036/021)

Ikuzgailua edo garbigailua oparitu zion senarrak ezkondu zirenean. Hainbat etxetan bezala, ez zen laguntza txarra izan Irurtzunekoentzat.

651. Amaren laguntza (LEZ-036/023)

Amak asko lagundu izan zion Maritxuri etxeko martxa eramaten. Tabernarako generoaren erosketak, aldiz, senarrak egiten zizkion. Maritxuk ez zuen

gidabaimenik atera, behin kotxea hartu, paretara jo eta beldurra sartu baitzitzaion.

652. Etxeko lanari etekina (LEZ-036/024)

Etxean egindako genero asko erabiltzen zuen Maritxuk tabernarako: arrautzak, barazkiak, lekaleak... Hala ere, erosketa handiak egin behar izaten zituzten Lezon zein Erreterian. Salda egunero prestatzen zuen, haragi mordoa sartuta.

653. Lehen sagardo gutxiago edaten zen gaur baino (LEZ-036/025)

Inguruko baserrietako jendea egunero hurbiltzen omen zen tabernara. Ardoa izaten zen edari estimatuena. Egun, lehengo aldean, sagardo asko edaten omen da, ordea.

654. 'Puntu'tan eta 'truk'ean (LEZ-036/026)

Baserritarrak karta jokoan aritzen ziren tabernan, 'puntu'tan eta 'truk'ean. Botila bat ardo edo tortilla bat izaten zuten jokoan, eta galtzaileak ordaindu behar izaten zuen. Gizonezkoak izaten ziren beti. Emakumerik ez zen tabernan ibiltzen.

655. Irurtzun eta Irurtzun Berri (LEZ-036/028)

Hasieran, Irurtzun baserrian jarri zuten taberna Maritxuk-eta; jaiotetxean. Gerora, industria-gunea altxa behar zutela eta, baserria eraitsi behar zela esan zieten. Pabiloi batean zabaldu zuten taberna berria, Irurtzun Berri, eta baita etxebizitza atondu ere, taberna gainean. Etxe berrira aldatu ziren egunean bertan bota zuten Irurtzun baserri zaharra, eta Maritxu hari begira egon zen etxe berriko leihotik. Ez omen zen samurra izan.

656. Suhia sukaldari (LEZ-036/029)

Egun erretiroa hartuta dago Maritxu. Suhia da orain Irurtzun Berriko sukaldeko arduraduna. Hala ere, sukaldera kukuren bat edo beste egiten omen du Maritxuk oraindik ere, uzten diotenetan.

657. Baserri zaharra gogoan (LEZ-036/031)

Tarteka gogoratu egiten da Maritxu lehengo baserri zaharrenekin eta hango tabernarekin, nahiz eta nahiago izaten duen horretan ez gehiegi pentsatu. Izan ere, berea izan baitzen etxean taberna jartzeko ideia.

658. Maritxuk prestatutako tripakiak (LEZ-036/032)

Ospetsuak ziren bezeroen artean Maritxuk prestatzen zituen tripakiak. Nola prestatzen zituen kontatzen du.

659. Jatetxean aukera zabala (LEZ-036/033)

Tripakiez gain beste hainbat gauza kozinatu ohi zuen Maritxuk: txuletak, haragia saltsan, oilaskoa... Eta entsaladak, oilaskoak entsalada behar omen du eta.

660. Apaizaren "bedeinkazioa" (LEZ-036/035)

Tabernan hainbeste lan eginda, Maritxuk ez zuen beste ezertarako astirik izaten; ez eta mezetarako ere. Behin, herriko apaizak kargu hartu zion elizara

joateko modurik ez zuela esateagatik. Gerora, ordea, apaiz horrek berak jakin zuen tabernako lana zela Maritxuren eragozpen bakarra, eta orduan bai; orduan onartu omen zituen Maritxuren ezinak.

661. Otea ekartzera basora (LEZ-037/002)

Neska koskorra zela hasi zen baserrian lanean. Gerra denboran bi ahizpak mendira joaten ziren ote bila. Etxean xehetu, ganaduei jaten eman eta berriz ote bila. Belarra bizkarka garraiatzen zuten.

662. Kafesne-zopak jatea eguneko lehen eginkizuna (LEZ-037/005)

Zazpiak aldera jaikitzen zen. Kafesne-zopak jatea izaten zuen lehenengo lana. Amonak egiten zituen taloak. Eguerdia arte lanean, etxean zein kanpoan. Beheko suan prestatzen zituen amak jatorduak.

663. Errekan arropa garbitzen (LEZ-037/007)

Arropa errekan garbitzen zuten eta belarretan zabaltzen zuten lehortzeko. Oso usain ona ateratzen zuen. Astean behin egiten zen garbiketa. Aitak Antxoko kaian egiten zuen lan ikatzarekin. Arropa zikina ekartzen zuen eta igandetan ere egin behar izaten zuten garbiketa.

664. Harrobian lanean "gizonak baino okerrago" (LEZ-037/009)

Harrobian "gizonak baino okerrago" aritzen omen zen bera. Harrian zuloa egin, dinamita sartu eta leherketa nola egiten zuten kontatzen du zehaztasun handiz. Gero idi-parearekin eta puntako behi batekin gurdian garraiatzen zituzten harriak, bera itzain zela.

665. Bakailao fabrikan lanean (LEZ-037/012)

Bakailao fabrikan (Pysbe) ibili zen lanean. Neguko lana zen. Barku barrura sartu eta bakailaoa harrotzen jarduten zuten. Kanpoan ere bai bakailaoa bereizten, txikiak eta handiak. Fabrika barruko lanak ere azaltzen ditu.

666. Ez zuen irakurtzen ikasi (LEZ-037/014)

Ez zuen irakurtzen ikasi. Ia ez zen batere joan eskolara. Oso maistra gaiztoa zuten, erregelaz jotzen zuen atzamar puntetan.

667. Pasai Antxora tratuarekin egunero (LEZ-037/017)

Errenteriaraino astoan eramaten zuten jeneroa eta gero handik Antxora tranbian. Buruan ere bai. Ama eta biak joaten ziren salerosketak egitera.

668. Senargaia esne saltzen ezagutu eta Txikierdin adiskidetu (LEZ-037/019)

Gizona Oiartzungoa zen eta Antxon ezagutu zuen, hura ere esnea banatzera joaten baitzen. Txikierdira joaten ziren dantzara eta han adiskidetu ziren. Urruti zegoen Txikierdi baina "orduan ez zen urrutirik".

669. Beldurrez airean, erreketek sartu zirenean (LEZ-037/021)

Erreketeak sartu zirenean, beldurrak airean zeuden. Aitak Jaizkibelera ("Aizkibelera" dio) egin zuen ihes, baina ez omen zer ezer larririk gertatu.

Jende askok egin zuen ihes. Migura baserriko ama eta bi seme hil zituzten erreketee, mutil batek gerrikoan ikurrina zeramalak.

670. "Baserritarrak aza-txurtenak janda ere egongo dituk" (LEZ-037/024)

Nafarroara joaten ziren errotara irina egitera. Kafea ehotzeko errotarekin ere ehotzen zuten artoa. Ona geratzen omen zen irin hori esnearekin ondo egosita. Barazkiak ere hartzen zituzten. Babarruna entregatu behar izaten zen. Kaletar bati etzundakoa: "Baserritarrak aza-zurtenak janda ere egongo dituk!"

671. Jostunarekin ika-mikan politikagatik (LEZ-037/029)

Josten ikasitakoa da Errenteriako Agustinarekin. Karlita amorratua zen eta beti ika-mikan ibiltzen zen ikasleekin. Patroiak egiten ere ikasi zuen. Askotan ez zuen metrorik izaten eta behatzekin konpontzen zen

672. Aitonari ikasitako bertsoa: "Oraindik gaztia da, hogeita sei urte..." (LEZ-037/032)

Aitonari ikasitako bertsoak kantatzen ditu, "Betroi zaharrarenak", horrela hasita: "Oraindik gaztia da, hogeita sei urte..."

673. "Hamarrak aldera jaikiko da..." bertsoa (LEZ-037/034)

Beste bertso bat, "Andre txarraren bentajak" sortaren lehenengo bertsoa dirudi:

674. Konfesatzera joan eta apaizari orduantxe gezurrik handiena esan (LEZ-037/037)

Mutilari "del brace" heldzea ere bekatua zen orduan. Konfesatzera joandakoan egundoko galdeketa egiten zieten, baina berak bikario zaharrari esango zion zer egiten zuen mutilarekin! Konfesatzera joan eta apaizari gezurrik handiena orduantxe esaten zion.

675. Zinta moreaz elizan, mutilarekin dantzan egiteagatik (LEZ-037/038)

Zinta morearekin ibilia da elizan, mutilarekin dantzan egiteagatik. Neskazahar batzuek eman omen zuten parte. Hala ere, oroitzapen ona du kongregazioaz. Polita omen zen giroa.

676. Ama buruan teila jarrita kanpora, elizan sartu arte (LEZ-037/040)

Umea bataiatu eta handik astebetera edo "elizan sartzea" izaten zen. Bitartean ezin amak etxetik irten, eta irtetekotan teila buruan jarrita. Garai hartan korrika joaten zen umea bataiatzera, umea hilko zen beldurrez.

677. Lezon egondako aldaketak (LEZ-038/002)

Lezoko kale nagusia eta Manuelen jaiotetxearen ingurua oso desberdina zen lehen; zer aldaketa egon izan diren azaltzen du.

678. Zizareak eta txirlak biltzeko ohitura (LEZ-038/003)

9-10 urte zituela, hondartzan zizareak egoten ziren; beraiek zizare horiek harrapatu egiten zituzten eta saldu egiten zizkieten udatiarrei, arrantza egin

zezaten. Beraien aurrekoek txirlak biltzen zituzten, baina fabriken eraginez lurra usteldu egin zen eta txirlak galdu egin ziren.

679. Eskolako maila eskasa (LEZ-038/011)

12 urterekin goizez pentsu-biltegiari hasi zen lanean. Mutilen eskolan ez zuten askorik ikasten; nesken eskolan, ordea, bai. Eskolan bi maisu izan zituzten, euskaldunak ziren eta haiekin hobeto ikasi zuten; kanta euskaldunak irakasten zituzten, baina berehala bidali zituzten.

680. Etxeko aberak zaintzen gustura (LEZ-038/013)

Eskolan zebilen garaian, goizez lan egiten zuen, batetik, pentsu-biltegiari eta, bestetik, etxeko abereentzako janaria bilatzen. Abere haiek etxerako hazten zituzten. Lan hura gustura egiten zuen Manuelek.

681. Goserik ezagutu gabekoa (LEZ-038/014)

Lehen oiloak eta oilarrak izaten zituzten etxean eta goiz hasten ziren kukurrukua. Beraiek goiz jaikitzen ziren, eguzkia ikusi orduko. Gosaritan bapojaten zuten. Manuelek ez du goserik ezagutu.

682. Amonaren etxean guardia zibilak apopilo zintzoak (LEZ-038/015)

Gerra ostean gosetea izan zen. Gerran aitona hil zuten bonba batekin eta amona alarguntasun-pentsiorik gabe gelditu zen. Diru pixka bat lortzeko, amonak etxean guardia zibilak izaten zituen apopilo; haiekin moldatzen zen jatekoa lortzeko. Guardia zibil haien bizitzari buruz hitz egiten du. Lehen herritarrek eta guardia zibilak ondo konpontzen ziren.

683. Niessenen urtebete lanean (LEZ-038/017)

Pekin lantegiko lana utzi zuenean, txistua jo behar izan zuen Bilbon kontzertu batean. Lagun bati esker, Niessenen hasi zen lanean; urtebete egin zuen han lan eta oso gustura ibili zen.

684. Niessendik arraina saltzera (LEZ-038/018)

Niessenen urtebete egin zuen lan eta azkenean utzi egin zuen: osabarekin hasi zen arraina saltzen orduan. Soldaduskatik etorri zenean, osabarekin adostu zuen bera geldituko zela arrandegiarekin.

685. Emaztearekin arrandegian lanean (LEZ-038/019)

1963an ezkondu zen eta arrandegian hasi ziren lanean. Arrandegian zer lan izaten zituzten azaltzen du. Motorrez joaten zen batetik bestera arraina banatzera atoa atzean zuela. Gerora, atoa debekatu zutenean, motogurdia erosi zuten. Hura ordaintzeko pasatakoak aipatzen ditu.

686. Pekingo lan-baldintzak (LEZ-038/020)

Pekingo lan-baldintzak eta jornalak nolakoak ziren aipatzen du.

687. Arraina saltzen lortutako irabaziak (LEZ-038/021)

Arraina Pasaian erosten zuen eta platera 5 pezetan saltzen zuen. Lagunek barre egiten zioten arraina saltzeagatik, baina Manuelek irabazi handiak ateratzen zituen hartatik. Baziren beste arrain-saltzaile batzuk ere garai hartan.

688. Belgikako bezero ona ezagutu zuenekoa (LEZ-038/023)

Getariako lagun bat egin zuen eta hari esker Belgikako arrain-fabrikatzaile bat ezagutu zuen; gizon hari saltzen hasi zitzaion orduan Manuel.

689. Hondarribian antxoa erosten eta saltzen hasi zenekoa (LEZ-038/024)

Inguru honetako arraina bukatzen zenean, Santanderra joaten zen eroatera. Baina hango ezagun bati esker, Hondarribian hasi zen erosten antxoak; arrantzaleei ere onura ekarri zien horrek.

690. Arrainarekin egindako salerosketak hedatzen (LEZ-038/025)

Manuelek erosten zuen arraina kontserba-fabrikei saltzen zien; banatzailea zen, beraz. Pixkanaka, negozioa hedatzen hasi zen, legatzaren salerosketan ere sartu baitzen.

691. Hemen antxoa falta eta Perun soberan (LEZ-038/028)

Lehen orain baino arrain gehiago harrapatzen zen: dena libre zen, ez zegoen mugarik. Astakeria handiak egin izan dira horregatik. 4-5 urtean ez zen antxoarik egon hemen, eta orduan Perura mugitu behar izan zuen Manuelek, han antxoa soberan baitzegoen.

692. Musika-hirukotea (LEZ-038/034)

Etxean aita txistularia zen, gerra aurrean batzokiko txistularia izandakoa. Aitak Erreterian ikasi zuen txistua jotzen eta gerora Manueli erakutsi zizkion txistua jotzeko oinarrizko nozioak. Aitaren eta bere artean Xabier Pikabeari erakutsi zioten txistua jotzen, Xabier Intxaurrendieta danborjole hartu zuten, eta hirukotea sortu zuten orduan.

693. Aitaren gerrako istorioak (LEZ-038/037)

1940an jaio zenez, ez zuen gerra ezagutu. Aita batzokiko idazkaria izan zen gerra aurrean. Gerra etorri zenean, batzokiko gauza guztiak gorde behar izan zituzten. Aita ez zen gerrara joan, enpresa militarizatueta egin zuen lan.

694. Lezoko sagarren ospe ona (LEZ-038/039)

Gaztea zela, sagardotegi giroa zegoen Lezon. Sagardotegi haiek non zeuden azaltzen du. Sagasti asko zeuden Lezon, eta ospe ona zeukan Lezoko sagarrak. Dolareak non zeuden aipatzen du.

695. Madrila falange emakumeek gonbidatuta joan zirenekoa (LEZ-038/043)

Leku askotan jo izan dute txistua. Behin Madrila joan ziren, falangeko emakumeek kontratatuta. Han Zarauzko koruak ere parte hartu zuen eta elkarren artean euskaraz hitz egiten zuten, nahiz eta falangeko emakumei ez zitzaion gustatzen. Madrilan lehenengo saria lortu zuten, baina ez zituzten berriro deitu falangetik.

696. Txistuarekin jotzen zituzten doinuak (LEZ-038/044)

Manueli txistuarekin jotzeko gehien gustatu izan zaion doinua "alkate soinua" izan da. Herriko jaietan izaten zen hori. Doinua abesten du. Txistua jotzen zueneko anekdotak kontatzen ditu.

697. Soldadutza ere txistua gainean (LEZ-038/046)

Soldadutza Carrascalen egin zuen. Han txistua jotzeko, gauez komunera joaten zen eta han entseatzen zuen. Behin militarren aurrean jotzeko eskatu zioten eta dantza talde bat osatzeko proposatu zioten. Talde harekin sari bat irabazi zuten.

698. Primo de Riveraren diktadura (LEZ-039/003)

Umetako oroitzapenak. Afrikako gerrari buruzko kontuak entzuten zituen etxean, "desastre del anual". Primo de Riveraren diktadura garaiko kontuak. Mugimendu abertzaleak baziren, batzokia... Primo de Riverak Anastasio Salaberria jarri zuen alkate Lezon. Garai hartan egin ziren eskola berriak: ordura bitartean, udalean bertan zeuden eskolak.

699. Garai bateko frontoia (LEZ-039/004)

Umetan, pilotan ibiltzen ziren gehien bat. Frontoia non zegoen eta nolakoa zen azaltzen du.

700. Umetako jolasak (LEZ-039/005)

Ume jolasak: txibatan, potoketan, xipoketan, marru-marruketan, gorde-gordeketan...

701. Pilota herrian (LEZ-039/006)

Lehen pilotan asko egiten zen Lezon. Gipuzkoa mailan, bigarren mailako pilotariak baziren herrian.

702. Kaia eta Puntale (LEZ-039/007)

Lezoko kaia eta Puntale aldea nolakoak ziren azaltzen du. Ura noraino iristen zen. Ur biziak. Mutikotan, igerian eta karramarrotan ibiltzen ziren bertan.

703. Kaiaren eraldaketa (LEZ-039/008)

Kaian egin diren lanak. Herriaren bilakaera. Herriko hainbat toki nola ziren lehen azaltzen du.

704. Lezoko herriaren bilakaera I (LEZ-039/009)

Garai bateko Lezo nolakoa zen deskribatzen du. Herriko etxeak: betikoak eta bere gogoan eginak. Baratzeak non zeuden.

705. Lezo Haundi etxea (LEZ-039/010)

Lezo Haundi etxeari buruzko azalpenak. Bertan maizterrak bizi zireneko garaia. Etxeak armarrria zeukan.

706. Lezoko herriaren bilakaera II (LEZ-039/011)

Garai bateko Lezo nolakoa zen. Ikurko aldean baratzeak ziren. Herri txikia zen. Zenbat biztanle ziren aipatzen du.

707. Herri euskalduna (LEZ-039/012)

Garai bateko Lezoko bizimoduari buruzko azalpenak. Herri euskalduna zen. 1920. hamarkadan kanpoko hainbat familia iritsi ziren herrira. Denak euskaldundu egiten ziren. Gerraostean, herria erdaldundu egin zen.

708. Herriko ofizio nagusiak (LEZ-039/014)

Herriko ofizio nagusia: peontza. Gero, balio zuenak, bere kontura hasten zen arotzerian, egur lanean. Lezoko jendeak Errenteriara joan behar zuen lanera. Arrain deskargan ere aritzen zen jendea. Arrantzale banaka batzuk baino ez ziren Lezon.

709. Uneko gurdibidea (LEZ-039/015)

Pasadizoa. Unera sagar bila joan behar zuen kamioi batek, baina biderik ez zen hara joateko. Gurdibidea zen. Mutil kozkor kuadrilla kamioian zintzilatuta joan zen Unera. Automobilentzako bidea noiz egin zuten aipatzen du.

710. Lezoko sagardotegiak eta dolareak (LEZ-039/017)

Garai batean, sagardo asko egiten zen Lezon. Herrian, kale-kalean, hiru-lau dolare ezagutu zituen Inaziok. Kaleko dolareak non zeuden azaltzen du. Sagardotegiak.

711. Lehengo Maine baserria (LEZ-039/018)

Bere gazte denboran Maine baserria eta inguruak nolakoak ziren azaltzen du. Baserriko lurak noraino iristen ziren aipatzen du.

712. Bekoerrota eta Goikoerrota (LEZ-039/019)

Bekoerrota eta Goikoerrota non zeuden azaltzen du. Txulotxoko garbitokia.

713. Lezo Haundi, ez Markesane (LEZ-039/020)

Lezo Haundi etxeari Markesane esatea "aberrazio bat" iruditzen zaio. Markesane deitura nondik hartu zuen kontatzen du.

714. Galdutako baserriak (LEZ-039/022)

Lezon galdutako hainbat baserri eta berriak egiteko botatakoak aipatzen ditu: Iparragirre, Urrulo, Ipintza, Arretxene, Une, Sagasti, Lopene...

715. Lezoko jaiak (LEZ-039/023)

Garai bateko Lezoko jaiak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Alpargata zuriekin jendea dantzarako pronto egoten zen.

716. Errepublika denbora (LEZ-039/024)

Errepublika garaiko herriko giroa. Jauntxoak eta boterea. Herrian izaten ziren iskanbilak. Jaietan: alkateak 23:00etarako denak etxeratzeko agindua eman zueneko.

717. Pentekosteak eta Santakrutzak (LEZ-039/025)

Lehen ere herriko jaiak Pentekosteetan eta Santakrutzetan izaten ziren. Hala ere, Pestekosteetako herriko jaia ez zen hainbestekoa izaten. Baserriko tresnen feriaren garrantzia. Gurutze Santura jende asko joaten zen.

718. Zezenak eta dotrinako eskea, Santakrutzetan (LEZ-039/026)

Santakrutz jaiei buruzko azalpena. Zezenak Beko plazan izaten ziren, arratsalde partean. Dotrinako eskea. Inazio zazpi urtean ibili zen akolito moduan. Jende asko joaten zen elizara.

719. Karnabalak (LEZ-039/027)

Bakarren bat bakarrik mozorrotzen zen karnabaletan. Ez zen festa antolaturik izaten. Neska batek karnaletan prakak jantzi zituela eta herrian sortu zen eskandalua gogoratzen du.

720. Haragia eta garbitasun kontuak (LEZ-039/028)

Garai bateko bizimoduari buruz hitz egiten du. Bizitako aldaketa garrantzitsuenak, higieña... aipatzen ditu. Diktadura garaiko araua: haragitara euliak ez joateko tul edo zapi batekin estaltzea.

721. Gosea eta tabako-belarra (LEZ-039/030)

Gerra ondoreneko gosetea. Jateko falta. Baserritarrek uzta entregatu behar izaten zuten. Errazionamendua. Tabako-belar hazia azaldu zen herrian: hura landatzea galarazia zegoen. Baratzetan tabakoa landatzeagatik denuntzia jaso zuten etxean.

722. Ttuttuna eta dantza (LEZ-040/003)

Dantzarako zaletasuna izan du gaztetatik. Ttunttuna izaten zen igandetan. Lagun taldean Guadalupera joan eta handik Hondarrabira jaisten ziren gero.

723. Kaleko jolasak (LEZ-040/004)

Umetako jolasak: kailoketan, sokasaltoan, marru-marruketan, gorde-gordeketan...

724. Inguruko herrietako festak (LEZ-040/006)

Inguruko herrietako festetara joaten hasi zireneko kontuak. Herrerako San Luis jaiak, Errenteriako Malenak... aipatzen ditu.

725. Ezpata dantzariak eta poxpolinak (LEZ-040/007)

Elena eta anaia dantzan aritzen ziren. Donostiako Loiola auzora dantzara taldea joan, eta zinta dantzarekin saria irabazi zuten. Txistulari eta danborjoleak nor ziren aipatzen du.

726. Herriko eskolan ibilia (LEZ-040/008)

Herriko eskolan ibili zen Elena. Maistra Valladolidekoa zen. Handiek eta txikiek elkarrekin ikasten zuten. Eskola non zegoen azaltzen du.

727. Udako bainuak (LEZ-040/009)

Gaztetan, uda partean, bainua hartzera joaten ziren lagunak.

728. Neskame ibilia (LEZ-040/010)

Bi tokitan aritu zen neskame lanetan. Zer lan egiten zituen. Gaztelaniarekin gorabeherak.

729. Eskabetxean eta gaileta-lantegian aritua (LEZ-040/011)

Eskabetxean, bakailoan... aritu zen lanean. Gero, "gaileteran" hasi zen lanean. 12 urte egin zituen gaileta-lantegian lanean. Lanaldia.

730. Gaileta-lantegiko lana (LEZ-040/012)

Gaileta-lantegian zer lanetan aritu izan zen azaltzen du. Gaileta paketeak golkoan, azpiko arropetan gorde... irteeran erregistratu egiten zituzten. Lantegian lau labe zeuden, eta bero handia pasatzen zuten.

731. 18 urterekin lanean hasi (LEZ-040/014)

18 urte ingururekin hasi zen lanean, gerra denboran. Neskame, arrain saltzen, egur kargatzen... ibilia da Elena. Gero, gaileta-lantegian hasi zen lanean, ezkondu eta haurra izan zuen arte.

732. Mutilekin dantza egitea (LEZ-040/017)

Dotrina kontuak: nor izan zuen katekista. Mutilekin dantza egiten zuten neskei zinta morea jartzen zien.

733. Emakume Abertzale Batza (LEZ-040/020)

Abertzaletasunaren indarra Lezon. Elenaren ama Emakume Abertzale Batzako kidea zen. Etxean batzokiko bazkideak ziren. Elenaren amak kooperatiban egiten zuen lana.

734. Batzokiko antzerkiak eta 'Ehun dukat' (LEZ-040/022)

Batzokian antzerki emanaldiak izaten ziren. Goian antzokia zegoen, eta behean, berriz, entseguak egiten zituzten. 'Ehun dukat' antzezlanaren kanta.

735. Neskame, gerra hasi zenean (LEZ-040/025)

Gerrako kontuak. Erreketeak sartu zireneko oroitzapenak. Elena neskame zegoen Donostian garai hartan. Neskame egon zen etxeko kontuak. Esne bila joan, eta tiroak entzun.

736. Tiro hotsa eta ikara (LEZ-040/027)

Gerrako kontuak. Erreketeen tiroak. Hildako soldadu baten gorpuaren ondotik pasatu behar izan zuen. Gosea pasatu zuten. Elena neskame zegoen Donostian garai hartan.

737. Gosea, ezinikusiak eta salaketak (LEZ-040/030)

Gosea. Olio litroaren prezioa. Elenaren ama asko flakatu zen. Karliten eta abertzaleen arteko harremana. Salaketak. Atxiloketak. Fusilatuak.

738. Ondasunak errekisatu (LEZ-040/031)

Gerra denborako kontuak. Etxeetatik ondasunak errekisatu egiten zituzten.

739. Gerran hildakoak (LEZ-040/033)

Gerrako hildako herritarrak. Herriko mutil bat nola hil zuten azaltzen du. Arrazoia, abertzalea izatea. Falangistek hil zutela zabaldu zen.

740. Apaizak (LEZ-040/035)

Lezon egondako hainbat apaiz eta bikario aipatzen ditu. Dotrina euskaraz ikasi zuen Elenak. Apaizen joera politikoak eta euskararekin zer jarrera zuten.

741. Euskal izenak jartzea galarazia (LEZ-040/036)

Euskal izenak jartzea galarazia zegoen. Apaizek euskararekin zer jarrera zuten.

742. Medikuak eta praktikanteak (LEZ-040/037)

Lezon egondako medikuak eta praktikanteak aipatzen ditu. Haiekin zer harreman zuen eta zer hizkuntzatan hitz egiten zuten.

743. Aurreneko kanpotarrak (LEZ-040/040)

Lezora kanpotik etorritako aurreneko familiak. Gerra ostean, jende asko etorri zen herrira.

744. Gerra aurreko Lezo (LEZ-040/041)

Gerra aurreko Lezoko herri giroa nolakoa zen aipatzen du. Familia bat bezala ziren, denek elkar ezagutuzen zuten.

745. Herriko jauntxoak (LEZ-040/042)

Herrian boterea zuten familiak, jauntxoak... Euskaldunak ziren. Zer joera politiko zuten aipatzen du.

746. Galdutako baserriak (LEZ-040/045)

Lezon bota edo galdutako baserriak.

747. Kaia eta kanposantua (LEZ-040/046)

Herrian izandako aldaketak: kaia, kanposantua... Lagunak bainua hartzera joaten ziren.

748. Lagunarteko kontuak (LEZ-040/050)

Lagun baten etxean frontoia zeukaten, eta kuadrilla guztia hara joaten zen palaz ibiltzera. Palaz gain, antzerkian ere ibiltzen ziren. Elenaren amak baserritarren kooperatiban lan egiten zuen dendari moduan, eta lagun batek telefonoz deitzen zion kooperatibara kalera atera nahi zuenean.

749. II. Errepublikan euskarazko eskola ireki (LEZ-041/002)

18 urterekin irakasle ikasketak bukatu zituen Mirenek. Estatuko eskoletan irakasle sartzeko, oposaketak atera behar ziren. Oposaketak egiteko, ordea, 20-21 urte behar zirenez, zain egon beharrean euskarazko eskola pribatua irekitzea pentsatu zuen. II. Errepublikan ireki zuen eskola Lezon. Orduko giroa du hizpide: eskoletatik gurutzeak kentzea... Eskolan ume asko izan zituen, batzuk kanpoan geratu behar izan zuten.

750. Gau-eskolak, helduentzat (LEZ-041/003)

Jende helduak irakurtzen eta idazten ikasteko eskolak ere ematen zituen gaueetan.

751. Eskoletako inspektoreak (LEZ-041/004)

II. Errepublikan euskarazko eskola ireki zuen Mirenek. Eskoletako jarraipena egiten zuten inspektoreei buruzko kontuak. Karabineroetako teniente bat joaten zen eskolara, haurrei galderak egitera. Mirenen eskola Lezoko plazan zegoen, osaba Xixiliok utzitako lokal batean.

752. Gerra denboran, Lezotik atera (LEZ-041/005)

Gerra denborako kontuak. Erreketeak Lezora iritsi baino lehen, etxea itxi eta Donostiara alde egin zuen Gezala familiak, denbora gutxirako izango zelakoak. Donostiatik Soraluzera, eta Soraluzetik Santurtzira joan ziren gerratik ihesi. Santurtzin zeudela, bonbaketak izan ziren.

753. Mundakan andereño, gerra denboran (LEZ-041/006)

Gerra denborako kontuak. Santurtzin zegoela, Mundakara bidali zuten andereño moduan. Mundakan lau andereño zeuden: bat katalana zen. Beste hiru andereñoek eskolak euskaraz ematen zituzten.

754. Mundakan, gudariekin tratatu (LEZ-041/007)

Gerra denborako kontuak. Mundakan andereño egon zeneko kontuak. Gudariekin nolako harremana zuten azaltzen du. Gudariak batzokiko tabernan elkartzen ziren. Aldabe kapitaina, Juanito "Patata" lezoarra.

755. Frantziara, itsasontzi errusiar batean (LEZ-041/008)

Gerra denborako kontuak. Durangoko eta Gernikako bonbardaketak ditu hizpide. Txikizio hura ikusita, euskal gobernuak umeak eta andereñoak atzerrira bidaltzea erabaki zuen. Mirenek Xabin izeneko mutiko bat (senidea) eraman zuen berarekin. Errusiar jatorriko itsasontzi batean eraman zituzten Frantziara, kanpamendu edo kolonia batzuetara.

756. Itsasontzian betaurrekoak apurtu (LEZ-041/010)

Gerra denborako kontuak. Euskal gobernuak umeak eta andereñoak atzerrira bidaltzea erabaki zuen. Errusiar jatorriko itsasontzi batean eraman zituzten Frantziara. Mirenek betaurrekoak apurtu zituen itsasontzian, eta Frantziako kanpamendu edo kolonian zegoen apaizak betaurreko berriak ekarri zizkion hurrengo egunerako.

757. Ia 600 ume ko kanpamendua (LEZ-041/011)

Gerra denborako kontuak. Frantziako kanpamenduko kontuak. Andereño bakoitzari ume talde bat eman zioten. Baziren ume erdaldunak, eta haiei andereño erdalduna jarri zien: Mirenek eskolak euskaraz ematen zituen. Ia 600 ume zeuden kanpamenduan. "Gimnasia rítmica del padre Olazaran de Estella" irakasten aritzen zen ume guztiei eskola ondorenean.

758. "Gora, gora! Gora ta beti gora..." (LEZ-041/012)

Gerra denborako kontuak. Frantziako kanpamenduko kontuak. "Gora, gora! Gora ta beti gora, zeru goiko gure Jainko haundiya. Berak piztu zituan zeruan izarrak..." abestia irakatsi zien kanpamenduko umei.

759. Donibane Garaziko zitadelan kanpatuta (LEZ-041/014)

Gerra denborako kontuak. Donibane Garaziko zitadelan egon ziren kanpatuta. Jose Maria Leizaola, Jose Antonio Agirre, Baionako obispa... asko joaten ziren kanpamendu hartara.

760. "Atso zaharraren atorra zaharra" umeei irakatsi (LEZ-041/015)

Gerra denborako kontuak. Donibane Garaziko zitadelan egon ziren kanpatuta gerrako umeak eta andereñoak. Mirenek "Atso zaharraren atorra zaharra" kanta irakatsi zien umeei. Jose Maria Leizaolak zoriondu egin zuen umeekin egindak lanagatik.

761. Ikurri dantza umeei irakatsi (LEZ-041/017)

Mirenek aita Labordarekin ikasi zuen Ikurri dantza, Kursaal azpiko gela batean. Gero, Frantzian egon zen denboran, hango umeei irakatsi zien Ikurri dantza. Mirenen ikasleek Baionako euskal dantzen lehiaketa batean parte hartu zuten.

762. Garazitik Armendarizko kanpamendura (LEZ-041/018)

Gerra denborako kontuak. Donibane Garaziko zitadelako kanpamendutik Armendarizera eraman zituzten, ume euskaldunak eta erdaldunak bereizi egin zituzten. Armendarizko kanpamenduko zuzendaria nor zen aipatzen du.

763. Sarara, Ikurri dantza irakastera (LEZ-041/019)

Gerra denborako kontuak. Donibane Garaziko zitadelako kanpamendutik Armendarizera eraman zituzten euskaldunak. Armendarizen zegoela, Sarako haurrei Ikurri dantza irakastera joateko gonbita jaso zuen Mirenek. Sarako Izarra elkarteko kanta abesten du: "Larrundik jausi ta hemen gera...". Saran egin zuen egonaldiari buruz hitz egiten du.

764. Eresoinka taldea eta Elbira Zipitria, Saran (LEZ-041/020)

Saran egin zuen egonaldiari buruz hitz egiten du. Eresoinka taldearen sorrerari buruzko azalpenak. 'Haurtxo txikia sehaskan dago' kanta zati bat abesten du. Elbira Zipitriarekin ikasi zuen euskal gramatika Saran. Saran hegoaldeko jende askorekin egin zuen topo.

765. Desterratua (LEZ-041/021)

Gerraren bukaerarekin, iparraldeko kanpamenduetan zeuden umeak hegoaldera ekartzen hasi ziren. Miren azkenengo umeekin bueltatu zen. Mugan eman zioten agiri bat medio, 15 urterako Lezotik eta "a 150 kilometros de las provincias vascondagas" desterratu, 1.000 pezetako multa eta irakasteko gaitasungabetu zuten.

766. Salamancara, ahizpa Koldobikerengana (LEZ-041/022)

Gerra bukatu eta iparraldetik hegoaldera igora zenean, Miren EAetik desterratu egin zuten. Mirenen ahizpa Koldobike Salamancan zegoen, pilotari moduan: harengana joan zen. Salamancan egon ziren denboran, aita gordeta eduki zuten haren bila baizebiltzan. Gero, Koldobikeri Bartzelonara joateko aukera eman zioten. Koldobike aitarekin joan zen Bartzelonara, baina Mireni ez zioten baimenik eman Bartzelonara joateko. Gauzak horrela, Madrilen zegoen ahizpa Irenerengana joan behar izan zuen.

767. Salamancatik Madrilera (LEZ-041/023)

Desterratuta egon zen denborako kontuak. Salamancatik Madrilera joan zen Miren, ahizpa Irenerengana. Jostun baten etxean josten aritu zen aldi batean, baina jostunaren etxean ondo ez, eta bezero batek eskatuta haren etxean egon zen gero.

768. Desterratzeko motiboak (LEZ-041/025)

Desterratuta egon zen denborako kontuak. Erbesteratzeko zer kargu leporatzen zizkioten azaltzen du Mirenek.

769. Indultu eskaerako tramitazioko gorabeherak I (LEZ-041/026)

Desterratuta egon zen denborako azalpenak. Indultu eskaerako tramitazioei buruzko azalpenak. Madrilen egon zen denboran, Justizia ministerioan egin zituen tramite eta ibilerak kontatzen ditu.

770. Indultu eskaerako tramitazioko gorabeherak II (LEZ-041/027)

Desterratuta egon zen denborako azalpenak. Indultu eskaerako tramitazioei buruzko azalpenak. Madrilen egon zen denboran, Justizia ministerioan egin zituen tramite eta ibilera guztiak kontatzen ditu. Elkarrizketatu zen militar eta kargundunen izenak ere aipatzen ditu.

771. Indultu eskaerako tramitazioko gorabeherak III (LEZ-041/028)

Desterratuta egon zen denborako azalpenak. Indultu eskaerako tramitazioei buruzko azalpenak. Madrilen egon zen denboran, Justizia ministerioan egin zituen tramite eta ibilera guztiak kontatzen ditu. Elkarrizketatu zen militar eta kargundunen izenak ere aipatzen ditu.

772. Indultu eskaerako tramitazioko gorabeherak IV (LEZ-041/029)

Desterratuta egon zen denborako azalpenak. Indultu eskaerako tramitazioei buruzko azalpenak. Madrilen egon zen denboran, Justizia ministerioan egin zituen tramite eta ibilera guztiak kontatzen ditu. Elkarrizketatu zen militar eta kargundunen izenak ere aipatzen ditu.

773. Ahizparen ezkontza, etxeratzeko aitzakia (LEZ-041/030)

Desterratuta egon zen denborako azalpenak. Justizia ministerioko langile bati esker, ahizparen ezkontza aitzakia hartuta bi hilabeterako etxera joateko baimena lortu zuen Mirenek.

774. Zortzian behin sinatzera joan behar (LEZ-041/031)

Madriren desterratuta egon zen denborako azalpenak. Zortzian behin poliziaren buruzagitzara joan behar izaten zuen. Polizia buruarekin izandako elkarriketa kontatzen du. Hark esan zion sinatzera joan ezin zuenean, nahikoa zuela telefonoz deitu eta abisua ematea.

775. Etxera bueltatzeko baimen mugagabea (LEZ-041/032)

Hainbat urte Madriren desterratuta egon eta gero, Lezora bueltatzeko eskaera egin zuen. Poliziaren buruzagitzako buruak baimen mugagabea eman zion etxera bueltatzeko gaixotasun bat aitzakia hartuta.

776. Austiñaren eskola (LEZ-041/033)

Mirenek euskarazko eskola ireki aurretik, Austiña izeneko emakume bat aritzen zen euskaraz (otoitzak, bokalak...) irakasten Lezon. Haurtzaindegi moduko bat zela dio Mirenek.

777. Irakaskuntzarako euskarazko metodologiarekin ez (LEZ-041/034)

Mirenek euskarazko eskola ireki zuen garaiko kontuak. Ez zeukan euskaraz irakasteko metodorik. Gaztelarazko metodoak itzultzen zituen euskarara, eta haiek erabiltzen zituen haurrei irakasteko.

778. Lezoko euskara (LEZ-041/035)

Lezoko euskararen ematen zituen eskolak. Euskara batuari buruzko gogoeta. Herri hizkeraren aldekoa da. Aldundian euskararen ezagutzari buruzko azterketa egin zueneko kontatzen du.

779. Pasai Donibanen euskara irakasten (LEZ-041/036)

Pasai Donibanen euskarazko eskolak ematen ibili zeneko pasadizoa kontatzen du. Itzuli eta ihesi joan aditzak zirela medio ikasle batekin izandako gorabeherari buruzko azalpena ematen du.

780. Gerra aurreko Lezoko batzokia (LEZ-041/039)

Gerra aurrean Lezoko batzokian zer giro zegoen. Miren euskal dantzak irakasten aritzen zen bertan. Antzerki emanaldiak. 'Bihar arte? Ja, jai!' antzezlanak.

781. Antzerki taldearekin batera eta bestera (LEZ-042/002)

Batzokian dotrina ematen zuten eta kantuz aritzen ziren. Oiartzunen antzezlan bat eman zuten euskaraz, Mirenek eta bere taldekoek. Anekdotak bat kontatzen du. Antzerki taldearekin Donostiara ere joan zen, lehiaketa batera.

782. Aberri Eguna herrian (LEZ-042/003)

Pizkunde garaian, Donostian izan ziren ume dantzariekin. Aberri Egunean hitzaldiak egiten zituzten eta etxeetako balkoiak apaintzen zituzten. Polixene Trabudua izaten zen hizlarietako bat.

783. Polixene Trabudua Donibane-Garaziko kanpamenduan (LEZ-042/004)

Donibane-Garaziko Zitadela gerratik ihesi zihoazenentzat babesleku izan zen. Arnegiko falangistekin hizketan eta txantxetan aritzen ziren. Polixene Trabuduari buruzkoak kontatzen ditu.

784. Lagunak heriotza zigorretik libratzeko ahaleginak (LEZ-042/005)

Donibane-Garaziko Zitadelan zegoela, bere anaiaren gutun bat jaso zuen kartzelatik, lagun batzuen egoera larriaren berri emanez. Haiek heriotza zigorretik libratzeko, Euskadiko Gobernuari laguntza eskatuz egin zituen ahaleginak kontatzen ditu.

785. Abertzaletasunaren transmisioa (LEZ-042/006)

Emakume Abertzaleen Batzak indarra zuen herrian. Denak euskaldunak ziren Lezon. Batzokiak indarra zeukan. Igande arratsaldeetan antzerkia ematen zuten. Kontzientzia abertzalea gurasoetatik seme-alabetara transmititzen zen.

786. Errepresioa eta lapurretak herrian (LEZ-042/008)

Gerra garaian, Lezon etxeko gizonak kalean erabiltzen zituzten instrukzioa ikasten. Mirenen etxea erabat hustu zuten, barrukoa lapurtuta, eta erbestetik itzuli zirenean, beste batzuk bizi ziren etxe hartan. Aita begiz jota zuten alde batekoek zein bestekoek.

787. Abertzale baten kontrako atentatua (LEZ-042/009)

Gurutze Santuari su ematen saiatu ziren. Martin Alberdi abertzalearen kontrako atentatua egiten saiatu ziren baina huts egin zuten.

788. Egunkari saltzaileari bertsoa (LEZ-042/010)

Bertsoa asmatu zion "Pais Vasco" egunkari saltzaileari. Eztabaidan aritzen ziren gazteak politikaz. Argia aldizkarian idazten zuen bat aipatzen du.

789. Mutilekin ibiltzea gaizki ikusita (LEZ-042/015)

Don Julian ez zen politikan sartzen baina agindu egiten zieten. Mutilekin ibiltzen zirelako haserre egiten zieten.

790. Izen euskalduna zuen lehenengoa, bere ahizpa (LEZ-042/017)

Bere ahizpa da, Luke, gerra aurrean Lezon euskarazko izena jarri ziotena. Ondorengo anai-arrebek ere euskarazkoak zituzten. Gerra ostean, berriz, denak aldatu zizkieten gaztelerara.

791. Jaunartzerako euskarazko dotrina liburua (LEZ-042/019)

Jaunartzea egin zuenean, euskarazko dotrina liburu berriak eman zizkieten umeei.

792. Donibane-Garaziko kanpamenduan gehienak euskaraz (LEZ-042/020)

Donibane-Garazin euskaraz eta erdaraz, bietara, egiten zuten baina gehienak euskaldunak ziren. Dantza taldea osatu zuten eta batetik bestera ibiltzen ziren. Zuzendariak erdaldunak izan zituzten. Bertako euskaldunak oso frantses zaleak zirela uste du.

793. Santa Krutz festetako iskanbila (LEZ-042/023)

Gerra aurrean, Santa Krutz festa batzuetan tiroak eta, ondorioz, zaurituak izan zirela kontatzen du. Bere aitona alkate zen orduan; 33 urtez segidan izan zen kargu hartan. Gertaera kontatzen du.

794. Santa Krutz festak (LEZ-042/025)

Santa Krutz festetan postu asko jartzen zituzten, azoka modura. Aita bandako zuzendaria zen eta entseguetan aritzen zen. Jende asko gerturatzen zen jaietara.

795. Balkoia ikurrinez beteta (LEZ-043/002)

Batzokiaren edo Emakume Abertzaleen Batzaren inaugurazioan, etxeko balkoia apaintzen gau osoa pasatu zuten. Anekdota bat kontatzen du. Primo de Riveraren garaian bere aita atxilotu egin zuten.

796. Ikastola zergatik sortu zuen (LEZ-043/006)

1932-33an ikastola sortu zuen. Irakasle ikasketak 18 urterekin bukatu zituen. Ikastola zergatik sortu zuen azaltzen du. Euskararengatik eta erlijioarengatik jendea ikastolara batu zela azaltzen du.

797. Helduen alfabetatzea gerra aurrean (LEZ-043/008)

Nagusiak euskaraz alfabetatzen aritu zen. Materialik ez zegoenez, gazteleratik itzultzen zuten eta lan nekeza izaten zen.

798. Elbira Zipitria, euskarako bere irakasle (LEZ-043/010)

Elbira Zipitria euskara irakasle izan zuen. Irakasle eta pertsona bikaina zela dio. Ikaskide izan zituenak aipatzen ditu. Iñaki Maria Barriola zen zuzendaria. Anekdota batzuk kontatzen ditu.

799. Baserriz baserri bizitzen, irakasle zela (LEZ-043/012)

Oposizioak atera eta gero, baserriz baserri ibili zen, irakasle lanean batean eta bestean aritu baitzen. Pasai-Donibanen urte eta erdiz aritu zen irakasle.

800. Karlisteri buruzko burlazko kantua (LEZ-043/018)

Bere lagunekin abesten zuen kanta bat abesten du. Karlisteri buruzko burlazko kantua da.

801. Liberalen eta karlisten kantak (LEZ-043/028)

Liberalei eta karlisteri buruzko kanta bana abesten du.

802. Gerra aurrean emandako antzezlanak (LEZ-043/030)

"Euzko gogoa" eta "Sorginak" antzezlanak antzeztu zituzten. Anekdotak bat kontatzen du. Antzezlanen izenak aipatzen ditu.

803. Antzerki taldearen hasierako urteak (LEZ-044/002)

Frankismo garaian 70. hamarkada inguruan gizonezkoek eta emakumeek bananduta egiten zuten antzerkia Salesianoetan. Inguruko lehenengo herrietakoa izan zen euskaraz antzeztu. Gazteek zein adinekoek parte hartzen zuten.

804. Erdarazkotik euskarazko antzerkira (LEZ-044/004)

Juanito Berasartek eta beste hainbatek bazuten esperientzia antzerki munduan gerra aurrean ere. Erdarazko giroan hasi zen antzerkian baina berehala ohartu ziren hura ez zela bidea.

805. Euskaraz egin eta eginarazten (LEZ-044/006)

Herriko antzerki taldean mugitzen zirenak hamar-hamabi lagun izaten ziren, beste gauza askotan ere aritzen zirenak. Jendea behar bazuten, aise aurkitzen zuten. Euskaraz egiten eta eginarazten ahalegindu izan da. Dantza taldeko esperientzia kontatzen du.

806. Donostiako antzerki taldea erreferente (LEZ-044/008)

Herriko antzerki taldearekin batera gertatu zen ikastolaren sorrera eta beste hainbat. Euskara eta euskal kulturaren hazia jarri zuten. Donostiako antzerki taldeak Santo Tomaseta euskaraz antzeztu zuten. Maria Dolores izaten zuen laguntzaile, antzerkiak hautatzerakoan ere, eta berak itzultzen zituen erdarazko lanak.

807. Umetako jolasak (LEZ-045/002)

Elixabeten ume denborako jolasak: sokasaltoak, txingoketan, kromoketan... Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren jolasean.

808. Elizan, gizona eta emakumeak bereizita (LEZ-045/003)

Neskak eta mutilak aparte eseritzen ziren elizan. Elizan letroak egoten ziren gizonak alde batean eta emakumeak bestean jartzeko adierazten zutenak.

809. Lehen trafikorik ez (LEZ-045/004)

Umetan, kalean jolasten zuten. Lehen ez zen trafikorik kaleetan.

810. Garai bateko Lezo (LEZ-045/005)

Garai bateko Lezo nolakoa zen azaltzen du. Herri txikia zen, hiru kale eta plaza bakarrik. Ez zen trafikorik kaleetan.

811. Herriko eskolan ibilia (LEZ-045/007)

Zazpi urterekin hasi zen eskolan. Frontoiko eskola publikoan ibili zen Elixabete. Maisuak erdaldunak ziren.

812. 14 urterekin, Erreterian lanean hasi (LEZ-045/008)

14-15 urterekin lanean hasten zen gaztean. Elixabete Erreterriako litografia lantegi batean ibili zen lanean 20 urtean. Kartoizko kaxak forratzen zituzten. Gero, Danona kooperatiban sartu zen.

813. Erreterriako lantegiak (LEZ-045/009)

Erreterriako lantegiei buruzko azalpenak ematen ditu: gaileterak, esmalteria (iltzeak, kazolak... egiten zituzten), artile-lantegia ("lanera"), Alkolera (legamia egiten zuten), paper-lantegia, Niessen... Lezoko jende gehiena Erreterriara joaten zen lanera.

814. Igandetan, Erreterriako Alamedara (LEZ-045/010)

Gazte denborako ibilerak. Jaietan, arratsalde partean ateratzen ziren, eta Erreterriara joaten ziren gehienetan. Alamedan bandak jotzen zuen. Donostian eta Irunen baziren "baile itxiak", baina bekatutzat hartuta zauden. 22:00ak alderako etxeratzen ziren.

815. Hondartzara (LEZ-045/012)

20 urtetik gora zituen hondartzara lehendabiziko aldiz joan zenean. Irailean hartzen zituen oporrak, eta orduan joaten zen hondartzara. Arropa jantzita egoten zen hondarretan.

816. Inguruko herrietako jaiak (LEZ-045/013)

Gaztetan, Erreterriako eta Pasai Donibaneko jaietara joaten ziren. Ez zuten gaupasarik egiten.

817. Lezoko jaiak (LEZ-045/014)

Garai bateko Lezoko jaiak nolako ziren kontatzen du. Kanpotik jendea joaten zen Lezora.

818. Jaietan, dotrina eta bezperak (LEZ-045/016)

Igandetan, bazkal ondoren, dotrinara joan behar izaten zuten umetan. Ondoren, bezperetara. Apaizak irakasten zien dotrina. Gero, kalean jolasean ibiltzen ziren.

819. Argindarra, gauez bakarrik (LEZ-045/018)

Garai bateko bizimoduari buruzko azalpenak. Ez zuten telebistarik, ezta hozkailurik ere. Argindarra, gauez bakarrik.

820. Gure Borda eta kooperatiba (LEZ-045/019)

Gure Borda taberna. Plazan kooperatiba bat bazen.

821. Lezoko sagardotegiak (LEZ-045/020)

Lezoko sagardotegiak: Bordatxo, Txerrimuño, beraiek bizi ziren etxearen beheko partean ere sagardotegi bat ba omen zen (Elixabetek ez zuen ezagutu)...

822. Janari-dendak (LEZ-045/022)

Lezon ezagutu dituen janari-dendak zerrendatzen ditu.

823. Arropa, jositakoa (LEZ-045/023)

Lezon ez du arropa dendarik ezagutu. Lehen arropa josi egiten zen, ez zen egindakorik erosten. Oinetakoak eroatera, Erreteriarra joaten ziren.

824. Taloak egin behar (LEZ-045/025)

Lehen, etxeko zeregin guztiak eskuz egin behar izaten ziren. Umetan, taloak egin behar izaten zituen Elixabetek. Gizonezkoek ez zuten ezer egiten etxean.

825. Otorduak (LEZ-045/026)

Eguneroko otorduetan zer jaten zuten: taloa, patata, arraina, batata, algarroba, babarruna (Nafarroatik estraperloan ekarria)... Errazionamenduko ogia: zanpa-zanpa egindako opila. Ez du gogoratzen goserik pasa izana. Eguberriko jatekoak: aza-olioa eta gaztaina erreak.

826. Industriaren hazkundera eta langile etorkinak (LEZ-045/027)

Industriaren hazkundera, kanpoko jende asko ekarri zuen Oarso aldeko herrietara. Lezo, Erreterria, Trintxerpe... asko hazi ziren. Herrien bilakaera du hizpide. Lehen jendeak elkar ezagutzen zuen: denak euskaldunak ziren; erdaldunak, guardia zibilak bakarrik.

827. Elizaren eragina herritarrengan (LEZ-045/029)

'Hijas de María' kongregazioan ibili zen Elixabete. Obligazioa zen. Igandetako eta jaiegunetako mezara joan behar zen. Hilean behin, kongregaziokoek goizeko seiretan joan behar zuten konfesatu eta komunioa hartzera.

828. Elizako antzerkiak (LEZ-045/030)

Elizan antzerkiak egiten zituzten. Elixabete antzezlanak ikustera joaten zen umetan. Antzezlanetan erlijio gaiak jorratzen zituzten.

829. Medikuek eta gaixotasunak (LEZ-045/033)

Herriko medikuek. 11 urterekin Elixabetek meningitisa pasatu zuen. Gipuzkoan penizilina eman zioten aurreneko pertsona izan zen bera. Orduko gaixotasunak.

830. Lagunartean eta etxean, euskaraz (LEZ-045/034)

Lagunartean, euskaraz hitz egiten zuten. Erdara ikasteko aukera gutxi zutela dio. Etxean ere euskaraz egiten zuten.

831. Lezoko alkateak (LEZ-045/037)

Lezon alkate izandako batzuen izenak aipatzen ditu.

832. Herriko jauntxoak (LEZ-045/039)

Herriko aberatsei buruzko kontuak. Hiru-lau familia ziren Lezoko jabe, eta etxe guztiak haienak ziren: "denok errentan egoten ginen, eta haien dendetan erosten genuen". Herriko jendea zen, eta euskaldunak ziren.

833. Guardia zibilak (LEZ-045/040)

Lezon ezagutzen zituen erdaldunak, bizilagun zituen guardia zibilak. Harreman ona zuten guardia zibilekin.

834. Ikastolaren sorrera (LEZ-045/041)

Ikastolaren irekierari buruzko azalpenak. Hasierako irakasleen izenak aipatzen ditu.

835. Francoren emaztea Lezon (LEZ-045/043)

Francoren emaztea Lezora joaten zeneko oroitzapenak. Urtero, udara partean Aieten oporraldia egiten zutenean, Lezora joaten omen zen bisita egitera.

836. Oporrak, etxeko zereginetarako (LEZ-045/044)

Lehen ez ziren oporretara joaten. Lanetik oporrak hartzen zituztenean, etxea zuritzeko, koltxoiak jotzeko... aprobetxatzen zuten.

837. Guraso elkartearen hasiera (LEZ-046/001)

Guraso elkartearen ekimenaren hasiera. Arrakasta handia izan zuten. EGB osoa eta jarduera asko antolatzen hasi ziren. Zailtasunak eta liskarrak izan zituzten.

838. Guraso elkarte euskalduntzen (LEZ-046/002)

Kuota ordaindu behar izaten zuten, txikienentzat ez baitzeukaten dirulaguntzarik. Bera sartu eta helburutzat jarri zuen ikastetxea euskalduntzea. Euskarazko klaseak eman ahal izateko egindako lana kontatzen du.

839. Herri eskolarekin fusioa (LEZ-046/004)

Lezoko eskola publikoarekin hasi ziren negoziatzen, D eredura aldatzeko baldintza jarrita. Irakasleak euskaldundu zituzten pixkaka.

840. Ehundik gora familia elkartean (LEZ-046/006)

Ehundik gora familia batu zituen guraso elkarteak. Zer antolatu zuten kontatzen du.

841. Guraso elkarte zergatik sortu zen (LEZ-046/008)

Eskola publikoak maila baxuko fama zeukan eta horrek eragin zuen bereziki guraso elkarte sortzea eta handitzea. Delegazioak agintzen zituen orduak egiten zituzten euskaraz baina klase gehienak erdaraz ziren. Familia guztiak euskaldunak ziren.

842. Ikastolarekin liskarrak (LEZ-046/009)

Ikastola eta guraso elkarte nahiko parean sortu ziren eta liskar handiak izan ziren. Eskola publikoak baino kalitate hobea eta ikastola baino merkeagoa izateak sortu zituela liskarrak uste du.

843. Sortzaile eta irakasle euskaldunak (LEZ-046/010)

Guraso elkarteko gurasoak euskaldunak ziren, baita hainbat irakasle ere. Sortzaile eta irakasle euskaldunak izendatzen ditu.

844. Lezo euskalduna erdalduntzen joan zen (LEZ-046/013)

Lezo oso herri euskalduna zen. Inguruko herrietan barre egiten zieten erdaraz ongi ez egitearren. Inmigrazio handiak eta erdararako presioak aldarazi zituen hizkuntzaz. Estigma handia zeukaten euskaldun izatearren.

845. Euskara erraz galdu zen (LEZ-046/014)

Lezo elizak mendean zeukala uste du. Mugimendu politikoa eta euskararena Oreretan egiten zuten. Euskara etxean eta kalean zeukaten Lezon baina behar besteko garrantziarik ez ziotela eman uste du.

846. Etxeko ahuntza jan (LEZ-047/001)

Agustiñenea etxeko kontuak. Soldaduak etxeetan hartu behar ziren garaiko kontuak (azkenengo gerratean ez, lehenagoko kontuak direla dio). Soldaduek etxeko andreari "patrona" esaten zioten. Elkar ulertzeko zailtasunak, hizkuntzagatik. Soldaduek etxejabeek ahuntza lapurtu eta hura prestatu zien; etxejabeak, ordea, jan ondoren konturatu ziren ahuntza beraiena zela.

847. Soldaduei ulertzeko komeriak (LEZ-047/002)

Soldaduak etxeetan hartu behar ziren garaiko kontuak (azkenengo gerratean ez, lehenagoko kontuak direla dio). Hizkuntzagatik soldaduekin izandako ezulertuak. Hainbat pasadizo kontatzen ditu.

848. Bonbila auspoarekin itzali nahi (LEZ-047/003)

Lehen, etxeetan ez zegoen argindarrik. Kandela argiarekin, kriseiluekin... ibiltzen ziren. Bonbila auspoarekin itzali nahi zuen emakumearen pasadizoa kontatzen du.

849. "¡Miel, miel, mielero... buena miel!" (LEZ-047/004)

Eztigilea kalean zihoan, "¡Miel, miel, mielero... buena miel!" esanez. Eta kale horretan bizi zen gizon bat gertutatzen da Maitteren amarengana eta galdegiten dio: "Zein arraiok esan dio horri ni Miel naizela!". Gaztelania ez ulertzearen gorabeherak.

850. Sanjuandarrei buruzko kontakizuna (LEZ-047/005)

Garai bateko pasadizoa. Ferrer abizena zuen Pasai Donibaneko alkatearen alde egindako erregu "aldrebasa". Sanjuandarrek gaskoien eragina dutela dio.

851. "Zamatetakuak, zerriak azak jaten!" (LEZ-047/006)

Sanjuandarrei buruzko kontakizuna. Zamateta baserrikoei Pasai Donibaneko plazatik deika: "Zamatetakuak, zerriak azak jaten!".

852. "Trumones y relampandangos" (LEZ-047/007)

Ume batek eguraldi txarra egin zuela eta eskolan gaztelaniaz esandakoa: "que había habido trumones y relampandangos".

853. Itogina gelditzeko errezatzen (LEZ-047/008)

Bere birramonari buruzko pasadizoa. Antza, eguraldi txarra zegoen, eta etxean itoginak zituzten. Birraitonak emaztea errezatzen bilatu omen zuen eta: "Zertan ari zara?" galdetu zion. Eta emazteak erantzun: "itogina geratzeko errezatzen"...

854. Esaera zaharrek I (LEZ-047/009)

Hainbat esaera zahar esaten ditu. Abendua, argitu orduko ilundua. Kandelario hotz, juan da negua motz. Kandelario bero, negua gero. Nork nori? Zozoak beleari ipurbeltz! Eta berak baino beltzagoa inork izan ez. Oinezkorik nahi ez, eta zaldizkorik izan ez. Egonda ez da erbirik harrapatzen. Lan asko dagoela adierazteko: borda bete bordari, gauerdikoak baino lan gehiago daukaze... Okin berriak, bahe zuri.

855. Esaera zaharrek II (LEZ-047/010)

Haurrak hazi eta nekeak bizi. Ardi txikia beti bildots. Suak eta sabelak zenbat eman, hainbeste eraman. Ez den tokitik, ez dena (deus ez). Zu hor eta ni hemen, eta gure ipunak Flandesen. Hago, neskaxa, hago! Izango dun haritz edo pago. Idiak min, eta gurdiak negar.

856. Esaera zaharrek III (LEZ-047/011)

Ikusten ez duen begiak, negarrik ez. Zuhurraren poltsak, bi zulo. Beltzak eta zuriak, mendian ardiak. Zorrek zor, baina lepoa lodi. Hotza ile motza, baina benetan zorrotza. Zenbat ate, hainbeste maratila. Oilo goseak, kantari. Xox baten pupua eta lau xoxen trapua. Sabeleko hesteak ere haserretu egiten dira. Hankak arinak eta burua arinago, dantza hobeto daki artajorran baino. Zer? Zertzeta, burduntziaren puntan erreta. Errotan egon eta bidean presa.

857. Ume denborako jolasak (LEZ-047/013)

Eskolatik ateratakoan, zertan jolasten zuten: txingoketan, sokasaltoan (kanta: jolastu gaitezen euskaldun umeak...), kailoketan, kaniketan, marru-marruketan, gordeketan, kromoketan, "tres navioetan", diabolarekin... Mutilak, pirilarekin eta reiteneketan. Lagunartean euskaraz egiten zuten beti.

858. "Kango, mango haur hau nongo?..." (LEZ-047/015)

Hurrei abesten zien kanta: "Kango, mango haur hau nongo? Ona bada etxerako, gaiztoa bada kanporako".

859. "Txalo pintxalo" (LEZ-047/016)

Hurrei txalo eragiteko kantua: "Txalo pintxalo, katua mizpira gainean dago..."

860. "Lehengotxu hori" (LEZ-047/017)

Umearen hatzen mugimenduak imitatuz egiten den kanta: "Lehengotxu hori, behatz-punta hori, beste guztien artean txikia duk hori".

861. "Eragiozu eskutxoari" (LEZ-047/018)

Haurren eskutxoa eraginez abesten den kanta: "Eragiozu eskutxoari, eskutxo eder galant horri. Behin batari eta gero besteari, eragiozu eskutxoari".

862. Hatz-izenak (LEZ-047/019)

Hatzen izenak ikasteko: nagia, luzea, bizkorra...

863. Antzerkia eta dotrina, batzokian (LEZ-047/020)

Maittere umea zela, batzokian antzerkiak egiten ziren. Bere ama batzokira joaten zen dotrina irakastera. Gerra hasi zenean, zazpi urte zituen.

864. Elizako antzerkiak (LEZ-047/021)

Elizan ere egiten zituzten antzerkiak umetan. Antzezlan gehienak gaztelaniaz izaten ziren, eta erlijio gaiak jorratzen zituzten. Berarekin antzezlanetan parte hartutako hainbat kide aipaten ditu.

865. Garai bateko Lezo (LEZ-047/022)

Garai batean Lezoko Kale Nagusia nola zen azaltzen du.

866. Jamot-enea etxea (LEZ-047/023)

Maittereren etxeak Jamot-enea izena du. Batzuek esaten omen zuten Pikandia-enea izena duela, fatxadako armarria pikanditarrena delako. Etxeko eskrituretan, ordea, Jamot-enea izena agertzen da.

867. Garai bateko Jamot-eneako etxejabeak (LEZ-047/024)

Garai bateko Jamot-enea etxearen jabeei buruzko kontuak.

868. Jamot-eneako altzariak eta pianoa (LEZ-047/025)

Garai bateko Jamot-enea etxearen jabeei buruzko kontuak. Etxea utzi zutenean, altzari batzuk, pianoa... bertan utzi zituzten.

869. Salaberria abizena (LEZ-047/026)

Senide egiten diren Salaberria abizena duten lezoarrak aipatzen ditu.

870. "Ez nuen uste Lezon bazanik arraunketako gizonik..." (LEZ-047/028)

Juanito Garbizuk Lezoko arraunlariei ateratako bertsoak abesten ditu: "Ez nuen uste Lezon bazanik arraunketako gizonik...".

871. Gerra denborako oroitzapenak (LEZ-047/030)

Gerra etorri zenean, Maitterek zazpi urte zituen. Soldaduak Lezon non egon ziren azaltzen du. Jendeak alde egin zuen herritik. Pasai Donibane hutsik gelditu zela dio.

872. Dantza eta euskal kultura (LEZ-047/031)

Inazio Artasoro "Xikiro" hasi zen umeei dantzak irakasten. Txistulariak.

873. Gerra aurreko eta ondorengo eskolak (LEZ-047/032)

Gerra aurrean, Mirenek eskola zeukan Lezoko plazan. Gerraz geroztik, goiko eskoletara joan behar zuten umeei nahi ta nahi ez. Goiko eskolan, gaztelaniaz ikasten zuten, baita dotrina ere. Elizan, nahi zuenak, dotrina euskaraz ikas zezakeen.

874. Gerra aurreko Lezoko elkarteak (LEZ-047/034)

Gerra aurreko Lezoko elkarteak: Gure Borda eta Peña Bixi-bixi. Gerraostean, Peña Bixi-bixi ez zen gehiago ireki.

875. Santa Krutzetako feria (LEZ-047/035)

San Krutzetan, Goiko plazan feria izaten zen: barrakak eta baserritarrentzako erremintak egoten ziren. Eliza jendez josten zen Gurutze Santuari musu emateko. Pazkoetan ere feria egiten zen.

876. Misioak eta Gurutze Santua kalera atera (LEZ-047/036)

Misio batzuetan atera zuten lehenbiziko aldiz Gurutze Santua kalera. Harrez gero, ez dute gehiago atera. Bi misioaldi ezagutu ditu Maritterek. Jesuitak joaten ziren herrira, eta sermoiak izaten ziren aste guztian. Herritarrei ikara handia sartzen zien: dena bekatua eta infernua zen.

877. Gurutze Santua (LEZ-047/037)

Lehen, Goierri eta Hondarribi aldetik jende asko joaten zen Gurutze Santura. Gurutze Santuaren jatorriari buruzko bi azalpen: uretan bilatu zutela eta Baionako obispoak ekarria zela entzuna du.

878. Sagardotegiak eta Alaietxeko dolarea (LEZ-047/038)

Lezoko sagardotegiak: kalean hiru sagardotegi zeuden, eta Bordatxo baserrian beste bat. Sagardotegian erretzen zituzten sardinei buruzko kontua. Alaietxen dolarea zegoen. Sagardotegiko giroa: gizonak beti kantari. Sanjuandarrak ere Lezoko sagardotegietara joateko ohitura zuten: kantari fama zuten.

879. Umetako jolasak (LEZ-049/002)

Ume denborako jostaketak: txingoketan, sokasaltoan, kromoketak, kaioketan, gorde-gordeketan...

880. Aurrezki kutxan eta dendan lan egindakoa (LEZ-049/007)

Aurrezki kutxan lanean aritu zen. Zer lan egiten zituen azaltzen du. Gero, denda zabaldu zuen.

881. Elizako antzezlanak (LEZ-049/008)

Dotrinako antzerkietan parte hartzen zuen umetan. Kolarpean egiten zituzten antzezlanak. Igande arratsaldetan izaten ziren antzezlanak, eta jende asko joaten zen ikustera.

882. Austiñarekin ikasia (LEZ-049/015)

Austiñaren eskolan ibili zeneko kontuak. Umetan, dotrina, otoitzak eta abezedarioa ikasi zituen harekin. Euskaraz ikasten zuten.

883. Kaia (LEZ-049/017)

Lehen kaia nolakoa zen azaltzen du. Iturri bat eta "baraderoak" (ontzitegiak) aipatzen ditu. Almeja, karramarro... biltzen ibiltzen zen jendea.

884. Lopene baserria (LEZ-051/002)

Lopene baserriari buruzko azalpenak. Lopene eta Barunga baserriak bota egin zituzten Orbegozo lantegia egiteko. Iturritxo iturria. Bederatzi senide bizi izan ziren Lopenen. Baserria aitonak erositzen zen.

885. Lopeneko dolarea eta sagastiak (LEZ-051/003)

Lopene baserriak dolarea zeukan. Sagasti asko zuten. 100 karga (karga bakoitza sei zakukoa izaten zen) bildutako urteak izan zituzten.

886. Sagardoa egiteko sagar motak (LEZ-051/004)

Sagardoa egiteko zer sagar mota erabiltzen zituzten: patzoluta, mozoluta, txalaka, gazia... Ez du Lezo sagarraren aditzerik.

887. Kanporako sagardoa egin (LEZ-051/005)

Lopene baserriak dolarea zeukan. Ez zuten sagardorik saltzen baserrian bertan, ez zen sagardotegia; Lezoko eta Errenteriako taberna eta etxeetarako egiten zuten sagardoa.

888. Karlia (LEZ-051/006)

Sagardoa karlian, gurdian hartuta, garraiatzen zuten. Karliak nolakoak ziren azaltzen du. Idi edo behiekin ibiltzen ziren gurdian.

889. Sagar karga (LEZ-051/007)

Ez dauka gogoan zenbat sagardo egiten zuten, baina asko izaten zela dio. Etxeko sagarraz gain, kanpotik ere ekarri izan zuten. Neurria: sagar karga, sei zakuk osatzen zuten.

890. Sagardoaren prezioa (LEZ-051/008)

Sagardoaren prezioa, sagarraren balioaren konformidadean. Aitak eta anaiak eramaten ziztuzte kontu horiek.

891. Lezoko dolareak eta sagardotegiak (LEZ-051/009)

Lezoko sagardotegiak: Bordatxo eta Tximitxu-ene edo Txerrimuño. Dolareak zituzten baserriak: Bordatxo, Lopene, Olazar eta Txatxamendi.

892. Lopene: baserriaren deskribapena (LEZ-051/010)

Lopene baserria nolakoa zen azaltzen du. Beheko solairuan: sukaldea, ukuilua, dolarea eta kupel eta edarientzako gela. Goiko solairuan: logelak, dolareko gela handi bat (sagarra botata egoten zen bertan). Goian: ganbara.

893. Etxeko azienda (LEZ-051/011)

Sei behi, oiloak, txerria, astoa, akuri eta untxiak zeuzkaten Lopenen. Txakur pare bat eta katuak ere izaten ziren.

894. Fruta, denetik eta asko (LEZ-051/012)

Lopene baserrian fruta asko eta denetik biltzen zuten: melokotoiak, udareak, gereziak, aranak, sagarrak, muxikak...

895. Ganbara, urteko uzta gordetzeko (LEZ-051/013)

Ganbaran urteko uzta gordetzen zuten: artoa, patata eta baba.

896. Baserriko tresnak (LEZ-051/014)

Baserriko lanetan erabiltzen zituzten tresnak: goldea, area, aitzurra, sega, higitia, "gozpala" (gorotzak ateratzeko erabiltzen den pala), "arrastalua" (eskuarea)...

897. Lurra ongarritzea (LEZ-051/015)

Lurra ongarritzeko simaurra, gorotza erabiltzen zuten. Soroetan eta zelaian botatzen zuten simaurra. Belar-soroetan hautsa ere botatzen zuten.

898. Karobia eta karea (LEZ-051/017)

Lopene baserri ondoan karobia zuten. Karea nola eta noiz egiten zen azaltzen du. Lurra ongarritzeko, karea botatzen zuten udaberrian.

899. Barungoko erre kara, arropa garbitzera (LEZ-051/018)

Lopenen ez zuten garbilekurik. Errekara joaten ziren arropa eskuz garbitzera. Barungoko erreka.

900. Sukaldeko eltze eta ontziak (LEZ-051/020)

Sukaldeko eltze eta ontziak nolakoak izaten ziren. Tupina, lurrezko eltzea.

901. Aitona, bertsolaria (LEZ-051/024)

Erramunen aitona, Joxe Manuel Salaberria, bertsotan aritzen zen. Gabonetan kuadrillarekin, bikarioaren etxean, baserriko zereginetan aritzen zenean... bertsotan aritzen omen zen.

902. Sorginei buruzko kontuak (LEZ-051/025)

Lopene baserritik gertu, bazen zulo txiki bat. Umetan kalera enkargutara joaten zirenean, goiz bueltatzeko esaten zien bestela zulotik sorginak aterako zirela. Zulo ingurutik ikaratzen pasatzen ziren.

903. Etxeko lursailei jarritako izenak (LEZ-051/027)

Etxeko lursail eta terrenoei jartzen zizkien izenak: luberri berri, erribera, kamiñondo, barrote haundi, goiko zelaia, gaztandegia, sagardi gazte...

904. Inaurkina (LEZ-051/030)

Ganaduaren azpiak egiteko iratzea ekartzen zuten Jaizkibeldik, kosta gaineko iratze-lekuetatik. Zakarrei "iñorkiña" esaten zioten. "Añarra", otea...

905. Txori eta hegaztiak (LEZ-051/031)

Inguruetan ibiltzen diren txori eta hegaztien izenak: zozoa, birigarroa, txantxagorria, errota-txoria (pareta-txoria), kaioak, hegabera (lehen neguan sartzen ziren, orain ez), gau-belea (mirua)...

906. Inguruetan ibiltzen diren piztiak (LEZ-051/032)

Inguruetan ibiltzen ziren basapiztiak: azeria, erbinudea...

907. Hondarra eta garai bateko portua (LEZ-051/034)

Zenbaitek portutik hondarra hartzen zuten, ongarri moduan erabiltzeko. Berak ez du gogoratzen etxerako hondarra ekartzen zutenik. Garai batean portua noraino iristen zen azaltzen du.

908. Lehengo baserriko bizimodua (LEZ-051/035)

Garai bateko Lezoko baserriko bizimodua nolakoa zen kontatzen du. Lan gehiago egiten zen. Ez zen dirurik: jeneroarekin trukea egiten zen.

909. Industriak ingurugiroan eragindako kaltea (LEZ-051/036)

Lantegiek baserriko bizimoduan izan duten eraginaz hitz egiten du. Ganadutarako bazka hautsez eginda, lantegien kearekin. Kutsadurak inguruko sagastietan izandako eragina du hizpide.

910. Ume denborako jostaketak (LEZ-051/037)

Ume garaiko jolasak: gorde-gordeketan, pospolo kaxarekin, kromoekin... Kartetan: zazpiko urrean, lapur jokoan...

911. Eskola kontuak (LEZ-051/038)

Lezoko herriko eskolan ibili zen Erramun. Lanean hasi bitartean, Errenteriara joaten zen eskola partikularrak hartzera.

912. Jaietako bilerak (LEZ-051/039)

Aste barruan ez zen lagunekin ateratzen. Zortzian behin, Oiartzungo Txikierdiko bilerara joaten zen lagunekin. Beste bilera toki batzuk ere aipatzen ditu.

913. Lezoko estropadak (LEZ-051/040)

Lezon estrapadak izaten zireneko kontuak. M. Arrillaga ibili zen patroï lanetan azkenekoz. A Coruñatik bandera ekarri zuten.

914. Gerrako oroitzapenak (LEZ-051/042)

Gerra denborako oroitzapenak. Naparrak sartu zireneko azalpenak. Leihotetan koltxoïak jarrita egon ziren baserri barruan. Soldadu joateko adina zuten gazteak Jaizkibel aldera joaten ziren ihesean. Erramunen anaiak zortzi egunean gordeta egon ziren Jaizkibelen. Gero, ordea, soldadu joan ziren.

915. Sarasolaerreko hilketak (LEZ-051/043)

Gerra denborako oroitzapenak. Sarasolaerreko hilketei buruzko azalpenak.

916. Gerra ondorengo miseria (LEZ-051/044)

Gerra ondorengo gabezia hitz egiten du. Baserritarrek uzta (babarruna) entregatu behar izaten zuten udaletxean. Errazionamendua. Ogi gogorra. Gosea.

917. Lesakara, artoa ehotzera (LEZ-051/045)

Gerra ondorengo gabezia hitz egiten du. Lesakara joaten ziren, mendiz mendi astoarekin, artoa ehotzera.

918. Eskuzko errota txikia (LEZ-051/046)

Gerra ondorengo gabeziaz hitz egiten du. Lezon ez du ezagutu errotarik. Etxean eskuzko errota txiki bat zuten artoa txikitzeko. Jatekoa: taloa eta esnea.

919. Euskaraz egiteko debekua (LEZ-051/047)

Gerra ondorenean, euskaraz hitz egitea debekatua zegoen, eta gaztelaniaz jakin ez. Eskolan 'Cara al Sol' abesten zuten.

920. Kale Nagusiko etxea (LEZ-052/001)

Gurutze Santuaren Plazan, Galardi etxean jaio zen. Umea zela, Kale Nagusira joan ziren bizitzera. Etxea eta inguruak nolakoak ziren azaltzen du (abereak eta baratzeak non nahi ziren). Ukuilua: heia.

921. "Lezon sagarra erruz" (LEZ-052/002)

Garai batean, sagardi asko zen Lezon. Sagardiak zer baserritan eta ingurutan zeuden aipatzen du. Gurasoak zer baserritakoak zituen.

922. Hiru dolare herrian (LEZ-052/003)

Joxe Miel mutikoa zela, sagar denboran, sagarrez beteriko gurdiak eramaten zituzten herrira. Lezon hiru dolare ezagutu ditu. Mutikoak gurditik sagarrak harrapatu nahian ibiltzen ziren.

923. Umetako jostaketak (LEZ-052/005)

Umetako jolasak: potoketan, marru-marruketan, zipoketan, txibakin, pilotan... Jolas bakoitzari buruzko azalpena ematen du. Bere ume denboran frontoia nolakoa zen.

924. Herriko eskola (LEZ-052/006)

Eskolei buruzko azalpena. Noiz inauguratu ziren (Primo de Riveraren diktadura garaian). Orduko alkatea nor zen. Lezok Jaizkibel aldeko terreno batzuk saldu zizkion Hondarribiari, eta salmenta hartatik ateratako diruarekin egin ziren eskolak.

925. Primo de Riveraren garaiko abertzaleak (LEZ-052/007)

Primo de Riveraren diktadura garaiko kontuak. Lezoko orduko abertzaleek heian egiten zituzten bilerak.

926. Miren Gezalaren eskola eta kanpotarrak (LEZ-052/009)

II. Errepublika garaian, Miren Gezalak ikastola ireki zuen herrian. Garai hartan Lezora bizitzera joandako kanpotarrak: familia batzuetako abizenak aipatzen ditu. Euskaldundu egiten ziren.

927. Austiña Lizarazuren eskola (LEZ-052/010)

II. Errepublika garaian, Austiña Lizarazuk eskolak ematen zituen umeentzat eta helduentzat. Eskolak non ematen zituen aipatzen du. Joxe Miel Austiñarekin ibili zen umetan. Lizarazurekin ikasitakoak: dotrina, kontatzen, euskal kantan...

928. Inguruko herriak eta euskara (LEZ-052/011)

Bere gazte denborako Lezo eta Erreterria arteko aldeaz hitz egiten du. Erreterria erdaldunagoa. Lezon denek euskaraz egiten zuten, Erreterrian ez. Antxoren sorreraz hitz egiten du. Pasai Donibane ere herri euskalduna.

929. Aita (LEZ-052/012)

Aitari buruz hitz egiten du. Gizon langilea omen zen. Zer lanetan aritu izan zen. Joxe Mielen aita soldadutzatik libratu egin zen bere aita II. Gerra Karlistan liberalei laguntzen ibili zelako. Lezon soldadutzara derrigortuta joan zen aurreneko kintoei buruz hitz egiten du.

930. Euskararekiko kontzientzia (LEZ-052/013)

Etiket, amagandik batez ere jaso zuen Joxe Mielek euskararekiko kontzientzia. Amari eskolan "anilloa" jartzen zien euskaraz egiteagatik. Joxe Mielen denboran eskolak gaztelaniaz izaten ziren, baina ikaskideen artean euskaraz aritzen ziren.

931. Euskara eta zentsura (LEZ-052/014)

Eskolako kontuak. Maisuak. Joxe Mielen denboran eskolak gaztelaniaz izaten ziren, baina ikaskideen artean euskaraz aritzen ziren. Euskaraz hitz egitea galarazia zegoen denborako kontuak: berak berdin-berdin hitz egiten zuen euskaraz katean.

932. Akolito (LEZ-052/016)

II. Errepublika etorri zenean, Joxe Mielek 11 urte zituen. Akolito lanetan ibiltzen zen orduan. Hiru apaiz ziren herrian: haiei buruzko azalpenak. Sakristaua oso abertzalea zen: Lezoko batzokia inauguratu zenean, sakristauak Joxe Miel bidaltzen zuen jendearengana erreziboak kobratzera.

933. Giro abertzalea, II. Errepublika denboran (LEZ-052/017)

II. Errepublika garaiko Lezoko giro abertzaleaz hitz egiten du. Hainbat alkate aipatzen ditu.

934. Batzokiko kultur ekintzak (LEZ-052/018)

II. Errepublika denboran Lezoko batzokian hainbat kultur ekintza egiten ziren: antzerkiak, dantzak, kantaldiak... Errepublika denboran, kanta abertzale asko ikasi zituen.

935. "Gu espainiarrak gerala..." (LEZ-052/019)

Errepublika denboran, kanta abertzale asko ikasi zituen. "Gu espainiarrak gerala gerala gezurra diote..." abesten du.

936. Bi bandera San Juan zuhaitzean (LEZ-052/021)

II. Errepublika denborako kontuak. San Juanetan zuhaitza jartzen zen: errepublikako bandera eta ikurrina jartzeko sortutako gorabeherak.

937. Ekintza abertzaleen bultzatzaileak, errepublika denboran (LEZ-052/022)

II. Errepublika denborako kontuak. Ekintza abertzaleetan parte hartzen zuten hainbat herritar aipatzen ditu.

938. Soldaduak Lezon sartu: herriko giroa (LEZ-052/024)

Frankistak herrian sartu zirenean, abertzale batzuei ilea moztu zieten. Santakrutz bezperan sartu ziren soldaduak Lezon. Herriko giroa nolakoa zen: 'Centro Republicano' eta Batzokia baziren herrian. Lezoko karlistak Errenteriako "zirkuloan" zeuden afiliatuta.

939. Gerra etorri aurretik lanean ibilia (LEZ-052/026)

Gerra zibila hasi zenean, Joxe Mielek 15 urte zituen. 18 urte bete eta soldadu eramane zuten. Gerra aurretik, lantegi batean aritzen zen lanean: gerraren etorrerarekin, ordea, lantegia itxi egin zen. Lan kontuei buruzko azalpenak: egunean bi pezeta irabazten zituen, larunbatetan ere lana izaten zen, amari dirua entregatu beharra...

940. Kooperatibismoa eta Denantzako denda (LEZ-052/027)

Langile mugimendua herrian. Kooperatibismoaren bueltan mugitzen ziren gehien bat. Denantzako kooperatiba, denda. Baserrietan herrian adina jende bizi zela dio.

941. "Consejo de guerra, sumarísimo" (LEZ-052/029)

Kartzelaratu zuteneko kontuak. Garai hartan Joxe Miel ELAn zebilen. Herrian bi edo hiru kide aritzen ziren ELAn.

942. Herria ikurrinez bete (LEZ-052/030)

Lezo guztia ikurrinez bete zuten Aberri Egunaren bezpera batean. Politika kontuak.

943. Ikastolaren sorrera (LEZ-052/031)

Lezoko ikastolaren sorrerari buruzko azalpenak. Lezo Haundiko eraikin prefabrikatua. Joxe Miel ikastolako bazkideen kuota kobratzen ibiltzen zen.

944. Argia eta beste argitalpen batzuk (LEZ-052/033)

Astero hartzen zuten etxean Argia astekaria gerra aurrean. Kanean ibiltzen ziren astekaria saltzen. Anastasio Zapirainek idazten zituen Lezoko berriak. 'El Día' egunkaria gehien bat erdaraz, baina orri bat euskaraz izaten zen. 'La Constancia' karlistena. 'La Noticia'. Egunkari saltzaileak. Karmeldarrak aldizkaria.

945. Umeen deia aldizkaria (LEZ-052/035)

Joxe Mielen semeak eta herriko beste ume batzuek Umeen deia aldizkarian idazten zuten. Joxe Mielek laguntzen zien idatziak prestatzen. Garai hartan (ikastola sortu aurretik) ez zegoen aukerarik herrian euskaraz idazten eta irakurtzen ikasteko.

946. Kaia (LEZ-052/036)

Lehen, kai aldea nolakoa zen azaltzen du. Harrobia, Puntaleko bidean.

947. Ahateak hazten (LEZ-052/039)

Ahateak hazten zituzten. Herriko beste familia batzuk ere hazten zituzten.

948. 'Centro Republicano' (LEZ-052/041)

Lezoko 'Centro Republicano' non zegoen azaltzen du.

949. Ikastola berria, "ofizialtasunean" sortua (LEZ-054/001)

Lezoko ikastolaren sorrerari buruzko azalpenak ematen ditu. Eraikinari buruzkoak (prefabrikatuak...). Gero, irakasle titulatu bila hasi ziren. Irakasle laguntzaileak ere aipatzen ditu. Elizaren babesa aipatzen du. Ikastolen federazioan sartu zen Lezoko ikastola.

950. Lizeora jauzia (LEZ-054/002)

Lezoko ikastolaren sorrerari buruzko azalpenak. 1966an ireki zuten Markesanekoa. Herrian zer harrera izan zuen. Lizeoaren beharra ikusi zen gero.

951. Euskararen aldeko mugimenduaren suspertzea (LEZ-054/003)

60. eta 70. hamarkadako euskararen aldeko mugimenduaren suspertzeari buruz hitz egiten du. Gau-eskolak martxan jarri ziren.

952. Ikastolako bazkidetzak lortzen (LEZ-054/005)

Ikastola martxan jarri zenean, 100dik gora ume hasi ziren bertan. Helduentzako gau-eskolak giro horretan jarri ziren martxan. Joxeba ikastolarako bazkidetzak lortzen ibili zen (herriko jende askorekin zuen harremana). Ikastola zer baliotan oinarrituta eraiki nahi zen aipatzen du.

953. "Kolegio partikularra vs ikastola herrikoa" (LEZ-054/006)

Ikastolaren sorrerari buruzko azalpenak. Guraso elkartearen eta ikastolaren artean sortutako tira-birari buruz hitz egiten du. Guraso elkarteak erdaraz ematen zituen eskolak, dotrina euskaraz ematen zuten. Don Doroteorekin (eskola hartako sortzailearekin) izandako elkarriketa du hizpide.

954. Allerru Elkartea (LEZ-054/008)

Allerru Elkaratearen sorrerari buruz hitz egiten du. Elkaratearen sorrera bultzatu zuten arrazoiak aipatzen ditu. Elkaratearen baitan egindako ekintzak.

955. Ixkulin Elkartea (LEZ-054/009)

Ixkulin Elkaratearen sorrerari buruz hitz egiten du. Elkarate gastronomikoa. Nola funtzionatzen zuen kontatzen du.

956. 60. eta 70. hamarkadetako mugimendu abertzalea (LEZ-054/011)

1960-1970 hamarkadetako Lezoko mugimendu abertzaleaz hitz egiten du (joera politikoak, harremanak...). 1964an, "25 años de paz". Gernika, Bergara eta Irunen egindako Aberri Egunak eta ETaren sorrera aipatzen ditu.

957. 60. eta 70. hamarkadetako langile mugimendua (LEZ-054/012)

1960-1970 hamarkadetako langile abertzaleen mugimendua herrian. ELA-STV sindikatuan langile asko zegoen afiliatua. Lan Deya argitalpena.

958. Ikurrinak kanpandorrean (LEZ-054/013)

1960-1970 hamarkadetako Lezoko mugimendu abertzaleaz hitz egiten du. Aberri Egun bezpera batean herriko talde batek ikurrinak jarri zituzten kanpandorrean.

959. Gazteria politikoki prestatzen hasi (LEZ-054/016)

1967an kartzelatik atera eta gero, Joxebak talde bat antolatu zuen herrian gazteria politikoki prestatzeko. ETAren fronte kulturalako ildoan lan egiten hasi ziren.

960. ETA erakundearen sorrerak Lezon izandako eragina (LEZ-054/018)

ETA erakundearen sorrerak Lezon zer eragin izan zuen hizkuntz prespektibatik begiratuta. Ikastolaren sorreran bultzatzaile. Hizkuntzaren garrantziaz kontzientzia eragitea.

961. Euskararen transmisioa (LEZ-054/021)

Euskara eta euskaltasunaren transmisioa etxetik jaso zuen Joxebak. Herrian zer sentimendu zegoen euskararekiko, eta horrek nola eragin zuen ikastolaren sorreran. Oro har, 60. hamarkadan giro politikoa eta hizkuntza nola uztartzen ziren aipatzen du.

962. Euskaren egoera gerra ostean eta hirurogeiko hamarkadan (LEZ-055/013)

Gerra ondorenean, kalean ez zen euskaraz asko hitz egiten, familia jakin batzuek aparte. Eskolan ere gazteleraz egiten zuten. Hirurogeigarren hamarkadan bizitasun gehiago zegoen euskara eta euskal kulturaren inguruan. Antzerki taldeak eta luistarrek pizkundea bultzatu zuten, baita Esnal eta Esnaolak ere. Guraso elkartean euskarazko klaseak ematen zituen Patrik hamazazpi urterekin.

963. Euskal giroa zabaltzen (LEZ-055/014)

1970ean Lezora itzulitakoan, euskararen inguruko giroa zabaltzen ari zen. Rikardo Arregi alfabetatzearekin hasita zegoen, euskal liburuak ateratzen. 1968an Arantzazuko biltzarrean egon zen Patri, euskara batuaren oinarriak ezarri ziren hartan. Institutuan orduz kanpo eta gau-eskolan ematen zituen euskarazko eskolak.

964. Euskararen galera eta inmigrazioa (LEZ-055/020)

Industrializazioaren eraginez, biztanle kopurua bikoiztu zenean, diglosi egoera sortu zen, gaztelaniak euskarari lekua kenduz. Euskararen galeraren kontzientzia piztuz joan zen.

965. Euskarazko kanten transmisioa (LEZ-055/025)

Don Inaziok kanten erakusten zizkien. Eguberrietan etxez etxe kantuz ibiltzen ziren eta denak euskaraz ziren. Kantagintza euskal kultura zabaltzeko gakoetako bat dela dio elkarrizketatzaileak.

966. Umetako jolasak (LEZ-056/002)

Ume denborako jolasak: marro-marroka, korrika, elkar harrapatzen, "ailuzian"... Ez zuten jostailurik izaten. Erregeek ekarritako oparia: pistoiak lehertzen zituen latorrizko eskopeta.

967. Mirenen eskolan ibilia (LEZ-056/003)

Jaietan, baserrietako umeak Une baserri inguruan elkartzen ziren. Mirenen eskolan ibili zen Juan Joxe: eskolak euskaraz izaten ziren. Lehenagotik, ordea, herriko eskolan ibili zen maisu batekin.

968. Larachen (Afrika) soldadu (LEZ-056/004)

Soldadutzako azalpenak. Gerra bukatu ondoren, Larachera (Afrika) bidali zuten soldadu. Gaizki moldatzen zen gaztelaniaz hitz egiten behar zuenean. Euskaldunei "hay que hablar cristiano" esaten zien.

969. 18 urterekin, arrebarekin bakarrik gelditu baserrian (LEZ-056/005)

Gerra hasi zenean, Juan Joxek 13 urte zituen, eta aita urte hartan hil zitzaion. Ama, berriz, 18 urte zituela hil zen. Arrebarekin bizi izan zen baserrian. Zortzi behi zituzten, eta behi-esnea kalean saltzen zuten. Jatekoari zegokionez, zegoena jan behar izaten zen: sardina zaharrak, bakailao erreka, txokolate ogia... Txekorrak ere hazten zituzten. Baserriko lanetarako behiak erabiltzen zituzten.

970. Pitarra eta sagardo (LEZ-056/006)

Etixerako pitarra eta sagardo pixka bat egiten zuten. Ez zuten sagardorik saltzen. Urruloko dolarera joaten ziren etxeko sagarrekin sagardoa egitera.

971. Lezoko jaiak (LEZ-056/008)

Garai bateko Lezoko jaiak: Santakrutzetan eta Pentekosteetan. Santakrutzetan zezanak: plaza itxian eta sokamuturra.

972. Asteazken zehar kalera ez (LEZ-056/009)

Jaietan, 06:00etako mezara joaten ziren. Ez ziren meza nagusira joaten, baserrian eginkizunak izaten zituztelako. Asteazkenera ez ziren kalera joaten.

973. "Caseros burros" (LEZ-056/011)

Eskola nazionalerako maisuei buruz hitz egiten du. Eskolak gaztelaniaz izaten ziren. Euskaraz eginez gero, "caseros burros" esaten zien. Baserritarrei burula egiten zien.

974. Lezoko sagardotegiak (LEZ-056/013)

Herriko hainbat sagardotegi aipatzen ditu. Sagardotegira joateko ohitura handia zegoen lehen. Juan Joxe ez zen sagardotegi giroan ibiltzen.

975. Lesakara, irin bila (LEZ-056/018)

Gose denborako kontuak. Artoa entregatu beharra. Lezotik astoarekin joaten ziren Lesakara, errotara, irin bila. Bidean, karabineroak egoten ziren. Lezon ez zegoen errotarik. Oiartzungo hiru-lau errota aipatzen ditu.

976. Erreketeek ama eta hiru seme hil (LEZ-056/019)

Gerrako gertaera. Erreketeak Lezon sartu zirenean, ama eta hiru seme hil zituzten "Txaratxola" baserrian.

977. Soldadutzatik lantegira (LEZ-056/020)

1944tik 1946ra soldadu ibili zen. Soldadutzatik bueltatu eta baserria saldu zuten. 29 urterekin, Croma lantegian hasi zen lanean. Gero, Meipin aritu zen. Pekin lantegitik hartu zuen erretiroa. Lantegi bakoitzean zer lanetan aritu zen azaltzen du.

978. Baserritarrak ere lantegira (LEZ-056/023)

Lezoko baserritar gehienak baserrian eta lantegian aritu ohi ziren lanean. Baserritar askok egiten zuen lan paper-lantegian eta "alcoholera"n.

979. Gaztetako bilerak eta dantzaldiak (LEZ-056/029)

Gaztetako ibilerak. Irungo bilerak eta dantzaldiak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Neskatan egitea. Etxera oinez bueltatu beharra.

980. Lanera, bizikletaz (LEZ-056/030)

Ezkon ondorengo bizimoduari buruz hitz egiten du. Bizikletaz joaten zen lanera.

981. Bertsozaletasuna Lezon (LEZ-056/033)

Irunera oinez joaten ziren bertsoak entzutera. Uztapide, Zepai, Basarri, Telletxea, Xenpelar... bertsolariak aipatzen ditu. Lezoko plazan balkoitik balkoira bertsotan aritzen ziren.

982. Bertsopaperak (LEZ-056/035)

Lezora kanpoko gizon bat joaten zen bertsopaperak saltzera. Jaietan erosten zituzten bertsopaperak.

983. Eskaleak eta untxiaren lapurreta (LEZ-056/036)

Lehen baserrietan eskean jende asko ibiltzen zen. Untxia lapurtu ziotenekoa kontatzen du.

984. Auzotarren arteko sesioak (LEZ-056/038)

Herriko giroa. Bi bizitzako baserrietan sortzen ziren sesioak. Auzotarren arteko tira-birak.

985. Gerra aurrean, 'Argia'n idatzia (LEZ-057/003)

Gerra aurrean, 'Argia' aldizkarirako idazten zituen Oiartzungo berriak. Nolako kronikak idazten zituen kontatzen du. 'Kontu kontari' atalean aitari entzundako ipuin eta kontakizunak idazten zituen.

986. Euskal idazlea izateagatik espetxeratua (LEZ-057/005)

Gerra denboran kartzelaratu egin zuten Anastasio. Leporatzen zioten delitua: euskal idazlea izatea. Urtebete egin zuen kartzelan.

987. Kroniketako gaiak (LEZ-057/006)

'Argia' aldizkarirako idazten zituen kroniketako gaiak. Herriko kontuak.

988. Lezoko kronikagileak (LEZ-057/008)

Anastasio Zapiirainek 'Argia' aldizkarirako euskaraz idazten zituen Lezoko kronikak. Beste aldizkari batzuetan Lezoko kronikak idazten zituzten pertsonak aipatzen dituzte.

989. Euskaraz idazten nola ikasi (LEZ-057/011)

Juan Manuel Lekuona anaia apaizari eskutitzak idatziz ikasi zuen euskaraz idazten. Herriko kontuak kontatzen zizkion asteroko idatzietan.

990. Kronikak eta herritarren harrera (LEZ-057/015)

'Argia' aldizkarian idazten zituzten kronikek herritarren artean nolako harrera zuten aipatzen du. "Hemen da Argia! Euskal egunkari berria!" esanez kale salmenta egiten zuen gizon batek Lezon.

991. Orduko irakurzaletasuna (LEZ-057/018)

Jendeak zer irakurtzeko ohitura zuen: 'El País Vasco' eta 'La Constancia' egunkariak.

992. Garbizu anaiak (LEZ-057/021)

Lezoko Garbizu anaiek gerra aurrean poesiak eta kronikak idazten zituzten. Juanito Garbizu 'Zubigar' eta Daniel Garbizu 'Iruzubi'. Anastasio Zapiirainek tratu handia zuen Garbizu anaiekin.

993. Ariztiberriko jaialdiak (LEZ-057/025)

Errepublika garaian, Ariztiberrin jaialdi abertzaleak egiten ziren. Hitzaldiak, dantzak... egiten ziren. Jende mordoxka biltzen zen.

994. Antzerkia (LEZ-057/026)

Oiartzunen 'Ehun dukat' antzezlanak egin zuten (Pilarren anaia Manuelek idatzia). Oiartzunen eta Lezon antzerki taldeak baziren. Antzerkian ibiltzen ziren hainbat pertsona aipatzen ditu. Elizako antzerkietan neska eta mutilak banatuta aritzen ziren. Batzokiko antzezlanetan, berriz, nahastuta antzezten zuten.

995. Elizako kantak (LEZ-057/028)

Elizan latinez, euskaraz eta gaztelaniaz abesten zen. Mariaren alabak kongregazioan gaztelaniaz kantuan franko egiten zela dio Pilarrek.

996. Emakume abertzaleen bilerak (LEZ-057/030)

Gerra aurrean emakume abertzaleek Lezoko batzokian bilerak egiten zituzten. Boto bilketan ibili eta hamaiketakoak ematen zuten batzokian. Emakume mordoxka biltzen ziren.

997. Euskaldun izatearen kontzientzia (LEZ-057/034)

Etxean beti euskaraz egiten zuten. Ez zegoen euskaraz egiteko kezkarik, denak aritzen baitziren euskaraz. Osabarekin euskal kantak ikasi.

998. Txikitatik artoa zuritzen eta ura garraio (LEZ-059/002)

Ume-umetatik tokatu zitzaion Juakinari etxean laguntzea, ura garraio ibili edo artoa jorratzen. Arropa garbitzera erreka joaten ziren, inguruko baserrietakoak bezalaxe, eta arropa zuria zelaian zabaltzeko ohitura ezagutu du. Dutxarik ezean, ura eltzean berotu eta erreina edo azpil batean hustu eta bertan sartuta garbitzen ziren. Argindarra izan aurretik kandlekin moldatzen ziren.

999. Arroz-esnea denak ontzi beretik jaten (LEZ-059/003)

Su baxua zen Juakinaren baserrian, eta gogoan du haurrak zirela arroz-esnea eta halakoak denak ontzi beretik jaten aritu izana. Gaintxurizketako otorduetan, aldiz, bakoitzak bere plateretik jaten zuen.

1.000. Fabrikan eta baserrian lanean (LEZ-059/004)

Juakinaren anaiak, baserrian aritzeaz gain, basoan edo lantegian aritzen ziren lanean. Juakina eta ahizpa, aldiz, etxean. Pixka bat heltzean hasi ziren baratzeko barazkiak hartu eta tratua saltzera irteten; Pasai Antxon ibili ziren lehenik eta Erreterian ondoren. Baserriko behiek ematen zuten esnea bertako esneketari bati saltzen zioten. Zekorren bat edo beste ere saltzen omen zuten urtero.

1.001. Gaintxurizketako eskolan bederatzi urtez (LEZ-059/005)

Bost urte inguru zituela hasi zen eskolara joaten, Lezon bertan, eta neskak eta mutilak nahasian egoten omen ziren, euskaraz egiten zieten bi maistrarekin. Hamalau urte bete arte ibili zen eskolan Juakina. Lapitzekin aritzen zirela gogoan du. Espainiako bandera gora eta behera ibiltzen zuten eta hari kantatu ere egin behar izaten zioten. Zigorak ezartzen zizkietela ere oroitzen du Juakinak, baina ez du gogoan inor jotzen zutenik. Etxera bazkaltzera joan eta eskolara itzultzeko ordu pare bat izaten zuten. Arratsaldetan esku-lanetarako tarterik izaten zen eta Juakinak josten eta puntua egiten ikasi zuen bertan. Etxerako galtzerdi asko egina da.

1.002. Artilearekin egindako koltxoiak (LEZ-059/006)

Lan handiak hartzen zituzten artilez betetako koltxoiak egiteko. Lehenik, artilea garbitzen zuten errekan, gero hura lehortzen jarri eta gero makilarekin gogotik jo.

1.003. Sokasaltoan, korrika eta kamamila biltzen (LEZ-059/008)

Sokasaltoan, korrika eta kamamila biltzen aritzen zen gusturen Juakina. Sagarrak, aranak eta muxikak baziren Gaintxurizketan, baina Juakinak dioenez, galdu egin ziren denak.

1.004. Jaunartzea San Jose egunarekin (LEZ-059/009)

Gaintxurizketan bizita, Erreteriarra zein Lezora joaten ziren mezara. Dotrina, aldiz, Lezoko parrokiari ikasi zuen Juakinak, euskaraz. Jaunartzea alokatutako

soineko zuri batekin egin zuen, San Jose egun batez, eta egun horretako bazkari-legea, etxean egin zuten, familiarekin.

1.005. Arropa berria Aste Santuan (LEZ-059/010)

Aste Santu ingurua izaten zen Gaztelumenditarrenean arropa berria estreinatzeke tenorea. Juakinak berak eta ahizpak josten ikasi orduko, haiek hasi omen ziren etxeko guztientzat arropak josten; ordura arte, aldiz, josturarenera joan izan ziren. Hondarribiko Petra delako emakume batekin ikasi omen zuten josten, Erreterian.

1.006. Beti baserriko lanetan (LEZ-059/011)

Etxean bertan zein auzolanean, baserriko lanetan aritu izan da beti Juakina. Gaur egun baino askoz ere ohitura gehiago omen zen garai batean auzolanean jarduteko.

1.007. Eskolatik atera eta ardiak zaintzera (LEZ-059/012)

Pasai Donibanetik artzain bat etortzen zitzaien neguan baserrira. Juakina bera haurra zela hasi zen ardi-zaintzen, eta gerora ere ez zitzaion langintza horretan aritzea gutxitan egokitu.

1.008. Errazionamendua ezagutu zuen Juakinak (LEZ-059/013)

Tratua saltzera herrira abiatzea eta trukean etxerako jana ekartzea askotan egokitu zitzaien Juanitari eta ahizpari. Etxerako fruta eta olia ekartzen zituzten, besteak beste. Errazionamendu garaiak ezagutu zituen Juakinak. Etxe bakoitzean eguneko opil bat banatzen zenekoa edo babarrunak udaletxean entregatu behar zirenekoa. Taloak egiteko artoa ehotzera, lurritako errotara joaten ziren.

1.009. Inguruko bilera eta erromeriatara irteerak (LEZ-059/014)

Hamabi edo hamahiru urte betetzerako hasi zen Juanita dantzara eta erromerietara joaten; Guadalupera, Pasai Antxora, Erreteriarra, Irungo Anaka auzoko bileretara, Txikierridira, Altxibarrera... Tranbian edo autobusean joaten ziren batera zein bestera. Aipatu toki horien guztien artean ez zen Juakinak bereziki gogoko zuenik. Denak berdintsuak zirela dio. Txikierridin, Altxibarren eta Irungo Anakan soinu-jolea izaten omen zen; gainontzekoetan, musika. Juakinak ez zuen ezagutu dantza lotua galarazita zegoen garairik; bai, ordea, baserri bidetan barrena ibili behar zutenek bi zapata pare eramaten zituztenekoak.

1.010. Elurra botatzen zuelarik, ama errietan eta anaia txorientzat tranpak jartzen (LEZ-059/015)

Elurra botatzen zuen garaian ama errieta batean egoten omen zen. Juakinak eta haren anai-arrebek, aldiz, gozatu galantak hartzen omen zituzten. Juakinari gehien gustatzen zitzaion inork ukitu gabeko elur eremutan ibiltzea; inor "estreinatu" gabekoetan. Bestalde, Juakinak azaltzen digu anaiak zer tranpa klase jartzen zuen txoriak harrapatzeko.

1.011. Ontza bat txokolate bakoitzak (LEZ-059/016)

Bihurrikeriak egiten ote zituzten galdetuta, esaterako, amari txokolaterik kentzen ote zioten edo, ezetz dio Juakinak. Izan ere, ez baitzen txokolatetik sobera izaten.

1.012. Pasai Antxon tratuan (LEZ-059/017)

Pasai Antxoko San Fermin Eliza ondoko plazan saltzen omen zuten tratua, Lezo inguruko gehienek bezala. Erreterian esne partitzen ibiltzen zen izeba bat hil egin zitzaien, ordea, eta harren konpromisoei eustegatik, Antxora joateari utzi eta Erreteriarara joaten hasi ziren.

1.013. Erretiratzeko tenorea (LEZ-059/018)

Jaian etxera erretiratzeko ordurik izaten ote zuten galdetuta, baietz esaten du Juakinak; egungoa baino zuzenagoa! Eurak gaueko 21:30ak edo 22:00ak alderako itzuli ohi ziren, iluntzerako normalean, ilundu eta berehala bestela.

1.014. Arbia eta erremolatxa ganaduari jaten emateko (LEZ-059/020)

Ganaduari jaten ematen sarritan aritu izan da Juakina. Belarra ematen omen zitzaion jateko, gehien-gehienean; pentsu apur bat agian, ailegatzen baldin bazen! Baserriko baratzean arbi eta erremolatxa haziak ereiten zituztela dio, ganaduari halakotik ere ematen baitzitzaion jaten.

1.015. Bazkaltzeko babarrunak, azenario askorekin (LEZ-059/021)

Emakumezkoenak edo gizonezkoenak propio diren zereginik ez du Juakinak bereizten, baserriko lanen artetik. Hala ere, sukaldean emakumeak aritzen zirela dio. Garai bateko elikadura ohiturei buruz galdetu eta bazkaltzeko potajea izaten omen zen gehienean: babarrunak azenario askorekin. Postrerik ez omen zen usatzen, baina fruta, baldin bazen behintzat, noiz nahi jateko aukera izaten zen. Afal garaian tortillaren bat izango zen. Arraina kalean erosten zuten, merkeena, beti ere. Tarteka, esneketariak berak ekartzen omen zuen arraina auzora. Sagardoa ere egiten zuten etxerako, pitarra, sagarra auzoan jo eta auzoko dolarean bertan zapalduta.

1.016. Guztia bekatu zeneko garaiak (LEZ-059/023)

Bi lagunek elkarri musu ematea bekatu zela esaten zen garaikoa da Juakina; mezetara jaun hartzera baraurik joan behar izaten zenekoa. Gauza horiek denak gaur egun aldatu egin direla dio, bai eta ederki aldatu ere!

1.017. Irunen ezkondu (LEZ-059/024)

Juakina jostun batek neurrira egindako soineko beltz bat soinean jantzita ezkondu zen senargaiarekin, Irunen. Bazkaria ere Irunen bertan egin omen zuten, alde bateko eta besteko senideekin batera.

1.018. Zortzi seme-alaba, eta lehendabiziko seiekin etxean erditu (LEZ-059/025)

Zortzi seme-alaba eduki ditu Juakinak. Horietatik sei etxean; azken biak Irungo ospitalean. Etxean erditzen laguntzeko Irungo emagin bat etortzen zitzaion, bai eta familiako hainbat emakume ere, tartean, ama.

1.019. Oiartzunen hizkera diferentea (LEZ-059/027)

Eskualdeko eta inguruko herrietako hizkerei buruz galdetuta, guztiak antzeko xamarrek sumatzen ditu Juakinak. Hala ere, oiartzuarrek lan-tresneriari eta landaretzari dagokienez hiztegi berezia omen dute. Desberdina. Esaterako, Lezon "babarruna" esaten zaion lekale berari "ilarra" esaten zaio Oiartzunen, eta Lezoko ilarrari, aldiz, "ilar txikia" esaten omen diote.

1.020. Langileekin jolasean, haien egoeraz jabetu gabe (LEZ-060/006)

Umetan Lezon bizi ziren, eta etxe hartan Langileen Batailoiko langileak ere bizi ziren. Lana latz egiten zuten haiek. Beraiek, mutil koskorrek izanda, langileekin jolasean aritzen ziren. Baldintza txarretan bizi ziren langileak, bizimodu gogorra zuten.

1.021. "Uso txuriak" eramandako maisua (LEZ-060/007)

Eskola nazionalean ikasi zuen Joxek. Dena erdaraz egin behar izaten zuten. Maisu batek, don Jose Mariak, Uso txuria kanta erakutsi nahi izan zien; eta, horregatik, bi egunerako lanetik bidali zuten. Gerora, gehiago ez zen itzuli lanera. Goizero, eskolan, Cara al Sol abestu behar izaten zuten; eta, gero, instrukzioa egiten zuten.

1.022. Hitzaldietara joan, eta hango propaganda onartu egin behar (LEZ-060/008)

Madrildik Divisi^on Azuleko soldaduak etortzen ziren Lezora. Lezoko gazteek, soldadu joan aurretik, Errenteriako sindikatura joan behar izaten zuten asteen behin, lana utzita, hitzaldiak entzutera. Han entzuten zituztenak onartu egin behar izaten zituzten.

1.023. Bakailaoa deskargatu, eta bat kolkora (LEZ-060/010)

12 urterekin, zapatari izateko hasi zen ikasten. 14 urte bete baino lehenago, Pasai San Juanera joaten zen bakailaoa deskargatzera. Garai hartan, gosea zen, eta bakailaoren bat etxera eramaten zuten ezkutuan.

1.024. Poliziaren dendan pikuak lapurtzen (LEZ-060/011)

Gerraostean, gosea pasa zuten. Sagarrak eta dendetako janaria lapurtzen ibilia da Joxe, beharra zegoelako. Polizia armatu bat eta bere familia Lezora etorri ziren bizitzera. Familia estimatua zen hura; janari-denda jarri zuten, eta Joxek han piku batzuk lapurtu zituenekoa gogoan du. Polizia hura oso gizon maitatua izan zen Lezon.

1.025. Zapata gutxi zegoenez, zegoena ondo zaindu behar (LEZ-060/013)

12-30 urte zituen bitartean, zapatari-lanetan aritu zen, Zubitxo kalean, etxe ondoan. Zapatariek lehen dena eskuz egiten zuten. Lehengo oinetakoak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Behin, sagar-lapurretan, zapata lokatz artean gelditu zitzaion; baina, hurrengo batean, itzuli eta han aurkitu zuen.

1.026. Aita eta bera, lan asko egindako gizonak (LEZ-060/015)

Paper-fabrikan egiten zuen lan Joxeren aitak; eta, horrez gain, Irunera joaten zen Talgo trenaren estazio berria egitera, egunean lau orduz. Joxe bera lan asko egindakoa da; paper-fabrikan zebileneko lan-baldintzak aipatzen ditu.

1.027. Paper-fabrikako lan-prozesua (LEZ-060/016)

Paper-fabrikan, makinetan egiten zuen lan. Han, lan-istripua izan zuen, eskua harrapatuta. Paper-fabrikako lan-prozesua azaltzen du. Egunkari askotarako papera sortzen zuten.

1.028. Egunkarietarako papera egiteko prozesua eta tresnak (LEZ-060/018)

Paper-fabrikan, egunkarietarako papera sortzen zuten. Papera egiteko prozesuaz eta tresnez hitz egiten du.

1.029. Paper-fabrikako makinen funtzionamendua (LEZ-060/019)

Paper-fabrikan, gehienbat gizonek egiten zuten lan. Fabrikaren ondoan, makinetako mantak sortzeko fabrika zegoen. Makinaren funtzionamenduaz hitz egiten du.

1.030. Makinetako mantak ondo aprobetxatzen zituzten (LEZ-060/020)

Makinetako mantak sortzeko, beste lantegi bat zegoen paper-fabrikaren ondoan. Manta haiei buruz hitz egiten du. Manta haiekin, galtzerdiak eta txapinak egiten zituzten.

1.031. Paper-fabrikako materialen inguruko pikarokeria (LEZ-060/021)

Paper-fabrikako langileek papera eraman zezaketen etxera; baina batzuek saldu egiten zuten, eta nagusiak eskatzen zien, faborez, hori ez egiteko. Paper-fabrikako mantekin, ordea, arropak egiten zituzten langileek. Garai hartako pikarokeriari buruz hitz egiten du.

1.032. Paper-fabrikako lan-baldintzak (LEZ-060/022)

Larunbatetan, lan egiten zuten. Kooperatibako eta paper-fabrikako lan-baldintzak alderatzen ditu. Paper-fabrikako ordutegia eta laneko ohiturak.

1.033. Uholdeek bakarrik gelditu zuten paper-fabrikako ekoizpena (LEZ-060/023)

Paper-fabrikan, lan-baldintza gogorrek egon arren, ez zuten grebarik egiten garai hartan. Uholdeak izan zirenean bakarrik gelditu zen ekoizpena. Gogoan ditu uholde haiek, 1960. urte ingurukoak. Orduan, emakume bat hil zen eta kalte material handiak eragin zituen urak. Egunak eman zituzten uholdeen ondorioak garbitzen.

1.034. Garai batean, batean eta bestean, 12 ordu lanean (LEZ-060/024)

Paper-fabrikan zebilen garaian, 8 ordu egiten zuen lan egunero; eta, beste 4 orduz, zapatari-lanetan aritzen zen. Paper-fabrikan, ordu laurden bakarrik izaten zuten bazkaltzeko.

1.035. Paper-fabrikako egurra lantzen (LEZ-060/026)

Paper-fabrikara pinua nondik ekartzen zuten azaltzen du. Egurra nola lantzen zuten; egurraren zati guztiak aprobetxatzen zituzten.

1.036. Egurretik papera lortzeko prozesua (LEZ-060/027)

Egurra txikitutakoan, papera nola sortzen zuten azaltzen du.

1.037. Lehendik hona, ekoizpena asko azkartu da (LEZ-060/028)

Lehendik hona, ekoizpena asko azkartu da; makinetan egondako aurrerapenekin, langile gutxiago behar da.

1.038. Paper-fabrikak eragindako kutsadura (LEZ-060/029)

Paper-fabrikak kutsadura handia eragin du: airean, errekan... Hondakin guztiak erreka botatzen zituzten.

1.039. Umetako bainuen arriskuak (LEZ-060/030)

Lezon, Atxa lantegiko enborren gainean jolasean aritzen ziren; eta, nahiz eta arriskutsua izan, han ikasi zuten igerian. Ura zikina zegoen ordurako.

1.040. Txirlak eta aingirak harrapatzen (LEZ-060/031)

Txirla asko zegoen lehen Lezon, eta haiek harrapatzen aritzen ziren, eskuz, aitzurrik gabe. Erreketan, aingirak harrapatzen zituzten sardexkarekin; azala kendu, sukaldean prestatu, eta jan egiten zituzten.

1.041. Umetako aisialdia vs gaztetako aisialdia (LEZ-060/032)

Umetan, pilotan aritzen ziren; pixka bat koskortutakoan, ordea, tokan, musean eta trukean. Gaztetako ibilerak kontatzen ditu: taberna giroa, futbol-partiduak, bilerak... Irungo bileretara topoz joaten ziren.

1.042. Zapaten zorua egiteko modua lehen eta orain (LEZ-060/034)

Lehen, zapaten zorua nola egiten zuten azaltzen du. Oinetakoak egiteko materiala Donostiatik ekartzen zuten.

1.043. Zailena, zapaten zorua jostea (LEZ-060/035)

Zapatak konpontzeko garaian, zailena zapatak jostea izaten zen. Gizonen eta emakumeen zapaten artean, aldea zegoen; eta denbora gehiago behar izaten zen emakumeen zapatak josteko. Pixkanaka, zapatak egiteko prozesua erraztu egin da.

1.044. Zapatari zeneko lanak (LEZ-060/036)

Zapatari zela, gerrikoak zulatu eta neurrira jartzen zituen. Era guztietako oinetakoak egiten zituen. Abarkak gomarekin egiten zituzten. Garai hartan, oinetakoak asko aprobetxatzen ziren.

1.045. Lehengo oinetako motak (LEZ-060/037)

Lehengo botak nolakoak izaten ziren azaltzen du; gehienbat, arrainak deskargatzen ibiltzen ziren lagunek erabiltzen zituzten. Alpargatak kolore eta material askotakoak izaten ziren lehen.

1.046. Arropa ez hondatzeko izandako burutazio xelebrea (LEZ-060/038)

Lehen, arropa hondatuko zen beldurrez, batzuek ez zuten erabiltzen. Horri buruzko anekdota kontatzen du.

1.047. Dirurik ez zegoenean ere, konfiantza bai (LEZ-060/040)

Julian Iturainekin ikasi zuen zapatari-lanbidea. Orduko salmentak nola egiten ziren azaltzen du; batzuek ez zuten dirurik izaten ordaintzeko, baina konfiantza beti ematen zitzaaien bezeroei.

1.048. Bakailaoa deskargatzen ibili zeneko garaia (LEZ-060/042)

14 urterekin, bakailaoa deskargatzen hasi zen Pasai Donibanen. Garai hartan, barku asko zeuden, txikiak, baina egunero bakailaotara joaten zirenak. Goizeko ordu bietatik seietara aritzen ziren deskarga-lanetan. Orduan, lana nola egiten zuten azaltzen du.

1.049. Gaez kalean ibiltzeko beldurra (LEZ-060/043)

Pasai Donibanen bakailaoa deskargatzen aritu zen garaian, Lezotik oinez joaten zen hara, gaez. Bidean, ez zegoen farolik, eta beldur galanta pasatzen zuen orduan: izan ere, Sakamantekasek mutil koskorrak eramaten zituela esaten zuten zaharrek.

1.050. Pinuak botatzen ibili zenekoa (LEZ-060/044)

Umetako lanetan, ez zuten diru askorik irabazten. Pinuak botatzen eta herrira garraiatzen ibili zen garaian, astean 13-14 pezetako jornala izaten zuen. Pinua aizkorarekin botatzen zuten.

1.051. Errazionamendu garaiko "luxuak" (LEZ-060/046)

Errazionamendu garaian, olio eta azukrea ez ziren soberan izaten. Ogi zuria Frantziatik ekartzen zuten kontrabandoan. Ogi zuria luxu handia izaten zen orduan. Errazionamenduko ogia izugarri gogorra zen. Beraiek taloa jaten zuten etxean; eta, noizean behin, txokolate pixka bat jartzen zioten taloari. Hura janari gozoa!

1.052. 13 urterekin, arrautza osoa jan (LEZ-060/048)

13 urterekin jan zuen lehenengo aldiz arrautza osoa, komunio handia egin zuenean. Esnea zuenak arroz-esnea jaten zuen.

1.053. Arrain-kaxak josten aritu zenekoa (LEZ-060/049)

Pasaian, arrain-kaxak josten aritu zen. Lan horren nondik norakoak azaltzen ditu. Makinek bezala egiten zuten lan. Egurra kanpotik ekartzen zuten, pinua, dagoeneko oholak prestatuta. 8 gazte egoten ziren kaxak josten; eta beste 2 edo 3, materiala ekartzen. Batzuek oso abilak ziren iltzeak sartzen. Kaxa handia edo txikia izan, desberdin ordaintzen zen. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.

1.054. Ardo-upelak konpontzen (LEZ-060/051)

Ardo-upelak konpontzen aritu zen Lezon. Hango lanaren nondik norakoak azaltzen ditu. Lezoko sarreran zegoen tailer hura. Nagusia Erreterriakoa zen; 14 langile inguruk egiten zuten han lan. Bankutik dirua tailerrera eraman behar izan zueneko pasadizoa kontatzen du.

1.055. Upelak konpontzeko moduak (LEZ-060/052)

01 16 47 Upelak konpontzen aritu zenean, Errioxa eta Gaztela aldeko upelekin egiten zuten lan. Upelak garraiatzeko, trenaz baliatzen ziren: bagoian ekartzen zituzten, eta bagoian bertan konpontzen.

1.056. Emakumeak zenbait fabrikatan lanean, bereziki (LEZ-060/053)

01 18 33 Erreterrian, Olibet gailera-fabrika zegoen. Emakume askok egiten zuten han lan; baita Atxa txapa-fabrika ere.

1.057. Aita Lezoko langileen kooperatibaren aldekoa (LEZ-061/002)

Mari Kruzen gurasoek, ezkondu aurretik, berniz fabrika batean egiten zuten lan, baina ezkondu eta amak lana utzi zuen. Aita langileen kooperatibaren aldekoa zen, eta gerra piztu zenean, ez zuen asko uste bere bila joango zirenik, baina hala gertatu zen, eta Frantziara joan behar izan zuen ihesi. Lau urte egingo zituen han. Orduan, amak lanean hasi behar izan zuen, familia aurrera aterako bazuen. Familiaren aldetik laguntza jaso zuten, baina urri samarra, aiton-amonen eta euren arteko diferentzia ideologikoak tarteko.

1.058. aita joan zenekorik ez gogoan; bai ordea itzuli zenekoa. (LEZ-061/003)

Mari Kruzek ez dauka gogoan aita ihes egin behar izan zuen eguna, baina gerora izan zuen motiboen berri. Lagun batek bere bila zebiltzala esan zion aitari eta gau horretan ez zen etxera joaten ausartu. Handik lau urtera itzuliko zen, ez komeria gutxi pasa eta gero. Mari Kruzek ez dauka ahazteko aita, itzulera egunean, esku artean jarri zien haragi ogitartekoa.

1.059. Kalabozoan lotan (LEZ-061/004)

Gerra amaituta ere, errefuxiatu ibilitakoek kalerako askatasun mugatua izaten zuten. Mari Kruzen aita, esaterako, Francok Pasai Donibanera eginiko bisita bat medio, kalabozoan egin behar izan zuen lo. Arratsaldeko 18:30ak edo 19:30ak inguru izaten zuten errefuxiatu ohiek etxera itzultzeko tenorea. Egun batez, Mari Kruzen aita falta. Ez zen etxera azaltzen. Azkenerako, aitaren nagusiaren abisua jaso zuten, lan bat bukatzeko aitzakian aitarentzat baimen berezia eskatu zuela esanez. Hutsean geratu zen kontua, baina ez izu handia pasa eta negar malkorik isuri gabe.

1.060. Artasoroan etzanda, hegazkinak pasa zain (LEZ-061/005)

Mari Kruzek gogoan ditu gerrako bonbardaketa uneak; tartean, Lezoko kale garbitzaile bat akabatu zutenekoa. Amonaren baserrian bizitakoak ere oroitzen ditu. Hegazkinak sumatu orduko, baserri aurreko artasoroan etzaten omen ziren, eta han egongo ziren zain, hegazkinak urrundu arte.

1.061. Paretako karea zupatzetik korrokoi osoa janda asetzero (LEZ-061/006)

Mari Kruzek hamar bat urte zituela lanpostu berria eskaini zioten aitari, eta enpresa berriko nagusiak etxea utzi zien, baratze txiki batekin. Mari Kruzek gogoan du etxe hura Lezoko Centro Republicanoa izan zenaren ondoan zegoela. Aita txandaka aritzen omen zen lanean, eta arrantzara joateko tarte hartzen omen zuen. Aitaren soldatari baino, itsasotik ekartzen zituen arrainei eskerrak hasi zen familia gosea asetzen.

1.062. Altzariak egiteko egur xafla fabrika lanean (LEZ-061/007)

Mari Kruz Lezoko tablero fabrika batean hasi zen lanean, amaren lanpostuan, ahizpa gazteena jaio eta segituan. Mari Kruzek gogoan du nola aitak lantegiko ateraino lagundu zuen, lehendabiziko egunean. Hantxe ariko zen Mari Kruz, ezkondu bitarte.

1.063. Ezkondu eta lana utzi (LEZ-061/008)

Mari Kruzek, ezkonduagatik ere, bazuen lanean jarraitzeko eskubiderik. Bera lanean hasi zeneko legediak aukera hori eskaintzen zion. Handik bi urtera legedia aldatu zuten, ordea, eta emakumeek lana utzi behar izaten zuten, ezkonduko baziren.

1.064. Eskola gutxi baina ezagutza nahikoa (LEZ-061/010)

Hamar edo hamaika urte izaterako eskola utzita zegoen Mari Kruz. Hala ere, umetan gutxiengo jakintza maila bat erdietsi zuela pentsatzen du, oinarritzko eragiketetatik eta idazten eta irakurtzen jakitetik gorakoa. Izan ere, gerora frogatu ahal izan zuen, alabak batxilerra ikasten ari zirelarik, bere ezagutzak ez zeudela haienengandik urrun.

1.065. Eskolan gazteleraz egin behar (LEZ-061/011)

Eskolak ez ziren euskaraz izaten, ez behintzat Mari Kruzek bere garaian ezagututako eskolan. Bere esanetan, klean ere gaztelera nagusitzen hasia zegoen. Gogoan du "Cara al Sol" kantatu behar izaten zutela, eta zenbaitek "habla en cristiano" esan ere egiten zietela euskaldunei, baina halako gauzek inoiz ez zuten Mari Kruz kezkatu, bere burua eta lagunena, gazteleraz mintzo sumatzeak bezainbeste. Euskaldun izatetik gazteleraz normaltasun osoz egitera oharkabea iritsi ziren, eta orduan kontzienteki hasi ziren lagun artean euskara ez besterik egiten.

1.066. Neska ezkongabeak zigorra zuen, mutilarekin dantzan eginez gero (LEZ-061/012)

Elizak zigortu egiten zituen Mariaren Alabak kongregazioko neskak, mutilen batekin dantzan ibili zirela jakinez gero. Mutilak beste kongregazio batera biltzen ziren: Luistarrenera. Hilabetea behin, meza eta jaunartze berezia

izaten zuten kongregazio hauetako kideek, eta orduan ezartzen zituen apaizak zigorrak; dirudienez, emakumeei bakarrik. Hala ere, zigor horiek ez zuten Mari Kruz gehiegi izutzen.

1.067. Kongregazio barruan egon nahia (LEZ-061/013)

Lezon, Elizak neskei mutilekin dantza egitea eragozten zien, baina Mariaren Alabak kongregazio barruan zeudenei, soilik. Hala ere, Mari Kruzek kontatzen du "pertsona ona" izatearekin lotzen zutela kongregazioaren parte izatea, eta burutik pasa ere ez zitzauela egiten handik kanpo ibiltzea.

1.068. Senargaiarekin hamabostean behin (LEZ-061/015)

Mari Kruzen senarra zena, portuan lanean aritzeaz gain, suhiltzaile boluntarioa zen, eta hargatik, nobio garaian, hamabostean behin besterik ez zuten elkar ikusten. Gainera, etxera goiz itzuli behar izaten zuten.

1.069. Jostun afizioa eta ofizioz (LEZ-061/016)

Hamalau urte bete baino lehen Erreterian ibili izan zen Mari Kruz, josten ikasten, asko gustatzen zitzaion eta. Lezon ere ibili zen, gerora, eta azkenerako, beretzat adina josten ikasi zuela kontatzen du. Ongi asko moldatuko zen ordea, urteen joanarekin, Donostiatik deitu baitzuten jostun lanetan aritzeko, eta urte mordoxka egin baitzituen han.

1.070. Nobia soinekoak josten (LEZ-061/017)

Mari Kruzek kontatzen dizkigu nobia soinekoak josten ibili zeneko gora beherak, esaterako, nola atzerritik hartzen zituzten soineko asko eta askoren diseinuak. Oihal motak, joerak, bitxikeriak eta ofizioarekin zerikusia duten kontuak ere aipatzen ditu.

1.071. Arropak, modak eta debekuak (LEZ-061/019)

Mari Kruzek ez du uste bere garaian arropari lotutako debekurik bazenik. Kontatzen du emakumeek galtzak janzteak ez zela denen gustukoa, baina berak janzten zituela, hala ere. Etxean egindako egurrezko zapatak jantzita ibili izana ere gogoan du, aitzak barrutik untxi larruz forratutakoak. Bigarren jaunartzeko soinekoaren argazkia erakusten du eta bere haur eta gazte garaiko janzkera ohituren berri ematen.

1.072. Euskararen alde borrokatu dut (LEZ-061/021)

Euskara Mari Kruzen izateko modua da; pena du euskarak bizi duen egoeragatik, odea. Jende gehiagorengandik aintzat hartua ikusi nahi luke bere hizkuntza.

1.073. "Hika", "zuka" eta "berorika" (LEZ-061/022)

"Berorika" askotan entzun baina gutxitan eginikoa da Mari Kruz. "Hika" bai, "hika" askotan egiten zutela dio, anaiekin eta lagun batzuekin. Gurasoei "zuka", beti.

1.074. Oarsoaldeko hizkerak (LEZ-061/023)

Lezoko eta Erreterriako hizkerak antzeko xamarrak iruditzen zaizkio Mari Kruzi. Oiartzuarren hizkeran aurkitzen du alderik handiena eskualdean.

1.075. Txerria hiltzeko prozesua (LEZ-062/003)

1940an jaioa izaki, gerra ostea ezagutu zuen. Urtero, txerri bat hiltzen zuten, eta harekin moldatzen ziren gose handirik ez pasatzeko. Txerria ekartzen zutenetik hiltzen zuten arteko prozesua nolakoa izaten zen azaltzen du. Txerri-munak banatzen zituzten.

1.076. Eskolara ikastera, ez zigortuta egotera (LEZ-062/005)

Lezoko herri-eskolan ikasi zuen, eta beti zigortuta egoten zen, erdaraz ez jakiteagatik. Etxean ez zuen horren berri eman nahi izaten. Hala ere, igarri zioten, eta aita eskolara joan zen irakaslearekin hitz egitera; orduan konpondu zen arazoa.

1.077. Buruketak eta problemak (LEZ-062/006)

Eskola garaiko zigorrak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Buruketak egiteko zigorra jartzen ziotenean, komeriak pasatzen zituen, eta behin egindako bihurrikeria kontatzen du.

1.078. Txikitako jolasak (LEZ-062/010)

Txikitan, asko jolasten zuten. Orduko jolasen nondik norakoak aipatzen ditu. Kanikak hainbat materialetakoak izaten ziren: buztinezkoak, harrizkoak, acerozkoak, kristalezkoak... Bakoitzak bere salneurria izaten zuen. Kanikak jolasean irabazteko arauetaz buruz hitz egiten du.

1.079. Umetatik futbolean asko ibilitakoa (LEZ-062/011)

Gaztetan, pilotan eta futbolean asko ibiltzen ziren. Gipuzkoako txapelduna izan zen futbolean, eta Atotxa futbol-zelaian gola sartutakoa da. Orduan jokaturako txapelketetaz buruz hitz egiten du.

1.080. Soldadutza Saharan espezialista bezala (LEZ-062/012)

Soldadutza Saharan egin zuen, hasierako 3 hilabeteak Madrilgo El Pardon egin ostean. Madrilen zegoela, morse kodea ikasi zuten; eta Saharan espezialista kategoria izan zuten. Orduko funtzioak aipatzen ditu.

1.081. Saharan ere futbol taldea antolatu zuen (LEZ-062/013)

Saharan, soldadutzan zegoela, futbol-talde bat osatu zuten konpainiako ontsuenen artean. Gogoan du orduko partidu bat. Soldadutza bukatu zuenean, kabo izatera derrigortu zuten; baina, hala ere, berak ez zion futbolean jokatzeari uko egin.

1.082. Soldadutzan, urte betez etxera etorri gabe (LEZ-062/014)

Afrikan soldadutzan egon zen bitartean, ez zen etxera etorri. Ia egunero gutun bat idazten zuen etxekoentzat. Eta behin aitarekin izandako anekdota kontatzen du.

1.083. Konpainiako 7 euskaldunen azpikeria (LEZ-062/015)

Soldadutzan, 7 euskaldun zeuden konpainia berean. Behin, etxera itzultzeko baimena lortzearen, Madrilera joan ziren Aste Santuan boluntario, prozesioko irudiak eramateko zereginarekin. Bukaeran, ordea, baimena ukatu zieten euskaldunei.

1.084. Soldadutzan ikasi zuen gosea pasatzea zer den (LEZ-062/019)

Afrikara iritsi eta hurrengo egunean, Mauritaniarekin muga egiten zuen leku batera bidali zuten beste hainbat militarrekin. Han, hiru hilabete eman zituen. Garai hartan, gose handia pasa zuen; eta urarekin komeriak izan zituzten.

1.085. Muturreko tenperaturak Mauritanian egon zen sasoian (LEZ-062/020)

Mauritaniatik gertu pasa zituen 3 hilabete soldadutzan zegoela. Han, muturreko tenperaturak ezagutu zituen, eta hari aurre egiteko nola moldatzen ziren azaltzen du.

1.086. Soldadutzatik Arana S.A. fabrikara bueltan (LEZ-062/021)

Soldadutzatik etxera itzuli zenean, lehen aritutako fabrika berean jarraitu zuen lanean, Antxon. Fabrika hura itxi zenean, bere kontura hasi zen lanean, Lezon. Hala, anaiarekin batera, 20 urte inguru eman zituen industria fabrikazioko argiketari lanetan.

1.087. Gidabaimena "entxufearekin" (LEZ-062/024)

Gidabaimena 17 urterekin atera zuen. Aztertzailea aitaren laguna zenez, baimena "entxufearekin" atera zuela aitortzen du.

1.088. Ezkoingaien txofer (LEZ-062/025)

Nahiz eta taxiak gidatzeko baimenik ez izan, aitari taxia hartzen zion aldika. Kotxe dotorea zutenez, ezkoingaien txofer moduan aritzen zen.

1.089. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak (LEZ-062/028)

Garai hartan gizonezkoek bakarrik egiten zuten argiketari moduan lan. Emakumeek egin ohi zituzten lanbideak izendatzen ditu: esmalterian, oihergintzan, manta fabrian, etab. Gidabaimena ateratzea ere emakumeen artean ez zen ohikoena.

1.090. Aisialdian dantzara (LEZ-062/029)

Aisialdian egiten zutenaz ari da. Oiartzun aldera joaten ziren erromerietara eta baita Errenteriako banda jotzen ikustera. Dantzarako garaian, neskek ez zuten mutilek bezain libre. Konfesatzera joanda, trikimailuen bidez ateratzen zioten bikarioari zein neska arrimatzen zen gehien.

1.091. Neskatan ibiltzea ez zen hain erraza (LEZ-062/030)

Neska-laguntzen ibiltzen ziren. Andregaia lehenengo aldiz etxera eraman zuenean gertatutako anekdota kontatzen du. Dantza eskatzea eta horrelako kontuez ari da.

1.092. Asteburuetarako arropa dotoreagoa (LEZ-062/031)

Asteburuan bestelako arropak erabiltzen zituzten. Txapela eta gorbata jantzita joaten ziren neskatan. Aitaren traje zaharrari buelta eman eta semearentzako trajea etxean jostea ohikoa zen. Neskame ibiltzen ziren izebek ere, "señoritoak" atzera utzitako arropak ekartzen zizkieten sarri.

1.093. "Euskara maite dut" (LEZ-062/036)

Munduan dauden beste milaka hizkuntzei errespetua die eta gustuko ditu baina, euskara benetan maite duela dio (hunkitu egiten da).

1.094. Hika, zuka eta berorika (LEZ-062/037)

Berorika ez dio sekula inori egin. Hitanoa anai-arrebekin, eta lagun artean erabiltzen zen normalean. Hika egiteak hurbiltasuna adierazten duela iruditzen zaio.

1.095. Urik ez Arretxenen (LEZ-063/002)

Urik ez zen Arretxenen Joxepa txikia zenean. Jaizkibeldik jaisten zen erreka batean iturria egina zegoen eta han garbitzen zuten arropa. Etxerako ura ere handik hartzen omen zuten. Ukuiluko gorotzak komun-zulo azpian biltzen omen zituzten, probetxua ateratzen zietelarik giza gorotzari eta gernuari ere.

1.096. Koltxoiak uztailero berritzen (LEZ-063/003)

Herri guztia erreka harraskara joaten zen harrikoa egitera. Koltxoiak artilez beteak izaten ziren, eta urtero berritzen omen zituzten, bero sasoian, uztalean edo. Horretarako, artilea garbitu behar izaten zen lehenik, eta ondoren zelaian lehortzen utzi, zabal-zabal. Lehortu eta gero, koltxoa bera josi behar izaten zen, eskuz.

1.097. Arropa zuritzeko lixibarik ez (LEZ-063/004)

Orbaina oihaletik kentzeko eguzkia hobea izaten zen lixiba bera baino. Lehenik xaboiarekin orbaina igurtzi behar izaten zen, eta segidan, dena delako oihala zelaian zabaldu, eguzkitan lehortzeko. Joxeparen familiak "txurro-denda" izan omen zuen, eta hango olio hondakinekin xaboia egitera heldu ziren. Xaboia egiteko makina etxean omen du oraindik.

1.098. Ukuilu handia eta animalia asko Arretxenen (LEZ-063/006)

Arretxenen, hegaztiez gain, esne-behiak baziren ukuiluan, Joxeparen guraso eta anaiek jetzi ohi zituztenak. Esnea baserritik bertatik saltzen omen zuten, baina baita astoarekin Pasaiaraino eramanda ere. Joxeparen aitak idi-pare bat omen zuen, lur-garraio ibiltzeko.

1.099. Patata asko eta artoa erruz (LEZ-063/007)

Baratzean eremu handia lantzen zuten Arretxenen, eta orotariko barazkiak ereiten zituzten bertan. Barazki asko saltzeko izaten zen, eta patata eta artoa ereiten omen zuten bereziki. Artoa irina egiteko behar izaten zen. Garai batean arto-irinarekin egindako talo asko jana da Joxepa. Egin ere frankotan egin izan zituen, eta gaur egun ere egiten omen ditu. Baserri inguruko gaztainondo, hurritz, intxaurrondo eta fruta-arbolei ere hamaika etekin ateratakoak dira Arretxenen.

1.100. Frutarekin hazitakoak (LEZ-063/008)

Sagar biltzen eskuz edo "kizkaia"rekin (kizkiarekin) aritzen ziren: eskuz, postretarako edo saltzeko zirenak; kizkaiarekin, aldiz, sagardotarakoak. Arretxenen sagar erreak ia egunero jaten zituzten. Joxeparen esanetan, frutarekin hazitako haurrak izan ziren beraiek.

1.101. Babarrunak eguneroko otordu (LEZ-063/009)

Pasaiaiko arrainketariak Lezora arrain-saltzera joaten zirenez, arraina eskura izaten zuten Arretxenen. Hura izango zuten urrutienetik ekarritako jakia. Gainontzeko jaki guztiak, baserrikoak edo inguruko fruta-arboletatik bildutakoak izaten ziren. Esaterako, txuria, "pintarratua" zein gorria izan, Babarrunak jaten zituzten egunero.

1.102. Artajorra, marmelada eta behi-gazta (LEZ-063/010)

Artajorran aritzea askotan egokitu zitzaion Joxepari. Arretxenen emakume zein gizasemeen lana izaten zen artajorran aritzea. Joxepak, bestalde, ongi gogoan du amak behi-gazta eta marmeladak nola egiten zituen.

1.103. Urtero bi txerri hil (LEZ-063/011)

Urtean bi txerri hiltzen ziren Arretxenen, neguan beti, baina hilabete inguruko tartearekin. Odolkiak, txorizoak eta txistorrak egiten zituzten, baina jakiak kontserbatzen izaten ziren komeriak. Joxepak gogoan du nola bere amak etxeko zoru azpian gorde ohi zituen zenbait jaki, egurrezko kaxatan sartuta eta gatzetan bilduak. Txerriaren gantza patatak frijitzeko erabiltzen omen zuten.

1.104. Odolkiak nola egin (LEZ-063/012)

Odolkiak egiteko prozesua ongi ezagutzen du Joxepak, hainbat egina baita. Txerria hil aurreko egunean barazkia prest izaten zuten. Txerria hil ostean, esku-lan handia eskatzen du odolkiak egiteak. Hesteak garbitu, bete, egosi eta zintzilik jarri behar izaten dira, besteak beste.

1.105. Hozkailurik ezean, jakiak lur azpira (LEZ-063/013)

Arretxeneko txerri hiltzeak etxekoek moldatuak izaten ziren eta etxerako. Gehienera, harakina joango zitzaien laguntzera, Joxeparen aitak laguna baitzuen. Ama arduratuko zen gero txerrikiak lizundu gabe mantentzen. Horretarako, etxeko zoru azpian prestatutako zurezko kutxetan sartuko zituen jakiak, gatzetan bilduta.

1.106. Udan belar lanak egin behar (LEZ-063/014)

Belarra segarekin moztu eta arrasteluarekin biltzen zuten, belar metak egiteko gero. Garoa ere ekartzen zuten menditik, belarrarekin nahasteko. Inaurkin hori aziendaren azpiak eta gorotza egiteko erabiltzen zen.

1.107. Aziendarentzat negurako jatekoa (LEZ-063/015)

Belarra, erremolatxa, arbia eta otea nahasten ziren aziendarentzat neguko jatekoa prestatzeko. Sagarra jo eta dolaretik igaro ostean geratzen zen sagar-patsa bera ere gordetzen zuten.

1.108. Eskolan gaztelera hutsean (LEZ-063/016)

Herri eskolan ibili zen Joxepa. Eskolan ez ziren batera ibiltzen neskak eta mutilak. Irakasle erdaldunak izan zituen eta euskaldunak diskriminazio handia jasaten zutela dio. Joxepak eta haren senideek ez zekiten gaztelaraz, eta amak herriko emakume batzuen etxera bidaltzen zituen, dotrina euskaraz irakasten omen zutenak.

1.109. Jolasaren aitzakian apaiza dirua biltzen (LEZ-063/017)

Jaiero dotrina ikastera joaten ziren parrokiara, apaizarekin. Apaizak, nonbait, bereizi egiten zituen neskak eta mutilak, eta ondoren zirikatu, ea neskek ala mutilek, nork diru gehiago bota poltsara.

1.110. Hamasei urterekin lanera, Erreterriako Pekin fabrikara (LEZ-063/019)

Joxepa eta haren senideak eskola partikularra bidali zituzten hamabi urte bete arte. Behin hamabi urte beteta, baserriko lanetan aritzen ziren. Joxepa, hamasei urterekin, Erreterriako Pekin fabrika hasi zen ikuskatzaile lanetan. Joxepak dioenez, gizonezko langileek baino gehiago kobratzen omen zuen.

1.111. Ezkontzeagatik lana uztera behartua (LEZ-063/021)

Zortzi urtez Erreterriako Pekin fabrika lanean aritu eta gero, ezkondu eta lana uztera behartu zuten Joxepa, esposatutako gainontzeko emakume guztiak bezala.

1.112. Mutilekin dantza gutxi (LEZ-063/023)

Lezoko Hijas de Mar*&* kongregaziora hilabetero bildu behar izaten zuten, gazte garaian, Joxepak eta haren ingurukoek. Kongregazioko mojek jakiten bazuten neskaren bat erromeriaren batean mutilen batekin dantzan ibili zela, neskari errieta eman eta lotsarazi egiten zuten.

1.113. Neskak galtzak jantztea bekatu zen (LEZ-063/024)

Joxepak galtza pareak egiteko agindu omen zion behin Lezoko jostun bati, "vespa"n ibiltzeko beharrezko zituela eta, baina jostunak ez zizkion egin nahi, emakumea galtzak jantzita ibiltzea bekatu zelako. Azkenerako jostuna konbentzitu zuen Joxepak, eta egin omen zizkion galtzak.

1.114. Oinetakoak (LEZ-063/025)

Oinetan espartinak ibiltzen zituen Joxepak. Baserrirako abarkak, baina kalerako, espartinak eta zapatak. Galtzerdi modura, belaunerainoko mediak.

1.115. Herri txikian, salaketaren beldur (LEZ-063/026)

Joxepak dioenez, elizaren indarrak ez zuen eguneroko bizitza errazten, eta herri txikitan ohikoa zen txutxu-mutxu giroak, are eramangaitzagoa egiten zuen. Gainera, egun ez ditu emakumeak ikusten orduan bezain gizonezkoen menpe. Orain orduan baino askeago bizi direla dio.

1.116. "Euskera bezalakorik ez da!" (LEZ-063/028)

Joxepak ez du deus ere gaztelania eta erdaren aurka, baina euskararen alde azaltzen da nabarmen, zain denak euskaldunak dituela sentitzen baitu.

1.117. Kaletarrak txerriak hazten (LEZ-064/002)

Haurra zela kalean bizi arren, aitak txabola bat omen zuen eta bertan baratzea eta animaliak zituen. Baserriko semea zen aita. Oso gazterik hil zitzairen, ordea, eta Jose Manuelek, zortzi urte betetzeko zituela, jaiotetxea utzi eta Susperregi baserrira joan behar izan zuen bizitzera, bertakoak familiakoak izaki. Bere hiru anaiek ere berdin egin behar izan zuten, eta ama, alaba zaharrenarekin eta gazteenarekin geratu zen.

1.118. Hamar urterekin estraperloan (LEZ-064/004)

Zortzi urte betetzear zela aita hil eta Susperregira bizitzera joan zen. Gaueko lanera ohitu behar izan zuen, baina kontatzen duenez, ez gorriak ikusi gabe. Ogia ekarri behar izaten zuen Nafarroatik, ezkutuan, baina bide aldapatsuek, zamak eta iluntasunak ez zioten jardunik errazten.

1.119. Satorrak akabatzen (LEZ-064/005)

Bi hilabetea behin jaisten zen Jose Manuel Susperregitik kalera, ama eta arrebak bisitatzen. Halakoetan, baserrian akabatutako satorrengatik osabak emandako dirua eramaten omen zion amari.

1.120. Susperregin taberna (LEZ-064/007)

Susperregi baserrian taberna zen, eta tabernak generoa behar izaten zuen. Generoa ekartzeaz Jose Manuel bera arduratzen zen. Nafarroarako joan-etorriak astoa, behorra eta txakur txiki batekin egiten zituen.

1.121. Ez argirik eta ez urik (LEZ-064/008)

Susperregin ez zen argindarrik ez eta urik ere. Etxetik ehun metrora zegoen iturria, baina hango ura ez zen edangarria. Ura edateko urrutiago joan beharra zen.

1.122. Ardiak gobernatzen (LEZ-064/009)

Sarri askotan zakotea hartu eta egun osorako joan ohi zen Jose Manuel mendira, ardiak zaintzera. Osabak erakutsi omen zion.

1.123. Baserrietan errazionamendurik ez (LEZ-064/011)

Baserrietan errazionamendurik ez izanagatik ere, errota kontrolpean izaten ziren, eta ogiari dagokionez, koskor bat besterik ez omen zegokion Joxe Manueli, baina osabak jaten omen zuen.

1.124. Igandeko meza Oiartzunen (LEZ-064/013)

Oiartzunera joan ohi zen Joxe Manuel, igandero, goizeko laueta jaikita, 6:00etarako mezara heltzeko. Ilunpetan egiten zuen bidea, farola bat eskuan hartuta.

1.125. Dotrinak euskaraz balio ez (LEZ-064/015)

Susperregi baserriko izebak erakutsi zion dotrina, euskaraz. Baina gero Lezora joan eta ikasitakoak ez omen zuen balio; gazteleraz behar omen zuen.

1.126. Bi pezetako papera (LEZ-064/016)

Jose Manuelek eta anaiak ia ezin zuten elkar ulertu, bata euskaraz eta bestea gazteleraz trebatu baitziren. Behin, arditara joan eta pasadizo polita gertatu zitzairen, anaiaren estualdi bat medio.

1.127. Artilez betetako koltxoiak (LEZ-064/017)

Koltxoiak artilez beteak izaten ziren garai batean, eta Jose Manuel hainbat aldiz jardun izan da koltxoietan sartu beharreko ilea jo eta arrotzen.

1.128. Osaba-izeben propina (LEZ-064/019)

Susperregiko familia utzi eta Lezora joan zen bizitzera Jose Manuel, ama bigarren aldiz ezkondu zenean. Hala ere, bisitan joan izan zen Susperregira gerora ere, behin baino gehiagotan. Soldaduskara joan aurreko bisitari etekin polita atera zion.

1.129. Soldatapeko lehendabiziko lana (LEZ-064/020)

Hamalau urte bete eta aroztegi batean hasi zen lanean. Bost urtez aritu zen bertan, eta berak dioenez, enkargu asko egin beharra egokitzen omen zitzaion.

1.130. Kola nola prestatu (LEZ-064/021)

Gaur egun kola aurrez prestatuta erosteko aukera omen da, baina garai batean ez omen zen horrela. Lehen, arotzek beren kola propioa prestatu behar izaten omen zuten, eta bero zela erabili.

1.131. Pinturak asko aldatu dira (LEZ-064/023)

Hamalau urterekin soldatapeko lanean hasi eta bosna urte lantegi pare batean pasa eta gero, pintore lanei ekin zien Jose Manuelek, azkenean bere kontu jarri zen arte. Garai batetik hona asko aldatu omen dira pinturak.

1.132. Azkaraten jaioa (LEZ-065/002)

Gurasoak Azkaratekoak ziren. Lezon gerra zela eta amaren baserrian jaio zen, aita nazionalistekin gerran zegoela.

1.133. Zortzi anaia-arreba (LEZ-065/003)

Mutil bat eta zazpi neska izan ziren. Baserrian egin zuen lan gaztetan, Gaintzan. Aitak Donibaneko lantegian egiten zuen lan.

1.134. Harategian pasatzen zuen denbora (LEZ-065/004)

Aitak lanbide bat ikasteko esan eta harakin lanetan hasi zen, Trintxerpen.

1.135. Umetan jolasteko ia denborarik ez (LEZ-065/006)

Etxeko lanak egiten ibiltzen zen egun osoan zehar, jolasteko ia denborarik gabe. Pilotan aritzea gustatzen zitzaion.

1.136. Meza entzun eta harategira (LEZ-065/007)

Amaren lengusu txiki batek irakatsi zion harakintza. Orduan, igandeetan dendak eta harategiak ireki egiten zituen. Goizeko seietan entzuten zuen Herrerako meza, eta ondoren lanera joaten zen.

1.137. Gerraostean janaririk ez (LEZ-065/009)

Gerraostean diru eta janari eskasia zegoen.

1.138. Medikura oso gutxitan (LEZ-065/010)

Lezon mediku bat zegoen. Baina oso gauza larriekin joaten zen jendea medikura, bestela ez.

1.139. Umetan jolasteko denborarik ez (LEZ-065/012)

Txirrinda ez zuen ia inork, dena oinez egiten zuten. Umea zenean, Lezon ez zen kotxerik ezta motorik ere. Herribideetara eramaten zituen abereak belarra jatera.

1.140. Zaborra txerriarentzat (LEZ-065/013)

Zakarra txerriak jaten zuen. Plastikorik ez zen, eta papera ekonomikako sua sortzeko erabiltzen zuten.

1.141. Negu hotzagoak (LEZ-065/014)

Leihoetako kristalak oso finak ziren eta izotzez betetzen ziren.

1.142. Lehengo bizimodua, oraingoaren desberdina (LEZ-065/015)

Neguan abereei arbia ematen zitzaaien jateko. Arropa ere asko aldatu dela dio.

1.143. Lan egin behar eta kirola utzi (LEZ-068/001)

Esne-partitzen ibili zen gaztetan Joxe Mari, eta korrika hasi zen gero, Irungo talde batean. Oso gustuko izan du beti korrika ibiltzea, baina jatetxea zabaldu zutenean utzi egin behar izan zion.

1.144. Etxeberri jatetxea (LEZ-068/003)

80. hamarkada amaieran ekin zioten 4 soziok Etxeberri jatetxea izango zena altxatzeari; tartean, Joxe Mari. Etxegoienarren lurretan altxa zuten jatetxea, eta baserriaren izen bera eman zioten.

1.145. Etxeberri altxa bitartean, Amuitz (LEZ-068/004)

Etxeberri jatetxea Lezon altxa bitartean, Hondarribian aritu ziren lanean, Harresilanda kalean ireki zuten jatetxean; Amuitz zuen izena.

1.146. Joxe Mariren egitekoak Etxeberrin (LEZ-068/005)

Gerentzia eta jendearekiko harremanak izan ziren Joxe Mariren ardura nagusiak Etxeberri jatetxean, baina hortik kanpo beste hainbat egitekotan aritutakoa da.

1.147. Etxeberri jatetxearen espezialitateak (LEZ-068/008)

Legatz betea izan da beti Etxeberriko berezitasunik estimatuenetakoa. Bildots erreak eta frijituek ere oso harrera ona izaten omen zuten.

1.148. 80. hamarkadako krisi ekonomikoa (LEZ-068/010)

Ongi gogoan du Joxe Marik 80. hamarkadako krisia.

1.149. 80. hamarkadako krisi ekonomikoa II (LEZ-068/012)

Jende askok lanpostua galdu zuen, eta beharrak bultzatuta, negozio eta egitasmo berriak sortzeari ekin zioten batzuk. Gobernuetatik ez zen laguntzarik ia, baina legedia ere ez zen oztopo.

1.150. Etxeberri martxan (LEZ-068/013)

Jatetxean lanean hasi eta bospasei urtera ohartu ziren bataio eta ezkontza ospakizun asko egiten zela beraienean.

1.151. Club Atletico Telesport (LEZ-068/015)

Jose Mari Sarriegi hondarribiarrak sortu zuen Telesport taldea, Irunen, bere inguruko lagun batzuekin batera. Joxe Marik aipatzen ditu talde hartan korrika ibiltzen ziren batzuk; ez guztiak, ordea, talde handia izaki, jende asko baitzen.

1.152. Telesport-en zatiketa eta "birbatzea" (LEZ-068/016)

Telesport taldetik "Unión Deportiva Uranzu" taldea bereizi omen zen. Telesport taldeak desegin gabe egin zuen aurrera, baina lehiatzen jarraitzeko jendez indartu premiaz zegoela eta, UDUREkin berriz batu, inguruko jende berria erakarri, eta Bidasoa Atletico taldea sortu zuten: BAT.

1.153. Club Atlético Herrera-n hasi (LEZ-068/018)

13 urte inguru zituela Club Atlético Herreran hasi zen Joxe Mari. Gimnástica de Ulia taldera egingo zuen gero. Hasiera haietako oso oroitzapen polita du. Haurrak zirela, mimo handiz tratatu izan zituzten hastapeneko elkarte haietan.

1.154. Gazteari laguntza eman behar zaio (LEZ-068/020)

Haurtzaroan atletismo mundutik jaso zuten tratatu gozo bera ematen saiatu dira ondoko belaunaldiei. Zentzu horretan, Joxe Mari Sarriegi, Julen Olamusu eta Sanchez anaien lana azpimarratzen du Joxe Marik.

1.155. Joxe Mariren zenbait kirol-marka (LEZ-068/024)

02'25" egina du maratoin; 01'06" egina dago Behobia-Donostia lasterketan eta 01'09" maratoi erdian. Sarako "Kontrabandistena" eta "Azkain-Larun-Azkain" lasterketak irabazitakoa da ere.

1.156. Proiektutan buru-belarri sartzekoa (LEZ-068/026)

Etxeberri jatetxean lanean hasi zenean, kolpetik eten zuen Joxe Marik bere kirol jarduna. Ez da sekula egitasmo eta proiektuei erdizka heltzekoa izan.

1.157. Korrikalari gipuzkoarrak (LEZ-068/029)

Gaur egungo korrikalariak baino entrenamentu espezifikagoak egiten zituzten Joxe Marik eta bere inguru zabalak, 70-80 hamarkadetan.

1.158. Entrenamendu espezifikoak (LEZ-068/030)

Korrikalariak denbora eta erritmoak izan behar ditu helburu. Joxe Mariren ustez korrikalariak entrenatzailea behar du gertuan; nork bere burua entrenatzea zaila da oso.

1.159. Anoetako entrenatzaileak (LEZ-068/031)

Joxe Marik gogoan ditu haien izen eta abizenak. Hartu-eman goxoa zutela dio. Oso jende langilea zen.

1.160. Denetik jan (LEZ-068/032)

Korrikalari garaian, Joxe Marik dio ez zutela elikadura gehegi zaintzen. Gaur egun askoz gehiago zaintzen du dieta kirolariak, eta Joxe Mari zeharo dago egungo jarreraren alde.

1.161. Golfeko zapatekin korrika (LEZ-068/033)

Lasarteko karreran parte hartuta dago Joxe Mari. Behin, golfeko zapatekin korrika atera zen.

1.162. Lasarteko krosa eta korrikalari gipuzkoarrak (LEZ-068/034)

Lasartekoa mundu mailan izen handiko proba zen. Joxe Migel Maiz eta Karlos Arizmendi aipatzen ditu Joxe Marik, mundu mailan famatu diren hainbat korrikalariren izenen tartean.

1.163. Entrenatzera, Donostiara (LEZ-068/036)

Anoetara eta belodromora joaten ziren entrenatzera, lanetik atera eta gero.

1.164. Lehendabiziko maratokia (LEZ-068/038)

Joxe Mari Sarriegiren egitasmo bati tiraka (Irun-Elizondo-Irun) hasi ziren Joxe Mari eta ingurukoak arnas luzeko probetarako entrenatzen. Egitasmoa ez zen aurrera atera, baina lehen maratokia korritzeko aukera sortu zitzaion Joxe Mariri, eta gustatu egin zitzaion. Entrenatzen jarraitu, eta Espainiako Txapelketan egin zuen bere markarik onena.

1.165. Marathoi erdiak, "Azkain-Larun-Azkain" eta "Kontrabandisten lasterketa" (LEZ-068/040)

Maratoi erdiak maratoiarako prestaketa moduan egiten zuten. "Azkain-Larun-Azkain" eta "Kontrabandisten lasterketa" nolakoak diren azaltzen du Joxe Marik.

1.166. San Martzialeko igoera eta Guadalupekoa (LEZ-068/042)

Joxe Marik korritzen zuen garaikoak dira bi froga horietan inork egin dituen denborarik onenak. Garin eta Soduperenak omen dira markak.

1.167. Lehia, giro ona eta dirurik eza (LEZ-068/043)

Joxe Mari biltzen da, tarteka, bere korrikalari garaiko lagunekin. Oso giro ona izan dute beti. Luis Yerga zenarekin Leitzan gertatutako anekdota polita kontatzen du Joxe Marik, aurkarien artean zen giro sanoaren adibide.

1.168. Lasterketetako oroitzapenak (LEZ-068/045)

Korritutako lasterketa batzuei buruzko azalpenak.

1.169. Giro erdaldunean korrika (LEZ-068/047)

Lezon, kolean, gaztelerarako joera sumatu izan du Joxe Marik, txikitatik. Korrika entrenatzera joaten zirelarik ere, gehienetan gaztelerara jotzen zuten, tartean euskaraz ez zekienik bazen eta.

1.170. Etxean beti euskaraz (LEZ-068/049)

Gurasoen hizkera, senideena eta seme-alaba eta bilobena.

1.171. Aita, lagunekin, hika (LEZ-068/051)

Etxeko hizketa-ohiturak.

1.172. Lezoko hizkeraren berezitasunak (LEZ-068/053)

Irun eta Hondarribiko hizkeren antzekoa, Lezoko zenbait tokitan. Sanjuandarrekin alderik handiena, doinuan. Lezon, Errenterian, Pasai Antxon eta Altzaraino ere, oso antzeko hizkera.

1.173. Lezoarrak, bi eskutakoak (LEZ-068/054)

Joxe Marik hala entzun izan die esaten gurasoei: "lezoarrak, bi eskutakoak". Alegia, eskulanetan bi eskuekin aise moldatu izan direla.

1.174. Bost senide (LEZ-070/002)

Seniderik zaharrena, seigarrena, jaioberritan hil zen eta ez zuten ezagutu. Haur asko hiltzen zen lehen.

1.175. Baserria, pasoko tokia (LEZ-070/003)

Lehengusuak askotan elkarrekin. Euren baserria pasoko tokia zen. Gaintxurizketako baserritarrekin harreman handiagoa Lezoko kalekoekin baino.

1.176. Jendea ikaratzeko istorioak (LEZ-070/004)

"Sakamantekas"-enak eta gisako istorioak.

1.177. Urte guztiko babarruna lapurtu (LEZ-070/005)

Urte guztiko babarruna lapurtu zieten, behinola, baserritik. Arropa ere faltan sumatu izan zuten, behin edo behin.

1.178. Babarrunak aletzen (LEZ-070/007)

Arrosarioa errezatu ohi zuten, iluntzean, babarrunak aletzen hasiz gero. Errezuetako hizkerarekin arazoak. Jainko "hilezkorra" esan ordez, "egoskorra" esaten omen zuten. Gazteleraz aritzeko joeraz.

1.179. Jangoiko "egoskorra" eta "meza nagusia" (LEZ-070/008)

Estebanek bere logika propioarekin izendatzen zituen gauzak.

1.180. "Moneko", anaiaren izengoitia (LEZ-070/010)

Anaia zaharrenari jarri zioten izengoitia, eta Estebani ere hala deitzen hasi zitzaizkion gero. Amak ez zuen gustuko, baina gaur egun Esteban ezagutzen duen askok ez daki bere izenik, eta "moneko" esaten diote.

1.181. Salaberritarrak, goitzenak jarri zaleak (LEZ-070/011)

Bere bizitzan zehar entzundako hainbat izengoiti aipatzen ditu Estebanek.

1.182. Txikitako jostaketak; jostailurik ez (LEZ-070/013)

Goitiberak egiten zituzten. Zipoka ere jostatzen ziren. Potoarekin gordeketa, kaniketan "kulebrilla" egiten... Jostailurik ez zuten.

1.183. Lehengusuaren baloia (LEZ-070/014)

Kamioi batek lehengusuaren baloia gupil azpian hartu zueneko kontaketa du Estebanek.

1.184. Amek lan handia egiten zuten (LEZ-070/015)

Etxean ur txorrotarik gabeko garaia bizi izan zuten Estebanek. Amak lan handia egiten zuen etxean; ama gehienek.

1.185. Jornala etxean entregatzen genuen (LEZ-070/018)

Estebanek ez du gogoan gurasoekin egindako irteera handirik. Kapritxorik ez zen izaten etxean. Arreba txikiak bai, ordea. Harek gogoan omen du gurasoekin noizbait kanpoan afaldu izana.

1.186. Guadalupeko nobenetara, Lezotik (LEZ-070/019)

Lezon ohitura handia izan da Guadalupeko nobenetara joateko (Hondarribia). Jaizkibelen barrena joan ohi ziren.

1.187. Txitxarro bana Marrukenen (LEZ-070/023)

Babarrunak urte-sasoi guztitan jan ohi zuten. Oilaskoak estimazio handia izaten zuen. Gabon batzutan txitxarro bana jan omen zuten etxean, eta Estebani ez zaio sekula ahaztu. Turroia ere jan omen zuten gau hartan.

1.188. San Juan Xarren ezkondu (LEZ-070/027)

Aierru mendi taldearekin egindako irteeretan ezagutu zuen emaztea. Biak lezoarrak izanik, bazuten elkarren berri, baina gerora elkar ezagutu eta Igantziko San Juan Xarren esposatu ziren.

1.189. Hamalau urterekin fundizioan lanean (LEZ-070/029)

Hamalau urterekin hasi zen Esteban fundizioan lanean. Ongi gogoan ditu lehendabiziko egun haiek.

1.190. Fundiziotik modelista-tailerrera (LEZ-070/030)

60 urterekin hartu zuen erretiroa Estebanek. Lanean hasi zen lehendabiziko egunetik kotizatu zuen Estebanek Gizarte Segurantzari.

1.191. Hainbat enpresatako lan-hitzarmen bereziak (LEZ-070/032)

Hainbat enpresatako lan-hitzarmen bereziak aipatzen ditu Estebanek. Soldaduska egitera joan behar zuen hainbat langilek ez zuten lanik galtzen, eta kotizatzen jarraitzen omen zuten, soldaduska garaian ere.

1.192. Gerra ondorenean goserik ez, baina falta bai (LEZ-070/034)

Esne-hautsak eta gurina eskaintzen zizkieten eskolan. Garai hartan etorkinek miseria handiagoa pairatu zuten.

1.193. Kanpotarren etorrera (LEZ-070/035)

Normaltasunez bizi izan zuten kanpotarren etorrera, baina hizkuntza kontuetan talka handi samarra izaten zen.

1.194. Euskaraz ez dakienarekin nola jokatu (LEZ-070/036)

Gai korapilatsua izan da beti euskaraz ez dakien jendearekiko hartu-emanetan hizkuntza hautuaren gaia.

1.195. Aita abertzalea (LEZ-070/037)

Aita abertzalea zuen Estebanek. Ama ez zen hainbeste lerratzen garaiko politika kontu eta aukeretara.

1.196. Artoa hartuta joan eta irinarekin itzuli (LEZ-070/039)

"Iyurrita"-ra joaten ziren arto-irin bila. Gaur egun Estebanek ez du taloekin ezer jakin nahi izaten. Sakarina ere ezagutu zuten, azukrearen partez.

1.197. Kontxako hondartza-futboleko txapelketa irabazi (LEZ-070/040)

Kontxako hondartza-futboleko txapelketa irabazi zuten behin, eta sari modura, bidaia bat jaso zuten, Madrilera. Madrilgo hotelean gertatutako pasadizoa ere kontatzen du.

1.198. Madrileko egonaldia (II) eta futbolean eginiko ibilera (LEZ-070/042)

Errealeko jubeniletan bi urte egin zituen Estebanek, afizio handia zuen, eta aritu zen erregionaletan ere, Erreterriako Tuoring KEn, baina soldaduska egin beharrarekin batera amaitu zen bere ibilera.

1.199. Lezoko Ahaldeguna (LEZ-070/043)

Lezon izan omen zen Aldeguna izeneko futbol talde bat. Berako Gure Txokoa taldearen zelaian jokatzen omen zuten.

1.200. Lezoarrak eta sanjuandarrak elkarrekin futbolean (LEZ-070/044)

Hordartza-futboleko aritzeko taldea osatu zuten sanjuandarren eta lezoarren artean. Pasarte batzuk gorago aipatu bezala, Kontxako txapelketa irabazi zuten, eta herriko bandak ongi etorria egin zien Pasai Donibaneko plazan.

1.201. Lezoarren trainerua eta sanjuandarrekiko harremana (LEZ-070/045)

Giro ona izan da beti sanjuandar eta lezoarren artean, tarteka tirabiraren bat edo beste piztu izan den arren. Estebanek gogoan du Kontxako bandera egun bateko gertakari sonatua.

1.202. Traineruei buruz (LEZ-071/002)

Arraunlariak orduan baserritarrek ziren.

1.203. Mendizaletasun handia (LEZ-071/004)

Ibiltzea gustatzen zaio batez ere, mendi tontor handiak igotzea baino. "Jaizkibel" mendi taldearekin egiten ditu irteerak.

1.204. Istripuak lanpernen bila joanda (LEZ-071/005)

17 urterekin hil zen lagun bat lanperna bila joan eta olatuak kolpatuta. Berak nahiago du goragotik ibili.

1.205. Sakamantekasik ez itsasoan (LEZ-071/006)

Inguruko iluntasunak nahiko errespetu ematen zien eta ez ziren itasora gerturatzen. Mutil koskorretan herrian egoten ziren, beraientzat ezer ez bazegoen ere.

1.206. Umetan harroketan jolasik ez (LEZ-071/007)

Ez zieten bereziki debekatzen baina umetan ez ziren itsaso aldera jolastera joaten.

1.207. Eskolako makilaren astinduak (LEZ-071/008)

Eskolan irakasleari ez zioten ezer ulertzen eta makila hausten zitzaionean, ikasleei berria ekartzeko eskatzen zien.

1.208. Neskekin harremantzeko zailtasunak (LEZ-071/009)

Dena bananduta egiten zuten: eskola, dantza, irteerak...

1.209. Eskolan gaztelaniaz eta elizan euskaraz (LEZ-071/010)

Irakasleak bazekien euskaraz, baina hala ere, erakusteko gaztelania erabiltzen zuen. Elizak, ordea, dotrina eta meza euskaraz ematen zituen.

1.210. Mandamentuak gogoratzn nahiko lan (LEZ-071/011)

"Haragikeririk ez egitea" adibidez, ez zekiten zer esan nahi zuen ere. Apaizek ez zuten azaltzen. Buruz ikasi eta zer esaten zuten ere ez zekiten.

1.211. "Hi zeñena haiz?" pasadizua eta "cara al sol" (LEZ-071/012)

Baserritar bati galdetu: hi zeñena haiz? eta harek: ni Francona! Eskolan beti Franco gora eta Franco behera!!

1.212. Etxean informazio gehiegi ez (LEZ-071/013)

Non ikasi behar zen haurrak nondik zetozen? Etxean ez, eskolan ez...

1.213. Konfesatzeko orduan, emakume kontuekin zirikatzen (LEZ-071/014)

Lagun bati apaizak konfesatzeko orduan, masaileko bat eman zion, neskak ez zituela ukitzen esaten ziolako.

1.214. "Xirrit" egiteagatik penitentzi gogorra (LEZ-071/015)

Don Eusebio bikarioak penitentzi handi bat jarri zion gaizki ulertu bategatik.

1.215. Bertsolariak balkotik balkoira (LEZ-071/016)

Santa Krutz festetan bertsolariak balkoitik balkoira ibiltzen ziren kantuan, mikrofonorik gabe, Uztapide eta Mitxelena gogoratzen ditu bereziki.

1.216. Lantegiko giro politikoa, latza baina elkartasunezkoa (LEZ-071/018)

Burgoseko prozesuko garaiak ditu batez ere gogoan. Garai gogorrak baziren ere, jendearen solidaridadea askoz ere handiagoa zen.

1.217. Francoren ondoren herria asko zatitu zen (LEZ-071/019)

Herri txikitan zatiketa handiagoak eman ziren. "Miliak", "poli-miliak", HB eta EE, traidoreak zirela eta ez zirela.

1.218. Lokalarekin gorabeherak politika medio (LEZ-071/020)

PSOEK, EEkin bat egin zuen eta banatzerako garaian, PSOE lokal guziekin gelditu zen beraienarekin izan ezik.

1.219. Euskadiko Ezkerran militatzen aritu zen (LEZ-071/021)

Lagunak "polimiliak" zirelako hasi zen "Euskadiko Ezkerran". Baina familian, EAJkoak ziren batzuk eta nahiko lan. Klean ere giroa ez zen samurra.

1.220. Afari koloretsuak (LEZ-071/022)

Denetarik dago koadrilan politika aldetik, eta hala ere ongi moldatzen dira.

1.221. Atez ateko zabor bilketaren inguruan (LEZ-071/024)

Atez ateko zabor bilketarekin orokorrean pozik daudela dio. Etxean birziklapena egiten ohitua dagoenarentzat ez dagoela inongo arazorik dio.

1.222. Ez zaio kostatzen birziklatzea (LEZ-071/026)

Atez atekoak nabari uzten du, hura ezartzea nahi ez dutenak etxean birziklatzen ez dutenak direla.

1.223. Etxe-txiki ingurua (LEZ-072/002)

Haurra zeneko garaiez galde egin eta Bordatxo-txoko edo Etxe-txiki baserriko ingurua oso garbi gogoratzen du Ixiarrek: industriarik gabea, zelai gehiago...

1.224. Lehen, auzoen artean hartu-eman handiagoa (LEZ-072/004)

Jende gehiago bizi zen lehen auzoan, eta sarriago ibiltzen zen bideetatik oinez. Harremanak gutxitzen joan dira bideetan barrena autoak ugaritu ahala.

1.225. 6 urterekin herriko eskolan hasi (LEZ-072/006)

Neskak eta mutilak bereizita egoten ziren eskolan. Gogoan ditu Ixiarrek eskolan izan zituen irakasleak.

1.226. Eskolako martxa (LEZ-072/008)

Goizetan hainbat eduki ikasten aritzen ziren eskolan, eta arratsaldean, aldiz, josten ikasten.

1.227. Txikitako jolasak (LEZ-072/009)

Soka, kromoak, "zipoteak", bizikleta... "tortolasetan" aritzeari "kailoka" aritzea esaten zioten. Gordeketan jostatzeari "gorde-gordeketan" esaten zioten.

1.228. 12 urterekin eskola utzi (LEZ-072/010)

Etxean lan asko izaten zela eta, 12 urte betetzerako eskola utzi eta etxeko-lanetan hasi behar izan zuen Ixiarrek.

1.229. Baserriko lan-egun bateko martxa (LEZ-072/012)

Goizeko 6:00etan jaiki, ukuilura jaitsi, behiak jetzi eta enkarguak egitera joan behar izaten zuen. Bazkaldu eta gero, aldiz, baserrian hainbat lan izaten zen egiteko. Gaueko 22:00ak aldera oheratu ohi ziren.

1.230. Erremolatxa eta arbia jorratzen (LEZ-072/013)

Jorra-lanak zer nolakoak izaten diren azaltzen du Ixiarrek.

1.231. Babarruna eta artoa batera (LEZ-072/015)

Babarruna artoarekin batera botatzen (ereiten) zuten. Ixiarrek beti hala egiten ezagutu du.

1.232. Urtean behin koltxoiak askatu (LEZ-072/016)

Urtean behin, eta normalean udan, etxeko koltxoi guztiak askatu eta artilea astindu eta arrotu egiten zuten, ondorenean berriz ere koltxoiak egiteko.

1.233. Udaberritik negura bitarteko baserriko lanak (LEZ-072/018)

Udaberritik negura bitarteko baserriko lanak zeintzuk izaten ziren azaltzen du Ixiarrek.

1.234. Auzolana eta auzo-bideak (LEZ-072/020)

Auzoko bide guztiak auzolanean eginak dituzte. Ongi komunikatutako auzoan bizi dira.

1.235. Kalerako joan-etorriak (LEZ-072/022)

Mezetara, dotrinara, bezperetara... joan behar izaten zuten baserritik kalera.

1.236. Jaizkibelgo itsaslabarra (LEZ-072/024)

Jaizkibel mendiko itsaslabarra egun bezelakotsua ezagutu zuen Ixabelek txikitan, militarren tiralekuak eta baserri batzuk gorabehera.

1.237. Guadalupera oinez (LEZ-072/025)

Gurasoekin Guadalupera oinez joateko ohitura zuten; baina baita lagunekin jostaketan ibiltzekoa ere, mendi-puntara zein lehenago igo.

1.238. Urak ekarri baino eraman gehiago egiten du (LEZ-072/026)

Jaizkibelgo itsaslabarrak erne ibili beharreko tokian direla entzun izan du beti Ixiarrek.

1.239. Esnea, produktu delikatu (LEZ-072/028)

Esnetarako behi-azienda izan zuten garaian, kontu handiz ibili behar izaten zuten esnea ez ondatzeko, neguan baino, udan.

1.240. Esnea gosaritarako eta postreak egiteko (LEZ-072/030)

Ixiarren etxean, gosaritarako eta postreak egiteko erabiltzen zen esnea, batez ere.

1.241. Jakien prestaketa eta sukaldeko transmisioa (LEZ-072/031)

Ixiarrek bere aurrekoei ikasitako moduan prestatzen ditu jakiak egun.

1.242. Esnetarako azienda kendu eta "lehorra" jarri (LEZ-072/033)

Esnetarako behi-azienda kendu eta behi-azienda lehorra esaten diotena jarri zuten Etxe Txikin; haragitarako azienda, alegia. Ixiarrek aldaketaren arrazoiak azaltzen ditu.

1.243. Belar-siloa eta beste aldaketa batzuk (LEZ-072/034)

Ixiarrek siloa zer den azaltzen du; garai batean belarra lehertzeko erabiltzen zen zuloa. Gaur egun, aldiz, belar-bolak ikusten dira nonahi. Baserriko lanei lotutako beste aldaketa batzuk ere ezagutu ditu Ixiarrek.

1.244. Berbena-belarra (LEZ-072/037)

Berbena-belarra sendagai modura erabiltzeko ohitura bada, oraindik.

1.245. Gaintxurizketa inguruko supermekatuak (LEZ-072/043)

Supermekatuak (Pryca, Mamut...) aldaketak eragin zituzten bertako paisaia, ekonomian eta kontsumo-ohituretan eta harremanetan.

1.246. Lezoko Lopene baserria (LEZ-074/005)

Lezoko Lopene baserrikoa zuen aita. Gaur egun Algeposa lantegia dagoen tokian zegoen baserri hura.

1.247. Ebanista lehenik, arotza gero (LEZ-074/007)

Altzariak egiten hasi zen lanean Felix. Gerora hasi ziren erreformak egiten etxeetan, eta arotz-lanetara

1.248. Lehen lana, ontzigintzan (LEZ-074/009)

Pasai Donibanen hasi zen lanean, hamalau urterekin, ontzigintzan, Clemente Goldaracena ontziolan. Han urte bete egin lanean eta Lezoko ebanisteria batean hasi zen gero.

1.249. Lanetik iritsi eta baserriko lanak (LEZ-074/011)

14 urte zituela, 7:30etarako joaten zen egunero lanean, autobusez. Donibaneko izeba baten etxean bazkaldu eta arratsalde 19:30ak alderako iriten zen Miurara. Ukuiluko lanak zain izaten zituen maiz. Neguan jokia egitea ere egokitzen zitzaion. Izenak adierazten duen moduan, jokia jo egiten da.

1.250. 12 urterekin baserriko lanetan (LEZ-074/012)

12 urte zituenetik 14 urte bete bitarte baserriko lanetan aritu behar izan zuen Felixek. Osaba baten laguntza izaten zuen askotan. Esnea partitzen ere ibilitakoa da Felix.

1.251. Osabarekin segan (LEZ-074/014)

Felixek 12 urte zituela, sega-lanak abiatzen uzten zion osabak, tarteka.

1.252. Sega zorroztu eta pikatu (LEZ-074/015)

Sega-harria edo arraitza esaten diote Lezo inguruan sega zorroztego harriari. Lan garrantzitsu bezain zailak dira sega pikatzea eta zorroztea.

1.253. Belarra zabaltzen (LEZ-074/016)

Gazte garaian eskuz aritzen ziren belarra zabaltzen, horiek sardearekin egiteko lanak izanagatik ere. Belarrari buelta emateko, ordea, egurrezko eginiko bi hortzetako bat erabiltzen zuten.

1.254. Miurako esnea kanpora saldu (LEZ-074/017)

Agustin Lizarazuri entregatzen zioten esnea Miurakoek, Felix haurra zela. Agustin Lizarazuk esnea, pentsua eta halakoak saltzeko almatzen bat omen zuen Lezon.

1.255. Miura, Erriondo bailaran (LEZ-074/018)

Miura baserria non dagoen azaltzen du Felixek. Hainbat erreferentzia ematen ditu.

1.256. Neskatoen eta mutikoen zereginak (LEZ-074/022)

Ezberdinak izaten ziren neskato eta mutikoei ematen zitzaizkien zereginak. Baserriko lanak egiten zituzten mutikoek, eta etxe-barrukoak neskek.

1.257. Arreba zaharrak, lan bikoitza (LEZ-074/023)

Gazterik galdu zuten aita, eta amak etxetik kanpo lan egin behar izaten zuenez, Felixen arreba zaharrenari lan handiak egin eta ardurak hartzea egokitu zitzaion.

1.258. Gomazko baloia (LEZ-074/025)

Asko maite zituen Felixek eurekin bizi ziren aitona eta amona. Ongi gogoan du Felixek aitonaarekin bizitako pasadizo bat.

1.259. Gauak negarrez (LEZ-074/027)

5 urte inguru zituela Lopene baserrian bolada bat igarotzea egokitu zitzaion Patxiri, baina gauak negarrez ematen omen zituen. Berak ez du gogoan; arreba zaharrenak kontatuta daki.

1.260. Amona beti biloben alde (LEZ-074/028)

Ongi gogoan ditu Patxik aitona eta amona. Aitona haserratzten baldin bazitzaien, amonak sarritan egiten omen zuen biloben alde.

1.261. Amonaren bertso-liburua (LEZ-074/030)

Aitonak eta amonak kontatutako istorio, ipuin edo pasadizorik ez du gogoan Felixek; bai, ordea, amonaren bertso-kantuak. Alfabetatua ez bazen ere, bertso-liburu bat bai omen zuen, eta hangoak letzeko gai omen zen.

1.262. Amonari kantarazten (LEZ-074/032)

Jaiean kantatzen zituen amonak bertsoak gehienbat, bere bertso-liburutik hautatuta. Bilobek eskatu ere egiten zioten. Felixek hainbat bertso-sorta ikasi zuen buruz, gerora, bertso-liburu hari esker. Ahaztuak ditu egun, baina. Eta liburua ere, Felixek dakiela, behintzat, galdua da.

1.263. Miurako sukaldea (LEZ-074/034)

Sukalde handia zen Miura baserrikoa, 18 laguni babes ematera iritsitakoa. "Ekonomika" bazuten sukalde hartan, eta baita zerrautsarekin (zerrautsarekin baino, "kixkurrarekin", Felixek dion bezala) sua egiteko modua ere. Zerrautsa eta kixkurraren arteko aldea azaltzen du Felixek.

1.264. 14 urte betetzerako, lanera (LEZ-074/036)

14 urte betetzeko 15 egun falta zituela hasi zen Felix lanean, Clementeren ontzian. Gogoan ditu orduko zenbait zeregin eta kontu. Oroitzapen ona du bertan egin zuen boladaz.

1.265. "Pintxe" lanetan (LEZ-074/037)

Gaztetan ontzi-olan lanean ari zela, sua egin behar izaten zuen askotan, egurrari forma emateko ur-irakinetan sartu behar izaten baitzen. Udan bero galantak pasatzen omen zituen su haren bueltan, bakar-bakarrik. Neguan, ordea, ez omen zen sua egiteko lagunik falta izaten.

1.266. Ebanisteriatik aroztegira (LEZ-074/042)

15 urte zituela hasi zen ebanisteria batean lanean Felix, Errastirenean. Zein lanabes erabiltzen zituzten kontatzen du, eta baita zein lan mota egiten zituzten ere.

1.267. Lana eta osasuna (LEZ-074/044)

Felixa aritzea egokitu zitzaion garaian, lan-baldintza gogorrakoak eta osasunarentzat kaltegarriak ekartzen zituen arotzaren lanak ebanistarenak baino.

1.268. Anaiei hika, arrebei zuka (LEZ-075/001)

Euskaraz egiten zuten beti baserrian, amarekin, senideekin eta aitona-amonekin.

1.269. Otorduak lanaren arabera (LEZ-075/002)

Baserriko lanetara egokitzen zituzten otorduak. Igandetan, ordea, denek elkarrekin bazkaltzen zuten, ordubata eta ordubiak aldera.

1.270. Baserriren irratsaioa (LEZ-075/003)

Gaur egungo Lezoko euskara desberdina dela nabaritzen du Felixek. Baserri bertsolariak irratsaio bat zuen, eta euskara batuaren kontrakoa zen.

1.271. Hondarribiko euskara, desberdina (LEZ-075/004)

Lezotik Errenteriara ez du euskararen aldaketarik nabaritzen. San Juanen, Oiartzunen, Irunen eta Hondarribin bai.

1.272. Gerra ondorena eta errazionamendua (LEZ-076/002)

Gerra ondorena ezagutu zuen Mirenek. Gogoan ditu orduko gosea eta errazionamenduaren gaineko hainbat gora-behera. Arraiketariak ibiltzen ziren arrain freskoa saltzen.

1.273. Jan nahi eta ezin (LEZ-076/003)

Gerra ondorenean ogi onik ez zen. Horrek urdaileko gaitzak sortzen zituen. Taloak izaten zituzten gosaritarako. Arto-alea zein errotetan ehotzen zuten gogoan du.

1.274. Bizimodu aldaketa handia (LEZ-076/004)

Miren haurra zenetik asko aldatu da bizimodua. Gosea pasa zuten belaunaldiak gehiegi eman ez ote dieten ondorengoei... susmo hori du Mirenek.

1.275. Karabineroak saihesten (LEZ-076/006)

Artoa ehotzera eramaten zutenean, karabineroak saihesten saiatzen ziren itzuleran, haiek arto-irina kentzen zutela entzuna baitzuten.

1.276. Ama, lan asko egindakoa (LEZ-076/008)

Ogia estraperloan lortu behar izaten zen garaia ezagutu zuen Mirenek. Haienean amak atera zuen familia aurrera, aita ondoezik bizi izan baitzuten, eta gazterik hil zitzaien.

1.277. Herriko eskolan, falangeko andereñoa (LEZ-076/009)

Falangeko "señorita" zuten eskolan irakasle. Mirenek harekin izandako pasadizoa kontatzen du. Etxean ez zuten politikari buruz hitzik ere egiten.

1.278. Osabaren behia zaintzen (LEZ-076/010)

Osabaren behia zaintzen zuen Mirenek, eta lan hartatik lortutako sosekin partikularrak ordaintzen zituen, eskola publikoan bertan, Jesusa Lobo irakaslearekin.

1.279. Taloak egiten (LEZ-076/012)

Etxean ez zuten ogirik egiten. Taloak egiten zituzten, ekonomikan. Mirenek sarritan egiten zituen taloak. Orea bezperan eginda uzten zuten, eta ore horri "egin-zaharra" esaten zioten. Taloak goxoagoak izaten omen ziren modu horretan eginda.

1.280. Ahal bezala bizitzan aurrera egiten (LEZ-076/014)

Baratzea egiten zuten etxean.

1.281. San Markoak besotakoei (LEZ-076/016)

Lezo eta inguruko herrietan, San Marko egunarekin, amadreek San Marko opila egiten diete besotakoei. Lehen San Markoak bedeinkatu eta Jaizkibelera meriendatzera joateko ohitura zen.

1.282. Igandetan dotrinara (LEZ-076/017)

Jendearen eta, batez ere, gazteen elizarako joera jaitsita ikusten du Mirenek egun. Eurak igandero joaten ziren dotrinara.

1.283. Lanaldiak eta oporraldiak (LEZ-076/018)

Gaztetan, igandetan, dotrinatik irten eta Errenteriako alamedara joaten ziren. Astelehenetik larunbatera egiten zuten lan, egunero 8 orduz. 15 eguneko oporraldia izaten zuten urtean, eta etxearen mantenurako aprobetxatzen zuten.

1.284. Gizasemeak tabernan eta emakumeak etxeko-lanetan (LEZ-076/019)

Mirenek ez du sekula ongi ikusi emakumeen gain utzi izan den lan-karga.

1.285. Legatz-buruak prestatu eta zurrupatzen (LEZ-076/020)

Haurrak zirela sarritan joaten ziren portura, legatz-bururik bazen ikustera. Halakorik lortuz gero, etxean preparatu eta gustura jaten zituzten.

1.286. Kontrabandoa (LEZ-076/023)

Kontrabandoko generoa ezkutuan salerosten zen.

1.287. Almeja biltzen (LEZ-076/024)

Mareak uzten zienean, Lezotik Donibanera joaten ziren txikitan, almejaketan eta biltzera.

1.288. Kailokekin jostaketan (LEZ-076/025)

Sokak, poto zaharrak, kartak, kailokak eta partxisa izaten zituzten ohiko jostaketak. Kailokekin nola jostatzen ziren azaltzen du Mirenek. Zapatetako lokarri edo "ajuetekin" ere.

1.289. Inprimategian lanean (LEZ-076/026)

Miren Inprimategi batean aritu zen lanean, 15 urtez. Irungo Palmera lantegirako kaxak egiten zituzten, besteak beste. Miren purpurinarekin aritzen zen tarteka lanean, eta produktu arriskutsua zela eta, litro bat esne ematen

omen zioten halakoetan. Mirenek lanean aritu zen garaiko oso oroitzapen onak ditu.

1.290. San Tomas egunean angula-jatea (LEZ-076/027)

Inprentako nagusiak angulak jatera gonbidatzen zituen langileak, Oiartzungo Estankora.

1.291. Laneko ordutegiak eta ordu estrak (LEZ-076/028)

Inprimategiko nagusiak errelebotan lanean jarri zuen Miren, baina honek nahiago zuen ordu estrak sartu. Bolada batez egunean 12 ordu sartzen ibili zen. Soldata amari ematen zioten senide guztiek.

1.292. Inprimategiko lana (LEZ-076/030)

Kate-lanean aritzen ziren inprimategian.

1.293. Enkargatu fina (LEZ-076/032)

Balentin Irizar tolosarra izan zuen Mirenek enkargatu inprimategian lanean aritu zenean, eta haren oroitzapen ona du. Oso langile fina omen zen.

1.294. Zuka, hika baino (LEZ-076/035)

Hika ez ziren gehiegitan aritzen, itsusi ematen zuela eta. Sumatzekotan, mutilak sumatu izan ditu Mirenek hika, neskak baino.

1.295. Inguruko herrietako hizkerak eta doinuak (LEZ-076/037)

Amak ez zuen sekula gazteleraz mintzatzen ikasi. Inguruko herrietako hizkera lezoarrenaren antzekoa sumatzen du Mirenek. Doinua aldatzen da, batik bat.

1.296. Lezo, herri polita (LEZ-078/002)

Lezoko Santokristo eliza ezaguna da oso, baina herriak baditu ezagutzea merezi duen beste hainbat eraikin eta gune.

1.297. Ume garaiko Lezo (LEZ-078/006)

Mertxek haur garaian ezagutu zuen Lezo eta gaur egungoak antzekotasun gutxi dute. Asko aldatu da herria ordutik. Herritar guztiek ezagutzen zuten elkar, giroa ezberdina zen. Anekdotak moduan kontatzen du Mertxek edozeinek bidaltzen zuela haur bat enkarguak egitera, haurra berea izan edo ez.

1.298. Gaztetan, sarritan gazteleraz (LEZ-078/007)

Eskolako joeragatik edo, Mertxek eta haren lagunek gazteleraz aritzeko joera zuten. Aitak kargu hartzen omen zien.

1.299. Errenteriako Gezala akademian (LEZ-078/010)

Behin 14 urte bitarteko ikasketak amaituta, Errenteriako Gezala akademian kontabilitatea ikasten aritu zen Mertxe. Administraria izan da ofizioz. Pekin lantegian aritu zen lanean.

1.300. Aisialdi ohiturak, atzo eta gaur (LEZ-078/014)

Aisialdi-ohiturak asko aldatu dira. Hainbat aldaketari buruz mintzatzen da Mertxe.

1.301. Ama, zer da beleta? (LEZ-078/016)

Mertxek txikitako eskola garaiko oroitzapen ona du. Gazteleraz mintzatzen ikas zezaten gogor hartzen omen zituzten, baina azkenerako ongi ikasi zutela dio.

1.302. Eskolan, hiru gela (LEZ-078/017)

Masailekoak erraz jotzen zituen irakasle gogoan du Mertxek. Hala ere, ongi irakasten zuela dio.

1.303. Herriko plazan jostaketan (LEZ-078/018)

Kaniketan, zepoka, soka-saltoan, "kulebrillan", gorde-gordeketan, harrapaketan... Horiek ziren euren txikitako jostaketak. Kaniketan eta txapetan nola jostatzen ziren kontatzen du.

1.304. Antzerki taldea zuzendari bila (LEZ-078/020)

50 urte ingururekin hasi zen Mertxe antzerkian, lagun talde batekin. Hasieran, euren kabuz aritzen ziren, baina ez omen ziren moldatzen. Lierni Fresneda aktore eta zuzendariari deitzea erabaki zuten, gida zitzan. 18-19 urte eta gero, antzerkia egiten jarraitzen dute, Lierni zuzendari dutela.

1.305. Lierni Fresneda eta Txema García (LEZ-078/021)

Mertxek gogoan ditu Lierni Fresnedarekin antzerkigintzan hasi zireneko garaiak. Askok ikasten dute harekin. Lierniren senarrak ere laguntza handia ematen die.

1.306. Urtero obra bat (LEZ-078/023)

Urtero obra bat prestatzen dute Lezon bertan aurkezteko. Hala ere, herriko urteroko zitaz gain, beste hainbat emanaldi eskaintzen dituzte, antzeztera joateko deitzen dituzten herrietan.

1.307. Diru-laguntzak eta antzerki obrak antolatzearen kostua (LEZ-078/024)

Egun diru-laguntza gutxiago jasotzen dute lehen baino, eta horrek saio gutxiago egitea ekarri die, antolatzaile askok ezin baitituzte euren oinarritzko gastuak ere ordaindu.

1.308. Antzerkia probatu, eta gustatu (LEZ-078/025)

Probatze aldera sartu zen Mertxe antzerkia egiten, eta gustatu egin zitzaion. Herriak beren lehendabiziko obrei egindako harrerak animo handiak eman zizkieten. Ezberdina da oso herrian antzerkia egin edo kanpoan, eta publikoa askotarikoa izaten dute.

1.309. Antzerki-taldean oso giro ona (LEZ-078/026)

Oso talde-giro polita dute. Testuak buruz ikasi beharra erronka erakargarria da Mertxerentzat; buruko gimnasia egokia. Adin ezberdinetako jendea dute taldean, eta bestela izango ez lituzketen harremanak izateko aukera eskaintzen dizkie taldeak.

1.310. Entseguak, astean bitan (LEZ-078/027)

Astean bitan biltzen dira entseatzeko. Entseguak aurrez antolatzen dituzte, joaterik izango ez dutenen ausentziak entseatzeko traba izan ez daitezen.

1.311. Mertxeren bi anaia antzerki-taldean (LEZ-078/028)

Mertxeren bi anaia aritzen dira antzerki-taldean, baina elkarrikketa egin genion garaian, atsedean hartzeko utzita zuten taldea.

1.312. hizkuntz-gaitasuna eta interpretazioa (LEZ-078/031)

Mertxeren iritziz, hizkuntza ongi menperatzea abantaila da gidoiari aurre egiteko garaian.

1.313. Ama eta aita ezberdinak oso (LEZ-080/002)

Ama eta aita ezberdinak omen ziren oso, izaerari dagokionez.

1.314. Aitaren haserrealdia (LEZ-080/004)

Sekula haserretzen ez zena zuten aita. Hala ere, behin, haserretu omen zitzairen etxean, Xabin tarteko, eta aldi bakan hura ongi gogoan du Xabinek.

1.315. Goizetan ezin jaiki (LEZ-080/005)

Amak esnatzen zuen Xabin gaztetan, baina ezin izaten zuen jaikiarazi.

1.316. "Azababarrunak kozkorak ditu" (LEZ-080/006)

Xabinek Aza-babarrunak jan nahi ez zituenekoa kontatzen du. Ama nortasun handikoa zuten, baina bihozbera.

1.317. Anaia Patxiren lanak (LEZ-080/007)

Xabinek kontatzen du bere anaia Patxi bidaltzen zuela amak arto-aleak ehotzera, zerrauts bila...

1.318. Xabinen umetako lanak (LEZ-080/008)

Amak zein lan ematen zizkion kontatzen du

1.319. 25 ordu lan, egun bakarrean (LEZ-080/009)

Osabaren anekdota kontatzen du.

1.320. Amarekiko harremana (LEZ-080/010)

Xabinek oso gogoan ditu amarekin bizitako hainbat pasadizo.

1.321. Hondarribirako joera (LEZ-080/012)

Lezoarrak Hondarribirako joera handia izan du beti.

1.322. Gezurrak eta beldurra (LEZ-080/015)

Elizak eta eskubiko alderdiek beldurra erabili izan dute beti jendea euren alde jartzeko.

1.323. Euskaraz alfabetatu gabea (LEZ-080/022)

Euskal Herriko zenbait euskalki ulertzeko zailtasunak izan ditu beti Xabinek, eta horrek, barne-gatazkak sortu zizkion euskara batuaren sorrera prozesuan; alegia, ez zekien hizkuntzaren batasunaren alde edo kontra egin.

1.324. Umetako perzepzioak (LEZ-080/025)

Xabinek umetan uste zuen oso jende gutxik zekiela euskaraz.

1.325. ¿Bailamos? (LEZ-080/026)

Xabinek dio bera gazte zen garaian euskara prestigioa galdu samarrik zegoela.

1.326. Auzokoen arteko elkartasuna (LEZ-080/038)

Xabinek dio belaunaldi pare batean asko aldatu dela gizartea. Gurasoekin bizi ziren garaian elkartasun handiagoa zegoen auzotar eta herritarren artean.

1.327. Amak konplize (LEZ-080/039)

Xabinek jostaketan ibilita galtzak urratzen zituenean, lagun baten amak josten zizkion, eta alderantziz.

1.328. Harategia Galtzarabordan (LEZ-080/041)

25 urte zituela harategia ireki zuen Xabinek, Galtzarabordan.

1.329. Antzerki-taldea sortu zuten (LEZ-081/002)

Bihotzeko arazoak zirela eta, kirola egiteari utzi zion, eta antzerkigintzan hasi zen Xabin. Bere anaia Patxi dantzan aritzen zen, eta eszenatokiak prestatzen iaioa zen. Antzerki-taldea osatu eta ezagunak egin ziren oso.

1.330. Antzerkigintza: euskaraz aritzeko aitzakia (LEZ-081/004)

Euskaltegian hasi zen Xabin, euskara galtzeko beldurrez. Antzerkia euskaraz aritzeko modu ona iruditu zitzaion, eta hala hasi zen antzerkigintzan.

1.331. 'Kuxkuxeroak' programan (LEZ-081/007)

'Kuxkuxeroak' telesailean aritu zen ETBn. Pausokan interpretazio ikastaro bat egin zuen eta handik deitu zioten Euskal Telebistatik. Kastingak egiteari uko egin zion.

1.332. Goenkaleko aktore (LEZ-081/009)

Goenkale telesailean egin zuen lanak emaitza ona izan zuen oso. Egunkaria irakurri behar zuen, eta gidoia egunkarian ezkutatzeak aukera eman zion honek.

1.333. 'Mugaldekoak' (LEZ-081/011)

Mugaldekoak telesailean izandako papera.

1.334. 'Urte berri on Amona' filmeko taxi gidaria (LEZ-081/012)

'Urte berri on Amona' filmeko taxi gidaria izan zen. Lasa eta Zabala filmean ere aitaren papera izan zuen. 'Igela' filmeko figurante.

1.335. 'Lasa eta Zabala' filmeko aita (LEZ-081/014)

Figurante bezala agertzen da 'Lasa eta Zabala' filmean. Lasaren aita da bera, baina ez du testurik.

1.336. 'Igela' filmeko aktore (LEZ-081/016)

Etxe batean okupa moduan agertzen da Xabin. Bi astez aritu ziren grabaketak egiten.

1.337. Garai bateko Mandazaia Enea (LEZ-082/003)

Esterrek bere etxea, Mandazaia Enea, nolakoa zen kontatzen du pasarte honetan.

1.338. Aita paper-fabrikako langile (LEZ-082/007)

Aitak paper-fabrikako bulegoetan egiten zuen lan. Aitonak Kampas egin zuen lan. Amak etxean egiten zuen lan, etxekoandre. Amaren aldeko aiton-amonak ez zituen ezagutu.

1.339. Txikitako oroitzapenak: Donibana pasean (LEZ-082/009)

Gogoan du txikia zenean egin zitekeen paseo bakarra Lezo-Pasai Donibane zela. Familian eta lagunartean joaten ziren hara paseatzera.

1.340. Osabaren baserrira jolastera (LEZ-082/010)

Hamar urte zituelarik, osabak Martixkone baserria erosi zuen. Bera eta ahizpa, Irene, bertara joaten ziren jolastera eskolatik irtendakoan.

1.341. Lezoko eskola publikoa (LEZ-082/012)

Lezoko eskola publikora joaten zen Ester ikastera. Bertan, neskak eta mutilak banandurik ikasten zuten. Oso eraikin dotorea dela esaten du Esterrek, argitsua eta handia. Guztira hiru gela bakarrik zituen eskolak, 6 -14 urte bitarteko ikasleentzat.

1.342. Eskolan gaztelaniaz (LEZ-082/014)

Eskolan gaztelaniaz jardun behar bazuten ere, maistrak ez zien ezer esaten euskaraz egiten zutenean. Gogoan du anai-arrebek eskolan paperekin tximeletak egin eta buruan jartzen zituztela, jolasteko.

1.343. "El libro verde de la Falange" (LEZ-082/015)

"El libro verde de la Falange" zelakoa du gogoan Esterrek, larunbat arratsaldetan lantzen zuten hau eskolan. Maistrak betebeharez pasatzen zuen liburu hura, ahalik eta azkarren.

1.344. Gerrako biktimei "Cara al Sol" abestea (LEZ-082/016)

Gogoan du Esterrek "cara al sol" abestu behar izaten zutela mezan, gerrako biktimen izenak zeuden paretan.

1.345. Babarrunak eta tomate saltsa (LEZ-082/018)

Babarrunak eta tomate saltsa jaten zituzten gehienbat etxean. Igandetan, ordea, garbantzua eta haragi pixka bat, salda, eta haragia tomatearekin.

1.346. Ostiraletako meza eta dotrina (LEZ-082/019)

Jaunartzea egin ondoren, lehendabiziko ostiraletan joan behar izaten ziren mezara, eskolara joan aurretik. Sei urtetik gorakoek, ordubietatik hiruretara dotrina ikasi beharra zuten elizan eta eskolan.

1.347. "Txotxa baino, umia hobe" (LEZ-082/020)

Osabaren Martixkone baserrira batik bat jolastera joaten baziren ere, ilarrak jasotzen, babak jasotzen... ere ibiltzen ziren.

1.348. Nork agintzen zuen etxean (LEZ-082/022)

Etxean amak agintzen bazuen ere, Esterrek ez du oroitzen aita eta amaren arteko botere banaketarik. Behin, babarrunik jateko gogorik ez zuenez, amak eskolatik bueltan jan beharko zituela esan zion.

1.349. Lezo asko aldatu al da? (LEZ-082/024)

Itxuraz asko aldatu da Lezo Esterrentzat. Lezoarrek ere gehiago ezagutzen zuten elkar, mezara joateko elkartzeko baitziren denak.

1.350. Baserritar bakoitzak bere bezeroak zituen (LEZ-082/025)

Astoaren laguntzaz saltzen zuten esnea baserritarrek, bakoitzak bere bezeroak zituen. Marmita hartu eta eskailerak igotzen zituzten saltzaileek. Esterren etxean, hala ere, osabaren Martixkone baserriko esnea edaten zuten.

1.351. Erretereriako zinemara (LEZ-082/027)

Elizak zinema antolatzen zuen zenbaitetan Lezon. Bestetan, aldiz, Erretereriara joaten ziren parrokiako zinemara. Filmak, orokorrean, bakeradak izaten ziren. Maitasunezko filmak moztu egiten zituzten, zentsuratu.

1.352. Tabernak eta sagardotegiak (LEZ-082/029)

Plazan bi taberna zauden, San Juan kalean beste bi, eta Zubitxon ere bai. Sagardo garaian, ordea, lokalak zabaltzen zituzten Lezon sagardoa saltzeko. Baserrietara ere joaten zen jendea sagardo bila, botila etxetik eramanda. Zizarra eta pitarra edaten zituzten etxean. Lopenen eta Bordatxon egiten zuten batik bat sagardoa. Bordatxora, gainera, Lezokoa ez zen jendea joaten zen sagardoa edatera.

1.353. Dantzalditik sua itzaltzera (LEZ-082/031)

Lezon mendi talde bat zegoen, autobusa hartu eta San Anton, Ereñozu eta San Markos aldera joaten ziren. Jaizkibel mendian suteak ohikoak ziren. Esterrek gogoan du igande batean Erretererian dantzan zebilen jendea eraman behar izan zutela soldaduek Jaizkibeleko sua itzaltzera.

1.354. Errenteriako dantzaldiak (LEZ-082/032)

Lezoko jaietan jotzen zuen bandak herriko plazan, baita San Juanetan eta santuetan ere. Errenterian dantzaldiak bi zati zituen, bata bandak jotzen zuen musikarekin, eta bestea gramolaz. Neskak neskekin dantzatzeko zuten, eta mutilak dantza egiteko eskatzera joaten ziren haiengana.

1.355. Emakumeen arteko kritikak (LEZ-082/034)

Askotan, bi mutil baino gehiagorekin ibiltzen ziren neskak kritikatuak izaten ziren.

1.356. Lezoko jaietan beti pilota partidua (LEZ-082/035)

Jesus Otegi, Juanito Mendizabal, Juan Mari Puente eta Etxanditarrak pelotari ezagunak ziren Lezon. Ohitura zen herriko jaietan pilota partiduren bat jokatzera.

1.357. Lezoko bertsolariak (LEZ-082/037)

Lezoko bertsolarien berri galdetzean, Esterrek "Lexo" aipatzen du. Jaietan, besteak beste, Uztapide, Basarri eta Lasarte bertsolariak joaten ziren bertsotan aritzera.

1.358. San Juandarrekin "pikea" (LEZ-082/039)

Lezokoek baserritar fama zuten, "kaxero" fama. San Juandarrek, ordea, harro fama zuten.

1.359. Lezoko kaia (LEZ-082/040)

Kaia naturala zen Lezon zegoena, iturri bat ere bazuen puntan.

1.360. "Mutilek gehiago egiten zuten euskaraz" (LEZ-082/041)

Mutilek neskek baino gehiago hitz egiten zuten euskaraz. Esterren iritziz, neskek gehiago jo dute gaztelaniara "modernoagoa" zelakoan. Mutilek euren artean hika egiten bazuten ere, galtzen hasia zen. Esterren etxean zuka egiten zuten, baina aita bere arrebeekin hitanoa erabiltzen zuten.

1.361. Banda bukatutakoan etxera (LEZ-082/042)

Beste herrietako jaiak zirenean mugitzen ziren Lezotik, hala nola, Oiartzunera, Pasai Donibane eta Pasai San Pedrora eta Pasai Antxora.

1.362. Joan-etorriak trenez (LEZ-082/044)

Errenteriako trenaz eta tranbiaz jarduten du pasarte honetan Esterrek.

1.363. Lezon San Juaneko arraina saltzen zen (LEZ-082/046)

Pasai Donibanetik joaten ziren emakumeak lezora arraina saltzera, buru gainean eramaten zuten hau.

1.364. Santa Krutz txiki (LEZ-082/047)

Mendekosteak, Santa Krutzak eta Santa Krutz txikiak zituzten Lezon herriko jaiak. Jaien bezperan elizara joaten ziren. Egun bateko jaiak izaten ziren hauek, musikariak, txistulariak diana jotzen, etab. egoten ziren.

1.365. Gabonetan bixigua opari (LEZ-082/048)

Gabonetan bixigua jaten zuten, oparitu egiten baitzuten.

1.366. Lokutorioa plazan (LEZ-082/050)

Agoazilak eta Serenoak egiten zituzten lanak kontatzen ditu hemen Esterrek. Telefonorik ez zen, eta serenoak laguntzen zuen jendea larrialdietan.

1.367. Emakumeen janzkera (LEZ-082/051)

Gona eta galtzerdiekin janzten ziren.

1.368. Emakumeak lantegietan lanean (LEZ-082/053)

Lezon jende askok egiten zuen lan fabriketan, askotan emakumeak ziren langileak. Francoren garaian emakumeek ezkondu ondoren utzi egin behar izaten zuten lana.

1.369. Errazionamendua lezon (LEZ-082/054)

Errazionamendua zela eta, otarteko bat izaten duten egun osorako jana. Familia bakoitzari denda bat zegokion herrian, egokitutako jana jasotzera joateko.

1.370. Tren bidez estraperloa (LEZ-082/055)

Pasaiako portura janaria ekartzen zenez, lapurtu eta herrian saltzen zen errazionamendu garaian. Tren bidez ere laranjak eramaten zituzten Lezora.

1.371. Trabajaadoreak herrian (LEZ-082/057)

Gerraostean soldaduen presentzia handia zen Lezon. Martixkone inguruan eta Jaizkibel inguruan ibiltzen ziren.

1.372. Janaria lapurtzeko beldurrez (LEZ-082/058)

Gerraostean gosea zela eta, beldurrez izaten ziren baserritarrak, soldaduek askotan lapurtzen baitzuten janaria kontroletan etab.

1.373. Don Pedro medikua (LEZ-082/059)

Kanpotarra zen Lezoko medikua, baina euskaraz egiten saitzen omen zen. Erreterria aldean ere egiten zuen lan. Emaginak ere ez ditu gogoratzen. Ahizpak etxean izan zituen haurrak, eta erreteriatik etortzen ziren emaginak laguntzera.

1.374. Haurdunaldia ezkutatzea ohitura (LEZ-082/061)

Garai batean haurdunaldia ezkutatu egiten zuten, arropa zabalak erabiliz. Esterrek gaur egun haurdun geratzea eta garai batean geratzea oso desberdina dela dio, gaur egun errazagoa baita haurdunaldia noiz hasi den jakitea.

1.375. Rona edatea haginetao minerako (LEZ-082/062)

Kamamila denerako erabiltzen zuten etxean. Ukenduak ere erabiltzen zituzten. Paper-fabrikak bere medikua zuen, eta aitarengana joaten zen maiz etxera. Hilerokoaren mina kentzeko ere zenbaitek ron kopa bat hartzen zuten, baita hagineko mina zutenean ere.

1.376. Astero konfesatzera (LEZ-082/064)

Lezoko apaizaz ari da Ester pasarte honetan. Giro txarra zegoen herrian gerraostea zela eta. Aita Donostiara joaten zen konfesatzera, Lezoko apaizarengandik urruntzeko. Ezkondu eta lehen haurra izatean, elizara joan behar izaten zuten emakumeek, "arima garbitzeko".

1.377. Lezoko apaiza euskalduna (LEZ-082/065)

Ordiziakoa zen Lezoko apaiza, oso euskalduna. Lezon euskara mantendu zuen honek, baina jendea sufriarazi zuela du gogoan Esterrek, apaiza oso zorrotza baitzen.

1.378. Lezoko apaiza euskara bultzatzen (LEZ-082/066)

Ikastola sortzeko giroa piztu zen herrian, eta euskarazko eskolak emateko tituludunik ez zenez, Lezoko apaizak atera zuen titulua. Bertara 1960.hamarkada inguruan jaiotako zenbait ume joan ziren.

1.379. Sacamantecasen beldur (LEZ-082/068)

Txikitako kontuei buruz galdetzean, sacamantecasi beldurra ziotela kontatzen du Esterrek. Erreterian ere ba omen zen gauez kalera irteten zen gizon beldurgarri bat.

1.380. Kaniketan eta kromotan (LEZ-082/070)

Kaniketan aritzen ziren umetan, baita kromotan eta sokasaltoan ere bai. Kromo berriak eta zaharrak zituzten, baina zaharrek balio gehiago zuten.

1.381. Eskolan ikasi zuen gaztelania (LEZ-082/072)

Gogoan du denak antzeko zebiltzala gaztelania ikasten, eta maistrak euskarazko izenak gaztelaniara pasatzen zituela.

1.382. Dantza-taldearen sorrera (LEZ-082/074)

Dantza-taldea sortu nahian, neska-mutilak elkartzen hasi ziren, eta bikote asko sortu ziren bertatik. Jaietan dantzaten zuten batik bat. Beranduago, Allerru elkarteak sortu zen, eta orduan garrantzi handiagoa eman zitzaion dantza-taldeari, besteak beste.

1.383. Lezoko dendak (LEZ-082/076)

Bi denda handi zeuden Lezon, denetarik izaten zuten bertan, erremintak eta guzti. Bestela, denda txikiak ere baziren, haurren zapatak, barruko arropa...

1.384. Gabonetan diru-eskean (LEZ-082/077)

Bere anai-arrebak etxez etxe ibiltzen ziren gabon kantak abesten. Ordain moduan janaria jematen zitzaiera du gogoan Esterrek, intxaurrak, mandarinak...

1.385. Lezoko zerrategian lanean (LEZ-083/004)

Zerrategian hasi zen lanean, kaian. Ondoren, aurrezki kutxan ibili zen. Zerrategiak bi fabrika handi zituen, txapa-fabrika eta zerrategia bera.

1.386. Marrukene kale-baserria (LEZ-083/006)

Aitak ere zerrategian egiten zuen lan, amak, ordea etxean. Marrukenen hamar bat bizi ziren, kale-baserria baitzen. Etxe ondoan erreka bat zuten, eta bertan zuten arropa garbitzeko lekua.

1.387. Soroak, baratza eta animaliak (LEZ-083/007)

Hiru familia bizi ziren Marrukene baserrian. Soroak zituzten bertan, eta artoa, patatak, babarruna... Sagardia ere bazuen baserriak, sagardoa ere egiten baitzuten bertan. Baratza eta zenbait animalia ere bazituzten.

1.388. Argia bai, urik ez (LEZ-083/009)

Erreka ondoko iturritik hartzen zuten ura. Ama bertara joaten zen arropa garbitzera.

1.389. Belarra mozten ibilia (LEZ-083/011)

13-14 urterekin utzi zuen baserria, baina belarra moztu, lehrotzen jarri etab. egiten zuen.

1.390. Elkarlana baserritarren artean (LEZ-083/014)

Goldearekin joaten ziren zenbait baserritar lurra iraultzera, elkar laguntzera.

1.391. Babarruna saltzen zuten (LEZ-083/016)

Babarruna saldu ohi zioten Lezoko denda bati, etxean soberan zutena. Egunerokotasunean, arrautzak, esnea, babarrunak, patatak... jaten zituzten.

1.392. Hiru mezatara joaten zen igandetan (LEZ-083/018)

Igandetan joaten ziren mezara. Zenbaitetan, hiru meza ere entzuten zituzten herrian, garaia eta mezaren arrazoia arabera. Euskaraz eta gaztelaniaz izaten ziren hauek.

1.393. Sagrado Corazón eskola (LEZ-083/019)

Eskola nazionaletara jon zen 8-9 urteak arte, Lezon. Beranduago Erreterriako fraide eskolara joaten hasi zen, Sagrado Corazón eskola.

1.394. Maisua ez zen Lezokoa (LEZ-083/020)

Maisua izan zuen berak 8-9 urteak arte, ondoren fraideak. Eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten.

1.395. Anaiei artean hitanoa (LEZ-083/021)

Guraso eta aiton-amonekin zuketa erabiltzen bazuten ere, anaiei artean hitanoa erabiltzen zuten.

1.396. Erosketak eskolara joan aurretik (LEZ-083/023)

Amari etxean laguntzen ziotela gogoratzen du Jose Krutxek, egunero-egunero eskolara joan aurretik erosketak egiten zituzten: olioak, eguneroko ogia... Errotara ere laguntzen zion amari, arto irina egitera.

1.397. Lezon baserri asko al zegoen? (LEZ-083/025)

Zenbait baserriren izenak aipatzen ditu Jose Krutxek pasarte honetan.

1.398. 40-45 ikasleko gelak (LEZ-083/028)

Fraide eskolan 40-45 mutileko gelak ziren. Garai hartan neskak eta mutilak bereizita egoteko joera handia zegoen, Santa Cruz elizan bertan meza banatuta entzuten zuten.

1.399. Bi dotrina ikasten zituzten (LEZ-083/029)

Dotrina arruntaz gain, "Doctrina del Sagrado Corazón" ere ikasten zuten. Igandetan, ordubietan elizan bertan ikasten zuten hau. Etxekolanak ere jarri ohi zizkieten.

1.400. Beti kuadrillan (LEZ-083/031)

PYSBE enpresak etxe batzuk egin zituen Marrukene baserriaren inguruan, eta beste auzotxo bat sortu zen bertan. Kuadrillan jolasten ziren futboleak, gorde-gordetan, kaniketan...

1.401. Apaizari errespetu handia (LEZ-083/033)

Hilean behin joaten ziren konfesatzera, Lezora joaten uzten zieten fraide eskolan.

1.402. Enborren gainean arratsalde pasa (LEZ-083/034)

Mendira igandetan joan behar izaten zuten, larunbatetan ere eskola izaten baitzuten arratsaldeko sei eta erdiak arte. Orduan, arratsaldetan futboleak aritzen ziren. Udan kaian ibiltzen ziren, putzuetan saltoka.

1.403. Pilotaren garrantzia Lezon (LEZ-083/036)

Umetan frontoian jolasten ziren gehienbat, pilotan eta futboleak. Futboleak "a fueras" izeneko jolasarekin pasatzen zuten denbora. Bestalde, lezon pilotari ezagunak ere bazeuden: Fermin Ibarguren, Joxe Mari Garmendia...

1.404. Erretereriako zumardia jendez lepo dantzan (LEZ-083/038)

Festetan dantzaldiak izaten ziren, bestela, Erretereriako Alamedara joaten ziren inguruko herrietakoak. Bertan banda egoten zen jotzen, eta bandarik ez zenean gramola. Oinez joaten ziren Lezotik Erretereriara. Bueltarako azken autobusa hartzeko ilara handiak egoten ziren. Hala ere, goiz amaitzen zen dantzaldia, bederatzi eta erdiak aldera. 14-15 urterekin hasten ziren dantzan eta neska-mutiletan.

1.405. Zinea ia egunero egoten zen (LEZ-083/039)

Zinera joatea irtenaldi ohikoa zen bikoteen artean. Hiru zinema gogoratzen zitu Jose Krutxek, tartean batzokikoa. Pelikulak zentsuraren arabera sailkatzen zituzten.

1.406. Solfeo eskolak doan (LEZ-083/040)

Zortzi-bederatzi urte zituela, elizako organistak emandako solfeo eskolak jasotzen zituen eguerdiko ordubatatik ordubietara. Behin solfeoa ikasita, elizan abesten zuten, esaterako hiletetan. Apaiza herrira ateratzen zen eliz mutilekin eta koruarekin batera, hilotzaren bila. Marrukene baserrian mahai gainea uzten zen hilotza, apaiza etortzen zen arte. Ondoren apaizak gorpua elizaren aurrean uzten zuen.

1.407. Solfeoa hasi eta koruan bukatu (LEZ-083/041)

Solfeoa ikasten hasi zen, hiletetan parte hartzen eta koruan. Ahotsa aldatu eta urte batzuk beranduago koruan abesten hasi ziren berriro, astero-astero. Orain ere horretan dihardu.

1.408. Emakumeak koruan sartu zirenekoa (LEZ-083/042)

Hasiera batean korua gizonezkoek soilik osatzen zuten, umetan solfeoa mutikoei bakarrik irakasten baitzitzaien Lezon. Lehen aldiz egun berezi bateko mezan abestu zuten emakumeek, Don Ignazioaren mezan. Sopranoak behera jaitsi ziren, emakumeekin abestera. Emakumeak ez ziren aldarera igo.

1.409. Lehenengo telebistak: tabernetan (LEZ-083/043)

Jose Krutx eta bere kuadrillak taberna giroan ibiltzeko ohiturarik izan ez bazuten ere, oroitzen du lehenengo telebistak tabernetan jarri zirela. Orduan, tabernetara futbola ikustera joaten hasteko ohitura hasi zen.

1.410. Kale-garbitzailea zaldia eta karroarekin (LEZ-083/044)

Herriko langileen inguruan jarduten du Jose Krutxek pasarte honetan. Gogoratzen da Lezon agoazila eta serenoak izan zirela, baita kale-garbitzailea ere zaldi eta karroarekin.

1.411. Eskolako zigorrak: igandetan eskolara (LEZ-083/045)

Irakasleari beldurra eta apaizari errespetua ziren nagusi. Zigortzeko beldur bizi ziren umetan. Jose Krutxek gogoratzen du notak hamabost egunetik behin jasotzen zituztela fraide-eskolan. Seitik beherako nota bazuen, zigortu egiten zituzten: igandetan eskolara joan beharra zuten. Behin zigortu zutela gogoratzen da. Konfesatzera Lezora joaten zirenez, konfesatu eta eskolara itzuli beharrean, etxera itzuli ziren.

1.412. Gela batean lau senidek lo (LEZ-083/047)

Bi senide zaharrenek ohe batean egiten zuten lo, eta gazteenek beste batean. Hasiera batean sukaldea izaten zen baserriko lekuri beroena, eta bertan egoten ziren kontu kontari. Ekonomikarako zerrautsa erabiltzen zuten, baita kiskurra ere. Zerrategitik aitzak egurra ekartzen zuen, eta bestela, jendeak menditik ekartzen zuten.

1.413. Arrain-saltzaileak (LEZ-083/048)

Arraina saltzera etortzen ziren emakumeak San Juanetik. Otarra buru gainean eramaten zuten. Txitxarroa, xabiroia, antxoak... saltzen ziren gehienbat.

1.414. Jai nagusiak Santa Krutzak eta Santa Krutz txiki (LEZ-083/049)

Gaur egun Lezoko jaiak Mendekosteak eta Santa Krutzak badira ere, bere garaian Santa Krutz Txiki ere ospatzen zuten maiatza hasieran. Mendekosteak beranduago hasi ziren.

1.415. Koplak abesten baserriz baserri (LEZ-083/051)

Eguberri bezperan baserriz baserri ibiltzen ziren anaiak koplak abesten. Iluntzerako etxera itzultzen ziren. Borondatea eskatzen zen abestearen truke, orokorrean, dirua.

1.416. Soldata amari ematen zion (LEZ-083/052)

Bai aitak eta bai Jose Krutxek irabazitako soldata amari ematen zioten astero-astero, etxeko ekonomia amak kudeatzen baitzuen.

1.417. Musuak ezkutuan (LEZ-083/054)

Neska-lagunarekin musuak ezkutuan ematen zituen. Orokorrean ostegunetan ikusten zuten elkar.

1.418. Santo Criston ezkondu (LEZ-083/055)

Lezon ezkondu zen Jose Krutx bere emaztearekin. Ezkontza egunean bertan hartu zuen lehen aldiz Jauna bere anaiak. Gurasoek ere urrezko ezteiak ospatu zituzten egun berean. Bazkaria Errenteriako Panierren egin zuten, jaki gozoekin: entremesak, arraina eta haragia.

1.419. Lagunartean euskaraz (LEZ-083/056)

Lagunartean betidanik euskaraz egin dute, baita gaur egun ere. Lantegian ere arazorik gabe egiten zuen euskaraz, nagusiekin izan ezik, hauekin erdaraz.

1.420. Soldadutzara bolondres (LEZ-083/058)

Donostian egin zuen soldadutza. Afrikara ez zuen joan nahi, eta mariñel ere ez zuen joan nahi. Horregatik bolondres joan zen Loiolara. Lehen hiru hilabetetan instrukzioa jaso ondoren, postari lana hartu zuen.

1.421. "Lezoko jendea Pasaiaiko portura txaketarekin" (LEZ-083/060)

Osaba batek tabakoa zuen errazionatuta. Estankora bertan joaten zen honen bila. Zerrategira enborrak Guineatik ekartzen ziren, eta portura joan behar izaten zuten enborrak bereiztera. Horretan ari zela, kontrabandoa ikusi zuen Pasaiaiko portuan. Esaera bat bazen, Lezoko jendea, udaran ere, portura txaketa jantzita joaten zela zioena, kontrabandoan erositakoa jasotzeko. Anekdotak bat ere kontatzen du Jose Krutzek pasarte honetan, behin kontrabandoan itsasontzi bateko iparrorratza saldu omen zuten, eta portutik ezin atera ibili zen ontzia.

1.422. Aceros Corrugados (LEZ-083/063)

Zumarraga eta Goierritik Aceros Corrugados enpresan lan egitera jende asko etorri zen, batez ere Lezoko Ijurko auzora.

1.423. San Juandarrekin "pikea" (LEZ-083/065)

Inguruko herrikoekin harreman ona bazuten ere, kirolaren arloan "pikea" zuten San Juandarrekin. Allerru zen Lezoko eskubaloitaldearen izena, eta Donibane San Juangoena. Estropadetan ere "pikea" bazuten, pasaitarrek harro fama baitzuten.

1.424. Pasaia eta Erreterria baino euskaldunagoa (LEZ-083/067)

Lezon Pasaian eta Erreterrian baino euskara gehiago hitz egiten zela gogoratzen du Jose Krutzek, eta Oiartzunen pareko.

1.425. Elias Salaberria margolaria I (LEZ-084/002)

Osaba zuen Elias Salaberria margolaria Irenek. Madrilen bizi bazen ere, Uruguayra joan zen koadroak saltzera ere joan zen. Madrilgo San Francisco elizan margotzen ari zela hil egin zen, baina bere gisara ibiltzen zenez, ez zuten bi egun beranduago arte aurkitu.

1.426. Elias Salaberria margolaria II (LEZ-084/004)

Serioa bazen ere, Irene eta bere anai-arrebei gozokiak ekartzen zizkien Madriletik, baita zirkora eramane ere.

1.427. "El Circo Americano" (LEZ-084/005)

Osaba margolariak eramaten zuen Irene Donostiako zirkura, "El Circo Americano" ikustera. Gogoratzen du nola gurasoak eta ahizpa txikienak Urgullera joaten ziren, arratsalde pasa.

1.428. Paper-fabrikako ekonomatuan lanean (LEZ-084/007)

Erreterriako ekonomatuan egiten zuen lan Irenek, goiz eta arratsalde. Behartu egin zuten enpresa ekonomatua izatera, langile asko baitzuten. Denetatik saltzen zuten bertan. Ezkondu eta berehala lan hau utzi zuen, etxeko lanari denbora gehiago eskaintzeko.

1.429. Galerías Oarso (LEZ-084/009)

Arropa egiteko oihalak Erreterriako Galerías Oarso dendan erosten zuten. Ireneren anaiaren andrea jostuna zenez, arropa egiten zien.

1.430. Jolastu aurretik, etxerako lanak (LEZ-084/011)

Eskolatik bidaltzen zizkieten etxerako lanak bukatu arte, amak ez zien kalera jolastera ateratzen uzten. Hala ere, ahal zuen guztietan saiatzen zen Irene kalera irteten, ekarguak egitera etab.

1.431. Anai-arraben lanbideak (LEZ-084/013)

Anaia zaharrena zapataria zen, enkarguz. Beranduago paper-fabrikara joan zen lanera. Bigarren anaia zaharrenak kontadoreetako bulegoetan. Ahizpa zarrena botikan aritu zen, laguntzaile moduan ezkondu bitartean, eta ezkondu ondoren hurrengo ahizpari utzi zion. Ahizpa jostuna ere izan zen.

1.432. Hotzaren aurrean adreilua eta ur-poltsa (LEZ-084/014)

Salaberriatarren etxeko sukalde ingurua hotza zela eta, adreilua eta ur-poltsa beroa sartzen zituzten ohean, berotzeko. Ama adreiluarekin maindireak apurtzeko beldurrez izaten zen.

1.433. Binaka egiten zuten lo (LEZ-084/015)

Binaka egiten zuten lo etxean, anai-arrebak, izeba, eta gurasoak. Orokorrean, Irenek eta bere ahizpa Esterrek ez zuten elkarrekin lo egiten. Anaia gazteenak

12 urterekin eskola utzi eta Martixkonera joan zen laguntzera, eta han gelditu zen bizitzen.

1.434. Martixkone baserria (LEZ-084/016)

Behean ukuilua egoten zen, eta goian sukaldea eta etxebizitza. Askotan joaten ziren bertara, tripa betetzera eta jolastera. Behin, Martixkone baserrian zegoen urez beteriko upelera erori zen Irene gorde-gordera jolasten ari zirela.

1.435. Kaleko jolasak eta Lezoko bikarioa (LEZ-084/017)

Txingoketan, marru-marrura, kaniketan... Beti ere, neskak bakarrik jolasten zuten, ez ziren mutilekin nahasten.

1.436. Don Eusebio (LEZ-084/018)

Lezoko bikarioa zen Don Eusebio, frankista. Bi anai ziren hauek, eta Lezon bertan bizi ziren. Oso kontrolatzailea zen hau, baina ongi antolatzen zuen dena. Dotrina ematen zien umeei arratsaldetan.

1.437. Elizako bihurrikeriak (LEZ-084/019)

Igande arratsaldetan bezperak abesten zituzten latinez, eta hilean behin kanpotik fraide bat etortzen zen sermoia ematera. Umeak zirela, Irene eta beste zenbait lagun goiko elizan zegoen gortinaren atzean ezkututzen ziren, abesten ari zirenak zelatatzeko.

1.438. Meza eta dotrina euskaraz (LEZ-084/020)

Izebaren aginduz, meza eta dotrina euskaraz jasotzen zituen Irenek.

1.439. Neskazarrak eta mojak (LEZ-084/021)

Neskazarra izatea gaizki ikusita zegoen. Sarri joaten ziren mojak etxera eskean, eta ama hamaika aldiz saiatu zen bere alabaren bat moja atera zedin. Horretarako, mojak eskean zetozen bakoitzean alabei dei egiten zien.

1.440. Eskale ezagunak (LEZ-084/022)

Jende ezaguna ibiltzen zen eskale moduan, baina beti berdinak izan ohi ziren, Lezo eta Erretereriakoak. Irenek etxeko ateak beti irekita izaten zuten, eta egun batean, ijito bat topatu zuten bodegan bertan lapurtzen.

1.441. Ogi zuria kontrabandoan (LEZ-084/024)

Ogi zuria kontrabanduan ekartzen zuten Iparraldetik.

1.442. Orduko jatekoa (LEZ-084/025)

Astean zehar aza, azalorea, porrua, arroza, babarrun gorria eta lentejak jaten zituzten. Gogoan du Irenek amak babarrun gorriari arroza botatzen ziola.

1.443. Arrain-saltzaileak (LEZ-084/026)

Lezoko alondigara joaten ziren saltzera Pasai Donibanetik zetozen arrain-saltzaileak.

1.444. Eskola publikora (LEZ-084/028)

Eskola publikora joaten ziren Lezoko haurrak. Bertan 14 urteak arte egoten ziren. Irenek 14 urterekin eskola bukatu eta ekonomatura jan zen lanera, baita koinata jostunari enkarguak egiten aritu ere.

1.445. Eskolan ikasi zuen erdaraz (LEZ-084/029)

Maistra Tolosarra zuen, eta euskaraz egiten zien. Oroitzen du erdarakadak esaten hasi zela gaztelania ikasten hasi zenean.

1.446. Ekonomatuan elebitan (LEZ-084/030)

Jende oiartzuar asko ibiltzen zen paper-fabrikako ekonomatuan, baina jende erdalduna ere bai. Askotan gurasoek seme-alabak bidaltzen zituzten ekonomatura, eta gaizki-ulertuak ere izaten ziren.

1.447. Senarra dantzan ezagutu zuen (LEZ-084/031)

Senarra igandetako dantzaldian ezagutu bazuen ere, ez zuen berekin askotan dantzatu. Senarraren lagun batek, senarra soldadutzan Afrikara zihoala eta, idazteko eskatu zien Irene eta bere lagunei. Hasiera batean, lau bat lagunek idazten zieten denak batera elkartuta, baina azkenean Irenek bakarrik idazten jarraitu zuen.

1.448. Euskarazko liburuak ganbaran (LEZ-084/034)

"Estado de Excepciøn" izendatu zutenean, Ireneren aitak etxean zituzten euskarazko liburuak ganbarara eraman zituen. Behin, soldaduak zebiltzala, Irenek ganbarara igo zitezen esan zien, eta koadro batzuk atera zituzten.

1.449. Mendizaletasuna (LEZ-084/036)

Senarra soldadutzatik itzuli zenean, lagunartean mendira joaten hasi ziren.

1.450. Hamaika anai-arreba (LEZ-085/002)

Arantxa jaio baino lehen, beste hiru anai-arreba jaio ziren, baina jaio eta gutxira hil egin ziren. Beraz, zaharrena izan da Arantxa beti.

1.451. Bi ohetan bost ahizpek lo (LEZ-085/004)

Zortzi senide izanda, bi ohe elkartzen zituzten eta bi hauen artean egur ohol bat jartzen zuten. Horrela, bost ahizpek hor egiten zuten lo.

1.452. Aitaren soldataren bila (LEZ-085/006)

Hamaika bat urterekin joaten zen Arantxa Donostiara, aitaren soldata kobratzera. Tranbian joaten zen bertara, denden kartelak irakurritz. Sobre batean jasotzen zuen soldata, eta sobrea lapurtzeko beldur, eskua poltsikoan sartuta egiten zuen buelta Lezora.

1.453. Eskola publikoan 10 urteak arte (LEZ-085/007)

Hamar urte bete zituen arte joan zen Arantxa eskola publikoetara. Liburu bakarra erabiltzen zuten eskolan. Hamalau urterekin lanean hasi zen. 14-15 urterekin hasi zen Arantxa Errenteriako maindire fabrikan.

1.454. Atzekoaten jolasten (LEZ-085/008)

Dendaketan, sukaldetara eta egurrezko jostailuekin aritzen ziren jolasten. Txingoketan ibiltzen ziren kalean, autorik ez baitzen ia pasatzen.

1.455. Kaiokak (LEZ-085/009)

Kaiokak "tabak" ere erabiltzen zituzten jolasteko, kolorez margotuta.

1.456. Neskak eta mutilak bananduta (LEZ-085/011)

Eskolan, eta jolastean, mutilak eta neskak bananduta egoten ziren.

1.457. "Solo hombres" "Solo mujeres" (LEZ-085/014)

Emakumeak eta gizonak ez ziren elkarrekin esertzen elizan, gizonak alde batean eta emakumeak bestean.

1.458. Ume-zaintzaile lanetan (LEZ-085/015)

Eskola utzi eta 10 bat urterekin ume bat zaintzen hasi zen Arantxa. Besotako umea zen hau, plazatik gertu zegoen janari-denda bateko jabeena.

1.459. Umeak zaintzea orain eta lehen (LEZ-085/017)

Garai batean eta gaur egun haurrak zaintzearen ezberdintasunak aipatzen ditu Arantxak pasarte honetan.

1.460. Hilerokoa: tabua (LEZ-085/019)

Hilerokoa tabu bat zen gizartean, eta honen inguruan galdetzeko beldur handia izaten zutela aipatzen du Arantxak.

1.461. Pardelen ordeztelak (LEZ-085/021)

Telaz biltzen zituzten umeak, pardelen moduan. Gainean plastikoa jartzen zieten.

1.462. Arropa garbitzea: etxean (LEZ-085/022)

Galdara handi batzuetan garbitzen zuen Arantxaren amak arropa, ez baitzitzaion garbitegira joatea gustatzen.

1.463. Etxean ekonomika (LEZ-085/023)

Bai ezkondu aurretik eta bai ezkondu ondoren, ekonomika erabiltzen zuten sukaldean. Osabak ematen zien portutik ekonomikarako ikatza, baina jendea egur bila ere joaten zen.

1.464. Kamamila biltzera (LEZ-085/025)

Jaizkibelera joaten ziren kamamila biltzera, bertan mordoa baitzegoen. Ondoren zabal-zabal lehortzen jartzen zuten.

1.465. Egunero babarrun gorria (LEZ-085/027)

Aita Zeraingoa zen, eta bere baseritik jasotzen zuen babarruna eta arraina, aste osorako. Igandetan garbantzuak eta haragi egosia tomatearekin jan ohi zuten.

1.466. 14 urterekin lanean (LEZ-085/028)

Bi errelebotan egiten zuten lan fabrian, arratsaldean eta goizez. Maindireak egiten zituzten bertan, telaretan hariak jartzeko prestatzen. Ezkondu arte aritzen zen Arantxa lanean. Batez ere emakumeak izan ohi ziren fabrikako langileak.

1.467. Maindire fabrika (LEZ-085/030)

Erreterian zegoen maindire fabrian egiten zuen Arantxak lan. Telazko maindireak egiten zituztenez, telaretarako hariak prestatzen ibiltzen zen bera. Esku-trapuak ere egiten zituzten maindire zuriekin batera.

1.468. Ohikoa zen 14 urterekin lanean hastea (LEZ-085/032)

Arantxaren inguruan oso ohikoa zen 14 urterekin eskola amaitu eta lanean hastea. Momentu bat egon zen non fabrian jende gehiegi zegoen lanean, eta Arantxa kaleratua izan zen. Hala ere, "Pekin" torloju fabrian ibili zen denboraldi batean, baina berriro itzuli zen fabrika handira.

1.469. Lezoko lantegiak (LEZ-085/033)

Txapa eta zerrategi lantegiak zeuden garai batean lezon, portuan. Beranduago Orbegojo fabrika ireki zuten.

1.470. Senarra soldadutzan, Arantxa etxean (LEZ-085/034)

Oso emakume gutxi jarraitzen zuten lanean eskondu eta gero. Arantxak senarra txikitatik ezagutzen zuen, auzokoak baitziren. 23 urterekin ezkondu ziren biak.

1.471. Ostegunetan eta igandetan, nobiotan (LEZ-085/035)

Nobiotan ez zen egunero ibiltzen, ostegun eta igandetan baizik, igandea baitzen asteko egun libre bakarra. Plan moduan, orokorrean, Erreteriarako Alamedara joaten ziren motoz. Dantzalditik berandu iristeagatik zigortu egiten zuen amak, hurrengo igandean dantzaldira joan gabe.

1.472. Turingo pasodoblearen zain (LEZ-085/036)

Dantzaldietan Erreteriarako Turin taldeak irabazten zuenean azken abestia izaten zen Turingo pasodoblea. Askotan, ordea, ezin izaten zen gelditu, amaren aginduz etxera lehenago itzuli behar zuelako. Luistarren egoitzan zine txiki bat jartzen zuten, eta bertara joaten ziren Erreteriarakoak eta Lezokoak.

1.473. Musu emanagatik "zinta morea" (LEZ-085/037)

Nobiotan musu ematea gaizki ikusita zegoenez, inork musuka ikusiz gero katekistak zigortu egiten zuen jendea zinta morea batekin, eta mezan lehenengo ilaran jartzen zituen, egindakoa denek jakiteko.

1.474. Igandero meza nagusira (LEZ-085/038)

Igandero-igandero joaten zen familia osoa meza nagusia entzutera, eta ondoren dotrina.

1.475. Sutea jaunartzean (LEZ-085/039)

Bi jaunartze ziren Arantxa txikia zenean. Gezalatarren egin zioten soineko txuria, baina istripuz, Arantxaren atzean zegoenak su eman zion kandelaz soinekoari.

1.476. Arantxaren umetako lanak (LEZ-085/040)

Txiki-txikitatik lanean aritu zen Arantxa. Lehenik, ume txiki bat zaintzen ibili zen Zubitxon, gero anai-arrebak zaintzen, etxekolanak egiten laguntzen, eta fabrika.

1.477. Tabernak, sagardotegiak eta dendak (LEZ-085/041)

Lezon ezagunak ziren sagardotegiak eta tabernak aipatzen ditu Arantxak pasarte honetan. Gainera, "ultramarinos" denda ere gogoratzen du.

1.478. Gerraostean goserik ez (LEZ-085/042)

Neurtuta zuten janaria kartilla baten bitartez gerraostean. Gogoan du Arantxak goiko bizilaguna estraperloan joaten zela kafe bila, ondoren bizilagunei saltzeko. Goia familiak ez zuen goserik pasa gerraostean, aitzak Goierriko senideen baserritik janaria eramaten baitzuen.

1.479. "Orduan dena konpontzen zen" (LEZ-085/043)

Zubitxo kalean zapatak egin eta konpontzen zituen gizon bat zegoen. Heltzeak ere konpondu egiten zituzten zuloa ateratzen zitzaizenean.

1.480. Etxe ondoan baratzea (LEZ-085/044)

Etxe ondoan bertan zuten baratzea, garaiaren arabera jakiekin. Arraina, ordea, San Juanetik eramaten zuten Lezora.

1.481. San Pedron erosten zuten arraina (LEZ-085/045)

Senarrak zabaldu zuen arraindegirako San Pedron erosten zuten arraina. Donostian ere erosten zuten geroago. Orokorrean hitzez izaten zen, eta prezioa egokia zenean eskua altxatuz egiten zen.

1.482. Sukaldea angulaz beteta (LEZ-085/047)

Legatza, perloia, zapoa... saltzen ziren batez ere. Arraina saltzeko ordutegia ere asko aldatu dela dio Arantxak, izan ere, goizeko zazpiketatik hamabietara egiten zuten lan, beranduago ez zen inor arraindegira hurbiltzen.

1.483. Britainiara lanperna bila (LEZ-085/048)

Aste guztirako joaten zen Arantxaren senarra Britainiara lanperna bila, ondoren Donostiako tabernei saltzeko.

1.484. Arraindegiko lana, oso lotua (LEZ-085/049)

Arraindegiko lana oso lotua da Arantxarentzat, egozein larrialdiren aurrean ezin mugituagatik. Ondoren, babes neurriak jartzen hasi zirenean Arantxa Hondarrabira joan zen lanera.

1.485. Enborrak uretan (LEZ-085/051)

Lezon zerrategia zegoen portuan, eta uretan enborrak egon ohi ziren. Bertan ibiltzen ziren herriko mutil gazteak enborrez enbor saltoka, jolasean.

1.486. Eskolan erderaz (LEZ-086/001)

Etxean dena euskaraz egiten zuten, eta eskolan dena gaztelaniaz. Arantxa umea zenean, giroa orokorrean euskalduna zen, baina bazen euskara transmititu nahi ez zuen jendea.

1.487. Seme-alabak ikastolara (LEZ-086/003)

Manuela izeneko andereinoa oroitzen du Arantxak.

1.488. Betidanik arraunerako zaletasuna (LEZ-086/004)

Umetatik bizi izan du Arantxak arraunerako zaletasuna, zehazki Pasai Donibaneren aldekoak ziren etxean. Senarrak, ordea, Lezon egiten zuen arraun.

1.489. Lezon pilotari ezagunak (LEZ-086/005)

Pare bat pilotari ezagun zeuden Lezon. Bestetik, Gezalatar emakume bat ere erraketista famatua zen.

1.490. Bandoa danbor jole batekin (LEZ-086/007)

Gizon bat izaten zen Lezon bandoaz arduratzen zena, danborra lagun, Lezoko kaleetan barrena ibiltzen zen azken berriak zabaltzen.

1.491. Urtebete telefonoaren zain (LEZ-086/009)

Herriko plazan zegoen lokutorioa, eta hau zen herriko telefono bakarra. Arantxak ere telefonoa izan zuen arraindegian, baina hau lortzeko urtebete pasa zuten zain.

1.492. Hilotza etxean (LEZ-086/010)

Norbait hiltzen zenean, gorputza etxean mantzentzen zen meza ospatu arte. Askotan, mezan zegoen apaiz kopuruak hildakoaren familiak zenbat diru duen jakiteko balio zuen.

1.493. Don Pedro eta Don Roman medikuak (LEZ-086/011)

Bi mediku gogoratzen ditu Arantxak, Don Pedro eta Don Roman. Gainera, Arantxaren amari lagundu zion Don Romanek bere lehen erditzean. Arantxaren seme-alabak etxean jaio ziren guztiak bixkiak izan ezik, bietako bat alderantziz baitzegoen.

1.494. Gaztetako bizimodua, lan eta lan (LEZ-086/012)

Arantxak garai bateko eta gaur egungo bizimodua alderatzen ditu.

1.495. Eskolako laboreak (LEZ-086/013)

Emakumeek josten jakitea oso garrantzitsua zen, eta arratsaldez laboreak izaten zituzten emakumeek, gisako gauzak egiten ikasteko.

1.496. Dena toki berean saltzen zen (LEZ-086/015)

Garai bateko bezero eta erosle harermana ez zen gaur egungoaren modukoa. Dendetan ere denetik saltzen zen, eta eskatutakoa egongo ez balitz, presarik gabe itxoin egiten zen.

1.497. Esne-saltzailea etxez etxe (LEZ-086/016)

Mikura baserrikoei erosten zieten esnea. Hauek etxez etxe jaoten ziren esnea saltzen.

1.498. Igandetan kartetan ibiltzeko ohitura (LEZ-086/017)

Igande arratsaldero jendea biltzen zen haien etxean musean jolasteko.

1.499. Katuak eta txakurrak meriendan (LEZ-086/018)

Izebak merienda moduan kazola prestatzen zien, eta askotan katua izaten zen kazola barrukoa.

1.500. Festetan soinekoa estreinatzeraz (LEZ-086/020)

Herriko jaiak, aste santua... data garrantzitsuak izaten ziren, eta orokorrean arropa estreinatzeko egoera egokia izaten zen hau.

1.501. Etxean dutxarik ez (LEZ-086/021)

Igandetan garbitzen ziren, sukaldean. Ondoren, komunean konketa jarri zuten, intimitate gehiago izan zezaten.

1.502. Ilea "a lo garçon" (LEZ-086/022)

Bi txirikorda luze eramane ohi zituen Arantxak, egun batean modan zegoen "a lo garçon" moztu zuen arte. Makillajea lehen aldiz familiako tabernan jarri zuen, bertan zegoen emakume batek oparituta. Igandetan dotore jartzen zen Arantxa, baina beti arropa bera erabiltzen zuen, igandetarako gordea zuena.

1.503. Lezon denda txikiak nagusi (LEZ-087/003)

Aitak Donostiako paper biltegi batean egiten zuen lan. Hortaz, ama izaten zen etxeko lanak egiten zituena. Margarik gogoratzen du amak enkargutan bidaltzen zuela, eta Lezoko denda txikietan egiten zuen erosketa.

1.504. Garai bateko Lezo (LEZ-087/005)

Denda txikiak zeuden herrian, Kale nagusian 3. Margari txikia zenean, emakumeak etortzen ziren arraina saltzera.

1.505. Larunbat eguerditan txipiroiak bazkaltzeko (LEZ-087/007)

Babarrun gorria jaten zutelako oroitzapena du Margarik. Gehienbat hori jaten zuten, baita arraina ere. Larunbat eguerditan txipiroiak jaten zituzten, eta igandetan haragi pixka bat.

1.506. Kaian ibiltzen ziren jolasten (LEZ-087/009)

Umetan kaian egoten ziren jolasten, bertan zerrategia zegoen, eta egurrak eta enborrak egon ohi ziren. Kromoekin, kanikekin, txingoan... pasatzen zuten denbora.

1.507. Erdaraz hitz egiteak 'kategoria' eman (LEZ-087/010)

Gaztetan, lagunartean, euskaraz eta erdaraz aritzen ziren jolasean. Margarik gogoratzen du euskaraz egitean atentzioa ematen zietela, erdaraz egin zezaten. Beste batzuetan, ordea, erdaraz ez egiteko eta euskaraz egin zezaten esaten zieten. Erdaraz hitz egiteak 'kategoria' ematen omen zuen.

1.508. Eskola, laboreak eta dotrina (LEZ-087/011)

Markesanen kokatzen zen herri eskolara joan zen Margari. Hamahiru urte arte egon zen eskolan. Eskola goiz eta arratsalde izan ohi zen, baina arratsaldetan laboreak egiten zituzten. Igande arratsaldetan, ordea, dotrina ikastera joaten ziren.

1.509. Goizean goiz mezara (LEZ-087/012)

Elizara joan-etorri mordoa egiten zuten, bai umetan eta bai gaztetan. Behin heldua izanik, lagunekin joaten zen Margari elizara. Goizean goiz izaten zen meza asteburuetan. Apaiza Andoaingoa zuten.

1.510. Don Ignacio apaizaren etxera ezkondu (LEZ-087/013)

Andoaingoa zen Lezoko apaiza. Ondo-ondoan bizi zen, eta askotan joaten zen Margari ahizpekin etxekolanak egitera. Eguberriak Goia familiarekin pasatzen zituen hark. Margari ezkondu zenean haren etxera ezkondu zen, Kaigain etxera.

1.511. Igandero Guadalupera (LEZ-087/014)

Guadalupera joaten ziren koadrilan igandero.

1.512. Igande arratsaldean dantzara (LEZ-087/016)

Dantzatzera joan ohi ziren igande arratsaldetan Erreteriarra. Dantza lotua egiten zuten han. Mutilak joaten ziren neskak dantzara ateratzera. Bederatzietan bueltatzen ziren Lezora berandu jota, bestela, hurrengo igandean zigortuta etxean geratu behar izaten zuten.

1.513. Aitak jostailuak egin (LEZ-087/018)

Aita oso iaioa zen eskulanetan, eta jostailuak egiten zituen. Ondorioz, jostailu asko edukitzen zituzten.

1.514. Urtean behin koltxoia egitera (LEZ-087/019)

Gela batean lauk egiten zuten lo, eta beste batean bik. Lauko gelan zaharrenek egiten zuten lo, eta 'ohorea' izaten zen han lo egitea, 'handia' izatearen seinale baitzen.

1.515. Umetan beti gona (LEZ-087/021)

Umetan beti soinekoak eta gona janzten zituzten. Beranduago, ordea, galtzak erabiltzen hasi zen jendea.

1.516. Lezoko tabernak (LEZ-087/022)

Hasiera batean tabernetan gizonak bakarrik egoten ziren. Margari sartzen hasi zenerako, emakumeak tabernetan egotea normalizaturik zegoen. Sagardo garaian, Bordatxora joaten ziren sagardoa edatera. Etxean ere kupelak izaten zituzten.

1.517. Lezoko jaietan postuak plazan (LEZ-087/024)

Lezoko jaietan postuak jartzen zituzten Gurutze plazan. Txanpon batzuk bildu eta hara joaten ziren panpintxoak erostera. Mendekosteak, Santa Krutz txiki eta Santa Krutzak ospatzen ziren orduan.

1.518. Senarra Lizarrakoa (LEZ-087/027)

Adin batetik aurrera gehiago ateratzen hasi ziren kuadrilan. Lizarrako jaietara joan zen Margari eta bertan ezagutu zuen senarra.

1.519. Senarra laborategiko langilea (LEZ-087/028)

Laborategian egiten zuen lan, eta Lezon bizitzen hasi zenean, Hernanin eta Erreterian egin izan zuen lan.

1.520. Margariren ezkontza (LEZ-087/030)

Ezkondutakoan, gurasoen etxera joan zen bizitzera senarrarekin, ama zendu baitzen, aitarekin egotera. Lezon bertan ezkondu ziren, eta Ulian bazkaldu.

1.521. Ezkondu aurretik manta fabrikan lanean (LEZ-087/032)

Denda batean eta manta fabrikan egin zuen lan Margarik ezkondu aurretik. Mantak errepasatu egiten zituzten, eta korapiloak kendu. Emakumeak ziren batez ere langileak, eta gizonak lanpostu altuagoak zituzten.

1.522. Dendari lanetan (LEZ-087/033)

Drogeria eta jantzi denda zen aldi berean. Margari drogerian egoten zen lanean, garbitzeko produktuak saltzen. Han bertan depilatu zen Margari lehen aldiz.

1.523. Apaizaren etxeko dutxa (LEZ-087/035)

Apaizaren etxera joaten ziren dutxatzera, gurasoen etxean ez baitzen halakorik. Larunbatetan arraskan ere garbitu ohi ziren.

1.524. Amak arropa eskuz garbitu (LEZ-087/036)

Arropa eskuz garbitzen zuten, amak egiten zuela oroitzen du Margarik, Txinbo jaboiaz.

1.525. Alpargatak dotore janzteko (LEZ-087/038)

Bizilagunak alpargatak egiten zituen, eta hark egindako alpargatak erabiltzen zituzten Margarik eta anai-arrebek.

1.526. Erreterian fabrika asko (LEZ-087/039)

Erreteriako manta fabrikako telareak. Ahizpak maindire fabrikan aritu ziren lanean. Oso ohikoa zen Lezotik jendea Erreteriarra joatea lanera, fabrika mordoa baitzen bertan.

1.527. Gabon kantak eta opariak (LEZ-087/041)

"Hator hator" gabon kanta gogoratzen du. Amonaren etxean opariak izaten zituzten erregetan.

1.528. Umeak etxean izatetik, ospitalean izatera (LEZ-087/043)

Lau seme-alaba izan zituzten senarrak eta Margarik. Irungo ginekologora joaten zen, eta han bertan izan zituen umeak Margarik.

1.529. Soldaduei txistuka (LEZ-087/045)

Soldaduak Jaizkibel aldeera joan ohi ziren, hala zenean, jendea kalera atera eta txistuka aritzen ziren.

1.530. Erreterian josten ikasi (LEZ-087/047)

Lanean hasi baino lehen, Erreteriarra joaten zen josten ikastera. Jostun baten etxean ikasten zuen, beste neska batzuekin batera. Margarik umeak izan eta gero denda baterako josi zuen.

1.531. Ezkonbidaia Galizian (LEZ-087/049)

Galiziara joan ziren Margari eta senarra, ezkonbidaian. Hamar bat egun pasa zituzten han.

1.532. Mendira joateko 'falda pantalon' (LEZ-087/051)

Mendira mendiko botekin eta 'falda pantalon' erabiltzen zuten. Gezalatarrak bizilagunak zituzten eta haietako bat zuten jostun.

1.533. "Etxe guztiak denentzako ziren" (LEZ-087/053)

Herria handitu egin da, eta gizartearen ohiturak ere aldatu egin dira. Garai batean denak ezagunak ziren herrian, eta etxeetako ate guztiak irekita egoten ziren.

1.534. Lurra argizariz igurtzi (LEZ-087/055)

Makil baten puntan argizaria jarri eta lurrean igurzten zen. Ondoren brilloa ateratzen zen, zapi eta hankaz.

1.535. Atzekoaten animaliak (LEZ-087/057)

Animalirik ez zen egoten Kale Nagusina, baina bai Atzekoaten. Txakurrik ere ez du gogoratzen Margarik, katuak, ordea, bai.

1.536. Fernantxoren aurkezpena (LEZ-088/002)

Aurkezpena: Fernantxo deitu izan diote beti, osaba Fernando zelako. Kale Nagusiko "atzeko ate"-n jaioa. Umetan kaira joaten ziren; "puntala" deitzen zioten. Santa Egunean jaioa.

1.537. Amaren parteko familiaren kontuak (LEZ-088/004)

Aita Lezokoa zuen eta ama Altzakoa. Aman partetik aitona Zubietakoa zen, Aizpurua baserrikoa. Donostia erre zutenean hantxe bildu ziren, Donostia berreraikitzeke. Aitona medikua zen, eta Altzara joan zen bizitzera.

1.538. Agustina Lizarazu amonari buruz I (LEZ-088/005)

Ez zuen aitona medikua ezagutu, amona bat bai: aitaren ama. Kale bat dauka Lezon: Agustina Lizarazu. Gazte alargundu zen; ume txikiekin geratu zen. Amona zergatik zen ezaguna: andereñoa izan zen Lezon; ume txikiei euskaraz erakusten zien, doan.

1.539. Agustina Lizarazu amonari buruz II (LEZ-088/006)

Candida Salaberria izaten zuen Agustina amonak laguntzen. Titulurik gabea baina bizia zen Agustina. Haren ama Urnietakoa zen, eta Lezora ezkondu zen. Anaia maisua zuen.

1.540. Aita arotza zen (LEZ-088/007)

Aita Anastasio arotza zen; etxe azpian zeukan tailerra. Gerar sasoian kartzelan egon zene, Puerto Santa Marian; bueltan, etxea berritu zuen. Etxegintzan ere aritu zen, osabarekin. Aitona ere arotza zen, eta txistularia. San Pedrora joaten zen ikastera. Arrantzan ere ibili zen.

1.541. Aitaren kartzelaldiko kontuak (LEZ-088/008)

Aita nazionalista zen, eta Sarara joan zen ihesi. Ondoren Cadizen egon zen kartzelan, eta han kaiola bat egin zuen beste preso batekin. Ezkondu aurretik izan zen hori. Patxi anaia aipatzen du, musika irakaslea.

1.542. Aitona Leandro medikua (LEZ-088/010)

Leandro Aizpurua zuen aitona, Altzako medikua. Zaldiz ibiltzen zen. Argazki batean bizarrarekin azaltzen da. Amari ez zitzaion bizarra gustatzen, baina Fernantxok ere beti izan du. Amarekin oso ondo konpontzen zen Fernantxo; jale ona zen, eta Xofiaren dendatik platano bikoitza ekartzen zion amak. Amak hika egiteko esaten zion.

1.543. Euskararen egoera garai batean (LEZ-088/011)

Hika hitz egiteko ohitura dute. Bere gazte garaitik hona euskara asko aldatu dela dio. Eskolan gaztelaniaz ikasi zuten. Banderak igo eta "Cara al sol" kantatu behar izaten zuten, egunero. Flechas y pelayos. Kale Nagusian guardia zibil ezkongabeak bizi ziren (eta koartelean ezkonduak), eta kalean topo egiten zutenean ezin zuten euskaraz egin. Soldaduskan ere ezin, noski. Azpeitiko batzuekin elkartu zen han, eta isilka bertsotan ere aritzen ziren (Anjel Larrañaga musikaria).

1.544. Soldaduska garaiko kontuak I (LEZ-088/012)

Soldaduskan zegoela, gurasoen zilarrezko ezteietara joateko baimena eskatu zueneko kontatzen du. Txiki eta Otaegi hil zituzten garaia zen. Txofer ibili zen, eta Iruñera bidali zuten. Handik joan zen Donostiara. Teniente galiziar bati deitu zion, baimena luzatzeko eskatzeko, eta baimena eman zion. Beste teniente batek, ordea, errieta egin zion gero.

1.545. Soldaduska garaiko kontuak II (LEZ-088/013)

Soldaduskako beste anekdota bat kontatzen du. Txofer moduan zebilen eta sukaldariarentzat enkarguak egiten zituen. Lezoko teniente koronel bat ezagutu zuen Iruñean. Soldaduek ikara ziotela dio, baina bera begi onez hartu zuela, lezoarra izaki. Bazkaltzera ere gonbidatu zuen, baina ez zen joan.

1.546. Kaian igerian eta anguletan (LEZ-088/015)

"Puntala" deitzen zioten kaiko bainu-lekuari. Zerrategi bat eta pirata lantegia zeuden bertan. Pirata oso toxikoa zen. Zerrategiko moilan ikasten zuten igerian. Anguletan ere ibiltzen ziren kaian; zerrategiko guarda lagun baten aita zen, eta hark lekua hartzen zien anguletarako. Argi gutxi komeni da angulak harrapatzeko, eta hark farola itzaltzen zuen. Kandeladun farolarekin eta karburozkoarekin ibiltzen ziren. Karburoa nondik lortzen zuten eta farola haiek nolakoak ziren azaltzen du.

1.547. Anguletan nola egiten zuten (LEZ-088/016)

Anguletan nola egiten zuten azaltzen du. Abesti bat kantatzen du: "Entre angulitas". Zikinkeria asko izaten zen uretan. Anguletarako beharrezko tresnak.

1.548. Aitak 20 kilo angula harrapatu, ezkontza egunean (LEZ-088/017)

Aitak kontatutako gertaera bat kontatzen du. Ezkondu zen egunean, iluntzean, lehengusu batek esan zion "angula jotzen" ari zela; hogei kilo baino gehiago harrapatu ei zituzten. Oso merke zeuden orduan; txerriei ere ematen zieten batzuek. Etxerako hartzen zuten beraiek, ez saltzeko.

1.549. Txitxare bila eta txirletan (LEZ-088/018)

Kaian angulez aparte karramarroak ere bazeuden. Enborrak bukatzen ziren tokian arrantzarako txitxare bila ibiltzen zen jendea; txirlak eta leituak ere izaten ziren. Papelera jarri zutenean hondatu zen hori.

1.550. Zerrategiko enborren azalaren bila (LEZ-088/019)

Zerrategiko enborren azal bila joaten zen jendea, etxerako su egurra izateko. Jaizkibelera ere joaten ziren "txotxa bila", aizkora txiki batekin. Saldu ere egiten zuten batzuek, diru pixka bat ateratzeko. Horretan aritzen zen emakume bat aipatzen du.

1.551. Egurra eta ikatza, sutarako (LEZ-088/020)

Beraiek ez zuten egur faltarik, aita arotza izanda. Ikatza erosi egiten zuten. Egurrak gehiago irauteko harri ikatza erabiltzen zuten. Ikatz saltzailea non zegoen aipatzen du; etxeak zuritzeko karea, lastoa... ere saltzen zituen. Papelerako langileei hilean ikatz zaku bat ematen zieten.

1.552. Kalez kale izotza saltzen (LEZ-088/021)

Ikatza ez du gogoan, baina izotza bai, kalez kale saltzen zutela dio. Astoarekin eta gurdiaekin. Hozkailurik ez zen artean. Sifoneroa. Pasai Donibanen zegoen izotz lantegia. "Nebera" eta "freskera" nolakoak ziren azaltzen du. Sein izotz saltzaileari buruz hitz egiten du; haren semea gazte hil zen, lantegian istripua izanda.

1.553. Arrain saltzaileak kalez kale (LEZ-088/023)

Arrain saltzaileak Donibanetik eta San Pedrotik etortzen ziren. Alhondigan mahaiak zituzten, bertan saltzeko, baina kalez kale ere ibiltzen ziren, otarrak buruan hartuta. Bakoitza bere platerarekin jaisten zen, erostera. Furgoneta batekin hasi zen lezoar bat, eta gero arrandegiak jarri zituzten. Lanperna beroak ere saltzen zituzten arrain saltzaileek.

1.554. Lezo, fruta askoko herria (LEZ-088/024)

Fruta asko zegoela dio, fruta arbolaz beteta zegoela Lezo. Gerezia, melokotoia, sagarra... Lapurtu ere egiten zuten fruta, umetan: kolkoa betetzen zuten. Baserri batean nahi beste jateko esaten zieten, baina ez frutarik eramateko. Sagardoa egiten zuten baserritarrek, eta fruta saldu ere bai, herriko dendetara. Garaian garaikoa izaten zen dendetan, ez orain bezala. Orain urte guztian dago denetik, Txinatik eta Marokotik ekarrita, baian ez dute lehengo zaporerik.

1.555. Lezoko alhondiga eta dendak (LEZ-088/025)

Lezon azokarik ez zegoen. Alhondigan harategia zegoen, eta arraina saltzeko mahai batzuk. Fruta saltzaile anbulantea ere ibiltzen zen, furgonetarekin. Dendetan denetik izaten zen: alpargatak, fruta, xaboia... generoa aldatu egiten zuten urte sasoiaren arabera.

1.556. Joxe "alpargaterua" (LEZ-088/026)

Maritxu taberna dagoen tokian, Donibane kalean, Joxe Intxaurrendieta "alpargaterua" zegoen, eta alpargatak egiten zituen, gehienak beltzak eta urdinak, jaietarako zuriak.

1.557. Ferratokirik ez Lezon (LEZ-088/027)

Ferratokirik ez du ezagutu Lezon. Txerrimuño inguruan ote zegoen, baina berak ez du ezagutu. Lezon ehundik gora baserri zeuden. Orain gutxi gelditzen dira.

1.558. Ganadu erakusketa (LEZ-088/028)

Urtean behin ganadu erakusketa egiten dute Lezon. Bera izan zen antolatzaileetako bat: duela 40 urte hasi ziren. Hasieran baserri bakoitzak buru bat jartzen zuen, 30 osatu arte. Ondoren bigarrena ekartzeko aukera eman zuten, eta zozketa egiten zuten. Gaur egun bost baserri izango dira eramaten dituztenak, 30 osatu arte.

1.559. Lezo, baserritarren herria (LEZ-088/029)

Ganadu erakusketa zergatik antolatu zuten azaltzen du. Lezo baserritarren herria da, Donibane arrantzaleena den bezala, eta, horregatik, Ixkulin sortu zenean, baserritarrek lotutako ekintzak antolatzen hasi ziren: idi demak, ganadu feria... ahari-jokoarekin ere hasi ziren, baina kendu egin zuten.

1.560. Baserritarren egunean, bertsolariak (LEZ-088/030)

Baserritarren egunean bertsolariak ere izaten ziren eguerdian, eta berak jartzen zituen gaiak. Uztapide, Lopategi, Arozamena, Xalbador, Mattin... garai batekoak aipatzen ditu, eta baita ondorengo batzuk ere: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Peñarikano... Barre egiteko gaiak ipintzen saiatzen zen. Gerora bertso eskolak hartu zuen ardura hori.

1.561. Lezoko erraldoien historia (LEZ-088/031)

Lezon ez zen erraldoirik, eta Pasaiatik eramaten zituzten noiz edo noiz: erregea eta erregina. Elkartea sortu zutenean, erraldoi pare eginarazi zituzten: baserritarrak. Zaragozatik ekarri zituzten, Santa Kutz bezperan, 1975ean. Orain berriak daude, erosoagoak. Berak eraman du erraldoietako bat urte askoan, 43 urtean hain zuzen.

1.562. Lezoko erraldoein historia II (LEZ-088/032)

Oraingo erraldoiak erabiltzeko errazagoak dira lehengoak baino. Burua lotuta geratzen zitzairen, eta 35 kilotik gora pisatzen zuten. Eroriz gero, ezin zen barrutik ateratzerik.

1.563. Lezoko erraldoien historia III (LEZ-088/033)

Urtean bitan ateratzen ziren lehen erraldoiak; behin pazkuetan istilua izan zuten alkatearekin, eta elkarteek boikota egin zuten jaietan. Txistulariak kanpotik ekarri zituzten, eta erraldoi moduan zinegotzi bat eta beste bat atera ziren. Erraldoietako bat erori egin zen.

1.564. Ibizako "playa nudistara" (LEZ-089/002)

Ibizira iritsi eta zer topatuko: "playa nudista!!" hura izan zen hura, hemen bikiniak ikusi ere egiten ez zenean.

1.565. Bikinia, emakumeen galtzak...pixkanaka (LEZ-089/003)

Denak gizonezkoak ziren bere etxean, baina emakumeak galtzak janzen berandu hasi ziren.

1.566. Eskolan gutxi eta harakin lanetara azkar (LEZ-089/004)

Hiltegia lan asko egiten zuten, eta han denbora asko pasatzen zuen piezak jasotzen, baita harategian ere. Grosen, San Martinen, Bretxan... leku askotan lan egin zuen.

1.567. Bodegón Alejandroko otorduak (LEZ-089/005)

Nagusia Martin Berasategiren aitaren oso laguna zen. Jatetxean egiten zituen otorduak. Han ezagutu zituen Baserri bertsolaria eta Urtain boxealaria besteak beste.

1.568. Donostiara trolebusean (LEZ-089/006)

Kableak "pin, pan, pun" egiten zutela ibiltzen zen trolebusa.

1.569. Harakin ofizioa nola hasi zuen ez daki (LEZ-089/007)

Harakin izatera kasualitatez iritsi zen. Beste edozer gauzetan hasi zitekeen berdin berdin.

1.570. Ikasketak akademia batean eta Jesuitetan (LEZ-089/008)

Anaia ta biak Jesuitetan ibili ziren 3 urtez. Beretzat traumatikoa izan zen.

1.571. Harakinaren lan gogorra (LEZ-089/009)

30 pieza astero hiltzen ziren hiltegia, eta bizikletan remolkearekin ibiltzen zen haiek hartuta.

1.572. Zaldi gibela erosteko ilarak (LEZ-089/010)

Egun gibela bota egiten da, eta garai batean, erdi gordinik jatea onena zela zioten. Arkumearen giltzurdinak adibidez, orain berak bakarrik jaten ditu.

1.573. Behar handiko garaietan, katua asko jaten zen (LEZ-089/011)

Jaizkibeleko destakamendura joandakoak ezagutu zituen, laranja azalak ere jateko prest, bera katua jandakoa da eta untxia bezalakoa dela dio.

1.574. Castillo sukaldariaren aitarekin anekdota (LEZ-089/012)

Gipuzkoako elkarteen errezetak biltzen ibiltzen zen Juan Joxe Castilloren aita, Joxe. Berak arkume errearena eman zion. "Pottorruak saltsan" errezeta ere famatua zen.

1.575. Soldadutzatik bueltan negozio asko eta desberdinak (LEZ-089/013)

Harategia eduki zuen Lezon eta saldu egin zuen. Gero beste lokal bat erosi eta jatetxea jarri zuen: "Uztarri" izenekoa. Hori ere saldu, eta beste bat erosi.

1.576. Beti saltsetan (LEZ-089/014)

Umetan bihurria bai, baina gaiztoa ez.

1.577. Astoa koadrilan jateko erosi zutenekoa (LEZ-089/015)

Astoak erreka pasa nahi ez eta, bat aurretik tiraka, beste bi atzetik bultzaka, kotxean sartzea lortu zuten arte. Gero asto jana ospatu zuten. Ikaragarri gozoa.

1.578. Zaldia erosi furgonetan sartu ta gero jan (LEZ-089/016)

Jendeak nahiago du astoa jan zaldia eta txekorra baino.

1.579. Astoa erosteko asmotan Santa Luzia feriara (LEZ-089/017)

Astoa erosteko asmotan abiatu ziren eta umea egiteko zegoen ahuntza erosi zuten. Bazkaldu zuten jatetxeko jabeak erosi nahi izan zien.

1.580. Soto guztietan zeuden Lezon abereak (LEZ-089/018)

Kale nagusiko soto guztietan baziren abereak: txerria, astoa, behia eta txekorra... Gehienek ere baratza zuten. Askok aldatu da Lezo.

1.581. Denda asko zegoen, egun bi egongo dira. (LEZ-089/019)

Lezon, askoz ere jende gutxiago bizi zenean askoz ere denda gehiago zegoen. "Ultramarinos"ak ziren gehienak. Denek herrian erosten zuten. Orain jendea merkataritza gune handietara joaten da. Lezo orain garestia da.

1.582. Tabernak lehen asko, eta oso berandura arte irekita (LEZ-089/020)

Tabernak berandura arte egoten ziren irekita, aste egunetan ere. Hamaika aldiz joana da lanera gaupasa eginda. Zirkua, titiriteroak, trapezio eta guzti... aulkiak plazara jaitsi eta ikustera.

1.583. Zinea elizan (LEZ-089/021)

Hilabeteen behin jartzen zieten zinea dotrinara joatean zirenean. Beti pelikula berdinak jartzen zizkieten. Erromatarren garaikoak eta horrelakoak.

1.584. Lezo: pilotari, musikari eta abeslarien sehaska (LEZ-089/022)

Festa guztietan pilota, kanta eta dantza. Elizako abesbatza bereziki ona zen. "Los Ruidos Raros" banda osatu zuen beste lagun batzuekin batera.

1.585. Kantatzen ibilitakoa da (LEZ-089/023)

"Atzekote" izena jarri zioten kantuan ibiltzen ziren koadrilari "Otxotiarri". Lehiaketa batean parte hartzeko "Los Esdrújulos " izena aukeratu zuten. Eta irabazi egin zuten gainera.

1.586. Pregoilaria berri emaile (LEZ-089/024)

Pregoilariak danborra jo eta pregoia irakurtzen zuen.

1.587. Lezon lehen ez zegoen elkarterik (LEZ-089/027)

Lezon dotrinako elkarteak bakarrik zegoela eta, 16 urterekin, beste batzuekin batera, elkarte bat sortu zuen. Denetik antolatzen zuten.

1.588. Ixkulin elkarte gastronomikoa sortu zutenekoa (LEZ-089/028)

Lezon ez zegoen elkarte gastronomikorik. Allerru elkarteari itzalik egin gabe, baiña 50 bazkide izango zituen beste elkarte bat sortu nahi izan zuten. Elkarteak sortzerakoan, kuadrilla handiak baztertu egin zituzten, haiek beren kasa beste elkarte bat sortu zezaketelako. Elkarteak sortu eta 100 bazkide izatera iritsi ziren. Ixkulin jarri zioten izena.

1.589. Ixkulin eta Tiñelu elkarteak sortu zireneko kontuak (LEZ-089/029)

Beraiek Ixkulin elkarteak sortu zutenean, beste batzuek Tiñelu sortu zuten. Ixkulin elkartean politika eta kirola kanpoan utzi zituzten; Tiñelun ezberdin jokatu zuten. Tiñelun hasieratik onartu ziren emakumeak bazkide gisa; euren elkartean, osterak, emakumeek sarrera debekatuta zuten, gerora gauzak aldatu ziren arren.

1.590. Emakumeak Ixkulin elkartean: beti ala inoiz ez (LEZ-089/030)

Ixkulin elkartean emakumeak onartzea nolako prozesua izan zen kontatzen du pasarte honetan.

1.591. Ixkulin elkarteko lehenengo presidente (LEZ-089/031)

Ixkulin elkarteko lehenengo presidentea izan zen. Bi urte egin zituen lan horretan, elkarteak sortzen zen bitartean. Denbora luzez izan zuten emakumeek elkartean sartzeko debekua. Bera ez zegoen horrekin ados.

1.592. Emakumeak tabernetan hasi zirenekoak (LEZ-089/032)

Berandu hasi ziren emakumeak tabernetara sartzen, bere gazte garaian pentsa ezina zena. "Penny Lane" diskoteka ireki zutenean Erreterian hasi ziren gauzak aldatzen.

1.593. Neskak etxera eta mutilak "Julin" elkartu (LEZ-089/033)

Neskak bederatzietarako joaten ziren etxera eta orduan koadrila elkartzen zen gintonikak hartzera.

1.594. Emakumeak galtzak jantzita (LEZ-089/034)

Galtzak berandu eta bikinia beranduago hasi ziren janzten emakumeak. Hondarrabiara Donostiara baino lehenago iritsi zen bikinia.

1.595. Lezoren historia (LEZ-090/002)

Lezoren historia. Hondarribiarena zen garai batean. ez daki unibertsitate titulua zergatik zuen. Santo Kristo da Lezoko eliza zaharrena, ez parrokia. Santo Kristo itsasoan topatu zutela diote batzuek, eta tenplarioen garaikoa dela beste batzuek. Beltza eta bizarduna zen lehen santua, garbitu zuten arte.

1.596. Lezoren historia II (LEZ-090/003)

Lezo Haundi etxeari buruz hitz egiten du. Lezoren sorrera: "Carta Puebla" eta Guillermo de Lazón.

1.597. Aitaren ibilerak (LEZ-090/006)

Aita Oiartzungoa zen. Haren ibilerak kontatzen ditu. Erreterian egiten zuen lana, plastiko lantegi batean.

1.598. 13 arte ikasi, eta inprentara lanera (LEZ-090/007)

Herriko eskola publikora joan zen. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. 14 urterekin lanian hasi zen, Erreterian, inprenta batean. 70 bat langile zeuden. Gustura ibili zen. Kantatzen eta otoitzean egoten ziren lanean. Emakume eta gizonen lanak.

1.599. Inprentan liburuak egiten (LEZ-090/008)

Inprentako lana: liburuak nola egiten zituzten. Beraiek osatu egiten zuten, eta gizonezkoek bukatu. Letrak trokeladoran inprimitzen zituzten. Gaztelaniaz ziren liburu denak. Sukalde liburuak eta joskintzakoak. Eguerdian etxera joaten zen bazkatzera.

1.600. Ama, Jaizkibelgo baserri batekoa (LEZ-090/009)

Bere etxean aita egiten zuen afaria, ama baserrian egoten zelako. Ama Jaizkibelgo Londres baserrikoa zen. Londres izenaren jatorria. Satrustegi baroiarenak ziren Jaizkibelgo lurak. Buenos Aires baserria ere izan zen garai batean.

1.601. Umetan amonaren baserrian (LEZ-090/010)

Txikitan udako hilabeteetan amonaren baserrira joaten zen. Lehengusuei gosaria eramatera joaten zen, otarrearekin. Baserrian zein bizi zen.

1.602. Aitak egiten zuen afaria (LEZ-090/012)

Amari baratza gustatzen zitzaion, ez etxeko lanak. Afaria aitak prestatzen zuen. Aita oso artetsua zen. Mekanikoa zen, plantxak konpontzen zituen eta josteko makina erabiltzen ere irakatsi zion.

1.603. Pertsona esanguratsuak kulturen (LEZ-090/013)

Jostun batzuk aipatzen ditu: Pikabea, Luke Gezala... Gezala familiari buruzko kontuak: Koldobike Gezala raketista. Polentxi Gezala txistularia... Tomas Garbizu musikaria eta Elias Salaberria margolaria aipatzen ditu. Herriko mutilek solfeoa ikasteko aukera zuten (neskek ez, berandu arte). Lezo, herri musikazalea.

1.604. Kantuzalea eta dantzazalea (LEZ-090/014)

Etxean ez zuten kantatzeko ohiturarik, baina Lezon musikazaleak dira eta dantza zaleak ere bai. Dantza taldea gatzetxoak zirela sortu zen, Aierru elkarteak sortu zenean. Aurretik ere izan ziren dantza taldeak, bere gurasoen adinekoak ibili ziren eta (ez du uste Batzokiko taldea zenik). Musikako banda ere izan zen. Umea zela abesbatza ere bazegoen.

1.605. Eskola garaiko kontuak (LEZ-090/015)

Sei urterekin hasi zen eskolan, eta ez zekien erdaraz. Toledoko irakasle hasiberriak, berriz, ez zuen euskara ulertzen. Francoren emaztea (Carmen Polo) agurtzera eramaten zituzten. Hiru irakasle izan zituen, azkena oso ona: Teresa Setien.

1.606. Eskola garaiko kontuak II (LEZ-090/016)

Eskolan ez du gogoratzen "Cara al sol" kantatu beharra, baina elizan kantatzen ote zuten... Ez du oroitzapenik txarrik. Berari ez, baina ikaskide batzuek jaso zuten masailekoren bat. Bihurri samarra zen. Besoa hautsi zuen, ahizpak ohetik botata.

1.607. Lezoko medikua (LEZ-090/017)

Lezoko medikua udaletxeko gela batean egoten zen. Etxera ere joaten zen. Beti mediku bera izaten zen, eta konfidantzazkoa. Denak ezagunak ziren. Orain, berriz, deshumanizatzen joan garela dio.

1.608. Elias Salaberria margolaria (LEZ-090/018)

Elias Salaberria margolaria Madrilen bizi zen. Berak anaiak ezagutu zituen. Tomas Garbizu eta Salaberria garaitsukoak dira. Lezok 1.000 biztanle zituen bera umea zenean.

1.609. Lezoko lantegiak (LEZ-090/019)

Lezoko lantegiak: zerrategia, txapa tailerra, Potasas de Navarra pirita lantegia... Ke mina botatzen zuen. "Rusoa" deitzen zioten hango ingeniariari, baina suitzarra zen.

1.610. Kaleko giro euskalduna erdaldundu (LEZ-090/020)

Pysbe arrain lantegiak Lezon etxeak eraiki zituen langileentzat, eta kanpotar asko etorri zen orduan. Bera eskolan zegoen garai hartan. Lehenbiziko galiziarrek euskaraz ikasi zuten. Kanean ikasten zuten, denak euskaraz aritzen

zirelako. Gero, ordea, erdara nagusitu zen. Lagunen artean erdaraz egiten hasi ziren (emakumeak batez ere). Familia ugari asko zeuden eta kale giro handia: ume eta gazte ugari kalean.

1.611. Baserritarrak eta kaletarrak (LEZ-090/021)

Lezo nolakoa zen lehen. Biztanleen erdiak Kale Nagusi inguruan bizi ziren. Ez ziren baserritarrekin ibiltzen; haiek beren eskola zuten, hura ere publikoa. Jaunartzea egiteko elkartzen ziren. Orain badute harremana 1946an jaiotakoek; bazkaria egiten dute urtero.

1.612. Umetako jolasak: kaiokak, "kulebrilla" eta sokasaltoan (LEZ-090/022)

Kaleko umeak Markesanean eta plazan ibiltzen ziren sokasaltoan. Umetako jolasak aipatzen ditu: kaiokak (tabak), kanikilekin "kulebrilla" egiten zuten... Sokasaltoko kanta bat gogoratzen du: "Avila-Segovia". Astoka ere ibiltzen ziren.

1.613. Umetako jolasak: "Tres navios" (LEZ-090/023)

"Tres navios" ezkutaketa jolasa ere egiten zuten, igande arratsaldeetan. Etxeetako ateak irekita egoten ziren. Orain errieta egiten diote atea irekita uzten badu. Etxetik etxera ibiltzen ziren umeak.

1.614. Txingoketan plazan, autorik gabe (LEZ-090/025)

Txingoketan egiten zuten plazan, autorik ez zebilelako. Han agertu ziren bi autoetan zertarako joan ziren azaltzen du: batzuek kuranderarengatik galdezka eta beste batzuk Santo Kristoko artelan bat ikustera. "La virgen gitana" artelana, ustez Velazquezena, San Telmo museoan dago. Kuranderari buruzkoak.

1.615. Inguruko herrietara (LEZ-090/026)

Autobusak Donibanera eta Oiartzunera. Erreteriarra oinez joaten ziren tranbia edo trena hartzera. Erreteriarra joaten ziren gehien. Bera ez da asko atera.

1.616. Senarra izango zuenarekin nola hasi zen (LEZ-090/027)

17 urterekin hasi zen nobioarekin, Lezokoa hura ere; umetatik ezagutzen zuten elkar. Erreterian dantzan ibiltzen ziren gero. Plazaraino laguntzen zion. Koadrilan joaten ziren, kantari. Ez zuen ordutegi zorrotzik. Musika bukatzean, etxera. Ama normalean ez zen etxean egoten.

1.617. Txanpiñoiak saltzen zituzten (LEZ-090/028)

Ama baratzeke lanetan ibiltzen zen, baina ez zuen baratzeke produkturik saltzen. Aitak txanpiñoiak jarri zituen Erreteriarako ur deposito batean, eta ama haiek saltzera joaten zen. Dendetara eta tabernetara joaten zen, Lezon, Erreterian eta Pasaian. Askatasuna izan arren, garaiz joaten zen etxera.

1.618. Nobiotan hasi, eta mutila soldaduskara (LEZ-090/029)

17 urterekin nobiotan hasi, eta 24 urterekin ezkondu ziren. 21 urterekin soldadu joan zen mutila, Marinara, bi urterako. Eskutitzak idazten zizkion, eta bisitan ere etortzen zen. Zinemara joaten ziren. Sotoraino laguntzen zion

orduan. Musu ezkutuan eman behar zen, ez kalean. Ezkondu aurretik, ez zuten sexu harremanik izaten.

1.619. Nobiotan zinemara (LEZ-090/030)

Nobio garaiko opariak. Zinemara joaten ziren, Antxora, oinez. Filmetako zentsura, umetan eta gero ere bai. 2R eta 3R. Tonika hartzera ere joaten ziren. Neskak ez ziren bakarrik sartzen tabernetan.

1.620. Galtzak janzteia galarazita (LEZ-090/031)

Galtzak janzteia ere galarazita zuten. Gurasoek ez zieten uzten eta elizara galtzekin sartzea ere ez zen normala. Mendira joateko hasi ziren galtzak janzten. Berak josi zituen lehenengo galtzak. Minigonak erabiltzen ere hasi ziren. Bikarioari beldurra zion, bi aldiz jo ziolako, behin manga motza zeramalako.

1.621. Don Eusebio apaiza (LEZ-090/032)

Elizak indar handia zeukan. Don Eusebio oso gogorra ei zen. "Mezak merke erosi, merkeago saldu eta artean ere dirua irabazi". Umetan enkarguak egitera bidaltzen zituzten. Bikarioarengana kanbio bila joanez gero, sos batekin geratzen zen beti. Hileta elizkizunak ere maila ezberdinetakoak zeuden, ordaindutakoaren arabera.

1.622. Mendizaletasuna (LEZ-090/033)

Neska eta mutl joaten ziren mendira, gaztetan (umetan beti aparte). Igandetan. Neskak mendira galtzekin joatea normala zen ordurako. Falda-pantalón.

1.623. Gerraosteko aldarrikapenak I (LEZ-090/034)

Bazuten irratia etxean, sukaldean. Alanbre bat antena bezala. Pirenaica irratia entzuten zuten gauean. La voz de España eta El Diario Vasco egunkariak zeuden. Bizilagunak hartzen zuen, eta utzi egiten zioten. Irakurtzea asko gustatzen zitzaion. Elizaren inguruan antolatzen ziren gazteak, eta hausnartu egiten zuten sortutako arazoengatik. Bilera klandestinoak ere ezagutu zituen. Langileen eskubideen alde ibili zen batez ere. Grebak eta manifestazioak.

1.624. Gerraosteko aldarrikapenak II (LEZ-090/035)

Gerraostean sindikatuak bertikalak ziren. Hauteskunderik ez zen izan urte askoan. Hura hautsi beharra zegoen. Gazteak esnatzen hasi ziren, isiltasuna hausten. Aita Teruelen egon zen soldadu gerran, eta zauritu egin zuten, baina ez zuen ezer kontatzen.

1.625. Londres baserrian militarrek alde batean (LEZ-091/002)

Oraindik ere militarrek maniobrak egiten aritzen dira bertan.

1.626. Inprentan lanean (LEZ-091/003)

Soldata inprentan 105 pezetakoa zen lanean hasi zenean. Aurrezki Kutxan kartilla irekitzeko aitaren baimena behar izan zuen.

1.627. Ezkondu eta soldatapeko lana utzi (LEZ-091/004)

Ezkonduz gero, urtebeteko soldata eskaintzen zuten eta haurrak berehala izaten zirenez, zaila zen etxetik kanpoko enplegua mantentzea.

1.628. 24 urterekin ezkondu eta soldatapeko lana utzi (LEZ-091/005)

Ez zion pena handirik eman enplegua uzteak ezkontzeko, eta garbi zeukan seme-alabei ahalik eta eskola gehien eskainiko ziela.

1.629. Alabei lana errazten saiatu da beti (LEZ-091/007)

Amentzat etxetik kanpo lan egitea ez da erraza, eta bera horretan laguntzen saiatu da. Soldatak askatasuna ematen duelako. Dena dela, gauzak aldatzen ari dira.

1.630. Lau seme-alaben ama (LEZ-091/008)

Umeak Irungo ospitalean izan zituen. Bost urtetan lau. Berak ezagutzen dituenen artean, denek izan zuten haurra ospitalean.

1.631. Ama "purifikatu" beharra umea izan ondoren (LEZ-091/009)

Elizan sartu behar zen haurra jaio ondoren. Teila buruan zuela kalera ama ateratzen zen. Bera ez.

1.632. Gazte mugimenduen parte garai batean (LEZ-091/010)

Jakinmina beharrezkoa da begiak ireki ahal izateko. Egun ere ekintza desberdinaten parte hartzen du.

1.633. Lezori buruzko kantak (LEZ-091/011)

Lezoko ereserkia: Lezoko herria Jaizkibel mendia... hemen biltzen da euskaldun jendea... Tomas Garbizuk sortua.

1.634. Gabonetako kantak kalez kale (LEZ-091/012)

Euskaraz abesten zuten gabonetan eta kantu-eskean ateratzen ziren neskak eta mutilak, bakoitza bere aldetik.

1.635. Santa Ageda eta erregeen opariak (LEZ-091/013)

Santa Ageda eguneko kantak beranduago hasi ziren gabonetako kantak baino. Denei berdintsu erregeen opariak.

1.636. Gerra ondorengo urte gogorrenak ez zituen ezagutu (LEZ-091/014)

Amak baserritik ekartzen zituenei esker goserik ez zuen pasa. Anai-arreba zaharragoek, ordea, okerrago pasa zuten.

1.637. Lehengo esneak gaurkoarekin zerikusirik ez (LEZ-091/015)

Baserritarrak etxera egunero marmitarekin joaten ziren. Txantxila sartu marmitan eta eltzera botatzen zuten.

1.638. Garaian garaiko produktua gaztea zenean (LEZ-091/016)

Babarruna eta lekak neguan jaten ziren, orain, urte guztian daude. Lehen tomatea eta tipula ez ziren jaten. Letxugaren "niñikua" beretzat gordetzen zuten.

1.639. Lezon "deus" asko erabiltzen den hitza (LEZ-091/017)

"Deus" asko erabiltzen da Lezon, inguruan ez bezala, eta hika mutilek bakarrik hitz egiten zuten.

1.640. Erreterian euskara gutxi lehen eta orain (LEZ-091/018)

Konplexurik ez du izan inoiz euskaraz aritzeagatik.

1.641. Ikastolen mugimenduaren sorrera Lezon (LEZ-091/019)

Ikastoletako mugimendua elizan hasi zen. Lehendabiziko klaseak katekesia ematen zen gelatan izan ziren.

1.642. Lehengo katekista: Manuela (LEZ-091/020)

Manuela Larrea katekistak ez zuen magisteritza egin, baina gero pixkanaka magisteritza ikasi zutenak hasi ziren katekesia ematen.

1.643. Euskararen aldeko joera oso handia zen (LEZ-091/021)

Euskara ez galtzea zen helburua. Ikastolako gelak garbitzea tokatzen bazen, egin eta aurrera.

1.644. Etxean jaioa, Donibane kalean (LEZ-092/002)

Donibane kalean jaioa. Etxean jaio zen. Bere senideei ez zien grazia handirik egin. Bost senidetan gazteena da. Gurasoak nongoak zituen esaten du; ama neskame joan zen Lezora eta sagardotegian egoten zen lanean; hantxe ezagutu zuten elkar. Aita arotza zen; orain Albaola dagoen ontziolan egiten zuen lan. Aita txalupan joaten zen Lezotik Pasaiera, lanera.

1.645. Lezoko kaia (LEZ-092/003)

Lezoko kaia nolakoa zen azaltzen du. Industria eta zerrategia zeuden: enborrak uretan. Txaluparekin igandepasa ere joaten ziren bokanaraino.

1.646. Etxea nolakoa zen (LEZ-092/004)

Alokairuan zeuden etxean. Nolakoa zen azaltzen du. Lau gela zituen. Komunean dutxarik ez zen izaten; ezkondu ondoren jarri zuten. Larunbat gauetan bi ahizpak sukaldean garbitzen ziren, denak handik bidalita. Ekonomia zuten. Ikatza.

1.647. Etxeko giroa umetan (LEZ-092/005)

Umetako oroitzapenak. Amak "interina" moduan egiten zuen lana, bi etxetan, eta aita ere egun osorako joaten zen lanera. Bi anai zaharrenak apaiz egin ziren. Hirugarrena aitarekin hasi zen lanean. Ahizpa 11 urterekin hasi zen

lanean, farmazia batean, Pasaian. Berak ikasteko aukera izan zuen. Eskolarako bidean Santo Kristori bisita egiten zion; elizan harrapatuz gero, bikarioak errieta egiten zion. Arratsaldean frontoian egoten ziren jolasten.

1.648. Umetako jolasak: "kulebrilla" eta potoekin (LEZ-092/006)

"Kulebrilla" jolasa: kanika lasterketa egiten zuten, zulo bateraino. Tomate potoei sokak jarri eta haiekin ibiltzen ziren. "Tres navios" ezkutaketa jolasa ere egiten zuten; potoari ostikada jotzen zioten, eta ezkutatzera joan. Ganbaretan ezkututzen ziren, eta ez zituzten aurkitzen.

1.649. Umetako jolasak: bizikletan, txingoan eta sokasaltoan (LEZ-092/007)

Bizikletan ere ibiltzen ziren, norbaiti eskatuta. Gaintxurizketara joaten ziren, eta han udareak lapurtzen zituzten. Txingoka ere ibiltzen ziren. Sokasaltoan ere egiten zuten. "Avila, Segovia" eta "Al pasar la barca" kantatzen zuten eta baita euskarazkoak ere: "aita, ama, zenbat urtekin ezkonduko naiz?" eta "bat eta bi eta hiru".

1.650. Nesken eta mutilen bainu-lekuak (LEZ-092/008)

Frontoian jolasten zuten asko. Kaian mutilak ibiltzen ziren gehiago; enborretik enborrera saltoka ibiltzen ziren, eta hantxe ikasten zuten igerian. Toki arriskutsua zen; anaia larri ibili zen behin. Bainatzera beste toki batera joaten ziren beraiek. Bainujantzirik ez zuten. Bere senideek igerian nola ikasi zuten, txalupan joanda.

1.651. Solfeora eta josten ikastera (LEZ-092/009)

Arratsaldean eskolatik bueltan merienda hartu eta solfeora joaten zen; apaizak ematen zuten. 13-14 urterekin josten ikasten hasi zen, Erreterrian.

1.652. Batxilergoa eta Magisteritza (LEZ-092/010)

Guraso Elkartea sortu zen Lezon, eta bere gurasoak han zebiltzan. Batxilergoa egitera animatu zuten. Sei neska hasi ziren. Hiru urtetan egin zuen oinarrizkoa. Ama hil zenean, bere kabuz jarraitu zuen (libretik). Gero COU eta Magisteritza egin zituen, Donostian. Eta Guraso Elkarteko eskolan hasi zen lanean.

1.653. Guraso Elkartea eskolaren sorrera (LEZ-092/011)

Guraso Elkartearen eskola nola sortu zen azaltzen du. Euskararekin keztatutako familiak ziren; igandetan biltzen ziren. Ikastola baino lehenago sortu zen. Euskara irakasten zuten, nahiz eta ez dena euskaraz eman. Ikastolarekin bat egiten saiatu ziren, baina bateratzea ez zen aurrera atera. Azkenean eskola publikoarekin elkartu ziren.

1.654. Eskola publikoarekin elkartu ziren (LEZ-092/012)

Lezon jaiotza-tasa altua zen, eta horregatik zeuden hainbeste eskola. Eskola publikoarekin elkartzeko baldintza moduan D eredia sortzea jarri zuten. Bera izan zen D ereduko lehenengo irakaslea. "Inmertsio" plan bat egin zuten. Hasieran B ereduko bi gela zeuden eta D ereduko bakarra.

1.655. Guraso Elkartea eskola eta euskara (LEZ-092/013)

Guraso Elkartea eskolan Lehen Hezkuntzara arte ematen zuten. Euskara ematen zen irakasgai modura. Guraso batzuek Euskaltzaindiaren euskara agiria atera zuten.

1.656. Euskaltzaindiaren euskara titulua (LEZ-092/015)

Euskaltzaindiak ematen zuen euskara titulua atera zuten Guraso Elkarteko batzuek; EGArrik ez zegoen artean. San Ignazio ikastetxean egin zuten azterketa, Donostian.

1.657. Guraso Elkartea eskolaren bilakaera (LEZ-092/016)

Guraso Elkartea eskolaren bilakaera. Hasieran irakasle bakarra zegoen, eta gero handitzen joan zen. Patri Urkizuk laguntzen zien tarteka. Azken aldera HH eta LH osoa zuten, eta tituludun irakasleak. Guraso batzuenen zen baju batean hasi ziren. Pelikulak ere ikusten zituzten igandetan. "Anbigu" bat jarri zuten: sua, mahaia...

1.658. Bere umetako eskola publikoa (LEZ-092/017)

Guraso Elkartea eskolaren sorreraren zergatia azaltzen du: herri eskola oso erdalduna zen. Bere umetako eskola publikoa nolakoa zen gogoratzen du: dena gaztelaniaz zen. Mutilak eta neskak aparte. Irakasleak nolakoak ziren.

1.659. Eskolan, gaztelania hutsean (LEZ-092/018)

Eskolan hasi zenean, bost urterekin, bazekien gaztelania pixka bat. Ederki ikasi zuen gero. Formación del Espíritu Nacional ikasten zuten. Bandera espainola zuten koadernoan, eta aitak ezin zuen ikusi (nazionalista izaki).

1.660. Zerbitzu Soziala egin beharra (LEZ-092/019)

"Cara al sol" kantatu beharra. Servicio Social egin behar izan zuen, Deban, ikasketen titulua lortzeko. Falangeko Sección Femenina. Biblia, etxeko lanak, espíritu nacional... Lezon ere bazegoen Sección Femenina, Circulo Carlistan. Bera ez zen joaten, baina jostailu asko izaten ziren han.

1.661. Gerra garaiko kontuak (LEZ-092/020)

Aita nazionalista zen. Osaba exiliatuta ibili zen gerra garaian. Amak metraila zeukan besoan sartua. Memoria selektiboa dela dio, eta bera ez dela gauza askotaz gogoratzen.

1.662. Lezoko eskolak (LEZ-092/022)

Eskola publikoko irakasleak kanpokoak ziren gehienak. Baserritarren eskola ere bazegoen. Belen Bidegain izan zen lehenengotako bat. Partikularra ematen zutenak ere bazeuden.

1.663. Dotrina ikasten (LEZ-092/023)

Dotrina ez zen eskolan ikasten. Katekistekin ikasten zuten, gaztelaniaz. Senarrak euskaraz ikasi zuela dio, euskaraz ez zekitelako. Solfeoa ere apaiz bat hasi zen erakusten. Don Ignacio Esnal. Danda ere izan zen garai batean; bere aitak tronboia jotzen zuen.

1.664. Gabonetan jaiotzarekin kantuan (LEZ-092/024)

Gabonetan jaiotzarekin ateratzen ziren lagunak. Erretereriako azokara ere joaten ziren kantuan, eta Lezon denda denda ibiltzen ziren. Dirua ematen zieten. Kantatzen zituzten abestiak aipatzen ditu: "Hator hator", "Aintza zeruan"... ensaiatu egiten zuten aurrez. Pospolinez jantzita joaten ziren. Dantzaren ere ibili zen, Patxi Larrearekin; bikoteka, dantza soltean. Dantza lehiaketa ere izan zen herrian.

1.665. Erretereriara dantzara eta zinemara (LEZ-092/025)

Igandetan Erretereriako alamedara joaten ziren dantzara. 17-18 urterekin hasten ziren. Lehenago zinemara joaten ziren Erretereriara, luistarretara. Zentsura zegoen pelikuletan. Hijas de Maria kongregaziokoa izan zen bera ere, baina ordurako zigorrik ez zuten jartzen dantza lotuan aritzeagatik.

1.666. Bere etxeko zorrozatasuna (LEZ-092/026)

Etxera bueltatzeko ordutegi zorrotza zuen. Bi anai apaiz izanda... 17 urte zituela ama hil zitzaion eta 25ekin aita; orduan libre gelditu zen. Ordura arte galtzak janzea ezta pentsatu ere! Anaia bisitatza joan zen Erromara, eta treneko komunean jantzi zuen lehen galtza parean.

1.667. Bere etxeko zorrozatasuna II (LEZ-092/028)

Bere lagunak lehenago hasi ziren galtzak erabiltzen. Lutoa ere osorik bete behar izan zuen: bi urtean beltzez. Elizara joatea ere derrigorrezkoa zen. Elizan gizonezkoak eta emakumezkoak aparte esertzen ziren.

1.668. Neskak tabernara ez (LEZ-092/029)

Neskak ez ziren tabernetara sartzen. Ikasle garaian bai, Donostian, baina 25 urte zituen ordurako. Magisteritza ikasi zuenean gehienak neskak ziren. Bere lagunak ez zuten ikasten jarraitu.

1.669. Ezkontzean lana uztea (LEZ-092/030)

Bere ahizparen garaian ohikoa zen ezkontzean lana uztea. Bere garaian aldatzen hasia zen hori. Eta bankuan kontu korrontea izatea ere posible zen (aurretik ez).

1.670. Nola ezagutu zuen senarra dena? (LEZ-092/031)

Senarrak eta berak nola ezagutu zuten elkar. Harakina zen senarra, eta han ezagutu zuen. Lagun koadrilan elkarrekin joaten hasi ziren gero. Erretereriako alamedan aterkiak zaintzen egoten zen, ez zelako dantzazalea. Zinemara joatea nahiago zuen. Batzuk bestaldera joaten ziren, Hendaiara, pornoa ikustera.

1.671. Sexua tabua zen (LEZ-092/032)

Sexua tabua zen bere garaian ere. Amak ez zion sekula ezer azaldu. Lagunen artean hitz egiten zuten. Udan izeba baten baserrira joaten zen, eta behin ondoko baserrikoa eta lehengusua hilerokoaz hitz egiten hasi ziren. Haiek berak baino gehiago zekiten, eta izutu egin zen. Konpresarik ez zegoen: pañuak, lixibarekin garbitu beharrekoak.

1.672. Arropa garbitzea eta labaderoa (LEZ-092/033)

Arropa garbitzeko modua. Amak astelehenetan egiten zuen gobara. Aurretik, amak kopetak egiten zizkion. Labaderora ere joaten ziren emakumeak, baina beraiek jolastera joaten ziren bakarrik, baratza ondoan zutelako. Non zegoen esaten du eta nolakoa zen.

1.673. Lehenengo garbigailua eta lurra garbitzeko modua (LEZ-092/034)

Ama gaixotu zenean jarri zuten lehenengo labadora. Ez zuen zentrifugatzen. Sukaldeko eta eskilaretako lurra garbitzeko modua azaltzen du, belauniko jarri eta eskobilarekin. Egurrezko zoruak, berriz, argizariarekin.

1.674. Kalean arraina eta izotza saltzen (LEZ-092/035)

Emakumeek buru gainean eramaten zituzten saskiak eta baldeak. Arraina saltzen zutenak ere halaxe ibiltzen ziren. Arrain saltzaileak kalean ibiltzen ziren. Izotza ere kalean saltzen zuten. Orduko hozkailuak eta freskerak.

1.675. Etxeetan ateak irekita (LEZ-092/036)

Bizilagunekin zuten harremana. Ateak irekita egoten ziren, umea zenean. Sotoko atea giltzaz itxi behar izatea ere ezagutu du.

1.676. Lehengo Lezo eta oraingoa konparatzen (LEZ-092/037)

Lezo asko hazi da, asko eraiki da eta giroa ere asko aldatu da. Orain tailer gehiago daude. Umetan ez ziren konturatzen euskararen balioaz. Eskolako lagunekin gaztelaniaz egiten zuen, etxean euskaraz hitz egin arren denek. Orain euskara gehiago baloratzen da.

1.677. Hezkuntza lehen eta orain (LEZ-092/038)

Hezkuntza lehen eta orain. Irakasle hasi zenean, 40 umerekin, etxera bakarrik joaten ziren hiru urterekin. Ikasmateriala beraiek sortzen zuten: fotokopiak egiten zituzten. "Xabiertxo" ez zuten asko erabili.

1.678. Hekuntza lehen eta orain II (LEZ-092/039)

Ikastaroak egiten zituzten irakasleek, eta euskarako plangintzak ere egin zituzten. 1973-74 inguruan hasi zen Guraso Elkarte eskolan, eta ordurako sei bat irakasle zeuden.

1.679. Antzerkia eta komediantek (LEZ-092/040)

Patri Urkizu idazlea bere lehengusua da, antzerkian aditua. Batzokia zegoen berak bizi ziren etxean eta gerra aureran antzerkia egiten zuten. Seminaristek ere antzerkia egiten zuten, dotrina ematen zen tokian. Komediantek ere joaten ziren udan herriko plazara: pailazoak, malabaristak... Aulkiarekin joaten ziren etxetik.

1.680. Ikastola eta herri eskola (LEZ-092/042)

Ikastolaren sorrerak ez zuen lehiarik ekarri. Ez ei zegoen herritar guztien eskura, ordaindu egin behar zelako. Herri eskola, berriz, debalde zen. Ikastola fuerte hasterako Guraso Elkarte eskola herri eskolarekin batuta zegoen.

1.681. Zuzendari herri eskolan (LEZ-092/043)

Zuzendari moduan bederatzi urte egin ditu herri eskolan, erretiroa hartu arte. Abantailak eta desabantailak ditu herriko jendea ezagutzeak.

1.682. Herri eskola lehen eta orain (LEZ-092/044)

Herri eskolak lehen gehiago parte hartzen zuen herrian. Militantziatik asko zeukan. Irakasleak orain ez dira lan orduak amaitutakoan geratzen. "Inmertsio" planak ondo funtzionatu zuen gaztelaniarekin, eta orain etorkinak dira erronka berria: beste hizkuntza eta ohitura batzuk... Gaur egungo gurasoek lehengoek baino mesfidantza gehiago dute.

1.683. Miura baserrikoa (LEZ-093/002)

Ama Lopenekoa eta aita Miura baserrikoa. Zazpi senide ziren. Bera seigarrena eta 22 hilabete zituela aita hil zen papeleran istripuz. 19 senide bizi izan ziren baserrian.

1.684. Eskolatik atera eta baserriko lanetara (LEZ-093/003)

Baserrian laguntzen eta traba egiten. Han ibiltzen zen umetan; animaliei janaria ematen, belarra biltzen... Jolastu ere asko egiten zuten: "potoketan" eta futboleak.

1.685. 14 urterekin Bretxako harategi batera lanera (LEZ-093/004)

Erreterriara oinez, eta trolebusa hartu eta Donostiara.

1.686. Zazpi senidetan seigarrena (LEZ-093/005)

Aitak fabrika txandaka lan egiten zuen eta baserrian ere bai, aitonak laguntzen zion. Fruta eta barazkiak saltzera amonarekin joaten zen plazara.

1.687. Etxean errosarioa errezatzen (LEZ-093/007)

Egunero ez, baina neguan batez ere, babarruna aletzen aritzen zen bitartean amona errosarioa errezatzen aritzen zen.

1.688. Umetan jostailurik ez ia (LEZ-093/008)

Erregeei baloia eskatzen zieten beti, eta hirugarren egunerako zulatuta egon ohi zen.

1.689. Baserriko animaliak ez zituzten saltzen (LEZ-093/009)

Oiloak, txerriak, untxia eta abar izaten zituzten, baina haiek jateko. Ez zituzten saltzen.

1.690. Txerria hiltzeko moduak (LEZ-093/010)

Txerria hiltzeko odolusten zuten eta erraza zen. Albaitariari mingain puska bat eramaten zitzaion eskertzeko.

1.691. Txerria hil eta zer trataera eman (LEZ-093/012)

Gaztetan, txerria hil ondoren, gordetzeko gatzatu egiten zen, orain izozkailuan sartzen da.

1.692. Odolkiari kanela eta piper beltza (LEZ-093/013)

Amak egiten zituen odolkiak. Oso esku ona zuen eta toki askotan egiten zituen: urdaila, tipula odola eta espeziak erabiltzen zituen.

1.693. Argia betidanik ezagutu du baserrian (LEZ-093/014)

Haize kolpearekin maiz joaten bazen ere, argia bazuten. Irratia nola ekarri zuen osabak gogoratzen du, 7 edo 8 urte zituela.

1.694. Higatze lanetan umetan besteak beste (LEZ-093/015)

Denetarik egiten zuten baserriko lanetan laguntzeko. Gurdia irauli eta horrelakoak gertatzen zitzaizkien.

1.695. Eguneroko otordua: babarrun gorria (LEZ-093/016)

Asteko egun guztietan babarrun gorriak jaten zituzten eta igandetan garbantzuak. Tarteka lentejak eta babarrun txuriak. Gazta gutxi, esnea saldu egin behar zen eta. Arrain asko izaten zen orduan.

1.696. Amona Errenteriara saltzera (LEZ-093/017)

Amonak postu iraunkorrik ez zeukan plazan. Hala ere, astoarekin oinez joaten zen eta etxek norbait eramaten zuen laguntzeko txandaka.

1.697. Merkatuan eskolan baino gusturago (LEZ-093/018)

Eskolan gaztelaniaz egin beharra zegoen eta ez zitzaion batere gustatzen. Irakasle batzuk oso gogorak eta beste batzuk oso alaiak ziren.

1.698. "Caseros" deitzen zieten baina burlarik ez (LEZ-093/019)

"Casero" orain arte deitu diote. Baina ez du burla moduan hartu. Ez zuen hala ere atzera egiten.

1.699. Igandetan futbola antolatzen (LEZ-093/020)

"Caseros" eta kaletarren arteko futbol partidak egiten zituzten. Kaletarrek futboleant irabazten zieten, baina ostikoka ez.

1.700. Mezetara igandero, gero futbolera jolastera (LEZ-093/021)

Aguro xamar utzi zion mezetara joateari, baina bestela, igandero joan beharra zegoen. Dotrina ikastera ere igande arratsaldero joaten ziren.

1.701. Igandetan ere baserriko lanak (LEZ-093/022)

Igandetan baserriko lan gutxiago egiten zituzten. Behiei jana eman eta horrelakoak.

1.702. Lanean ari zenean igandeak Alamedan (LEZ-093/023)

Errenterian, dantzatokietan, Lesakan, Donostiako Perlán ere ibiltzen ziren kotxea gidatzeko baimena atera ondoren.

1.703. Hamalau urterekin harakin Bretxan (LEZ-093/024)

Labana manejatzen ikasten eta enkarguak egiten pasatzen zuen eguna. Asko aldatu dira lan egiteko moduak.

1.704. Haragia erosteko moduak erabat aldaturik (LEZ-093/025)

Askoz ere haragi gutxiago saltzen da orain, jendeak ere ez du etxean bazkaltzen eta. Bizimodua asko aldatu da.

1.705. Gibela lehen asko saltzen zen (LEZ-093/026)

Harategian astean bi edo hiru gibel saltzen zituen. Orain berriz, jendeari nazka ematen dio.

1.706. Harategirako baserriko haragia (LEZ-093/027)

Errenteriako hiltegira eramaten zituen baserritarrek haragitarako erosten zizkion abereak.

1.707. Harakin lana oso lotua, eta zer ez? (LEZ-093/028)

Harakinak denda beti irekita eduki behar zuen. Larunbatetan laurak arte gutxienez lan egiten zuen, gero itxi eta dena garbitu.. Baina lehen lana beti zen lotua. 10 edo 12 orduz lan egitea zen ohikoa.

1.708. Baserritik egun ez da inor bizi Lezon (LEZ-093/030)

Lezo baserritar jendez beteta zegoen, baserrian eta kanpoan lan egiten zuen jendeaz. Orain ez. Harategiak ere, orain bi bakarrik daude eta jabe bera dute.

1.709. Lehengo bezeroa oso fidela zen (LEZ-093/031)

Lehengo bezeroak beti leku berean erosten zuen. Orain modu desberdinean erosten da: egun batean hemen eta beste batean han.

1.710. Hika beti, baina gaizki ikusita ere egon da (LEZ-093/033)

Oraindik hika jarduten du, nahiz eta batzuei gustatu ez. Beti mutilekin egin du hikaz. Emakumeak ez ditu hikaz entzun ez lehen eta ez orain.

1.711. Lezoko euskara desberdina da (LEZ-093/034)

Oiartzungo euskara baserritar hizkera da eta Lezokoak nahasketa dauka. Errenteriakoa eta Lezokoa antzekoak dira.

1.712. Amonak, berak baino hobeto euskaraz (LEZ-093/035)

Amonak asko irakurtzen zuen euskaraz eta oso ongi egiten zuen. Liburu zaharrak eta ahal zituenak irakurtzen zituen nahiz eta eskolara inoiz joan ez.

1.713. Amonarekin kantuan (LEZ-093/036)

Amona bizi zen bitartean asko kantatzen zuten, ospakizun guztietan mahaitik altxa baino lehen, beti abesten zuten.

1.714. Umetako etxe ingurua (LEZ-094/002)

Egun eraikinak badaude ere, bere ume denboran mendian sasia eta masustak biltzen zituen Lezo Handi deitzen zen lekuan. "Llagas de Jesús" izeneko loreak ez ditu berriz inoiz ikusi.

1.715. Lagun gutxi zituen eta osaba apaiza eskolan irakasle (LEZ-094/003)

Oso azkar ikasten zituen eskolako gauzak, baina osaba apaizak ez zion uzten laguneren artean mutilik izaten.

1.716. Kalera bizitzera jaitsi zirenean haur jokoak ere aldatu ziren (LEZ-094/004)

Txingoka jolasean ibiltzen ziren klerarekin eta gaztelaniaz hitz egiten ez bazuen ere, dena ulertzen zuen. Herrerara joan arte ez zuen ikasi.

1.717. Herrerara bizitzera joan eta bertan hasi zen mutilekin kaleko jolasetan (LEZ-094/005)

Kaniketan, poxpolo kaxekin, santotan... jolasean ibiltzen zen.

1.718. 'Zapata takoiaren' jolasa (LEZ-094/006)

Margarik zapata zaharrei takokia kendu eta nola jolasten zen kontatuko du.

1.719. Hiru urterekin eskolan alfabetoa abesten (LEZ-094/007)

Agustiñaren eskolan hiru urterekin "Aita Guria" ikasi zuen, alfabetoa ere... oraindik doinuak gogoratzen ditu.

1.720. Agustiña andereñoaren inguruko oroitzapenak (LEZ-094/008)

Hiru urte zituenean izan zuen irakasleak beti berdina erakusten zien eta beti beltzez jantzita joaten zen. Makila eskuan zeramala eta euskalduna zela gogoratzen du.

1.721. Eskola publikoan hasi baino lehen irakurtzen jakin (LEZ-094/009)

Osabak erakutsi zion irakurtzen eskola publikora joan baino lehen, eta denak harrituta uzten zituen Arantzazuko egutegia irakurtzen zuenean.

1.722. Eskola publikoan dena gaztelaniaz (LEZ-094/010)

Eskola publikoan hasi zen Herreran, euskaraz bakarrik zekiela eta gaztelaniaz ezer jakin eta ulertu gabe.

1.723. Eskolan "Cara al Sol" oso azkar ikasi zuen (LEZ-094/011)

"Cara al Sol" erakutsi zien erreketek. Maistrari esan zion Margari jarri behar zuela gelakoan aurrean eta bera jarraituz gelako guztiek abestu.

1.724. Errekreoan etxera bitaminak hartzera (LEZ-094/013)

Oso zapore txarreko "reconstituyente" bat hartzera etxera joan behar izaten zuen eta hortan joaten zitzaion errekreo osoa bere amorrurako.

1.725. Eskolan hegazkinen zarata entzutean, mahai azpira sartzen ziren (LEZ-094/015)

Errepublikako sinboloak erretzen ikusi zituen, udaletxetik kenduta. Osabak esaten zion: "besteek 'Viva España' esatean, zu ixilik".

1.726. Osaba nazionalista zen (LEZ-094/016)

"Poxpolin" aldizkaria ekartzen zion aitak igandetan. Aitaren eskutik Batzokira eta sagardotegira joaten zen.

1.727. Batzokiaren eraikina oraindik ere hor dago (LEZ-094/018)

Orain taberna dagoen lekuan zegoen Batzokia.

1.728. Batzokian kantatzen eta antzerkiak ikusten (LEZ-094/019)

Aitak antzerki asko agiten zituen, tenorea zen eta oso ongi abesten zuen.

1.729. Lanpernak eta angulak jaten zituen (LEZ-094/020)

Ettxetik platerakin jaitsi eta lanperna beroak eta angulak saltzen zituenari erosten zizkioten.

1.730. Lezon behar zuen guztia zeukan eta eskatzen zuena ematen zioten (LEZ-094/021)

Eskolarako nahi zituen kapritxo guztiak erosten zizkion osabak. Lagunei ikusitakoak eta beste.

1.731. Bi osaba apaiz (LEZ-094/022)

Pena handia gelditu zaio, osaba zahartu zenean, apaizek zuten zentru batera eraman eta bisitatu ez zuelako.

1.732. Osaba "cura-torero" eta "muy lanzau" (LEZ-094/023)

Beste osaba apaiza "txoro-fronton" zela dio. San Juaneko parrandari ez zion ezetzik esaten.

1.733. Aita beti bere anai batekin ibiltzen zen eta sagardotegi zalea zen oso (LEZ-094/024)

Aitak anaia bat zuen oso maitea, baina beste anai arreben betebeharren aurrean beti laguntzeko prest zegoen.

1.734. Aita Lezoko korrespontsala zen (LEZ-094/025)

Ez bada ongi gogoratzen ere, aitak "La Voz de Guipúzcoa" edo "El Pueblo Vasco" egunkarietan lanean jardun zuela uste du.

1.735. Aitak bertsoak eta poemak idazten zituen (LEZ-094/027)

Margaritak bertso bat egin zion gaixorik zegoen osabari. Hiletako bere oroigarrietan jarri zutenean txundituta irakurri zuen.

1.736. Berak idatzitako bertsoa (LEZ-094/028)

Margarik berak idatzitako bertsoa kantatuko du.

1.737. Aita eta bere bi anaiak poetak ziren (LEZ-094/030)

Garbizu abizenarekin hitz joko bat eginez, aita eta bere bi anaiei "hiru zubi" esaten zieten. Hiru anaia poeta zirela adierazteko.

1.738. Aitak "Zubigar" ezizenarekin sinatzen zituen poemak (LEZ-094/031)

Oso bertso hunkigarriak idazten zituen aitak.

1.739. Anaientzat egindako bertsoak (LEZ-094/032)

Harategiko bi anaiei egin zien bertsoa.

1.740. Sagardotegia etxe ondoan (LEZ-094/033)

Umetan sagardotegira aitarekin joaten zenekoa

1.741. Sagardotegietan bertsolaririk ez (LEZ-094/034)

Sagardotegian aitak maiz abesten zuen. Etxeko balkoitik ere bai, eta jende asko biltzen zen bera entzutera.

1.742. "Trainerua kaiera" (LEZ-094/035)

"Trainerua kaiera" kanta oso osorik gogoratu eta abestuko du.

1.743. Aita kantari trebea (LEZ-094/036)

Aitak nota altuenak ere oso ongi abesten zituen. Berak ere harrapatzen zuen baina egun galdua dauka.

1.744. Sagardotegi mordoa eta denetan zutik (LEZ-094/037)

Sagardotegietan kupelak eta barrika txikiak gogoratzen ditu eta aita kantatzen sagardotegiz sagardotegi ibiltzen zen.

1.745. Elizako kankak ziren gehien abesten zirenak (LEZ-094/038)

Aitak kantatu bai baina bertsotan ez zuen jarduten. Idatzi egiten zituen bakarrik.

1.746. Emakume bertsolaririk ez (LEZ-094/039)

Berak ez du bertsolaritzat hartzen bere burua. Ez zuen emakume bertsolaririk ezagutu.

1.747. Apaiza ingurutik ez zen atera (LEZ-094/041)

Lagunen artean mutilak izateko aukera gutxi izan zituen.

1.748. Hamahiru senidetan zaharrena (LEZ-094/042)

Lezon aberatsak bezala bizi izan baziren ere, Herreran, hainbeste anai-arreba atzetik izanda, gordinak ikusi zituen.

1.749. Kromoak biltzeko nahiko lan (LEZ-094/043)

Suchard txokolatearen kromo bilduma egiten saiatu zen.

1.750. Lezotik Herrerara (LEZ-094/044)

Lehendabizi kalera jaitsi ziren bizitzera, portutik gertu, baina gero urrutiago joan ziren. Eskolara joateari laster utzi zion.

1.751. Maistrak asko maite zuen (LEZ-094/045)

Maistrak "Corte y Confección" liburu bat idatzi zuen eta Margariren amari arratsaldetan joaten uzteko baimena eskatu zion. Oso letra polita zuen.

1.752. Maistraren liburua oilategian (LEZ-094/046)

Maistrak oparitutako liburuak oilategian bukatu zuen.

1.753. Aitak kaiko baskulan lan (LEZ-094/047)

Lehendabizi Herreran topoan bertan zegoen baskula, gero kaira eraman zuten. Ikatzez betetako kamioiak pisatzen zituzten. Ilara luzeak egiten ziren.

1.754. Gerra denboran kamioietatik platanoak eta kokoak hartzen zituzten (LEZ-094/048)

Kamioak aldapa gora joaten zirenean Trintxerpetik Donostia aldera, motel joaten zirela aprobeztatuz, janaria hartzen zuen jendeak.

1.755. Gose handia gazte garaian (LEZ-094/049)

12 errazionamendu zegozkien 12 senide zirelako. Apaiz bati esker ordea, beste bi gehiago lortzen zituzten. 14 errazionamendurekin moldatzen ziren goserik ez pasatzeko.

1.756. Bertso bat idatzi dio haur baten esperoan dagoen ilobari (LEZ-095/002)

Haurra izan behar duela eta ilobari idatzitako bertsoa abesten du Margaritak.

1.757. Eskolan gutxi ibili zen, baina bandera española jartzea tokatzen zitzaion (LEZ-095/004)

Batzuentzako "repasa" zena, beretzat "aprender" izaten zen, ezin zelako egunero joan eskolara. Buruz ikasten zuen dena eta ez zion ezertarako balio izan.

1.758. Goxoxorruak zer ziren (LEZ-095/005)

Soineko dotorea jantzita goxoxorruan bila bidaltzen zuen amak eta eskolako eskulanak ongien egiten zituenak ere saritzat izaten zituen. Goxokiak eta globoak izaten zituen goxoxorroak.

1.759. Eskolara joateari utzi eta kalderaka arropa garbitu behar (LEZ-095/006)

Ama errazionamendua ekartzera joaten zen bitartean, etxeko lanak egin behar izaten zituen.

1.760. Ahal zuen moduan anai-arrebak zaintzen (LEZ-095/007)

Hiru anaia jarraian izan zituen eta haiekin anai-arreba txikiagoak zaintzen zituen. Hamaika antzerki asmatu zituen denak eserita egoteko.

1.761. Hamaika anai-arreba zaintzea asko da (LEZ-095/008)

Ahal zena egin behar zen. Lezon oso ongi bizi izan zen baina Herreran makina tristura pasatakoa da.

1.762. Gerra zibilean gaizki pasa zuten, baina goserik ez (LEZ-095/010)

Jendea marmitarekin eltzekoaren bila joaten zela gogoratzen du eta baratzean zegoela aza ostoa nola eskatzen zizkieten ere bai. 13 urterekin sagardotegira neskame joan behar izan zuen San Pedrora.

1.763. San Pedroren alde beti egongo da (LEZ-095/011)

San Pedroko patroia (Aita Manuel) sagardotegira joaten zenean, ez zion kobratzen.

1.764. Sagardotegira arratsaldero joaten zirenak (LEZ-095/012)

Terranovatik ekarritako nailonezko galtzerdiak oparitu zizkion arrantzale batek sagardotegian 13 urterekin lanean ari zela.

1.765. Sagardotegian bertan egoten zen jendea eta etxera ere eramaten zuten sagardoa (LEZ-095/013)

Sagardo bila sagardotegietara bertan eserita egotera baino gehiago joaten ziren.

1.766. Sagardotegian lanean denbora gutxi (LEZ-095/014)

13 urte zituela sagardotegiko aitona bere gelara sartzen hasi zen gauetan.

1.767. Osaba bat San Pedron organista zuen (LEZ-095/016)

Pasai San Pedro oso maitea zuen bere familiak eta bazituzten San Juanekoekin beren ika-mikak.

1.768. Lana sagardotegian bai, baina xoxik berari ez. (LEZ-095/018)

13 urte zituela sagardotegian irabazten zuena amari ematen zioten sagardotegian bertan.

1.769. "Kontadore" fabrikan hasi zen lanean 14 urterekin (LEZ-095/019)

Gazteegia bazen ere "Kontadore" fabrikan jarduteko, aitaren laguna zen apaizari esker lortu zuen lanpostua. Astean 3 pezeta irabazten zituen. 14 urtetatik 27 urteak bete arte egon zen bertan lanean.

1.770. "Kalabazak" eman zizkion enkargatu bati eta gero lan txarrenak jartzen zizkion (LEZ-095/020)

Enkargatu batek lehendabizi bonboiak uzten zizkion kaxoian. Gero berarekin dantza egiteari uko egin zionean lanik zailenak jartzen zizkion.

1.771. "Kontadore" fabrikako lana (LEZ-095/021)

Hasieran, lantegian, errusiarrek bonbak egiteko behar zituzten pieza txiki batzuk egiten zituen. Gero enkargatua haserretu zitzaionean, ura kontatzeko makinei lima pasatzen eta kaxak kargatzen aritzen zen.

1.772. Gehiegi hitz egiteagatik lantegian 12 pezetako isuna (LEZ-095/022)

Amari soldata osoa eman behar bazion ere, bazuen batzuetan beretzako diru pixka bat irabazteko aukera, eta hortik ordaindu zuen isuna.

1.773. "Sábado Inglés": goizean lan eta arratsaldean jai (LEZ-095/023)

Larunbatean lanetik atera eta bermutak hartzera joaten ziren.

1.774. 27 urterekin ezkondu eta fabrikako lana utzi (LEZ-095/024)

Penaz kontatzen du ezkondu eta fabrika utzi beharra. Organistak kantatu zuen bere ezkontzan: "ezkongaietan zerbait banintzan, ezkondu eta ezer ez"... Eta bera askotan gogoratu zen hitz horietaz.

1.775. Senarra langile itzela zen baina... (LEZ-095/025)

Senarra langilea oso, baina ez zen euskalduna, horrek asko pasarazi zizkiola kontatzen du.

1.776. Osabak kartzeletik ihes egin zuen (LEZ-095/026)

Tomás Garbizu osabak muga pasa zuen kartzelatik ihes eginda eta Donibane Lohitzunen bizi izan zen denbora askoan. Organista eta konpositore famatua izan zen.

1.777. Herreran Batzokirik ez, desfile falangistak bai (LEZ-095/027)

Igandetako meza bukatuta falangistaz jantzita ibiltzen ziren Herreran neska eta mutilak desfilatzen.

1.778. Emakumeak ere ibiltzen ziren Batzokian (LEZ-095/028)

Amaren bi lagun asko ibiltzen ziren Batzokian, amak aldiz, hainbeste umerekin oso zaila zuen.

1.779. Dantza Lezoko plazan egiten zuten poxpolinek (LEZ-095/029)

Dantzariak ikurrina nola pasatzen zuten denak makurtuta zeuden bitartean oso ongi gogoratzen du. Zezenak ere egoten ziren plazan.

1.780. Pasai Antxoko zezenketak (LEZ-095/030)

Oso gustukuak ditu oraindik zezenak, bere aitarengandik jaso du zaletasuna.

1.781. Osaba Liboriok pilota partidak irabazten zituen sotana jantzita (LEZ-095/031)

Lezon, garai batean, frontoia plazan bertan zegoen eta bertako tabernara igandero aberats asko joaten zen. "Indione" izena zuen.

1.782. Apaidinak ez zion kasurik egiten, amaidinak bai (LEZ-095/032)

San Markos eguneko opilik ederrena, amaidinak eginda, berak eramaten zuena zen. Izena ere Margarita amaidinarena zuen.

1.783. San Markos opila bere izen eta guzti, amaidinak prestatuta (LEZ-095/033)

San Markos eguna apirilaren 25ean ospatzen da. Umetan elizara joaten ziren opila eskutan zutela. Bertan lurrean uzten zuten eta gero etxean jan.

1.784. San Markos opila nola egiten zuen (LEZ-095/034)

San Markos opila besoetako haurrari oparitzen zitzaion, urte bakoitzeko arrautza bat jarriaz.

1.785. Amaren etxean jaio (LEZ-096/002)

Ama Lezokoa zuen, Itturri baserrikoa. Aita, berriz, Urnietakoa. Gurasoak baserritik bizi ziren.

1.786. Rezola sagardotegia ireki (LEZ-096/003)

Enpresa batean aritu zen lanean, baina baserriko bizimodua faltan zuela eta, Astigarragako Rezola sagardotegian hasi zen lanean.

1.787. Gaur egun sagardogintza errazagoa da (LEZ-096/004)

Hasiera batean tolare txiki bat zuen, baina ondoren handiagoa eraiki zuen. Denborarekin sagardogintza egiteko makinak erosi ditu, eta errazagoa da horrela.

1.788. Bertsolaritza eta aintzinako tresnak zaletasun (LEZ-096/005)

Bertsolaritza zaletasunetako bat du, baina baita garai bateko tresneria ere. Bizimodua asko aldatu da. Sagardogintza gaur egun.

1.789. Euskalkiak jatorria adierazi (LEZ-096/006)

Txikitatik euskaraz egin du Felixek, eta sagardogintza munduan euskara mantentzen dela dio. Gaur egun, ordea, tokian tokiko hizkerak ez ditu bereizten, eta ezin asma dezake euskaragatik norbera nongoa den.

1.790. Lezoko baserritarrei burla (LEZ-096/008)

Lezon auzo txiki batean bizi zenez, auzoan bertan ez zuen euskararen kontrako zigorraren eraginik nabaritu. Herrian, ordea, baserritarrei burla egiten zitzairen.

1.791. Bertsotan aitek erakutsi (LEZ-096/009)

Aitek bertsotan erakutsi zion, lagunartean, parrandan, bazkarietan... bertsotan hasten baitzen hura.

1.792. Bertsoa eta bertsolaritza (LEZ-096/011)

Elkarriketatzailerei bertsoa. Garai bateko bertsolaritza. Esanahi handiko bertsoa botatzea da zailena.

1.793. Guraso biak lezoarrak (LEZ-097/003)

Guraso biak Lezokoak zituen. Aita, Patrizio Urkizu Maritxalar. Ama, Maria Luisa Sarasua Leunda. Aitaren ama Goizuetakoa zen. Amaren aita, ordea Urrestillakoa.

1.794. Gerra garaian aita erbestera (LEZ-097/004)

Arotza zen aita, eta kaletarra. Ama, ordea, Olatzar baserrikoa zuen. Kaleko etxea lantegi askoren ondoan zegoen, Lezoko sarreran. Gerra garaian aitek erbestera joan behar izan zuen, abertzale izanagatik.

1.795. 'Zoazte hemendik' (LEZ-097/005)

Herritarrek herriko bikarioa babestu zuten anarkistengandik, harik eta bikarioak alde egiteko esan zioten arte. Babesle horietako bat zen Patri Urkizuren aita. Istorio hau 'Zoazte hemendik' liburuan jaso zuen Patrik. Amak zaindu zituen umeak, Margarita izebaren laguntzaz, zeinak Errenteriako manta fabrikari egiten zuen lan.

1.796. Lezo: soroak eta industria (LEZ-097/007)

Oso herri txikia zen Lezo, zelaiz eta baserriz beterikoa. Baserrietako bidea industriad zetoa zegoen. Gereziak jatera joaten ziren umetan baserriz baserri.

1.797. Arantza Berasarteren ikasle (LEZ-097/008)

Patri ez zen eskola nazionalera joan. Arantza Berasarte izeneko emakumeak haren etxe azpian zuen eskola. Harengana joan zen Patri 5-11 urte bitartean. Eskola librea zen hau, eta azterketak Donostian egiten zituzten. Dena erdaraz egiten zuten eskolan. Apaizak dotrina irakasten zien, euskaraz.

1.798. Zornotzan eta Erriberan fraidegai (LEZ-097/009)

Hamaika urterekin Mariaren Bihotza ikastetxera joan zen Patri, Donostiara. Batxillergoa egin zuen bertan. Ondoren, karmeldarrekin 4 urte eman zituen fraidegai, Zornotzan eta Erriberan. Ikasketak klasikoak ziren batik bat.

1.799. Lezoko euskara, goi-nafarrera (LEZ-097/010)

Hautzaroraren zati handi bat kanpoan pasa duenez, Lezoko hizkera galdu duela dio. Lezo eta Erretereriako euskara oso antzekoa da, Oiartzungoa ez hainbeste.

1.800. Erretereriako Madalen sariketan bigarren postua (LEZ-097/011)

Aita oso abertzalea zen, ama familia karlista bateko kide. Aitak haren memoriak bertsoan utzi zituen idatzita. Erretereriako Madalen sariketako bigarren saria irabazi zuen Patrik. Jose Manuel Toledo izeneko gizonak bultzatuta hasi zen euskaraz idazten.

1.801. Ibilbide akademikoa (LEZ-097/012)

Ingeniaritza ikasketak hasi zituen Madrilen 1964an, bekadun bezala. Manuel Odriozola apaiz abertzalearekin egin zuen topo han, eta hark proposatu zion euskara eskolak ematea. Lezoko gurasoen elkarteko euskara irakasle ere izan zen. Euskal Filologia ikastea erabaki, eta Salamankara joan zen Koldo Mitxelenaren ikasle izatera. Horrela, Filologia Erromanikoa atera zuen.

1.802. Euskara Batua eta 'h' (LEZ-097/013)

Koldo Mitxelenari buruzkoak. 1968an idatzitako txostena idatzi zuen Euskara Batuaren inguruan, jende askok ulertu ez zuena. H hizkiaren gatazka. Villasantek Axularren eredia jarraitzeko proposatu zuen, baina Altunak kontra egin zuen, Axularren ordezkari Mitxelena eredutzat proposatu zuen, euskara modernoago bat bilatzen baitzuen. Egan aldizkaria.

1.803. Euskara Batuaren gatazka (LEZ-097/015)

Arantzazuko biltzarrean egon zen Patri. Euskara Batua sortzeko literatur eredia aukeratzea ez zen erraza izan, batzuek literatur tradizioari heldu nahi zioten, aurretik Euskara Batu baten saiakera egon baitzen. Bestetik, beste batzuen iritziz datu soziolinguistikoetan oinarriturik beharko luke Euskara Batuak, ez literatur tradizioan. Lehentasuna elkar ulertzeari eman nahi zioten batzuek.

1.804. Idazteko zaletasuna, nondik? (LEZ-097/017)

Aitaren eraginez datorkiola uste du Patrik, aita beti izan baitzen literatur zalea, bertsoak idazten zituen egun berezietan. Ikasketen bidez ere garatu zuen zaletasun hau. Bilbon Miguel de Unamuno lehiaketara ipuina aurkeztu eta irabazi egin zuen behin. Peñafloida institutuan lankide zuen apaiz batek lupa bat oparitu zion, eta eskuizkribuak begiratzeko hasi zen handik aurrera. Hortik jaio zen haren tesia.

1.805. Pierre d'Urterri buruzko tesia (LEZ-097/018)

Koldo Mitxelenak zuzenduta, Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztu zuen Patrik haren tesia, Donibane Lohitzuneko Pierre d'Urterri buruzkoa. Kalotiko izatetik protestante izatera pasa zen d'Urte, eta Ingalaterrara egin zuen ihes. Bertako hizkuntzalariekin elkartu, eta Testamentu Zaharra itzultzen hasi zen, euskarazko gramatika bat idatzi zuen frantsesez, baita euskara-latina hiztegi bat ere.

1.806. Insitutuko irakasle izateko katedra eskuratu (LEZ-097/019)

Tesia egin aurretik, irakasle moduan ari zela Erreterian, institutuko irakasle izateko katedrak atera ziren 1979an, eta Patrik horietako bat eskuratu zuen. Haritzelarrekin Bordelera joan zen gero, eta han amaitu zuen tesia. Ondoren, UNEDen lan egitea eskaini zioten, Madrilen, materialaren sorkunzan. Han eman ditu bere bizitzako 22 urte.

1.807. Antzerkizalea gaztetatik (LEZ-097/021)

Apaizgai eskolan zaletu zen antzerkiarekin. Izan ere, antzerkiak irakurtzen zituzten eskoletan. Madrilen ere antzerki lanak ikasi zituzten. XX. mendeko antzerkigintzari buruz ere idatzi zuen, argitaratu gabeko testuak argitaratu zituen, batzuk Antzerti aldizkarian. Hamabi bat pastoral ere argitaratu ditu, XVIII. mendekoak.

1.808. Errepublika garaian antzerkia eta Maria Dolores Agirre (LEZ-097/023)

Errepublika garaian, euskal antzerkiaren loraldia gertatu zen, asko eta asko idatzi baitzen. 1932an, zehazki, azterketa gogor batzuk gainditu eta Maria Dolores Agirrek Euskal Iztundeko zuzendari postua eskuratu zuen. Lan asko euskaratu zituen, baita erdarara itzuli ere. Euskara irakasle gisa ere jardun zuen.

1.809. Maria Dolores Agirrerri buruzkoak I (LEZ-097/025)

Errezilen jaio zen Mara Dolores Agirre. Anaia idazlea zuen, Uztaro nobela argitaratu zuen 1937an. Gazteak zirenean astoak lagunduta Tolosan saltzen zuten tratua, eta irabazitakoarekin bertso-paperak erosten zituzten. Maistra ikasketak egin zituen Donostian, lehenengo emakumeetako izan zen ikasketa hauek egiten. Basarrirekin batera irratsaio bat egiten zuen Radio San Sebastian irratan.

1.810. Maria Dolores Agirrerri buruzkoak II (LEZ-097/026)

1953tik aurrera Euskal Iztundearen zuzendari izan zen Maria Dolores Agirre. Urte osoko lana San Tomas eguneko antzezlanean erakusten zuten. Hogeita sei antzerki lan egin zituzten guztira, zortzi gaztelaniaz. Lan horien artean fama handiko jendearen antzezlanak zeuden. Beste asko obra itzuliak ziren, Maria Dolores Agirrek berak itzulitakoak. Jarrai antzerki taldea ere bazen Donostian.

1.811. Maria Dolores Agirrek gerraostean saria irabazi (LEZ-097/028)

Azpeitiko Nekazari Elkartek lehenengo antzerki sariketa antolatu zuen 1949an, eta sari bat irabazi zuen Mari Dolores Agirrek, hark idatzitako lan batekin. Bakarriketa bat zen lan honen oinarria, emakume baserritar bat protagonista duena.

1.812. Basarrik Maria Doloresi eskainitako bertsoa (LEZ-097/030)

Basarrik Maria Doloresen omenez egindako bertsoa.

1.813. Antzerki-munduko jendea ezagutu zuen (LEZ-097/032)

Eugenio Arozena eta beste hainbatekin egon zen Patri antzerki sariketetan, eta modu honetan jende ezagun asko ezagutu zuen, tartean Maria Dolores Agirre, Antonio Maria Labaien eta Piarres Lartzabal. Maria Dolores Agirre Urbietan kalean bizi zen, oso emakume azkarra eta goxoa omen zen.

1.814. Euskal Iztundearen katedra (LEZ-097/034)

1913an Barriola zinegotziak 'lengua y declamacion vasca' (Euskal Iztundea) izeneko katedra ateratzea lortu zuen, non udalak antzerki eskola bat irekitzea jasotzen zen. Jende asko aurkeztu zen katedra hori eskuratzeko, Toribio altzagak eskuratu zuen. Antzezlan asko egiten zituzten, hamaika tokitan. Batik bat Ramuntxo antzezlanaren egin zen ezagunena. Katedra, hasiera batean, Marcelino Soroak eskuratu zuen, honek Toribio Altzagari pasa, eta Maria Dolores Agirreren esku gelditu zen azkenik.

1.815. Toribio Altzagari buruzkoak (LEZ-097/036)

Euskal Iztundearen katedra eskuratu zuen Toribio Altzagak, baina horrez gain, antzerkiak ere idazten zituen. Oso gizon argia omen zen, Macbeth Shakespearren obra itzuli eta antzeztu zuten 1924an.

1.816. Euskal Iztundea eta Jarrai (LEZ-097/038)

Antzerkigintzan jardun zuten Euskal Iztundea eta Jarrai antzerki taldeek, Donostian biak. Gaur egun oraindik argitaratu gabe daude Jarrai antzerki taldeko kideek euskaratutako zenbait lan.

1.817. 70eko hamarkada, antzerki aldetik aberatsa (LEZ-097/040)

1970eko hamarkadan, Madrilen zebilen Patri lanean, UNEDen. Idoia Gereñuk Jarrai antzerki taldeari buruzko tesia egin zuen. Forcadak egiten zizkien eszenatokiak. Jarraikoek, euren lanak aurkezteaz gain, Kataluniatik eta Ingalaterratik antzezleak ere ekartzen zituzten, eta oso lan interesgarriak aurketu zituzten Euskal Herrian.

1.818. Gipuzkoan antzerki-talde asko (LEZ-097/041)

Gipuzkoan antzerki-talde asko zegoen, Lezon ere bazen bat (Ixkulin dio Patrik baina momentuan nahastu egin da: ondoren argitu digunez, Allerru zen orduan zegoen antzerki-taldea). Maria Doloresen 'Txapela bete euri' lana antzeztu zuten hauek. Herriz herri ibiltzen ziren, antzezlanak antzeztan truke. Oiartzunen Intxixu zen taldea.

1.819. Kriseilu antzerki-taldea (LEZ-097/042)

Bilbo aldean bazen antzerki-talde arrakastatsu bat, Kriseilu izena zuena. Jarrai antzerki-taldearekin elkarlanean aritzen ziren, Donostian eta Bilbon aritzen ziren biak, trukean.

1.820. Piarres Lartzabali buruz I (LEZ-097/044)

Sokoan bizi zen, antzerki asko idatzi zituen haren bizian. Larunbatetan Oiartzunera joaten zen afaltzera, eta han antzerki-taldearekin bildu eta hurrengo pausuak erabakitzen zituzten. 'Matalas' izan zen bere obrarik ezagunena.

1.821. Piarres Lartzabali buruz II (LEZ-097/045)

Gerraurrean hasi zen idazten, 'Gure Herria' aldizkarian, 'Antzerti' aldizkarian ere baten bat argitaratu zuen. Bestetik, 'Herria' aldizkarian ere berriak eta albisteak idazten zituen.

1.822. Antonio Maria Labaien (LEZ-097/047)

Tolosarra zen bera, eta antzerkigintzan zeresan handia izan zuen. Alemanieratik euskarara itzuli zituen zenbait lan. Euskal antzerkiaren historiari buruzko liburukiak ere atera zituen. Gerraurreko antzerkigintzaren aita Tolosan. Saran eman zituen zenbait urte, Elvira Zipitriarekin batera.

1.823. Labaien Mitxelenaren ikuspegiaren kontra (LEZ-097/049)

Labaienek gerraostean Koldo Mitxelenarekin zenbait gatazka izan zituen, Mitxelenak Euskara Batua leku askotako ezaugarriekin aberastu behar zela defendatzen baitzuen. Euskara Batuaren kontrako batzan egon zen Labaien.

1.824. Nor zen Katalina Eleizegi? (LEZ-097/051)

Katalina Eleizegi Donostian jaio zen, baina Nafarroan maistra bezala ibili zen lanean. Antzerki mordoa idatzi zuen hark, antzerki historikoak. Katalina Erausori buruz idatzi zuen Eleizegik.

1.825. Katalina Erauso, askatasunaren sinbolo (LEZ-097/052)

Katalina Eleizegik Katalina Erausori buruz idatzi zuen. Lan honen inguruan Patrik duen iritzia jasotzen da pasarte honetan.

1.826. Nemesio Etxanizi buruzkoak (LEZ-097/054)

1963an Vitoria Eugenia Lurdes Iriondo eta lagunekin parte hartu zuen Nemesio Etxanizek, kantuan atera zen. Apaiza zen bera, baina antzerkiaren mundutik ez zen urrun ibili. Antzerkiak, nobelak eta kantak idatzi zituen. Euskal antzerkigintza berritzailearen alde egin zuen hasiera batean, baina gero ez zion Jarrai antzerki-taldearen ildoari jarraitu.

1.827. Nemesio Etxanizi buruzko hainbat artikulua (LEZ-097/056)

Marcelino Soroari eta Nemesio Etxanizi buruzko artikulua idatzi zituen UNEDen lanean ari zenean. Bestetik, Eusko Ikaskuntzan ere aritu zen, Oihenart aldizkariaren buru. Nemesio Etxaniz oso gizon alaia eta interesgarria zen.

1.828. Ez Dok Amairu, abangoardiaren adierazgarri (LEZ-097/058)

Lurdes Iriondo, Laboa, Bidegarai, Benito Lertxundi, Artze... Ez Dok Amairuko kideak aipatzen ditu. Mikel Laboaren lanak aztertzen egon zen Patri hainbat lagunekin, eta Ez Dok Amairu ere tartean zen. Kataluniako eta Europako modernitatea ekarri zuen Euskal Herrira Ez Dok Amairuk.

1.829. Euskal antzerkiaren loraldia eta Antzerti (LEZ-097/060)

Kazetaritzak garrantzi handia hartu zuen XIX eta XX. mendeetan. Euskarazko aldizkariak antzerkiak sartzeko hasi ziren euren argitalpenetan. 'Gure Herria' aldizkaria, 'Euzkadi', 'El dia'... Egunerokotasunean sartzeko hasi zen antzerkia, berriekin eta albisteekin batera. Antonio Maria Labaienek 'Antzerti' aldizkaria sortu zuen, eta bertan bildu zen euskal antzerkiaren loraldia, izan ere, euskarazko edukiak presentzia handia zuen, eta ale bakoitzarekin antzerki bat edo bi zetozten.

1.830. Errepublikaren eragina antzerkigintzan (LEZ-097/062)

Errepublika garaian abertzaletasunak indarra hartu zuen eta antzerkigintzan islatu zen aldaketa hori. Antzerkigintzan jorratutako gaietako bat kostumbrismoa izan zen, senar-emazteen arteko liskarrak, eta abar. Bestetik, abertzaletasunaren gorakadarekin, kostumbrismotik antzerkigintza politiko-sinbolikora egin zen jauzi, non Manu Sota eta Lauaxeta gailendu ziren. Manu Sotak antzerki japonesa ingelesera itzuli zuen, eta gero gaztelaniara. Lauaxetak euskarara itzuli zuen gero. Aberriaren eta hizkuntzaren sinbolismoa jorratzen da bertan.

1.831. Euskal Idazleen Elkarteko zuzendari (LEZ-097/064)

Anjel Lertxudi, Juan San Martin, Jon Mirande... izan ziren Euskal Idazleen Elkarteko aitzindari. Idazleen eskubideak jorratu zituzten hauek 1950ko hamarkadan. 80an, ordea, arau batuzk atera zituzten, eta taldean sartzea eskaini zioten Patriri. 'Hegats' aldizkaria argitaratzen hasi ziren Eusko Jaurilaritzaren onespenearekin. Galeuska. Urtero Galizian, Katalunian eta Euskal Herrian bilerak egiten zituzten, elkar ezagutzeko.

1.832. 'Idazleak eskoletan' programa (LEZ-097/066)

Euskal Idazleen Elkartek zenbait ekintza antolatu zituen euskal literatura ezagutarazteko. Haien artean, 'idazleak eskolan' programa, Eusko Jaurilaritzak diruz lagundu zuena.

1.833. Gerra aurreko mugimendu euskaltzalea eta kulturala (LEZ-098/002)

Gerra aurrean, mugimendu euskaltzale handia zegoen. Errepublikaren garaian Emakume Abertzaleen Batza zabaldu zen. "El Dia", "Euzkadi" eta "Eskualduna" egunkariak aipatzen ditu. "Olerti egunak" eta "Antzerti egunak" antolatu zituzten hainbat aldiz. "Antzerti" aldizkaria ateratzen zuen Antonio Maria Labaienek.

1.834. "Verdes" argitaletxea, gerrarengatik itxitakoa (LEZ-098/003)

Bilbon "Verdes" argitaletxea zegoen. Lauaxetak han argitaratzen zituen bere poesia lanak, esaterako. Donostian ere baziren beste argitaletxe batzuk. Francoren aldekoak Bilbon sartu zirenean, ordura artekoa pikutara joan zela dio. Lauaxeta eta beste hainbat idazle fusilatu zituzten, eta euskarari eta euskal literaturari kalte handia egin zion.

1.835. "Athea gaitzeko oihartzunak", lehen nobela (LEZ-098/005)

1870ean argitaratu zen lehenbiziko eleberria euskaraz, "Athea gaitzeko oihartzunak", Daskonagerrarena. Ibilbide laburra izan zuela dio. Liburua erakusten du.

1.836. "Eleberri eguna" eta "Uztaro" eleberria, gerra betean (LEZ-098/006)

Gerra piztua zelarik, "Eleberri eguna" egin zen. "Uztaro" eleberria argitaratu zuen Toma Agirrek 1937an, "Barrenoso" ezizenarekin.

1.837. Oraingo aldean, lehen askoz gutxiago argitaratzen zen (LEZ-098/007)

Literatura generoak aipatzen ditu; orain eleberriak garrantzia handia hartu duela azaltzen du. 1968an, ateratzen zen dena irakurri zezaketen. Orain aukeraketa egin beharra izaten da.

1.838. Literatura: kostunbrismoa eta errealismoa (LEZ-098/008)

Kostunbrismoa eta errealismoa zer diren azaltzen du. Muga lausoa dela dio.

1.839. "Garoa" eta "Kresala" nobelak (LEZ-098/009)

"Garoa" nobelak mendiko giroa azaltzen du eta "Kresalak" itsasokoa. Haiei buruzko iritzia ematen du.

1.840. Jon Miranderen "Haur besoetakoa" eta "Egan" aldizkaria (LEZ-098/011)

Narrazioa erakargarria izan dadin, gaia indartsua izatea, ikuspegi kritikoaren idaztea eta idazkera bera garrantzitsuak direla dio. Ramon Saizarbitoriaren "Egunero hasten delako" eleberria baino lehen, Jon Mirandek "Haur besoetakoa" idatzi zuen baina ezin izan zuen argitaratu. "Egan" aldizkarian argitaratu zituzten Jon Mirandek itzulitako Europako ipuinak.

1.841. Jon Mirande (LEZ-098/013)

Jon Miranderen bizitzari buruzkoak kontatzen ditu. Andima Ibiñagabeitiak euskara eskolak eman zizkion. Mirande Jon Etxaideren laguna zen. "Haur besoetakoa" zein urtetakoa izan daitekeen azaltzen du.

1.842. Euskara batuaren ibilbidea, laburrean (LEZ-098/014)

Gerra aurrean, Resurreccion Maria Azkuek zein Pierre Lhandek gipuzkera osatua idazten zuten. Gerra ostean, berriz batuaren gaiari heldu zioten, oraingoan Krutwig-ek eta Villasantek, eta eredutzat Axular jarri zuten. Jon Mirandek ere lapurtar klasikoari jarraiki idazten du. 1964ean Txilardegik joera hori nola zehaztu behar zen azaldu zuen. 1968an Mitxelenak osatu egin zuen.

1.843. Euskara batuaren helburuak (LEZ-098/015)

Mitxelenak euskara batua dibulgaziorako hizkuntza moduan proposatu zuela dio; ikastetxeetan euskara batua erakutsiz, Euskal geografiako haurrek elkar uler zezaten lortzeko. Literaturak tokiko hizkerentzat lekua duela azaltzen du.

1.844. Txilardegiren "Leturiaren egunkari ezkutua" nobela (LEZ-098/017)

Txilardegik "Leturiaren egunkari ezkutua" 1957an idatzi zuen. Hortik aurrera eleberri gehientsuenak euskara batuan idatzi ziren. Gai aldetik existentzialismoa eta suizidioa aipatzen ditu nobelak. Antzerki existentzialista egiten zen ordurako. Nobelak ikaragarritzko erantzuna jaso zuen.

1.845. Saizarbitoriaren liburuak eta zentsura (LEZ-098/018)

Saizarbitoriaren "Egunero hasten delako" nobelak ez zuen ia zentsurarik izan. "Ehun metro" nobelan zentsura gehiago sartzen da. Gizartea ordurako asko aldatu zen. Abortuari buruzko mozioa bozkatu zutenekoa kontatzen du.

1.846. Miranderen "Haur besoetakoa" eleberria (LEZ-098/019)

Miranderen "Haur besoetakoa" nobelak pedofiliaren gaia agertu zuen euskal letretan. Eskandalua izan zen. Pasioz eta indarrez idatzita dagoela dio.

1.847. "Literatura eta kritika" bere lehen liburua (LEZ-098/020)

1970ean bere lehen liburua argitaratu zuen, "Literatura eta kritika" izenekoa. "Elsa Scheelen" nobelari egindako kritikarekin hanka sartu azaltzen du.

1.848. Lur argitaletxeko ibilerak (LEZ-098/023)

Joseba Arregik proposatu zion "literatura eta kritika" liburua idaztea. Horren ondoren, Lur argitaletxean parte hartzen hasi zen. Donostiako Bidasoa tabernan biltzen ziren urteko programazioa adosteko. Hilabeteen liburu bat ateratzea zen helburua. Enrike Villar zen editorea.

1.849. "Harri eta herri" mugarri (LEZ-098/024)

Gabriel Arestik paper pila bat erabiltzen zuen txaketako poltsiko handietan. Lan asko egin zuela dio. Ibon Sarasolak literaturaren historiaz idatzi zuenean, "Harri eta herri" mugarritzat jarri zuen, eta bera ados dago. "Harri" hitzarekin egin zituen izenburuak aipatzen ditu. Donostiar gazteekin harreman handia izan zuen.

1.850. Lur argitaletxeko lehen argitalpena (LEZ-098/026)

Lur argitaletxearen lehendabiziko argitalpena erakusten du, "Euskal Elerti 69" izenekoa. Hainbat idazleren lanak biltzen ditu.

1.851. Lur eta Kriseilu argitaletxeetako azalak (LEZ-098/027)

Lur argitaletxeko azalak Kriseilukoen aldean ezberdinak ziren. 1970eko bere liburua erakusten du, "Literatura eta kritika". Kriseilurekin ateratako "Sekulorun sekulotan" bere liburua erakusten du.

1.852. "Sekulorun sekulotan" liburuaz (LEZ-098/028)

"Sekulorun sekulotan" bere liburuak Hego Amerikako nobelagileen eragina dauka. Beste hainbat eragin aipatzen ditu.

1.853. Saizarbitoriaren berrikuntzak, atzeritik ekarriak (LEZ-098/029)

Frantziako nobela berriaren eragina Saizarbitoriak ekarri zuen euskal letretara. Ramon Saizarbitoria Frankfurt (Alemania) hirian soziologia ikasten aritu zen, beste euskaldun batzuekin.

1.854. Joxean Artzeren "Isturitzetik Tolosan barru" (LEZ-098/031)

Joxean Artze gustu handikoa zela uste du. Ingalaterratik etorri berria, berritzailea, bere poemak objektu ederrak izatea nahi izaten zuen, arkitektoen laguntzaz. Haren liburua (Isturitzetik Tolosan barru) ederra eta abangoardista izan zela dio.

1.855. Rikardo Arregiren heriotza (LEZ-098/033)

Ramon Saizarbitoria eta Rikardo Arregi kotxea eramatera zihoazen Gabriel Arestiri. Mutriku aldean, errebuelta batean, istripuz hil zen Rikardo Arregi. Euskal Herriko lehendakari berria izango zela esaten zuten.

1.856. Nobelak zinemara (LEZ-098/035)

Saizarbitorioaren "Ene Jesus" liburua irakurtzeko oso zaila dela dio. Velez-Mendizabalek euskal nobelak zinemara pasatzea proposatu zuen Jaurilaritzako kultura sailburuorde zegoela: "Zergatik Panpox?", "Ehun metro" eta beste.

1.857. Euskal zinemari buruzko liburu pare bat (LEZ-098/036)

"Euskal teatroa eta zinea" liburuan jasotzen du zinemaren bilakaera. Koldo Izagirreraren "Gure zinemaren historia petrala" aipatzen du.

1.858. Anjel Lertxundiren `Hunik arrats artean´ liburua (LEZ-099/002)

Anjel Lertxundiren, `Hunik arrats artean´ liburuko poema bat irakurtzen du eta liburua erakusten. 1970eko ekainean Lur argitaletxeak atera zuen.

1.859. Juan Mari Irigoienaren errealismoa (LEZ-099/004)

Oso lagun ona zuen Juan Mari Irigoien. Errealismo magikoa, soziala eta komikoa landu zituen. Venezuelan idazleekin topo egin zuen eta buruan sartu zitzaion idazteari ekin behar ziola.

1.860. Euskadi Sarietako epaimahaikide (LEZ-099/005)

Euskadi Sarian epaimahaikide izan zen eta Joan Mari Irigoienaren "Babilonia" hautatu zuten. Aurretik Atxagako "Obabakoak" saritu zuten.

1.861. Hainbat emakume idazle (LEZ-099/008)

Hainbat emakume idazle aipatzen ditu, gerra aurrekoak eta ondorengoak. Mayi Pelot azpimarratzen du. Eleberrigintzan oparoena, Itxaro borda dela dio.

1.862. Arantxa Urretabizkaiaren `Zergatik panpox?´ lanaz (LEZ-099/009)

Arantxa Urretabizkaiaren `Zergatik panpox?´ lanari buruzko iritzia ematen du.

1.863. Bernardo Atxagaren musikaltasuna (LEZ-099/012)

Bernardo Atxagak berritasun handia ekarri zuela uste du. Baserrietako giroa oso ondo ezagutzen zuela azaltzen du. Irizten dio beste autore batzuek lortu ez duten musikaltasuna eman diola euskarari. "Ziutateaz" lanak Ameriketako idazleen ereduak txertatu zituen.

1.864. Bernardo Atxagak jasotako hainbat sari (LEZ-099/014)

"Obabakoak" liburuak Espainiako Saria jaso zuenekoa kontatzen du. Hortik proiektzio handia izan zuela dio. Espainiako "Premio de las letras" izeneko saria lortu zuen iaz. Atxagak musikaltasuna eman zion idazkerari.

1.865. Joseba Sarrionandiari buruz (LEZ-099/016)

Joseba Sarrionandiaren bizitzaz berba egiten du. Harremana izan zuen berarekin. Izugarri irakurtzen zuela ohartu zen Patri. Bizkaitik, Gabriel Arestiren ondoren, gehien zabaldu den idazlea bera dela dio.

1.866. Itxaro Bordari buruz (LEZ-099/017)

Itxaro Bordari buruzko kontuak aipatzen ditu. Gogoan du gaztetxotan bertsoan aritzen zenekoa. Oso modu librean idatzi izan duela dio. Hegoaldean hizkera zail xamarra egin izan zaie irakurleei.

1.867. Zeruko Argiako idazleak (LEZ-099/019)

"Gazte naiz" sailean Rikardo Arregik, Arestik, Saizarbitoriak, Mari Karmen Garmendiak, Arantxa Gurmendik... parte hartzen zuten. Ramonek bazeukan sail bat "Ni ez naiz jatorra" izenekoa. Hainbat idazle gaztek manifestua idatzi zuten EAJko iritziz zaharkituen kontra. Xabier Leteren prosa azpimarratzen du.

1.868. 50 - 80 hamarkadetako literatura aldizkariak (LEZ-099/020)

"Panpina ustela" eta "Oh, Euzkadi" aldizkarietan idazten zutenak aipatzen ditu. Garai hartan aldizkari asko argitaratzen ziren: Berriak, Garoa, Punto y hora de Euskal Herria, Literatur gazeta, Pott, Hegats, Euzkadi tropikala... Zaharragoak ziren Egan eta Ameriketara ateratzen zuten "Euzko gogoa", 50. hamarkadakoak. 60. hamarkadan Zeruko Argia zen nagusi. 80. hamarkadan "Muga" aldizkaria aipatzen du. "Susa" aldizkariari buruzko anekdota kontatzen du.

1.869. Orduko eta oraingo aldizkariak (LEZ-099/022)

Iparraldean "Eskualduna" aldizkaria zegoen eta 1944ean "Herria" argitaratzen hasi ziren. Hegoaldean Argia, Egan, Hegats... daude baina, bere ustez, Berria da literaturaz berri gehien ematen dituen.

1.870. `Eguna´ egunkariak (LEZ-099/024)

`Eguna´; egunkariaren bilduma eskuetan duela hitz egiten du. Egunkari hartan agertzen diren emakume idazleak ikertu beharko lirakeela dio. `Gudari´; aldizkaria bazen garaian ere. Bilbo frankisten eskuetan erori arte argitaratu zuten `Eguna´;.

1.871. Maria Estibaliz Sasiola, lehen emakume idazlea (LEZ-099/032)

Maria Estibaliz Sasiola, lehen emakume idazlea izan zen. Debarra, 1611n hil zen. Bere eskuz idatzi zituen. Bere hiru poema ezagutzen dira. "Goiko mendian" kanta herrikoiaeren hitzak ere jaso zituen. Lazarragaren eskuizkribuan agertu ziren poema haiek.

1.872. Bizenta Mogel, lehenegoz liburua argitaratu zuen emakumea (LEZ-099/033)

Bizenta Mogelek emakume idazleen artean lehenengo liburua argitaratu zuena izan zen. Bere bizimoduaren berri ematen du. Alegilaria izan zen. "Ipuin onak" zeukan izena haren liburuak.

1.873. Rosario Artola idazleaz (LEZ-099/034)

Rosario Artola, donostiarra zen. Haren aita, Ramon, poeta izan zen. "Euskal Erria" aldizkarian argitaratu zituen bere lanak Ramonek. Rosarioren anai Pepe Artola oso ezaguna izan zen Donostian. Rosariok gitarra jotzen zekien eta poemak publikatu zituen.

1.874. Mayi Ariztia idazleaz (LEZ-099/035)

Mayi Ariztiak "Amattoren uzta" ipuin bilduma idatzi zuen, 1934ean. Saratarra zen.

1.875. Marijane Minaberri idazleaz (LEZ-099/036)

Marijane Minaberri Bankakoa zen. Asko argitaratu zuen. Antzerkiak ere idatzi zituen.

1.876. Karmele Errasti idazleaz (LEZ-099/038)

Karmele Errastiri buruzko liburua "Bidegileak" bilduman jasota dagoela dio. Emakume Abertzaleen Batzako lehenengo lehendakaria izan zen.

1.877. Tene Mujika eta Polixene Trabudua mitinlariak (LEZ-099/039)

Tene Mujika zumaiarrak ere lan handia egin zuela dio. Mitinlaria izan zen. Polixene Trabudua mitinlari sutsua izan zen; Ameriketara erbesteratu zen.

1.878. Antzerti aldizkariaren bilduma (LEZ-099/041)

Idoia Gereñuk Jarrai taldeari buruzko tesia egin zuen, eta aurretik, Antzerti aldizkariaren bilduma osatu zuen (erakutsi egiten du). Aldizkariaren azalak koloretakoak izaten ziren. Tene Mujikak ipuinak eta antzezlanak idatzi zituen. Aitzindaria izan zen, beste batzuekin batera.

1.879. Amaia Lasa eta Pantxika Erramuzpe idazleak (LEZ-099/044)

Amaia Lasak 1972an argitaratu zuen anaiarekin batera poema bilduma. Itzulpengintzan aritu da. Pantxika Erramuzpe aipatzen du.

1.880. Mayi Pelot idazleaz (LEZ-099/045)

Mayi Pelot ezagutu zuen. Indiako hizkuntzetan eta erlijioetan trebatu zen. Zientzia fikzioa asko maite zuen.

1.881. Mariasun Landa idazleaz (LEZ-099/047)

Mariasun Landa, errenteriarra. Euskal Idazleen Elkartean elkarlanean aritu izan da. Elkarrekin jarri zuten martxan "Idazleak eskoletan" programa. Emakume azkarra eta irudimentsua dela dio.

1.882. Bere uztako hainbat lan (LEZ-099/052)

"Zeren azken finean" poesia-lanarekin Irun saria irabazi zuen. Bidaietan, koadernoetan idazteko ohitura du eta kronika eta poemak osatzen ditu. Azken hilabeteetan, Elkanoren itsasoko kronika idatzi du. Zeraingo protestante baten biografia nobelatua idatzi du; Granadan erre zuen inkisizioak. Martin Errezubietari buruz ere idatzi du.

1.883. Lekuaren ezaugarrien arabeko perretxikoak (LEZ-100/002)

Pago, haritz edo pinu artean topatutako onddo eta perretxikoen arteko desberdintasunei buruz ari da. Lezo aldean nora joan daitekeen perretxikoetara.

1.884. Orduko Lezo eta inguruko auzoak: Pisbe (LEZ-100/004)

Lezoko biztanleria asko hazi da gaztea zenetik hona. Egun herria gun e bakarrean elkartuta dagoen arren, garai batean ez zen horrela. Pisbe auzora egindako "eskapadez" dihardu. Urruti zegoela iruditzen zitzaaien hartan.

1.885. Agustina Lizarazu maistra zuen amona (LEZ-100/007)

Baliabiderik ez zuten familietako hurrei eskolak ematen zizkien etxean bertan. Bi zatitan banatuta zegoen etxabe hura: zati batean aitaren aroztegia zegoen eta, bestean, Kale Nagusira ematen zuen "Auxilio social" zeritzon amonaren lokala.

1.886. Lehenengo euskarazko eskola Manuela Larrearena (LEZ-100/008)

Manuela Larreak jarri zuen Lezon lehenengo euskarazko eskola. Euskara hutsean ematen zituen eskolak. Zer erakusten zuen kontatzen du.

1.887. Gurasoei zuka, anaiei artean hika, izebari berorika (LEZ-100/011)

6 senide izan ziren, gizonezkoak guztiak. Hika egiten zuten etxean. Gurasoei ordea zuka egiten zutela kontatzen du. Kanean ikasi zuten hitanoz. Izeba bati berorika aritzen zirela ere gogoan dauka nahiz eta izebak "ni ez naiz behorra" erantzuten zuela gogoan duen. Bost apaiz zeuden lehen Lezon; berorika egiten zitzaaien haiei.

1.888. Barazkiak baratza uztearen ordainetan (LEZ-100/014)

Oiloak zituen aita aroztegi bertan zuen itxitura batean. Nahiz eta baratza bazuten, bizilagunek ustiatzen zutela kontatzen du. Trukean, barazkiak ekartzen zizkieten.

1.889. Zopa eta lekaleak ziren eguneroko jatordua (LEZ-100/015)

Amonak prestatutako taloak eta azukrez gozatutako esnea zituen oso gogoko. Zopaz gain, lekaleak jaten zituzten egunero. Tapioka eta garbantzuak igandeetarako gorde ohi ziren. Haragia eta, atez ere, arraia sarritan jaten zutela kontatzen du.

1.890. Zubitxoko labaderoa zuten jolasleku (LEZ-100/016)

Zubitxoko labaderoa urrunegi zegoenez, arropa etxean garbitzen zutela kontatzen du baina, jolaserako leku aparta zela dio. Bartzelonatik amaidinak (amabitxiak) itsasontzia ekarri zioneko pasadizoa.

1.891. Aitonak egin zituen hilerriko harrizko 5 panteoiak (LEZ-100/019)

Manuel Intxaurrendietak, Luis Mariren aitonak, egin zituen Lezoko hilerrian dauden 5 panteoiak. 39 urterekin zendu zen eta bera izan zen bertan lurperatzen lehena.

1.892. Euskaraz aritzeko beldurrez (LEZ-100/021)

Garai hartako beldurra du hizpide. Aita atxilotua izan zirela kontatzen du; osaba ere ihesean ibili zen. Nahiz eta lagun artean euskaraz egin, debekatuta zegoenez, beldurrez ibiltzen zirela dauka gogoan. Euskaraz bizi ziren etxean.

1.893. "Luzio, ahaztu!" pasadizoa (LEZ-100/022)

Zakarias iturginari, euskaraz ez zekien Luziok agindutako mandatua egitea ahaztu zitzaioneko anekdota kontatzen du.

1.894. Kortxoa, artilea eta trapuzko zintaz egindako pilotak (LEZ-100/024)

Pilota aritzea zuen bereziki gogoko. Pilotak nola egiten zituzten kontatzen du: kortxoa erdian, artilearekin bildu eta trapuzko zinta isolatzailearekin lotu.

1.895. Umetako gaiztakeriak: karburo eztandak eta Pisbekoen aurkako liskarrak (LEZ-100/025)

Azetilenoa egiteko erabiltzen ziren karburoak hartzen zituzten umetan txabolan leherrarazteko. Baserrietan sagarrak eta udareak harrapatzen ibiltzen zirela ere aitortzen du. Pisbekoen aurkako gerrak ere antolatzen zituzten. Jolasak, azken batean.

1.896. Donostiako Jesuiten eskola utzi eta osabarekin Logroñora (LEZ-100/027)

Osaba jesuitaren bitartez, Donostiako eskolara joan zen 9 urterekin. Hamaika urte zituen osaba Logroñora bidali zutenean; harekin joan eta 6 urte pasa zituen bertan "ajustadore" ikasketak egiten. Bakarrik egindako joan-etorriez dihardu.

1.897. Euskaldun ugari Logroñoko Jesuiten artean (LEZ-100/029)

Logroñon Jesuita euskaldun asko zegoenez, euskaraz hitz egiteko aukera izan zuen bertan. Jesuitek dituzten hierarkia eta betebeharrak desberdinei buruz hitz egiten du. Garai hartako oroitzapen onak gordetzen ditu.

1.898. Donibanen tailerra hartu arteko jarduera profesionala (LEZ-100/031)

"Forjas Azkoitia" izan zen bere lehenengo lantokia baina, segituan utzi zuen. Merkataritza-agente bezala ere jardun zuen baina, mekanika mundua zuen benetan gogoko. Ezkonanaiarekin batera hartu zuen aitagarrearen tailerra Donibanen.

1.899. Eskuz soldatutako tornu kaskarrekin hastetik 10 langileren ugazaba izatera (LEZ-100/033)

Beasaingo CAF lantegiarentzat egiten zuten bereziki lan. Tailerraren hastapenak, lehenengo tornua. Hamar langile izatera iritsi zirela kontatzen du.

1.900. Elkarrearen sorrera (LEZ-100/034)

1975. urteko uztailaren 7an ireki zuten elkarrea. Aurretik Lasturko Soarte harri-jasotzaileak egiten omen zituen bere entrenamenduak bertan. Lehenengo bazkideek 5.000 pezetaren truke eta 99 urterako lokala nora eskuratu zuten kontatzen du.

1.901. Orereta eta Txikierdiko dantza saioak (LEZ-100/037)

Herriz herri ibiltzen ziren igandero dantzan egiteko, batez ere, Oreretan. Txikierdi ere gogoan dauka baina, dantzara baino gehiago, jatera joaten zirela kontatzen du.

1.902. Zubietako Aizpurua etxeko oinordeko (LEZ-100/038)

Santo Tomas egunean Donostiara joan ohi ziren baita estropada egunean ere. Uda Zubietako (Donostia) Aizpurua baserrian pasatzen zuen. Donostia erre ostean, hiria berregiteko erabakiak bertan hartu zirelako da ezaguna etxe hura.

1.903. Ama alargun geratu zen zazpi umerekin (LEZ-101/002)

Hiru urte zituela, kalera joan ziren bizitzera, Juanaenea etxera. Aita ez zuen asko ezagutu, handik gutxira hil zen eta. Zazpi senidetan bosgarrena zen bera. Kanean bizi arren, baserrira joaten ziren asko, aitonari eta amonari baserriko lanetan laguntzera. Amak jenio bizia zuen, baina beharko hainbeste umerekin!

1.904. 14 urterekin lanera (LEZ-101/003)

Zortzi urte ingururekin hasi zen baserriko lanetan laguntzen eta 14 urterekin lanera. Lehenbizi arrainarentzako kaxak josten jardun zuen sei hilabetez Pasaian. Gero Achan hasi zen lanean, okumezko taulak egiten.

1.905. Gerraostean ogi falta (LEZ-101/004)

Baserrian egiten zituzten lanak: artoa, belarra ondu... Baserri txikia zen eta ganadu gutxi zuten. Esnea kalera saltzen zuten. Garai haietan miseria handia zegoen. Gerraostean gosea, ogi falta. Taloa eta esnari esker bizi izan zirela dio. Artoa Oiartzunera eramaten zuten errotara, ehotzera.

1.906. Bertso zaharrak ikasteko zaletasuna (LEZ-101/006)

Bertso zaharrak ikasi eta kantatzeko zaletasuna izan du, Txirritarenak, Bilintxenak... Behin behi-zain zegoen bitartean bertsoak ikasten ari zela gertatutako pasadizoa.

1.907. Eguneroko jakiak: esne-zopak eta babarrunak (LEZ-101/008)

Goizean esne-zopak jaten zituzten eta bazkaltzeko babarrunak. Ez zuten bestelako jaki handirik izaten. Egun berezietan etxeko oilaskoa edo oilarra hiltzen zen, jateko. Gauza handia izaten zen hura. Igandeetan fideo-zopa eta xerra pusketa edo haragi gisatua. Joxe Joakinen anaiak amari esaten ziona kontatzen du emazteak.

1.908. Arreba tifusarekin hilzorian egon zen (LEZ-101/011)

Umetan tifusa harrapatu zuten. Arreba zaharrena hilzorian egon zen. Oso kutsakorra omen zen. Ez du sendabelar asko erabili izan, bera koskortu zenerako medikuak injekzio eta pastillekin hasita zeudelako. Aita hil zenean, ordea, artean ez zegoen penizilinarik.

1.909. Gaztetako entretenimenduak: futbola, pilota, zinema... (LEZ-101/014)

Garai baten zenbat jende bizi zen Lezon. Elizatik irtendakoan Gaintxurizketara joaten ziren futbolean jokatzera, hango baserritarren aurka. Berak pilotarako zaletasuna zuen. Pilotak nola egiten zituen lehenbizi "kixki" edo goma pusketa jarri eta bueltan artile zaharrekkin bilduta. Karta-jokoan ere aritzen ziren, trukean, xoxekin. Erreteriarra ere joaten ziren luistarren lokalean zinema ikustera.

1.910. Baserritar eta kaletarren arteko harremana (LEZ-101/017)

Kaletarrak eta baserritarrek ondo konpontzen ziren. Jendeak aste osoa lanean pasatzen zuen eta igandea bakarrik izaten zuten jai. Erreteriarrek nola deitzen zieten.

1.911. Anaiekin hika eta arrebeekin zuka (LEZ-101/018)

Anaiekin hika egiten zuen, baina arrebeekin zuka. Amak zuka hitz egiten zien denei. Asko galdu da hitanoa Lezon.

1.912. Eskolatik irtendakoan, mendira, su-egur bila (LEZ-101/020)

Eskolatik irtendakoan, merienda jan, aizkora eta soka hartu eta mendira joaten zen, etxerako su-egur bila.

1.913. Gerraosteko irakasleen irakasgaiak (LEZ-101/022)

Lezoko eskola nazionalean ibili zen, 13 urtera arte. Eskolara ez zen oso gustura joaten, ikasle txarra omen zen eta. Gerraosteko irakasleak. Ez zutela behar bezala irakasten dio, Espainiako historia eta geografia eta "Historia Sagrada" bakarrik.

1.914. Usotarako zaletasuna; errekan aingiratan (LEZ-101/023)

Ehizarako zaletasuna izan du, batez ere usotarako eta tortoletarako. Zer ingurutan ibiltzen zen. Errekan aingirak harrapatzen ere ibiltzen zen. Amak jartzen zituen gero jateko, baina ez zituzten asko jaten.

1.915. Koskortutakoan, lagunekin inguruko herrietara (LEZ-101/024)

Koskortutakoan hasi ziren igandeetan beste herri batzuetara joaten, Errenteriara, Oiartzunera... Bilerak. Trikitia; neska-mutilak dantzan. Autobusean itzultzen ziren.

1.916. Nola hasi zen egurra lantzen (LEZ-101/029)

Semea ikusita, egurra lantzen hasi zen erretiroa hartu eta gero. Ikasten aritu zen. Orain utzita du. Egur ona behar zen lanerako, begirik gabea. Haritz amerikarra. Prozesua azaltzen du: marrazkia egin, marrazkia egurrera kalkatu, egur hura gastatu... Erremintak. Nolako lanak egin izan dituen. Zaletasunagatik egiten zituen, ez saltzeko.

1.917. Garai bateko otorduetan babarrunik ez zen falta (LEZ-102/005)

Esne-zopak jaten zituzten gosaltzeko. Orduan ez zegoen gailetarik. Baserritarrek banatzen zuten esnea etxeetara. Mari Karmenek dio berak ez duela taloa ezagutu ohiko jaki gisa. Bazkaltzeko potajea, babarrunik gehienbat. Igandeetan salda, garbantzuak eta haragia tomatearekin. Pazkoetan oilaskoa edo oiloa, jaki berezi moduan.

1.918. Taloa gaztarekin, txokolatearekin, eztiarekin... (LEZ-102/006)

Maria Luisak dio talo asko jaten zutela. Artoa etxean zuten eta errota ere bertan. Gaztarekin, txokolatearekin, eztiarekin... jaten zituzten taloak. Etxeko ezti izaten zuten. Ogi egun berezietan. Ogi beltza (zahiarekin) eta zuria. Ogi zuria jende elegantearentzat.

1.919. Trintxerpera esnea partitzera; otorduetako jakiak (LEZ-102/007)

Lurdes goiz jaikitzen zen, Trintxerpera joaten zelako aitarekin, esnea partitzera. Kafe-zopak gosaltzeko. Esnea partitzetik itzultitakoan haragia arrautzekin edo patata frijituekin. Bazkaltzeko potajea. Igandeetan garbantzuak, oilaskoa eta natillak. Asteazkenean jaten zuten haragi pixka bat eta arraina ere bai. Trintxerpeko bezeroek bakailaoa ematen zieten. Txangurroa ez zitzaion gustatzen aitari.

1.920. San Juango arrain-saltzaileak kalez kale (LEZ-102/008)

Sanjuandarrak etortzen ziren arraina saltzera, zestoak hartuta: Felixiana, Laureana, Enriketa... Kalerik kale ibiltzen ziren. Gaur egun baino arrain-klase gehiago jaten zituzten: "puttanua" (perloi txikia), katu-arraina... Arrain freskoa, gaur egungoa baino hobea. Trintxerpen karroarekin ibiltzen ziren arraina saltzen. Lurdesek dio kotxea zutela Oiartzundik Trintxerpera joateko.

1.921. Arropa garbitzeko ura etxean edo etxe ondoan (LEZ-102/009)

Mari Karmenen gurasoek etxetik kanpora lan egiten zuten. Atxa zerrategian zer lan egiten zuten. Etxean bazuten ura. Garbitokia. Maria Luisaren familiak taberna zuen. 13 urterekin neskame. Lurdesen etxean arropa garbitzeko aska zuten etxe kanpoaldean. Lehenengo garbigailua. Bera zen zaharrena eta lan gehien berarentzat.

1.922. Bizimodua nola aldatu den: etxeko lanak, harremanak... (LEZ-102/010)

Garai bateko etxeko lanak ez ziren gaur egunean bezalakoak. Lurra (egurra) nola garbitzen zuten: urarekin garbitu, argizaria eman, zepiloa pasatu... Leihoak ireki eta kantuan aritzen ziren. Bizimodua nola aldatu den. Lehen etxeetako ateak zabalik egoten ziren. Auzokoen arteko harremana eta konfiantza handiagoa zen, bai kalean eta bai baserrian.

1.923. Arropa garbitzea; garbitokietan giro ona (LEZ-102/011)

Arropa garbitzeko, Chimbo edo Lagarto xaboiak. Etxean ura izan arren, garbitokira joaten ziren batzuek arropa hobeto garbitzeko edo hobeto zabaltzeko. Gainera, giro ona egoten zen, kantari aritzen ziren. Astean behin egiten zen. Maria Luisaren familiak taberna zuen eta apopilo asko egoten zenez, arropa ontzi handi batean egosi egiten zuten. Ahizpa batek xaboa egiten ikasi zuen.

1.924. Abesteko ohitura (LEZ-102/012)

Garai batean asko abesten zen. Elizako kanta asko jakiten zituzten. Rantxerak abesteko ohitura. Lurdesek dio loterian tokatutako diruarekin disko-jogailua erosi zutela, berak 12 urte zituela. Enrike Zelaia, Pepe Yanci... jartzen zituzten. Lehenengo irrati eta telebistak. Etxean jasotako kanta zaharrak. Bertsotarako zaletasuna.

1.925. Etxean beti lanen bat zain (LEZ-102/013)

Garai batean igande arratsaldea bakarrik izaten zuten libre eta hura iristeko zain egoten ziren. Etxean beti egoten zen lanen bat. Ostiral santuan lanik ez zela egin behar eta pozik.

1.926. Arropa aukerarik ez zen; oinetakoak (LEZ-102/014)

Arropa erosten zenean, handia erosi eta doblatu egiten zen, gero luzatzen joateko. Maria Luisari amak josten zizkion arropak. Abarketekin ibiltzen ziren; gero haiek ez bustitzeko, hankak baserriko arotzak egindako "zueko"etan sartu. Aste osoa arropa berarekin; igandeetarako aparteko soinekoa eta zapatak.

1.927. Hika bai ala ez? (LEZ-102/016)

Mari Karmenen amak ahizparekin hika egiten zuen, baina beraiei zuka. Gerora hasi zen bera hika, konfiantza duen jendearekin. Gizonaren aldeko familia baserrikoa da eta haiek dena hika. Alabari hika egiten dio, hika ikasi nahi zuelako. Maria Luisaren kasuan, senideen artean hika egin izan dute. Lurdesek, berriz, bei zuka. Apaizari berorika.

1.928. Eskolan gaztelaniaz; etxean euskaraz (LEZ-102/017)

Eskolan hasi zirenean, ez zekiten gaztelaniaz. Mari Karmenen amari ez zitzaion gustatzen etxean gaztelaniaz entzutea. Eskolan gaztelaniaz egin behar eta batzuetan zigortuta. Kanean ere atentzio deitu izan ziotela dio Mari Karmenek. Gaztelaniarako joera izan zuen garai batean, baina gero umeekin berriz euskaraz.

1.929. Goizuetan denak euskaraz (LEZ-102/019)

Maria Luisak dio umetan ez zekitela gaztelaniaz. Albaitaria, medikua, sekretarioa eta apaiza ziren Goizuetan gaztelaniaz zekiten bakarrak. Guardia zibilen semeak ere euskaraz; aitari nola jotzen zion adarra mutiko batek.

1.930. Umetako jolasak: txorro-morro, txokoka, tortolosak... (LEZ-102/020)

Umetako jolasak: kanikak, "tabak", soka, "al pote"... Maria Luisak "Txorro, morro" eta beste zenbait jolas azaltzen ditu. "Tabak" (tortolosak) nondik ateratzen zituzten. Jolasa nola zen. Gaurko umeez ez dakitela jolasean dio Mari Karmenek. Beraiek katiuskak janzen zizkieten umeei, putzuetan ibiltzeko.

1.931. Erreteriarra, Olibet gaileta bila (LEZ-102/021)

Mari Karmenek dio neska koskorretan Lezotik Erreteriarra joaten zirela, Olibet lantegira, gaileta bila. Puskatutako gailetak merkeago ematen zituzten, zakukada. Maria Luisari bizilagunek eskatzen zioten gailetak ekartzeko, hara joaten zenean, eta kotxea beteta ekartzen zuen. Oraindik ere batzuetan esnezopak edo talo-zopak jaten dituztela diote. Garai batean Oiarzunera, irinetara.

1.932. Gaixotasunak: txarranpina, "tropeziya"... (LEZ-102/023)

Umetan izaten ziren gaixotasunak: txarranpina, paperak, "kukulutxa"... Garai batean "tropeziya" (hidropesia) izaten zen asko emakumeetan. Rosarengana joaten ziren eta errezoak egin. Lehen ez zen sarri joaten medikuarengana; ahal bazen, etxean egiten ziren erremedioak.

1.933. Zenbait gaitz eta sendatzeko erremedioak (LEZ-102/024)

Garai batean, ahal zela, etxean egiten ziren erremedioak. Maria Luisaren amak enplastoak egiten zituen; bixiak kentzeko, adibidez. Behin belaunean "zingibia" zuela eta emakume batek egin zion "sorginkeria". Lurdesen aitak, buruko mina zuenean, belarminak batu eta infusioa egiten zuen. Herdoildutako puntapaxen bat sartuz gero, baratxuriarekin igurtzi. Tipula ere ona, granoetako pasmoa ateratzeko. Tripako minarentzat kamamila. Katarroarentzat ardoa egosita, piku lehorra eta kanela botata.

1.934. Baserriko esnearekin egindako postreak; esne-gaina (LEZ-102/025)

Esnea baserritik ekartzen zieten eta, sobera izaten zutenez, arroz-esnea, natillak... egiten zituztela dio Maria Luisak. Kanela eta limoiarekin. Esne-gainarekin gurina edo bizkotxoa. Ogiarekin eta azukrea botata meriendatan jan ere bai.

1.935. Elizarekin zuten lotura (LEZ-102/027)

Elizarekin harreman handia, halaxe zen eta. Jauna hartzera baraurik. Dotrina ongi ikasi behar. Astero mezatara. "Hijas de Maria" kongregaziokoak hileko lehenengo ostiralean konfesatzera. Debekatuta zuten mutilekin dantza egitea.

1.936. Eskolan gaztelaniaz eta "Cara al sol" abestu behar (LEZ-102/028)

Lurdes eta Maria Luisa gutxi joan ziren eskolara. Maria Luisari gurasoak hil zitzaizkion hamar urte zituela eta neskame joan zen handik gutxira. Lurdes eskola partikularretan ibili zen arratsaldeetan. Mari Karmen 14 urtera arte ibili zen. Eskolan gaztelaniaz. Maiatzean "Con flores a Maria". Goizean "Cara al sol" abestu behar. Espainiako bandera. Euskaraz eginez gero jartzen zituzten zigorrak.

1.937. Gaztelaniaz egindako hankasartzeen inguruko anekdotak (LEZ-102/030)

Maria Luisaren anaiak ez zekien ondo gaztelaniaz eta adarra jotzen zioten. Beste behin meatzeetan baserritar bati ingeniariarekin gertatutako anekdota. Mari Karmenen alabari umetan kostatu egin zitzaion gaztelaniaz ikastea. Hark egindako pare bat hanka-sartze aipatzen ditu. Mari Karmenen aitak ez zekien gaztelaniaz eta ez zuen egiten, hanka sartzeko beldurrez.

1.938. Inguruko hizkerak; hitzak jateko ohitura (LEZ-102/035)

Herriko euskararen erdarakada asko sartzen direla diote. Tolosa aldeko euskara, garbiagoa. San Juanen "nere" sartzeko ohitura omen dute, baina bestela euskara garbia. Maria Luisak dio Goizuetatik Aranora ere alde dagoela euskararen, Aranon Hernani aldeko euskara dutelako. Hizkera nafarretan hitzak gehiago jaten dira.

1.939. Senargaiak dantzan ezagutu zituzten (LEZ-102/039)

Nobiotan nora joaten ziren: zinemara, Erreteriarra, Donostiara... Askotan igandea bakarrik mutil-lagunarekin egoteko. Kasu batzuetan ostegunetan ere bai. Gramola egoten zen Erreterian. Garai batean obligazio antzekoa zen emakumeek josten ikastea. Bikoteak dantzaldian edo erromerian ezagutu zituzten hirurek. Garai bateko Erreteriarako Alamedako erromeria. Dantza-eskatzea. Gaizki ikusita zegoen neskak tabernara bakarrik sartzeara.

1.940. Dantza lotua debekatuta (LEZ-102/040)

Garai batean dantza lotua debekatuta zegoen Lezon. Erreterian ere bai. Baina Maria Luisak gogoan du behin Madalenetan dantza baimendu zutela, Lapaza alkatearen eta on Roberto bikarioaren eztabaida eta gero. Suzko zezenarentzat argiak itzaltzen zituztenean, kontzejupean dantzan aritzen ziren San Juango mutilekin. Harrapatuz gero, zinta morea jartzen zieten "Hijas de

Maria" kongregaziokoei, zigor gisa. Mutilak luistarren kongregaziokoak; haiek zigorrik ez.

1.941. Erromeriatik etxera iluntzerako (LEZ-102/041)

Erreterian, Pasaian eta Hernanin Musika Banda egoten zen. Trikitia nahi izanez gero, Oialumera edo Txikierridira. Hernanin mutilek bi pezeta ordaindu behar, dantza egiteagatik. Iluntzerako etxeratu behar izaten ziren eta presaka, trena hartzeko.

1.942. Gabonetan Ondartxo auzokoak parrandan (LEZ-102/044)

Maria Luisa gaztetan Erreterian bizi zenean, herriko jendea ez zen ateratzen Gabonetan, baina Ondartxo auzokoak bai. Arrantzale familiak bizi ziren han, galiziarak, eta urte osoan gizonak kanpoan ibiltzen zirenez, Gabonetan gau osoa pasatzen zuten kanean, parrandan.

1.943. Urte zaharretako mahatsa; beste jaki batzuk (LEZ-102/046)

Mari Karmenek eta Maria Luisak diote betidanik izan dutela urte zaharretan mahatsa jateko ohitura. "Aza-oliyua" jateko ohitura. Maria Luisak aza-lorea eta bisigua jaten zituztela dio. Lehen bisigua ohikoagoa zen; gero garestitu zen. Ezkondu ostean angulak ere jaten zituzten, haragia baino merkeago zeuden orduan eta.

1.944. Hainbat ospakizunen inguruko kontuak (LEZ-102/047)

Santa Ageda. Oiartzunen ez zegoen ohiturarik; Lezon bai, baina baserritarren artean. Makila hartuta santa Ageda koplak kantatzen irteten ziren. Gaur egun gehiago egiten da. Beraiek ere ibili izan dira. San Jose egunean arkumea jateko ohitura. San Isidro, baserritarren ospakizuna; Oiartzunen edo Txikierridin musika eta dantza. Pazko bigarrena. San Nikolasetan eskolatik joaten zirela eskean dio Lurdesek. Guadalupeko bederatziurrenak. Goizuetatik Artikutzara egun-pasa San Agustin egunean. San Anton. Santa Luzia.

1.945. Lutoa eraman behar (LEZ-102/054)

Gizona hil zenean ez, baina gurasoak hik zirenean, lutoa eraman zuten. Arropa guztia beltzez tindatu behar. Beti lutoarekin, beti beltzez, "labezomorrua" bezala.

1.946. Garbitasuna; labezomorroak; komunak partekatuta (LEZ-102/055)

Garai batean labezomorroak, arkakusoak eta zorriak izaten ziren. Etxean ekonomika egoten zen eta sukaldeetan ikatza eta egurra edukitzen zenez, labezomorroak egoten ziren. Ura nola berotzen zuten. Mari Karmenek dio 18 urterekin ezagutu zuela dutxa. Aurretik baldearekin garbitu behar. Maria Luisak dio Erretereriako etxe batzuetan komuna partekatu egiten zutela bizilagunek.

1.947. Pantxikaenea etxean jaioa (LEZ-103/004)

1944an jaio zen Pantxikaenea etxean, gaur egun bizi den etxean. Behean gurasoak bizi ziren eta goian osaba-izebak. Lau anai-arreba dira. Amak Erreterian lan egiten zuen Olibet gailera lantegian. Aitak ikatzarekin lan egiten zuen.

1.948. Aitak txerria hazten zuen (LEZ-103/007)

Pantxikaenea etxearen azpialdean inprenta zegoen. Aurretik aitak txerria edukitzen zuen. San Martinetan Oiartzundik etortzen zen gizon bat txerria hiltzera eta hari begira egoten ziren. Gero amak txorizoak eta odolkiak egiten zituen etxerako. Sukaldean jartzen zituzten zintzilik. Hiltzaileak ere eramaten zuen puska bat eta banatu ere egiten zen txerrikia.

1.949. Baratzea etxe inguruan (LEZ-103/008)

Etxe ondoan baratzea zuten bai aitak eta gerora baita senarrak ere. Etxeak egiteko kendu zioten lur-saila. Aitak denetik edukitzen zuen baratzean: letxuga, tomatea, patata...

1.950. Beti izaten zuten gailetaren bat (LEZ-103/009)

Bazkaltzeko potajea jaten zuten normalean. Gosaltzeko kafesnea. Amak gailera lantegian lan egiten zuenez, beti izaten zuten gailetaren bat. Afaltzeko baratzuri-zopa. Igandeetako jakiak.

1.951. Eskolara gutxi; falangekoen lokala (LEZ-103/011)

Eskolara gutxi joan zen. 14 urterekin Atxa anaien lantegian hasi zen lanean. Eskolan "Cara al sol" abestu behar. Inguruan falangeko lokal bat zegoen eta antzerkiak eta bestelako ekintzak egoten ziren, baina amak ez zien uzten joaten. Eskolan gaztelaniaz zen dena, baina beraien artean euskaraz egiten zuten. Etxean ere bai. Anaiarekin hika egin izan du.

1.952. Etxean euskaraz, baina lagunartean bietara (LEZ-103/016)

Ama abertzalea zen. Jose Antonio Agirreren kontuak kontatzen zizkien. Amak kontatzen zien behin ia kartzelara eraman zituztela euskaraz hitz egitearren. Beraiei ere askotan esaten zieten "habla en cristiano". Etxean euskaraz egin arren, lagunartean bietara egiten zuten.

1.953. Erreteriarra, dantzara eta zinemara (LEZ-103/018)

Erreteriarra joaten ziren gaztetan oinez, Alamedako erromeriara. Jende asko batzen zen. Touring-ak irabazten zuenean, haren kanta jotzen zuten. Azken kanta jotzen zutenean, korrika etxera. Zinemara ere joaten ziren luistarretara. Lehenbizi nodoa eta gero pelikula.

1.954. Ahizpari jatekoa eramaten zion lantokira (LEZ-103/019)

Lezo txikia zen eta denek elkar ezagutzen zuten. Ez ditu asko ezagutu Lezoko baserriak. Jende gehienak Atxa lantegian lan egiten zuen erreleboetan. Anai-arrebek non lan egin izan duten. Ahizpari jatekoa eramatera joaten zen, erreleboetan lanean zebilenean.

1.955. San Juanera bainatzera (LEZ-103/020)

Umetan nora joaten ziren bainatzera. Ez zuen igerian ikasi, beldurra sartu zitzaiolako.

1.956. Gabonetan eta Santa Agedetan lagunekin kantari (LEZ-103/022)

Kalean egiten zuten bizimodua. Amak enkargutara bidali eta Erreteriarra lagunengana joateko aprobetxatzen zuen. Eguberrietan kantuan ibiltzen ziren goizean Erreterian eta arratsaldean Lezon. Santa Agedetan ere kuadrillak ibiltzen ziren kantuan. Urte zaharretan ere koplak abesten ziren.

1.957. Umea izan eta gero, elizara joan behar lehenbizi (LEZ-103/026)

Donostian izan zituen umeak, baina bera etxean jaio zen. Erreteriatik etortzen zen Maria Dolores izeneko emagina. Ez du ezagutu atsolorra egiteko ohitura. Umea izan eta gero, egun batzuk etxean pasa behar eta, irtendakoan, umearekin elizara joan behar lehenbizi.

1.958. Osteguna, andregaiarengana joateko eguna (LEZ-103/027)

Lantokian ezagutu zuen senarra. Osteguna izaten zen andregaiarengana joateko eguna. Gero, igandean berriz. Paseatzera joaten ziren. Denak lotsa ematen zien orduan, dena zen bekatua. Igandeetan elizara. Ama birjinaren egunean kongregazioetako neskak eta mutilak seietako mezara. Ezkontza eguna. Ezkon-bidaian Iruñera, Bartzelonara eta Madrilera. Hegazkinez itzuli ziren.

1.959. Etxeko erremedioak; amona emagina (LEZ-103/030)

Amonak ukenduak egiten zituen. Gizonaren amak pontxe antzekoa egiten zuen semearentzat. Amona emagin gisa ere ibili zen etxez etxe laguntzen. Sendabelarrak eta enplastoak.

1.960. Guadalupera oinez, eguna pasatzera (LEZ-103/037)

Guadalupeko amabirjinaren egunean, irailaren 8an, eguna pasatzera joaten ziren gurasoekin. Goizeko zortzietan izaten zen bederatziurrena eta seietan ateratzen ziren etxetik. Oinez. Abarketa zaharrak jantzita joan eta berriak han janzten zituzten. Bazkaria etxetik eramaten zuten. Lezoko bat soinua joz joaten zen. Gero Hondarribira jaisten ziren, desfilea ikustera.

1.961. Arropa bata besteari pasatu (LEZ-103/038)

Garai batean arropa gutxi erosten zen. Batak besteari ematen zioten txiki geratutako arropa, aprobetxatzeko. Bestela, etxean egin. Oinez joateko, abarketa zaharrak eta gero berriak aldatzeko. Gaur egun dirua "bota" egiten da.

1.962. Bizilagunen arteko harremana (LEZ-103/039)

Garai batean etxeetako ateetan soka egoten zen, edonork tira egin eta irekitzeko moduan. Etxean zerbait falta bazen, bizilagunei eskatzera joatea ohikoa zen. Harreman handiagoa zegoen, konfiantza handiagoa. Amak lagun batekin arratsaldeak pasatzen zituen kontu-kontari.

1.963. Amak lantegiko lanak eta etxekoak egin behar (LEZ-103/040)

Ama Olibet gailera lantegira joaten zen lanera eta gero etxeko lanak egin behar. Gogoan du amak sehaskari nola eragiten zion, etxeko lanak egiten zituen bitartean. Arropa garbitzera garbitokira joaten ziren emakumeak. Astean behin. Maindireak zelaian zabaltzen ziren. Etxean ekonomika zuten eta etxe barruan ere zintzilikatzen ziren arropak, soka bat jarrita. Gizonek lan egiten zuten, baina bazuten beren aisialdia; emakumeek ez. Ama lanean zen bitartean ahizpa nagusienak zaindu behar bestek; batzuetan bizilagunak ere bai.

1.964. Amak bizkar-hezurra hautsi zuenean, bizilagunaren etxean (LEZ-103/042)

Berak urtebete zuela, ama elurretan irrist eginda erori egin zen eta bizkar-hezurra hautsi zuen. Erreterriako Lapaza medikua etortzen zitzaion. Motoan ibiltzen zen eta abisatu gabe azaltzen zen. Bera bizilagun baten etxean egon zen, ama errekueratu arte. Han ere umeak zeuden eta ikatza gordetzeko kutxan egon zela kontatzen diote. Etxera itzulitakoan kosta egin zitzaion berriz amarengana ohitzea.

1.965. Garbitasuna palankanarekin (LEZ-103/043)

Ura sutan berotu eta palankana handi bat jarrita garbitzen ziren. Behin bere senarrari errieta egin zion amak arrosarioa errezatzen ari zenean hanka garbitu zuelako. Rosa izeneko batek tripako mina ("tropezia") sendatzen zuen. Alargunei bederatzi egunean arrosarioa errezatu eta ardo goxoa bizkotxoarekin hartzeko esaten zien.

1.966. Ezezagunekin San Juanera joan zireneko kontuak (LEZ-103/044)

Neska koskorra zela, estropadak izan ziren San Juanen. San Juanek irabazi egin zuen. Lagun batek hara joatea proposatu zion eta ezezagunekin joan ziren kotxean. Etxera iristerako ama jakinean zegoen eta izugarrizko astindua eman zion. Ez zitzaien ezer gertatu, baina gerta zitekeen, halako kontuak izaten ziren eta. "Sacamantecas"ekin beldurra sartzen zieten.

1.967. Garai batean eskeko asko (LEZ-103/045)

Lapurrik ez zen izaten. Eskekoak etortzen ziren eta amak etxerako prestatuta zuen jatekotik platerkada bat edo beste jakiren bat ematen zien. Gogoan du urtero etortzen zen Arantzazuko fraide bat.

1.968. Sukaldeko euskara (LEZ-103/049)

Sukaldeko euskara duela dio, etxekoa. Umeak ikastolan hasi zirenean hasieran arrotzak egiten zitzaizkien euskara batuko hitzak. Lezoko hitzak: "kamiyua", "behiñipin"... San Juanen bizi zenean entzun izan zituen erdarakadak: "tunbatu", "paraguas"a... Bizkaia aldean euskara oso ezberdina. Hondarribian ere bai. Lezokoei "trapujaleak" esan izan diete.

1.969. Lezo asko hazi da (LEZ-103/052)

Senarrarekin zuka egiten du. Anaiarekin egiten zuen hika, ohitura hori hartu zuelako. Lezon hika gutxi entzuten da orain. Asko handitu da herria, etxe berri asko egin dituzte. Garai batean denek elkar ezagutzen zuten.

1.970. Ur bila iturrira (LEZ-104/004)

Etxearen azpikaldean abereak zituzten. Ganbaran belar lehorra gordetzen zuten. Argindarra bazuten baina urik ez. Iturri bat zegoen beheko aldean eta neguan motor batekin jasotzen zuten ura, baina udan baldearekin jaso behar izaten zuten, beraientzat eta animalientzat. Arropak hantxe garbitzen zituzten.

1.971. Baserriaren jabe gerra ostean (LEZ-104/005)

Aitonak erosi zuen baserria gerra ostean, zazpi mila pezeta ingururen truke. Maizter zeuden aurretik. Bere aita eta osaba soldadutzan harrapatu zituen gerrak. Osaba gerra hil zen. Komuna bi etxebizitzentzat izaten zen. Osaba-izebak zituzten bizilagun.

1.972. Neguko hotza eta ekaitz beldurgarriak (LEZ-104/008)

Ganbara irekia zenez, hotz handia egiten zuen etxean. Adreilua berotu eta trapu batean bilduta sartzen zuten ohean. Ekaitzak beldurgarriak izaten ziren. Ilunpetan joaten ziren etxera, arratsaldea josten pasata. Etxetik hamar minutu ingurura zeukaten tren geltokia.

1.973. Galletak, ogitartekoa, oilaskodun paella... jatorduetan (LEZ-104/009)

Goserik ez zuela pasatu dio. Gosaltzeko esnea eta galletak jaten zituzten. Eskolara ogitartekoarekin joaten ziren. Etxean babarrunak jaten zituzten. Igandetan paella egiten zuen amak oilaskoarekin eta oilasko erreka ere jaten zuten. Behiaren haragia saldu egiten zuten.

1.974. Erdararik ez eskolara joan arte (LEZ-104/012)

Etxean euskaraz egiten zuten. Eskolan hasi zenean, erdaraz ezer ez zekien baina pazientzia handiko irakaslea tokatu zitzaion. Maistrarekin egiten zuten eskolarako bidea. Neskak eta mutilak bereizita egoten ziren.

1.975. Anaiekin eta lagunekin hika (LEZ-104/013)

Hika egiten du anaiarekin eta oso lagun direnekin. Gurasoek senideekin hika egiten zuten, baita seme-alabei ere.

1.976. Josten ikasten (LEZ-104/018)

Hamalau urterekin eskola bukatu eta Erreterira joaten hasi zen, josten ikastera. Norberak bere materiala eramaten zuen. Diru pixka bat egiten zuen.

1.977. Mutilek ikasketekin jarraitzeko aukera gehiago (LEZ-104/020)

Eskulanak egiten zituzten eskolan arratsaldean eta ikasi zuen galtzerdiak egiten, gantxiloan... Bere garaian mutilei aukera gehiago ematen zizkieten ikasten jarraitzeko.

1.978. Elkarri laguntzea eta auzolana (LEZ-104/021)

Bizilagunak eta auzokoak elkarri laguntzen aritzen ziren: belarrak ondu behar zirenean, animalia bati zerbait gertatutakoan... Bideak txukuntzeko auzolana izaten zen. Gogoan du Lezo guztian kotxe bakarra zegoeneko. Autobusa trena baino garestiagoa zen.

1.979. Txarrapina eta pulmonia izan zituenekoa (LEZ-104/022)

Elurte handia egin zuen negu batez txarrapina izan zuten umeek. Pulmonia izan zuenean, medikua eta praktikantea joan zitzaizkion etxera. Kamamila asko bildu eta hartzen zuten.

1.980. Bi taberna Gaintxurizketan (LEZ-104/027)

Emakumeak bakarrik tabernara ez ziren sartzen. Bere alabak koskortu eta gero hasi zirela du gogoan. Gaintxurizketako tabernak Errekalde eta Uralde ziren, trenbidearen alde banatan.

1.981. Gaintxurizketako sorgina (LEZ-104/029)

Bazen emakume bat auzoan, Gaintxurizketako sorgina esaten ziotena, Rosa. Ez zen lezoarra. Erremedioak ezagutzen zituen eta jende asko joaten zitzaion, arazo psikologikoak zituztenak ere bai. Ez zegoen ondo ikusia emakumea.

1.982. Igandeetan parrandara (LEZ-104/030)

Hamasei urte ingururekin hasi zen parrandan, lagunekin. Dantza egin eta ilundu aurretik etxera, hori izaten zela dio. Erreterian bandak jotzen zuen eta Txikiardín hiru anai jo eta abesten zuten. Neskak neskekin eta mutilekin aritzen ziren dantzan. Igandetako arropa bereziarekin joaten ziren eta modu berezian orraztuta ere bai.

1.983. Erregeetan mazapana, laranjak edo oihalak (LEZ-104/032)

Aste Santuan elizkizunak izaten ziren. Gabonetan afaria egiten zuten; etxeak bakarrik biltzen ziren. Erregetan opariren bat izaten zuten: mazapana, laranjak, oihalen bat...

1.984. Telefonoa eta dutxa etxean (LEZ-105/004)

Telefonoa beti ezagutu izan du etxean. Ura bazuten eta dutxa ere bai. Etxearen azpiko aldean ikulua zegoen. Erre zenean, hiru bizitzatan zatitu zuten. Etxebizitzaren banaketa azaltzen du. Ohe bakarrean lo egiten zuten ahizpek eta beste batean anaiek.

1.985. Aitak ekarritako arraina, auzokoen artean banatu (LEZ-105/006)

Kale Nagusian egiten zituzten erosketak; aitak arrain asko ekartzen zuen, eta ingurukoei ere banatzen zien. Bizimodu berekoiagoa dagoela iruditzen zaio.

1.986. Zopa egunero (LEZ-105/007)

Etxeko jatorduetan arraina, babarrunak, lentejak... izaten zituzten. Zopa egunero jaten zuten. Igandetan jatordu bereziagoa izaten zuten. Eguberriak, San Marcos eguna... ospatzen zituzten. Opilak egin eta bedeinkatu egiten zituzten.

1.987. Erregeetan opariak: jantziak eta jostailuak (LEZ-105/008)

Eguberrietan afaria egiten zuten. Erregeetako opariak jantziak izaten ziren baina jostailuak ere bai: xirak, arropak, aterkiak, panpinak, kotxe txikiak... Urte zahar egunean mahatsa jaten zuten.

1.988. Garbigailua, piezaz pieza egindako (LEZ-105/012)

Garbigailua zeukaten etxean, piezaz pieza egindakoa. Amak, hala ere, arropa asko garbitzen zuen eskuz.

1.989. Etxean eta lagun artean euskaraz (LEZ-105/015)

Zuka hitz egiten zuten senideen artean; aita eta ama zuka egiten zieten. Lagun artean euskaraz egiten zuten. Tartean euskararik ez zekienik bazegoen, erdaraz egiten zuten. Aitajauna asturiarra zuen eta senarra arabarra. Senarrak ez zuen euskaraz ondo ikasi, inork ez ziolako egiten.

1.990. Iberdrola eraikitzeako presoak (LEZ-105/019)

Iberdrola eraikitzeako presoak eraman zituzten lanera. Asko bertan hil zirela entzuna du. Tximinia oso handia zela dio.

1.991. Ez zen eskola zalea (LEZ-105/023)

Sei urterekin hasi zen eskolan. Non zegoen azaltzen du. Ondoren Erreterian ibili zen mojekin. Ez zitzaizkion ikasketak asko gustatzen. Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten.

1.992. Nobio garairako, gidabaimena eta kotxea (LEZ-105/026)

Hogeita hiru urterekin ezkondu zen. Senarra hamasei urte zaharragoa zen. Elkar ezagutu zutenekoa kontatzen du. Lezoko parrokan ezkondu ziren. Nobiotan irteerak egiten zituzten mendira, elkartearekin. Hemezortzi urterekin kotxea bazuen eta hara eta hona ibiltzen ziren.

1.993. Jaio zenekoa (LEZ-106/003)

Txikitan erdi gaixo egon zen urte askoan. Etxean jaio zen. Auzoko amonaren eta bere izebaren laguntzarekin jaio zen; medikua lo zegoen ondoko gelan. Ordukoa kontatzen du.

1.994. Erreteriko azokara letxugak saltzera (LEZ-106/006)

Lekariak egunero jaten zituzten eta baratzeak ere jaten zuten. Kilometro eta erdi zeukaten kaleraino. Igandetan salda egiten zuten baina jatordua antzekoa izaten zen. Erosketak egitera batzuetan Lezora eta hurrengo Erreteriko azokara joaten ziren; igandetan ere izaten zen azoka han. Joaten zen bera ere letxugak saltzera, asko bazituzten. Erregateatu egiten zuten.

1.995. Garbigailua dohainik eta ezin hartu (LEZ-106/007)

Etxean ez zuen lan askorik egiten. Eskolatik etorritakoan oiloak "kontzen" aritzen zen. Amak baserriaren aurreko aldean zegoen toki egoki batean garbitzen zituen arropak. Garbigailua dohainik probatzeko aukera izan zutenekoa kontaktzen du.

1.996. Bertsopaperak eta Basarriren irratsaioa (LEZ-106/008)

Aita bertsotan aritzen zen bizarra egiten zuenean. Bertsopaperak erosten zituen Erreterian, mezetatik ateratakoan. Basarriren programa entzuten zuten irratitik. Telebista jarri zutenerako, hogeitun urte inguru zituela dio.

1.997. Batzuek hika, beste batzuek zuka (LEZ-106/009)

Aitak hika egiten zion, amak zuka. Erreterian lokutorioan ordua eskatu eta amak ahizpei deitzen zion; haiek bazeukaten telefono bana etxean. Ama ahizpa zaharrena zen. Lehengusu-lehengusinek zuka egin izan diote. Osabak hika egiten zion.

1.998. Eiarako zerrautsa eta kizkurak, bideetarako "eskarabilla" (LEZ-106/013)

Bizilagunekin harreman ona zeukaten. Aitak zerrautsa eta kizkurak (egurtxirbilak) ekartzen zizkien eiarako osaba-izebei. Bideak auzolanean konpontzen ziren; gurdibidea eta bide-zidorra izaten ziren elkarren ondoan. "Eskarabilla" (guztiz erre gabeko ikatza) botatzen zuten bidean. Gurdibidean harriak ipini behar izaten zituzten, lohia egiten zelako. Gurdiaren gurrupilak egurrezkoak izaten ziren.

1.999. Intsusa, ziabelarra eta osina (LEZ-106/016)

Ukendua egiten du intsusarekin, errearentzat. Nola egiten duen azaltzen du. Ziabelarra biltzen du; "katarro-belarra" esaten dio. Lehortu, txikitu eta egosi egiten da, katarroarentzat. Osabak osinaren ura hartzen zuen, odola mehetzeko.

2.000. Urteko ospakizunak (LEZ-106/019)

Eguberrietan familiarekin elkartzen ziren. Mutilak gabon-eskean irtetzen ziren. Santa Ageda baserrietan ez zela izaten dio. Urte zaharretan afaria egiten zuten. San Juanetan sua egiten zuten; bizilagunak kandelak jartzen zituen, arto landareen gainean.

2.001. Umezurtz hamasei urterekin, alargun hogeita hamazazpirekin (LEZ-107/003)

Hamasei urterekin gurasorik gabe geratu zen. Bigarren senidea zen bera. Anai nagusia Lezon oso famatua zela dio; serenoa beti bere atzetik ibiltzen zela dio. Anai-arrebek hamaika eta bederatzi urte zituzten eta berak atera zituen aurrera. Gazterik geratu zen alargun, lau seme-alabarekin.

2.002. Ama arraina saltzen, bera ere bai (LEZ-107/004)

Etxean jaio zen. Ama, Bibiana, oso langilea zuen, jenio bizikoa. Arraina saltzen aritzen zen, eta Maria Luisa bidaltzen zuen kobraketak egitera etxerik etxe. Etxeko ikuiluan gordetzen zuten arraina eta kalez kale joaten zen ama arraina saltzera, ohol bat buru gainean jarrita.

2.003. Euskaraz umeein ikasi zuen (LEZ-107/009)

Ez ditu gogoan kantuak eta ipuinak. Erdaraz egiten zuten etxean. Senarraren etxean ere erdaraz egiten zuten. Umeak ikastolan sartu zituen eta udalekuetan jatorduak prestatzen aritzen zen. Norekin aritzen zen kontatzen du. Orduan ikasi zuen euskaraz, umeein.

2.004. Alamedara dantzara eta zinemara (LEZ-107/017)

Igandetan lagunekin ibiltzen zen. Alamedara joaten ziren dantzara. Zinemara ere joaten ziren. Mendira asko joan izan da, eta orain ere joaten da.

2.005. Arropa garbitzera labaderora (LEZ-107/024)

Etxeko arropa guztiak garbitzen zituen berak. Labaderoan nortzuk elkartzen ziren kontatzen du. Neguan etxean txapa gainean lehortzen zituzten arropak. Txinbo xaboia erabiltzen zuten garbitzeko. Baziren xaboia etxean egiten zutenak.

2.006. Hamazazpi lagun etxean (LEZ-108/005)

Ama etxera ezkondu zen. Linu-ehunen lantegian aritzen zen ama lanean, eta horregatik ezkondu zen Lezora. Amona, osaba-izebak, gurasoak eta anai-arrebak bizi ziren etxean. Hamazazpi ere bizi izan ziren etxean.

2.007. Etxea ohez beteta (LEZ-108/006)

Logeletan bi ohe zituzten, sarrerako armairutik ohea ateratzen zuten, egongelan ere beste altzairu batetik ohea ateratzen zuten... Bi izebarekin egiten zuen lo. Ondoren, lau ahizpek egiten zuten gela bakarrean. Ikasi sukaldean egiten zuten, denek batean.

2.008. Telebista ikustera herriko ume guztiak (LEZ-108/010)

Telebista bazeukaten 1963 alderako. Etxera etortzen ziren Lezoko ume guztiak telebista ikustera. Pipak jaten zituzten. Aitonak jarri omen zuen sotoan soka bat zintzilikatu eta ziburu bat.

2.009. Ikuilua eta sotoa nolakoak ziren (LEZ-108/011)

Ikuiluan oiloak eta untxiak zituzten. Sotoa eta ikuilua nola zegoen antolatuta kontatzen du. Animaliak eta umeak jolasean aritzen ziren, denak batera. Ingurua deskribatzen du. Ateak zabalik egoten ziren orduan.

2.010. Kromoetara nola jolasten zuten (LEZ-108/012)

Umetako lagunak aipatzen ditu. Kromoekin ibiltzen ziren jolasean. Nola jolasten zuten azaltzen du.

2.011. Txingoketan jolasa (LEZ-108/013)

Txingoketan nola jolasten zuten azaltzen du.

2.012. Kailoka jolasa (LEZ-108/014)

Kailoka ere jolasten zuten, tortoloxetara. Azalpena ematen du.

2.013. Kanika jolasa (LEZ-108/015)

Sokasaltoan asko ibiltzen ziren. Kanikekin nola eta non jolasten zuten kontatzen du. Kanika batzuk beirazkoak eta beste batzuk buztinezkoak izaten ziren.

2.014. "Tres navios" jolasa (LEZ-108/016)

"Tres navios" jolasa azaltzen du.

2.015. Arropa-garbigailua eta arropa zuritzeko modua (LEZ-108/017)

Arropa-garbigailua zeukaten eta uraren berogailua ere bai. Baratzan zabaltzen zituzten arropak, belarretan, urarekin eta xaboiarekin, zuritzeko. Aklaratu eta baratzako soketan zabaltzen zituzten, baita etxean bertan ere.

2.016. Lagun artean eta etxean euskaraz (LEZ-108/020)

Normalki euskaraz egiten zuten lagun artean. Etxean erdaraz eginez gero, euskaraz egiteko agintzen zieten. Zuka egiten zuten.

2.017. Gerrako kontuak ipuin modura (LEZ-108/021)

Aitak ipuinak kontatzen zizkien. Gerrako kontuak gustatzen zitzaizkien. Gehien gustatzen zitzaien pasartea kontatzen du. "La bruja del valle verde" kontatzen zien.

2.018. Ikatza, txirbila eta egurra sutarako (LEZ-108/022)

Sukaldean epel egoten ziren eta geletan hoztuta. Sukaldea deskribatzen du. Ikatza erosi egiten zuten eta osabak txirbila eta egurra ekartzen zizkien zerrategitik.

2.019. Bakailaoa gustoko ez eta jan egin behar (LEZ-108/023)

Lekariak, barazkiak eta bakailaoa jaten zituzten gehien. Ez zitzaien umetan bat ere gustatzen bakailaoa. Igandetako menua azaltzen du. Ahia zer izaten zen azaltzen du.

2.020. Arratsaldetan eskulanak egiten ikasten (LEZ-108/027)

Bordatzen oso ondo ikasi zuen. Mutilek zer egiten zuten ez daki. Maiatzean, arratsaldetan errosarioa erreztatzen zuten; Ama Birjinari lore sorta eramaten zioten egunero. Puntuazioa ematen zien irakasleak hainbat gauzarengatik.

2.021. Elizako eginkizunak (LEZ-108/029)

Igandero bazkalondoren dotrinara joaten ziren; euskaraz izaten zuten. Bezperak izaten zituzten batzuetan latinez. Elizan egiten ziren ekintza guztietan parte hartzen zuten. Oporretan mezetara egunero joaten ziren. Konfesatu ere egin behar izaten zuten.

2.022. Herriko ospakizunak (LEZ-108/032)

Herriko ospakizunak izendatzen ditu.

2.023. Gabonetan eskean (LEZ-108/033)

Umetan gabonetan etxez etxe ibiltzen ziren kantuan eskean. Jaiotza txiki bat erabiltzen zuten beraiekin.

2.024. Gabonetan koruarekin kantuan (LEZ-108/034)

Santa Agedatan eskean gaztetan irtetzen ziren. Elizako koruarekin Eguberri bezperan kalean ibiltzen ziren eta Urte Zahar egunean baserrietara joaten ziren kantura. Eguberrietako kantak abesten zituzten.

2.025. Komunerako ura, iturria eta labaderoa (LEZ-109/006)

Etxearen egitura azaltzen du. Komuna bizilagunekin partekatzen zuten. Mutilek ura ekartzen zuten, komunetik behera botatzeko. Iturria zeukaten edateko ura hartzeko eta erreka ondoan labaderoa.

2.026. Untxia nola hiltzen zuten (LEZ-109/011)

Oiloa, txekorra eta untxiak izaten zituzten. Txekorra saldu egiten zuten. Aitari laguntzen zioten untxia hiltzen. Nola egiten zuten azaltzen du. Igandetako otordua izaten zen gehien bat.

2.027. Anai-arreba guztiek euskaraz ondo irakurtzen zuten (LEZ-109/016)

Kanturako ohiturarik ez zeukaten etxean. Aitaren zaletasuna irakurtzea zen: Zeruko Argia, Arantzazuko egutegia... Euskaraz ondo irakurtzen ikasi zuten anai-arrebek. Egutegia zelakoa zen azaltzen du. Aitak egunero egunkaria erosten zuen.

2.028. Anai-arreben artean hika (LEZ-109/018)

Anai-arreben artean hika egiten dute. Aitak anaiekin hika egiten zuela uste du; neskekin, orde, zuka. Bi ahizpen artean gazteleraz egiten zuten, baita lagun artean ere. Aitari esker jarraitu zuen euskaraz. Kuadrilan bi-hiru lagunekin egiten du hika.

2.029. Lezoko hizkera (LEZ-109/019)

"Goitti-beitti", "heldu da...", "atzo ikusi nizun", "joaten gera jolastera" erabiltzen dituztela aipatzen du.

2.030. San Pedro edo Pisbe auzoa (LEZ-109/021)

San Pedro auzoa da bera bizi zena. Pisbe, Pasai Donibanen zegoen enpresa bat zen, bakailaoa deskargatzen zuena. Enpresako langileentzat egin zuten auzoa zenez, Pisbe izenez ezagutu izan da auzoa. Langile gehienak kanpotarrak zirela dio.

2.031. Korrikazalea (LEZ-109/023)

Txingoka, kaniketan, gorde-gordeka... aritzen ziren jolasean. Korrika egitea gustatzen zitzaion asko Inesi. Ekainaren 21ean Pisbe auzoko jaiak izaten ziren eta lasterketan parte hartzen zuen. Anekdotak bat kontatzen du.

2.032. Kamamila biltzera (LEZ-109/024)

Mendirako zaletasuna izan du. Aitarekin kamamila biltzera joaten zen urtero. Garaia noiz den azaltzen du.

2.033. Orduko elkartasuna (LEZ-109/026)

Babarruna ereiteko, ondoko baserrikoek idi parearekin lantzen zuten lurra eta umeek erein egiten zuten. Aitak oporretan lastairak konpontzen zituen baserriz berri. Eliza konpontzeko lezotarrek jarri zuten dirua eta beraien aitak bildu zuen baserritarrengandik dirua.

2.034. Dena bekatua eta beldurra (LEZ-109/030)

Igandero joaten ziren mezetara eta dotrina ikastera. Dena bekatua eta beldurra zela erakusten zieten. Elizara joateari utzi zionean, amak atsekabe handia hartu zuen.

2.035. Francoren irudia ikasgelan (LEZ-109/031)

Lezoko eskolan ibili zen. Irakurtzea eta idaztea gustatzen zitzaion gehien. Francoren irudia horman ikusi izanak arreta eman zion.

2.036. Elizaren eragina heriotzarekiko ikuspegian (LEZ-109/033)

Elizak heriotzarekiko ikuspegian izan duen eragina azaltzen du. Bekatuan hiltzeak infernuko sutan erretzea zela azaldu eta iruditan erakusten zieten. Hilerrian aparte lurperatzen zituzten bataiatu gabeko umeak eta beraien buruaz beste egin zutenak. 6. mandamentuari ematen zioten apaizek garrantzia gehien eta sexu-harremanekiko kontrola zeukaten.

2.037. Askatasunerako mugimendu sozialetan (LEZ-109/035)

Bere gaztaro garaian, askatasunerako mugimendu sozialak abiatu ziren. Gizartearen aldaketa prozesuan parte hartu duen belaunaldikoa da. Saltsa guztietan ibiltzen ziren. Franco hil aurreko azken urteak mugarri izan zirela dio.

2.038. Parekidetasunerako, gizonengan presioa (LEZ-109/036)

Gizonezkoengan presioa jarri behar dela dio, parekidetasunera heltzeko. Iritzia ematen du.

2.039. Homosexualitatea bere gazte garaian (LEZ-109/037)

Bere belaunaldia jotzen du gizarte aldaketako belaunalditzat. Bere gazte garaian homosexualak bazeudela dio; emakumeak baziren, ez zitzaion hainbesteko garrantziarik ematen. Homosexuala izateagatik preso hartzen zituzten.

2.040. Auto-stopez penintsulan zehar (LEZ-109/039)

Hogei urterekin, auto-stopez penintsulan zehar ibili ziren bi lagun, hiru astez. Izugarri ondo pasa zutela dio. Tokatzen zen lekuan egiten zuten lo.

2.041. Elkartasun falta (LEZ-109/044)

Pertsonen arteko elkartasunaren falta handia somatzen du. Gauza materialei garrantzia handia ematen zaie. Ilusio eta proiektu handiak zituzten.

2.042. Heriotza eta gaixotasuna ezkutuan (LEZ-109/048)

Heriotza eta gaixotasuna umeen egunerokotik kendu direla azaltzen du.

2.043. Igandetan bisita ugari (LEZ-110/005)

Babarruna eta patata jaten zituzten urte osoan. Txerria hiltzen zuten, oilaskoa tarteka... Igandetan beti jende asko egoten zen etxean, bisitan joanda.

2.044. Etxean beti euskaraz (LEZ-110/006)

Etxean gurasoekin dena euskaraz egiten zuten. Aitak errietan egiten zien erdaraz entzundakoan. Aitak zuka egiten zien. Anai batzuekin hika egiten zuen eta lagun artean ere bai.

2.045. Garo edo inaurkin bila Jaizkibelera (LEZ-110/007)

Garoa edo inaurkina biltzera Jaizkibelera joaten ziren. Behiekin edo idiekin ekartzen zuten. Metak egiten zituzten etxe inguruan. Zimaurrea egiteko ere erabiltzen zuten. Belarra segaz moztzen zuten.

2.046. Pagotxa abereentzat (LEZ-110/009)

Zimaurrea nola banatzen zuten kontatzen du. Pagotxa ereiten zuten negu aldean. Lastoarekin nahastuta ematen zioten abereei. Pagotxaren hazia eskuz biltzen zuten. Erbiei eta untziei ere gustatzen zitzairen. Baserriko tresnak erosi egiten zituzten, gehienez ferian. Artoaren tartean ereiten zuten.

2.047. Betizuak eta ardiak, neguan Jaizkibelen, udaberrian Aralarren (LEZ-110/010)

Behiak jetzi, azpiak atera, esnea saldu... Betizuak ere izaten zituzten etxean, festetarako. Negurako Jaizkibelera eramaten zituzten betizuak eta udaberrian Aralarrean, oinez. Ardiekin Andoainera oinez joandakoa da, aitarekin. Aitak eta amak betizuengatik ezagutu zuten elkar.

2.048. Irratia piztu eta dantzari (LEZ-110/012)

Etxean musika jarri sukaldean eta dantzari aritzen ziren denak. Soinujolea ere izaten zen beraien etxean. Estropadak irratitik entzutera joaten ziren asko.

2.049. Lapetarako zaletasuna Lezon (LEZ-110/017)

Lapetarako zaletasun handia izan dute Lezon. Osaba bi joan ziren behin eta itsasoak eraman zuen bat. Jaizkibelera joaten ziren arrantzara eta lapetara.

2.050. Umetatik mezetara eta konfesatzera, penagarria (LEZ-110/020)

Elizara joateko jeisten ziren kalera, igandetan. Jaunartzea zazpi urterekin egiten zen, eta ondoren hamaikarekin. Hilean behin konfesatzera joaten ziren. Penagarria iruditzen zaio.

2.051. Ataundarreneko etxea eta San Pedro auzoa (LEZ-111/003)

Ataundarreneko etxea nolakoa zen kontatzen du. Txikia zelarik, San Pedro auzora joan zen bizitzera. Auzoa deskribatzen du.

2.052. San Pedro auzoan erdaraz, Kale Nagusian euskaraz (LEZ-111/005)

San Pedro auzoan jolas gehienak erdaraz ziren baina euskara nahasten zuten. Auzoan erdaraz aritzen ziren. Kale Nagusiko lagunekin ibili izan da gehiago eta euskara mantendu du. "Háblame en cristiano" esaten zieten.

2.053. Manolita Larrearen ikastola (LEZ-111/006)

Hamalau urterekin denda batean hasi zen lanean. Euskaldunek euskaraz eskatzen zioten. Amonaren etxe ondoko baxu batean, Manolita Larrea izeneko emakume batek (andereñoa esaten zioten) euskarazko eskolak ematen zizkien ume txikiei.

2.054. Euskalduntzeko eta alfabetatzeko gau eskolak (LEZ-111/007)

Ikastolen mugimendua hasi zenean, gurasoak euskalduntzeko eskolak ematen zituzten. Jon Oñatibiak prestatu zituen irakasleak. Ondoren gau-eskolak sortu ziren, alfabetatzeko, eta hara ere joaten zen. Ikastolarako dirua batzeko taberna zabaltzen zuten.

2.055. Ikastola eta gau-eskolak hasieretan (LEZ-111/008)

Ikastola eraikin prefabrikatu batean hasi zen, Don Inazio apaizaren baimenaren babesean. Agustina Pontesta eta Axun Larrea hasi ziren irakasle. Gau-eskolak leku berean izaten ziren, Patri Urkizu eta Pello Garbizurekin. Jende asko joaten zen, gurasoak eta gazteak gehienik.

2.056. Gau-eskoletan irakasle (LEZ-111/009)

Gau-eskoletan irakasle aritu zen, AEK sortu baino lehenagoko urteetan. EUTGn titulua ateratzen zuten. Borondatez aritzen ziren.

2.057. Alfabetatzeko eskolak nola ematen zituzten (LEZ-111/011)

Euskaraz alfabetatzen ikasten aritu zen. Iluntzean izaten ziren eskolak. Ikastaro batzuk eta bilerak egiten zituzten ezer ez zekitenei erakusteko. Hitzaldiak ere antolatzen zituzten; Juan Mari Torrealdai du gogoan. Euskalduntzen izeneko liburuak erabiltzen zituzten. Eskolak euskara hutsean ematen zituzten.

2.058. Kale Nagusiko etxeak sagardotegi izandakoak (LEZ-111/016)

Etxe berrira zergatik joan ziren azaltzen du. Kale Nagusiko etxe asko sagardotegi izandakoak ziren. Etxe batek omen zeukan dolarea. San Juan auzoko pisua deskribatzen du.

2.059. Neskak eta mutilak bereizita (LEZ-111/017)

Neskak eta mutilak banatuta ibiltzen ziren garai hartan. Eskolan pareta zegoen neskak eta mutilak bereizteko; pasatuz gero, zigortu egiten zituzten. Mutilei "mari chica" esaten zieten, neskaren batekin ikusiz gero.

2.060. Lehenengo arropa-garbigailua eta hozkailua (LEZ-111/022)

Etxeko zereginak amak egiten zituen. Ama gaixotzen bazen, berak egiten zituen. Lehenengo arropa-garbigailua nolakoa zen kontatzen du. Telebista oso berandu izan zuten. Hozkailua nolakoa izaten zen kontatzen du; gela erosi behar izaten zuten ia egunero.

2.061. Dendako edo bizilagunaren telefonotik (LEZ-111/024)

Etxeetan ez zuten telefonorik. Dendatxo batean zegoen telefonoa eta han jasotzen zituzten deiak, eta egin ere bai. Beraien bizilagun batek telefonoa jarri zuenean, handik moldatzen ziren.

2.062. Pisbeko tabernan telebista ikusten (LEZ-111/025)

Telebistarekin berdintsu gertatu zen. Pisbeko taberna batean telebista bazen, eta ostegunetan umeak joaten ziren bertara, pezeta baten truke telebista ikustera.

2.063. Aita eta bizilagunak kantuan (LEZ-111/026)

Aitak ohitura zuen jotak abesteko; oso umoretsua zen. Amak ez zuen kanturako zaletasunik. Bizilagunak kantuan ibiltzen ziren etxeko zereginak egiterakoan.

2.064. Gauez, etxerako bidean beldurrez (LEZ-111/027)

Amonaren etxera joaten ziren asko. Etxerako bidean beldurtuta joaten zen. Leku ilunak zeuden. Batzuetan lagunek laguntzen zioten.

2.065. Aldaketa asko bizi izan dituen belaunaldia (LEZ-111/028)

Elizak asko markatu dituela dio, dena bekatua baitzen. Aldaketa politikoa, sexuala, erlijiosoa... bizi izan dutela dio. Ez zituen guraso oso elizkoiak. Auzoko euskaldunak dotrinara joaten ziren, baina erdaldunak ez.

2.066. Sexualitate tailerra elizaren lokaletan (LEZ-111/029)

Elizaren babesean gauza asko mugitu ziren. Elizaren lokaletan sexualitate tailerrak jaso zituen, esaterako. Baldatarrak oso jantziak zirela dio. Amak poz hartu zuen jakin zuenean.

2.067. Hilekoa gehienek ezkutuan (LEZ-111/030)

Hilekoaz ez zuten askorik hitz egiten baina ikusten zituen ohialezko konpresak, harraska azpian beratzen. Hilekoaren gainean ipuin asko zabaltzen ziren.

2.068. Homosexualitatea ezkutuan (LEZ-111/031)

Homosexualitatea gaizki ikusia zegoela uste du. Mutil homosexualak neskekin ibiltzen ziren eta oso harreman polita egiten zuten. Ezkutuan ibiltzen ziren. Nesken arteko homosexualitatea ez zen nabaria izaten.

2.069. Sexu harremanak ezkon aurretik (LEZ-111/033)

Ezkontzara harreman sexualik izan gabe iristea barneratuta zeukaten. Inor ez zen ausartzen preserbatiboak eskatzera. Jende asko ezkontzen zen haurdun.

2.070. Amak ikuspegi aurrerakoia (LEZ-111/036)

Bere osaba bat oso elizkoia zen eta amak minduta esaten zuen bere ahizpari hamar ume izanarazi zizkiola. Amak babestu egiten zituen haurdun ezkontzen zirenak.

2.071. Ikasketak utzi eta lanera hasi behar (LEZ-111/039)

Hamalau urterekin lanean hasi behar izan zuen, ikasturtea bukatu aurretik, etxean dirua behar zelako. Okindegian hasi zen lanean. Irakasleak pena hartu zuen, ikasketetan ona zelako. Amari pena geratu zitzaion.

2.072. Hasierako soldata, astean ehun pezeta (LEZ-111/040)

Orduan ikasketak izateko dirua behar zen. Hamalau urterekin lanean hastea ohikoa zen. Lehenengo urtean ez zioten kotizatu. Dendan lan egitea hobeto ikusia zegoen lantegian aritzea baino, nahiz eta gutxiago kobratu. Astean ehun pezetako soldata jasotzen zuen.

2.073. Marrukene esan, Morrokoenea idatzi (LEZ-112/002)

Marrukene esaten zioten bere etxeari, kale-baserriari. "Morrokoenea" jartzen zuen, baina Marrukene esaten zioten denek.

2.074. Morrokoenea baserria nolakoa zen (LEZ-112/004)

Gurasoekin batera bizi ziren baserrian. Aitonak eta amonak erositako baserria zen. Haiekin bizi zen izeba bat. Beheko solairuan, beste izeba bat bizi zen alde batean eta bestean beraiek. Etxean denak mutilak ziren eta jolasean eta sesioan aritzen ziren. "Zarranbuilua" (ziburua) jartzen zien aita sotoan. Baserria erabat aldatuta dagoela dio eta izena ere aldatu diote; "Pilarrenea" da orain.

2.075. Gaintxurizketara bidea nolakoa zen (LEZ-112/005)

Errepidea ezagutu du beti etxe ondoan, Gaintxurizketara bidea. Senide eta lehengusuekin goitiberekin ibiltzen zen bide hartan. Bidea asfaltatu gabekoa zen, estua, zuhaitzez inguratua. Zaldia eta gurdiaekin ibiltzen ziren baserritarrak, esnea banatzen.

2.076. Etxean euskaltzaleak, ezkutuan (LEZ-112/006)

Etxean euskaraz aritzen ziren. Aitak egunero irakurrazten zien Arantzazuko Amaren egutegiko orri bat. Aita oso euskaltzalea zen; amak dena isiltzen zuen. Beldurretan bizi ziren asko garai hartan. Gogoan dauka umetan etxean ordulari zahar bat aurkitu zuela; ikurrina txiki bat zeukan grabatua. Errietan egin zioten gurasoek, harekin ibiltzearren.

2.077. Etxean euskaraz, eskolan erdaraz (LEZ-112/007)

Eskolan Espainiako geografia eta frankismoko kantak erakusten zizkieten. Eskolan sei urterekin hasi zenean, irakasleari besotik helduta ibiltzen zen, hark euskaraz bazekielako. Etxean euskara ikasi zuen eta eskolan erdara.

2.078. Anai-arrebekin eta seme zaharrenarekin hika (LEZ-112/009)

Anai-arreben artean hika egiten dute. Seme zaharrenarekin ere hika aritzen da; beste hiruei zuka egiten die. Ez dauka gogoan gurasoek hika egiten ote zioten.

2.079. Etxean euskaraz egiteko erabakia (LEZ-112/012)

Bere senarrak senideekin erdaraz egiteko joera zeukan. Nobiotan elkarrekin erdaraz egiten zuten elkarrekin. Ezkondu eta bederatzi hilabetera jaio zen aurreneko semea. Senarrari esan zion, haurra jaiotzean etxean euskaraz egingo zutela. Eta halaxe egin izan dute.

2.080. Mutilengandik urrun (LEZ-112/013)

Hika desagertzeak pena ematen dio. Ikasi zutena da. Mutilei hika entzutea ohikoagoa zen. Hilekoa izan eta hurrengo udaran, mutilekin jolastea gaizki zegoela eta jostera bidali zuten. Dantzara joaten zirenean ere, mutilak urrunarazi egiten zituen.

2.081. Pitarra eta ardoa urarekin umeentzat (LEZ-112/017)

Aitonak behia eta txekorra izaten zituen eta sagarrarekin pitarra egiten zuen. Jatorduetan ura beharrean pitarra edaten zuten umeek. Zopa jan ostean, ardoa urarekin nahastuta ematen zieten.

2.082. Sagardoa nola egiten zuten (LEZ-112/018)

Sagarra biltzen zuten "kiskailarekin" eta otarretan sartu. Zakuetan sartu eta dolarea zeukan baserrira eramaten zituzten sagarrak. Sagarrak hankautsik zanpatzen zituzten eta patsa lortzen zuten. Makinaria handi batetik pasata, sagarraren ura barriketan sartzen zuten eta hala garraiatu. Baserri hartatik barrika bat eramaten zuten etxera eta pitarra egiten zuten.

2.083. Txerri-hiltzeari begira ezkutuka (LEZ-112/019)

Txerri bat izan zuten urte batez. Gau batez, sukaldean hil zutela gogoratzen da. Ezkutuka ikusi zutela gogoan dauka. Umeak sutatik aparte ibiltzen erakutsi zieten; bere biloba aritzen dela kontatzen du.

2.084. Berotasuna lortzeko sistema zerrautsarekin (LEZ-112/020)

Beheko sua ezagutu zuen, birramonarena. Berak ekonomika ezagutu zuen gehiago etxean, urte osoan piztuta. Aitak paper-lantegian egiten zuen lan eta ikatza jasotzen zuen han. Gaztelera zko esaera zaharra esaten du. Aitak zerrautsa erretzeko aparatu bat asmatu zuen.

2.085. Ogi beltza baino zuria nahiago (LEZ-112/022)

Ogi beltza jaten zuten. Emakume bat etortzen zen zesto batekin eta hari ogi zuria erosteko zain egoten ziren. Arrautzak, oilaskoak, untxiak... izaten zituzten jateko.

2.086. Aitak untxia nola hiltzen zuen (LEZ-112/023)

Behin aitari untxi bat hiltzen lagundu zion, eta penarez penaz, hilabetez ez zuen untxirik jan. Buruan kolpea eman, odolustu, larrutu, erditik zabaldu eta lehortzen jartzen zuen. Saltsan jaten zuten.

2.087. Arropa garbitzeko putzua eta iturria (LEZ-112/024)

Aitak eta bi osabak labadero bat egin zuten, erreka ura desbideratuta. Putzua esaten zioten. Gorago iturburuko ura lortzen zuten txorro batetik.

2.088. Aitari bazkaria lantegira eramaten zion (LEZ-112/026)

Etxe barruko lanak amak egiten zituen. Aita paper-lantegian aritzen zen lanean. Eskolatik hamabietan irten, amak prestatutako bazkaria hartu eta aitari eramaten zion. Handik etxera joaten zen bazkaltzera. Asteazkenetan, aitari bazkaria eman ondoren, anaia nagusiaren aldizkarien bila joaten zen.

2.089. Gizonezkoen abusuak (LEZ-112/027)

Barberuak berataz abusatu egiten zuela kontatzen du. Paper lantegira bidean ere, gizonezko bat ateratzen zitzaion. Amari dena kontatzen zion. Horrelako asko gertatzen zela dio, eta dena isildu egiten zela.

2.090. Alabarik zaharrena izanik, amari lagundu behar (LEZ-112/028)

Asteburuan amari laguntzen zion, gobara egiten. Alabarik zaharrena zenez, berak egiten zituen halako lanak amarekin.

2.091. Eskolako lanak gustuko (LEZ-112/029)

Eskolako garaian, handik atera eta jostatzeko aukera izaten zuen, merienda jan eta eskolako lanak bukatu ondoren. Eskolako zereginak asko gustatzen zitzaizkion. Jaunartzeko dotrina ikasi behar izaten zuten. Eskolan dotrina erdaraz buruz ikasten zuen eta etxean euskaraz ikasi behar izaten zuen.

2.092. Paper lantegiko ehundegian lanean (LEZ-112/030)

Hamalau urterekin lanean hasi zen. Paper lantegiak ehundegia zeukan eta han hasi zen lanean, lagun batekin batera, hango bulegoan. Oso pozik joaten ziren lanera, dirua ekar zezaketelako etxera. Hamar urte egin zituen han lanean, ezkondu arte.

2.093. Senarra nola ezagutu zuen (LEZ-112/032)

Hamabost urterekin senarra ezagutu zuen, Lezoko festetan. Nola ezagutu zuten elkar kontatzen du. Bikarioak ez zien neska-mutilei elkarrekin dantzatzen uzten, baina hura hil eta gero, ondorengo bikarioak ez zuen halako debekurik jartzen.

2.094. Gabonetan eta Santa Ageda bezperan baserrietara kantuan (LEZ-112/034)

Oroitzapen onenak familia guztiak batera eguberriak ospatzen zituztenekoak direla dio. Etxeko lehengusu eta anaiekin baserriz baserri aritzen zen kantuz. Santa eskean ere aritzen ziren. Dirua ematen zieten gehiena.

2.095. Aitaren musika, bertso eta liburu zaletasuna (LEZ-112/035)

Aitak San Juan bezperan zuhaitz baten adaxkekin ataria apaintzen zuen. Aitak akordeoia eta ahoko soinua jotzen zituen; bertsoak abesten zizkien eta euskarazko liburuak ere izaten zituen.

2.096. Urrulloko kaskoan familia euskaltzaleak elkarrekin (LEZ-112/036)

Umetan igandetan Urrulloko kaskoan familia euskaltzaleak biltzen ziren. Gezalatarrek txistua eta danbolina jotzen zuten eta dantzan aritzen ziren.

2.097. Irakasle falangistak burla egiten zion (LEZ-115/002)

Zortzi anai-arreba izan dira. Herriko eskolan ikasten hasi zen, Imanol izeneko maisu batekin. Hilabete gutxira, Madrildik etorritako irakasle falangista bat hasi zen lanean. Maisuak burla egiten zion "Mikel" izena zuelako. Errenteriara ikastera joan zen, Aierbe anai-arreben eskola batetara. Eskolak, gaztelaniaz ziren.

2.098. Umetan, giro euskalduna Lezon (LEZ-115/003)

Umea zenean, kaleko giroa euskalduna zen Lezon. Industria garatzen hasi zenean hasi zen kanpotik jendea heltzen.

2.099. Erregistroak gerra garaian (LEZ-115/005)

Gerran, erregistroak egiten zituztenean eskolara joaten zela gogoratzen du. Aita eta osaba abertzaleak ziren.

2.100. Agustina Lizarazurekin, dotrina euskaraz (LEZ-115/009)

Agustina Lizarazuren eskolan ikasi zuen Mikelek, Kale Nagusian. Kantak eta dotrina ikasten zuten bertan. Gero, herriko eskolan ikasi zuen Don Joaquín Codon-ekin. Falangekoa zen eta burla egiten zion Mikeli, bere euskal izenarengatik.

2.101. 850 pezeta kobratzen zituen bikarioak enkontzeagatik (LEZ-115/016)

Don Mateo bikarioari buruz hitz egiten du. Astean 220 pezeta irabazten zituen Joxe Kruzek. Don Mateok, 850 pezeta kobratu zien ezkondu zirenean. 1000 pezeta eman zizkion eta Don Mateok ez zion ezer bueltatu.

2.102. Lezoko ikastolaren sorrera I (LEZ-115/019)

Lezoko ikastolaren sorrera. Don Ignacio Esnal abadeak maisu titulua atera zuen. Udaletxe atzean zegoen "Lezo Handia" izeneko lekuan etxe prefabrikatu bat jarri zuten, lehenengo ikastola izango zena. Hasiera horretan, ekimenean sartuta zeudenak: Joxe Kruz Esnaola, Joxe Miguel Treku, Manolita Korta, Iñaki Zuloaga, Joseba Urkizu...

2.103. Lezoko ikastolaren sorrera II (LEZ-115/020)

Lezoko ikastola sortzeko dirua lortzeko, Aldundira jo zuten, Manuel Lasarte Oria-rengana. Joxe Irastorza eta Mikelen osabaren abalekin, Aldundian mailegua eman zieten. Diru horrekin, ikastola izango zen etxe prefabrikatu bat jarri zuten.

2.104. Ikastolako sorreran, salaketak (LEZ-115/021)

Ikastola sortzen ari zirenean, bi salaketa izan zituzten eta ikuskaritzakoak joan zitzaizkien. Ignacio Esnal abadeak gogor egin zuen ikastolaren alde.

2.105. Ikastola sortzeko beharra (LEZ-115/022)

Ikastola sortzeko beharra ikusi zuten, aurretik dotrina euskaraz ematen zuen Agustina Lizarazuren eskola itxi zutenean. Don Ignacio Esnal abadea jarri zen orduan klaseak ematen.

2.106. Ikastola aurrera eramateko, tituludun irakasle bila (LEZ-115/024)

Ikastola izango zen etxe prefabrikatua eraikitzen, Joseba Urkizuk lan handia egin zuen. Guraso hauen helburua, beraien seme-alabak euskaraz ikasteko aukera izatea zen. Hogei bat izan ziren lehenengo ikasleak. Tituludun irakasleak behar zituzten eta lehenengoa Agustina Pontesta eta Ignacio Esnal izan ziren.

2.107. Santa Klararen irudia etxean babestuta (LEZ-115/027)

Santa Klararen irudia etxean izan dute hainbatetan gordeta.

2.108. Hasieran, jende gutxi ikastolaren alde (LEZ-115/028)

Mikel izan zen Lezoko ikastolako lehendakaria. Ikastola sortu zutenean, giro euskalduna handitu egin zen. Ordura arte oso gutxi zegoen. Ikastolarako bazkideak nola lortzen zituzten.

2.109. Lezoko ikastolako lehenengo andereñoak (LEZ-115/029)

Elbira Zipitriarekin ikasitako andereñoak izan zituzten irakasle bezala. Mari Carmen Goñi lekaroztarra izan zen Lezoko lehenengo tituludun andereñoa.

2.110. Ikastola ez zuten politizatu nahi (LEZ-115/031)

Batzuk, ikastola abertzaletasunarekin lotzen zuten baina Mikelek hori ez zuen nahi. Ikuskaritzakoek begi onez ikusi zuten ikastola sortzea.

2.111. Hexagono formako bi solairuko eskolak (LEZ-115/033)

Herri eskolak handitzeko, hexagono formako bi solairuko eskolan sortu zituzten. Lezoko ikastolaren sorreran, jende asko kontra egon zen: beste eskolak, guraso batzuk...

2.112. Erretereriako ikastolarekin arazoak (LEZ-115/034)

Lezoko ikastola sortu zenean, bertan ikasten zuten ikasleek Erretereriako ikastolan ikasketak jarraitzeko aukera izango zutela adostu zuten. Baina ez zen horrela izan, eta Pasai Donibanera joan ziren ikastera. Geroago, badiako ikasle guztiak batuko zituen Pasaia-Lezo lizeoa sortu zuten bertan.

2.113. Lezoko lehenengo ikastola, etxe prefabrikatu bat (LEZ-115/035)

Lezoko udaletxeak ez zien lagundu ikastola sortzeko proiektuarekin. Ikastola izango zen etxe prefabrikatua Irunetik ekarri zuten. Lursailean, gerra zibileko obus bat agertu zen.

2.114. Ikastolak, elizaren babesean sortuta (LEZ-115/037)

Ikastola sortu zenean, beldur asko zegoen eta elizaren babesarekin sortu ziren.

2.115. Arrasateko ikastola, Lezokoaren erreferente (LEZ-115/038)

Arrasateko ikastola izan zuten erreferente moduan. Bertan, kooperatibismoaren barruan sortu zen ikastola eta erabakiak hartzeko asko hitz egiten zutela gogoratzen du Mikelek. Erretereriako ikastola.

2.116. Lezoko ikastolaren sorrera III: herriaren laguntza gutxi (LEZ-115/040)

Lezon euskara berpizten hasi zenean, Mikel ez zegoen ikastolaren kudeaketan hain sartuta. Herrian, laguntza gutxi izan zuten ikastola sortzeko orduan.

2.117. Lezoko ikastolako lehenengo ikasleetako bat izan zen (LEZ-116/004)

Ikastola ondoan bizi ziren eta bertara joaten ziren, andereño Manolirekin. Oso zorrotza zen. Handik, lehenengo ikastola izango zen etxe prefabrikatura joan ziren ikastera, Lekaroz-ko Mari Carmen Goñi andereñoarekin. Lezon ikasketak amaituta, Erretererian jarraitu zituen ikasketak

2.118. Bazkalorduan korrika etxera eta ikastolara bueltan (LEZ-116/005)

Lezokoak korrika egiten beti izan dira onak. Eguerdian, etxera bazkaltzera joateko eta ikastolara bueltatzeko korrika joaten ziren.

2.119. Erretererian ez zituzten Lezoko ikasleak nahi (LEZ-116/006)

Lurdesen aita izan zen Lezoko ikastolako sortzaileetako bat. Ikasketak Erretereriako ikastolan jarraitzeko arazoak izan zituztela dio. Erretereriako ikastolan, antza, ez zituzten Lezoko ikasleak nahi. Azkenean lortu zuten bertan

ikastea, baina sorbaldaren gainetik begiratzen zieten sentsazioa dauka Lurdesek. Irakasleak zorrotzak baziren ere, ondo portatzen ziren.

2.120. Lezoko ikastola prefabrikatua eta andereño berria (LEZ-116/008)

Lezoko ikastola prefabrikatuari buruzko gogoeta. Mari Carmen andereñoak ikasketa metodologia berria ekarri zuela gogoratzen du. Horren aurretik, lehenengo ikastola garage batean zegoen eta neska eta mutilak elkarrekin zeuden. Prefabrikatuan, alde batetik neskak eta bestetik, mutilak. Xabiertxo liburua erabiltzen zuten ikastolan.

2.121. Lezoko dantza-taldea (LEZ-116/012)

Patxi Larrea izan zuen euskal-dantzetako maisua eta euskarazko kantak ere ikasten zituzten. Zortzi urterekin hasi zen dantzan. Irakaslea da orain.

2.122. Gaztelania 20 urterekin ikasi zuen (LEZ-116/014)

Dantza-taldeko giroa euskalduna izan da beti, biata frankismoan ere. Gaztelaniaz ikasi zuen 20 urte zituenean. Giro guztiz euskaldun batean hazi zen Lurdes, ikastolaren inguruan.

2.123. Ikastolara ikuskaritzakoak joaten ziren (LEZ-116/015)

Ikuskaritzakoak ikastolara joaten zitzaizkien eta galderak erantzun behar izaten zituzten, gaztelaniaz. Mari Carmen (Goñi) tituludun irakaslea zen.

2.124. Jaunartzea, izebaren ezkontzan egin zuen (LEZ-116/018)

Jaunartzea euskaraz egin zuen, bere izeba ezkondu zen egun eta momentu berdinean.

2.125. Ikastola modu klandestinoan sortzen (LEZ-116/020)

Lezoko ikastola eta geroako Lizeoa sortzeko, bilera klandestino asko egin ziren. Sortzaileek ez zuten ikasketarik, baina euskarazko hezkuntza eskaintzeko helburua argi zuten.

2.126. Mutilik ez euskal-dantzetan (LEZ-116/021)

Garai batean, gauza asko egiten ziren euskal sentimenduarengatik. Gaur egun, ez. Mutil gutxi daude euskal-dantzetan.

2.127. Ikastolara joatea garestia zen (LEZ-116/022)

Etxe azpiko dendan euskaraz egiten zuten. Oso garestia zen Erreterriako ikastolara joatea. Bertan, dirudunen seme-alabek ikasten zuten.

2.128. Ikastolara seme-alabak eramatea asko arriskatzea zen (LEZ-116/025)

Ikastolako sortzaileek eta lehenengo ikasleen gurasoek ez zuten gehiegi pentsatzen geroko ikasketetan. Seme-alabek euskaraz ikastea zen helburu bakarra, eta gero gerokoak. Lurdesen ikastolako gelakide bat traumatologoa da gaur egun. Harek ere euskaraz egin zituen ikasketak eta batxilergoan ikasi zuen gaztelaniaz, gero medikuntza egiteko.

2.129. Pasaia-Lezo lizeoaren aurrekariak eta sorrera (LEZ-117/003)

Pasaia-Lezo lizeoa sortu aurreko ikastolen egoera Lezon. Pasaia eta Lezoren arten lizeoaren sorrera. Anekdotak.

2.130. Ikastolako gurasoen lana dirua lortzeko (LEZ-117/005)

Seme-alabak ikastolara eramane zituen. Gurasoek, lan ezberdinak egiten zituzten: gelen garbiketak, tabernan zerbitzatu, afariak prestatu... Lortutako dirua ikastolarentzat bideratzen zen.

2.131. Lizeoko kuota, autobusentzat (LEZ-117/006)

Haurrak lizeora eramateko kuota bat ordaintzen zen. Gehiena, autobusak ordaintzeko izaten zen, ikasle asko jaso behar zirelako. San Pedrokoek diru-laguntzak zituzten, baina Donibanekoek eta Lezokoek adibidez, ez.

2.132. Arropa-denda, ikastolarentzat dirua lortzeko (LEZ-117/007)

Gurasoek bilerak egiten zituzten, ekintzak antolatzeko. Arropa-denda bat jarri zuten.

2.133. Ikastolako autobusetan lanea (LEZ-117/009)

Lizeoa egin bitartean, badiako haur guztiak nahastuta ibiltzen ziren. San Pedrokoak Lezora, Lezokoak Donibanera... Autobusetan laguntzen ibili zen Mari Kruz. Hasieran autobusek ez zuten aseguratik.

2.134. Seme-alabak ikastolara eramateko arrazoia (LEZ-117/011)

Seme-alabak ikastolara eramango zituela erabaki zuen, berak ez zuelako euskaraz ikasteko aukera izan. Berak, dena buruz ikasten zuen ezer ulertu gabe.

2.135. Lezoko ikastolako lehenengo irakaslea (LEZ-117/012)

Manuela Larrea, Asun eta Don Inazio izan ziren lehenengo ikastolako irakasleak. Gero, irakasle gehiago heltzen hasi ziren. Gehienak titulurik ez zuten, eta bazutenek, beldurra zuten ikastolan lan egiteagatik. Batzuentzat euskaraz hitz egitea oso gaizki ikusia zegoen. Konplexuak.

2.136. Ikastolako udalekuak Rokaforten (LEZ-117/014)

Lezoko ikastolako udalekuetara bidali zituen seme-alabak bost urterekin. Mari Kruz ere ibili izan zen udalekuetako sukaldari bezala. Nafarroara joaten ziren, Rokafortera, Errenteriako emakume batek utzitako etxe batera. Etxea oso zaharra zen.

2.137. Udalekuetan, errekan bainatzen (LEZ-117/016)

Udalekuetan, lurrean egiten zuten lo. AStebetez erreka joaten ziren bainatzera, eta beste astebetez igerilekura. Egun osoa pasatzen zuten kanpoan, bai erreka eta bai igerilekua, udalekutik urrun zeudelako. Ogitartekoak eramaten zituzten. Lezoko ikastolako haurrak bakarrik joaten ziren bertara.

2.138. Ikastolako udalekuetan funtzionamendua (LEZ-117/017)

Gauetan asanbladak egiten zituzten andereñoekin. Sukaldariek menu bat pentsatzen zuten. Udalekuak aurrera eramateko dirua, gurasoen kuoten bidez lortzen zen. Hasieran, gurasoek haurrak bisitatzen zituzten udalekuetan. Moztu egin behar izan zen, haurrek negar asko egiten zutelako gurasoak etxera bueltatzen zirenean. Apaizaren bisita izaten zuten.

2.139. Ikastolako gelak garbitzen eta autobubusean laguntzen (LEZ-117/018)

Gurasoek ikastolako funtzionamenduan laguntzen zuten eta Mari Kruzek gelak garbitzen zituen. Lizeoa egin bitartean, ikasleak oso sakabanatuta egoten ziren, herriko lokal ezberdinetan. Haurrak ikastola ezberdinetara eramateko autobusak zeuden eta bertan laguntzen ere ibili zen.

2.140. Ikastolako ekintzak: Olentzero, jaiotza-bizia... (LEZ-117/024)

Inguruko beste ikastolako gurasoekin ez zuten harremanik. Guraso talde bat zegoen Lezon, ikastolako lanak antolatzen zituena. Olentzero ospatzen hasi ziren, baina herrian Erregeak ospatzen ziren eta hurrei zerbait oparitu behar zitzaien ere. Jaiotza-bizian ikastolako haurrek ere parte hartzen zuten.

2.141. Auzolanean ikastola aurrera eramaten (LEZ-117/027)

Herrian beti zegoen jendea prest ikastolan auzolanean laguntzeko: arotzak, igeltseroak... Borondatez lan egiten zuten ikastolan eta gustora egiten zuten, beharrezkoa zen zerbait zelako.

2.142. Ikastolako ekintzak (LEZ-117/030)

Gurasoentzat ikastaroak antolatzen ziren ikastolan, adibidez, eskuz jostailuak egiteko. Herriak urtero antolatzen zuen zuhaitzak landatzera joateko egun bat eta ikastolakoek bertan parte hartzen zuten.

2.143. Jaunartzea, Santa Ageda... euskaraz (LEZ-117/031)

Jaunartzea euskaraz egiteko aukera zegoen. Santa Agedan ikastolakoak ateratzen ziren.

2.144. Ikastolan erlijioa bai edo ez? (LEZ-117/034)

Ikastolan erlijioa irakatsi edo ez erabakitzeke orduan, gurasoen artean eztabaidak izan zituzten.

2.145. Pasaia-Lezo lizeoa eraikitzea oso garestia izan zen (LEZ-117/036)

Gaztelutxo elkarteak sortu zen Pasaia-Lezo lizeoa martxan jartzeko. Inguruko ikastola guztietako ordezkariak biltzen ziren bertan. Urte asko pasatu ziren lizeoa eraiki zen arte eta azkenean, oso garestia izan zen. Guraso guztiak ikastolako bazkide egin behar izan ziren, 15.000 pezeta ordaindu behar zituzten.

2.146. Lizeoa guztiz prestatuta egon gabe hasi ziren klaseak ematen (LEZ-117/037)

Lizeoa eraikitzen egon zenean, egoera politikoa nahasia zen eta baimenak geldituta egon ziren. Asko kostatu zen lizeoa inauguratzea, eta oraindik guztiz bukatu gabe zegoela hasi ziren ikasleak joaten. BUP-eko ikasketak geroago hasi ziren.

2.147. Herri ezberdinetako ikasleen artean ezberdintasunak (LEZ-117/038)

Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo ikasleentzat ez zen erraza izan ikastola berrira moldatzea. Herri ezberdinetako haurrak zeuden eta oso ezberdinak ziren. Pikeak ikasleen artean.

2.148. Lizeoko ikastolako autobuseko anekdotak (LEZ-117/040)

Mari Kruz, lizeoko autobusean laguntzen ibiltzen zen, herriz-herri ikasleak eramaten. Gurasoek eskatzen zuten, autobuseko-laguntzaileak ikastolara sartu bihar zirela haurren bila. Horretarako ez zegoen denborarik, ordea. Behin, autobusean 3 urteko haur bat nola falta izan zen kontatzen du.

2.149. Hasierako urteetako ikastolako materialak, kantak... (LEZ-117/041)

Seme-alabek ikastolan fitxak erabiltzen zituzten. Euskarazko material gutxi zegoen. Kanta asko ikasten zituzten, denak euskaraz.

2.150. Eskolan, gaztelaniaz eta frantsesez (LEZ-118/003)

Familia abertzale eta euskaltzalean jaio zen. Lezoko eskoletan egin zituen lehenengo ikasketak eta gero, mojetan Erreterian. Burlak jaso ditu euskalduna izateagatik. Eskolan gaztelaniaz eta frantsesez ikasten zuten.

2.151. Agustina Lizarazu eta Bonifacia Azkue andereñoak (LEZ-118/005)

Umea zenean, ez zegoen euskal eskolarik. Garai batean, karlistaden ondoren eta industriak etorkinak ekarri zituenean, bazeuden eskoletan klaseak ematen zituzten irakasleak. Dotrina ematen zuten etxeetan eta euskaraz izaten zen. Agustina Lizarazu eta Bonifacia Azkue izan ziren andereñoetako bi. Bost urtera arte ikasten zuten beraien etxean.

2.152. Gerra aurreko ikastola Lezon (LEZ-118/006)

Gerra aurrean, ikastola bat zegoen plazan, Miren izeneko andereñoarekin. Elbira Zipitriarekin formatu zen. 1929an sortu zuen ikastola.

2.153. Manuela Larrearen ikastola Lezon I (LEZ-118/008)

Frankismo garaian, abertzaletasuna berpizten hasi zenean, Lezon ikastola zabaltzeko proposamena jaso zuen. Ordurako, Manuela Larreak dotrina euskaraz ematen zuen Kale Nagusian. Ikastola zabaltzean, Manuela ez zen bertara joan irakasle bezala.

2.154. Manuela Larrearen ikastola Lezon II (LEZ-118/009)

Manuela Larreak ez zeukan irakasle titulurik, baina ikuskaritzakoak joaten zirenean, Don Ignacio Esnal abadeak aurpegia ematen zuen. Ikastola gurasoen batzordearen bidez sortu nahi izan zenean, Manuelak ez zuen onartu bere gainetik inor egotea.

2.155. Euskaraz alfabetatzen andereñoa izateko (LEZ-118/011)

Ikastolan irakasle izateko euskaraz nola alfabetatu zen: ikastaroak, irakasleen eskolak... Magisteritzako eta Euskal Filologiako ikasketak egin ditu.

2.156. Oñatibiarekin alfabetatu zen Jorge Oteiza (LEZ-118/013)

Oñatibiaren Ikasbide kultur-elkartean jaso eta eman zituen euskarazko klaseak. Jorge Oteiza ere bertan ibili zen euskaraz alfabetatzen.

2.157. Oskarbi taldeko kide izan zen (LEZ-118/014)

Oskarbi taldean ibili zen Agustina hiru urtez. Kontzertu asko eman zituzten. Madrilen jo zuten ere. Solfeoa bazekien Agustinak eta taldekide batek Frantziara ihes egin behar izan zuenean eskaini zioten taldean abestea.

2.158. Oskarbi musika-taldea (LEZ-118/015)

Ez Dok Amairu eta Oskarbi, mugimendu oso garrantzitsu baten hasiera izan ziren. Oskarbiko kanta asko Vitoriano Gandiagak idazten zituen. Kanta zaharrak ere kantatzen zituzten. Elizakoa zen estudio batean grabatzen zuten.

2.159. Oskarbi taldeko kideak; kantak (LEZ-118/016)

Oskarbi musika taldean aritu zen 1972tik 1975era. Joxe Luis Treku, Iñaki Maritxalar, Ixiar Agirre..., Bakartxo Maritxalar, Antton valverde, iñaki (Zabaleta?). Zuzendaria Luis Romero zen.

2.160. 1969tik aurrera, Lezoko andereñoa; metodologia (LEZ-118/018)

1969an hasi zen andereño bezala Lezon lanean. Lan asko egiten zuten, fitxa guztiak eskuz egiten zituzten... Gurasoek parte asko hartzen zuten. Naturarekin kontaktu handia izaten zuten. Ikastolan, irakurketa nola egiten zuten azaltzen du. Oso aberasgarria zen.

2.161. Lezoko ikastolako lehenengo ikasleak (LEZ-118/019)

Lezoko ikastolan lanean hasi zenean, 60 bat ume zeuden bertan. Irakasleak, Don Inazio Esnaola, Mari Carmen Goñi eta Agustina bera ziren.

2.162. Lezoko ikastola "prefabrikatuak" salaketak jaso zituen (LEZ-118/021)

Lezoko ikastola prefabrikuaaren sorrera. Mailegua, kontratistak, lurzorua... Ikastola eraiki eta baimena jaso arte, salaketak jaso zituzten herriko beste eskola batzuegandik.

2.163. Ikastolako eta eskola nazionalen arteko pikeak (LEZ-118/022)

Ikastolako eta eskola nazionalen ikasleen arteko ikusezinak. Behin, eskola nazionalerako irakasle bat joan zen ikastolara, bertako ikasle batek Espainiako bandera erre omen zuelako.

2.164. Elizaren babespean sortu behar izan ziren ikastolak (LEZ-118/024)

Don Inazio Esnaola abadea izan zen ikastolaren lehenengo zuzendaria. Elizaren babesa behar zuen ikastolak.

2.165. Lehenengo ikastolak eta elizaren laguntza (LEZ-118/026)

Hasieran, ikastolek ez zuten baimenik lortzen ikastetxe bezala jarduteko. Dotrina emateko eskolan izango balira bezala funtzionatzen zuten legearen aurrean.

2.166. Pasaia-Lezo lizeoaren beharra; Gaztelutxo elkarte (LEZ-118/029)

Erreteriarako ikastola izan zen Lezokoaren erreferente nagusia. Lezon, momentu batean ikastolak lokal ezberdinak bazituen ere (elizako lokalak, apaizaren etxea, ikastola prefabrikatua...) ume asko zeuden eta Erreteriarako ikastolak ezin zituen haien jaso. Pasaiaak orduan ikastola bat eraikitzeke nahia erakutsi zuenez, Lezo haiekin elkartu zen. Gaztelutxo elkarte.

2.167. Irakasleen artean metodologiak elkarbanatuz (LEZ-118/032)

Eskualde mailan, irakasleak asten behin elkartzen ziren, metodologia ezberdinak elkarbanatzeko. Seaskako irakasleak ere joaten ziren. Rosa Sensat. Urtean zehar ikastaroak egiten zituzten. Udan, kataluniar irakasleekin ere elkartzen ziren. Ikastaroetan ikasitakoa, gero praktikan jartzen zuten ikastolan.

2.168. Elbira Zipitriaren irakasteko metodologia (LEZ-118/033)

Elbira Zipitriaren irakasteko metodologia nolakoa zen kontatzen du. Lurrean esertzen ziren, hostoak batzen zituzten, ikasle bakoitzaren erritmoa kontuan hartzen zen...

2.169. Hasierako ikastoleko material didaktikoa (LEZ-118/034)

Xabiertxo eta Martin Txilibitu liburuak erabiltzen zituzten ikastolan. Irakasleek materialak eskuz egiten zituzten. Eskulanak.

2.170. Ikastolan lan egiteko beldurra (LEZ-118/036)

Ikastolen hasieran, tituludun irakasleak lortzea zaila izan zen. Beldurra zuten ikastolan lan egiteagatik fitxatuak izateari. Burgosko prozesuaren ondorioz, jendearen kontzientzia pizten joan zen eta orduan hasi zen jendea beldur gutxiago izaten. Guardia Zibila

2.171. Ikastolako anekdotak ikuskaritza eta guardia zibilarekin (LEZ-118/038)

Maiz guardia zibila agertzen zen ikastolan. Ez zuten begiratzen ia irakasleek titulua zuten ala ez, baizik eta zer irakasten zieten hurrei. Behin, ikuskaritzakoa heldu zenean, ikasle batzuk ikusi zituen lurrean ama birjina baten irudiarekin jolasean.

2.172. Gabonak ikastolan; udalekuak (LEZ-118/040)

Herriak ikastolan parte asko hartzen zuen. Jaiak prestatzeko bilerak egiten zituztenean, jendeak janaria igotzen zien. Eguberrietan jaiotzak egiten zituzten. Olentzero. Gurasoek asko laguntzen zuten. Udalekuak Agurain eta Rocafort-en egiten zituzten eta gurasoek haurrak eramaten zituzten, sukaldari lanak egiten zituzten....

2.173. Ikastolarako dirua lortzen: bazkariak, azokak, kantaldiak... (LEZ-118/041)

Azokak antolatzen zituzten ikastolarako dirua lortzeko. Jaietan ere bazkariak ematen ziren, taberna jarri... Kantaldiak ere antolatzen ziren: Pantxoa eta Peio, Oskarbi, Lurdes Iriondo... Gobernu Zibilera joan behar ziren baimen eske. Gurasoek beti laguntzen zuten, ikastola garbi mantentzen ere.

2.174. Aierru elkarte (LEZ-118/043)

Gau eskolak ematen 1969 inguruan hasi ziren. Orduan, Aierru taldea ere sortu zen eta hainbat talde ezberdin zeuden: mendia, argazkilaritza, sukaldaritza, dantza-taldea... Guztiak ziren ikastolako mugimendukoak ere.

2.175. Herri batek bere hezkuntza-sistema propioa behar du (LEZ-118/045)

Herri batek bere hezkuntza-sistema behar duelako jaio ziren ikastolak. Euskalduna eta metodologia batekin.

2.176. Euskal kontzientzia handia zegoen garai batean (LEZ-118/047)

Ikastolako sortzaileak, irakasleak bilatzeaz gain, etxez-etxe joaten ziren ikasleen bila. Guraso guztiekin hitz egiten zuten. EAJ-k indar handia zuenez, haiengana jo zuten. Euskal kontzientzia handia zegoen garai hartan.

2.177. Ikastolaren sortzaileak, abertzaleak (LEZ-118/051)

Lezo eta Pasaian zeuden ikastolaren sortzaileen artean, harremana zegoen. Denak ibiltzen ziren EAJ eta batzokien bueltan. Emakume Abertzale Batzakoak joan ziren bere etxera, andereñoa izateko eskatuz.

2.178. Lezoko ikastolako sortzaileak: Mikel Salaberria eta Joxe Esnaola (LEZ-118/052)

Ikastolaren eraikin prefabrikatua erosteko, Mikel Salaberria eta Joxe Esnaolak mailegu bat eskatu zuten. Haiek izan ziren udaletxean ere baimenak eskatu zituztenak.

2.179. Pasaia-Lezo lizeoa (LEZ-118/061)

Lezoko ikastolako irakaslea izan zen Agustina. Hainbat ikastola zeuden inguruan, denak sakabanatuta. Pasaia-Lezo lizeoa sortu zenea, euskara bakarrik irakatsiko zuela erabaki zuen. Eraikina oraindik bukatu gabe zegoen. Ikasle eta irakasle asko zeuden bertan. Aldaketa handia izan zen metodologia aldetik.

2.180. Pasaia-Lezo lizeoa: ikasleak (LEZ-118/062)

Pasaia-Lezo lizeoko ikasleak oso ezberdinak ziren haien artean.

2.181. Ikastolako ikasleak, oso ondo formatuak (LEZ-118/063)

Lezoko ikastola sortu zenean, ikasleak topatzea kostatu zitzaien. Hala ere, oso ondo formatuak ateratzen ziren.

2.182. Irakasleen elkartean material didaktikoa sortzen (LEZ-118/064)

Irakasleen elkartean lanean ibili zen Agustina, materiala prestatzen. Zipristin liburua. Ixilik aldizkaria. Txillardegirekin ikastaroak ematen.

2.183. Euskal Herrian Euskaraz elkartea (LEZ-118/065)

Euskal Herrian Euskaraz sortu zuten, Durangoko azoka batean. Salaketa talde bezala sortu zuten. Euskal Herri guztiko jendea elkartu zen. Jaurlaritzara joan ziren, euskarazko telebista eskatzera.

2.184. Irakasleen elkartean materiala sortzen (LEZ-118/068)

Zipristin, Ixilik, Hizkuntza I-II-III, Hiztegi Txikia... sortu zituzten. Irakasgai guztietarako behar zen euskarazko materiala sortu. 1994. urtera arte ibili zen materiala sortzen. Elkartea ixtearen arrazoiak.

2.185. Lezoko labaderoak (LEZ-118/071)

XIX. mendeko Lezoko labadero baten proiektua. 1924ean beste bat eraiki zuten, Zubitxon. Labaderoak, emakumeentzat oso elkartze-gune garrantzitsuak ziren.

2.186. Olibet gaileta lantegia (LEZ-118/072)

Olibet gaileta-lantegian egin zuen Agustinaren amak lan.

2.187. Senarraren baimena dirua ateratzeko (LEZ-118/073)

1983an, oraindik senarraren baimena behar zuten emakumeek bankuko gauzak egiteko.

2.188. Pasaportea ateratzeko, Serbitzu Soziala egin beharra (LEZ-118/074)

Zerbitzu soziala egin behar izan zuen falangean, pasaportea atera ahal izateko. Ikastaroak egiten zituzten eta amaieran, ume jaioberrientzat erropaz betetako otartxo bat josi behar izaten zuten. Agustinak, erosi egin zuen.

2.189. Bake-epailea izan zen, euskara bultzatu ahal izateko (LEZ-118/077)

HB-ko zinegotzia izan zen 1995tik 1999ra. Bake-epaile izatera sartu zen, epaitegietan euskara bultzatu ahal izateko. Anekdotak batzuk kontatzen ditu. Abizenak euskalduntzen ere ibili zen.

2.190. Hitanoa Lezon (LEZ-118/078)

Lezon hika oso gutxi egiten da. Agustinak, anai-arrebekin eta oso gertuko batzuekin erabiltzen du. Hitanoari buruzko iritziak Lezon.

2.191. Gerra aurreko euskararen suspertzea (LEZ-118/083)

Gerra aurreko hezkuntza, elizaren menpekoa zen. Foruen galerarekin, Aldundien garapen bat eman zen eta euskararen suspertze moduko bat egon zen: Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu ziren, lore-jokoak...

2.192. Garai bateko eskola: zigorrak, neska gutxi... (LEZ-118/084)

Garai batean, hezkuntza mutilentzat zen. Zigorrak: makilarekin jo, errosarioa errezatu, eraztunarekin jo..

2.193. Gerra aurreko eskolak eta andereñoak (LEZ-118/085)

Eusko Ikaskuntzari buruzko hausnarketa. Aldundiak sortu zituen baserri-eskolak, auzo-eskolak... Andereñoak: Bonifacia Azkue, Agustina, Miren Gesalaga...

2.194. Klasekide baserritarrei itzultzaile lanak egiten (LEZ-119/004)

Eskolan, gaztelaniaz egin behar izaten zuten. Jonek piska bat bazekienez, baserritik jeisten ziren ikasleei laguntzen zien itzultzaile lanak egiten. Etxean, beti euskaraz egiten zuten eta gaztelaniaz egin ezker, ikatz bila joatera zigortzen zituzten.

2.195. Udalekuetan Agurainen eta Barrian (LEZ-119/005)

Don Serafin Esnaola abadearen bitartez, Agurainen zeuden udaleku batzuetan begiralea izan zen. Gipuzkoako haurrak joaten ziren udaleku haietara. Agurainen eta Barrian izaten ziren. Don Serafin Esnaolak bultzatutako ekimena izan zen. Oso ondo pasatzen zuten. Lehenengo ikastolen inguruan sortu ziren udaleku hauek.

2.196. Bergaratik Lezora lanera 1974an (LEZ-119/006)

Bilbon majisteritza ikasten zegoen bitartean, Bergarako ikastolan ere lan egiten zuen. Patxi Larrearen bitartez, Lezon irakasleak behar zirela jakin zuen eta bertara joan zen bizitzera. San Juan kaleko etxe batean bizi zen, Ricardo

Salaberria eta Pili Etxaberen familiarekin. Herrian integratzeko modu ona izan zen.

2.197. Bergarako Aranzai ikastolako lehenengo irakasleak (LEZ-119/007)

Bergarako Aranzadi ikastolan ordu batzuk lan egiten zituen, Lezora joan aurretik. Bergaran, Izaskun Jimeno, Lupe Olabarria, Maria Victoria Arizmendi, Libe, Arantzazu eta Blanca Narbaiza, Frai Jaxinto, Etxeberria fraidek... ziren ikastolako irakasleak. Ikastola oraindik ez zen guztiz legala.

2.198. Bere kabuz euskaraz alfabetatzen (LEZ-119/008)

Bere kabuz alfabetatu zen gehienbat, baina ikastaroak ere egiten zituen.

2.199. Kazkabarra eta txingorra (LEZ-119/009)

Lezoko ikastolan lanean hasi zeneko lehenengo eguna gogoratzen du. Bere euskara eta ikasleena ezberdina zen, nai ahoskeran eta baita hitz batzuetan ere.

2.200. Ikuskaritza heltzen zenean, korrika ateratzen zen ikastolatik (LEZ-119/010)

Lezoko ikastolan hasi zenean, berarekin zeuden irakasleak: Asun Larrea, Agustina Pontesta, Maxux Zugazti, Markos eta beste abade bat. Don Inazio Esnal abadea, tituludun irakasle bakarra zen, Ikuskatzailea heltzen zenean, korrika ateratzen ziren ikastolatik. Ikastolan dena eskuz egiten zuten kalkoen bidez.

2.201. Lezoko ikastolako lehenengo irakasleak (LEZ-119/012)

Lezoko ikastolan lanean hasi zenean, berarekin batera irakasleak zirenak aipatzen ditu. Prefabrikatuan, Asun Larrea, Agustina Pontesta, Maixux Zugazti eta bera. Don Ignazio Esnalen etxean, Markos eta Joxe. Ikastola prefabrikatua nolakoa zen,

2.202. Ikastolak sortzeko arrazoiak (LEZ-119/013)

Lezoko ikastolaren hasieran dena egiteko zegoen eta arratsaldetan biltzen ziren materialak eta klaseak prestatzeko. Ikastolak sortzearen arrazoiak. Pedagogia ikasi zuen majisteritzan, baina gero, ikasleen arabera moldatu beharra dago irakasteko modua.

2.203. Andereñoen "sorgin-gaba" (LEZ-119/014)

Irakasleak astean behin edo gehiagotan biltzen ziren. Guraso guztiekin batera, ikasturte hasieran eta amaieran biltzen ziren. Asteartetan, "sorgin-gaba" antolatzen zuten, ikastolan egingo ziren ekintzak antolatzeko, hitz egiteko... Gero, Errenteriako taberna batetara joaten ziren ondo pasatzera.

2.204. Euskaraz ikasteko gau-eskolak (LEZ-119/015)

Euskarazko gau-eskolak ematen ibili zen Lezon. Ikasle asko egoten ziren.

2.205. Ikuskaritzakoak ikastolara joaten zirenean (LEZ-119/016)

Lezoko ikastolan, ikuskaritzakoa etorri zenean ama birjinaren irudiarekin izandako anekdota kontatzen du.

2.206. Pasaia-Lezo lizeoan, badia guztiko haurrak (LEZ-119/017)

Majisteritzako ikasketak bukatzeko, andereño lana utzi zuen. Titulua lortuta, 1979an, Pasaia-Lezo lizeoan lan egiteko deitu zioten. Lizeoa bukatu gabe zegoen, Lezoko, San Juango, San Pedroko, Antxoko eta Trintxerpeko ikasleak batzen ziren. Ikastolan. Lizeoan beti zegoen zerbaiteko: programazioak, ekintzak, metodologia...

2.207. Amonak euskarari uko egin zion (LEZ-119/021)

Ama euskalduna zuen Elenak, baina aita ez. Haren amak, hirugarren semea izan zuenean euskarari uko egitea erabaki zuela kontatzen du. Elenari umetan amak euskaraz egiten zion, baina gainontzeko bizitza gaztelaniaz bizi zuen.

2.208. Euskaraz nola alfabetatu zen (LEZ-119/022)

Etxean, euskara radiofonikoa entzuten zuten, aita ere euskara ikasteko. Sei bat urte zituela, Kontxita Beitiarekin euskara klase batzuk jasotzeko aukera izan zuten eta arratsaldetan biltzen ziren Xabiartxo liburuaren inguruan. Hamasei urterekin Patxi Altunarekin euskara ikastera joan zen, EUTG-ean. Majisteritza ikasi zuen, dena gaztelaniaz. Ikasketak bukatzean, Deban egin zuten barnetegi bat gogoratzen du, falangeak antolatutakoa. Euskara titulua atera zuen eta

2.209. Antxoko ikastolako Freinet metodoa (LEZ-119/024)

Elenaren ahizpa batek ikastolan lan egiten zuenez eta bere gurasoak ere ikastolako mugimenduan sartuta zeudenez, ikastolak kudeatzen zituen batzordeetako batek irakasle izateko proposamena luzatu zion. Ofizialki, majisteritako praktikak Antxoko San Fermin eskola nazionalan egin zituen arren, Beraunen Antxoko ikastolak zuen lokal batean ere egin zituen praktikak. 1976a zen. Maite Etxebeste zein bertan zegoen irakasleetako bat. Bertan, Freinet metodoa erabiltzen zuten.

2.210. Lezoko ikastolak: markesaren etxea eta prefabrikatua (LEZ-119/025)

1976an, Lezoko markesaren etxeko ikastolan hasi zen lanean, Lezoko eta Antxoko ikasleekin. Orduan, Pasaia Lizeoa deitzen zitzaion. 1972an hasi ziren pentsatzen nola elkartu badiako ikastolako ikasleak. Markesaren etxean eta ikastola prefabrikatuan izandako oroitzapenak kontatzen ditu.

2.211. Pasai Antxoko ikastolaren sorrera (LEZ-119/029)

Pasai-Antxoko ikastolaren sorrerari buruzko kontuak. Gurasoak eta andereño Nekane elkartzen ziren, ikastola aurrera eramateko. Elizaren babesean sortu zen ikastola, Kontxita Beitia eta Nekane Auzmendi andereñoekin batera. Kokapen ezberdinak. Kontxita Beitiaren etxean euskara ikasten zuten.

2.212. 1979tik aurrera, Pasaia-Lezo lizeoan (LEZ-119/030)

1979an hasi zen Elena Pasaia-Lezo lizeoan lanean, baina oraindik ez zeuden ikasle guztiak bertan. Eraikina bukatu gabe zegoen. "Saioka" testu-liburuak erabiltzen zituzten, eta geroago Elkarrek ateratako liburuekin.

2.213. Pasai Antxoko "txabolsotoa" (LEZ-119/032)

Ikastolarako dirua nola biltzen zuten: taberna, jaialdiak... Pasai-Antxon "txabolsotoa" antolatzen zen eta lortutako dirua ikastolarentzat bideratzen zen. Lizeoak, garrantzi handia ematen dio hiru gauzei: herritartasunari, euskarari eta parte-hartzeari.

2.214. Gurasoek sortu zituzten ikastolak (LEZ-119/039)

Gurasoek sortu zituzten ikastolak, elizaren laguntzarekin. Kutxa banketxeak ere laguntza ematen zuen. Ikastolako bazkide izateko, gurasoek diru asko ordaindu behar zuten.

2.215. Ikastola ezberdinetako irakasleen arteko harremana (LEZ-119/044)

Pasaia-Lezo lizeoak, Hernaniko lanbide eskolarekin harremana zeukan. Haiek ere Freinet metodoa erabiltzen zuten. Udan, irakasleentzako ikastaroetara joaten zen Jone. Bertan, beste herri batzuetako irakasleekin harremana egiten zuten.

2.216. Gaztelutxo elkarte; bazkide-motak (LEZ-119/046)

Pasaia-Lezo lizeoa sortzeko, gurasoek "Gaztelutxo" elkarte sortu zuten. Gero, kooperatiba integrala izatera pasatu zen lizeoa. Gaur egun, hiru motatako bazkideak ditu lizeoak.-

2.217. Lezoko ikastolan egindako hitzaldia (LEZ-119/052)

Behin, Lezoko ikastolan gurasoentzat antolatu zen hitzaldi bat ekartzen du gogora Jonek.

2.218. Ikastola aurrerakoia zen (LEZ-119/054)

Guraso batzuek ez zuten nahi izaten beraien seme-alabek gauza batzuk ikastea. Behin, ama batek esan zion, ugalkortasunari buruz hitz egiten zuenean, bere alaba klasetik kanpo atera behar zuela. Hala ere, guraso gehienak aurrerakoia ziren.

2.219. Gurasoekin harremana oso gertukoa zen (LEZ-119/059)

Elenak oso harreman estua zuen gurasoekin. Guraso batzuen etxera ere joaten bazkaltzera. Dena oso gertukoa zen, familiarra.

2.220. Irakasleek hasieran ez zuten kotizatzen (LEZ-119/060)

Ikastolan irakasle bezala lanean hasi zirenean, ez zuten kotizatzen. Jonek hasieran eskupekoak jasotzen zituen. Aparteko ordainsariak jasotzen zituen jaialdiak antolatzen.

2.221. Ikastolan dena eskuz egiten zuten (LEZ-119/063)

Ikastolan, gelako aldizkariak sortzen zituzten. Kalkoak nola egiten zituzten. Fitxak eskuz egiten zituzten, ikatz-ziri eta puntzoiekin.

2.222. Trantsizio garaiko mugimenduak eta borrokak (LEZ-119/065)

70-80. hamarkadetan mugimendu sozioal eta politiko handia zegoen eta askotan joaten ziren manifestazioetara. Gaztetan, etxean Radio Paris entzuten zuten. Unibertsitatea ere, borrokarako garaia izan zen.

2.223. Franco hil zen eguna Bergaran; ikurriña (LEZ-119/066)

Franco hil zenean, Jone Bergaran irakasle bezala zegoen lanean. Ez zuten jakin ikastola itxi behar zuten edo ez.

2.224. Elbira Zipitriaren sistema, Pasai-Antxoko lehenengo ikastolan (LEZ-119/070)

Elbira Zipitriarekin ikasi ez bazuen ere, Elenak Pasai-Antxoko ikastolan praktiketan ikasi zuena, metodologia berdinetik zetorren. Kontxita Beitia eta Nekane Auzmendiengandik ikasi zuen eta hauek Elbira Zipitriarekin ikasi zuten.

2.225. Ikastola, beti ikasleari, herriari eta metodoari begira (LEZ-119/072)

Pasai Antxon, ikastolaren hasierak Kontxita Larrea eta Nekane Auzmendiarekin lotuta daude. Elbira Zipitriaren sistema jarraitzen zuten eta gero etorri ziren irakasleek, sistema hori kopiatu eta moldatu zuten. Geroago eta gaur egun teknologia berriei ere moldatu dira. Hala ere, ikastolaren metodoa aintzaindaria izan da beti, metodoari, ikasleari eta herriari begira.

2.226. Guraso eta herritarren ausardia ikastolak sortzeko (LEZ-119/073)

Lehenengo ikastolako guraso eta herritarrak oso ausartak izan ziren. Proiektuan sinistu zuten eta dirua, lana, denbora eta nahia jarri zuten. Arrasateko Arizmendiarrak ikastola.

2.227. Manuela Larrea andereñoa (LEZ-120/002)

Etxean beti euskaraz egin dute. Umetan, ikastolara joan zen eta gero, "Padres de Familia eskolara". Manuela Larrea zen andereñoa eta euskaraz ikasten zuten. Ikastolako irakasle tituludun bakarra Don Inazio zen.

2.228. Garai batean ez zegoen euskaraz ikasteko aukerarik (LEZ-120/005)

Garai batean, euskaraz ikasteko aukerarik ez zegoen Lezon. Manuela Larrearekin ikasi zuten jaunartzea egin zuten arte. Don Inazio Esnal izan zen Lezoko ikastolaren bultzatzailea, irakasle titulada zuelako.

2.229. Manuela Larrea andereñoa (LEZ-120/006)

Ikastolan, gehiketak, kenketak, biderketak, irakurtzen eta idazten ikasten zuten, dena euskaraz. Zenbakiak kantuen bitartez ikasten zituzten. Manuela andereñoa zorrotza zen.

2.230. Manuela Larrearen ikastola Kale Nagusian (LEZ-120/009)

Ikastola garage batean zen, Kale Nagusian. Ikastola nolakoa zen azaltzen dute: andereñoaren gela, mahai eta eserleku luzeak...

2.231. Manuela Larrearen lehenengo ikasleak (LEZ-120/011)

Manuela Larrearen ikastolako lehenengo ikasleak dira. Ikastolak gero jarraipena izan zuen markesaren etxean eta eraikin prefabrikatuan, baina beraiei ez zitzaien toaktu bertara joatea nagusiagoak zirelako.

2.232. Lezoko ikastola prefabrikatua (LEZ-120/013)

Lezoko ikastola prefabrikatua eraikitzeko beharra. Lezo Haundi izeneko lekuan jarri zen. Beraien gurasoak ez ziren ibili ikastolako sortzeko prozesuan, baina Anderren osaba bat bai.

2.233. Euskarazko ekimenak Lezon (LEZ-120/015)

Umetan beti euskaraz egiten zuten, baina ez ziren beraien auzotik ateratzen. Patxi Larrearen euskal-dantza eskolan ibili zen Joakin eta prefabrikatuko antzerkietara joaten ziren. Antzezlan batean parte hartu zuen Anderrek.

2.234. Manifestazioetan beti polizia azaltzen zen (LEZ-120/020)

Frankismo eta trantsizio garaiko manifestazioetan polizia beti agertzen zen.

2.235. Elizan kontzertuak, zinema... (LEZ-120/021)

Elizan kontzertuak, antzerkiak, zinema... antolatzen ziren. Elizara asko joaten bai dotrinara, eta baita ekintzak egitera. Kultur ekitaldiak antolatzeke, gobernu zibilaren baimena behar izaten zen.

2.236. Lezoko Aierru elkarte (LEZ-120/024)

Lezoko Aierru elkartean euskal giroa zegoen. Ander dantza taldean zebilen. Eskubaloiko taldea ere bazegoen eta bertan gaztelania asko erabiltzen zela gogoratzen du Anderrek. Gainontzeko ekintzak euskaraz izaten ziren. Kantatzen ibili zen Ander elkarrekin batera.

2.237. Ipar Euskal Herrira ikurriñak erostera (LEZ-120/026)

Ikurriña erakustea galarazita zegoenean, elizan eta torreoian agertu izan ziren. Ipar Euskal Herrira joaten ziren ikurriñak, aldizkariak, liburuak, pelikula erotikoak... erostera.

2.238. Manuela Larrearen ikastola, garage batean (LEZ-120/031)

Manuela Larrearen ikasleak izan ziren garaian, ez zuten inguruan beste ikastolarik ezagutzen. Kalean egiten zuten errekreoa, ikastola barruan ez zegoelako lekurik. Euria egiten zuenean, etxera bustita bueltatzen ziren.

2.239. Pasaia-Lezo lizeoaren hasierak (LEZ-120/032)

Pasaia-Lezo lizeoaren sorreran, lehenengo lokalak Beraunen eta San Juanen zeuden. Hasieran Pasaia lizeoa deitzen zen. Eraikin handia sortu zenean, Pasaia-Lezo izena jarri zitzaion.

2.240. Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo irakasleetako bat (LEZ-120/033)

Ander, Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo irakasleetako bat izan da. Bertan lanean hasi zenean, eraikina ez zegoen osorik eginda. Obretan zeuden. 1978an hasi zen bertan lanean. Hasiera batean ikasle nagusienak joan ziren bertara ikastera eta gainontzekoek herrietan sakabanatuta zeuden. Ikastola bukatu gabe zegoela inauguratu zen. Ikastolako materiala beraiek prestatu behar izaten zuten: itzulpenak egin, fitxak egin...

2.241. Irakasle izanda, beti formatzen ibili beharra (LEZ-120/034)

Ikastolako Federazioaren bitartez, euskaraz alfabetatzeko formakuntza jaso zuen Anderrek. Bertan ikasitakoa, ikastolan erakusten zuen gero. Urte osoan zehar egiten zituzten ikastaroak, baita udan ere. Pedagogia berriak. Ikastolaran "Saioka" liburuak erabiltzen zituzten, fitxak sortzen zituzten eta multikopistarekin kopiak egin, taldeka ere egiten ziren gauzak...

2.242. Lizeoko autpbusak koordinatzeko zailtasunak (LEZ-120/036)

Ikasle asko zeuden lizeoan ikasten eta autobusak koordinatzea zaila izaten zen.

2.243. Garai bateko gurasoen inplikazioa ikastolan (LEZ-120/039)

Hasierako ikasleen gurasoek ausardia eta militantzia asko zuten. Ikastolaren parte handia ziren gurasoak eta laguntza handia eman zuten. Irakasleengan konfiantza handia zuten. Gaur egun ez da horrela.

2.244. Umetan ez ziren konziente erdal giroan bizi zirenik (LEZ-120/044)

Ikastolako eta umetako oso oroitzapen onak dituzte. Askok jolasten zuten. Erdal giro batean bizi zirenen kontzientziarik ez dute. Nagusitu zirenean hasi ziren hortaz konturatzen.

2.245. Lezoko euskarazko gau-eskolak (LEZ-120/049)

Ikastola prefabrikatuan eta elizaren azpian, euskarazko gau-eskolak ematen ziren eta Ander irakasle bezala ibiltzen zen. Ikasleak helduak ziren eta 19.00etatik aurrera izaten ziren. Gehienak alfabetatzera joaten ziren, baina batzuk euskaraz ikastera ere bai.

2.246. Pasamontes taberna (LEZ-120/051)

Herriko jaietan, Pasamontes taberna zabaltzen zuten ikastolako gurasoek. Joakin ibiltzen zen tabernari bezala bertan lanean.

2.247. Dotrina eta jaunartzea euskaraz (LEZ-120/056)

Igande arratsaldetan dotrinara joaten ziren eta katekistak lezioa hartzen zien. Jaunartzea euskaraz egin zuten. Lau apaiz zeuden garai hartan eta Don Inazio, Don Mateo bikarioa, Don Ramon eta Don Doroteo.

2.248. Eskola nazionaletan, neskekin hitz egiteagatik zigortuak (LEZ-121/003)

Eskola nazionaletan ikasi zuen. Hiru gela zeuden neskentzat eta beste hiru mutilentzat. Neskekin hitz egiten bazuten, maisuak makilarekin jotzen zien. Estebanek ez zekien gaztelaniaz eta etxera negarrez itzultzen zen.

2.249. Kanpotik etorritako umeei gaztelaniaz ikasten (LEZ-121/004)

Kanpotik lanera etorri zirenentzat sei etxebizitza eraikin egin zituzten eta umetan hara joaten ziren. Bertako umeei ikasi zuen gaztelaniaz hitz egiten. Dotrina

2.250. Neskek gaztelaniaz egiteko ohitura zuten (LEZ-121/007)

Dotrinako gauza asko ez zituzten ulertzen. Eskolan "Cara al Sol" kantatzen zuten.

2.251. Irakasleak ordaintzeko dirua biltzen etxez-etxe (LEZ-121/012)

Lezoko ikastolako bultzatzaileetako bat izan zen Esteban. Ez zuen seme-alabarik, baina herritar bezala proiektuan sinisten zuen. Etxez-etxe eta baserriz-baserri ibiltzen ziren ikastolako irakasleak kontratatatzeko dirua biltzen. Festetan, taberna batean sardinak saltzen zituzten.

2.252. Lezoko ikastolarentzat irakasle eta diru bila (LEZ-121/013)

Lezoko ikastolarako tituludun irakasle bila ibiltzen ziren. Udaletxera ere jo zuten, kurtso amaieran beste eskolei ematen zieten diru bat eskatzera.

2.253. Lezoko ikastolako udalekuak (LEZ-121/014)

Araban hutsik zegoen herri batean udalekuak antolatu zituzten, Agurain inguruan. Gurasoak bertara joaten ziren ere, janaria prestatzera, garbitzera...

2.254. Lezoko ikastolako bultzatzailea (LEZ-121/015)

Ikastolak geroz eta ikasle gehiago zituenez, gela gehiago behar ziren. Estebanen anai bat ibili zen elizako lokal bat konpontzen. Estebanek ez zuen seme-alabarik, baina euskaraz irakasteko beharra ikusten zuten.

2.255. "Padres de Familia"eskolakoen salaketa (LEZ-121/018)

"Padres de Familia" eskolako gurasoek, Lezoko ikastola salatu zuen. Ikastolari beti oztopoak hartzen zitzaizkion eta garai hartan hori izan zen Estebanen borroka.

2.256. Musikariak ekartzeko, zentsura pasatu behar (LEZ-121/019)

Ikastolak sortzearen arrazoi nagusi bat, euskara bultzatzea zen. Euskal Jaia ospatzeko batzordean ere zegoen Esteban eta Xabier Lete eta Lourdes Iriondoren letrak eraman behar izaten zituzten zentsura pasatzeko. Elizako kantak aurkezten zituzten, baina gero musikariek haien kantak jotzen zituzten.

2.257. Herriko batzordeetan sartzen ziren ikastolarako dirua lortzeko (LEZ-121/020)

Pantxoa eta Peiorengana joan ziren Baionara, Lezoko ikastolarentzat emango zen kontzertu bat eskatzeko asmoz. Bueltan, Carrera hil zutela jakin zuten eta guardia zibilak kotxea gelditu zien. Azkenean, Pantxoa eta Peiok ez zuten kontzertua eman, beldur bait ziren. Herriko festen komisioan ere sartuta zeuden, musikariak herrira eramateko eta ordainduko zitzaaien erdia ikastolara bideratzeko.

2.258. Lezoko ikastolako lehenengo gelak (LEZ-121/022)

Lezoko ikastola elizaren babespean sortu zen, Don Inazio Esnal apaizaren eskutik. Kanpora begira ere, formaltasun gehiago ematen zion. Lehenengo ikastolako gelak, abade etxean eta elizako lokaletan izan ziren.

2.259. Ikastolarentzat dirua biltzeko zozketak egiten ziren (LEZ-121/024)

Zozketak egiten zituzten eta txartelak 100 pezetara saltzen ziren. Egunero, 1000 pezeta irabazteko aukera zuen jendeak.

2.260. Gizarteak ikastola laguntzen zuen (LEZ-121/025)

Ikastolarentzat dirua ateratzeko taberna bat zabaldu zuten. Bazkariak eta afariak ematen zituzten. Lehengaiak (sagardoa, arrautzak, sardinak...) ikastolarentzat zirenez erdi prezioan lortzen zituzten.

2.261. Lezoko gau-eskolen sorrera (LEZ-121/026)

Lezoko ikastolarekin batera, euskarazko gau-eskolak ematen hasi ziren. Hasieran, Oñatibiaren metodoarekin alfabetatzen hasi ziren. Gero, euskara batua ikasten hasi ziren eta jende asko joaten zen gau-eskolara. Esteban ere ibili zen klase batzuk ematen.

2.262. Lezoko ikastolako udalekuak Agurain inguruan (LEZ-121/030)

Lezoko ikastolak, udalekuak antolatu zituen. Lehenengoa Agurain inguruan izan zen. Dena gurasoek antolatzen zuten (bazkariak, garbiketak...).

2.263. Guardia zibilak atxilotuta "Gora Euskadi" esateagatik (LEZ-121/033)

Guardia zibilaren koartela, eskola izandako eraikin batzuetan zegoen. Herriko festa batzuetan, Aizpea tabernan zeudela, Mañuel Salaberriak "Gora Euskadi" esan zuen eta guardia zibilak atxilotu egin zuen. Herritarrak, alkatearen etxera joan ziren Mañuel askatzeko eskatzen. Guardia zibilak, nahi zuena egiten zuen herrian.

2.264. Bikarioak galdera deserosoak egiten zituen (LEZ-121/035)

Konfesatzera joaten zirenean, bikarioak nesken kontuak galdetzen zizkien. Zortzi urte zituzten. Bikarioak penitentzia banatzen zuenean, amak jakiten zuen bekatua txikia edo handia izan zen. Beste batzuei bikarioak zaplastekoa ematen zien. Haurrak ziren eta ez zekiten sexuari buruz ezer, baina bikarioak zirikatu egiten zien.

2.265. Aierru elkartean euskararen-erabilera (LEZ-121/037)

Aierru elkartean, hasieran euskarari ez zitzaion horrenbesteko garrantzia ematen. Ikasotlako zuzendaria aukeratu behar zen batzarrean, Joxe Mari "Trekua"-k esan zuen euskalduna izan behar zuela. Beste batzuek, ordea, ez zioten horrenbesteko garrantzirik eman. Elkartea, dagoen jendearen arabera euskaldunagoa zen edo ez.

2.266. Ikastola prefabrikatuko lehenengo ikasleetako bat izan zen (LEZ-122/005)

1973an hasi zen Lezoko ikastolan ikasten. Ikastola, egurrezko eraikin prefabrikatu bat zen, plazatik gora igotzen zegoena. Burdinezko ate berde astun bat zuen ikastolak. Belardi baten erdian zegoen. Gurasoek bultzatutako eraikina izan zen. Asun Larrea eta Agustina Pontesta izan ziren bere lehenengo irakasleak. Gero, Markox Zabaleta eta Elena Mendia izan zituen irakasle. Urtebete t'erdiz, ikastolak Beraunen zuen lokal batean ikasi zuen eta handik Pasaia-Lezo lizeora pasatu zen.

2.267. Antxoko ikasleak Lezora ikastera joan zirenean (LEZ-122/006)

OHO-ko 1. mailararte, Lezoko haurrek elkarrekin ikasten zuten. Orduan, Antxoko ikasle batzuk heldu ziren eta katarsi moduko bat bezala gogoratzen du. Ume ezberdinak ziren, beste ohitura eta giro batzuekin, erdaldunagoak ziren... Denborarekin oso lagunak egin ziren. Antxokoak, Ibaiondo izeneko eraikin batekin zeuden.

2.268. Lezoko ikastola prefabrikatuko oroitzapenak (LEZ-122/007)

Lezoko ikastola prefabrikatuko oroitzapenak. Katuak egoten ziren inguruan. Naturarekin harreman handia zuten. Eskola nazionala parean zegoen. Klasean kanta asko ikasten zituzten, asmakizunak, hitz egin, marraztu,

2.269. Erregimeneko ikuskatzailearen bisitak ikastolara (LEZ-122/008)

Ikastolara tarteka ikuskatzailea joaten zen. Lehenagotik andereñoak abisatu egiten zien. Guardia zibilak ere ikusi izan ditu ikastolan eta orduan ez zuen ulertzen zergatik.

2.270. Ikastolako paretan, Fofu pailazoaren marrazkia (LEZ-122/009)

Ikastolako gelako paretan, Fofu pailazoaren eta Iribar futbolariaren posterrak zituzten.

2.271. Lezoko ikastolaren jarduerak; Olentzero (LEZ-122/011)

Ikastolaz kanpoko jarduerak egiten ziren: Gabonetarako, Santa Agedarako... Euskaraz ez zekiten gurasoentzat gau eskolak egoten ziren. Herriak areto bat behar bazuen, ikastolak uzten zion. Olentzeroren ospakizuna nola egiten zuten. Lezon Olentzero ateratzea aspaldiko ohitura zen. Hasieran ez zituen opariak ekartzen.

2.272. Naturarekin kontaktu handia ikastolan (LEZ-122/013)

Ikastolan, nahiz eta mahaia egon, askotan lurlean jarrita egoten ziren. Eguraldi ona zegoenean, zelaira ateratzen ziren irakurtzera. Beti animaliaren bat eramaten zuen Joxe Luixek gelara, eta gero askotan hilobiratu egiten zuten zelaian bertan. Lohitutako aldapa bat jeisten zuten eta "motokrosa" deitzen zioten horri. Etxera lokatzez beteta joaten ziren.

2.273. Ikastolako ikasleak izatea zer zen (LEZ-122/014)

Konzierte ziren ikastolan euskaraz ikasten zutela eta gainontzeko eskoletan ez. Etxean, erderaz egiten bazuten, eskola nazionalera bidaliko ziete esaten zieten mehatxu bezala.

2.274. Ikastolak, gela eta lokal ugari behar zituen (LEZ-122/015)

Beraunen zabaldu zen ikastolaren gelan ikasi zuten, Lezoko ikastola prefabrikatua ez zirelako denak kabitzen. Gero herri guztiak elkartu zirenean, 100 bat ikasle ziren promozio bakoitzeko.

2.275. Lezoko hasierako ikaslearen oroitzapena (LEZ-122/018)

Bi urterekin hasi zen Lezoko ikastolara joaten, markesaren etxean deitzen zaion lekuan, Asun Larrea eta Agustina Pontesta andereñoekin. Ikastola prefabrikatuak berri usaina zuen. Berogailuak zituzten. Ikastolaren dinamika kontatzen du. Ostegunetan mendira joaten ziren. Bi untxi izan zituzten behin, baserrian bizi zen ikasle batek eramandakoak, eta kanta bat egin zieten.

2.276. Eskola nazionalekoekin pikeak (LEZ-122/019)

Maila ezberdinetako ikasleak, gela berdinean ikasten zuten. Markos Zabaleta izan zen irakasleetako bat. Eskola nazionalekoekin liskarrak eta pikeak izaten zituzten.

2.277. Auzoko eta herriko beste umeeekin harremana (LEZ-122/022)

Mikelek kalean ikasi zuen gaztelaniaz ikasi zuen. Bere auzoan kanpotik etorritako jende asko zegoen eta arrotza sentitzen zen bertan. Herriko gainontzeko haurrekin harremana.

2.278. Beraungo ikastolan, Atxoko eta Lezoko ikasleak (LEZ-122/023)

Lezoko ikastolatik, Beraunen zegoen ikastolara apsatu zen Mikel. Han, Antxoko ikasleekin elkartu zituzten. Hasieran asko borrokatzen ziren. Nekane Azurmendi irakasleak Garoa liburua kapituloka irakurtzen zien.

2.279. Xabiertxo liburua (LEZ-122/024)

Xabiertxo liburua erabiltzen zuten markesaren etxeko ikastolan.

2.280. Ikastolako talde-argazkiak (LEZ-122/028)

Ikastola prefabrikatuan, 1969koak eta 1970 jaiotakoak elkarrekin zeuden. Ikastolan atera zizkieten taldeko-argazkiak gogoratzen dituzte.

2.281. Erlojua zen jaunartzeko opari arrakastatsuen (LEZ-122/029)

Jaunartzea euskaraz egin zuten. Erlojua zen gehien oparitzen zena.

2.282. Ikastolako ikas-materialak (LEZ-122/031)

Ikastolan erabiltzen zituzten liburuak aipatzen ditu Joxe Luixek. Gaztelaniazko liburuak 5.maila inguruan irakurtzen hasi ziren. Aurretik, Joxe Luixek ez zekien gaztelaniaz hitz egiten. Lizarrakoa zen bizilagun bati entzuten zion. Ikas-materialak.

2.283. Ikastolako metodologia, euskal kulturarekin lotuta (LEZ-122/032)

Ikastolako metodologia ezberdina zen. Euskal kultura, mitologia, historia, gertaerak, geografia...asko lantzen ziren eta gainontzeko eskoletan ez.

2.284. Ikastola legalizatu gabe zegoenean (LEZ-122/034)

Ikastolako eskolaratze-txartelean "Escuela parroquial de Lezo" jartzen zuen, oraindik ez zegoelako legalizatuta. Don Inazio eta Don Mateo. Ikastola prefabrikatua, alegalitate baten barruan sortu zen.

2.285. Pasamontes taberna, ikastolarekin lotuta (LEZ-122/035)

Lezoko "Pasamontes" tabernan, ikastolarentzat dirua lortzeko edo ikasi-bidaiarentzat dirua irbazteko janaria saltzen zen. Amek etxean kozinatu eta bertara eramaten zituzten eltzeak. Herriko jaietan, rifak eta zozketak saltzen ziren. Gurasoek apostu handia egin zuten ikastolaren proiektuaren alde.

2.286. Irakasle tituludun beharra ikastolan (LEZ-122/036)

Lezoko ikastolan irakasle tituludunak behar ziren. Mari Carmen Goñi, Lekarozetik nola ekarri zuten kontatzen du. Manoli Larrea andereñoak ez zuen titulurik eta irakasle izateari utzi behar izan zion. Manolik haur hezkuntza

ematen zuen, baina gurasoek beraien seme-alabentzat euskarazko hezkuntza-maila altuagoa bat nahi zuten. Ikastola prefabrikatuan zeuden irakasleak: Asun Larrea, Agustina Pontesta, Maite Etxebeste, Maxux Zugazti, Emi Mujika...

2.287. Lizeoa bukatu gabe zegoela hasi ziren bertan ikasten (LEZ-122/037)

Pasaia-Lezo lizeoaren eraikina bideratzeko, Gaztelutxo elkarteak sortu zuten gurasoek. Lizeoan ikasten hasi zirenean, hau bukatu gabe zegoen oraindik. Lizeoan zeudela, norbaitek bere buruaz beste egin zuen handik gertu eta lizeoa egiten zeuden obretako langileak joan ziren haren bila.

2.288. Elena Mendia irakaslearekin mendira (LEZ-122/041)

Elena Mendia irakasle izan zuten biok. Batzuetan, igandetan mendira joaten ziren berarekin, bere bikotearekin eta txakurrarekin. Irakasleen inplikazioa handia zen. Loreak biltzen zituzten, zapaburuak harrapatu...Behin kamaleoi bat harrapatu zuten.

2.289. Ikastolan neskak eta mutilak beti elkarrekin (LEZ-122/042)

Beraungo ikastolaren ondoan beste eskola batzuk zeuden. Ikastolan neskak eta mutilak beti elkarrekin ibiltzen ziren. Beste eskoletan eta udaleku batzuetan, ez.

2.290. Ikastolako lagunekin solfeoan eta dantzan (LEZ-122/043)

Ikastolan ibiltzen ziren gehienek, dantza eta solfeo egin zuten. Ikastolaz kanpoko jardueretan, ikastolako jendearekin ibiltzen ziren.

2.291. Umetan kaletik bakarrik ibiltzen ziren (LEZ-122/044)

Gurasoen ikuspegia nola aldatu den kontatzen du Joxe Luixek. Ikastolan hasi zenean, lehenengo 3 egunetan amarekin joan zen baina gero bakarrik joaten zen eta enkarguak egiten zituen etxera bueltan.

2.292. Franco hil zenean ikastolan jai izan zuten 3 egunez (LEZ-122/047)

Franco hil zen egunean, ikastolara joan ziren eta Agustina andereñoak etxera 3 egunez joateko esan zien. Baloi batzuekin joan ziren etxera, pozik. Mikel Abaigarren zegoen udalekuetan.

2.293. Giro politikoa Franco hil zenean, umearen ikuspegitik (LEZ-122/048)

Egoera politikoa ez zuten kontzientziarik, baina bazuten euskal kontzientzia. Ikurriñak pintatzen egon ziren Franco hil ostean. Plazan kanta batzuk abestu zituzten eta ikurriñak atera zituzten. Ez ziren guztiz kontziente egoera politikoa, baina bazekiten zerbait berezia zutela ikastolan ikasteagatik, gurasoen konpromezuaengatik...

2.294. Boom industrialean heldutako hurrekin harremana (LEZ-122/049)

Espaniatik Lezora joandako hurrek, "vascos" deitzen zieten. Dikotomia bat zegoen. Kanpoko hurrak udan haien herrira joaten ziren. Mantxurrianoak deitzen zieten.

2.295. Neraberazaroan gaztelaniaz hitz egiten zuten (LEZ-122/053)

Mikelek hamasei urterekin izan zuen euskararekiko kontzientzia. Joxe Luixek 17.18 urterekin izan zuen, AEKn sartu zenean. Teorian euskaltzalea zen, baina kuadrilan gaztelaniaz egiten zuten. Neraberazaroan gaztelaniaz hitzegiteko joera bat azaldu zuten, baina gero berriz euskarara jo zuten.

2.296. Gerraurreko eta osteko ikastolak Lezon (LEZ-122/055)

Lezon euskarazko hezkuntzaren lehenengo zantzuak 1930ekoak dira. Miren Gesala Zagarzazu andereñoak zabaldu zuen lehenengo ikastola. Agustina Lizarazuk dotrina euskaraz irakasten hasi zen, Kale Nagusian. Kantu eta jolasen bidez euskaraz irakasten zuen.

2.297. 1960ko Lezoko ikastolaren sorrera eta garapena (LEZ-122/056)

1960an, Manuela Larreak ikastola zabaldu zuen Lezon, Agustina Lizarazuren bidea eta metodologia jarraituz. Don Inazio abadeak hartu behar izan zuen ikastolaren ardura, berak irakasle titulua zuelako. 1968an, markesaren etxeiko ikastola prefabrikatua eraiki zuten eta irakasle gehiago hasi ziren bertan lanean.

2.298. Pasaia-Lezo lizeoaren sorrera (LEZ-122/057)

Gurasoek, haien seme-alabek hezkuntza guztia euskaraz egitea nahi zuten. Inguruko herrietan antzeko proiektuak zituzten pertsonekin harremanetan jarri ziren. 1969an gurasoen elkarte bat sortu zen eta Lezoko eta Pasaia Antxoko ikasleak elkarrekin ikasten hasi ziren. Handik sortu zen Pasaia-Lezo lizeoa. Lezon, lizeoa sortu bitartean egon ziren ikastolaren lokalak aipatzen ditu. Gurasoek eta irakasleek, auzolanean ikastolako proiektua aurrera eraman zuten: garbiketak, administrazioa, diru-bilketak...

2.299. Herria banatuta ikastola zela eta ez zela (LEZ-122/058)

"Padres de Familia" edo Guraso Elkarteko ikastetxearen salaketa ikastolara. Herrian bi komunitate sortu ziren.

2.300. Lehenengo ikastolako gurasoen ausardia (LEZ-122/060)

Lehenengo ikastolako gurasoen ausardia goraipatzen du. Aierruren sorrerarekin parekatzen du.

2.301. Pasaia-Lezo lizeoko inaugurazio eguna (LEZ-122/064)

Pasaia-Lezo lizeoko inaugurazioan, ikurriña handi bat jarri zuten. Jende asko zegoela gogoratzen du. 1980ko urtarrilean joan zen Joxe Luix bertara ikastera.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com